

Aita Onaindia

# *Bizkaiko Olerkariak*

OLERTI  
EGUNA  
LARREA  
1980



**AITA ONAINDIA**

**Bizkaiko  
Olerkariak**



**LARREA 1990**

## BERBA BI

Ez gara inoiz kontuan jausiko, egoki litzakigun arren, zelako jeografi puntuan aurkitzen garean. Munduko beste toki ta errialdeai ezertxo moztu bage, gure lur bazatrra egi-egiaz dozu bikain, goragarria. Geurea dalako bear bada? Ez legoke txarto, Zoaz munduan zear, eta urretxuarrek lez zuk bere oiu egingo: «Zoaz Euskalerria!!».

Gizatalde bat dozu bertan, lehen seme anda, edestiaren izpi-aurretik bertan zana, mende luze-luzeetan bertan irauna, bizi naiez betea ta lau aizeetara bizi-naiez garraxi dagiana.

Eta biotza ta eztarria bai daukaz, bere lurra ta birtuteak abestu ditu, bere mendiak eta legeak, bere barru leia ta atsekabeak Maitasuna kantatu dau eten barik.

Euskalduna kantari datorkigu beti: mugaz andik kantari, Zuberotan eta Lapurdin, kantari Araban eta Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian. Txoriari nok jarri oztoporik kantatzeko?

Bizkaitarrok oraingoan emen ditugu kantari talde bikaina, mendez mende orretan ekinia.

Ni neu, ia neure bizialdi osoan, gure erriaren kanta artean ibillia nozu. Leenengo «Milla euskal Olerki Eder» (1954), gero «Olerki» aldizkaria ta «Euskal Literatura» (laster dator 6'garren alea).

Bear diran baimenakaz

© Aita Onaindia. Larrea, 1990

I. S. B. N.: 84-404-6501-7

Legezko gordaillu: BI - 699 - 90

IGARRI, S. C. L. — Rafaela Ibarra, 1 — 48014 - BILBAO

Eta orain esku artean dozun Bizkaiko olerkarien ale berezia. Leendik be ba-dozu beronen barria, danak ez, ba ña asko beintzat, Bilboko ZER aldizkarian emondako lanak bait dira. Urteak dirala asi nintzan Bizkaiko poesi idazleen bizitzak aztertu ta euren oler-lanak batu ta aitzen emoten.

Zelako lanak eurok? Nik be emen, Orixek beñola. MEOE-ri itzautrea egitean iñoana esan bearke: «Ez neuke esango gure Bilbilarragaz *sunt mala, bai sunt bona* eta *optima; mediocria* bere bai, baiña euren tokia ba-dabe liburuan».

«On», txar» eta «erdizkako», noten anasa noraino eltzen dan eta lanak zelako begiak in ikusten diran, izan oi da geienbat. Ikuslea izan daiteke erdi-itsua edo ikusmen gaixoduna.

Dana dala, or dozu Bizkaiko olerkariak gailendu guraz osoturiko bilduma au. On egin daizula.

Larrea, 1990-2-15

AITA ONAINDIA

## EDESTIZKO ETA BARRU-MINEZKO OLERKIA, BIZKAIA'N

(1984'ko orrillaren 14'tik 18'ra, Bilboko «Euskerazaleak» Bizkaieraren Astea eratu eban. Niri «Edestizko ta barru-minezko olerkia» ipiñi eustien gai. Emen datorrena da lenengo egunean, astelenean, egin nebana).

Jaun-andreak

Olerkia, poesia, jarri daustie gai, besteak beste, gure Bizkaieraren Aste onen leenengo egunean, Epika ta Lirika saillean. Gai jakingarria, nik urte luzeetan ikasi ta aztertu dodana. 1954'an «Milla Euskal Olerki Eder» argitaratu neban eta arrezkero guztian euskal literaturari begira arduratu izan naz, gure poesia begikoen dodala. Lan au gaur ez dabe askok ikerlantzat artzen; baiña nik, alan be, uste dot euskal itz bat, morfema bat, joskera bat naiz itz-eratzte bat, an zein emen zelan adierazten dan erakustea baizen garrantzitsua dala gute aurretikoak zer egin eta zelan mintzatu ziran euskal arloan, aztertu, erakutsi ta aitzen emotea.

Ni onetan jarduna nozue neure bizitza guztian, euskal literaturari lotua buru-belarri, gau ta egun. Euskal literatura oraingoz, poesiaren edestia diñot, orren argi ta aztertua ba'daukagu, ezta geiegi esatea, neuk ogetamar urte dirala batu, osotu ta argitara emondako liburu mardulari esker da, batez be. Arrezkero, Olerki-liburu ortaz gaiñ, «Euskal Literatura» (sei ale aundi euskeraz) be argitara emona izan da. Ezta artobero usaiña, baktzari berea, zor jakona emotea baiño. Gaur ez da egi au, dan legez, ezagutu nai, eta orixegaitik diñot emen.

Aste onetan, eta gaur, nik beñola azterturiko gaiak beraztertzerara naroa emon daustien aginduak. Euskalerrri osoko literaturaz egin nebana orduan, orain, naiz ta labur, Bizkaikoaz egingo dauzuet. Ots, «Edestizko ta barru-minezko olerkia (Epika ta Lirika) bizkaierearen elertian» zerba't aztertu. Elertia naiz literatura bardin dozue. Bizkaiko literaturan, beraz, ikusi bear ditugu kondairazko ta barru-minezko poesiak, eta au, barriz esanda be, Bizkaiko literatura solo barrutian.

Kulturaren ezaugarri doxue poesia; ainbat ikuspegi edo puntutik begiratu gengike kultura, baiña unerik zeatzena izkuntzaren arikoa izango da beti. Guk lur-zati bat daukagu baitik bat, europarrak, amerikarrak, txinoak naiz errusiarrak euren daukien modu modura. Izadia noski, geure lurra, mendi, zugatz, ibai, itxaso ta abarrez betea, Jainkoak egin eta guri emondako lur-bazter zoragarri onen jabe gara gu, euskaldunok, lur-bazter onetan bizi gareanok. Lur au ez da berez kultura, baiña bai euskaldunok emona izan jakun izadi onegaz, luz-bazter onegaz egifia —etxeak, bideak, zubiak, itxas-ontziak—, au guzti au kultura dozu; kultura dira gure liburuak, gure legeak, gure kankak, gure doifnu ta dantzak, gure eziketak, gure literatura, dala itz-lauz dala olerkiz.

Euskalduna daukagu eusko-lur galfiean, millaka ta millaka urte ondoan, etsai ez txilkiz inguratua, gaur be oraindik bizi dana lur-moltzo onetan, eta bizi gura dauana. Gaur izadia zaintzeko, mendiak, abereak, erreka ta itxasoak jagoteko, antxiñakoen bizileku ta gomutagailluak gorde ta babesteko alegifiak egin oi doguz. Eta izkuntza? Gure euskera babestu ta indartzeko, zer egiten ete dogu? Berau ez al dogu euskal kulturaren zantzu ta laburpenik beifiena, ederrena? Gizona gizaldiak zear sendo ta kementsu saiatu izan da izadiaren (Naturaren) aurka burrukan, janaria eskuratu nairik, esate baterako. Gizonak barriz itz-egin dau auzokoakaz, bere kidekoakaz zelan jokatu dauan adierazteko; or beronen saioak, egin-naiak, izerdiak ari ta oni iragarri ta esanak. Kulturaren itxituan gagoz. Kulturaren emoitx dozu izkuntza; bai, izkuntzan dago kulturaren mamifia, nai ba'dozu, ardatza. Pentsalari da gizona ta pentsamentuaren ekarriak dira, izkuntzanren bitartez, gure lanak, obariak eta aurrerakuntzak. Kulturak eta izkuntzak artu-emon estu-beroa dabe alkarrekin.

Eta kulturarik oso nagusiena, beste arte-adarrai ezertxo be moztu barik, kulturarik trinko ta ederrena, literaturazkoa da, liburuetan daukaguna. Liburuetan dagoz irarrita, josita lez, gure buruaren sorpenak, pentsamentuak, ideiak. Eta pentsamentuok batzuk prosaz dagoz adierazorik, beste batzuk itz-neurtutan, olerkietan.

Onenbestez jo daigun arloru. Ikus daigun euskaldunak, Bizkaizkoak ain zuzen, zer itxi dauskuen gizaldietan zear itz-neurtuz;

zer kantatu daben edestian zear, jazotako gauzak naiz asmatutakoak, au da, koplau zaarrak —maiteleloak, illetak, abestiak—, eta zer itxi dauskuen barrumifari buruz olerkiz idatzita.

Gai zabala ta jakingarria. Lau ataletan emongo dautzuet guztia:

1. *Kopla zaarrak bizkaieraz*: Maite-leloak, illetak, abestiak.

2. *Aozko elertia arlo onetan*.

3. *Idazlaririk ospetsuenak*.

4. *Gaurko eletiaren giroa edestizko ta barru miñezko olerki-saillean*.

## I. KOPLA ZAARRAK

### I. Zer ditan

Istoriaren leen-laiño artean galtzen jaku errialde guztien literatura, aozkoa beifnik-beifñ. Orrez gero ez jaku errez izango aren asietaren aztarna, bere leenean, aurkitzea. Urrun dau jatorria, baiña aoz adierazten ditu gizasemeak bere gogai ta buruzko sorpenak; eta miñezko adierazpen ori dogu izkuntzaren leenengo frutua. A'an be, or geratzen dira antxiña bateko gizonaren —euskaldunaren— misteriozko itzak, esakerak, bertsoak, kopia zaarrak. Alegifiak alegin, ez jaku errez noiz eta nungoak diran jakitea, baiña or daukaguz orreik, koplau zarrak.

Etorkizunari begira, gizonak bear bada, tresna barriz nunbait, ondoren letorken gizonak, gure eta antxiña-antxiña bateko gizonaren itzak, berbotsak eta abar, jasoko ei ditu. Orduan ausaz zerbait lortuko dabe, geroko gizonak diñot, orain illun-lezan daukaguzan gure koplau zarrak, gaur airean zear kulunka antxo dabilzkanak jaso ta adierazoz. Olan, areik be miñez doetuak ziralako, ta motelak ez izan, ba leiteke, bai, b'isate au, arein solasak, itzak eta barru-asmoak tramankulu bereziz artuak izatea. Eta orrela gure ondorengoak jakingo dabe nortzuk izan ziran gure guraso ta arbasoak.

Dana dala, euskalduna beti izan da kantari. Eta amaika kanta eder ba-da ortzipean dantzari. Bear bada erri osoa izan jaku, gaur be guztiz kantari agertzen data. Euskaldunak ederra sentitzen dau, edonok ez ba'daki be bera jaso ta adierazten. Beti aurkitu izan dira euren artean, batzuk beste batzuk baiño geiago bat-bateko jardunez saiatu diranak, euren barrua, euskal erriarena, sentipen biziz azaltzen alegindu diranak. Griegoak euren rapsodak eukezan, adibidez, Erdi Aroan juglarrak ebiltzan erriz erri ta jauregiz jau-regi, euren erriak gudatean naiz bakean sustatzen. Gurean bertso-lariak egin izan eben, eta gaur de ba-dagie, lan gorgesgarri ori.

Naiko aberatsa dogu euskaldunon aozko literatura. Kantuz emona geienik. Eta kantuan musikaren doina zaindu bear da ezinbestez. Kantuaren egiturak eskatzen dausku silaben neurria, azken oskaditsu edo errimea, barruko airea, erritua deritxona. Z r dituzu eurok? Zortxiko txikiak, esaterako, zazpi ta sei silabaren neurria dau, eta silaba bat geiago ezarten ba'dautsozu, laster agertzen jatzu neurriaren utsegitea; zortzi bertso-lerro daukaz, 6/7, eta bertso-lerro bat geiago sartu ezkeru, laster dozu naastea; bertso-lerro bakotzak barne doraon edo eroan bear leuken barru-igitura be inportantzi aundikoa da. Onak ezarten dautso bertsoari doinutasun berezi-berezia.

Alderdi askotatik begiratu geinkie kopla zaarrai. Emen, baiña, euren gizarte egiteko zeatzari begira aztertuko doguz batzuk eta bakar-bakarrik, beste alderdiok gaurkoz beintzat albora itxirik. Oso apartekoak dira kopla zaarrak euskal literaturan, Bizaiain bertone be asko erabiliak. Abestiak dira, edo-ta izan dira geienak; teknika berarizkoa dabe. Euskalariak, au da, gai oni oratu dautsoen guztiak ez dautse euroi izen bardiña ipiñi. Manuel Lekuona'k, esate baterako, «kopla zaarrak» deritxenei Azkue'k «Eskala-tienak» dakar, eta beste.

Azkue'k, dirudienez, errondian abesteko ziranai begira osotu euskun bere sailketa. Lekeitiar jakintsuak erri-ol'erkietan sartzen ditu: Aldartekoak, dantzakoak, edaleenak, elizarakoak, *eskelariek*, ezteietakoak, gertaridunak, illetak eta ipuiñak.

Irakur, erakusburu lez, «Erromerua» deritxon au:

Erromerua loratsu  
beti Jainkoa amatu,  
orain emendik  
bear genduke  
etxeko andrea koplatu.

Etxeburuan oillar bi,  
batak bestea dirudi.  
Etxe onetako etxeko andreaak  
Ama Birjiña dirudi.

—Santa Ageda santia,  
Muniketako loria,  
martirioak pasa zenduzan  
igartearren fedea.

—Bedeinkatua izan dedila  
etxe onetako jentea,  
pobre ta umilde direanentzat  
badauke borondatea.

Itzak eta ideiak alkar lotzeko era au, antxiñakoa dogu euskaldunok, antza danez. Beste izkuntzak ez daben oiturazko tankera bat, idurimen azkarra derakuskuna. Adibidezko estrofa biotan, iduria ta pentsamentua daukaguz, argi ta garbi. Aurrenik erromerua dakur olerkariak loratsu, ta idurimena joako bertatik Jainkoagana, «beti Jainkoa amatu» esanik; ondoren dator pentsamentuaren esan-naia, etxeko andrea koplatu ta abar.

Bigarren estrofan oillar bi iruditzen ditu olerkariak etxaburuan, biak antzekoak, eta gogora datorrio beingoan aurrean daukon andreak Ama Birjiñaren itxura dauala, «Etxe onetako etxeko andreak / Ama Birjiña dirudi», esanaz. Era berezi-berezian lotzen ditu iduria ta esan-naia.

Jose Ariztimuño'k, Aitzol'ek, bertso-joko au azaldu nairik, estrofearen leen-zatia «oiu-egillearen» deia dala diñosku, eta bigarren zatia, oiuegille edo mezulariaren atzetik datorren zalduna. Aren itzak: «Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen; beste onako au, oldozkuna, oiuegillea adierazten dauen zalduna lez, aazkena. Eredue eta amets asmaketak irudimenaren seme arroen antzera; oldozkuna, bertiz, adimenak sortutako ondorengo nagusi balitzaiguke bezelaxe». Onela edo:

*Irudia:*

«Otea lilia danean,  
txoria aren gainean».

*Gero oldozkuna:*

«Zure ta nere amodioa  
ala dabila munduan».

Euskaldunak maite izan dau bere lurra, Izadia, eta bertso-lan bat osotzerakoan, araxe doakio lenengo bere irudimena. Eta, egi-egiaz, araxe beste ez dauko zetan joanik irudi eder billa; arexek emoten dautso gairik naikoa, sotil baizen atsegin, au da, laiñoak, ametsak, maatsak, neguak, eper zango gorriak, mertxikaren loriak, txori papogorriak, zeruko izarrak, z'riko baltzak, baratzeako pikuak, urretxindorren goiz-aldeko ekiñaldiak, errotaren kalaka-otsak, barne-zauskada triste ta samurrak... ez dau geiago bear bertso biribil, sakon, giartsuak burutzeko.

Aitaturiko zati ziok, alan be, lokera zeatza dabe. Gai ontzaz poliki idatzi dauan J. M. Lekuona'k onela diño: «Pre-logikaki» egindako lotura hau dugu, teknika aldetik, kopla zaharra esanda aditzera ematen dugun estrofaren egitura ta berezko dinamika» (*Abozko Euskal Literatura*, 49 or.).

Ona Azkue jaunak Ipiña-Zeanuri'n batutako Santa Ageda 19 estrofako kantaren aapaldi batzuk: 1, 2, 9, 14, 16 ta 19.

Neuk ugazaba nekusan  
Izurdia'ko zubian.  
Ori zestotik urten artean  
gu emen dantza gaitezen.  
Ori, au egia!  
daigun jira bi, Maria.

Neure mutiltxu txoria,  
ik esan eustan egia:  
gaur gabean dantzauko zala  
nire emazte Maria.  
Ori, au egia!  
iretzat mando zuria».

## II. AOZKO ELERTIA ARLO ONETAN

Geiegi ikusi ta aztertu barik daukagun arren, gure aozko literatura ez da, esan dogunez, urri ez exkasa. Gure aurretik erri-poesiaz kezkatu ziranak, Txarles Bordes, Azkue, Aita Donosti, R. Gallop, J. K. Gerra, F. Mixel, J. Sallaberrí, J. Riezu ta besteak osotu ebezan bilduma ta antologiak eta kantutegiak ikusirik, abe-

ratsa dala esan geinke benetan gure erri-literatura, bai kopuruz, lanez eta bai zelakotasunez, au da, barruko garrantziz. Gai ontz obeto konturatzeko, lan bikaiña izango litzateke kantutegiok daben mamiña ta azala, barne-guna ta jantzia astiz eta txeraz aratu, aztertuta gogo emotea. Ez genduke orretan denpora galdu egingo.

Gai au naikoa sakon beatu eban J. M. Lekuona'k onela autor-tzen dausku: «Gure arteko idazlanetan esandakoak eta kantutegietan dauzkagun gai aberatsak, elkarrekin konparatzen baditugu, zeregín bereziak aurkituko ditugu poema zaharren azterketan; hutsune nabariak, behar bada. Besteak beste, euskarazko konta-poesiari dagozkion berarizko xehetasunak oso gutxik aztertu ta finkatu izana» (*Idem*, 81 orr.). Utsune au aundiagoa iruditzen jaku oin-diño euskal erromantzeen inguruan agertzen dana.

Erromantzeak, gure aurretikoen gerta-kantak eta poesiak zatika bakarrik eldu dira gugana, musikari esker geien-geienbat. Aitatu doguzan gure altxor-batzailleak erriak erabiltzan musika-doiñua-kaitik batez be, oneik guztiz eder, sentikor eta aberatsak ziralako, bildu ta eskuratu ebezan baitik bat. Ez kantu orreik daukien letragaitik, musikagaitik baiño. Gure asabak, euren sentipenak adierazteko erabilli zituen doiñuak, musika, bizi-bizi daukagularik be, barriro diñot, musika orren letrea gizaldiak eta urteak zear leza illunean datzala esan bearrean gagoz. Ortaz gaiñ, gugana eldu diranak be, zatiak, pusketak besterik ez doguza'a. Beraz, ez da zeregín erreza pusketak orreik eratuz alkar lotzea, ezta erri-poesi bati gagokiozala, zein dan leenengo pusketak, zein dan bigarrena naiz amargarrena jakitea.

Azter dagigun, esaterako, gure konta-eresi bat, olerki epiku bat, aspaldi jazo, idatzi ta eraturiko bat; zer izan zan, noiz gertatu zan bera, nok idatzi eban, zelako neurkera darabillen, eta nekez aterako dozu zer argirik. Azkue'k bere Kantutegian, Bizkaikoen artean bakarrik, 54 dakaz, onela: aldarteakoak, 8; dantzarakoak, 20; edaleenak, 4; elizarakoak, 4; eskelarienak, 4; ezteietakoak, 4; gerturidunak, 2; illetak, 2; eta ipuiñak, 6. Eurok irakurriz oartzten gara, lan luzeago baten pusketak besterik ez dirala. Eta au jazoten jaku; egarbera urreratzen gara sorburura eta egarria pizkat arindu orduko iturriko ura intsugitzen jakula. Geiago xurgatu naian geratzen gara.

Irakur eizu au, naiko osoa, ain illuna ez dana:

«Egun on Jainkoak dizula,  
andratxo gaztea.

—Baita zeurorri bere,  
galaitxo maitea.

Senarrik eta ba al dozu,  
andratxo gaztea?

—Indietara joan zan,  
galaitxo maitea.

Umerik eta badozu,  
andratxo gaztea?

—Bi, seme ta alaba,  
jauna, or dira.

Umeok nundik dabiluz,  
andratxo gaztea?

—Eskolak ikastera,  
jauna, joan dira.

Zanko ederra dozu,  
andratxo gaztea.

—Nik alan gobernatu,  
galaitxo maitea.

Kopeta ederra dozu,  
andratxo gaztea.

—Nik alan orraztuta,  
galaitxo maitea.

Surtan erreko al zara,  
andratxo gaztea.

—Zeu illinti zareala,  
galaitxo maitea.

Urak eroango al zaitu,  
andratxo gaztea.

—Zeu aurretik zareala,  
galaitxo maitea».

Alderdi askotatik begiratu geinke poesi zaarra. Eta berau aoz datorriguna izan daiteke, ots, gurasoengandik seme-alabetara urtez urte ixuria; baita idatziz, amalaugarren gizaldiz gero batez be, naiz esku-idatziz naiz argitaratuta guganaño eldu dana, Eusko-idatziak, bertso-metak eta kantu-pilloak aurkitzen dira munduko liburutegi edo biblioteka askotan; argitara emondakoakaz be, liburu-sail galanta osotu geinke or emengo aldizkari, eguneroko ta idaztietan dagozanakaz. Oneitakoetan batzuk gerta-poesiak dira, konta-olerkiak, eta beste batzuk norbere barru-miñak sortuak, liriku saillekoak.

Gaur, zoritxarrez, erromantze deritxogun poesi-mota askotxo beeratu jaku. Olerkietan, gaiñera, gitxi baiño ez dogu sartzen al-karrizketa, gure asabak sarri erabilten ebena. Gaur-eguneko kale ta saloi-kantariak, alan be, abestu oi dabez gure lelo ta kontaerak, leen luze samarrak ziranak nunbait, baiña oso laburturik, estrofa batzuk geienik eta oneik bekantariak darabilten musika-doiñuari egokituz, pusketa batzuk ain zuzen. Aurretikoen gatxak jota gabiltza. «Gaurregungo ahogozorako luzeegiak diren kontaera poe-

tikoak, estrofen aukera egin ondoren —idazten dau J. M. Lekuo-na'k—, laburpen gihartsu baten gisa eman ohi dira. Horrenbestez, lauderduan dator usariozko altxorra, berez kontaera zena, orain laburturik, kantuaren eusgarri soil gertatzen dela» (*Ibidem*, 66 orr.).

Aurreko gizaldian be baiña XV eta XVI'garren gizaldiak doguz eredu epikuetan aberatsenak, ordukoak bait dira Aide Nagusien burruka ta istilluak; ordukoak edo aurreragotxokoak Akondia'ko gudu-kanta, Urruxolakoena, Milia Lasturkoren eresia, Gontzalo Moro'ren koplak, Peru Abendaño'rena, Arrasate erre ebenekoa, Olaso'ren ezkontzakoa, Sandaili kanta, Martin Bañez Artazubiaga'ren illeta, Salinas'ko kondearena, Alos'ko. Beltran'en eresia, Diego Lopez Harokoarena, Perutxo'ena, eta abar.

Bizkaitarrok ba-dogu beste kanta berezi bat. «Lelo'ren Kanta», zenbaitek egiazkoa ez dala esanagaitik, geurea doguna. Zazpi bat aapaldi ditu. Antxiñakoa dirudi, baiña ez dakigu noiz egiña danik. Erromatarrak emendik ibilli jakuzaneko burruka ta nasteak dakarskuz gogora. Galdua genduan nunbait, ainbat euskal kanta zaar lez; paper-auts ontzitu artean lo egoan, Markiña'n, Mugartegi'ren liburutegian, Humbolt alemanak aurkitu arte.

Euskalari batzuk, illunetatik iges egin naita agiri danez, ez dautsoe olako gora aundirik emon gura. Alan be, L. Mitxelena'k bere textu zaarren artean sartu ez arren, badau zaar-sunda. 1529' rantza ondua dogu, diñoenez. Bizka'tarra zan egillea, Arrati aldekoa, ibar orretako euskeran egiña da-ta. Anton Bedia arratiar zaldunak «Tratado de las cosas de Vizcaya» idatzi eban; Karlos Vgarren erregearen jauregikoa zan berau; onena ete dan susmoa dau, Lelo kanta au ain ederto aztertu ta argitara ekarri euskun J. K. Gerra idazle argiak.

Entzun berari: «Menendez Pelayo jakintsuak, bere jakinduri ta guzti, kantu au, gezurrezko bezela lurperatu bear zala idatzi zuanean, aztu zan noski berberak ez zeuzkala lurperatzeko ustean Karpio'ko Bernardo eta Lara'ko Infanteen kantak, gezurrezkoak izanagatik... Nork egizatuko dizkigu Ulises eta Eneas'en jazarra ta ibilkerak? Ordia ifortxok ez diete kenduko Omero'k eta Birgilio'k eman zieten bizitza illezkorra. Bere taiuan eta garri ederraren aunditasunean ez det nik berdinduko ez antzenduko Lelo'ren kanta



Odisea eta Eneida'rekin; ori ez. Gezurtasunean berdindu dezaket, ordea; eta irakurgai bi oiek ez badira latindarrentzat lurperatzeakoak, ez daukagu euskaldunak zerttan ta ez zergaitik lurperatu Lelo'ren kanta» (*Gure olerki zar-zarrak*, 126 orr.).

Ez dakigu zenbat aapaldik osotzen eben kanta au. Iburguren'en bilduman aldatuak datoz. Gaur, zelan idazten diran, zazpi edo amalau ezagutzen ditugu, oso samar. Onela dozu asiera:

«Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,  
Leloa, Zarak il Leloa.  
Oktabiano munduko Jauna,  
Lekobidi Bizkaikoa».

Lelo onek jatorriz *kanta* esan nai eben, XIII'garren gizaldi osteko textu batzuetatik agiri danez. Ori berori dakar Perutxo'ren kantak; eta Salinas'ko kondearenak. Etxepare'k onela, *Potaren galdatzia* deritxon lanean: «Eta lelori bai lelo/, pota frango/, bertzia bego»; eta *Sautrela*'ren amaieran: «Eta lelori / bai lelo lelo / zarai leloa». Iñoiz, dakusgunez, abestiaren asieran artzen zan, iñoiz baita amaierakoan; bertso-esaldiari neurria ta jasa emon teko erabilten eben, bear bada.

Itz ori geroago nortu egin eben, lelo Lelo biurtu nunbait. Gerra'ren irudimenak batez be, nortasun berezia ezarri eutson; idazle azkar onek, egia esan, ba-eban ortarako errazoirik, ainbat kanta zaar iñok ez bestean adierazo bai ebazan eta. Zillegi jako dakianari illun artean be bide egitea. Eta Gerra'k diñosku Txanton Bedia gizaseme azkarra zala, Karlos V'garrenak txit mai-tatua. «Orrek, nere ustez —diño—, euskerata biurtu nai izan zuen Agamenon'en kondaira eta otu zitzaion esatea Lelo zala erromarren aurka gudan ari zan bitartean bere emazte Tota adiskidetu zala Zara deitzen zan gazte batekin; onek Lelo gudatik etorri zanean il zuala Lelo, eta euskaldunak naigabeturik bota zituztela erritik kanpora arrika Tota eta Zara, et Lelo'ren izenak beti-betiko iraun zezan erabaki zutela kanta guzien asieran aipatutzea bere eriotza negargarria» (*Ibidem*, 125 orr.).

Leenengo Lelo'ren eriotza edesten dau egillak; ondoren bizkaitarrak erromatarrai egindako gudan bost urtez izan ebezan goraberak azaltzen ditu. Naiko zatitua dagoan arren, badau bizitasuna ta maiña.

### III. IDAZLARIRIK OSPETSUENAK

Irarkola, inprenta agertu zanetik, panpox agertzen jakuz liburu berezietan gizasemeen eta emakumeen oldozkun-biozkadak, orrietan txukun josi ta loturik. Euskeraz be Euzkadi'ko zazpi probintzietan daukguz liburuak. Leenengo agertu zana Beñat Etxepare'ren olerki idaztia dozu, gorago esan danez, 1545'an argitara emona. Bizkaia'n be ba-doguz euskal idazleak amaseigarren gizalditik ona; batzuk prosaz idatzi ebezan euren lanak; Betolaza'k adibidez XVI'garren mendean; Rafael Mikoleta lizenziatuak, Martin Otxoa Kapanaga mañariarrak eta beste batzuk amazapigarren mendean; Nikolas Zubia'k, Arzadun'ek, Basterretxea izpartertarrak, Sebastian A. Gandara gernikarrak eta Bartolome Olaetxea laukarizkoak amazortzigarrenean, eta oneitatik iruk beintzat itz neurtuak be idatzi ebezan, Basterretxea'k «Jeskristoren Pasiñoa», Gandara'k Gernikaldean abestuten ziran Marijesiak eta Olaetxea'k bere dotriña Lburuan sartu euskuzan bertsoak.

Emeretzigarren gizaldia na'ko aberatsa izan jakun euskal literaturan Bizkaia'n be. Ogetamar idazle datoz nire «Euskal Literatura»-n (2'gn. alean): J. A. Mogel, Pedro A. Añibarro, P. J. Patrizio Astarloa, Paulo Pedro Astarloa, J. Antonio Aboitiz, Aita Prai Bartolome, Domingo Kanala Etxebarria, Juan Mateo Zabala, Jun Kurutz de la Fuente, J. Jose Mogel, Bizenta A. Mogel, Pedro Novia Salzedo, Juan D. Unzueta, Aita Kristobal Linaza, Jose Antonio Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Balentin Berriotxoa, F. Martin Ortuzar, Balbino Garita-Onandia, Jose Maria Anpuero, Luis Zirilo Iza, Juan Jose Salazar, Ramon Etxezarreta, Aita Daniel Baertel, Andres Iturzaeta, Eustakio Madina, Meltxor Andonegi, Ezekiel Etxebarria, Bonifazio Latxa.

Oneitatik amaika beintzat bertsoz idazten be saiatu ziran. Juan A. Mogel'ek ainbat ipuin b'ribildu ebazan bertso giar eta ederto emonez; Bizenta Mogel'ek bere «IpuiOnak» deritxon liburuak ipuin mordo eskintzen dauku, Okendo'ko Ullibarri'k lez Gabon-kanta asko be ondurik; Bilbo'ko seme Mateo Zabala frantz'skotarrak bardin, ainbat ipuin ditu bertsoan, «Milla Euskal Olerki Eder» (263 orr.) ikusi daikezunez. Era berean idatzi eban bertsoz Arrigorriaga'ko seme Juan A. Uriarte'k, Balbino Garita-Onandia'k,

Eustakio Madina'k eta Meltxor Andonegi'k be, aitaturiko liburuan ikusi zeinkenez.

Guztion artean buru agertzen dana, alan be, lekeitiar Eusebio Maria Azkue, «Parnasorako Bidea» poesi-liburua idatzi ta aren seme R. M. Azkue'k, 1896'an, Bilbo'n argitaratu ebana dozu. Burua ta biotza, pentsamentuak eta sentipenak, ondo eioten ekiana zan Azkue, eta poesi-moltzo ederra da ak itxi euskuna. Ona lau aapaldi ikusteko ta gozatzeko «Mogel eta Txaraka» izenburua daroan 20 estrofako lanetik aterata. Irakur:

«Markiña'ko zaldun bat, etxagun andia,  
gazte dirutsua ta kristiñau garbia,  
bizi zan bere etxean umezurtz ta bakar,  
laguna nai ebal maite izateko alkar.

Gomuta eban bere aitak esaten eutsala  
zaldun bat mundurako gizon erdi zala;  
au ondo siñistuta zan bere gogoa,  
lenbailen izateko bera bere osoa.

Ez yakan ondo egiten geure zaldunari  
iñok ez esatea aitatu berari,  
eta Markiña'n iñor, orain ez lenago,  
ezta izaten bere aita baño gitxiago.

Apainduta gorputza, egun goiz batean  
joan zan ardi-billa zaldien ganean;  
arteztu eban zaldia damean etxera,  
izateko beretzat mandatari bera».

Danak ezpabere, au eta geienak zortziko txikian idatzita daukoz, esan dogunaz giar, sakon eta gatz-ozpiñez gainezka, jarioka. Ederto idatzi eban bein B. Erkiaga'k: «Gure errikide onen jita eta joera ezagunena ta agirikoena gai errikoiak, bizitzako gora-beera ta eguneroko jazoerak, eta gizasemeen egitada onakaz batean euren amarrukeri ta egitune doillorak jakin-erazotea da. Orduantxe da zorrotzen eta begikoen aren luma bizkorra. Esaterako, mediku-botikarioak, alperrak eta eskribauak eurak bere, ez yakaz lar atsegin. Bere aitarengandi entzun eta ikasi ete zituan lanbide orren kaltezko esan, uste, asmakizun eta izkirimiriak eurrez?» (*Oleriti*, 1961, I, 69 orr.).

Bertso teknika aldetik zorrotz zaindu zitun legeak. Zortziko txikia geienbat, lau puntuko egin bearrean, bi bikotan lotzen dau. Atsegin jako amaieran be, sofutasun bereziaz azkena emotea, «bertsuaren izakera jatorrari zintzo eutsi nairik beti ere». Bizkaitar izkelgia darabil.

Balentin Berriotxoaren santuak bertsoan idazten eutsan bere amari, Logroño'tik, Kadiz'tik, Manila'tik, Tonkin'etik... Leengo mendearen azkenerantza, lan ederra osotu eben Durango'n Garita-Onandia'k, Damaso Bernaolak, J. I. Arana jesuiteak eta Ramon Etxezarreta'k; lauok saiatu ziran prosaz eta itz-neurtuz. Bardin Eustakio Madina'k be.

Aurreko ta oraingo menderen artean, ankalatraba, Bizkaiko seme taldea daukagu; Arrese-Beitia, Etxeita, Txomin Agirre, Azkue, Arana-Goiri, Kirikiño, Gorgonio Renteria, Urkixo, Zirilo Arzubiaga... Arrese-Beitia, Etxeita, Arana-Goiri, G. Renteria musaillera be txeratsu eldu ziran.

Olerkari lirikua dogu Arrese-Beitia. Zer ete dogu au? Alan naiz onan, norbere izate barruko sentiera ta biotz-zeuskadak argitan jarrea, bakotxak bere barrumundua kantatzea. Eta au bakotxak egin oi dau berari ondoen dagokion lez, edo-ta modan dagoenez, «tinko naiz itz-ontzi, piko ta joeran». Arrese-gaitik esan oi dugu, bere garaiko seme zala. Eta nor ez? Beraz, poeta naiz idazle bati buruz eritxi emoterakoan, aurrenik poeta bizi izan zan g'itoko aizeak astintzea egoki be egoki litzakigu. Arrese-Beitia'ren egunetan, olerkariari barrua arrotzeko, jazokun bi daukaguz: politika aldetik, amaitu barria zala bigarren kanlista gudatea eta poesi-joera aldetik orduantxe itzaliz joiala ainbat urtean, eta erreifutun, nagusi izan zan erromantizismua. Auzi biok agiri dira otxamdiotarraren kompletan.

Arrese'k, aroztegiaren bear egiten ebalatik be, oierki asko idatzi eban. Eta eurok ez ziran auts-artearen geratu, aldizkari ta egunkarietan, txeraz argitara emonak izan ziran. Liburu lez, oneik: «Ama Euskariaren Liburu Kantaria» (Bilbao, 1900), 496 orrialde; «Asti-orduetako bertsozko lanak» (Bilbao, 1902); «Olerki Sortatxua» (Zornotza, 1930), 62 orrialde; «Olerkiak» (Zornotza, 1933), eta «Olerkiak» (Bilbo, 1956), 688 orrialde. Neuk egin neban argitailpen au, aurretik argitaratu liburuetatik eta beste aldizkari bbatzuetatik

arutako lanakin; ia aren denak bau ta sortatu nituala uste neban. Baiña ez, geroago ikusi dodanez, oraindiño ba-ditu geiago, «Euskal-Erria»-n eta «Ibaizabal»-en batez be.

Bederatzi sailletan banatu nitun nik, Arrese'ren olerkisorta gertatzerakoan: 1. *Kantu errikoiak*; 2. *Lirika kantuak*; 3. *Gora kantuak*; 4. *Amalaukoak*; 5. *Eliz kantak*; 6. *Alegiak*; 7. *Ipuiñak*; 8. *Irakurgaiak*, ta 9. *Erderatik euskeratuak*. Errikoiak ditu ederrenak, askoren eritxiz, lirikuak be bere lira bereziari eragiñik, egiñak diran arren.

Arrese'k ba-dau irudimena, eta ba-dau biotzondoa. Eta izkuntza aberatsa. Biotz-suak bizkortuta osotu euskuzan olerkiak. Eta orduko trajeria abesten dau, foruak galtzea, euskeraren ilzoria, euskaldunen negar garratza. Eziñaren eziñak sor-azotako bertso-ik dituzu aren lanik geienak. Iparragirre zein Arrese, erri-igarle bi ditugu; euren garaikoen naikari ta opa biziak kopla gartsuetan mamindu zituenak.

Irakur eizuz lau aapaldi oneik «Ama Euskeriari azken agurrak» deritxonetik aldatuta; zortziko nausitan dagoz:

«Zorigaiztoan negargarri ta  
dot sentimentu andia,  
geure lur maite dakustalako  
gaztelatuta jarria;  
bestela erdu, erdu ikustera,  
Tubal euskeralaria,  
baña ez dozu ezagutuko  
orain zure jatorria.

Nun dira, bada, zure semiak,  
Foru ta euskera zaliak?  
Non dira, bada, Tubal, gure aita,  
zure ondorengo garbiak?  
Nun dira, bada, zure ume zintzo  
eta leialen legiak?  
Nun dira orain, orain negarrak,  
nun dira nire begiak?

Agur illun bat egin dauskue  
guraso zarren legiak,  
omezurtz batzuk gelditu gara  
billoxik Foru bagiak;  
izan baigiña eurak legetxe  
euskeriaren zaliak,  
oso ta garbi gordeko ziran  
oitura ain miragarriak.

Zorioneko arkaitzak eta  
zorioneko mendiak,  
orain atrean zuek zare izan  
Foruen gordelariak;  
zuek goietan beti euskaldun,  
ez alan beien erriak,  
orra zer gero ekarri deuskun  
azkenian erderiak».

Eta amazzipigarren estrofan Gernika'ko Aritzera doakioz begiak. Eta negar betean kantatzen:

«Eta nun dozuz, zeruko arbola,  
zuk bere jantzi berdiak?  
Zure erramok billox dakustaz  
igar ta ezkur bagiak.  
Ai mingarria! Gaztela'ko arrak  
jan deutzuz sustrai guztiak,  
baita biotza, baita barruak,  
azala itxita bestiak».

Taiu onetakoak dozuz Arrese'ren kantak, errikoiak eta lirikuak batez be, barru-miñak surtuak. Sentieraz gaiñezka «Agur, ume», «Anjela», «Antxiñako denporetaan», «Zoaz ondo, ama!» eta gaiñerakoak.

Ain goi-maillakoak ez ditugula be; bertso-lan politik eundu euskuezan Jose Manuel Etxeita mundakarrak (beronena bait da «Au, Ori ta Bestia» poema liburua; Txomin Agirre, nobelari bikaiñak, arima neurritsua idazlanetan erion ondarrutar zintzoak be olerki-mondoa dau; Arana-Goiri goi-zale gartsu zanak kopla ederrretan ustua eban sarr bere izate urduria; Gorgonio M. Renteria

elantxobetarrak poesi asko argitaratu ebazan «Euzkalzale», «Ibaizabal», «Euzkadi» ta Zornotza'ko «Ekin»-en: bere alaba aspalditik dabil aitaren lan guztiak, prosazkoak eta bertsozkoak, batu ta sailkatzen liburu mardul bat osatzeko asmotan.

Eta geure gizaldiaren lenengo amarnakoetara jauzi egini, emen daukaguz «Otxolua» ta Enbeitarrak (Kepa ta Imanol), Kepa gure urretxindorra, bertsolarien mailla baiño zerbait gorago daukaguna. Asko ta ederrak dira aren lanak. «Gure Urretxindorra» liburuan batu nebazan nik aren lanak osorik, or edo an, banakaren bat oindioño be auri leitekena izan ezik. Idazti mardul, aberats, joria. «Euskal Literatura» (IV, 131 orr.), onela idatzi neban nik: «Gizon bezela naiz bertsolari bezela, gaillena duzu Enbeita. Ezta errez onen guztizko gizantza osatzea, Gizon bezela, egia, jaiki lez errotsua zan, Bertsolari zanez, euskal literaturaren pizkundean ba-du zer esana ta garrantzia muxikar aundi onek. Beronen olerkia, azal ta mami, sakon ederra bai dugu. Olerkia biotzetikoa da batez ere, ta Enbeita biotz aundi baten jabe genduan, eta bere bizitzako une oroz biotz orreri astiñaldiak emanaz, txinpart-urtika bizi izan zaiguna. Aren bertsoak, txinpart otsak, gogoz entzun eta irakurri oi ziran: millaka ta millaka biotz utzi zituen bere garaian zauskada sakonez eta esan-nai eztiz arroturik».

Gizaldi onen lenengorantza, 1905'tik aurrera, erriz erri asi zan aberri maitasuna ta erlejiñoa gartsu abesten. Leundu ta aziz joian adimenez eta barru-endarrez, ots, olerkari, oleskari, mezulari, errioiulari egini. Orretan asko lagundu eutsoen Jon Arrospide osagille jakintsuak eta Errenteria'tar Gongoni itxas-gizonak. Olan ogei urtez gitxienez bere soñeko illun, alkondara zuri ta euskal txapel baltzaz, Euskalerriko zokondo guztietan abestu eban. Bizkai'tik urtenda, bere ibilladi garaitzakoetan, Gipuzkoa, Nafarroa ta Araba'ko uri-erri ta auzunetan, an or emen bere bere nagusitasunaren dirdai-izpirik samur gozoenak zabal-erazo zituan; baita mugaz andikalderaiño be eldu zan, Baiona, Ezpeleta, Donibane-Lohitzun, Donibane-Garazi ta olakoetan be bertso-jardunaldi galantak egini.

Kepa Enbeita'k ez eban abestu bakarrik egin, baita idatzi be. Orduko aldizkari ta izparringietan, euskal orriren bat eukenetan beintzat, idatzi eban. «Ibaizabal», «La Gaceta del Norte», «Aberri», «Euzkadi», «Euzkel-Laguntza», «Euzkerea», «Karmen'go Ar-

gia», «Jaungoiko-Zale», «Ekin», «Nafartarra», «Eusko Olerkiak», eta gairerako aldizkingietan agertzen dira aren lanak. Geienez bere izen-abizenaz etozan, baiña bein edo bein «Txindorra», «Karatx», «Pello» ta «Pello Mari» izen-ordeak be erabili euskuzan.

Olerkari garbia dogu, txukuna ta zentzuduna. Arranoaren egazkada ebalako, ez genduan ifioiz lokatzartean ikusi. Berak atera ebazan aurretik ardagela illun loietan bakarrik kantatzen ebenak eguratseko aize garbitara. Jainkoa ta erria ebazan kantagai; gurean sortuak izan diran gizon jakintsu, itxastar, kirolzale ta abar eredu lez begi aurrean ipiñi euskuzan, baita amamak sukaldean erasi ta erri-aon bala-bala dabiltzan alegi ta ipuñiak bertso biribilletan kirimillatu be.

Beronen anai, Imanol be, euskal letretan «Uribitarte'tar Ibon», poesi lan mordoaren jabe dogu. Eta onen artean sailkatu geinkez Kepa Ormaetxea, au da, Aita Lontzi, Bizente Etxezarraga, «Zindorra», Luis Gonzalez Etxebarri, «Aizkibel», Paulo Zamarripa ta beste batzuk.

—Sibili eta Granada,  
Ondarrabia'n gerra da;  
etxe onetako nagusi jauna  
bakeak egiten ari da.

—Kerexa txiki beteá,  
aurten da zure urtea;  
zeure matrailak dirudiela  
kabelinearen lorea.

—Idi zuriak ekarten daude  
karabirako atea,  
etxe onetako zaldun gazteak  
batuta dauko dotea.

—Eder elizan liburu,  
usoak aren inguru;  
etxe onetako txikar-andiak  
Paradisuan aingeru».

Aitzen emon dogunez, ari askotakoak dira kopla zaarrak. Baiña emen lar ez luzatzeagatik, iru klase aitatu doguz. Maite-leloak aurrenik.

## 2. Maite-leloak

Kanta oneik, besteak beste ugariak dozuz euskal literaturan. Nun-nai ta noiznai kantatua izan da maitasuna. Ez, au ezin gengike uka, maitasuna dau biotzak berarizko kantagai; berezko iturria dautá, giltzari eragin ezkeror, ortik jar'or, Kantatxorta ugariak ezagutzen doguz gai onetaz osotuak. Ikus, astirik ba'dozu, nik beñola

argiaratu neban «Maitasunezko eun olerkirik onenak» liburua, euskeraz ta erderaz, Bertan daukazu eredu-sail galanta.

Asko ta sentikor-sentikorrak doguz erritar kanten artean. Batzuk baiño ez, jakiña, koplá zarren tankeraz egiñak besterik ez aitatzeke, emen dituzu oneik:

«Esku xurietan eder arrosa,  
eder arrosa;  
are ederrago zitroina.

Hörra Joanes hori zoin den ederra,  
zoin den ederra!  
Aurten ezkontzen omen da».

Mamiña: igande arratsalde, maiteak larrosa bat artu dau esku zurietan, eder-ederra nunbait; Joanes gaztea, alan be, berak kutun dauana, ederragoa da oraindik. Laster ezkonduko dira, abi bat osoturik.

Ortzipéan zear dabilkiguzan izar aundi biak be, eguzkia ta illargia, kantagai joti ta aberats izan ditu euskaldunak. Maite-leloetatik atera geinkenez, ez dau gitxitan jo eguzkiagana pozaren billa, ezta gabaz be illargiarengana argi-billa. Onela diño, naiz-ta mugaz bestaldekoa izan, maite-poesi samur onek:

«Iduzki denean, zoin den eder itzala!  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala.  
Egiten duzula  
mila disimula,  
iñorant zireala;  
erraiten duzula  
bertzetaik naizela;  
falsuki mintzo zira».

«Kaila kantuz» asten dan zazpi aapaldi irukoitzekoak be onela diño:

«Kaila kantuz ogi petik Uztaril-agorreletan;  
maitea ganik etxerakoan entzun izan dut bortzetan,  
amodioak bainerabilka haren ate lehoetan».

Eta amodioa «nik batentzat hartu dut eta sekulan ez dut utzi-ko» esan ondoren, irugarren irukoan, onela kantatzen dauku:

«Kukuiak umeak xilo ttipian haritz adarren gainean;  
ama, ni ere ezkondu nahi adinak ditudanean;  
ene lagunak einak dire juañ den aspaldi handian».

Ari berekoa lau aapaldiko beste au be:

«Munduian den ederrena zelian ekia;  
lurreko anderetan, oi! ene maitia;  
begia duzu nabarra, zuri-gorri larria,  
ene begietako xarmagarria».

Onelaxe, asko nekatu bage, txorta aundi bikaiña osotu daikegu. Baiña naikoa eredu bezela.

### 3. Illetak

Alderdi au be ez dogu idorra. Ogeitairu illeta eskintzen daukuz Azkue'k bere «Euskalerraren Yakintza» liburuan. Eta nik «Milla Euskal Olerki Eder» moldatzerakoan, ogetazazpi sartu nebazan bertan «Irri ta negar» izenpean. Ona lekeitiarrak Ultzama ibarrean batutako bat, labur-labur:

«Itxas gizontto bat zidan  
senartzak nere amak eman.  
Zerren ez legor aldera  
joan beste bat artzera?  
Orain zoria nuen nik,  
zuri ta gorriz jantzirik.

Gaixoa urak eraman zuen  
San Markos goizean.  
Oi! egun andi argia,  
neretzat illun tristia.  
Arraiñen jaki izateko  
sortu al zinan, senarko!»

Azken urteotan, drogarik naiko sartu jaku Euskalerrian. Ale-giñak eginda be nekez uxatuko dogu izurri au geure lepotik. Ezin astindu gatxez joak gabiltz andrazko ta gizonezko; leendik be ez giñan kutsu bageak eta orain beste batzuk, bildurgarriagoak bear bada, lupuak jota lez autkitzen gara. Zein, baiña, leengo izurria? Ardo-zale, napar mama gozo zale —droga bat ez ete?— beti izan da euskalduna. Gaur osterá, ez gara gizasemeok bakarrik ukondoa jasoten dakigunak; emakumeak be, zaar eta gazte, arrapastaka doakiguz txiribogiñaren lezara, egarbera dirala-ta. Ba-dakie, bai, zurrut egiten!

Ona zer diñoan kopla zaar onek:

«Zorabiatua naiz munduko bizitzan,  
nere begietara onera etorri zan.  
Kantuz esango dizut ze moduz gabiltzan:  
dama eder batekin esposatu nintzan.

Dama lura zebilan itxuraz jauntzia,  
ongi orraztua ta liraina garria.  
Ardoerik edatzen etzuela lenago,  
ni enganatu artean zebilala nago.

Frankotan izaten naiz kanpoan lanean,  
ongi etorri onak ark ni natorrenean.  
Andra mozkorturik, il baten antzean,  
zistua dariola sukaldamenean».

Negargarri zifnez aita mozkorra etxean; negargarriago, baiña,  
ama orditurik sukalde ertzean. Il-kanpaiak ez dira biratzen illen-  
gaitik soilki, baita lotsagarriri dabilzanakaitik be, erabat.

Auzoko erriak zelan jokatu daben jakiteko asti barik, guk  
geurean daukagu negar-gairik naiko: gure Foru zaarrak erostariak  
aitatzen ditu, etxeren baten norbait ilten zanean, gaubelan eta  
ilobirakoan, etxeokoi negarrez jarra'tzen eutsen negarti erosta-  
riak; illari lurra emokeran batez be, ildakoaren bizitza ta mira-  
riak kantatu oi ebezan erostariak. Andarien atzetik koplak abesten  
zituonok bertsolariak, emakume bertsolariak genduzan ziur asko.  
Orre'akoen erosta-kantak, asko ta asko beintzat, jaso ta jaso barik  
genditu jakuz. Aizeak eroandako orbel criak izan jakuz. Tamal-  
garri!

Ontaz naikoa da-ta, bego emen azkenez, Azkue'k Zornotza'n  
baturiko aapaldi biko au:

«Au da urkamendiko aizearen otza!  
Jaunaren aurrerako nik daukadan lotsa!  
Zerren egin dudazan zazpi eriotza,  
zazpi eriotza ta, non dot neuk biotza!

Atzo etorri jatan agindu barria,  
laster kenduko dostela gose-egarria  
Bai ta etorri jatan arreba gaztea;  
tamal artzen ebala ni olan ikustea».

#### 4. Abestiak

Adar askotan zatitu geinke erri kantazko literatura, baiña ba  
leiteke zatikapen nasai nabalena auxe izatea: aozkoa ta klasikoa,  
mende luzeak zear aoz-ao eldu jakuna ta lumaz idatzita iraun dau-  
na. Batak zein besteak ba-dabez euren bide bereziak bai irudirenez  
ete gaiesakeraz; biak izan dabe berarizko olerkera, ederkera, gaur  
be nabari samar dabilena. Beste sailak atzeta itxita, literatura-  
gintzari gagokiozalarik, au zalantza barik esan daikegu: aozko  
literatura pusketak baiño ez dirala guganaiño eldu, naiko pusketak,  
baiña ez osorik ez lenengoz abestu ziran moduan, naikoa lorrindu  
ta zatiturik baiño.

Joera bi oneitatik, zein ohea? Itaun oneri ez dautsogu errez  
erantzun egokia emongo. J. M. Lekuona'k leen aitaturiko liburuan,  
onela idazten dau: «Ba dirudi, kontrapuntuan bezala doazela beti  
herri-literaturaren eta literatu klasikoaren garapenak. Bata indartu  
adinean indar-galtzen doala dirudi bestea. Erdi Aroko joeretan,  
Erromantizismoan eta oraingo abangoardi giroan du indar ahozko  
literaturak; eta ez hainbeste klasikoan mundua ahotan dabilenean,  
errenazimenduan, neo-klasiko garaia eta abar. Gaurko abstrakzio-  
joerak, adibidez, gaurko irudiera subjektiboak, gaurko teatroaren  
askatasunak eta egunerokotasunak k'etasun beteagoa hartzen dute,  
noski, ahozko literaturan, gure zenbait idazki klasikoetan baino».

Gure literatura idatzia, funtsezkoa beintzat, ez da zaarra:  
1545'an argitaratu zan Bernat Etxepare'ren poesi-liburua, edu  
orreitakoen arteko leenengoa ain zuzen. Aoz-ao ta kantuz erabillia  
ta etorria dozu leenagoko gure literatura; aoz-ao erabilli ta lan-  
durik iraun-azo eben gure gurasoak, kantuz emanik geienbat be-  
launez belaun euren seme-alabai. Literatura au, bein esan, aoz-  
aozkoa, aberats-aberatsa izan danik ezin daikikegu iñok ukatu. Or  
gaur be abesti sail mardulak, noiztikoak diran ez dakiguzala. Eus-  
kaldunaren intziri, asperen eta biozkada benetan ederrak, euskal  
ainasa beroz orniduak.

Textuz eta jantziz dotore, zenbat abesti bikain ditugun! Esandako kopla zaarrak, trikitixak, marijesak eta gaiflerakoak ez-ezik, konta ezin alako abesti mordoak ezagutzen doguz Euskalerrian, zein mugaz emendik zein andik. Erri-kantetan gure gaifetik agertzen jakuz prantsez euskaldunak, zuberotarrak ain zuzen be. Or dituzu, batzuk aitatzeko, «Altabizkar'ko kantua», «Bereterretxe'ren kantoria», «Atarratze Jauregiko anderearena», «Andra lokarua», «Urtsua'n illarena»... eder-ederrak. Beste oneik: «Aitarik ez dut», «Agota», «Goizean goiz jeikirik», «Xori kantatzale eijerra», «Oi, penarik ez banu», «Xarmagarri bat», «Lili bat ikusi dut», «Txori erresiñula», Mendian zoin dan eder», nok daki oneik noiztikoak diran?

Bizkai aldean, egia esan, ez dogu ain aberatsa gure erri-kanta bilduma; baiña geurea dogu (askok onartu nai ez dauan) «Lelo'ren kanta»; geureak ditugu «Perutxo'rena», «Alos-torrea», «Milia Lasturen eresia» eta Azkue jaunak bere «Euskalerraren Yakintza» (IV) liburuan, 14'gn. orrialdetik 196'ra damoskuzan 221 lanetatik ainbat. Ona bat, «Peru gurea» deritxona. Ipuin zabal samarra, gaur ta biar gertatzen dana.

—Londres'en dot neuk senarra  
zirin-bedarrak ekarten.  
Bera andik dan artean  
gu emen dantza geitezen.  
Oi, au egia!  
daigun jira bi, Maria.

—Kapoiak dagoz erreten  
oillaskotxuak mutiltzen,  
orrek ondo erre artean  
gu emen dantza gaitezen.  
Oi, au egia!  
daigun jira bi, Maria.

Neure oillanda nabarra  
txikarra baina zabala,  
zetan bai i auzora,  
etxean oillarra donala?  
Oi, au egia!  
daigun jira bi, Maria.

#### IV. GAURKO ELERTIAREN GIROA EDESTIZKO TA BARRU-MIÑEZKO OLERKI-SAILLEAN

Izadiak urtero ditu bere loraldiak, udabarrirantza asita daki-gunez; neguan lo egondako zugatz-mota guztiak, zelai, mendi,

solo ta baratza ernemini agertzen jakuz. Aste batzuk aurrera, ta laster daukakegu garatze zabala.

Auzi bardiña olerkigintzan. Berrogetazortzi urte dirala izan genduan guda nabarmen aren aurretik, olaxe izan zan euskal literaturan, loraldi izugarria. Primo de Rivera ta Berenguer'en jaun-tzar-aldia amaitu zanean, lurpean kimetz ziran aziak erne ta zilduz itxaropentsu ikusi genduzan: euskal elertia, guztion pozetan, lora zoragarri jantzi jakun. Geure izkuntza ikasi, aztertu ta arnas-barritu naia bizi-bizi ebillen orduko zaar eta gazteon artean. Guz-tiok, angoak eta emengoak, alkarren leian, alkarri lagunduz ifar-dugun euskera saillean, urte gitxiren buruan zelako lorategi biurtu jakun euskal elertia!

Emen Bizkai aldeko lanari gagokiozala, prosaz naiz bertsoz, lendik ortan ebiltzanez gaiñ, zenbait idazle ta olerkari barri agertu jakuzan goizetik gabera. Egunez egun etozan euskal lan obe ta zentzundunagoek eguneroko ta aldizkarietan. Eta liburuak? Or Ibargutxi, Eguzkitza, Oar-Arteta bizkaitar prosalarien lanak; or olerkaritzan Maruri'tar Erramun (*Biotza abeslari, Lilitxingar*), or Gabriel Manterola (*Goi-izpiak*), Lontzi Aba, or B'ngen Batiz, or Txanton Goiria, or Frantziako Atutxa (*Mugarra begiralari*), olerki-sorta ederren egille suar.

Baiña guztion artean leenengo saila daroala, emen dogu Esteban Urkiaga, «Lauaxeta», Laukiniz'ko olerkari bipilla. Josu'aguntan urte-pilloa eginiñik, eta literatura klasikua ta oraingoa Durango'n, Loiola'n ta Oña'n ikasi ondoren, Bilbo'n daukagu 1929'tik «Euzkadi» egunerokoak eukan «Euzkal-Atalaren» zuzendari. «Orixe» zanaren ondorengo eta Uribitarte'tar Ibon laguntzaille ebala, ain zuzen. Eta egia esan, Kirikiño'k bere garain lez, ez euskun lan txikarra osotu eusko-olerkari ta idazleen onerako. Or bere oarrak lenen, ta oraintsu ber-argitaraturiko «Azalpenak» gero.

Arima on eta sentikor baten jabe zan Lauaxeta. Itz lauz naiz bertsoz, idatzi eban guzti'a zentzunez eta gatzez beter'k daukagu. Loio'a'n egoala borobildu eban bere leenengo poesia, 1925'an, argitaratua beñik-bein, J. B. Deya'n datorrena. Errenderi'n ospatu zan, 1930'an, «Euskaltzaleak» eratutako leenengo Olerri Eguna; an agiri jakun Lauaxeta Lizardi, Orixe ta enparauakaz batera, eta

beronen «Maitale kutuna» izan zan leenengo saria —zidarrezko aritz-adarra— eskuratu eban.

Urrengo urtean emon euskun 143 orrialdeko poesi-liburu mardula «Bide-Barrijak» (Bilbo, 1931), euskeraz ta erderaz. J. Aitzol'ek, liburu onen itzaurrean: «Olerkariak ezilkortasun aiotsak entzun izan dituzte. Gure gazte onek ere dei orren oiartzuna neur-titzetan dagerkigu. Poesi goiargiak lagun bekio ezilkortasuna irix-teko. Adi-ego egokiak ditu naikuna betetzeko. Euskerari, bide latza, leguntzeko, «Lauaxeta»-k dagiana, ez da lan makala. Bere «Bide Barrijak» goren, txalogarriak. Olerki-uts zelaietatik juan bedi. Nekeak ez dezala auldu; ain da galgarria bide ori. Oraindi-ñoakoan bulartsu darraikio. Ez bezaie, ordea, maitasun gaiei, min-kuntasun asmo samurrei uko egin. Ain olerki politak egin diz-kigu! Ain gogokoak ditut gaztaro asierako neurtitz oiek! Adi-poetsi eta maite-olerkiak ez-ezik beste gun ederra dituen olerki-txoak aurki lezazkike irakurleak» (x orr.). 42 olerki dira guztiz, maitasuna, aberria, Jainkoa kantatuz egina.

Andik lau urtera beste poesi-liburu bat, «Arrats-beran» (Bilbo, 1935), 162 orrialde, emon euskun. Berberak itzaurrean: «Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakoitxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorr eta barneko zugatz oneitatik txorijak al-datu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu». Pirtxilleriak zirala uste eban olarkiok; baiña bide orretatik nai izan eban jokatu, bertso labur, sotil ta atsegiñak onduaz. «Arrats-beran» lako liburu mordoa egiteko asmotan ebillen. «Euzkadi»-n orrela angitara zituan alegi edo ipuintxo batzuk, egoki ta dotore egina, 1932'garren urtez batez be, *Izkiñuak*, erderazko *Letrillas* antzekoak.

Urkiaga berez olerkari jaioa dozu. Baiña ikasiz be, klasikoak irakurritz ez gitxi, eder-senaren gozotasuna beregandu eban. Ira-kurtean, espaiñar olerkariak albora itxi barik, Prantzia'koak atsegin jakozan, parnasoarrik batez be. Eta onei jarraiki osotu zituen «Bide Barrijak» liburuan datozan geienak. «Arrats-beran» ostera beste joera bat artu euskun, errez, arin, sakonagoa. Irakur eizu bat, «Mutxurdiña» deritxona, eta beste guztiak be antzera eioak dituzu. Ona estrofa bi, leenengo ta bigarrena, lelo ta guzti:

«Euki neban, euki antziña,  
—a zan eskontsari panpiña—  
Tella bako etxia.  
Euririk etzan egunetan  
antxe bai nebala topetan  
egizko aterpia.  
Aren nayez eldu yatazan  
senargai bi, bijak konkorrak.  
Ardanetxeko zorrak  
alan kentzeko esperantzan!

Ardo zuri,  
ardo gorri,  
itunik yagokan matxurdin  
poztu egik zurrut batekin.

Ardo gozoena edanik  
zato batekin nintzalarik,  
—ilgo al da betiko—  
etorri yatan, bein, etorri,  
mutil maingo, aurpegi-gorri,  
nerekin ezkontzeko.  
Maitasun zin asko egina  
edan eustan zato gustija.  
Ene ordi txarrija,  
gero laga nindun bakarrik!

Ardo zuri,  
ardo gorri,  
itunik yagokan mutxurdin  
poztu egik zurrut batekin».

Lauaxeta'k izan dauz omenaldiak, ez merezi beste baiña. Bat 1973'an egin geuntson emen, Larrea'n, Olerki-Egunez. Arratsaldeko batzarrean Luis Arostegi karmeldarrak lan gunez beterikoa irakurri euskun Laukiniztarraren olerkiari buruz. Iru poesi-lurralde ikusten zituan Arostegi'k aren olerkietan: *maitasuna*, *gaztaroa* ta *igaro-kortasuna*.

Lenengo, poeta geienak lez maitasuna darabil Lauaxeta'k be kantagai. Maitagar deritxogun jainko txikiak, bere gezi sarkor bi-gunez, giza-biotzak zauritzen ditu, eta zauriak poza ta negarra ekarten. Gure olerkariak ez dau nai maitasun leial-ezik, onakoa jostorraz zorrotz antzera sartu oi da barru-barruraino ta dana ira-bia ta loitu: garbia ta leiala nai dau, «Maitale kutuna» abesten daskun legez. «Lora baltzak —diño— edurtzn bildurgarria yataz».

Bigarren lurraldea gaztetasuna da. Lurralde zabalena bear bada, beste guztien erdi-erdia, aren poesiaren sorburua. «Maitasuna ta bizitza guztia gaztetasuna zear ikusten ditu», idazten dau Arostegi'k. «Gazte ule baltz gara», deadar Lauaxeta'k. Itxaropena, barriz, gaztaroari dagokion zabal-gune. Goiak damotse bizi-kemena; argiak dakartse arnasa. Aberria ta askatasuna be gaztaroaren inguru dabil-tzanak dira oroz gainetik. «Gaztedi orren didarra / bai dala didar zolija!», oi u olerkariak. «Dana emon bear yako / maita dan as-katasunari».



Irugarrena, igarokortasuna. Maite ditugun gauzak igesi doaz abiada aundiz. Au daroa gogoan —eta nok ez?— o'erkariak. Beste gaiak be emendik artzen dabe, erdi-edegiz, euren poesi-mugaetasuna. Eta emen diño: izadaren maite-bularrak ez dauksola kentzen barne daroan arantzearen miña, ezta barruan aginka dabilkion kezka nagusia.

Iru lurraldeok naste lez, aragitzen dauskuz Lauaxeta'k bere oler-lanak.

An ziran besteok be, ingurumari, goizale orreikin taldea osotu naita: Urkidi'tar Albontsa, Bizente Ametzaga, Benjamin Mnaterola, Jakoba Gerriko-Etxebarria (gazterik illak biok) eta beste batzuk. Musaen aizea puzka ebillen gurean, gozo ta indartsu. Izar eder bezela, baiña, Sabin Muniategi ta Eusebio Erkiaga jakuz punterengoak. Muniategi'k, gerora be a'nbat poesi eder ondu dauskuzanak, itxasoak ondo zearkatu ostean, guda aurretxoan «Goiz-aize» (Bilbo, 1936) eta oraintsuagoa «Bidean gora» (Bilbo, 1970) opari lez egin dauskuz. Eta E. Erkiaga'k, guda aurretik idazle, bitartean «Eguna»-ren atontzaille ta ondoren olerkari, eten barik salatu ta euskal arloan lan egin dau, Bizkai Bankuko lantegilik be, ixill'k baiña zintzo, beti gure lanari, prosaz eta bertsoz, lotua bizi izanik. Egoki litzateke onen olerkiakin bilduma eder bat osotzea.

Ni be, naiz-ta apaltasunari grauskadatxoa egin, orduan asi nintzan olerkigintzan eta arrezkero ez dot ortik anka egin. Or arg'bi-dez «Milla Euskal Olerki Eder» (Zarautz, 1954), «Goiznabar» (Bilbo, 1970), olerki-bilduma, 1928-1950; or «Las cien mejores poesías de amor de la Literatura vasca», euskeraz ta erderaz; or «Olerti» aldizkaria; «Gure Bertsolariak», Agirre-Saria irabazi ebana, ta abar.

Bego emen gaiñera olerkari zerrenda galant au be: Agustín Zubikarai, antzerkitan ez-eze olerkiz be asko idatzi duana; Paulin Solozabal, sei-zazpi poesi-libururen egille xalo; Grabiél Aresti, ez ekian euskera ikasi ta poesi soziala bertso bipillez jantzi ebana; bardin Luis Arostegi gatikarra, «Poema amaitu bakoak» osotu euskuna, eta Gallastegi'tar Kauldi, «Zer» a'dizkarian olerki politik damoskuzana; Juan Anjel Etxebarria, España'ko, Frantz'a'ko ta Katalunya'ko olerkari askoren lanak euskeraz argitaratu dituna;

Biktoriano Gandiaga, frantziskotarra, Arantzazu'ko egoitza gozotik olerki-lanak ugari, «Elorri», «Iru gizon bakarka» ta besteak ma-mindu dauskuzana; Afonso Irigoien, Euskalari poeta, «Sorterriaren alde» ta «Herrian gara bi» liburuen egille; Martzel Andrinu, azken urteotan «Kezkaz» poesi-liburua eratu dauena; Pedro Anasagasti bermeoarrak, «Olatuak» bertso-idaztia eskifii dautzu; Nikolás Alzola, «Makue», koplak bitxiak ez gitxi eioa; Antonio Bilbao, morgarra, «Lizardi Saria» irabazi ta oraintsu «Pentsakizunak» liburuxka argitara emon dauskuna; Fermin Iraolagoitia pasiotarrak, iru ingurrazti daukaz irarkolarako gertu; Lorentzo Zugazaga, Gamitz'ko semeak, olerki txanbeliñak antolatu ditu; Mikel Zarate, oraintsu illak, beti kezkatu, itz askatu ta lotuan idatzi euskun; Jon Enbaita, bertsolari ta olerkari, poesi liburu fimiño baten egille; Manuel Ertzilla, Atxondo ibarreko semeak, poema bat emon dausku «Hitzik ainitz idatzi dut» izenarekin; Abel Muniategi, Ereño'ko semeak, or-emengo aldizkarietan oler-lan politik emon ditu; Jesus Antonio Etxezarraga, bilbotarra, 1977'an «Lauaxeta»-ri egiñiko omenaldian, poesi-batzaldian, leenengo saria jaso ebana.

Ba-ditugu oraindik beste bi be, bizkaitar olerkariak, aitatu bearrekoak: J. Kerexeta eta Balendin Aurre-Apraiz, a elorriotarra ta au Axangizterra. Biok koplari onak. Kerexeta'k iru poesi liburu daukaz: «Orbelak», «Bitargi» ta «Udazken». Orain lau urte, 1980'an, irurok batean argitaratuak. Poeta sakon, errez, ezta. Irakur:

«Jo danbedak, odeiok,  
gaurko sargoritan;  
eta, bitartean,  
itzi naizue baketan!

Busti nagizu, laiño,  
uda-arrats onetan;  
sar zakidaz, leunki,  
izatearen muiflean.

Egin orro, aizebaltz,  
areizti ondoan;

zure zurrunbilloetan!  
ta otzitu nadin

Gaur ez dot lagunkide  
nire gogokoa;  
entzun daidan, beraz,  
barruko mintzo gozoa.

Eta Izadi-erdian  
nagoan ermean,  
gaur beintzat, Maiteder,  
itzi nag'zu bakean!».

Eta Aurre-Apraiz? Egiatzko olerkari niretzat. Lur-langille ta poeta. Olerki sakon, sendoak, ardao urtez ondu baten antze-

koak, argitaltzen dauskuz or-emengo aldizkarietan. Asko daki ederrari buruz, orrela agertzen bait jaku Larran urtero eratzen doguzan Oleri-Egunetan. Arima eder baten jabe danez gero, errez jako ederraren muiña jaso ta iragartea. Bere etxe zuri errezeko solo ta baztarretan dakusana, orixe dau geienbat kantagai, diño «Alaitu guraz» deritxon lantxoan. Atsegingarri jako uneoro barruko kezka kanpoko bake ixillari autortzea.

«Udabarria bai-dator alai-alai!  
aterako aal daust biotzeko dardai.

Zidor ertzeetako lora apañen lurrin;  
gozatu eizue eme, zaurien samin.

baso ixilletako latsaren eresi:  
zakit atsekabeentzat aienagarri».

Eta azkenez, Luis Baraizarra, aurten (1985) «Lizardi Saria» eskuratu dauskuna. Ezta euskal literatura ortzian agotik sudurrera agertutako izarra. «Karmel» aldizkarian naiko idatzia dogu, eta poesisaillean, leendik be, Gabonetan eta, Markiña'ko umetxoentzat olerkitxoetan saiatua dala, azken-urteotan or-emengo sariketara aurkeztu izan da. Ots, 1980'en «Lauaxea Saria»n esku artu eban olerkari lez, Laukiz'en. Arrezkero, Iparragirre'ren mende-urrenean leenengo saria lortu eban, 1982'an Ondarru'ko Lore Jokuetan bigarren saria ta igaz Markiña'ko Lore-Jokuetan be irabazle. «Bakardadeko Bertso Ezpalak» dabe izena saritutako oler-lanak, amairu guztira. Azken uiola, gelako bakartasuna, bizia, maitasuna, eriotza, poza, ituna ta abar kantatzen ditu arin, nasai ta gozo.

Irakur eizuz uiolaz egitiiko zati biok:

«Euria, tximista, trumoiá,  
betoskoz jantzirik da goia,  
zeru-zola burrunbadaka  
tximista-geziz grakadaka.  
Bestetako oihal urdina  
herio mehatxuz gordiña,  
milaka zatitan urratuz  
goiak behean hotz amorratur.

Dena ezinaren ezina  
ondamendiaren samina,  
urek dena trumilka bilduz  
lur-zintzurretarik amilduz,  
guztia hautsiz atzaparka,  
hor zehar utziz lokatz-marka...  
horra tristurazko trixkantz!  
Badu honek gerraren antza».

Euskera jatorrean, pentsamentuak eta biotz-zirrarak maisuki lotuz, diardu Meñaka'ko olerkari koroituak.

Azken-itzez, baiña, ez dagigun aantz-zulo itxi azken orduko krikari poeta bat be. Euskal poesiari buruz asko ta ederto idatzi dauan J. M. Leizaola'k dakarsku berau «Acontecimientos del siglo XX en poetas euskéricos» deritxon lanean (*Obras Completas*, Donostia, 1981, 2'garren alea, 618 orr.).

Bost kronika dira JEL-ORDE'k izenpetuta. Ba-ditu beste bi be, Lekeitiar Karlos Solano'ri bere eriotzan eskiñia ta «Euzkeria da gure izkuntza bakarra» deritxona, Paris'eko «Euzko-Deya»-n agertu ziranak. Ez dakigu nor dan kronikalari au; baiña Bizkai'ko baserri baten, 1890'an jaioa dala diñosku Leizaola'k, gerran ibilitakoa ta mugaz bestealdera joana.

Bost jazokun-olerkiok onela dozuz: 1) *Guda olerkijak*, 12 zortziko nausi; 2) *Olerkijak Ingelandar eta Amerika'ren omenez*, 12 zortziko nausi; 3) *Hitler'ari olerkijak*, 12 zortziko nausi, amabi bertso-lerrotan idatzita; 4) *JEL-ORDE'n olerkijak ango adiskide onai*, 6 zortziko nausi; 5) *Franko'ren amar aginduak*, 12 zortziko nausi, amabi bertso-lerrotan emonda.

Erri euskera garbi ariñean idazten dau Jel-Orde'k. Ez da liriku bat, baiña jazotako gauzak xotil azaltzen dituna. Berak ikusi ta jasandako gauzak edesten dauskuz, bera egille dala orain eta artzaille dala gero, «atera giñan» eta abar daragoio. Idazkera onek, au da, leenengo ta itugarren pertsona erabilte onek jasa, eragiña ezarten dautso olerkilarari. Ausnar estrofa biok, «Guda olerkitik» artuta:

«Euzkel-erriak ezpaleu ixan  
guda onetan parterik  
neure ustian etzan ixango  
ezetariko kalterik.

Aberritarren aurka zan,  
etzan geuretzat bakerik,  
naitezian atera giñan  
etzegon beste tarterik.

Egazkiñakaz etorri eta  
Gernika dana apurtu  
emen bonbakaz sua emonik  
erre ta ikatz bigurtu.  
Basakeri ori egiñaz  
jente guztija bildurtu,  
etzerritarrok aspaldi ziren  
ori egiteko gertu».

\* \* \*

Utsune ta akatsak gorabera, auxe dogu Bizkaiko poesi-elertia-  
ren aztarna. Ez diñot ugari-ugaria danik, ezta urria be, bai bien  
arteko. Daukaguna, gure aurretikoak itxi dauskuena ikasi, aztertu  
ta duindu bearrean gagozala, nik esango neuke. Ortze dago gure  
euskal arnasa, edestizko gure olerki bizietan eta euskaldunok  
barru-mifietan emon ditugun frutuak diran kopla gartsu egokiro  
taiutuetan. Gorde ta ugaritu daigun geure eltxor baliotsua.

## DIEGO LORENZO URKIZU

Gaur ez orrenbeste, baña leenago Durango'n ba-ziran euskal  
idazle errimeak, beste batzuk lo egozala be euskaraz zerbait ma-  
mintzen obenak. Onein artekoa dogu gure Diego Lorentzo Urkizu,  
beronen bertso batzuk d'ala-ta, Izurtza'ko seme Altzola'tar Ni-  
kolas Lasalleko Anai euskal bitxi-aleak era Akesolo'tar Lino onako  
zezio ta matraketan maisu danak, aizepara bikaiñez egurastua.

Urkizu durangarra izan zan. Bertoko alkatetza be urteetan egin  
ebana. Gizon eleiz-zalea, bere idatziak erakusten dauskuenez. Li-  
buru bi osotu ebazan, bata ederaz Uribarri'ko Ama Birjiñari egin-  
dako Bederatzi-urrena ta bestea euskeraz, au da, «Liburu Birjina  
Santisimien Errosario Santuena». Iruña'n argitaratu zan berau,  
1737'an, eta 87 orrialde ditu.

Lotsorra zan antza ta amaieran ez dua bere izenabizenik jarten,  
«Durangoko Uriko Deboto batek» baiño. Tabira'ko Errosariooko  
Amari egiten deutso liburuaren eskintza ta emen agertzen da bera  
nor dan, D. L. U. jarriz. Aita Akesolo'k onela: «Izurtzako seme  
dogun Berriotoxa Anaia'k, ango ingurutako bazter eta gizonen az-  
tartzaille zoliak, or argi ikusi dau beste erderazko liburu atera  
ebanaren izena: Diego Lorenzo Urkizu.

Liburuxka au oso arrarua da; gaur gure artean aurkitu ezin  
geinkena. Orain eun urte Durango'ko seme Ramon Etxezarreta'k  
ei eukan, baiña gero gorabera askoren ostean au be Ipar-amerikako  
Chikago'ko Biblioteca nausira joan zan, ta gaur an ei dago. Urteo-  
tan emen zabaldu dana beintzat andik bialdutako fotokopi da.

Bertsozkoa dogu liburu au, «Zeruko da lurreko Erregina an-  
diaren... esklaborik txikerrenak» egiña. Aita Akesolo'k onela:  
«Liburuak iru zatj daukazala esan geinke: lenengoak Errosarioa  
zer dan, eta misterio bakotxean zer gogoratu eta zer ikasi bear  
dogun azaltzen deusku: b'garrenak, Errosarioan esaten diran otoi-  
tzak, asierako damu-otoitzetik asita, misterio bakotxaren eskintza,  
eta abar; misterioak, barriz, irudiz apaindurik datoz. Irugarren  
zatia da bertsozkoa, misterio bakotxean kantetako bertsoak oso-  
tzen dabena» (*Karmel*, 1981-1, 62 orr.).

Bertsuok zortziko nagusitan dagoz emonda. Bertsozko liburu au ezta ifioiz osorik argitaratua izan; baiña bertoko bertsoak bai. Bartolome Olaetxea'ren «Dotriña»-n datoz 1814 eta 1864'ko argitaldian beintzat, pentsamentu potok itsatsirik: «Ama Birjina Errosariokoaren kanta eder au emoten da emen, mutiltxubak eskolarik etxera datozanian, ganaduben zain soluan dagozانيا, eta aeen billa basuan dabilzانيا kantau daijen. Uxala beste kanta loi asko arima galtzaigarriak onan kendu al baleitez. Alan izan deilla bada, arren, bai».

Gaur, antxiñako idazleen zati ta liburuxka billa gabiltzanok ez daigun aaztu Durango'ko euskaltzale au be. «Gure literaturatxoan lekutxo zor jako —diño Akesolo'k—, eta beste idazte zar askoren artean ez dauka zertan lotsaturik, ez kanpoko azalez, ez barruko mamiz. Irakurlea nire eretxi izango da'akoan nago» (*Ibidem*).

Bertsuok 1737'an jarriak dira. Eta emen daukazuz gaurko ortografiz, Pozezko bost misterioai dagokiezianak, euron bitarteko ta azkeneko aapaldi lauko biakaz.

## LELO

Rosarioko Larrosa eder  
Birjina da Ama bakarra,  
bost misterio gozoz betiak  
gatoz-gaur kontenpletara.

### I

Amudiyoak aurkitu ez eban  
munduan beste lorarik  
emon nai eban frutu ederra  
konserbetako garbirik.  
Ai alegria dirxaz betia  
Zeuri jagotzun bakarrik:  
zeure erraetan zeuk ikustea  
Jesus maitea sorturik.  
Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

## II

Isabel zeure lenkusinia  
dago mirariz beterik  
bere Jaun da Jaubearen ama  
bisita emoten joanik.  
Saltoka dabil bere semia  
oraindo jaio bagatik,  
zeure ditxa da gozo andiya  
adietan emon gurarik.  
Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

### III

Zein andiya zan zeure gozoa  
munduan inok eztaki,  
abereak bere sentietan dabe  
zentszun bageak izanik.  
Aingeru asko dira etorri  
alkarren leian zeruti,  
jaiotza onen barri alegriak  
zabaletarren munduti.  
Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

## IV

Tenplura zuaz, Ama maitea,  
kontentuz guztiz beterik,  
ezin zinayo Jaungoikoari  
presente andiyagorik.  
Simeon santuak bere ditxa  
ezin ondo sinisturik,  
ikusi ezkeru Jesus maitea  
eztauko il-arren penarik.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

## V

Nok esan leike zeure gooza,  
zeure Semia ikusirik  
legeko jakindunen artean  
bera guztien nagusi.  
Bera Aitaren agindubari  
asairea ori emonik,  
nai dau orrelan adietan emon  
zetara jakun etorri.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

Lirio ederra, zeu izan zaite  
ainbat gozoren artian, errezau dabenen anparua  
orain da denpora guztian.

Esan dogu, merezi dabela puska oneik be, jaso ta zaintzea.

## RAFAEL MIKOLETA

(1611-.....)

Bada gaur, naizta zentszun gitxikoa, onako ur-joan edo korronte bat eusko baserriaren aurkakoa ta kalearen aldekoa. Eta euskaldun jatorra nungoa ete dogu, urikoa ala baserrikoa? Menditik ez ete dakargu geure leiñu argia? Alan be, gaurko euskal idazle ta olerkari, poeta asko gure baserritarrak gitxi-eritxi ta albora itxi nairik, nik ez dakit zelako kirtenkeriak idatzi dabezan... Rafael Mikoleta, baiña euskal koplakaria, euskeraz bertsoak zelan antolatu ta apaindu erakutsi euskuna Bilbo'n, orduan uti txiki ta gaur uri aundi dagunean jaio zan 1611-azaroaren 19'an.

*Bizitza ta euskal lanak.*—Amazazpigarren gizaldiaren lenen-goetakoa da. Miñ Mikoleta ta Maria Zamudio, aren gurasoak; biak bilbotar sendi onekoak. Idazlearen liburuetan agertzen danez, Lizenziadu titulua lortu eban lenengo, ta gero abade egin zan. Bilboko artxibuetako agiri-liburuetan sarni agertzen bai da aren maisu-titulua, ez dakigu alan be nun egin eban arima-zaintza, ezta nun eta noiz il zanik be. San Anton'go eleizan bateatua izan zan.

Gizon jakituna ta euskaltzalea genduan, Berau da beintzat euskal gramatika osotzen lenen-lenen alegindu zana. Eta ba-dau onek bere meritua. *Modo breve de apredar la lengua vizcayna* idatzi eban 1653'an. Etzan alan be bere egunetan argitaratu: Londres'ko MUSEO Britaniko dalakoan aurkitzen da gaur be, Mikoleta'ren esku-idatzia. Nundik eta zelan joan zan ara? Bizkaiak eta Inglaterrak alkarregaz eukezan artu-emonak eta salerosketagaitik bear bada. Lenengo Sir Thomas Browne'na izan zan, eta gero zelan ez dakigula London'go liburutegi ospetsura jo eban. Argitaratu, ostera, Barzelona'n egin zan lenengoz, Salbador Sampere Miguel'en pentzutun, angu «Revista de Ciencias Hisóricas» deritxonaren orrietan. Bigarren argitaldi bat be an bertan egin zan, 1880'an. Eta irugarrena Dodgson euskalariak osotu eban Sevilla'n, 1897'an.

Askok ikutu egin izan dautsoe liburu oni, euren ondorenak atera nairik. Guztion artean ondoen, alan be, lemoar apaiz jakintsu J. B. Eguzkitza'k. RIEV deritxon aldizkarian argitara eban, 1930'an, «Mikoleta'ren euskereak eta gaur Bizkaya'n darabilgunak, ze alde ete dauke?» amar orraialdeko lan jakingarria. Eta sarrera lez, zazpi ataletan bereziko dauela diño bilbotarraren lana.

«—Lenengo atalean «izen eraskin eta izen-ordekoetzaz diardu.—Bigarrenean, «egin, izan eta egon» aditzen irabiakerea dakar. Irugarrena, iztegi laburtxua da. Iztegi onen jarrai Dodgson'en oar batzuk datorz. Boskarren atalak alkarriketa luzetxua, euskal-zenbakera ta asteko egunen izenak dakarz. Seigarrena euskal-olerki edo izneurtuetzaz da. Zazpigarrenean, Mikoleta'k bere lan onetan darabiltzan 163 aditz-irabiakera dakusguz: bata-bestearen jarrai ta urrengorik urrengora ipiñi ebazan Dodgson jaunak, oitura ebanez».

Uts batzuk gorabera, batzuk parkagarri ta beste batzuk, gogortxoagoak ditunak nunba't, eder jakon Eguzkitza'ri erderaz idatzia, baiña euskal gramatika zan Mikoleta'ren lan au. Laburregia ziñiez, jataldi eder bat ariflegi amaitzen jakunaren antzera. «Mikoletaren euskalitzia au laburregia da; baiña euskera izpirik be ez ekienentzat idatzi ebala deritxat; oneik, geyenez, laburzaleak izaten dira-ta, utz ori parkatu bear yako».

Gramatika au aztertu dabenak d'rauskuenez, gramatika lez, lenengo ekiñaldia zan-eta, balio aundirik ez ba'dau be, ezin geinkeo uka bere garrantzia barnera begiratzen ba'dautsogu. Bizkaitar iz-

kelgiko berba ederrez josita dago, ta adizkera bikaiñez beterik. Egillearen asmoa etzan, ain zuzen, bizkaiera erakusteko bide bat urratzea baiño.

Darabilen euskereari begira, gaurko azterlarientzat atan be, txalogarri dogu Mikoleta'ren lana. Bilbotarrak garai aretan aotan erabilen izkera jatorrean asmatzen ditu alkar-izketa gatz-ozpin-duak, olerkitxoak eta gaiñerakoak; tokiko esaera zar gardenez eta txoko aretan sortuaz joiazan pitxi apaiñak eurrez ereiten ditu bertan. Bai, lan osoaren gunari goi-samarretik begitu bat egin ezkeru, laster konturatzen gara, egillearen asmoa etzala elizti bat eratzeta, Larramendi'k, esate baterako, bere *Eziña Egiña* idaztean euki eban lez. Ba-ditu, ta ugari, erderatik artutako berba ta esakunak; baiña, geienik, badau aren lanak gatza ta bizitasuna. Eta idatzi zanetik laugarren gizaldira, guretzat gora interesgarria.

*Olerkari.*—Mikoletak euskal olerkiaz be zer-edo-zer adierazo nai euskun. Eta arlo onetan be aren itzak dira euskal literaturan daukaguzan lenengoak. Ak erderaz esana Eguzkitzak onela euskeraztu eban: «Yai-egunetan neskatoak abestu daroezan «lelori, lelori» orreik alde batera itxi-ta, beste izneurkera bi dagoz euskeraz—diño Mikoleta'k—; geyagorik eztagorik eztiñot; baiña oituenak orrexek biok dirala, bai: bitzuok gaztelerazko «romance»-en antza dauke ta bigarren erako neurtitzak lenegokoak baiño luzetxoagoak izatea baiño beste alderik, ez. Olerkari batzuk oraintsu erderazko aapaldiak eredutzat artuta, euskeraz be ainbat izneurkera barri darabillez; baiña izneurkera ta aapaldiak euskaldumentzat ulergatxak dira-ta, orretan diarduenok ospe gitxiko lana dagie». Eta Eguzkitza'k jarraian: ««Gai onetzaz Mikoleta'k diñoan ori egia danik eztoz uste».

Ba ekian itzak neurtzen, eta euskal poetika zelan izan bear dauan erakutsi nairik d'arduanean, berak, asmaturiko maite-olerkitxo bi sartzen dauz, adibide lez. Ona bata:

«Amoren kontentuak / eztaude irauten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten.

Lar adi bazagokez / fabore bateri,  
etorriko yatzu / gatxa bertati.  
Ta aztuten badozu / eztau ondo eiten;  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten.

Alkar on baderetxe / bertan zeloak  
penaz betetan ditu / bien gogoak.  
Onegaz amoreak / dau gogaituten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten.

Atzerengo-giño / kontentu izanik,  
ezta iñor joango / amore ganik.  
Uretan bitsa legez / dira joaten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten! ».

Bigarrena, berak diñoanez, luzeagoa da, sonetu antzera, eta ona estrofa bi, nundik dabillen jakin daizun:

«Denpora baten / on oi neretxun,  
baia mudatu / nondie,  
zerren penatan / bior ekidan  
emon zengidan / zoria..

Alper-alperrik / iminikozu  
zeure indarra / ta izana,  
zerren eztozu / biortuko zuk  
lengo biotza / zeugana».

Biak bat datoz, erdizka beintzat, gaurko gure zortziko nausi ta txikiakin. Eta zer b'txi au gaineratuz, ama'tzen dau: «Kantauri Parnasoan gaur-egun be batzuk idatzi dabez amarrekoak, lirak eta sonetuak euskeraz, erderaz daukiezan azentu ta konsonanteekin, baiña dirdai urriko bidea dozue, neurri orreik eta abar, euskeraz ulertzen dabezanak gitxi dira-ta».

Zortziko au, 5/5, 5/3, Bizkaian beñik-bein zaarrentarikoa dogu; beñiola bateko bertsolariak geicenez erabili ebena, 7/6, 7/5 ezta ainbestekoa, eta ez dator bat osorik beintzat, gure zortziko txikiarekin, naiz ta kideko izan. Gaurko bertsolarien antzera jokatu eban nunbait Mikoleta'k bere bigarren poema au egiterakoan. Eta bertsolariak, dakigunez, iñoizka doñuak eskatu baiño itz geiago sartu daroetz euren kantu-neurtitzetan.

Bizkaitarrok geure literaturako lora pitxiak ta zabal-azo bearra daukagu; orre'a jardunik dira batzuk, baiña ez geiegi. Azkue zanak, egia esan, ez eukan txatxartzat Mikoleta'ren liburua: 41

bider aitatzen dau bere *Morfologiaan*. Nik, olerki biok, sartu nebazan bai *Milla euskal Olerki eder* poesi-bilduman eta bai *Las Cien mejores poesías de la Literatura Vasca n. K.* Etxenagusiak ta M. Zaratek, bardintsu egin eben. Merezi dauanari, berea emonez, ez bedi iñor lotsatu.

## JUAN BAUTISTA ALTZOLA (1638'an egia)

Gaur ba-dabil jente gaztea, ikasketak egindakoak nunbait, ikerketa lanerako gogo sortu jakenak, bazterretan ondo austuta dagozan paper zaarrik astindu ta bertan datozan literatur-atalak batez be, jaso ta argitara ateraten diarduenak. Orixe da izan be iker-lana.

Lan barri oni asiera emotean, zuur nundik agertuko bizkaitar olerki antziñekoren bat, ona zelan eskuratu jatan Bilboko «Labayru» ikastegiak argitaratzen dauan «Litterae Vasconicae», ots, euskeraren Iker-lanak, 4'garren zenbakia. Bertan dator, Adolfo Aregita'k eginda, poema onen azterketa be, 9-20'rako orrialdeetan. Sarreran onan mintzo da: «Bizkaierako testu zaharretan interesgarrietarikoa dogu Juan Bautista Alzola apaizak ondutako hau: batetik bere zahartasunagaitik eta bestatik, hizkerearen aberastasun eta dotoreziagaitik. Beronen balioa, bizkaierazkoan, eta mendebalekoen artean, ezagutzen ditugunen artean zaharrentarikoa izatean datza». Blanca Urgell'en lana begi aurrean izanik egia dozu.

Ezta lan luzea, bai ostera guk Bizkaian daukaguzan zaharrene-tatik luzeena. Lan jatorra, originala da, ez da gaztelarari lotua, bizkaiera ederrean osotua baiño. «Izkera landua darabil egileak —darrai Arejitak—, guztiz landua esango neuke. Bai hitzen morfologiaren aldetik, baiña baita lexikoaren, sintaxiaren eta estiloaren aldetik be. Argi atera daiteke... autorea gizon eskolatua zala, bere garaiko letren eta literaturaren ezagule ona. Ikasketa onak hartua».

Juan Bautista Alzola ta Muntxatuz lizenziatua da poema au ondu ebana, Durango'ko Tabira'n jaioa ta orduan Arraita'ko

Gaztelu-Elizabeitia'n arima zain egoana. Ondarribi'n, 1638'ko irailaren 7'an izenpetu eban.

Aita Joseba Zubikarai, leenago ainbat urtetan India'n mixiolari ta gaur Markiña'ko karmeldar komentuan liburuzain dogu nak, emengo l'burutegiko paper zaar askoren artean, XVII'garren gizaldiko bertsuok aurkitu zituan. Idazpuruak «Canción» dala diño. Ondar-ibaia (Ondarribi) Frantsesen eraso-alditik onez atea eban Domingo Lopez Egia, jatorriz Bilboko semea zanaren omezez jarriak zirala esanez. Garaitza ori 1638'ko irailaren 7'an izan zan. Labairu'k bere «Historia General de Bizcaya»-n (V, 275976) aitatzen dau Domingo Egia. Bertso one'n jartzaillea Juan Bautista Alzola ta Muntzaraz dala argi dagoan arien, beronen bizi-zeaztasunik ezta agiri. Bertsuok ZER aldizkarian emon zituan Joseba Zubikarai'k (64'garren zenbakian, 6'garren orri au).

Felipe Españako, done andia  
eskuberu, dozu, mundu guztia,  
Alegradu bidi. Kristau erria  
Alegradu dalako, ondar ibaya:  
Ogei mila gizon, Franzia erriko  
egozan aldi baten, su, emateko,  
Arako Bizkaitar, Domingo Egiko  
izan da bakarrik, irabazteko,  
jaun doneperi Deustuko batizadua  
onradu izan dozu, zeure lekua,  
Etse infanzonaduko, seme iaioa  
Bizkaiko onetarik, animosoa,  
Mundu guztia dago, atsegin onean,  
egin dozulako, giza legean,  
Jaunari alabanzak, prosezinoak,  
Bizkaiak egin dituz, gorde paskoak,  
Beste Moisen bat, kumareanik,  
gizon au egon da, señaladurik,  
Jaunen eskurean, gobernadurik,  
aenbeste egin dau, Espalagaitik,  
Zegaiti eugi daben humildadea,  
merezi du ez eiteko, ango plazea,  
Obedenziagaz, azeptadurik  
lealtadeaga, ondo jagonik.

Txaldor bagarik, miñak farfulleteko  
ez, Domingo Egikori, itxaideteko,  
Domingo Pazkoen izen andia  
Koronikagarri, zeure, egia  
txakurren ogia, emongo deutsu  
Domingo Egikok bazagiz artu  
Martizen susperroa, eldu ekizun  
Feliperi egiteko, gustiok, oñean, mun.  
Txakurren ametsagaz, palmak asko  
eroango dozuz, Frantziarako,  
Gastelako Almirantea, miseriordia  
bear izan dozu, neure egia,  
Zegaiti dalako, Kristiau, andia  
errege anditsuen, ispillu argia.  
Bederatzigarren Kapitulan  
S. Matheok diño, Iuanen foruan  
Eztot nik, bilatuko, sakrifizioak  
eska badakidaz, miseriordiak  
Santu onen, esanaz, akordadurik  
Kristiau, zireanak, arnasa esturik,  
Belaunez lurtean, Franzia gustia  
Almirante Jauna, miseriordia  
A legez izan baniz, Jainkoe fedea  
erakutsiko neutsen, gaitzitea,  
Zegaiti ez takien, Berba osorik  
jagotu inoxtbere Yzorrabagarik.

On lizate bakea, legerik baliz:  
autsi ezpa legie. Berbea barriz,

Ostera eta laster, alkar arturik  
jupoak bear dituez, aforradurik  
Daragiegun artean txil, eraso  
armaen indarragaz Kristiau oso

Il zelegiezan, Españakoak  
negarrez egozan, nola eskekoak,  
Victor España ta Gola (?) Franzia  
geadar minakaz, jente andia

konfianza orregaz, bizi arren gu  
larretan diñoa, si, non, bule, bu  
Si bule, bu, e non, bule bu  
Franzesai bear jate, ausi buru

Arzobispo Burdeosko, Perladu gejoa  
estuan daroazu, zeure kolkoa.

.....  
Erraz zuratean, beste amar milla  
berrogeta amargino, dira heriduak  
dulabre eukezalako euren eskuak  
ogeta amalau tiro, bronze onezkoak.  
An etxi zituen, Frantziakoak,  
berrogeta sei bandera, peleakoak  
arkabuz da, pistola, muniziñokoak  
Arzobispoen oea, Prinzipen bagera  
gureak ezar dezan, lepoaz etsera  
kopuzai granazkoak, erropa asko  
mutil pikaroak, jantzi ezteko  
mosketa eta lanza, kontu bagatik  
laureun da geiago, zaldiak ilik  
eun da larogei mila, dukat urrezko  
Franzesai pagea, egin eiteko  
sartu ziteanean, ondar ibaian  
Frantziarik ekar dezan, eurak aldean  
Bizitzak, osasunak, esperanza andiak  
an galdu zituen, Frantzes gustiak,  
Gastelako Almirante Generosoa  
sar zidin orduan, animosoa.  
Ekusi egianean, Domingo Egiko  
kasi lurrean, etxugi, jako  
esaten eusala, modu onean  
Berba onek, aen, artean, izan zitean  
D. Domingo Egiko, balerosoa  
beutso erregegaiti laztan osoa,  
Bigarrena España gustiagaiti  
irugarrena, barriz, neuk, zeugaiti,  
Erregen Majestaden biotz osoagaz,  
Maese de Campo, zara, bastoa onegaz  
Kastillau, gobernadore ondar ibaiko

egiten zaituz zeu sekula betiko,  
Pamplonako Gastelu, atxinakoa  
zeure eskuetan etxuten doa:  
Komendadore zara, jaun done akubeko  
Kurutze gorriagaz bularetarako  
zu legez kurutze au, merezidurik  
Españan eztago, saldun bizirik:  
Asko eta geiago, merezifu ozu  
dabelako Españak, atsegin artu:  
Ezin gitxiago, egin zendukean  
parkatu Bizkaiari, lealtadean:  
Faltadu ezin lei, berba errealak  
ez zugar bere iñox, ametsak, onak  
Escribietan deusun, karta gustian  
ifinten zaituz, zeu, zoor andian  
Ekusiko dozu, laster batean  
nola zorretarik, urten dokean:  
Erregen Majestaden, karten andia  
zugar iminten dau, biotz gustia:  
Konde Dukearen izar argian,  
zu izango zara, Domingo Egia:  
Zuti dagoan artean, ene burua,  
Almirantea legez, eutsi eskua:  
Izango nozula, adiskide, andi  
naxan artean, munduan, bizi:  
Laguna, anajea, adiskidea  
izango natxazu, ene fedea.  
Ezin gitxiago, esan neukean  
parkatu Bizkaiari, lealtadean:

Betoz, alkandorak, ene kofrerean  
zatxut bertati, Domingo oean:  
Zergaiti ekusen, Almiranteak  
izerdiz baltziturik, Beatirik, oea:  
Onrra emaiterren, Almirantea  
egiteun aginetan dau, zuretzat oea:

Bera zure maian, zu aen aldean  
ze ondo, zirudian, ao asatean.



Animada Bitez Bizkaikoak  
irudi eiteko, atxinakoak:  
Bizkaiko legeak, and foruak  
erregen Majestadeak konfirmaduak:  
Atxinarik dituz merez' duak  
zegaiti dituezan, garbi, eskuak:

Principe de Conde trompeteagaz  
zematu zengizanean eriotzeagaz:  
Emon zengiozala, Gaste'uen, Gilzak:  
Parkatu leizula, guztioi, Bizitzak:  
Zeu ez da besteak, leku gustian  
ifini egizan, bildur, andian:

Baia zuk, Bizkaitarren lege onean  
«Buru au il naiko dot zudai ganean».  
Eguntaño Bizkaikoak, orrelangaorik  
eztago egin dabela eskribidurik:  
Bizkaitarrak, giltzak, Franzesai emon  
ez eta balira, gustiok, Sanson:

Onrreagaz jaio, Onrregaz il  
gizona gizalegen, ez beti, mutil:

Lurrean Victoria, zeruan gloria  
Irabazi dozu, Domingo Egia:  
Bazakioz, Birtuteari, beti jarraitu  
Santutzat, Jaungoikoa, ekusi daizu:  
Birjinearen bespera, egungustia  
sekula gorde eikezu ondar ibaia:  
Domingo Bizkaikoari, zorra deutzatu  
ez pa, ia, zinean gustiok Gabatxu:  
Mila ta seireun da, ogeta amazortsi  
garrenea, izanda, biziak, bizi:  
Urrien zazpigarren, egun gustia  
Españentzat, aurten, izan zidia:  
Ain egun alegrea, akordetako  
papera geiago, balziateko:  
Dagigun gustiok, atsegin artu  
atsoak albiste, neuri indazu:  
zegaiti deutsuden, negu gustiko

zer esan ifini sugaterako:  
Gasteak egizu, danza eta saltu  
Paris bear dogu urtera artu:  
Eztaukezanak, pozik, gogoak  
izan dagiezala, paskoa jestoak:  
Alan daukezala, o'andakoak  
zegaiti direan txakur osoak.

Birjinearen bespera egun gustia,  
sekula gorde eikezu ondar-ibaia.  
Domingo Bizkaikoari zorra deutzatu,  
ezpa, ia zinean gustiok Gabatxu.

Mila eta seireun da ogeta amazortzi  
garrenea izan da, biziak bizi.  
Urrien zazpigarren egun gustia  
Españentzat aurten izan zidia,  
ain egun alegrea akordetako  
papera geiago baltzietako.

Dagigun gustiok atsegin artu;  
atsoak, albiste neurri indazu;  
zegaiti deutsudan negu gustiko  
zer esan ifini sugaterako.  
Gasteak egizu dantza eta saltu,  
Paris bear dogu, urtera artu:  
aztaukezanak pozik gogoak  
izan dagizala paskoa jestoak.  
Alan daukezala Olandakoak.  
zegaiti direan txakur osoak.

#### ATSEGIN ANDIA

Pierre Lafitte'k, bere «L'Art Poétique Basque d'Arnaud  
d'Oyhénart» (1665) deritxon liburuan, silaba ar-emeak dirala-ta  
diarduela, Bizkaikotzat damosku amaika silabadun seiko au:

«Atxegin andia da amore eutea,  
Eta bere bada gustiz firmea,  
Ezin esan aleidiz ondo munduak  
Zein andiak diren aren gustuak.  
Gloriaz beterik jaio nindia  
Ikusiaz gero Zeu, ene Eguzkia».

(Separata, 137 orrialdean. Baiona,  
«Gure Herria», 1967).

### BIZKAIKO MAITE KANTA (1609 - .....)

Salaberry, Azkue, Aita Donosti ta besteak lan jakingarria burutu eben erririk erri euskal folkloreko kanta ta letra bilia ibillia. Ba-dira oraindik arein jardunean jausi bakoak, adiera zurrez jokatuz gero, erriaren agotik eta sitsak erdi-janik daukazan paper zarretatik jaso leitekezanak.

Onakoxea da begi aurrean dozun olerkitxo au, azken urteotan J. Kerexeta jaunak Elorrio'n aurkitua. Aurrerago datorren «XVII Mendeko Bertso Zariak» Markifia'ko karmeldar idaztitegian liburu baten azal-apaingarri lez aurkitu zanaren antzera, au be Gonzalo Suarez de Paz irakaslearen «Praxis ecclesiastica et secularia» deritxonaren azken folioan daukazu, 1609'an argitara emonda.

Ene begiakaz biotzean artean  
errenkore andiak erne zitean.

Onerestea daukat biotzean sarturik,  
linda eder galant bat kausea izanik.  
Begiratu negion ta egun batean  
errenkore (andiak erne zitean).

Biotza begien dago kerella,  
zana librea ahek-gaiti katigu zidilla,  
ta atera ebelako bere ezerean  
errenkore (andiak erne zitean).

Begiak dautse egozten biotzari kulpea,  
aganik jaio zala onerestea,  
ta agaitirren aditu zerren zirean  
errenkore (andik erne zitean).

Koldo Mitxelena'k bere liburu «Textos arcaicos vascos»-en sartu eban, 122'gn. orrialdean.

Gorago aitaturiko euskal bitxi-batzailleen itzak eta kantak, noiztikakoak ete dira? Euskalduna noiznaiz ta nun-naiz izan da kantari. Amezazpigarren gizalditik onantza bear bada? Beti izan bada kantari, baita Santimamiñeko arpe ta kobazuloetan bizi zala be; beraz, ez ipiñi urte-arazorik gure aspaldiko eresi ta kantai.

### AGUSTIN BASTERRETxea (1700 - 1761)

Olerkariak ez ditu bizi-bear kezkek ortara aizatzen, ezta euren buruak ontzeko arluratu arloak be. Beste zerbait da olerkariak olerkari bihurtzen dituna. Dei bat daroe barruan, eta dei ori dabe lera giartsu poesi lanak sorterazteko. Erne-min dauko arimea ta barru-kezka orreri arte-sorpenez, olerki zerrendaz erantzun bear. Berezko gozagiro, gogaldi ta eskuarez jantzia dau arimea osorik, eta berez jatorkoz gero pentsamentu ederrak, biotz-ikara bizi-gozak; onez gafiñ, beerago indar edo gaitasunak be, ots, zentzunak, ikusmenak ta entzumenak adibidez, laguntzaille bikaiñak dira zeregin orretan.

Euskal lurra be emon ditu olako gizonak eta emakumeak, irudimen azkarrez eta biotz sentikorrez aberastuak. Orrean artekoa, ezbaia askatzera jo bear barik, Agustín Basterretxea, Lekeitio'tik bertan daukagun Izpazter'en jaio zan 1700-11-22'an. Ez dago zetan esanik, gurasoen sukalde gozoan ardura aundiko aziera izan ebanik. Leenengo eskolak bere errian eta gero Lekeitio'n osotu ondoren, Ume-umetatik barruan eroian goi-deiari erantzunez, Jesus'en Lagundian sartu zan 1716-10-25'an. 1734'an egin eban Jesuiten artean euki oi daben profesia nagusia; aurretik maixu lez Literatura,

Filosofi ta Teologia irakatsi ebazan, baita bidenabar Bizkaiko erriak zear mixiolari ibilli be. Geroago, Orduña'n eta Lekeitio'n nagusi izan zan, eta azkenez Lekeitio'ko Ikastetxeo buru zalarik, bertan il zan 1761-11-18'an.

Mixiolari lez, garai artan, bere itzaldi ta sermoiak idatzi ta buruz ikasi bear, Aita Agustin'ek be eukiko zituan idazlan-pilloak, baiña ez eban egokitasunik argitara emoteko. Nundik dira? Gaur ez doguz ezagutzen. Bai, ostera, ezagutzen ditugu bertsozko lantxo oneik: 1) *Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasiñoa* (Bilbo, 1777); 2) *Gizonaren akabuko lau gauzak* (Bilbo, 1881), eta 3) *Anima penitentearen negarrak*. Aita Agustin Kardaberatz'ek bere esku-idatzietan «olerkari bikain» deitzen dautso.

Iru liburuok egilleak bizkaieraz osotu ebazan arren, A. Kardaberatz'ek gipuzkerara biurtu euskuzan leenengoa ta bigarrena, eta izkelgi orretan ezagunagoak dira, eta olan agiri jakuz aspaldiko eleiz-libururik geienetan. Baita gero, A. Agustin'ek gipuzkeraz osotu ebazalakoan, leenengoa ta bigarrena beintzat, bizkaieraz jarri ebezan. Ai zuzen, 1932'an egindako irarpen edo ediziñoak titulu au dakar: «Yesukristo geure Jaunaren Pasiño santua, Aita Basterretxea Izpazter-tarrak ta Jesuiteak Gipuztzeuskerazko bertsoetan imiñi ebana. Oraín urtetan dau Bizkaikoetan garbiago, leunago, neurtuago eta bizkorxeago» (Tolosa), 24 orrialde. Bigarrena be, gero-txuago, Jose A. Oar'ek ipiñi eban bizkaieraz.

Bertsotan emondako iru liburutxo oneitatik leenengoa, au da, «Jesukristo gure Jaunaren Pasiñoa» izan da, urteak joan urteak etorri, geien argitaratu dana. Aita R. Galdos eibartarrak, 1928'an, onen argitaratze barria egiterakoan, ogei bat aurreratiko jarten daukuz lerroz lerro; baiña ba-dira antza geiago be. Leenengoz Bilbo'n argitaratu zan, Uriarte josulagunak diñoskunez, eta 1760' garren urtea baiño len. Azken urteotan, A. Galdos'ek ikerlan ederez ornidu ta apain-apain argitara emona (Donosti, 1927), bizkaieraz eta gipuzkeraz daukazu.

Izpartertar olerkari onegaz euskal idazleak eta argital-etxeak azturik egon diranik, ezin dogu ezelan be esan. Gogoratu ortarako nik neure «Euskal Literatura»-n (I, 231 orr.) jarri neban aipatzailleen zerrenda: «J. Urkixo, RIEV. XXII, 211 ta 150 orr.; R. Galdos, S. J., «Yesukristo gure Jaunaren Nekaustea euskerazko

neurritzez». Donosti, 1928; S. Onaindia, MEOE, 246 orr.; A. Irigoien, «Euskal Kantak», Bilbao, 1959, 17 orr.; L. Mitxelena, HLV, 116 orr.; L. Villasante, HLV, 120 orr.; N. Kortazar, «Cien autores vascos», 95 orr.; M. Zarate, «Bizkaiko euskal idazleak», 37 orr.; Auñamendi, «Literatura, I, 225 orr.; J. Vinson, «Essai Bibl. Basque», 116.

Aita Basterretxea'ren bertso-txorta oneik atsegin izan jakoz gure erriari, «Pasiñoa» deritxana batez be. Gaur-egunean oraindik Gipuzkoa'n, Bizkaia'n eta Nafarroa'n sarri entzun oi dira kantu biotz-eragille onen izki doñuak. Esan begie mañaritarak zein gogotsu abestu izan daben, bai eleizan eta bai kaleetan zear, urteetan abestu be, erritar jenteak eta abesbatzak!

## OLERKARI

Zabiltz eta uste bagean or dozu mendi-ertz ozkirria, loraz, zugatzez eta ur-sorburuz zoragarri. Goia urdin eta txoriak kantuz; bertatik sentitzen zara olerkari. Edo-ta, kalean bertan, alboan, lorategi bat eder, umetxo ta erri xeez inguratua, ta bertatik arrotzen jatzu barru guztia: olerkaritzat jotzen dozu zeure burua. Gelan gure olerkari —Lizardi, Orixe, Luuaxeta— baten poesi bat irakurri dozu ta zeu be bat-batez olerkari sentitzen zara. Luma artu ta asten zara idazten zeure arima olerkiz dardaratua paperean ustu nairik, baiña nai zeunkenik ezin dozu lortu, zerbaitek uts-emoten: ikasia, poesi-kultura, trebetasuna falta jatzu. Eta izate barruan daroazuna, ezin adierazo.

Olerkari ikasia denak, ostera, naike errez jadetsi oi dau ori ta geiago be. Orrela Agustín Basterretxea'k; jakintsu zan, jakintza ta Jainko-gaiak errotik ikasi ta aztertua, urteetan eurok gazteai erakusten ibillia. Poeta berez eta ikasia. Bizkaiko erriz-erri batez be Kristoren bizitza, mirari, pasiño ta sakramentuak sarritan baiño geiago otsegiña. Eta nagusitza, itzaldi ta irakatsien artean bitarte egoki askotik ez eban arren, noizik bein olerkintzari ekin eutson, eta or daukazuz gorago aitatu dautzudazan poesi lanok, gure euskal literaturaren bitxi atsegingarriak.

Eredu lez agertu nai dogun «Pasiñoa» deritxonak irurogei estrofa daukaz guztiz, zortziko nagusitan, naizta azken puntuak bederatzikoen sunda erion. Onela banatuta dagoz:

«Jesu-Kristori kendu ezkeru  
bekatuarekin bizitza,  
baldin ezpadet negar egiten,  
arrizkoa det biotza:  
guziok lagun,  
kanta dezagun  
bere penazko eriotza.

Mundua baño lenagotikan  
señalaturiko eguna  
alderatu zan obratzekotan  
gizonaren osasuna;  
argia bera  
alde batera,  
besterik egun illuna».

Au sarrera legez; eta Getsemani'ko ortuan, izerdi otza arpegian  
eta biotza atsekabez gainiezka, Kristo egoanekoa, onan abesten daus-  
ku koplariak:

«Ostegun Santu afal ondoan  
bere lagun zituela  
Jesus'ek iru dizipuluak,  
itz egin zien onela:  
«Triste nago, ta  
lo ori bota,  
egizute emen gaubela.

Getseman'ko ortu santuan  
auspaz lurrean jarririk,  
eskatzen zion, libra zezala,  
Aitari, kaliza artarik.  
Jesus penatzen,  
odolez usten,  
eta ez det nik negarrik?».

Gurutz astuna sorbaldan, Jerusalem'dik gorantz doa Kristo.  
Maitasun bizi-beroz ainbat urtetan Nazaret'en zeindu ta poztu eban  
amak, Andra Mariak ez dau itxi albora. Olerkariak onela dakar  
gogora:

«Bide onetan zijoanean  
Kalbarioko mendira,  
bere Semea kontenplatzeko  
Ama zegoan begira;  
an dira penak,  
an tormentuak,  
martirioak an dira!

Bidaltzen ditu Amak begiak  
Semearen ikustera;  
bañan biotzak, sufridu ezin-ta,  
biurtzen ditu atzera;  
datoz argatik  
begietatik  
biotzak itz egitera».

Literaturan gora aundikotzat joten zan garai aretan alkar-iz-  
keta, eta A. Basterretxea'k emen Ama ta Semea ipinten dauskun  
aurez-aurre autu samintsuan. Amak negar egiten, Semea alan iku-  
sirik. Semeak jardetsi: «Badakizu, Ama maite, / asko sentitzen  
ba' dezue ere / onela ni ikustea, / bestela ezin / zeruarekin / egingo  
dala bakea». Kristok Aitaren naia egin bear dau, ta Amari eskatzen  
dautso ortarako baimena. Eta aurrera mendi-gaineraifio. An ditu-  
gu, azkenik, Semea abean beso-zabalik, eta Ama gurutz-oifnean,  
zutik.

Olerkariak ba-daki zelan biztu-azo errukia irakurle edo entzu-  
learen biotz-barnean.

**JUAN ANTONIO MOGEL**  
(1745 - 1804)

Ez dakit egia dan Mogel aundiak bere «Peru Abarka»n emoten  
dauskun esaera au: «Jan sarrija, jan-gartzu». Ba' l'ño legez: sarri  
jan ezkeru, gosca jaku uxatzen. Beragaz osteru, ez da olan jazoten.  
Zenbat itzaldi, omenaldi, liburu, idaztiño ta abar osotu doguz atzo  
ta gaur J. A. Mogel goratuz, edo-ta Mogeldarrak aupatu nairik.

Dakizunez, ba, iru izan ziran Mogel abizenekoak: Joan Antonio, Markiña'n erretore luzaro egon eta bertan 1804'an il zana; eta onen loba Juan Jose ta Bizenta, biok euskal idazle ospe aundi-koak. Juan Jose 1811'tik 1849'ra Markiña-Xemein'go erretore, eta Bizenta, Azkoiti'n jaioa ta ezkontuta Bilbo'n luzaro bizi izana.

J. A. Mogel'ek asko idatzi eban, euskeraz eta erderaz. Idazle argi ta etorri ugarikoa, ona bere euskal liburu batzuk: 1. *Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean Erakasteak*, gipuzkeraz; 2. *Konfesiño ona*; 3. *Kristinauaren jakinbidea*; 4. *Peru Abarka*; 5. *Ipuin eta bertsoak*.

Mogel eta Añibarro arratiarra, bata Markiña'n txauburu ta bestea frantziskotar eliz-izlari, sasoi bardin samarrekoak eta adiskide miñak ziren. Añibarro goratuz au diñosku Mogel'ek bere *Konfesiño Ona* liburuan: «Gura dabena sinistu Bizkaiko euskerak ez deusala ezer zor kiputzenai, irakurri begi liburu onek baño leenago urtengo dabena neure adiskide andi, ta gauza onetan neure biarlagun legez egiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzko Kolejio A. San Frantziskoren Ordenan Misiolarijak bizkaitarren-tzat atera dabena liburu txikar, baiña urre guztiak baño geijago balio dabena». Eta Añibarro'k Mogel'gaitik bere *Gramática Bascongada*'n: Bizkaiko abade jainkozale, langille, jakintsu, errukior eta araberakoenetarikoa izan da».

Idazle jakintsu onen lanik ederrena, baiña, *Peru Abarka* dogu, gaurko beintzat. Orixe'k onela idatzi eban 1927'an liburu au goratuz: «Bizkaia'n ez ezik Euskalerrria'n argitara den liburutik ederretakoa da *Peru Abarka* (1881). Euskal-biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarrago. Peru nekazaria, eskolagabea, euskeraz besterik ezta kiena, Maisu Juan sendagillearekin ariarazten du. Peru ederki bezain Maisu Juan gaizki mintzatzen da. Gure Basarte'ko Irakasleak erakusten dizkio Maisu Juan'i ta guri ola, errota, eundegi, ardandegi ta gai eraiko lantegietan eta bildegietan diran gauzak eta itzak. Esaera, oikuntza, neurtitz, atsoitiz eta olakoak edertzen dute iburu au... Izkera apa'na, bizi, etorria, ugaria ta egokia ñu» (*Euskal Eskualea*, 232 orrialdean).

Giza-arloan ezpiritu zabalekoa genduan. Naiz erritar bategaz naiz erbestetar jakitunaz, jokabde bardiña eukena. Etzan aundi-zale, eliztar zale baiño. Apaiza zanez, bere mendeko kristauak zaindu ta

zuzendu bear zituen; orretan egin euskuzan bere egina lak, Euskal idazle izan ba'zan be, bere eliztarrak zituan elburu.

Idazle ta euskalari guren zanez, bere garaiko askogaz izan eban artu-emonen. Mogel gertu egoan beti nornairi laguntza emoteko, eskua luzatzeko, ta doai au ederra izan oi da adiskidetasunezko lokarriak estu-estu egiteko. Etxekoak lagun miñak zituen, Añibarro, Paulo Astarloa eta abar, eta adiskide zitun erbesteko jakintsuak. Humboldt do'ztarra bigarrenez Euskalerriratu zanean, asko lagundu eutson Mogel'ek; eta Humboldt'i atsegin jakozan arek Markiña'ko iturriari jarritako bertsoak: «Karlós Irugarrena / Bizkaiko jaun dala / Markiñako uriak / egin nau onela. / Ugarteko axpeetan / daukat jatorria, / ubide sakonetan / ekarri ugaria, / Ur au ederra zala / esanik aituak / alan arindu dira / neke ta kastuak». Adiskide zituen Vargas Ponce ta ingurukoak, aren idaztietatik agiri denez.

Idazle legez bikaiña dogu Mogel. Nik onela idatzi neban neure *Euskal Literatura*'n: «Istinga zabal bateko ura bezain gardena dogu Mogel'en izkera. Edozertan trebe darabil idazkortza; euskerak ez duela gaiztasunik ez ezinik nornairi adierazten emanaz. Mogel euskal idazle klasiku bat dogu, oberenetarikoa izan ere. Ba-ditu akats batzuk —nork ez?—, joskeran batez ere. Baiña ez arritzekoa, jaiotzeko bait zeuden oraindik gure erri-euskeraren joskera jatorra t'inkotu zuten Arana-Goiri, Azkue, Altube, Orixe eta besteak» (II, 26 orrialdean).

Eder-zale zan Mogel. Onak eta norbere izkuntza ondo jakiteak, ikeragarrirero erreztu oi dau olerkigintza, edo bertsoigintza beintzat. Eta *Peru Abarka*'ren aita bertsoigintzan be jarduna dogu. Beronen loba Bizenta A. Mogel'ek *Ipuin Onak* liburua argitaratu eban, izlaur egindako berrogetamar ipuinezko liburua; ementxe datoz geigarri lez zortzi alegi osabak bertsoz idatzitakoak: 1. *Andra alarguna ta oloa*; 2. *Osoa ta antxumea*; 3. *Lapurrak eta ollarra*; 4. *Baserritarra ta basaurdea*; 5. *Zakurra ta katua*; 6. *Katamotza ta zakurra*; 7. *Katua eizari basokoa*, eta 8. *Astoa eta osoa*.

Etziran oneik bikarrik ondu zituanak. Bizenta'k diñoskunez, pillo galanta eukan bere osabak idatzia eta betak pillo orretatik banaka batzuk artu ebazan, adigarri lez zortzi oneik bere liburu

ipuiniez betean sarturik. Nun dira beste alegiak? Orañarte beintzat ez dakigu ziurrik.

Geroago, Julio Urkixo'k (ikus RIEV, 1907, 90 orr.) oar-azten daukunez, Azkue jaunak bialdu eutson alegimordo bat Paris'ko Laterri Bibliotekan (A. d'Abbadie Bilduma) kopiatuta. Pillo onetan 35 alegi edo ipuin datoz eta amarren oiñean onela irakuten da: «*Mogelena*», au da, 3, 6, 12, 15, 20, 25, 28, 30, 31 ta 32'garenak daroe ori.

Munduko ipuinlari jatorren oiñatzez bide egiñik, azal ta mamin ondo buruturik eskintzen daukuz Mogel'ek bertso-lan oneik be. Irakur oso-osoa *Andra alarguna ta oiloa* deritxona ta emon zeuk eretxia.

«Andra alargunak eban  
zorionez etxean  
ollo arrautzaria:  
ta zan ikusgarria  
egunoro ifintea  
utsik бага arrautzea.

Diño bere artean:  
«Emon yeutxadanean  
aldi batez artoa,  
arrautz egunekoa  
beti yeustak egiten.  
Zer, bada, eroaten  
bayeutsat nik bi bider?»

Arrautz bat ez dot ezer  
emonik janaldi bi:  
egingo bere nok ni  
andi tzar biren jabe.  
Zelan bada ez yauek  
asmatu onangorik?»

Alan ero-erorik  
gizendu zan olloa  
ta arrautza batekoa  
alpertu zan guztia.

*utsean geratzea».*  
*geiegi billatzea*  
*Beti izan da egia*

Amabosgarrenak *Otso gaixotua ta ardi askojakiña* dau izenburu. Onela asten da:

«Otsoa dabil basoetan  
basterrak guztiak galduten,  
emen ostu bestean ilten  
jausi da txakurren ortzetan:

Eta aginka ebagirik  
itziten dabee gaiztoak  
galdurik bere lau zankoak,  
baia orregaitik bizirik».

Egun ta egun ondu da zerbait eta goseak artu dau, eizeak ez dautso emoten eta bedarraz ezin atondu. Ardi bat dabil antxe jaten, eta miñetan dagoala-ta, ura eskatzen dautso ontzi baten. Eta ardiak:

«—Ura nai dok nik ekartea?  
—dirautso urtento ardiak—,  
ez arabil eu egarriak;  
gosea dok, luki, gosea.

Gura eunke malmutz, garbitu  
polito polito zintzurra,  
ta atarako neure azurra  
ire aginetan apurtu.

guzur utsa daukak miñean».  
Arinik ezin doanean  
asmadu dok ire egarria  
eta azala errukarria

Ez eutson ardiak malmutzari urik eroan. Eta ipuinlariak ondoren erakusle lez, bakotxak gordeteko diñosku norbere burua gaizto deunga guztietatik; ez sifistutu euren berba leunik, izan ez gaitzezan galduak.

Onelaxe zuur, pipertsu ta eder osotuak ditugu Mogel'en alegi guztiak; baekian nundik nora joian. Bertso guztiei darien gatza ta gozotasuna, miresgarriak dira, bizi-bizi, euskera garbi ta errezean onduak. Arabar Samaniego'ri na'z Iriarte'ri ez dautse ezer zor, ez mamifnez ez izkeraz. Neurkeran eta oskidetzan ez dautzu akatsik egiten, Zabal-aztea merezi leukie alegiok.

## JUAN ANTONIO ABOITITZ (1751 - 1824)

Uri ederra dozu Lekeitio. Etzara iñoiz egon bertan? An bizi diranak eta kanpotik ara joanak, ao batez autortzen dabe, itxas-aldeko errietarik ederrenetarikoa dala. Kantauri ertzean daukazu, mendi, ugarte, ondartza ta bidez txairo apañdua. Etxeak zuri ta gorri, kaleak luze ta medar, iñoiz ez ixillik; alai kaia, ontzi koloretsuz argi ta ponpox; aize-tokiak zabal ta atsegin, Tala ta ingurumari dotoreak, kresal osasuntsuz biriki-auspoei deiez. Eliz aundi ikusgarria kanpotik, eta Euskalerriko ederrenetarikoa barrutik.

Lekeitio au ezta agorra izan euskal literaturari begira. Eta auxe da gure arloa. Ortxe munduratuak doguz Azkue aita-semak, biak euskal idazle jator; ortxe jaioa Eusebio Erkiaga, olerkari bikaina. Ez noa, alan be, oneik goratuz aizatzer. Besterik da nik asmo dodana. Onein artean eta oneik baiño lenagokoa dogu beste lekeitiar olerkari bat, oraintsu arte euskal literaturan bibliografi asko sortu bakoa, erdiezeguna, baiña bere euskeragaitik ikerlariéntzat interesgarri leitekena.

Idazle au, izan be, garrantzi aundikoa da Bizkaiko euskal idazleen artean, idatzizko eusko-pizkundearen aurretikoa dogulako. Lekeitio'n jaio zan J. A. Aboititz, 1751'ko jorriallaren 3'an, goizeko ordu bi t'erdietatik iruretara, eta egun berean ango txauburu Domingo Xabier Gamarra'k bateatu eban, Juan Antonio Agustin izena ezarriz. Juan Aboititz eta Ursula Azterrika gurasoen legezko semea zan. Aitaren aldeko aitita-amamak, Juan Aboititz eta Domelka Zarankondegi; eta amaren aldekoak, Antonio Azterrika ta Katalina Uskola; Juan Aranburu ta Maria Axpe'k egin eben aita-bitxi ama-bitxi. Gurasoak, Lekeitio'ko Andra Mari el. zan ezkondu ziran 1747'ko jorriallaren 4'an, testigu izanik Nikolas Zatika, Santiago Uskola eta beste batzuk. Ursula Azterrika Izpazter'koa zan alabaz.

1754'an artu eban Sendotza deritxon sakramentua, irailaren 30'an. II barriz, parrokiako liburuetan datorrenez, 1824'ko urriallaren 2'an egin zan, Elizakoak artu ta Zamora idazkariaren aurrean testamentua osotu ondoren, 73 urtean ainbat lan egiñiko apaiz umore onekoa. Bateatzerakoan, Juan Antonio Agustin izena ipiñi eutsoen eta illen liburuan Juan Antonio Aboititz bakarrik agertzen da. Askue'k diñoanez, ez ei dakigu umore oneko gizaseme oni zergaitik deitu eutsoen b'ziten asi zanean J. A. Agustin eta mundu onetatik urtzkeran Juan Antonio bakar'k. Irri-gertaera ete?

Lekeitio ez da loku ez-egokia bertsolari naiz poeta, izatez zerbait danari, oler-mintza arrotzeko. Aboititz gero apaiz bertan urte askoz bizi izanak, orrela erakutsi euskun. Itxas-ondokoak geienez ala ta zaratatsuak izan oi dira: or ondarruar eta lekeitiarrak, Bermeo'ri ezertxo kendu barik, arrantzu-lanak amaitutakoan, Andra Mari; San Antolin naiz Santa Eufemi-jaietan...

Itxas-ertzean jaio ta lumaz trebe diran euskal idazleak be, naiko ixurkoi izan oi dira euskaldunak berezko dauan doai orretan, au da, umore onean. Begira gorago aitaturtako Azkue aita-semeak, Erkiaga eta orain alda-maldaka derabilgun Aboititz abadea, Orrez gaiñ, zer-edo-zer bada, leengo gizaldietakoak batez be, min-kaitz baiño umore ta gogo oneko izaten zaleago dituzu. Bekarte illuna ez jaku eder.

Aboititz, euskaldun jator lez, umore ederreko agertzen jaku itxi euskuzan olerki-lanetan. Munduko literatura guztiak daukiez ola-koak, umore oneko idazleak, euren barrua goza-giroz dabenak. Edo-ta zerbait barregarri ipiñi nai izan danean, jokabide ortatik ibilli direnak. Antxiña ezagutu eben greziarrak, eta Erroma'n Horazio, Marzial ta Juvenal latindarrak txibitaren astiña aderto erakutsi eben euren olerkietan; eta Boccaccio'k Italia'n, eta Molière, Voltaire eta oraintsuago Anatole France'k Frantzi'n; Sw. ft, Defoe, Dickens eta Bernard Shaw'ek Ingalterra'n, ta Hiita, Quevedo, Iriarte, Valle-Inclan eta beste batzuk Espaiña'n...

Gure literatura, zoritxarpean bizi izana bait dogu, Etxahun'ek baleiteke betaz egoanean bere arro-aldiak edertua izatea. Era ortakoak doguz arek biribildutako olerki ederrok, «Ofizialenak», «Gaztalondoko neskatilak», «Bi ama alhaba», Maria Solz eta Kastero», «Barkoxeko eliza», «Mendiko herria» eta besteak. Eta zer da erderaz *satira* esaten jakon bertso-klase orti? Idazti bat, naiz itz lauz eta naiz bertsoz egiña, erriko oitutak eta ekanduak, jan eta edanak, jazkerak naiz modak, politikuak, diruzaleak, agin-e-billa jo ara ta jo ona dabiltzanak, jorratu ta gaitzesten erabilli oi ditugun bertsoak; literatur-mota legez, munduko idazleen artean leen eta orain sarri atsegin jaken ziri-lanak, gizonezko naiz andrazkoen auleri ta jausi-aldiak txibitatzeko geienbat erabillitakoak.

Irri ta barre bertso-gilleak aparteko giroa dabe eurekan. Gauzak eta giza egitadak ikusi ta jasoteko zorrotzasuna, umore onaz naste, sortu oi dabe giro orti. Talde ontakoa genduan Aboititz. Apaizak oi danez, sarri egiten eban bere ibiltaldia nasan zear, Arranegi, Narea kalean zear, bazkal aurretioxan eta illun-nabarrean, beti begi-luze ta oanle, beti olerki-gaitxoren baten billa. Lekeitio'ko kale-bazterretan, ez dakigu noiztik, baiña ugari samar daukaguz, leen eta orain, ardangelak eta txiri-bogifñak. Orreitatik ibilli oi zan,

jakiña, Aboititz abadea, aregaz eta onegaz autualdi luzeak egiñez. Ba-ekian, beraz, zelako piztia zan, Peru Dubko, esate baterako, an-emen napar baltza edanaz, erdi-mozkor, txerbel, apaizari egu-nero ateraldi ez-leunak botaten eutsozana. Baita ezagun eban Txanton Pipirri be, iñoren bizkar bizi zana; baita ezagutzen urliak apaizak, bere sasoikoak, etxean eukan «Matxango» tximinoa be; ezagun ebazan neskazarrak, arrainsaltzaille barritsu, miin-zorro-tzak... Aboititz olerkariak, oneik guztiok igurtzi ta leusinduz, be-netako poza artu oi eban.

Eta bertso errezez onako ziri-lanik naikoa ondu zituan, antza danez, naizta gaur euroatik asko jakin ez nun diranik. Azkue zanak, bere Morfologia Vasca-n, oneik aitatzen daukuz: «Peru Dubako», «Txanton Pipirri», «Matxango», «Mendi altu orretan», «Zeugana nator, Pedrotxu», «Ezaguna naiz neu, Velasquillo», «Trakamailgo Erregiña» Azkue berberak diñoanez, lengo gizaldia-ren erdirantza prailleak komentuetatik bota ebezanean, Aita Jose Antonio Uriarte, frantziskotarra, euskal idazle ugaria, Lekeitio'n bizi izan zan urte batzuetan; arek osotu eban Aboititz'en eta beste batzuen idatzietatik bertso bilduma bat, eta Azkue'k bere aldetik, lan ortatik aldatu zituan batzuk.

Ona zer-jan billa kalerik kale ebillan Txantxon gizajoari jarrita-ko zazpi estrofadun olerkitxotik iru aapaldi:

Txanton Pipirri emen dago,  
limosna on ba'lego,  
Kanta bear dot, baldin al ba'dot,  
neure sabelean gosea,  
erruki dedin-jentea.

Egun baten apustua egin eben iru lagunen artean, Izpazter'en jango ebela goizetik gabera amar erraldeko txala. Txanton'ek, itxaropentsu, onela diño:

Pozez nengoan zoraturik  
jateko lauren bat osorik.  
Neure kontuak beti alanguak;  
joan da poza potzura,  
amesak diran modura.

Goseti onek guttiz zabala dau sabela, bardin gibela, este ba-kotxak artuko leuke ganbela bete okela. Ezta errotan arririk, bere agiñak langorik; baiña okela gitxi beratzat, eta besigua janez naikoatu bear Besigu-jataldi ederrak, bai. Ona berak:

Lekeitio'ko kalean  
besigu-denpora danean,  
ogei txitxarro ta geiago,  
eta guztiak gauean,  
sartu dodaz sabelean.

Egoki litzateke Aboititz'en olerki guztiak batu ta txorta txiki batean argitaratzea.

### JUAN MATEO ZABALA (1777 - 1840)

Batez-bat, zuloari larakoa lez datorkigu emen, L. Akesolo'k oraintsu idatzia, au da: «Guk geure gauetan ikusten dogun izarren argia ez da oraín bertan izarrok bialtzen daukuena. Urteak bai urteak egin ditu andik onaño eltzen. Bardintsu jazo da Aita Zabala onen argi edo ospearekin: urteak joan dira guganaño eldu arte» (*Karmel*, 1977-4). Gaur alan be, zabal dabil onen ospea, bai gramatikalaria ta bai ipuin-idazle be.

Bilbo'n jaio zan euskaltzale jator au, 1777-9-21'an. Bakiotarra eban aita, ama barriz Billarokoa. Añibarro ta Zabala, biak frantziskotar, adiskide kutunak, euskera maite ebenak eta euskal arloan lan ugari burutuak; biak sermolari ta euskal idazle, euskera ta euskal-erria zaindu ta goratu nairik.

Latin eta gaiñerako eleiz-ikasketak Bilbo'n San Frantzisko komentuan egiñik, beste ikasketa nagusiak —Filosofia ta Teolojiari buruzkoak— Gazteleerrian egin ebazan, berberak diñoskunez. Erbestean! Eta zelako arantza biotz barruan! Ostikopean eta larri ikusten eban bere izkuntza, ta erria... Berari be, aaztu egin jakon ia-ia amaren altzoan ikasi eban euskera, edo beintzat meza barria



abestu ebanean ez eukan egokitasun aundirik eta erreztasunik Jau-naren itza otsegin eta arima-zaintza egiteko. Ez, ezin erriz erri ibilli sermolari. Ta orduan cstera asi zan euskera ikasten, Larra-mendi ta Astarloa'ren lanak irakurriz batez be.

Buru argikoa zan, eta 1804'an, Filosofi-irakasle izentatu eben Bilbo'ko komentuan; lau urtean orretan jardun eban, au da, Na-poleon Bonaparte'k, 1808'an, prailleak euren komentuetatik jaurti ebazan arte. Ordu estu ta larri areitan, ara ta ona ibilli jakun Aita Zabala, beste ordena askotakoén antzera, Galizia'ko Herbon fran-tziskotar mixiolarien ikastetxean, eta abar.

Erri-miñak joa azkenez, Zarrautz'eko mixiolari komentura al-datu ta ementxe bizi izan zan 1815'tik aurrera, beti izlari ta lan-gille. Ementxe il zan 1840-2-6'an. Ardura berezizko karguak euki ebazan komentu barruan, birritan bertako Aita Nagusi izanik, le-nengoz 1826'tik 1829'ra ta bigarrenez 1839'tik aurrera. Bere be-soetan emon eban azken-arnasa A. Anibarro'k. Bergara'ko besar-kada ostein, egun latzak esan bearko: birritan arakatu eutsoen ederto komentua, baita beste birritan bere, txispa artean, Getari'ra eroan be liberalak.

Beargiñak ez dau gura atsedetik, ez oporrik; berezkoa bait jako lanari loturik bizi izatea. Olakoxea genduan Aita Zabala. Ira-kasletza ta etxeko kargu artean be, bere izkuntzak kezkarazten eban. Astiune artean ainbat lan, euskal zelaian atan be, mamindu ta osotu euskun.

Ona iru oneik beintzat:

1. *El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (Do-nostia, 1818). 169 orrialde. Zabala ilda gero, Gipuzkoa'ko pro-bintziak argitaratu ebana. Euskerea, egia esan, ainbat urtetako go-raberak bizkar gaiñ, bizirik iraun bai, baiña an ta emen naiko aldatua aurkitzen zan, eta A. Zabala'k euskal irakurleak artu zituan elburu nagusitzat; uler egiela oneik entzun eta irakurten ebana. Erriz erri ibilliz, erriaren aotik jaso ebazan forma jatorrak erein euskuzan liburu orretan. Eta ortik ikusten danez, naiko «regular» dogu gure bizkaitar aditza, beste izkelgietakoa baiña batu ta loji-koagoa.

2. *Noticia de las obras bascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi* (Donostia, 1856). Amar orrialdeko idaztitxoa, Auxe dogu idatzi neban nik «euskal litera-tura bildumetatik osoena, bere laburrean beintzat, geroztik agertu diranai ezer kendu gabe».

3. *Fábulas en dialecto vizcaino* (RIEV, I, 1907, 90 ta 529; III, 25 orr.). Bizkaiteraz dagoz, Zabala'k gaixoaldi baten osotuak; 23 bat bere-bereak, eta beste 13'ak; 11 J. A. Mogel'enak; bat Bi-zente Mogel'ena ta beste bat Salaberri'rena.

Sarti esan doguna, ta esango be bai: Ipuin-zalea da euskalduna, ta bertso griñaz betea. Ba ekian ori Zabala'k. Eta makal-aldian orixe erabilen gogoan, bizkaitarra ipuin batzuk eskifiñ bertsotan: «Makalaldi baten —diño berak—, beste gauzatarako ez nintza-nean prestu, eta ocan bestetan baiña astiroago egon bear izaten nebanean, ene atsegingarrikako uste ez neban egiñen oni ekin neuntsan». Eta zergaitik bertsotan? Berak barriro: «Onelango ipuiñak izan datoe berezko gatza, gazigarria ta uia, gogoa joteko, begizkoa egiteko, ta errazago oratu ta erantsiteko». Eta emen dau-kazu Zabala euskal idazlea, olerkari be egiña.

Zabala'ren alegi edo ipuin bertsotuak ez dabe, beste askorenak lez, autsarrean egote luzetik egin. 1934'an, «Euskaltzaleak», J. Ariztimuño'ren itzaurrez dotore, «Eusko-Alegiak» eritxon liburu-txoa atera eban; alegi edo ipuiñok A. Zabalarenak zitan. Geroago nik be, 1954'an «Milla Euskal Olerki eder»-ean, bilbotarraren 9 alegi sartu nebazan. Arrezkero be, or-omen, aitatuak izan dira. Beraz, ez dituzu aizcaren arnas utsa legez. Alegi orreik, literatura orokorreko altxortegitik, gunez beintzat, jasoak izatea ba leiteke; baiña Aitzolek: «Alegi oiei eusko-kutsua erantsi zien. Bertso erre-zetan oparotsu ipuiak adierazten dizkigu. Ain errezi bertso doaia gure artean izan duanik gutxi noski».

Sarritan olerkari baten lantxo bat naiko izan oi da gizaseme-orek zelako galtzak jazten dabezan jakiteko. Irakur eta txasta egizu zeuk askoren artean aukeratu dodan au, «Gurasoa ta umeak» deritxona:

«Ilteko etsita ia egoan  
guraso batek, umeak  
aurrera ekarri, ta ondoan  
dirautsez olango berbak:

—Ene semeak,  
gutziz maiteak,  
nik laster il bear yoat.

Ia niretzat ez dozak ezer  
mundu onetako gauzak;  
zuentzat ortxe, bai eta laster  
itxiko yoadaz danak:

ortxe bazterra,  
etxe ederra,  
eta mastui galantak.

Baia, ez fiteuketik nik joan gura  
zeuei au esan bagarik,  
onen mastuitan zaintsu atxurra  
erabillita sakondurik,

katanarrua,  
bean sartua,  
topauko'zue beterik—.

Dirautsa, bada, bat-besteari:

—Ze katanarru oberik?

Nonbait aiteak au iragarri  
nai yeuskuan, ez besterik—.

Ea, gizonak!

lan on sakonak,  
onexegaz aberasturik».

Ipuñok dirala-ta askok emon dau bere eritxia, ta ez beti bat  
datozanak. Azkue'k diño: «Bilduma polita». Eguzkitza'k: «Ez da  
munduko ipuilari aundien ondoan ipintekoa; baiña aintzat artze-  
koa, bai».

Andik guraso au il ezkeru,  
aren esan gañera  
semeak lana bero bai bero  
egiten abiau dira:

mastuia atxurto,  
zoiak apurtu,  
ta azpiko lurak ganera.

Katanarrua ez zan agertu;  
ez eta beste dirurik.

Baia mastuiak alan atxurto  
eta mats-mordoz beterik  
euren saria  
irabazia  
gonburu deutse ekarririk.

Ganezka, bada, upakerea  
bete daue txakoliñez;  
ta batzuk edan, saldu bestea,  
kontuak jota, azkenez,  
seme bakotzak  
dituzan poltzak  
bete dituz urre onez.

## AITA JOSE ANTONIO URIARTE (1812 - 1869)

Ona euskal literatura barrutian beste gizaseme aipagarri bat,  
mixiolari kementsu baizen euskal idazle bikain. 1812-5-28'an Arri-  
gorriaga'n munduratu. Beronen gurasoak, aita Txomin Uriarte,  
Basauriko semea ta ama, Madalen Adaro, Arrigorriaga bertakoa.

Leen-ikasketak bere sorterrian egin ondoren, Bermeo'ko pran-  
tziskotarren aztetxean artu euskun praille jantzia. 1829'an, Labas-  
tida'ko komentuan ikasi zitun Edertiak eta Jakintza, eta Bilbo'n  
Teologia, 1833'tik aurrera. Karlista gerraldia zan. Azpeiti'n meza-  
kotu zan 1836'an, eta prantziskotar Ordeneak 1839'an Arrasate'n  
euki eban Batzarrak, orduan oitura zanez, izlari ta autorle izendatu  
eban. Urrengo urtean Espaiña'n prailleak, eta Euskalerrian be bai,  
komentuetatik uxatu zituezan zati baterako.

Uriarte Markina'ra joan zan, eta antxe —eta Lekeitio'n— bizi  
izan zan langille ta baketsu 1859'rarte. Sermolari ibilli zan erririk  
erri; Bilbon' San Nikolas eleizan azken-epaiaz ziarduala, Bonaparte  
printzipeak entzun eutson eta eder izan jakolako aren jarduna, une  
aretatik bere laguntzaille artu eban aita Uriarte. Auxe, euskal lanari  
gogotsu emona, laguntzailerik bikaiñenatarikoa izan eban prantses  
printzeak.

Aurrenik lan txikietan lagundu eutson, baiña gero arek emon  
eutsan arazo garrantzitsua —Biblia osoa gipuzkeraz jarrea— ederto  
baiña edertoago burutu eutson. Lapurdieraz eta gipuzkeraz osotu  
nai eban Bonaparte'k Bibliaren itzulpena; Duvoisin'ek egingo  
eban lapurdieraz eta Aita Uriarte'k gipuzkeraz. Biak osotu eban  
euren lana, baiña argitaratzekoan ez eban zori bardiña izan, Du-  
voisin'ena oso-osorik argitaratu zan, ez ostera Uriarte'rena, lenen-  
go iru liburuak —Asiera, Urteera ta Lebitarrena— bakarrik azaldu  
ebezana; beste zati guztiak Gipuzkoako Diputazioaren liburutegian  
dagoz gaur be esku on baten zain. Itzultze au zala-ta, ainbat ostera  
egin bear izan zituan Londres'era, eta Bonaparte'k nai ebanez Be-  
terriko euskal dialektuan daukazu Aita prantziskotarren lana.

1859'an zabaldu barri zan Bermeo'ko frantziskotarren komen-  
tua barriro be. Emen bizi da Aita Uriarte, eta lan dagi euskal  
gaietan. 1862'an Londres'era doa Bibliaren itzulpena arik zeatzen

eta ariñen amaitzeko. 1867'an egiña eban, oso-osorik. Baiña gaixorik aurkitzen zan, naikoa gaixorik; eta San Millan de la Cogolla deritxon erritxoko komentura eroan eben, osasun billa. 1869'an, ostera, Zarautz'eko komentura dator, beretarren artera, euskaltzale asko datorkoz ikustera, Klaudio Otaegi zegamarra auron artean. Onek diñosku txarto aurkitu ebal. Eta, izan be, andik egun gitxira il zan Zarautz'eko komentuan bertan, 1869-620'an. 57 urte zituaririk. Garai aretako euskaltzale urten guztiekin izan eban artu-emona.

Idazle ugaria ta gozoa izan genduan. Ona aren lanik ezagunak: 1) *Marijaren illa*, edo *Maijatzeko illa* (Bilbo, 1850); 127 orrialde. Markiñaldeko euskeraz. Barriro be 1885'an argitara emona; 2) *Jesus Sakramentaduari eta Ama Donzella Mariari Bisitak* (Bilbo, 1856); Tolosa'n barriro be 1893'an argitaratua; 3) *Biblia* (London, 1859 zati bat beintzat); 4) *Maria Jangoikuaren Amak*; 5) *Ipuiak*, eta abar. Eta argitara barik ainbat lan.

Kutun eban bere izkuntza, eta maitasunak lanera bultzatzen. Mikel Zarate, beste batzuen artean, onela Jaunak bakartik daki zenbat eta zenbat ordu emon ebazan gure Aita Uriartek euskera laetan, «gure asabetatik etorritako berbeta gozoa» ikasten, landuten eta idazten. Orrelantxe emon ebazan, emon bere, bizitzako urterik geienak. Osasuna bere orretantxe galdu eban».

Biribildu zituan ipuiñak bertotan dagoz. Ona bat, *Neskatilla esne saltzaillia* deritxona, nire «Milla euskal Olerki eder» liburuan be (273 orr.) datorrena.

Neskatilla bat uri batera joian  
esnia eroiala bere pitxarrian,  
ondotxu saldu ta aberastuko,  
eta egun onak gero igaroteko.

—«Salduko dot —diño— esnia,  
egingo dot irabazi ezin obia,  
eun bat arrautza ditut erosiko  
eta onek laster iminiko  
oilloen lumapian,  
eun bat txitatxu egin dagizan.  
Salduko ditut gero oillaskuak,

oillandak biurtuko dira oilluak,  
arrautzak oneetatik,  
ta askora egingo dot gitxitatik.  
Au poza! Urte biren epian  
diru asko izango dot aldian.  
Zorionekua onelan ni!  
Erosiko ditut bei eder bi,  
jaioko yataz gero txalak,  
egingo dira bigak eta zekorrak,  
bigaiakaz beiak  
eta zekorrak azita idiak.  
Esnia, barriz, izango dot ugari;  
esango deusat otsein neskatilliar  
karutxo saldu dagiala  
ta gona barri bat egingo deusadala.  
Idiak ditudaz ledituko,  
zezin-geitzat gero salduko;  
eta, azkenian,  
diru gorri asko nere etxian.  
Asmo onekaz zororik joian,  
aberastutia ebala gogoan;  
one'an itxuturik,  
ba'lego legez diruz josirik.  
Gogorazino oneetan aztu  
nun eban bere esnia sartu:  
labandu ta joten dau beia.  
Agur, pitxar! ta agur, esnia!  
Negarrak darraiko pozari,  
ezerezak aberats ustiar,  
eta neskatilla errukarria  
gelditzen da galdurik guztia.

★ ★ ★

Ipuin onek zer deusku esaten?  
Neskatilla eruak zer erakusten?  
Ondo jakin naidozu?  
Belarri biakaz entzun eg' zu:

«Darabiltenak ondasun makala  
pitxar auskor ta argalean,  
ezer бага, esku utsean,  
gelditu dira beriala».

**EUSEBIO MARIA AZKUE**  
(1813 - 1873)

Lekeitiarra, R. M. Azkue, Euskaltzaidia sortu ebanaren aita, bertan jaio eta illa. Osalari baten semea. Aita Zamudio'koa zan ezkerre ta an osalaritza egin, semeak aukera onak izan zituan lenengo ikasketa sakonak egiteko; Bilbo'n ikasi ebazan itxura danez latin eta jakintza gaiak frantziskotarren artean. Urte urduriak ziran areik, karlisten guda-aldian ain zuzen; eta euskal erritik alde egitilik, erbestean ikasi bear izan eban itxasorako bear zana.

Gerorako bizitza, lekeitiar gizaseme azkarrarena, onela laburten dausku A. Akesolo'k: «Ikasketok amaitu orduan, urte batzuetan, itxasoz itxaso dabil, ara eta orra, pilotu eta kapitan-maillan, lur barriak eta gizarte barriak ikusi eta ezagutzen. Bein ezkondu eta leorreen bizitzea erabagi dauanean, itxas-gintza irakasle jarriko da. Bermeen lenengo gero luzaroago Mundakan, eta azkenez, 1862'tik aurrera, bere jaioterrian, Lekeition. Emen jarraitzen dau, eriotzeak bizien artetik eroan eban arte» (*Karmel*, 1979-27 orr.).

Gaztetatik sentitzen eban barruan euskal zaletasuna, eta ortik sortu jakon euskeraz idazteko gogo be «Mindurik bizi zan —diño A. Akesolo'k—, euskereak poesiarako ain egokia izanik, lantzaillae geiago ez eukiteaz. Bera, ixillean, baiña barruak alan eskatu eta agintzen eutsalako, lan eta lan dabil beti, era guztietariko bertso-lanak sortzen: erlejiñozkoak eta osteangoak, benetasunezkoak eta barre eragitekoak, luzeak eta laburrak. Danetatik egiteko eukan gatza eta jasa, batez be gauza jolasgarri eta ziri-bertsoetarako» (*Ibidem*).

Gizon lez aitagarria ta zintzo genduan; itzez apala, apalkeri bakoa. Asko ikasia, gauza askotan aitua, matematiketan batez be;

itz egikeran soñuz bakana ei zan, arrotz itxura ebana. Zozo bat ei eukan kaiolan au esaten eutsona: «Azkuen zozua naz ni, urra Pepita».

Barruan eukona lumaz azaltzeko, beti ekarren esku artean patera; eta diñoenez, asko idatzi eban, baiña or geratu ziran aren idatziak pilloka galduak, itz-lauzkoak; bertsozkoak ez eben ainbeste zoritxar izan. R. M. Azkue bere semeak eskua emon eutsen, *Parnasorako Bidea* (Bilbo, 1896), 367 orrialdeko liburua argitaratuaz.

Zortzi sailletan banandurik dagoz bertako poesi-lan guztiak: 1) *Oneraspenezkoak*, zazpi; 2) *Ipuñak*, bi; 3) *Jolasgarriak*, ogetaamailau; 4) *Kondairazkoak*, zazpi; 5) *Irrigariak*, zazpi; 6) *Ziri-bertsuak*, amasei; 7) *Pozgarriak*, bat; eta 8) *Benetakoak*, amabost. Guztira, larogeta bederatzi. Itzuliak ditu lan bi: «Ave maris stella» eta «Dies irae». zortziko aundiaren neurritz onduak. Beste guztiak jatorrak ditu. Eta R. M. Azkue'k, eurotatik naikoa beintzat, «Euskalzale» asterokoak be argitaratu zituan. Banaka batzuk ba-daukaz oindiño, Aita frantziskotarren komentuetan Bermeen eta Zarautzen, garai baten A. Uriarte'ren eskuetan ibilliak.

Zer gairi ekin ete eutson bereziki? Danetik, esan bearko, zortzi sailletatik agiri danez. Neurritz ikusi nai dau gizona, idazten neban nik «Euskal Literaturan», ez iñoiz ez iñun alperkerian sandrazkoen joerak eta grifnak ezagutzen d'itu, eta orreñ zirikatzaille bipil dakusgu sarri; albiste ta zertzelada ugariz edertzen ditu bertsoak, kondaira aldetik; euskal ekanduak ezagutzen ditu ta erri jakituriz maisua d'irudi; eta, jakifia, siñismen sendoko ta euskaldun zintzo agertzen jatzu beti. Eta guztiau, geienik beintzat, euskera jator, bizi, erriko ta atsegifian.

Ni neu ez nazan arren joera orren zale, idazle askok makifiatxo bat bider artetu oi ditu bere lanak, itxura edo itzai esangura ohea ezarri nairik. Ohea ete? Sarritan, nik ezetz uste. Azkue aitak, barriz, orrazketa naikoa egin ebazan bere lanetan, ari ta oni begira.

Bere neurkera darabil, baiña zortziko txikiz ta nausiz jazten dauskuz bere bertsozik geienak; eta eurok ez gitxitan lau puntuko egin bearean bi bikotan lotzen ditu. «Neurriok —diño Eusebio

Erkiaga'k—, egokiro zainduak ditu geientsu. Baiña iñoiz euskal otsen kontra beteten ditu bertsuak, silaba otsaldiak lege kaltez indarkeria esan-crazoaz».

... Eta bertsoen amaiera? Azken soifutasun bardinari jaramon estu ta zeatza egiten dautsa, bertsuaren izakera jatorrari zintzo eutsi nairik beti ere». Bizkaitar izkelgia darabil; Zamudio ta Mundaka aldekoa alan be Lekeitiokoa baiño geiago. Bizkortasun ori ederto dager jolas-sailleko poesietan atan be, *Mogel eta Txaraka* deritxonean adibidez.

... *Parnasorako Bidea* bere garaiko olerkiz betea dozu. Ziri-olerkari gorenengotzat jo eban J. Manterola'k, beronen «Cancionero Basko»-n onen berso-lan batzuek sartuaz. Gizonak, urte-eroak, gertaerak, eguneroko gauzak argazkiz lez jarten dauskuz begi aurrean. Euskal koplariak ordurarte, geien-geien bat, lirika saillean kantatu eban; E. M. Azkue'k beste zelai bat saratu euskun.

Augaitik edo, E. Erkiaga'k onan: «Ezta liriku agertzen Azkue aita, sarritan. Geienbat edeslari, esalea, kontu-kontaria dogu, bertso etrezetan beti bere, Irakasle-arloa maite dau, eta dakiana —bai buru-arloko zeraketa bai bi itzako morapilloak— polito baten erakusten dauskuz, bizitzako «gramatika nabarra» ezagutzeko, eteti aukeratsua alperrik galdu ez daigun. Barruko intziriak, biozpeko min kanta gaiean oi saminiik ez deusku azaltzen nabarmen. Eta izadiaren isil-soiñu agertu bearreko premiñarik bere, ezin ukatu aren lumearen zorroztasuna, eztenkada eta esanaldi gordiñak eta gazigozoak, olantxe adierazoten dabelako. Umore oneko gizona dirudi, orixe sumau daikegu ba, mukuru ta ganezka, aren izneurtu askotan. Lexiku ugari ta bizia darabil errime» (*Olerti*, 1961, I, 69 orr.).

... Badau oraindik beste poema interesgarri bat be, «Euzkadia» deritxona. Asmotan ebana, naikoa luzea zan antza danez, baiña amaitu barik itxi euskun, lenengo kantua bakar-bakarrik. Olinpo ta Parnasoko jaunen arteko burruka dozu. Bego A. Akesolo'k onetzaz diñoana.

«Gure literatura —diño— ez dago, ez, poema barik: Hiri-barren lapurditarraren *Eskualdunak*, Orixe andiaren *Euskaldunak*, Aita Mitxelenaren *Arantzazu* ez dira gauza utsak. Ulibarri oken-

doarrak be, euskaldunen bizimoduak gaitzat artuta, poema antzeko bat ariltzen ekin eutsan. Bakotxak izan ditu bere asmoa, ikuspegia eta moldea; bakotxak, bere zera eta kera.

«*Euzkadia*, besteen artean, bitxiena, bakanena dogula ez dago ukatzerik. Ezin izan bestela. Aitaren bitxikeri guztiak daukaz aldean: Parnatarren eta Olinpotarren artean murgildurik, bere etxean lez bizi zanak non billatuko eban gaia Olinpotarren edo Parnasotarren mundu orretan, edo zero orretan baiño? Eneida'ren ikutua bein baiño geiagotan igarten jako. Asieran argi ikusten da ori. Ia itzez itz, Virgilioaren *Ille ego qui quondam* bete-betean gogoratzen deusku. Virgilioaren burpilla emoten deutse konparaketazko esaldi batzuei be. Bertsoak berak ez ete deusku erakusten latinezko *exametron* taunkada eta astuntasun berbera, edo antzekoa?» (*Karmel*, 1979-3, 26 orr.).

Irakur poema ortatik bi, bata sarrerako irugarrena ta bigarrena lenengo kantuko bigarren-irugarren aapaldien lenengo pikoak. Onela:

«Nik euki dodaz sarti ta askogaz ezbaiak,  
baldi eta izan daben Musarik Bizkaiak;  
ete boizi izan bada geure artian iñox,  
zelan bere soinian daukagun ain billox».

«Udabarriko enbatak beragaz daroa  
berenoa matsentzat, matsaidura badoa...  
Bardin geure biotza biasztunduten dau  
enbidien lañoak arrapetan badau».

*Karmel*'en, esandako zenbakian datoz poema 124 estrofa, 1862' garren urterantza idatziak. Bizkaiko bertsolarien oiturari jarraituz, biñan-biñan daukaz puntuak, zortzi ta zazpi silabakoak.

### BALENTIN BERRIOTXOA ETA ARIZTI, SANTUA (1827 - 1861)

Manila, Hong-Kong eta Makao'n mixiolari gartsu ibillita, azkenez, Tonkin'en arima billa beti Kristogaitik martiri gertatua, 34 urtekin.

Elorrio'n, Bizkaiko erri alaian jaio zan 1827-2-14'an. Bere gurasoak: aita, Juan Isidro Berriotxea Gaartea, bertako semea; ta ama, Monika Arizti Belar, Anzuola'ko Urruti baserrikoa. Aita Estarta prantziskotarrak Elorrio'n emondako mixifio baten ostean, Jainko-deiaren zantzua biotz-muifnean somaturik, Logroño'n osotu zituan bere eleiz-ikastaroak, 1851'an meza barria emonaz.

Beingoan apaiz-ikastetxean bertan gazteen arima zuzendari izendatu eben, baiña beste burubide batzuk erabiltzazan kilikari; eta kargua itxirik, Filipinas'ko probintziko dominikuen artean aterpea eskatu eban; mixiolaritza jakon gogoko. Okaña'ko azte-txean urte bete igarotakoan, 1857'an egin zituan bere eskintza nagusiak. 1857-I-29'an, Kadiz'en daukagu Manila-rako bidean. Eta lurralde areitan dabil laster arima billa, sutan biotza: Manila le-nengo, Hong-Kong, Makao ta Tonkin gero bere maxifio-lur.

Etziran areik mixiolariantzat egun samurrak; gaur bat eta biar bi, atxilo artu ta il be egiten ebezan. Naste ikaragarria! Berriotxea alan be kementsu ebillen, bera ta bere lagunak. 1858-6-27'an Tonkin erdi-aldeko gotzain izentatu eben Erroma'tik, siñisbakoak giltzape eukenaren ordeko. Guztiz adoretzu bete eban bere egite-koa; jentillen aldetiko eraso latza, alan be, gero ta zakarrago eto-rrren. 1861-10-25'an preso artu eben gure mixiolari zolia be, eta andik laster, azaroaren 1'an, burua moztu eutsoen Hai-Deong'en. Aren gorpuzkiñak gurera ekarti ebeza, eta 1886-6-9'tik Elorrio'ko Sontzez Garbiaren eleizan dagoz. Pio X'garren Aita Santuak barriz, 1906-5-20'an, doatsu erabagi eban ospetsuki, eta Juan Pablo II' garrenak, altaretara jaso eban santu izenez.

Bizkaitar santu onek, bere bizialdi laburra euskal erritik kanpo egin arren, ez eban ahantz-zulo itxi guraso euskaldunen magalean edoski eban izkera gozoa. Euskaldun euskalduna izan jakun nun nai ta nozinai. Ola adierazten dauku beintzat naiz Logroño'tik eta Okaña'tik, naiz eguzki aldeko lurra'deetan ebillelari, bere ama Monika'ri, samurrago jakolako edo, euskeraz idazten eutsonen. Sarri, gaiñera, bertsotan idatzi be. Nun ikasi eban bertsogintza? Amazortzi urterarte arotz izan zan bere errian, eta bear bada or-duantxe biztu-azo jakon gar ori, bertso-zaletasuna.

Dana dala euskal idazle dogu Berriotxea. Bere amari, ia utsik egiteke, euskeraz idazten eutsona. Aita Jazinto M. Garrastatxu

dominikuak, 1951'an, *Cartas y Escritos* deritxon liburua argitara eban, Emendik atera daikenez, Berriotxoak asko idatzi eban, er-deraz ez-ezik euskeraz be. Liburu orretan 18 idazki (karta) ta beste zatitxo batzuk datoz euskeraz; baiña izan bear dabe geiago be. Izkera gozo errikoian idatzirik dagoz; aldapa beera datorren ura-ren antzera, berez ixuri eban bere biotza, eskutitzetan egin oi dogunez.

Filipinas'era bidean bost illabete egin ebezan itxasoz; beste askoren artean lau euskaldun joizan eta euskeraz egiten eben auren artean. Berriotxoak kartak bialtzen dautsez gurasoai, ona 1857'ko azillaren 30'an bialdutakoa aitari erderaz eta amari euskeraz. Be-retarren artetik urriñago ta aren biotza samurrago. Eta oraingoa dana bertsotan. Irakur zati au:

«Nere amatxo maitia,	izanik ain luzia,
zelan dago gure gentia?	eza milagro andia.
Ixillik dago kartia,	Oindiño badaukat esperantzia
akaso erratu egin eban bidia;	leiruteko amaren letria;
alperrik ikaraz egon plumia,	amoriyuak bentzitzen dau guztia.

Ze gente dira ezkon-barriak?  
Gente honratua emon oi dau Urrutiak.  
Pruebak emongo ditu lengusiña Mariyak.

Amatxo, bada berori bapere makurtu?  
Ai, urtiak iñori ezteutse barkatu;  
oindiño ezta ainbeste atsotu,  
ardatzian nor berori bentzitu?  
Baña urtiak gaitik ez ikaratu;  
Jaunaren bildurrian bizitza bada pasatu,  
il barik ezta iñor zeruan sartu.

Txoruentzat utzi deigun munduan;  
Jauna maitatzen badaukagu biotza berua  
ezta faltako zeruan ostatua.  
Alperrik lurrean nekez jan artua,  
bizitza pobria zerurako da atajua,  
ez lartegi desiātu dirua.

Alperrik izan dirua ederra,  
galtzen bada gure anima bakarra,  
ezta faltako begiyan negarra,  
ez lepuan sua eta garra.

Errosariyo sendua eskuan,  
Aita guria eta Ave Mariak aguan,  
pensamentu santuak buruan,  
ze gauza ederragorik munduan?

Ea bada, ama guria,  
deyez dago beroren semia;  
euki daigun biotza garbia,  
zergaitik dan Yaunaren legia.  
Iñoz badau pekatuak loitzen,  
zergaitik ez gera Eleizan sartzen?  
Aingeruak zeruan asko dira poztzen,  
pekatariyak pekatua dabenian konfesatzen.

Laster utziko dot Manila,  
bisitatzen noya gentila;  
izanagaitik gizon txikiya,  
azi biar dot bizar andiya;  
tapatzen danian arpegiya,  
orduian bai ni ikaragarriya.

Agur, ama, ondo bizi,  
ez larregi burua ausi.  
Agur, urrengo artian;  
badao dibersiñua kartian;  
biotza bada nasaitu dedilla,  
ondo dago berorren mutilla.

Leituko ditu letra onek?  
Ala uste dau Balentinek».

Badau gatza ta piperra karta onek, bertsoarako erreztasun bi-  
kaiñez gaiñera. Idazki au oso-osorik bikoteetan eio eban gure San-  
tuak. Argi dago, ezpairik bage elorriotar mixiolariaren etorri opa-  
roa, jasa ta bizitasuna. Ango mixiolarien Gorzain zalá be, ez eban  
galdu ez ñabarritu bere gaztearokó alaitasun naasi-eziña.

Ona beste gutun bat be garrantzitsua, erdizka beintzat bertso-  
tan egiña. Karta bi dira izan, bata erderaz eta bestea euskeraz,  
Okaiña'ko karmeldar lekaiñe biri, lenago berak moja-bizitzan zu-  
zendutakoai egiñak. Bata Maria Luisa da ta bestea Maria Antonia,  
bigarren au euskalduna ta euskeraz idazten dautso. Lau onu da-  
motsaz. Begira laugarrena ta azkena:

«Oraziñuari euki egiazu afiziño andiya,  
oraziño barik ez zera izango egiazko monjia.  
Zeure lanen erdietan jaso biotza zerura;  
antxe daukagu geure ondasun guztia.

O neure biotzeko Jesus maitia!  
Larri dabil emen gentia;  
noiz libratuko da gorputzeko sokia?  
Noiz izango naiz guztia zuria?  
O zelan luzatzen dan neure bizitza!  
Egin bedi gauza guztietan zeure borondaia».

### MELTXOR ANDONEGI APAIZA (1839-.....)

Begiz ikusi ta eskuz ikutzen dogun zerbaitek eskiñi oi dausku  
sari askotan olerki gai bikaiña; gero, geure antze ta barne-suz  
jantzi oi dogu kanpotik artutako edo aal-indarrez sortutako gai  
ori, etxegilleak arri landuz etxe lerdena lez, eder-zaleak itzez oler-  
ki joria neurtu. Olako zerbaite ez ete euskun egin Andonegi  
abadeak?

Igorre'n jaio zan 1839'an. Eta gero, euskaltzale, Begoña'n Santa  
Monika komentuan daukagu bikario. Euskaltzale esan dot, eta  
egin-egiñean be, antxe egoala asi zan idazten, bere izkuntzeari  
eutson maitasuna ta grifiña erakutsiz.

Oneitariko batzuk Donosti'ko «Euskal-Erria» aldizkarian ager-  
tzen dira: «Ama Dontzellaren Zeruratziari» eta «Ama Birjiñaren  
zeruratziari laukoak», esate baterako, biok Fray Luis de Leon'en  
*Al cielo vais, Señora* asten dan poesiaren antzera egiñak; beste bat,

«Garbitegiko arimaren deadarrak» deritxona. Onezaz gaiñera, «Euskalzale»-n argitaratu eban «Gabon gaba», 15 aapaldiko neurtitza, 1897'gko lotazillaren 20'an Begoñan egiña.

Onein artetik bi «Andra Maria Zerura» ta «Garbitegiko Arimaren deadarrak» nire liburu «Milla Euskal Olerki Eder»-ean daukazuz. Lenengoak 8 aapaldi daukaz eta bigarrenak 11.

Gabon gabaz koplariak artzain taldeak ikusten ditu bideetan zear. Nora ete doaz? Gertakari ezta jazona da Belen'en: askatxoan dago Aur jaiobarria, Mesias sarritan agindua, zapitan baturik. Ara doa olerkaria be, artzaiñakin kantatzen:

«Eguzkiaren urteieratik  
sartuieraiño artian  
dontzella baten Seme bakarra  
Errege dogu guztian.

Igarle batek esan eban legez  
zapiteun urte baiño len  
zeruko Jauna agertu jaku  
gizon egiñik Belenen.

Giza-aldian egin dontsuak  
gure gorputza jantzirik,  
atera gaitu eriotzatik  
eukidunez bat egiñik.

Galtzu artean Jesus maiteak,  
betiko Jauna izanik,  
dontzeillearen ugatz gozoa  
artu dau pozez beterik».

Edu orretan darrai, Kristoren giza-izatez jaztearen misterio ederra sakon ta giar ospatu ta azalduz.

Orobat dagoz Garbitokiko arimai buruz egiñiko estrofak be. Deadar itzalak datoz lurpetik. Noiznai? Gaberdian? gau illuncan entzun dauz olerkariak. Onela eioratzen bigarren aapaldian:

«Garbitegiko arimak ziran  
ainbeste neken artean,  
su-lokarriak eten ezin ta  
laba goriko garpean.

Guraso batek larririk diño,  
suzko izerdi bitsetan:  
«Esker gaiztozko seme-alabak  
aztu nozue benetan...».

Aita ta ama, neba, arreba,  
senide eta lagunak,  
sugar biziak erreten ditu  
garbitu arte orbanak.

Guraso-dedar larrietara  
gortuten dana munduan,  
beste ainbeste igaro gabe  
ezta santuko zeruan».

Eta amaierako lelo lez, onu gogoangarri au:

«Gau eta egun eskatu daigun  
arima onen pakea,  
ainbat lasterren igaro daien  
Sion santuko atea».

Andonegi jaunak ba-ekian, ba, olerkintzaren lege berezia.

## EUSTAKIO MADINA ETA URIBE

Apaiza genduan, 1896'an itzali zan euskaltzale au. Euskal arloan, gaiñera, edozein zanik be ezin gengike esan, bere nortasun berezia erakutsi ebalako. Zelan? Bizkaiko Aldundiak euskerazko katedra bat Bilbo'n ipiñi ta zabaldu nai izan ebanean, nor-geiagokaz eskuratua izango zana, Madina apaiza be or aurkeztu zan sei leikideen artean, Azkue, Arana-Goiri, Unamuno, Itza ta besteakaz.

Euskal idazlari lez ez eban, dakigunez, askorik idatzi. Poesi batzuk geien-geienez, eta itzulpenak. Donostia'ko «Euskal-Ertia»-n (1884-1889) daukazuz batzuk; E. J. Labairu'ren «Historia General del Señorío de Bizcaya»-n datoz lau eta Azkue'ren «Euskalzale» edergarridun aldizkarian bat, edo obeto, Labairu'k be bere Historian dakarren «Crudelis Herodes» goratzarrearen itzulpena. Banakaren bat kendu ezker, danak dozuz Jainko-kutsuzkoak. Trueba'ren «La Primavera» be euskeraztu eban.

«Jesusen Agerkerea» deritxo latinez «Crudelis Herodes» deritxogun ereserkia. Ona bost aapalditik iru:

«Lurreko erreñuak ez ditu kenduten  
zeru-goietakoak ditunak emoten.  
Zergaitik, bada, ik dok, Herodes zitala,  
Jainko Erregearen bildur etorrera?»

Edateko direan ur garbietara  
oiñ utsetan jasten da zeruko arkumea.  
Eta gu garbituta dituz kenduten ak  
ekarri etzituzan pekatuen loiak.



Mirarizko egitez, o ikusgarria!  
Ontzietako ura gorritz jantziten da,  
eta bere izate itxirik leengoa,  
uren orde z da an, zar-zar, emoten ardoa».

Irakur beste au be, «Ama Birjiñari» deritxona, latinezko «Ave,  
Maris Stella», euskeraz:

«Birjiña maite, ots ederreko,  
Jaunaren Ama garbia;  
zeruetako «jauregi atea;  
euren poz, ustea.

Naarren arteko lirio zuzen,  
uso guztizko ederra;  
gure zaurien osagarria  
oindik dakarren, Maria!

Torre-zubiak artu ezina  
ontzi galduen izarra;  
guzur-bidetik gaizuz gorde gu  
guri argi Zuk eginda.

Egi-auste balzak astindu egizuz  
laban-arriak aldendu;  
bidez galdurik dabilzazanak  
egizuz zear-bidetu.

Jesus, zuretzat gorantzak beti,  
dontzelliaren Semia;  
Aitagaz beti bedeinka dilla  
Megope dontsu maitia.

### FELIPE ARRESE BEITIA (1841 - 1906)

Itzak egokitzea, beti eder. Beraz, zer da olerkia? Ta zer oler-  
kari izatea? Olerkia, poesia, gizonaren barruko zerbaiz da: bere  
izate bartuan, adimena ta naimena erabilliz; sortzen dana. Ez-

kutu aundia da giza-barrua, adierazpenez eta sentipenez betea. Eta  
kantaria kantua abesten dauana dan lez, olerkaria bere barruko  
adierazpenak eta sentipenak itzez jatzu ta argi jarten deuskuzana  
dozu. Gure barrua mundua, mundu berezi bat da: batzutan  
pozik dago, gero mifnez eta larri; eriotzeak bildurra sartzen, arri-  
mena; eder jako Jainkoaren eta gizonaren egite arrigarriak bertsoz  
esatea. Olerkian geienik ez da jazoera bat kantatzen, kanpotikoa  
baifio geiago barrukoa da kantagai. Biotz-zauskada da batez be  
poesia; ta au, naizta jazoera baten zear be, ots, narratibo deituan  
be, norbere barru egoera zatika lez aurkitu, olerkiaren guna bio-  
tzaren eragifnean datza. Gogora Arrese-Beitia.

Otxandio'n jaio zan Arrese-Beitia 1841-5-25'an eta bertan il  
zan 1906-1-16'an. Gaztetan Gasteiz'en eta geroago Donostia'n egin-  
dako egotaldi laburrak kendu ezkeru, bere jaioterrian emon zituan  
bizitzako egun guztiak. Arotza zan, bere esku-lanetik bizi zana.  
Eleiza askotako santuak eta altarak, batzuk egin eta beste batzuk,  
barriztatu zituan; trebea zan onetan, antza danez, «santugiña»  
esan eutsoen-eta. Bere erriko ele'zako, egurrezko gauzak, bereak  
dira oso-osorik, eta Donostia'ko egotaldian, ango Ikastetxe zarreko  
goi ertzeko euskotar gizon entzute aundikoen iduriak, berak zize-  
latu ebazan.

Ogetamar urteko, Anjela Bengoa'gaz ezkondu zan, sei seme-ala-  
ba izanik; lau gazterik il jakezan, Luzio'k eta Puri'k, osteru, urte lu-  
zeak artu ebazan. Guraso ona ta erriarentzat be laguntzaille zintzoa  
izan zan Arrese-Beitia; beti prest egoan edozeini laguntzeko, karta  
bat idatzi bear zala, testamentu bat aurrera atera, ondasunak ba-  
natu, mesede bat eskatu naiz beste edozer gauza egin, otxandio-  
tarrak beragana jotan eben. Bere poesi-lanetatik agiri danez, kris-  
tinau legez benetan arteza genduan Arrese; eliz-kantak ez-ezik, bes-  
telakoak be, goi-ixuriz gainezka daukaguz.

Eta auxe zan, izan be, euskaldun guztiontzat opa ebana: fede-  
batasuna, ez jakozan eder liberalkeriak. 1880'an Maule'n sariztatu  
eutsoen «Bizi da ama euskera» itzneurrtuan, onela kantatu eban:  
«Neure anaiak, bat izan beti —Euskeldun siniskeretan; —Bat izan  
geure uste, eretxi, —Gogo eta asmuetan; —Fede bizi bat baldin  
badogu —Biotz eta arimetan, —Bakez oraindiko biziko gara  
—Mendi, atx eta ibarretan». Ezta arrigarri: bigarren karlatat ge-

rratean gorriak ikusi ebazan, fedea ta foruak jagon nairik. Orrela agertzen jaku bere poesi-lanik geienetan.

Eta orrexek eraginda asi zan olerki idazten. Urte areitako goraberak zirala-ta, «nire biotzak mingoztasun asko iruntsi ebazan» diño berak; alderdi bietakoak ez eben erakusten arrokeria baiño. Onela darrai: «Danak egin eben ondo euren gerrea euren miñean; baiña nire biotzean ez». Eta idazten asten da. «1879'ko udabarrian —diño— gogoak emon eustan eresi bat egin bear nebala illetatsu edo negarrezkoa, iñok egiten ez eban ezkerro. Jaungoikoagana biotza jaso, ez ezkerro ta ez eskumara begiratuta, bakarrik gora eta geure izkera ta Arboleagana, asi nintzan ipinten *Ama Euskeriaren azken agurrak*. Eta Elizondo'n ospatu ziran euskal jaietan olerki onek irabazi leenengo saria.

Eta emen daukagu santugiña, olerkari, ogei bat bider poesi-sariketetan saritua, ain zuzen. Arrese'k, idatzi ebana bertsoetan idatzi ebala esan bear, eskutitz batzuk ba'ditun arren; olerkitan ustua eban bere barru bizi, gurbil, olerkitsua. Eta Orixe edo kendu ezkerro, ezta arek beste euskal literaturan bertsoz idatzi dauanik. Orduko aldizkari guztietan agertzen dira bere lanak: «Euskal-Erria», «Revista Euskara», «Euskalzale», «Ibaizabal» eta olakoetan.

Arrese, garai aretan, ondo artua ta txalotua izan zan olerkari lez. Kanpion zanak, esaterako, goi-goi ipiñi eban arotz onen lana; bardin egiñik Añamendi'z emengoak naiz andikoak. Aren lanak onartuak eta argitaratuak. Ona aren bertso-lanik beñienak, naikotan argia ikusi dabenak:

—«Ama Euskeriaren azken agurrak» (*Revista Euskara*, 1879).

—«Bizkaitar zarrak eta erromatarrak» (*Revista Euskara*, 1883).

—«Ama Euskeriaren Liburu Kantaria» (Bilbao, 1900). 496 orrialde.

—«Asti-orduetako bertsozko lanak» (Bilbao, 1902).

—«Olerki Sortatxua» (Zornotza, 1930). Amasei olerki.

—«Olerkiak» (Zornotza, 1933). «Jaungoiko-Zale» bazkunak osoturiko txorta.

—«Olerkiak» (Bilbao, 1956). Neuk egindako bilduma, 688 orrialdekoa. Arrese'ren lanen txorta oso samarra burutu nai izan neban; baiña or geratu ziran olerki naikoa bilduma orretan sartu barik. «Euskal-Erria»-n eta «Ibaizabal»-en datozanak batez be, orduan ez bait nitun esku artean aldizkari orreik.

Orduan nik baderatzi zatitan banatu nebazan Arrese'ren olerki-lanak. Ona:

—«Kantu errikoiak», ederrenak nunbait, biotz-biotzean sortuak.

—«Lirika kantuak», ederra onceik be, biotzetik urtenak, negartiak asko.

—«Gora kantuak», gizaseme gurenak txalotuz egiñak.

—«Amalaukoak», pol to biribilduak ditu 35 bat.

—«Eliz kantak»; oso Jainkozale zan Arrese, beraz eliz-kantak egokiozan aren barne-lirari.

—«Alegiak», geien-geien beintzat, bereak ditu.

—«Ipuñak», ertiko barregarriak eta, astintzen ba ekian.

—«Irakurgaiak», askotariko gaietz dotoretuak.

—«Erderatik euskeratuak», Zorrilla, Herrera, Quintana, Valbuena ta olakoak itzuliaz.

Olerkigintzan Arrese'k zaindu eban oindio, garai aretako romantizismo atzeratuz kutsatu ba'zan be, euskal poetikan antxiñatik etorren tradizioa, gaur be bersolariak eta mugaz andiko olerkariak naiko ondo zaintzen dabena. Joera jator ortatik, egia esan, zerbait saiestua ibilli jakun, geroago Arana-Go'ri, Oiarzun'go Iñarra, K. Etxegarai, Tolosa'ko Emeterio Arrese ta gero gerokoak ibilli jakuzan lez. Baiña geienbat leenari lotua ibilli zan; adimen zorrotza, irudimen bizi ta biotz kilikagarria erakutsi eban otxandiotarrak. Gauzak adirazteko ganoreak dizdiz dagi aren bertsoetan.

Orixegaitik goratua izan zan, eta ez gitxi, bere garaian ta geroago. Kanpion'ek olerkari aundizat euki eban. «Olerkari goren-goa dogu Arrese —iñoan—, baiña euskal olerkaria gero, eta aberri-

miña kantatzen, nik uste, iñor baiño euskaldunago. Eskuratu bere olerki ederretatik edozein, ta euskal erriaren muin gartsua ta azal islatsua bertan aurkituko dozuez». Foru-zale da Arrese, ta onek emoten euskuzan eskubideak ilda ikustean, eurok negartzen ditu, malko-jario».

Eta nik idatzi neban beñola: «... Arrese-Beitia dogu, olerkari errez, aberatsa, izkera gozo ta durundi meeduna. Onek baizen bigun ta sentikor ez ditu iñok kantau Euskal-Erria, Euskera ta Aritz aren atsekabe-lorrak» (*Olerkiak*, 7 orr.).

Gaurko girorako be ez dogu oskol Arrese-Beitia. Españiar olerkari erromantiku Nuñez de Arce'k merezi ba'dau antolojietan agertzea, zergaitik ez onek? Irakur beronen «Arbo'la bat» deritxon zortzi aapaldiko lan au, Bilbo'n 1881'an donkitua.

«Arbola bat zan Paradisuan  
Jaunak apropos jarria,  
mundu guztiak artu egion  
lotsa ta itzal andia;  
bere azpian bizitea zan  
aita Adanen gloria;  
andik kanpora zer topau eban  
ezpada negargarria?

Arbola bat zan Bizkaian bere,  
neure anaia laztanak,  
zeiñen azpian, pozez beterik  
egoten ziran asabak;  
kerizpe zabal artan jarririk  
eginda euren Batzarrak,  
buztarri baga, nasai ta libre,  
bizi ziran bizkaitarrak,

Bere azpian umildu ziran  
Errege Gaztelakoak,  
eta lekurik ez eben izan  
sekula bariz moroak;  
atzera gura badogu izan  
libre len gífian lakoak,  
itxi daiguzan erdaldunentzat  
erdaldun diran kontuak.

Aztu daiguzan geure artean  
izan diran aserreak,  
izan gaitean anaia eta  
euskal zintzo garbiak;  
betor guraso zarren fedea,  
betoz asaben legeak,  
bere negarrak leortu daizan  
ni jaio nintzan Erriak.

Arbola santu aren azpian  
bizi zan zeruan legez,  
eukazalako atsegin danak  
eta nekerik baperez;  
ai!, begiratu baleutsa beti  
lotsa on eta itzalez!  
Mundua etzan gaur aurkituko  
onenbeste atsekabez.

O neure Erri maite maitea!  
Zakustaz triste negarrez,  
zure alabak euren buruak  
baltzez estaldu dituez,  
trentza mardoak tiraka atera  
ta sutara bota dabez,  
gaur euskaldunak dirala orrek  
ezin ezagutu leikez.

Ixildu ziran neskatxen kantak,  
mututu artzain-txistuak,  
zelai zabal ta jolas-lekuak  
arroak bera, itxasorantza,  
doiazan errekatxoak  
gau eta egun txilioz dagos:  
«ai, gara Gaztelakoak!».

Bakarrik dakust pozgarrirxo bat,  
euskaldun amen fedea;  
benturaz onek bigundu leike  
Jaungoikozko aserrea,  
eta zerutik jatsi barriro  
galdu zan libertadea:  
mundua mundu bizi dakigun  
Gernikako Arbolea».

Onako bertsoakaitik edo, sarri esan da Arrese negartia zala. Zubero'k barriz onela: «Negarti baten deadarrak zirudien, baña ez; Arrese etzan negarti utsa, eta ezin izan bere, benetako olerkatia izateko. Olerkariari, *poietes*, egille izatea dagokio, itxadopenari bi-deak zabaldu, etorkizun obe-argitsuago baten egille ta iragarle izan, orra olerkari baten eginbizuna. Eta Arrese etzan itxaropen bakoa:

«Gabak urrengo dakar eguna,  
neguak udabarria,  
onek atzetik uda loratsu  
eder ta zoragarria».

Negute gogor ta izoztu baten ondoren, udaberri eder loratsu bat opa eutson euskerari, ta udaberri ori aurreratuteko gogotsu lan egin eban berak. Elizondokoa etzan izan berak irabazitako sari bakarra. Zortzi urte geroago Unamuno erdelzaleak, Gernikako batzaldi ta sariketa baten sariztatuko Arrese'n beste bertso batzuk gogotsu irakurri zituan ainbeste entzulen aurrean. Eta Iruñia'n, Mauleon'en, Ondarrabian, Durangon, Bilbon, Donostian, iya batzaldirik zan toki guztietan urten eban bein baiño sarriago garaille» (*Karmel*, 1957, 1-15 orr.).

JOSE MARIA GARATE GALLASTEGI  
(1860 - .....)

Markiña'tik Ondarru'rako bitxabalak gurutzatzen dau erdi-erditik Berriatua; ortxe dator Artibai be marmarti Plazakola'tik beera, eta ortxe ibai ertzean, Milleri azpian, jaio zan Garate euskal idazlea, Munisola basetxean, 1860-9-22'an, luzaro Bilbo'n bizi eta bertan illik.

Ementxe Bilbo'n billakatu zan euskal idazle etxetik ekarren jiteari kemen barria txertatuz. Zenbait lan daukaguz bereak «Euzkadi»-n prosaz eta bertsoz. Abertzale zintzoa bait zan, aren neurritzak be erri-gorralpen eta maitasunez jori aurkitu bear, ziur asko.

Amalau estrofako poema au argitaratu neban nik neure «Milla Euskal Olerki eder» liburuan. Bego berau emen be. «Eiztaria» deritxo.

Gizon bakotzak ditu berakin berarizko gogakiak;  
Aran zaliak bai'yatzuz batzuk, beste batzuk eiztariak,  
Beste batzuk eiztariak.

Igande goizez, gizon azkarra izango da eiztaria;  
Burus goitarra, oiñez bizkorra, lauso gabeko begia,  
Lauso gabeko begia.

Gaztetxutatik eiza-zalia, izkilluagaz eizian;  
Or dabil larri, txakur argalaz mendi guztien ganian,  
Mendi guztien ganian.

Latin ikasten ibil zanian, mutil gazte totoluak,  
Amaika bidar eizatziarren itxi ebazan goiz-loak,  
itxi ebazan goiz-loak.

Bere adina guztiz argia, zorrotzak bere begiak,  
Eun bat neurkian artu ezkeru, eztautso igesko erbiak,  
Eztautso igesko erbiak.

Aratu barik ezta itxiko inguruetan mendirik,  
Gabon orduko ezta lotuko erbitxu bat be bizirik.  
Erbitxu bat be bizirik.

Olan pizka bat asetzen eban bere barruko bizia;  
Atzeko anak esku artean, ori dok barriz erbia.  
Ori dok barriz erbia.

Eper-mendi ta egiko baso erbi-leku egokiak,  
Asti gitxitxu eukanerako itxi ei ebazan biak,  
Itxi ei ebazan biak.

Bein «Andonegi» ganetik gora «Laka»-ko solo azpian,  
Txakurrai zirku eindakotxu bat laster ar eban begian,  
Laster ar eban begian.

«Ikan» aldetik gorako zidor eta artetxu ertzetan,  
Danbada bataz sarri el eban, iñora alde eginge, bertan,  
Iñora alde eginge, bertan.

«Asterrri»-tik «Burgaña»-n ziar jatsirik itxas aldera,  
Erbirik gabe etzan biurtzen sekula beren etxera,  
Sekula beren etxera.

«Artamentegi»-n bertan bakarrik, zenbat erbi il dabezan!  
Eztot nik uste eiztari orrek eukiko daben gomutan,  
Eukiko daben gomutan.

Gabean gero erbi-janean baturik aiza-lagunak,  
Oso guzturi esaten dabez eiztari zarren ipuñiak,  
Eiztari zarren ipuñiak.

Eiztari orreik benetan dira mendi ta latzin-zaliak,  
Baña erbiak mendian barik maian ederrago dozak,  
Maian ederrago dozak.

Bertsolarien jokora, emen be, amaieran, oldozkunik zorrotz  
trinkoena.

## TXOMIN AGIRRE

(1864 - 1920)

Ondarrutarra dogu Agirre, apaiz zintzo ta euskal idazle bipil.  
Lenengo ikasketak, ez edozelan gero, erriko eskolan osotu ondoren,  
gero Bilbon eta abar ibilli jakun zo! baino zoliago, guztiz liburu zale.  
Aita arotz eban arren, semeak ez eutson ogibide ortan jarraitu.  
Ez, gazte-gaztetatik erne jakon biotzaren muin-muñean «elizarako ta elizgizadirako» garra.

Gasteiz'en burutu eban batez be bere eleiz-karrera. Zintzo ta apala zalako,  
laster beragandu ebazan ango maisu ta apaizgaien biotzak;  
danak eben maite. Azkue lekeitiar eta Agirre ondarrutar,  
alkarregaz ikasi eben, biak ziran adin bateko ta adiskide kutun,  
eta euskal erria maite ebenak. Izatez osterá, bata (Azkue) odol-

gorri ta bestea (Agirre) odol-zurbil; Azkue sendo ta iraunkorrako lanerako, Agirre —arpegi-zuri ta izaketa bigundun—, egokiago gizartean bizi izateko.

Leketiarrak onan diñosku itzaldi baten: «Seminario'ko urte alai aitan odol-gorri giñanok, sarberritan beintzat, batean pozik bes-tean belauniko, okerkeriatxoren baten ordaifia artzen genuen ar-tean, Agirre odol-zurbilla etzan bein ere bide zuzenetik ateratzen, ta elizan izan ezik bein ere enuen belauniko ikusi».

Aldiari berea ordaindurik, eta eleizgizon bati dagokionez, adimena jakituriz ta biotza birtutez edertua, Gasteiz'en bertan me-zakotu zan 1888'ko maiatzaren 26'an, orduan goterki ontako go-tzain zan Mariano Migel Gomez jaunaren esku-ezartez. Urkiola'n abestu eban meza barria, Eta andik laster karmeldar mojak Zu-maia'n dauken ikastetxera bialdu eben arima-zain. Eta antxe bizi izan zan, iñora be aldatu barik, il arteraifioko guztian, ogetamar urtetik gora. Emendik egingo dau bere abade lana itzez eta idatziz. Itxasora begira jaio ta bizi izana, alan be, Euskalerra osoan zear ibiillko da idatzi-gai billa.

Bitarikoa da Txomin Agirre'k Zumaia'tik egindako lana: autor-teg'an eta liburuak idazten, Zumaia'n etzan euskal idazle lez eza-guna, baiña sermolari on eta autor-entzule jakituntzat eukien da-nak, Arima zain zintzoa zan, izan be, eta orretan jardun oi eban, monjen ikastetxean ezezik, erriko eleiz nagusian be bai, beti as-titsu ta aspergaitz. Aren autortegi inguruan, beti aurkitzen zan argi ta poztasun billa ara eldutakoren bat.

Orrez gaiñ, txiro zale genduan, on-ereille amorratua. Izlari bi-kaña, erririk erri asko ibilli zana. Azkue'k onela: «Apa'z bezela bere erriko Antigua deritzaion baseliza txukunean itz eg'n zuen lenengo aldiz». Gero, al ebanean, euskaldunari euskeraz Kristoren irakatsia emoten... Ospe aund'ko itzaldiak be etzitun gitxitan egin, 1900'ko iraillaren 8'an, esaterako, Begofia'ko Ama koroatua izan zanean.

Iñoiz be etzan osasuntsu izan. Eta azken urteetan maskal ager-zen zan Euskaltzaindiak ospatutzen ebazan batzarretan be. Andik laster il zan, 1920-1-14'an. Eta Euskalerra osoak negartu eben aren eriotza. Goterkiko albistariak iñoan: «Bizi izan zan lez santu an-

tzean il zan Zumaia'n Domingo Agirre apaiza. Gasteiz'ko Eliz-barrutiak onegaz bere apaizetatik onenetako bat galtzen dau... Txit eratsu, apal ta goi-maitasunez jantz'a zalako, errez irabazten ebazan edozein biotzak... Baita galdu dogu, Txomin Agirre gal-tzean, euskal izkera zarraren sailleko langillerik gartsu ta argiene-tariko bat. Euskera ikasi ta zabaltzearen Txomin'ek egin ebanak argiro diñosku Jaungoikoak zelango doaiz ornidu eban gizon au, eta onek zelan erabili ebazan eurak urko-lagunaren onerako» (*Boletín Of.* LVI, 1920-II-16).

Eta Azkue jaunak onan: «Nere urteak zituen. Neri bezela, ari ere Jainkoak itsasondoan, arkaitz-gañean, atondu zion seaska. Aurtzarotik asita ugiñen (olatuen) burrundara indargar'ak durundi egiten zigun belarrietan eta gure biriak itsas aize mardul txistula-riak gogortu zituen. Ala ere, bere urtaide geranok emen utzita, umo-umo zalako edo, berarengana, guk nai eta bear baño askozaz lenago, dei egin zion Jain saritzailleak. Azken-itzak, erdizka eba-kiak, euskerazkoak izan omen zituen, noski Andre Maria'ri zu-zenduak».

Idazten noiz asi zan ez dakigula be, irakurgaiak ipuiñak eta bertsoak ondu zituan 1890'garrenetik asita Donost'a'ko *Euskal-Erria* amabosterokoan. Apa'z zan, euskaldun apaiz, eta ba-eban asmo bikain bat euskeraz idaztean: dana Kristogan barriztatu. Etzan txalo-min, bai ostera arima-zale; gar onek eraginda gaillen-du zituan bere lanak, naiz eleizkoiak eta naiz eleberri antzekoak. *Auñemendiko Lorea* ariltzean, bakea opa eban errien artean; beste nobela bi (*Kresala ta Garoa*) arei buruz P. Lhande'k onela: «B'ok, bai gure itsasgizonen bai gure nekazarien artean, Jaungoikoaren maitetasun ta bildurtasunik gañe zorion egizkorik izan ez dite-keala darakuskigute».

Azken orduan beste nobela bat erabilen esku artean: *Ni ta Ni*, Markiña aldean erdi-aroko goraberak, Oiñaz eta Gaboarren arteko liskar eta burrukak. Berau amaitu orduko, baiña, Jaunak bere atsedean gozora eroan euskun.

Idazti oneitatik ikusi daikegunez, Agirre arima eder eta onera makur baten jaube zan. Eta aren barne-baratzean geroago ta mar-dulago egiñaz joiazan onbidezko lorak dakarren zorion-aparra.

Agirre'ren idaztiak bere arima neurritsutik darion lurrin ezti iraunkor dirudie. Euskera gozo olerkitsua darie nun-naitik.

Olerkari genduan, beraz? Ni baietzean nozu. Gaztetan ainbat argitaratu euskuzan *Euskal Erria* aldizkarian, eta ak eta onek diñonez, gaztetan osotuak ei dira neurtitzik b'kaiñenak. Nik, neure olerki-bilduman iru sartu nebazan —*Seaskatxoa, Sara'ko Lorea* ta *Zergatik ni koblakari?*—; «Ondarrak» (1964) liburuan, osteria 24 (*Ipuia, Aritzari ta Euskalduneri, Naikua juat, Mariñela, Kantariak, Itxas-ertzean, On Pedro Nobia Salzedo-kuari, Zer pakea!, Gerni-ka'ri, Mendi ganetik, Itxaro daigun, Usain gozodun, Ama bat, Sara'ko Lorea, Jesus'en Biotzari, Agure-kanta, Ai balekitel!, Itxas-aldian, Seaskatxo bat!, Eresiak Jesus'i, Ondarribi, Txori alai, Au ondamera!, Euskaldun bat!*).

Lenengosk Donostiko *Euskal-Erria'n* datoz, eta besteak 1897'tik Azkue'k Bilbo'n ateraten eban *Euskalzale* asterokoan, eta bana-ka batzuk *Euskal-Esnalea'n* eta *Larralde'ko Lorea* deritxonean.

#### AMA BAT

Seiaska maroiz baten aurrean  
makur, ama bat, lengoan  
begira egoan ume berea  
esna edo lo ete egoan.  
Ezaguturik esnatu zala,  
arturik bere altzoan,  
maitasuneko berba ederrakaz  
amak onela ziñoan:

«Semetxo neure biotzekoa,  
semetxo neure kutuna,  
zuk argiturik ipiñi dozu  
nire arimako illuna;

Jaungoiko andiak emon daizula  
indarra eta osasuna.  
Ilgo ba'z'ña... galduko leuke  
zure amak bere zentzuna.

Semetxo laztan sortu zareana  
errai neureen erdian;  
semetxo eder, bardin bagea  
itxasoan ta lurrian,  
etzata jaio jauregi baten  
aberastasun artian...  
Baiña zu zagoz, maitea, asko  
aberastasun-etxean.

Jauregietan jaio direanak,  
errege direanak sortu,  
ezingo dira, neure biotza,  
bein bere zugaz negurtu.  
Aginp'dean izango dira  
geiago, ezin ukatu;  
baiña ederrez, neure kutuna,  
ederragorik eztozu.

Zure bekoki zabal garbian  
ta begi urdin gozoetan  
ezagutzen dan argitasuna  
ikusten eztoz besteetan.  
Ta urre irudiko ule kiskurra?  
ezpada urrea benetan,  
urre-zidarrak baiño geiago  
balio dau nire usteetan.

Kutun, laztana, biotzekoa,  
neure semea zu zara;  
zure ondoan aztuten yataz  
samiñak eta negarra.

Zu nire poza, nire atsegiña  
betiko izango etzara?  
Naiko deustazu, maiteko nozu  
maite zaudazan gisara?  
Ze ao polit zoragarria,  
ze samurra ikusten yatzu!  
Zeure ezpan bigun, orban bagean  
irri-barrea daukazu.

Menturaz, baietz, aingerutxoa,  
baietz ag'ntzen deustazu?  
Etxe onetako lora ederrena,  
indar!, mun bat egidazu.

#### MIGEL UNAMUNO TA JUGO (1864 - 1936)

Bego emen gizaseme ospe aundiko ta ertilari bika'n onen go-muta be. Gure odolekoa zan eta gaur, pentsalari lez, entzute orokor zabalekoa.

Bilbo'n jaio zan Unamuno. Ume zala karlistak, 1874'an, itxi-tuan euki eben bere uria. Berton ikasi eban batkiller karrerea, eta 1880'an Madrid'era aldaturik emen ikasi ebazan Filosofia eta Letrak, lau urtetan. Gero erakus-toki baten billa ibilli jakun nor-geiagoka, Sikologi, Latin, Logika, Etika, baita Bilbo'n be euskal katedra billa; azkenez, 1891'an, Menendez Pelayo ta Juan Valera maiko zirala, Salamanka'ko Unibertsitateko Griego-Irakastegia lortu eban. Urte askotan Ikasgu nagusi ontako zuzendari izan zan, ia bizitza guztian berton bizirik. 1894'rantza asi zan idazten; etzan ibiltaina, ta Espaiña ta Portugal'tik kanpo, gitxitan urten eban.

1924'an, alan be, Primo de Rivera'k Fuerteventura'ra erbeste-ratu eban, baiña andik laster frantses oial-itxasontzi batek Fran-zia'ra eroanik, Paris'en eta Euskalerritik ur-ur Endaia'an bizi izan zan 1930'rarte. Urrengo urtean, Salamanka'ko Ikasgu nagusira itzuli ta emen, bartiro be zuzendari zalarik, Espaiñar Izkuntzaren

Edestia azaldu eban, anai arteko gudaldirarte. Au ezta laster, 1936' garreneko urtearen azken egunean, Sa'amanka'n jakun Unamuno ospetsua.

Guztiz eztabaidatua izan zan bizitzan, eta ez gitxiago be il ondoren; ezkertiar zala, Jainko gabea, idatziz oker asko egiña, ta olakoak. Baiña aren onak eta txarrak aztailluan ipiñi ezkeroz, ni nago alderdi onak geiago ditula txarrak baiño. Zeozer garealakoan, sarri, arin samar idazten da'a —eritxiak emon— uste dot. «Au arriskutsu da» esan oi da, eta ori diñoanarena, arriskutsuago ta funtsik ezagoa izan oi da.

Asko idatzi eban Unamuno'k, bere garaiko jakitunak eta pentsalariak astindu na'rik, askotan, paradoxa ta irri-mirrika, piper ta gatz-ipurrez onduta. Saiok idatzi ebazan, onetaz eta aretaz, aundaka; 30 bat nobela; gazeta-lan asko, eta poesiak ugari. Ez etorren bat bere garaikoakaz, eta lan guztiotan, oiturak, politika, erlejiño, onako auziak garia ta babak txibit-azpian legez xe-xe eginda itxi oi ebazan. Orduko pentsalariak, mundu guztikoak, baiño aurrerago bizi zala esan daroe gaur.

Gai batek batez be kezkatzen eban samintasun biziz: eriotz ondorengo bizitzak, bere ezilkortasunak. Orduko zientziak, barriz, au ez eben auzitan be jarten. Unamuno'k, ordurarte ezagutzen etziran indar, jatortasun eta zirrarez, betiko biz'tza dala diño giza-semeen leia, ardura ta kezka bakarra; ortarako eriotzea dakar begien aurrera. Idazleen artean gaur naiko aurreratua dabillen kezka onen aurrelari izan genduan gure bilbotar argia.

Kezka latz onek, ostera, baldintzatu egin oi dau gizona idazle legez. Unamuno'k, naiz-ta au ez izan elburutik gorengoena, «mun, duko ezilkortasuna ta ospea»; berak idazten dauana irakurriz bes-teen espiritua be salbatu egin nai dau; bera ilda gero be, bebil bere ospea dirdaitsu: dardar egiñik bai, bere irakurleen ariman; ots, ixuri bei bere izatea urko lagunen barne-lezan. Gauzok, gogor eta trakets maiz esanik, Unamuno'k nai zitunak eta irakin bizian barruan ebiltzanak.

Euskal odo'a ta gauzok adieraztean euskal izakera ezarri oi eutson iñoan guztiari; labur ta latz idazten eban; euskal izakera orrela baita, sakon eta labur. Ortega y Gasset'ek eta berak ildo

barriz bota euskuen espaiñar literatura; leen luze ta arro-astiña zana, itz zuur ta murriz biurtuz. Aldaera ori bilbotar idazle er-neari zor jakon batez be.

Esandako kezka orrek bultz eraginda, zorrotz gisan, adierazo zituan garai artarako geiegikeri batzuk, politikan eta erlejiño zelaietan, orduko irakurleak onartu ez ebezanak, gaur alan be gaindituta dagozanak. Aren liburuak, leen eta orain, eurrez irakurriak eta arrotz-izkuntzetara itzuliak izan dira, ta iñorentzat be ez dituzu nazkagarri.

Olerkari zan, irudimen bizi aberatsaren jaube. Lenengo olerlanak euskeraz onduak ditu. Eta emengo katedra bat zala-ta, artu eban keru gaiztoa izan ez ba'litz, eta Salamanka'ra lan billa jo bearrean, emen geratu, ez genduan euskal langille makala geurean izango. Aren olerkia bere izate-barnetik jagia da, egi-egiazkoa, beneteko adimena ta sentipena erakusten daukuna. Eta barne-azalpen au bertso neurri bipillez jazten dau, mamifiari bertsoak bait damotsa itxura txairoa.

Bereak ditu poesi-liburuok: *Poesías* (1907), *Rosario de sonetos líricos* (1911), *El Cristo de Velázquez* (1920), España'k bere Urrezko Gizalditik sortu izan dauan erlejiño poemarik ederrena, *Rimas de dentro* (1923), *Romancero del destierro* (1926), «antología poética» ((1942) datozanak eta azkenez, Losada'k Argentina'n argitaratu eban *Cancionero*; emen daukaguz Unamuno'k ugunero lez olerkitan idazten ebana.

Bizkaitar gizaseme aundi bategandik urtena dan ezkerio bion emen Unamuno'k gaztetan eundutako «Gabon-abestia» deritxon au be. Amabi estrofa dira, zortziko txikitari; erdel olerkiari buruzko legeak ikasiak zituan antza, euskerazkoetan be bardifiak bait dara-biltz, neurkeran beintzat; rimari ez dautso kasu larregi egiten. Baiña eskertsuak dira Gabon-kantari dagokiezan neurtitzok.

Iru errege aundiak  
eldu dira urrutik,  
Aur baten ikustera  
munduko ederrarik.

Artzaiak Belen'era  
dakarren adinaik,  
ardiak elur baño  
bai txuriagoak.

Lurra apaindua dago  
ta elurrez betia;  
jai aundiaren dala,  
ta eder jantzia.

Zergatik lurra dago  
ederto apaindua?  
Zeren Jesus ederra  
mundura eldu da.

Zeruko aingeruak,  
txoriak bezela,  
danok kantatzen dute  
Jauna eldu dala.

Arek kantatzen dute  
ta poz aundiagoz,  
Jaungoikoaren Jaiotza  
geure euskera gozoz.

Olerkietan azaltzen ei dogu ondoen geure izatea.

Geure euskera baña  
berba ederrago  
ezta gauza ain aundi  
zelebratutako.

Eskatu biar dogu  
poza geure etxian,  
ta lurrean pakea  
gizonen artian.

Odoiez zan betia  
lenago mundua,  
gabaz ta illargi gabe  
eta asko illuna.

Urten zuen orduan  
egiaren argia,  
ta mundu gelditu da  
odoiez garbia.

Gaur da pozaren gaba;  
kanpoan otza da;  
baño gauren barruan  
asko da berua.

Goazen, goazen, anaiak,  
Aurra ikustera;  
goazen, goazen len-bai-len,  
anaiak, aurrera!

Itxas-ertztiko erri alai txanbeliñean sortua dogu R. M. Azkue. Soñiez, aundi sendoa zan, txairo osasuntsua; izakeraz, ostera, bizi zolia, adimen argiko. Euskaltzale porrokatua, gitxik egin izan dau gurean arek aña lan euskerearen onerako.

Euskaltzale zan aita, Eusebio Maria Azkue, euskaltzale zan ama, Karmen Aberasturi, eta semea be naitaez, euskaltzale izan bear. Eta euskal idazle, garbizale ta ereslari, Beraz, erraldoi onen lana sailkatzea gaitz jakun arren, iru sailletan sartu geinke: 1) *Euskerari buruzkoak*; 2) *Literatura-lanak*, eta 3) *Musikalanak*.

—*Euskerari buruzkoak*: «Euskal Izkindea» (Bilbao, 1891); «Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano» (Bilbao, 1896); «Proyecto de Ortografía» (Bilbao, 1896); «El Euskera o el Bascuence en 200 lecciones» (Bilbao, 1897); «Manual de Conversación» (Bilbao, 1901); «Diccionario Vasco-español-francés» (Tours, 1906-06); «Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular» (Bilbao, 1917); «Diccionario de bolsillo vasco-español y español-vasco» (Bilbao, 1918); «Morfología vasca» (Bilbao, 1923); «Neologismos formados a imitación de otras lenguas» (Bilbao, 1929); «Acercas del Santoral vasco» (Bilbao, 1923); «Gipuzkera osotua» (Bermeo, 1936); «El Vascuence y varias lenguas cultas» (Bilbao, 1949).

—*Literatura-lanak*: «Txirristadak» (Bilbao, 1898); «Bein da betiko» (Bilbao, 1890); «Jesusen Biotzaren Illa» (Bilbao, 1901); «Ardi kaldua» (Bilbao, 1919); «Itzaldia» (Donosti, 1923); «Laminak Euskalerrian» (Bilbao, 1927); «Euskalerrianen Yakintza», lau ale (Madrid, 1935); «Ipuñiak» (Bilbao, 1963); geroago argitaratuak, «Gran kanton arratzaleak» eta «Latsibei» eta «Ortzuri» ta «Kristo'ren Antz-bidea» argitara barik.

—*Musika-lanak*: «Euskerazko erasiak»; «Eleizarako Eresiak»; «Ingurrazti batzuk»; «Ereserki oneik: a) *Vizcaytik Bizkaira*; b) *Sastreskola*; z) *Aitaren bildur*; d) *Gainzabale'ko eiztadia*; e) *Eguzkia*; f) *Colonia inglesa*; g) *Pasa de chimbos*. Iru oratorio: «Da-



niel», «Lamindano» ta «Andra Urraka». Opera bi: «Ortzuri» ta «Urlo», Bilbo'n 1909'an eta 1912'an antzeztuak. «Cancionero vasco popular» (Barzelona, 1918), 12 ale, eta (Bilbao, 1968), ale bitan. Itzaldiak: «Música popular bascongada» (Bilbao, 1901); «Música popular vasca» eta «La música popular vasca y la griega» (Bilbao, 1919); «La Tradición en nuestra música popular religiosa» (Gasteiz, 1930).

Erraldoi ez oizko oni, dakusgunez, ikuspegi askotik so-egin geinkio; baita olerkari aldetik be, eder-zale zanez eta euskera menperatzaille bizkor, orretan jardun izan ba'leu, guna aterako eutsen olerti zelaiari be, Bergili'k legez bere Musari oles eginterakoan. Ortan asia dogu gazte egunetan. Nik neure bilduman onen neurtitz bi sartu nebazan, «Errimiña» ta «Illargia».

Biok dagoz zortziko nagusian osotur k, 5/5, 5/33. *Illargiak* 12 estrofa daukatzakatsik ta maisukiegiñak. Oso erromantiku agertzen zaigu egilea, lan biotan, batez be bigarreanean.

## ERRIMIÑA

Dardaia baizen bizkor ta lerden igaz abillan usoa,	Su-bazterreko egur arteko pipi-zulodun seaskak
Lea ondoko etxeno baten egazperagiño oa.	Amets gozoak, nere aur-ametsak, oso gorderik zeauzkak.
Urru ta urru sar adi bertan, bildurra aizetan utzirik;	Igon ote da batxo munduan ametsak baño gorago?
Iñortxok ere ezтик ikusten an pizti erpe zorrotzik.	Or ur-arria baizen be-bean dituen bat emen dago.

Eztakusk dana zein garbi txukun. egazpe ortan dagoen?	Galde uda naiz negu usaiñez goi-be dabilzan letxunai,
Bete-beteen esan dezakak: «Euskaldun bat bizi da emen».	Seaskerritik zein goi ta urruti bizi naizen ni. Bizi? Ai!
Atal ondoan kukurrukuka ari dan oillar putz ori	Aizeak ere nekatzen dituk ortik onera urbiltzen,
Auzo-munetan dabil edatzen toki ortako o ze zori!	Ta iñork etzekik, neronez landan zein asnas-bear nagoen.

Orko etxandere urr-biozdun gibel-min gabe orixe	«Urta urratxua» entzutorduan ta artoa ikusi ugari,
Det lur gaiñeko ondasun bakar, ni maite nauan amaxe.	Ego-zuri laztantxo, i ere oillasko artean sar adi.
Maite diat nik o eguzki ixil, ik or dakuskan txokoa,	O zein gozo ta zein mamitsu amak emandako artoa!
Txoko ori baño txit maiteago or bizi dan gurasoa.	Agokoaren oroipen utsa arimarañño dijoa.

Aur nintzanean nuen bezela  
gabero lotarakoan  
Orañño ere amets gozotan  
ama det nere gogoan;  
Aur nintzanean nuen bezela,  
seaskadoan gabero,  
Ama maiteak oi u egin bezait  
«U-au-atxoa lo ta lo».

## ARANA-GOIRI'TAR SABIN (1865 - 1903)

Nik lendik be 168 orrialdeko idazti bat dot argitaraturik, ots, «Arana-Goiri'tar Sabin Olerkari». Zati bi ditu: 1) Arana-Goiri'ren euskal lana eta 2) Arana-Goiri'ren olerkien azterketa.

Pausurik aurrerantz emon baiño leen, irakur eizu nik liburu aren sarreran niñoana. «Begien mende dozu idazti adigarri bat —idazten neban—, geldi-geldi irakurtekoa. Ez ezelan be eliz-txorien egazkada biziz, saiaren ego-ukaldi itzal aundikoaz baiño. Sabin'en olerkiak dituzu, maisu jakintsuaren sorpenak. Arek be, ba, musaen ondi-gaiñean intzentsua erre eban. Besterenganatua ibilli zan gauza askotan, eder-lanari ekiteko asti geiegi barik, alan eta guzti, sarri aundiko bultzadak izan zituan ez gitxitan.

Goi-gorriak jota eder-eremuan besteak ez ekusena ikustera eldu zan, ez gero obari ta interesdun zerbaiten billa, guztion aintzarako zanak eraginda baiño. Erdiune ber-berera doaz abandotarraren bu-

rutapen, biotz-erason eta birlora dan-danak: euskal erriaren ona, zuzena ta aintza. Urduritasun orrek iruntsiko dauza olerkariari arimea. Aren lirikar kopla guztiak barren-barrendik sortuak dira. Olerkia, barruan erne ta eroana, aur-aldi baten antzeko dala ta-kean-potean entzuna dogu; labur ad'erazteko, erna'di nekeza, luze, lillurazlea. Ez da, egia autortu nai ba'da, edozer gauza, tresna bat, idazkortz bat, adibidez. Beste zerbait da, mufietik jagia, gizo-naren barne-biziak uzta eder lez emona.

Olantxe moldatu euskuzan Arana'k bere olerkiak, espetxean, illunetan egiñik ainbat, mendi gurenetik zabal ta eder, baiña zori gaitzoko gure erria ikusiaz, biotz-taupadaka biribildutako o'er-bi-txiak. Giza-abots oro da, ziurki, berbearen ereile. Arana'rena aberri ereile. Aren bertsoak Jainkoa ta Aberria kantatu eben. Bernaros'ek aitatu zitun iñoiz «lirikar aotxoak», emakumezkoak beti gauza bardña abesten dabela adierazo nairik. Arana'z berebat esan bear-ko? Ba leiteke. Ez poesi mimikoi ta geldoak egin zitulako, bere barrua olan ustu ebalako baiño. Biotzean daroaguna errez adietan emoten. Ak maite eroazan, su bi, bere erraieran. Eta orrexek abesten daukuz eten barik.

Biotzaren intziarik, oi u bizi-garratzak, aren lanak, larogetaz ur-teak joanak dirala be, oraindik gogotan daukaguzanak. Olerkaria-ren naia, barriz, nobere bertsoak urtez urte otsegiñak izatea da, ezpairik bage. Eta Arana'k jadetsia dau gurari ori. Bai, nok ez ditu gaur be entzuten, euskotar ezarriak oiukatuta, aren olerkiak: «Bizkaitarrak gara», «Mendiko negarra», «Azkatasun eguzkia», «Lenago ill!», «Agur, Jaunan Ama», «Goxeko Izarra», «Otseña zara», «Ken!», «Euzko-Abendearen Ereserkia» eta gaineraoak?.

Egia esan, Arana'k erderaz emon euskuzan bere lanik geienak; baiña berak diñosku bost a'diz gaitz egiten jakola erderaz jardun bearra, ta orretan ba'ziarduan be euskotarrak ulertu eg'oen egiten ebala, ez bere gogoz. Gizona, alan be, ez da itzez neurtzen, egitez baiño, eta Sabin'ek, ez ekian euskera ikasi egin eban, eta euskera utsean emon euskuzan: «Egutegi bizkaitarra», sakelerako; «Umien lenengo aizkidia», irakurten ikasteko; «Lenengo Egutegi Bizkai-tarra», ormarakoa, egiaz ederto antolatua; bertan datoz euskal izenak be, geroago, ilda gero, «Ixendegi Euzkotarra» izenez, ar gitara ekarria; «Olerkijak» eta «Libe», azkenez; euskeraz osotu zitun guztiok.

Arana'k, bego emen, berak ikasi ta idatzi ez-ezik, eragille trebe lez, bultzada ederra emon eutsan euskereari. Aren irrirtziari esker, zenbait euskalari ta euskal idazle jagi ziran or-emendik. Illagiñik aurkitu eban bere izkuntza ta il ez e ten alegiñak alegin erre zituan. «Ilten baldin ba'da, abertzalerik ez dalako, ilgo da», iñoan. Arana izan ez ba'litz, euskaldunok gaur, ziur asko, ainbat gauza ta bal'o aintzagarri galduak genduzan onezkero.

Arana'ren «Olerkijak» liburua, Ele'z lde'tar Koldobika'k argi-taratu eban 1918'an. Iru sailletan banandu zitun olerkiok. Onan: I. Bost *ereserki*: 1) «Oñatz-Loyola Likona'tar Iñaki, Bizkaya'ren Zaindari deunari Bizkaitarrak», 1895'an egiña; 2) «Oñatz-Loyola eta Likona'tar Iñaki, Gipuzkoa'ren Zaindari deunari Gipuzkoa-rrak»; 3) «Agur, Jaunan Ama» (*Ave, maris stella* euskeraz); 4) «Jai andi onetan» (*Sacris solemnis euskeraz*), ta 5) Euzko-Aben-dearen Ereserkija». II. Zortzi *illots*: 1) «Gaurik baltzena»; 2) «Ene Ama!»; 3) «Oraingo Bizkai-bizkaitarrak», 1896'an egiña; 4) «Mendiko negarra», 1896'an egiña; 5) «Abertzale baten negarra»; 6) «Otseña zara»; 7) «Lenago ill!», Bilbao'ko espetxean 1895'an ondua; 8) «Ene Aberrija!». III. Amazortzi *abesti*: 1) «Begoña'ko Ixar zerutarra», 1895'an egiña; 2) «Ama Goikuari»; 3) «Andrea Miren garbijari»; 4) «Josu'ren Bijotzari Abestija»; 5) «Gabona»; 6) «Goxeko Izarra»; 7) «Itxarkundia», goiz-abestia; 8) «Ederra zara»; 9) «Ai, Mikel»; 10) «Bizkaitarrak gara!»; 11) «Ken!»; 12) «Ai, Kepandon!»; 13) «Urkiola'ko bidian»; 14) «Boga, boga»; 15) «Abertzale ezkondua espetxian»; 16) «Ziñes-mena!»; 17) «Astarloa'tar Paul-Kepa'ri», ta 18) «Didar bat adi-tu da».

Erri askatzaille geienak olerkia erabili izan dabe zuzi bezela, bere garaian Rizal'ek Filipinas'en eta ora'ntsu Maio-tse-tun'ek Txi-na'n legez. Aberria zan Arana'ren kantagai, ikurpe onekin: «Jaun-goikua eta Lagi-Zarra». Aren olerkia ezta irudimenaren saio uts, egia batek aragitutakoa baiño. Lokarturiko erria esnatu bear eban, eta egoera orrek bere-bere ebazan istillu ta nekeak kanta euskuzan bertso bizietan. Gaur iraultza garaian gagozan lez, orduan lo-zorro egoan euskalduna, ta zartaka-zartaka itxar-azo bear lokartua.

Ona eredugarri «Otseña zara» deritxona; «Patria»-k 1904'ko urtillaren 1'an argitara ekarria.

Aurrerakuntza garaian ete dabilkigu mundua? Ainbeste teknika irrati, berebil, egazkin, telebista ta abar dogu gaur, eta egoneziñak darabil gizona. Orregaitik edo, Arana'k onela:

«Zorijona  
zeure laguna zan  
zeure lagijen  
aldijan,  
Noz-nai  
zeure buruban jauna ziñan:  
gatxa zer zan etzenkijan.

Itxurik  
zeuk arrotza onetsi, baña,  
ta emon zeuntson bijotza.  
Ordutik ona  
otseña zara:  
jabia dozu  
España.

Ara zelan,  
Euzkeldun Errija,  
jausi zarean  
lexara,  
Lotsa...!  
Lotsarik eztau orretara  
dagonak azpiratuta.

Begirik  
ori ikusteko ba-daukazu,  
noz-edo-noz, Ama, itxartu,  
ta orban ori  
kendu odolaz;  
arren, negarrez  
ez kendu.

Arana'ren poesirik geienak lez, au be, gaur, erritar kanta biurturik daukazu. Esaiozu abots ederreko bati —gogoan dot Leon Aranguren olaetarra-euskal abesti ozen bat kanta daijala, ta auxe abestuko dautzu; letra ta musika, izan be, sentimentuz eta gartasunez gainezkakoa da. Pentsamentuz eta sentipenez eder. Arana ez dabilkigu zalantzan; ba-daki zer nai dauan eta urratsak norantz zuzendu.

**BUSTINTZA'TAR EBAISTA**  
— KIRIKIÑO —  
(1866 - 1929)

Nainundik begiz jo, Kirikiño beti yaku ikasgarri; argia ta be-roa dakarskuz bere gizantz izugarriak. Igaz, aren eungarren jaiotz-urte urrena ospatu gendun, zerbait egiñaz: omenaldia Mañari'n, ari buruzko lanak eguneroko ta aldizkarietan, or-emen itzaldiak,

teatru-jaiak, *Abarrak* barriz argitaratu, eta gaineraokoak. Ezta etsi-etsian —konforme— gelditzeko beste be, baiña egin alean lan egin ezker, nok guri geiago eskatu? Ez gaitzezan, orraitino, egiñagaz aseturik ereñotz gainean nasai jarrita egon. Aurrera jo bearra dogu, leiatsu ta oztargi.

Kirikiño ta ipuinlari adierazpen bardin samarrak doguz sarri. Alan be, orretan baiño geiago jarduna da. Igaz argitara emon genduan *Abarrak* liburu mardulean ikusi zeinkenez, ainbat gai ta auzi erabilili ebazan Kirikiño'k, beti sakon ta dotore, erriko ta bizitasunez gainezka. Erri jakin-zaleari danetik egokitu ta emon eutsan janari egosi erreza. Aurretikoak itxitako erentzi bikaña —abesti, elezar, ipuin, ilarri, baserri ta itxaso-bizitzan datzan euskal gogo— erriaren kontzientzi barruan dardarazo nai eban. Eta orretan saiatu zan ainbat gai ta gauzari ekiñez, erriak bere-berea eban maitatzen eta zaintzen ikasi egian.

Ortarako igarle doaz dagerkigu. Giza-kondaira zarrean, momentu larrietan, gerra bat irabaztean edo galtzean, il edo biziko une estuetan, mastiak batu ta soloak goldatzean, bertsolariak, igar-leak jagi oi ziran —gure artean be bai—, negar eresi edo garrikantak esanez. Kirikiño'k ba-ekian au, ta sasoi atako euskal urretxindor zan Enbeita'tar Kepa'gaz batera, negar kantak eta oi-ots alaitsuak abestu euskuzan; Euskalerria ta euskeraren zoria ilteko arian ikusten zitun, eta bertsolarien deia beti be erriaren antsia izan dala jakiniik, olerkari senez goi-argitua, bertso ta ahapaldi kartsuak aragitu euskuzan sarri. Or dozu, irakurle, aitaturiko *Abarrak* liburuan olako mordoska bat.

Baiña ba-dira oindiño beste batzuk liburu ortan sartu bageak. Eta azken-argitalpenean sartu-ezok aitatu nai ditut emen. Gaur goizean, ain zuzen be, urte askotxo dirala argitara emoniko erri-abesti liburuxka bat, 144 orrialdekoa, eskuratu dot. Zazpi sailletan banaturik dago: 1) *Ereserkiak*; 2) *Abesti aberkoiak*; 3) *Maitasun abestiak*; 4) *Siaska abestiak*; 5) *Uskurtz-abestiak*; 6) *Gabon abestiak*, ta 7) *Erri-abestiak*. Eta euroatik amazapik Bustintza abizena daroe azpian. Eta amazapik kanta oneitan oso liriku agertzen yaku Kirikiño.

Lenengoa, «Jagi-jagi» da; gure arrantzale zarrak beñiola olan-desai gogor egin bear izan eutsen itxasoan. Ordukoa dogu kanta au:

«Jeiki, jeiki, etxeakoak;  
argia da zabala;  
itxasoti mintzatzen da  
zilarrezko trumpetan».

Kirikiño'k aire ta neurri bardiñez esotu eban berea. Las'er  
urreratuz doan egun zoragarri bat dakus; eta diño:

«Sorkaldetik agiri da  
argi gozo biguna.  
Bere aurrean, bildurtuta,  
igesi dua illuna».

Aberkoiaren artean ba-ditu guztiz poltak. Bere lurraldeak itxita  
ona datorrenari diñotsa, Zubero'ko eres-kanta bati letrea jarriaz:

«Zetara ator ona?  
Ango lur ederrak  
gogoz landu egixak,  
eta jangok ondo,  
ta alan i ta ni  
adiskide beti».

Eta beste au aberri maiteari eskifia:

«Lora polita ontzian  
begiratzen dodanian,  
orduau zaukot, ene maitia,  
neure goguan».

Txori polita kaiolan  
begiratzen dodanian,  
ai!, orduantxe zaukot, maitia,  
neure goguan».

Beste zazpi oneik be, «Aitonaren esana», «Zeurretza b'izitza»,  
«Gertu gagoz», «Goiko mendian», «Anton Aizkorri», «Txori  
urretxindorta» ta «Txori urretxindorra udan», bardiñak dira, samur  
sentikorrak.

Ibiltari zan Kirikiño; domeka ta jaietan, beste zeregin barik  
ba'egoan be n'tzat, ara naiz ona ibillirik, euskal lurak dituan eder-

tasunez asetu nai izaten eban bere barrera. Udaldian batez be bere  
errira joan oi zan eta ondo ekizan angu mendi-muño, errekon-  
do ta aitzarteak. Eta berak barruan eroanaz kutsutu nai ebazan bes-  
teak be. «Mendian axia» asten dan poeman onela diño:

«Mendian axia / garbi ta ederra,  
bertan indartuten / da sendoro bularra;  
antxe dozu, gazte, / osasun betia:  
izan zaite, ba, beti / mendigoxalia».

Maite-kantaetan ederto egiña dau bat, Zubero-eresiz abestua,  
ta geroago bere emazte izan zan Bustintza'tar Basili'ri eskifia:

«Neskatilla bat bai-dot / maite biotzetik,  
alkarren maite gara / biok aspalditik.  
Bere on izatiaz / nauko zoraturik;  
bardiñik eztot uste / ifun be dagonik».

Elizkoietan be zentzunez egiñak ditu. «Ogi zerutik» oso zarra  
da gure eliz-abesti txortetan. Kirikiño'k ahapaldi ari beste batzuk  
ipini eutsozan, berak asmauta. Ona bat:

«Eztot, ez, begiz / nik ikusten,  
ziñetsi, barriz, / bai, ziñesten,  
Oteunan dala, / Josu emen,  
geu onetsi ta / maitatuten».

«Abestu biar dogu» asten dana Andra Maria'ri egiña. Ta  
«Agur, Josu'ren Ama» asten dana be berak atondua, batez be  
1909'an Euskalerritik Lourdes'era egin zan peregrinazioan abes-  
tutakoa.

Euskal oituren zale genduan. Eta Bilbao'ko Euzkelzale-Bazku-  
nak zerbait otzituaz joan Santa Ageda oitura barriztu nai izan  
ebanean, olako eskabideetan kanta oi dan letrea berak osotu eban,  
gero ainbat aldiz abestu izan dan «Aintzaldutagun Agate deuna»  
asten dana noski. San Juan bezperan be, or-emen-sua bizturik, se-  
kulako kantak eribiltan doguz, «Urta, urta» abestuaz solo-baratz,  
zelai-beresietako sorgiñak uxatu na'ez, Kirikiño'k onela:

«Deun Jon'az sorgin, eltxo ta zorri  
 guztiak dira erretan,  
 soluetako landara onak  
 garbi geratu daitezcan.  
 Gora, gora, gora garbitasuna!  
 Aupa, bizkor egin suari bira!  
 Ujuju!  
 Deun-Jon'etara guaz gu».

Eta, azkenean, norbaitek «Txeru kartzelan dago» abestu dau-  
 tso, ta bertatik iduri bat etorri yako aurrera. Norena ete? Gorputz  
 izatea emon eutsonarena ala illun ekusan lur-amarena? Zein bata  
 zein bestea biotzez maite ditu, ta areik kartzelan ikusterakoan  
 barru-ikutua diño:

«Ama, zeu bariñ larri  
 nago neu benetan!  
 erdu ta poztu naizu  
 zeure besoetan.

Ama!

Triskan egizu, neskatotxua,  
 mutikotxua, lai-rai-lon».

Auxe dogu Kirikiño'ren biotza, bertso samurretan ustua.

### GORGONIO M. ERRETERIA (1868 - 1940)

Elantxobe'k ez ditu gizon ospetsu gitxi emon; ez bakarrik  
 itxastar, baita euskal idazle ta olerkari lez be. Ori argitu ta egizta-  
 tzeko, ez erdi-aazturik daukaguzan Andima Ibiñagabeitia, Jose  
 Intxasagarri ta besteak gogora ekartea baiño. Emengoxea, elantxo-  
 betarra genduan Gorgonio be, euskal idazle ta olerkari, barriro  
 esanik.

Itxas-ertz txairo onetan jaio zan 1868'ko iraillaren bederatzi-  
 bertan osotu zituan lenengo ikasteak; gero, Bizkai itxas-aldeko  
 beste gazte askoren antzera, nautika ikasi ta urgain zear ameslari

ta bizkor ekin eutson bazterrak ikusi ta esitzen. Eder jakon kresal-  
 sunda ta Marina Merkante'n izena emonik, or nun dabilk'igun  
 zintzo ta langille. Ogei urte ta geiago erre zituan Filipinas'en,  
 ugarte artako Marina Merkante'ko buru zala.

Urrin bizi zan berak maite eban erritik. Azkue jaunak zuzen-  
 tzen eban «Euskalzale» aldizkariaren orian dator, urriñeko izaro  
 aretatik bialdutako «Urruntasuna» deritxon olerkia. Onela diño  
 bertan:

«Urrun daukat nik Euskalerrria  
 joan dan aspaldi onetan;  
 asko ba'neban lenago maite,  
 geiago dot gaur maitetan».

Egia da, biotzak ez dau parkatzen. Gaiztotu ez danak bein-  
 tzat, itxas-orratzak iparrera lez, eki-loreak eguzkira lez, ala berean  
 biotzak sorterrirantz joten. Eta Gorgonio, urte-mordoa erbesteetan  
 egin ostean, bere errira biurtu zan; gazte ta ameszez beterik oin-  
 diño. Bere erriaren alde zerbait egiteko gogo ta asmoz.

Egiako abertzalea genduan, Adeitsu, samur eta on-bera agertu  
 zan nun-nai ta beti. Eta, ba-dakizu, olako gizasemeak, ez euki  
 dudarik, goratu egin oi ditu erriak. Alkate izentatu eban Elan-  
 txobe'k eta, alkate zala, beste lan bikain askoren artean erriko  
 iltegi, kanposantu barria zuzendu eban; onen sarreran, berak  
 atxurdiñean josita esan gogoangari au ipiñiaz: «Otoi bat eta gero  
 arte».

Gizon jakintsu, zuur eta esperientzi aundikoa zanez, 1916-1920  
 bitartean, Bizkai Buru Batzarreko nagusi izan zan; baita 1917'tik  
 1920'ra Probintziko Aldun edo Diputadu be. Kargu onegaz egoala,  
 gogotsu lan egin eban Bizkaiko langilliararen alde, euron gizarte-  
 auzi, buru-auste ta goraberak zuzendu ta artez eroaten asko be  
 asko alegindurik. Aozko izlari lez, erririk erri ibilli zan J. Arrospide  
 ta K. Enbeita'gaz. Orduko euskal-azi ereille jator eta zin-  
 tzoenak, onexek iturok izan ziran og'i urte ta geiagoan. Beti eus-  
 keraz, erriak ekian izkuntza ugari oparoan.

Azken gerratean Frantzia'ra joan igeska, eta Baiona'n il zan  
 bereak inguruan zitualarik, 1940'ko urtarrillaren ogetazapian.

Aren gorpuzkondoak, barriz, Elantxobe'ra ekarri ebezan 1959'garren urtean.

Ainbat lan egin eban Gorgonio'k euskal barrutian, prosaz eta bertsoz. Bilbo'n Azkue jaunak ekarren «Euskalzale»-n eta gero «Ibaizabal»-en asi zan beregiñen, 1897'an ain zuzen. Lenengo lanean Azkue ta «Euskalzale» goratuz pozik agertzen zan, eta Azkue'k bere aldetik onan: «Umeai egiten iakezan palaguak eta agurari eginiako ariguriak edo osekioak legez artu daroaguz egiten iakuzan ondo-esanak: ezpantetan barrea, umeak legez, ta biotzean esker ona, aguren antzera, doguzala. Ez aaztu, urrunetako euskaldunak, zuen Ama zaar onezaz».

Gorgonio'k naikoa idatzi eban, lenengo aitatu ditugun Azkue'k zuzendutako aldizkari bietan eta gero, Euzkadi'n aurkitzen zala Bilbo'ko «Euzkadi»-n eta «Gudari»-n eta Zornotza'ko «Ekin»-en; lenengo «Errebido» izenordea erabili euskun eta azkenez «Perularra». Gai asko astindu ebazan: Jainkoa, maitasuna, baserria, sultonhoa, aretxa, gure izkuntza, Gernika'ko Zugatzza, eta abar.

Min emoten dautso Gernika'ko Zugatzak; zergaitik baiña? Gizaldiak zear kemena gitxitu jakolako. Edu onetan diartu kantari:

«Sorterritik urrunean  
biotza daukat naibagez  
eta gomuta nai ta ez  
beti zugandik urrean,  
egunez eta gabean  
nire begiak negarrez  
zu ikusi nai zaituez  
lenago zifian antzean».

Gure maisua, eguzki dizditsua il zanean, biotza oso zauritu jakola dirudi. Ona emen berrogetamar bertsoadun olerki gartsuaren lenengo amasei lerroko aapaldia, Arana Goiri'ri eskifia.

«Il zifian, baiña zure gomuta  
illezkorra da neure goguan.  
Aintzaz jantzirik agertuten yat  
beste gomuta danen buruan.

Baita sarritan, atseke orduan,  
agertuten yat zeure irudija  
ta erakusten daust, irri-barreka,  
azke izateko dodan bidia.

Aberriaren zifioa aundi  
eta gaizkalle dua neure biotza  
zeuretza da gaur neure otoia.  
Zor dautzuk bada ene zoruna  
zoritarreko Aberri onetan,  
ezautzen ba'dot Ama kutuna  
zeugaitik da, ba, bene-benetan».

Ez dakit Perularra mendigoizale edo-ta erromerizale zanik; baiña au ba-dakit, aren lumeak mendigoizaleak eta erromeri zaleak goratu zituna. Leenago, edo oindiño antxiña ez dala, gaurko «inpernuko auspoaren» orde, panderoa lagun koplata atsegiñak kantatzen ziran dantza bitartean. Onako bat beñik-bein agiri da Zornotza'n azaltzen zan «Ekin» asterokoan. Amabi lauko daukaz, Perularra'k gatz eta piperrez gañezka eginiak. Ona orretatik bost saltoka artuta.

«Oñetako indarra  
buruan bazendu,  
pozik ingo nintzake  
ni zugaz eskondu.

Egualdi onak  
egualdi zatarrak:  
berak dau urrian  
atzetik negarra.

Ez egizu barrerik  
ifioen gatxian,  
bestek egin ez daizun  
zeuk daukezunian.

Gordeten ez diranak  
bear dan orduan,  
negar egin oi dabe  
sarti beranduan.

Ezkontzeko amesak  
oi dozak gogoan,  
eta sasia daukak  
garalle soloan».

Molde onetako koplai trikitixak deritxegu. Lengo gizaldietan —baita gaur be— onako asko abestu izan da gure artean. Molto batzuk batu ta argitaratzea lan polit bikaiña izango litzateke.

Edozein eratako bertsoan jator agertzen jaku Gorgonio. Ez, ez dogu edozelango koblakari. «Ez zirtzilla inñolaz ere —idatzi neban nik ari buruz neure «Euskal Literatura»-n, barne-gunez eta gaiñ-azalez bikainki onduta bait daude biribildu zizkigun guztiak. Bere alaba Jule bizkorra ari da aspaldidanik aren lan osoakin liburu eder bat gertu naiean». Neuk daukat ori, nok diruz la-gundu zain.

### ON ZIRILO ARTZUBIAGA (1874 - 1966)

92 urteraino bizi izan zan Zirilo Artzubiaga abadea. Liburu Santuak doe edertzat dauko urte luzez bizi izatea. Nun ete datza, baiña, zartzaro luzearen ezkutua. Artzubiaga'ri sarri egin eutsoen itaun au, eta berak iru errezeta lez eukazan ortarako: 1) *gitxi jan*, asko jateak bada sabela putzitu ta burua lausotu egiten ditu; 2) *ez asarratu*, asarreak sumindu ta nastau egin oi dau barrua, ta 3) *gogozko gauzetan lan egin*, geure gogora ta erara lan dagigunean, ia bat bere ez gara nekatzen.

Otxandio'n jaio zan 1874'ko bagillaren 22'an. Eleiz-gizon izan nairik, latiña ta gaiñerakoak Legutiano'ko seme zan Jorge arabar apaiz entzute aundia eukanagaz ementxe Zornotza'n ikasi ebazan, gero Gasteiz'ko apaizgaitegian osoturik ikasketa nagusiak.

Apaiz-maillako duintasuna 1899'ko uztaillaren 11'an jadetsi eban, bere jaioterrian leengo meza emonaz; Azkue'k egin eutsen itzaldia ta Arrese-Beitia'k, «Neure adiskide maite Zirilo Artzubiaga-tar jaunari bere meza barr'ko egunean»; deritxon olerki sentikorra eskifii eutsen.

Arimazain arloari loturik, Karrantza baillaran urte bi egin zituan, San Esteban deitu erritxoan. Beste pare bat urte lez-egon zan Orozko'ko San Martin ele'zan. 1930'tik aurrera, Zornotza'n bizi izan zan gerraldiararte (1936), emengo parroko gauzetan arduratua batez be.

Bizkaiko abadeen artean alkarte bat sortu zan 1912'n, «Jaungoiko-Zale» bazkuna. Alkarte onek ba-eban izen berbereko aldizkari bat be: «Jaungoiko-Zale», illerokoa. Eta bion idazkari, bazkunarena ta aldizkariarena, Zirilo Artzubiaga izan jakun. Kargu orretan inñarduala makiña bat orri ta liburutxo argitaratu zituan gero bere abade lagunak eleiztarren artean zabaldu egiezan, Gabirel Manterola, Jon Gurutz Eguzkitza ta J. G. Ibargutxi ebazan batez be laguntzaille bizkor.

Gerra zala-ta, erbestera jo bear izan eban Eusko Gobernuaren mendeko ume mordo bategaz, urte batzuetan Ingalterra'n bizi izanik. Irurogei urte eukazan. Guda amaitutakoan euskalerriratu zan barriro be ta lengo lanari oratu eutsen, ixillik, baiña txiri-txiri, bere elburuan beti. Begoña'n eukan bere lantegi barria, ta ogibidea: Klarisen kapellau zan. Ementxe jarri eban «Ediciones Religiosas» liburuak argitaldu ta saltzeko egoitza. Sarri joan oi naiakon ni laguntasuna eskifiz. Antxe il zan 1966'ko uztaillaren 11'an. Derio'n lur emon jakon On Zirilo Artzubiaga jaun agurgarri, euskal arloetako langille ezin aspertuari.

*Idazle ta liburu argitaratzaille.*—Idazle ez eban askorik idatzi Artzubiaga'k. Astirik be ez eban ortarako izan. Ederto ekian euskeraz eta idazten asi zan Azkue'ren «Ibaizabal» aldizkarian, eta ainbat lan datoz «Arzuabiaga» ta «Otxandio»-z izenpeturik. Olerkitan be ekin eutsen «Mariari» bere sorkunde garbian amabi aapaldiko neurtitza, ederto borobildutako poema eskifiz. Eleizako zeregiñak eta idazkaritzako lanetatik kanpo zaila zan liburuak eta artikulua eratu ta idazten ekitea. Orrez gaiñ, Bizkaiko Dotriña arazoa be bere zainpean egoan, azterketak antolatu ta abar.

Liburuak argitaratzen, ostera, lan ikaragarrria burutu eban, ogetalau urtetan liburu asko ta ederrak, olerki ta musika, ainbat lan bikain argitara emonaz. Gai orretzaz J. G. Ibargutxi'k, sakon ta ulert-errez idatzi ebazan liburuak berak argitaratu zituan. «Jaungoiko-Zale» bazkunak, On Zirilo'ri eskerrak, bere irarkola eukan Zornotza'n, gero gerra denpotan erre ta sakabanatua.

Bere ustez liburuak ba-dabe garrantzirik, erlejiñoari buruzkoak batez be; bein A. Irigoien'ek itz-aspertu gozoa euki eban aregaz, eta azkenez itaundu eutsen Irigoien'ek: «Zelan ikusten dozu gaurko euskal zeregina?». Ta Artzubiaga'k erantzun: «Bear dogu aba-

deok ardura apur bat ar dagien. Predikaziñoa bakarrik ezta naikoa, irakurten be zaletu bear da erria. Ort'k dator kultura, ta gaiñera bear-bearrezkoak dira liburuak fedea indartzeko eta obeto ezagutzeko. Leiduteko zaletasuna biztu ezkeru, liburuak be ugaritu egin-go litzakez eta eskatu jentek. Bastela erlejiñoak eztau iñoren bururik bear dan legez lantzen». Emen dago aren lan guztien zergaitia.

*Olerkari.*—«Olerkari lez ere —idatzi neban nik— agertzen zaigu, ta ez txepetz gisako alegia, Arrese-Beitia bere errikidearen arnasaz baizik». Ona aapaldi batzuk zortziko nausitan arilduak.

Sorkunde garbia dau kantagai. Gauak eukan gizadia, baiña amaitu da gau orren aginpidea. Febo'k buztartu ditu zaldia eta igoaz doa muiño ta mendiak; amaitu dira bardin Eba gangarrak ekarri euskuzan penak, pozez beteak izango dira aurrerantzean egunak.

«Aingerutxuen talde andiak,  
jira biraka zeruan,  
dabiltz kantetan eta olgetan  
Maria'n tronu albuán,  
Euren eguak ega-biraka  
astintzen dauen lañuan  
eskiñiagaz eres bigunak,  
kantaurik arpa gozuan».

Dontzella gazte guri bat, txukun jantzita, lirio zuri iduri, dauko aurrean Maria'k. Neguak ezerik itxitako lorea dozu berau, eta lora artean biotz biguna opatu dautzu, zuri, Maria!

«Koblakariak alde batera  
itxirik kantu tristeak,  
ipinten dauz euren liretan  
gaur kordel alegereak;  
bazter danetan zabaldu daizan  
kanta gozuak aizeak,  
kantau daruez Ana'n alaban  
birtute guztiz nobleak».

Bera be, koblakari da-ta, leiza sakonaren antzera, ixillaren lañotzan egongo ete? Kantari motel da, ta ez dauko une zoragarri

orrek deskan aiñako kantarik, baiña txanbillotxak goiz-eresaldian bere doiñu motela legez, berak be daukana gogoz emongo.

«Ni bere nator, Ama maitea,  
zure altara eder aurrera;  
ez dakart baiña kanta bigunik,  
ain gitxi loraik Zugana;  
bakar-bakarrik daukat lira bat  
beti negarrez dagoana;  
eta biotza armin-armifilik  
minberatua dan-dana».

Alan eta guzti be, kantatu nai dautso bere Sorkunde Garbia. Baiña zelan? Ito egiten jako abotsa eztarrian. Bere lira negartia be ixillik, ez dauko kanta gozorik. Eta azkenik, eziñaren eziñean, ler dagi kantari:

«Zara Zu, Andra zoragarria,  
orban bagako andrea,  
deabruaren arerioa  
ta buru apurtzaillea:  
orrexegaitik kantetan dogu  
dala zure Sorkundeá,  
garbi-garbia ta pozgarria,  
bape obenik bagea».

### JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE (1875 - 1939)

Gurè izkuntzaren zoriak urduri ekarren gizaseme jatorra. «Izkuntza aldatzea —iñoan ak— erriaren gogoa aldatzea da; baiña gogoa aldatzeak, aurreragoko siñeste, ekandu ta izkeraren aldatzea beragaz daroa; auxegaitik, Euskalerrian, bere siñeskintza ta ekan-duai, bere gogoari, gogo orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsegu; baiña oni eutsiteko, euskerea galdu ez dedin, lan egin bear dogu».



Lemoa'n jaio zan Eguzkitza, 1875-11-28'an. Koskondu zanean, garai atako gazte askok lez, e'eiz-gizon izateko, ementxe Larrea'ko latin ikastetxean burutu ebazan lenengo ikastaroak; Jakintza ta Teologia gero Gasteiz'en amaituz. Oso emona zan izkuntzetara, aitua egifik griego ta latinar batez be. Lizenziatua zan Teologian.

1904'tik aurrera, ia bizialdi osoa, Lekeit'o'n emon eban, eleiz-karrera egin gura eben gazteak ementxe bait eukien Eguzkitzak zuzenduriko Latin-ikasgua. Irakatsi ez-ezik, idatzi egiten eban eta itzaldiak erriz-erri. M. Lekuona'k onela idazten dau Eguzkitza'ri buruz: «Apaiza zala esan bearrik ez dago. Eta ez nolanaiko apaiza izan ere. Jaungoikozkoa benetan, eta benetan jakintsu, gaiñera. Buruz ondotoxo jantzia, berez eta ikastez, Adimen trinko ta sendoa. Sophistikeri gabeko eskolastikoa. Oldozpen sakon eta argia. Itz ondo ebakia. Jarduncan eta lagunartean, itz-murritza. Aurpegi irrisua orraitik. Lanean, langille gotorra, aspertzegabea. Akademiz Lizenziatua».

Gerra-aldian eta ostean, aron ibilli jakun, baita aldikada baten illunpeko gela baltzean etzun be, Etxepare gure len-idazlearen antzean. Azkenez, oraindik gordin, Lemoa'n il zan 1939-8-12'an.

*Euskal lana.*—Ikasketak amaitu ebazaneke asi zan idazten. «Jaungoiko-Zale» sortu zanetik lankide zan, 1932'tik aurrera, «Ekin»-en bardin. «Eguzkitza» ta «Lemoatarra» erabilli zituan lanak izenpetzean. RIEV, «Euskera», «Yakintza», «Euzkadi», «Eukerea»-n eta, agertzen dira aren idazlanak. Idazle eder dogu beti, gaiak illunak edo gitxi erabilliak izanda be, argi ta ulert-errez unteten eben Eguzkitzaren luma bizkorretik. Ez daki zergaitik ez diran ber-argitaratzen aren idatziak.

Oar lan ederrok: 1) *Garbitokiko Arimaen illa* (Bilbao, 1915), 112 orrialde; 2) *Andra Maria'ren Loretako illa* (Zornotza, 1919), 290 orrialde, liburu eder-ederra; 3) *Euskal egunetako itzaldiak*, I ta II (Bilbao, 1921 eta Bermeo, 1926); 4) *Arrasateko* (Bermeo, 1928); 5) *Andoain'go* (Zornotza, 1929); 6) *Emakume euskotarrak* (Yakintza, 1930); 7) *Argi Donea*, bizkaieraz (Zornotza, 1933 ta 1935); 8) *Gizarte-auzia* (Zornotza, 1935; ainbat eta ainbat euskerari buruz lan bikain, eta *Eleiz-itzaldiak* meta aundia, gaur Dario'n Seminarioko liburutegian dagozanak.

Euskaltzaindua izan zan 1919-9-21'an. Irakats-egikizuna ornidu ostean, be-eban oraindik alkarte onen barruan lan egiteko era be, ainbat txosten bikain aurkeztu oi zituan Euskaltzaindiaren batzarretara; iker-saillean batez be, lan aipagarria egin eban Eguzkitzak. Eta Orixe'k *Karmel*'en (1961) bizkaitar idazle gotor onetzaz: «...nire ustez, orainarte izan dogun euskal idazlerik bikainen».

Eta olerkari? Zoritxarrak olerkari biurtzen ei dau biotza. Eta Eguzkitza'k giltzape egon zanekoa dau olerkitxo au, 1937-9-29'an biribildua.

## SEME ATXILLOTUARI

*Goiko Aitak:* Jaungoiko nozun orrek Aita be banozu;  
Betikoa nazala gomutau egizu.  
Berankor nazan arren, ez naz Ni ahanzkor;  
Okerra zuzentzeko, enabiltzu dekor.  
Bakotxari berea Neuk dakit emoten,  
Aspertzeka diardut zuzena egiten.  
Uste betea Nigan biotzez ba dozu,  
Zuzen orren argia laster dakuskezu.

*Goiko Amak:* Jira ta bira dabiltz gaba ta eguna...  
Ez geiegi larritu, semetxo kutuna.  
Illun ondoren dator argi pozkarria,  
Atsekabe ondoren atsegin garbia.  
Orain, gero ta beti Goikoa nagusi,  
Zure biotz-samiña ondo dau ikusi.  
Oro zuzentzen daki goiko elbururantz;  
Zu bere ba-zaroaz laztanki Zerurantz.

Bizitza zear olerkigintzan murgildua etzan arren, Eguzkitza'k ezagutzen zituan euskal ederraren sena eta teknika.

**AITA IMANOL ARRIANDIAGA**  
(1876 - 1977)

Elantxobe'n munduratu zan Aita Arriandiaga Gorozika, 1876' ko jorraitaren 20'an. Umetatik eorren argia, eta itxasorako barik, Claret'arren ordenarako lera barruan somaturik, Miren-Biotzaren Semeak Balmaseda'n dauken ikastetxera joan jakun amaika bat urteko zala. Emen inguruetako komentuetan egin eban eliz-karreira, azkeneneko ikasketak Erroma'n osoturik.

1903'tik aurrera, urte mordoan, Santo Domingo de-la-Calzada'n, Logroño'ko probintzian irakasletza egin eban, Claret'arren gazte ikasleai morala batez be azalduaz. Ementxe egoala asi zan idazten, gero bzitza osoan egingo ebana: ordenakoak Madrid'en ateraten eban «Ilustración del Clero»-n argitaratu zituan bere lengo lanak.

Zolia zan Aita Imanol. Eta bere ordena barruan kargu garrantzitsuak euki ebazan: Lagundiko idazkari orokor izan zan. Kargu oneik zirala-ta, irakasle ta idazlari, Erroma'n eta Madrid'en bizi izan zan, Brasil'etik eta osterak egíñez. Zillegizti ta Eskugoa norbaiti dudaren bat sortzen jakonean, aregana jo oi eban; beraz leku guztietan oso maitatua zan, beti ta nun-nai edonori on egiteko gertu egoalako.

Langille aspertu bakoa izan zan beti, nagusiak bere gain itxitako zerak ez-ezik, baita latíñez, erderaz ta euskeraz lan ederrik asko osotuz. Beire'n, Napparroako erritxoan il zan 1977'ko urtarillaren 30'an.

*Euska lana.*—Erderaz idatzi ta or-emen argitu zituan lanak albora itxirik, guk geureari lotuz, euskerazkoak bakarrik aitatuko ditugu.

Jaiotzez euskaldun jatorra zan Aita Imanol. Baiña Balmaseda'ko ikastetxeko ikasketa bitartean —sarritan jazo oi dana—, aitzu egin jakon apurka-apurka amagandak ikasitako euskerea. Eta bein, ama ikustera joan jakonean, ona zelako estutasunean amasemeak: amak ez ekian erderarik eta semeak euskerarik ez, aitzuta. Au lotsa! Orduantxe asi zan Aita Imanol euskera barriz ikasi, mintzatu ta idazten.

Aizeak dakartson arnasa garbiz biztutako zugatzak ez ete ari eskerrik emoten? Eskergarri dogu, nik uste, olako ongille bat aldamenen, akulu leunez zirikalari. Elantxobetarrak izan ebazan olakoak. Gaur zoritxarrez ez dana, lenago ba-ziran, apaiz naiz praille ikastetxetan, olako zirikalariak, oso mesede galanta alkarri ekartsoenak. Claret'arren ordean ba ziran, garai aretan, euskaltzale errimeak, Gotzon Urrutia ta Zabala-Arana nabarniztarrak, Gabino Garriga bilbotarra ta abar; onein artekoa zan Aita Imanol Arriandiaga. Eta alkar ziztaturik, euskal alorrean lan bikain-bikaiña burutu eban.

Euskerazko lanak Aita Imanol'ek «Euzkadi»-n, «Euzko-Deya»-n, «Euzkerea»-n, «Euskal Esnalea»-n argitara emon zituan, «Mibibus», «Arpidedun», «Argorri» ta «Omabeitia'tar Karmel» ezizenak beintzat erabilliaz. Ona emen aren euskal liburuetatik batzuk: 1) *Umiak autortuten eta jaunartuten* (Bilbo, 1911); 2) *Josu Kristoren Antzarpena*, bigarren idazia; 3) *Jaunartzazko itaune-erantzunak* (Euzkadi, 1913); 4) *Irakasti Kistarra* (Bilbo, 1919); 5) *Dabid'en Eresiak* («Euskadi»-n, «Euzko-Deya»-n, eta «Euzkerea»-n, 1898'an asita, argitara emonak, ogei bat guztiz; 6) *Matai Deunak legezko Josu-Kisto'gazko Goizparra* (Euzko-Gogo, 1951-1952); 7) *Goizparrak eta Beldubaik* egíña (Zarautz, 1959, 558 orrialde; 8) *Daneurtiztija, Geometria* (1921'an egíña, baiña argitaratu bage).

*Zelako idazlea?*—Bere euskera lanetan garbiegia dogula-ta, naikoa astindua izan da Aita Arriandiaga. Baiña ez daiozun, erro-tako txaplatak lez, beti zer bati jardun. Es:n dodanez, etengabe iklatzi eban, erderaz ta euskeraz. Gaiak sakon ikasi ta adierazo naia agertzen dau beti, adimen argi zorrotzari dagokionez. Eta nik orain urte batzuk esan nebana diñot gaur be.

«Onako idazlez epai arteza emateko —idazten neban—, sasoi artan nolako zebillen gogoz artu bearra dugu. XIX'garren mendaren azken aldiko euskal idazleak noski, naikoa mordoillo iruditu ta ikusi zuten aurretikoak idaztako euskera, bai joskeraz eta bai iztegiz. Ortaz, egun aietako euskal idazle ta euskaltzale jatorrak —nola ez?— arnas berriz txertatu, indartu ta apaindu gogo zuten erria lez izkuntza. Euskera sustraiz eraberritu bear ori ezta ba arritzekoa. Gizaseme bipillak ziran, eraginkorrak —Arana-Goiri,

Azkue, Arriandiaga— eta, gaur-egun opa dogunez, ezpiritu berriz jantzi gurata landu zuten euskelea, gure izkera. Azkue bera, ikusi nolako arriskuan murgildu z'zaigun bere dalako gramatika osotu zuenean. Arriandiaga aranatar itsua genduan. Orain ere ez al ditugu olakoak? Ari edo oni itsuan jarraitzen diotenak? Eta, bear bada, neurti zabalagoan jarraitu ere? Beraz, geure jokabidea zuri-tzeko lain errazoi ba'dugu, ez ditzagun iñolaz ere k'pa estuagoz aiek neurtu. (*Euskal Literatura*, IV, 39 orr.).

Margo askotako eritxiak emon dira; ni, oneik geienok irakurri ondoren, Orixe'k esanagaz gelditzen, bai eskolaz eta bai itz barriz. Lenen au diño: «Gure okerra da geure izkuntzaren onerako joera ta eskolak albora ez uztea, ezta idazleak klas kuak izanda ere»; eta bigarren: «Gure Mibisus'ek sorturiko anitz euskal itz dira gaur or dabilzanak, Euzko Gaztediko'ren batek egin leikegun beñenen zenbaketa, baita *Lenengo Egutegi Bizkaitarra*'ren egillearenak ere. Egiten danetik, zerbait geratzen; egiten ez danetik, ezer ez. Entzuna dudanez, gure gizaldiak geienen erabilitako eskuiztegi ta ia gure gizaldiak erabilitako bakarrak, Aita Arriandiaga'k asmatu-riko sei milla itz dauzka». Ez bebil, bada, iñor gizaseme azkar au beztu nairik.

*Olerkari*.—Asko ezta be, or-emen sakabanatuak ba-dera Aita Arriandiaga'ren neurtitzak. Abertzale aldizkari ta idaztietan emonak ain zuzen. Lenengo ta bein, gitxik dakiana, eleizetan Gure Jauna agirian dagola abesten dan au, «Abestu daiogu Maitasunari» deritxona, elantxobetarrak egiña dozu, «Ereserkijak» liburuan datorrena. Baita beste au be, liburu orretakoen artean daukaguna:

Abestu, euzkotarrak bai,	Aberrija dogu
abestu gogoz,	Ama laztana,
Aberrijaren opaz	semiak gauz-eta
oiu ta zantzo.	zintzo abestu Amari.

Emen dozu Dabid'en salmuetatik IV'garrena, gau-otoitza:

Goiko Jaunari dei ein leutsadan,	Erruki akit, ene goiko Jaun,
eta entzun daust adikor;	erruki akit, Jaun maite:
estu ta larri nengualarik,	nire otoi au entzukek, arren,
atera ein nau maitekor.	adi, goiko Jaun, ta bete.

Gixa-emiok, noxarte orren  
biotz-gogorrek ixango?  
Zer-ta guzurra maiteko dozu?  
Zer-ta guzurra billauko?

Jakin, ba, orok bere donia  
gaizkatu daula Jaunguak:  
eta dei eingo dautsadanian  
dantzuskedala Goikuak.

Asarre-sumin iñoiz ba'zara  
ez egin, baña, obenik:  
ta goguaren damukizunak  
gelan negar ein garbairik.

Eskañi eskain zuzen garbija,  
lagijaz arauz dakena:  
ta itxaron beti goiko Jaunagaz,  
bai dau sarizten zuzena.

Askok eta askok erausten dabe,  
nok geuri ona emongo?  
Eure argija, euren abintzak  
josi daustazak, Jaun-goiko.

Ta neu-bijotz au pozez bete dok,  
eure abintzaz ustetsu.  
Ardauaz areik, gari, gaimelaz,  
dagoz aberats, alaitsu.

Baña gentzaz nik lo egingo dot,  
atsedengo naz ni gentzaz:  
eskijer, bada, nik bai litxarot  
goiko Jaunaren abintzaz.

Margo illunezko leizaz dabil ez gitxitan gure arimea, Jainkoaren billa. Izan be, goiko Jaunak poztu ta naigabetu oi dau kezka-ore bestelakoz. Dabid erregeak zerbait ba-ekian ortaz. Eta ez ete aren eresiak euskeratu ebezanak?

## PAUL ZAMARRIPA

(1877 - 1950)

Eginkizun bikaiña da, bene-benetan, euren bizitzan audi izan ziran gizasemeak aitatu ta gorestea.

Naiz-ta guk oraintsu arte ixil-samar eukia izan, olakoxea genduan Zamarripa, Txorierriko seme langille argia, ainbat euskal liburu bitxi idatzi ta argitara emon euskuzana.

Esanak esan, euskal arloan lan egin eben, eta egiten daben, guztiak merzi dabe —ez ukatu— gomutagarri berezi-berezi bat. Bestelan, esker txarreko gintzatekez.

Laredo'n jaio zan arren, beronen gurasoak sondikarrak ziralako, ona aldatu ziran Paul umetxo zala. Emen egin zituan bere lenengo ikasketak be, eta gero Durango'n. Geroago, eliz-gizon izan nai-ta, Gasteiz'ko Apaiztegia csotu ebazan Jakintza, Teologia ta gaiflerako ikasiak. 1907'garreneko garizuman mezakotu zan. Lenengo arimazaintza, barriz, 1907'tik asita Bermeo ondoko Al-mike auzotegian egin eban; gero Otxaran, Gatika, Bermeo ta Sondika'n. Emen Sondika'n il zan 1950-8-17'an.

Arimazai'n arduratsua izan zan beti; errian, ostera, edozeiñi laguntzeko beti gertu egoana. Artzain ona bene-benetan. Ortan lan egiteko ba-eban aparteko eskerra be; g'zasame betillun eta tristeak ez dira iñoi'z be konfiantza itxartzen dabenak; bai, ostera, poza ta alaitasuna ere ten dauskuenak. Olakoxea zan Zamarripa, alai'a ta umore onekoa.

Umore onekoa. Berberak diño argiro: «Barreka jaiotetik yator dala uste dot onako barre egiteko daukoda berezko erretzasun zorioneko au». Geroago, bere *Kili-kili* liburuaren itzaurrean be bardin diñosku; Bermeo'n egoala, ba, itxas-ertzeko umore oneko onegandik be zer bait ikasi eban. «Barre egiteko erretzasun au —diño— berezkoa daldala, ta arraiñak urtan ibiltea lez bear daula nire gogo barrekor onek, beronen senean egoteko, barre artean ibiltea, emen, Bermeo izeneko beste arrain-erri maitegarri onetan, ikasi dot».

Mikel Zarate txorierritarak, aren lanak aitatzean, zer oni buruz au diño: «Aren lanak ez dira mamintsuak. Gai aldetik eta umore aldetik be urri samarrak. Eta euskera aldetik? Onetan dogu maisu goragarria».

Zenbait buru ainbat aburu, esan bear emen be.

Egia esan: euskeran maisu ba'dogu, bera arimazain egon zan errietako euskal esacra giar filosofiz jantziak batu ta osotu zituan liburuetan darabiltzalako dogu batez be.

Gai onetaz mugaz bestaldekoak be, au da, iparraldeko euskal idazleak, naikoa ondo konturatu ziran. 1927'an, Zamarripa'k olerki liburu bat argitaldu eban; 36 poesi goi-usaifeko, ia geienak gaztetan egiñak eta sarituak.

Lafitte jaunak, liburua aztertu ondoren, on-la idatzi eban *Gure Herria'n*: «Olerki edo pertsuak ez dira segur nola nahikoak... Halere aitortuko dugu gehiago ditugula Zamarriparen irri-solasak: aise, ez ote aise, heldu zitzaizkon pertsuak, elhea zario'a; Oxobi edo Orixen tinkirik ez dute, are gutiago Iratzeder edo Jauregi-ren hegalik... Ba'nan erakusten dute zorbateino zen herri-zale, eliza-zale eta eskual-zale suhar».

Gazte zala, filosofi gaiak aztertzen asi baiño leen ekin eutsen idazkortz-lanari.

Azkue'k Bilbo'n ateraten eban «Euskalzale» asterokoan agertzen dira aren lanak, 1897'an asita agertu be, izkirimiriak lenengo ta gero gerokoak, ipuiñak eta ziribertsoak. «Artatxori» ez-izena erabili eban len-idazlanok izenpetzean.

«Euskalzale»-n ez-ezik, «Ibaizabal», RIEV, «Jaunjoiko-Zale», «Euskal Esnalea» ta beste aldizkari batzuetan be idatzi eban. Azken urteetan, barriz, 1935'an asita, «La Gaceta del Norte»-k eukan euskal atalean idatzi eban, oso sarritan.

Ugaria izan zan bere lanetan. Ona argitara zituan libururik geienak: 1) *El Bascuence facilitado* (1909); 2) *Manual del Vascofílo* (1913); 3) *Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco* (1913); 4) *Zaparradak eta* (1926); 5) *Gora begira* (1927); 6) *Kristauaren Dotrinea* (1926); 7) *Conjugaciones guipuzcoanas* (1929); 8) *Anayak gara* (1929); 9) *Kili-kili* (1930); 10) *Firi-firi* (1935).

Emen daukagu Zamarripa'ren euskal lana. Ixilla ta egazkada lar aundirik bagakoa bear bada. Lan txiki, erre'z eta errikoiak beti daben grazi ta edertasunez jantzia. Berak bein eta barriz adierazten dauanez, euskal kezka bizi izan yakun sondikarra.

Bai ilgo ez ilgo ikusten eban euskera, biotz-biotzez maite eban izkuntza, eta eliz-ardurak izten eutsosan astiune guztietan, barruak eska bezela, ortan jarduna dogu, euskera ikasi, idatzi ta erakusten. Ez dogu eredu txarra!

Zamarripa'ri buruz iñor txarto esaka ibilli yakunik ez'n geinke aitortu. Onen idatziak geienik txaloka artuak izan dira, bai leen bai orain. Mikel Zarate'k iñoi'z bota eban arren Zamarripa'ren irri-barreak ez ebela piperrin esakorik, euskerari begira onan idatzi

euskun: «Zamarripa'k darabillen euskera jatorra, garbia ta erreza da... Idazle zaarren eta erriaren iturririk edan dau ura. Eta, jakiña, orrexegaitik da ain jatorra bere euskerea. Alkar-izketak, esakerak eta abar ondo josten ditu. Zenbat aberastasun euskera aldetik!».

Karmelo Etxenagusia'k, onela: «Euskaltzale sutsua ta langillea. Euskera jator-jatorra dau, Bizkai'ko Txorierrri aldekoaren ispillu garbia; ganera, argia, bizia, edozeñek ulertzekoa». Eta Aita Villasantek: «Zamarripa'ren euskera beti duzu jatorra ta konfiantza osokoa, errian eta idazle zaarretan oiñarritua».

Arrokeriagaitik euskaldun askok egiten dau erdera. Ba doa baseritik ume bat Bilbo edo beste uri andi batera... Erderea ikasirik etxera biurtuten ba'da, erakutsi gura dau, bere lagunen artean, urian arturiko *jakituria*, ta or joatzu mutilla erdera *zara zara* alderdi danetatik egiten dabela...

Beste euskaldun batzuk egin gura dabe erdera, jakedun edo txaketa-dun gutxi euskeraz ikusten dabelako. Uste dabe, onek darabillen berbetea eurok aboan erabili ezkeru, ba dirala eurak beste, ta or joatzuz erdera-azia leku danetatik eraiten, or jausi ta emen etzun ibilliko ba'dira bere.

Lotseagaitik euskera ez dabela egiten esaten dabenak bere ba dagoz. Eta onen artean jakedunak asko, geienak. Ba dagoz ogei gizon jatordu edo batzar baten, eurotan emeretzi euskaldunak izango dira, ta, ori tamalgarria!, batak euskerarik ez dakielako, erderaz jarduten dabe. Itandu ezkeru ia zergaitik egiten daben erdera... esango dautzue aziera onak edo edukaziñoak alan aginduten dabela, batek ez dakianean besteak dakien berbeteariko bat eta beste bat dakienean.

Baiña, ez aziera onak ez amandrek galerazoten dau euskera egiten. Emeretzi gizon egongo dira euren erriko izketan jardun barik, beste batek ez dakielako! Nork aginduta? Frantsesak zer egiten dabe, erdera jakin arren bere, Espanian bertan izanagaitik bere espaniatar bat alboan eurokaz eukiagaitik gora bera? A erdalzaleak, zuon errazoe danak akiakulluak edo atxakiak dira!».

Bertsoz be ez eban gitxi idatzi gure idazleak. Eder yakon, gazetetan batez be, musai dei gitea ta arein kutuntasunean bizi izatea. Gasteiz'en ikasle zala asita, sari ederrak be jaso zituan.

Esate baterako, 1903'an Donapaleu'n; 1904'an Ordizia'n eta Ustaritz'en; 1905'an Bergara'n eta Baigorri'n; 1906'an Donostia'n eta abar.

«Ibaizabal» asterokoan agertzen dira aren poesiak. Liburuetatik «Gora begira», 114 orrialdeko bilduma, koplaz egiña da oso osorik, eta «Kili-kili»-n be agertzen dira batzuk.

Aitatu dogunez, P. Lafitte'k ez eukazan txartzat onen bertsoak, eta Donosti'ko osagille jakintsu ta euskaltzaiñak, ots, Aingeru Iri-garai'k be, onela d'ño: «Zamarripa'ren olerkiak danak dituzu onak». Eta eurok banaka aztertuz, au egozten dausku: «*Aupa laz-tantzu!*», titulukoak, berezi, euskereak izkelgi guztietan dauzkan aur-iztegi aberats-aberatsaren zati eder bat ematen d'gu» (RIEV, 1928, 167 orr.).

Erakusburu legez, ona au, 1903'garrenako martian, XIII'garren Leon Aita Santua kate artean ikusten ebalako, osotu ebana.

Oraindik be kateak  
Erroma orretan Leo gidaria  
Ioturik dauke? Katetxeko ateak  
ez dira irigi? Au negargarria!  
Geiago bere txarrak  
entzungo dabez onaren negarrak?

Bebil Askatasuna  
lurraren alde batetik bestera...  
ta ezta bein joan oraindak zugana?  
onan kaltezko kateok austera?  
Zelan da ain ez-bardiña  
askatasunak eiñiko alegiña?

Ai!, baiña zer diñot nik,  
askatasunak bazaukez katigu,  
bazaukez berak lokarriz jantzirik?  
Tamalez bai dakigu  
seme gazte ta zarrak  
nondik datoza kateon indarrak.

Ori da askatasuna  
katega katez lotuten dabena  
ta Aita katigu, ai!, ipinten dauskuna.  
Askatasuna da beran izena!  
izen ona benetan...  
ai!, balitz ona bere egikeretan!

Txarrantzat da ondasuna,  
onantzat beti dakaz, ai!, negarrak;  
deunga danantzat guztia da biguna,  
onan kaltean dire bere indarrak.  
Ori da askatasuna,  
ojuka or ta emen entzuten doguna.

Beioa guzurrezko  
askatasuna lurbira onetatik...  
Eztot begirik, ez, bera ikusteko...  
Nire begiak nai dabe bertatik  
Leon Andia ikusi,  
Katerik barik Errona'n nagusi.

### KEPA ENBEITA (1878 - 1942)

Aren bertsoak etziran erriz erri bertsoan ibilliaz, entzuleen be-larriak pitin bat gozatu ta geto aize-egoz sakabanatuak bakarrik; luma zorrotz eta azkar, paperean ezarri euskuzan bere barne-taupada ta gogai-galda bizienak. Bertsoak or ditugu gaur be «Ibaizabal», «Aberri», «Euzkadi», «Euzkera», «Karmen'go Argia» ta antzeko aldizkarietan; edo-ta nik, 1971'an osoturiko, aren bertso bilduma «Gure Urretxindorra» deritxonean (Buenos Aires, 1971). Irureun eta ogeta amazortzi bat poesi dira, luze ta labur, bertan datozanak; oindifio be, bear bada, ba-dira or-emen beste batzuk, olerkari oso oparotsu izanik nainungo aldizkarietan idazten euskun eta.

Iñor mintzeko grifia barik, Kepa Enbeita dogu, nire eritxiz beintzat, orainarteko bertsoarietan ugari, jator eta abertzaleena. Aitaturiko txorta osotzean, bost sailletan banandu nituan aren lan guztiak: 1) *Aberkoiak*; 2) *Uzkurtzakuak*; 3) *Gorapenezkuak*; 4) *Ipuin eta abar*; eta 5) *Gomutakizunak*.

Aberkoiak 78 dituzu, ederrak, edozein izkuntzek sail orretan dituan onenakaz kide-tu naiz bardifnean jarteko lakoak. Begiko yako-zan, antza, mueta ontakoak eta ardura aundiz, mamiñez sakon eta azalez eder, ondu zituan: ernemin dan soloak, loratzea ekarten. Suaren gar bizia dario olerkari abertzaleari. Eder-atnasaz gaiñezka, zazpi batez be aukeratu geinkez: «Il zan Aberrija biztuteko», «Itxas-ertzian», «Dollorkeriak... itx», «Abesti abertzalia», «Ai ze ederra», «Aberrijaren ziñopa», «Beste ames bat».

Aberkoi onein artean datoz gure izkuntza maite, «Euskerari» nunbait, opatu eutsozanak be. Amar bat dituzu guztiz. Bere bertsoetan, euskaldunon zer guztiak jaso ta goratu nai izan zituan: gure itxaso, ibar ta mendiak; gure abere, txori, zugatz eta arkaitzak; gure eleiztar, jakitun, kirolzale, itxastar eta gaiñerako giza-seme gurenak. Dan-danau, jakiña, alegi, irudikizun, ipuin eta antzeko olerki-lan bizi gartsutan. Ederraren sena leun ekarren barnean eta erle antzo ba-ekian nun aurkitu eztingai oparotsua, Euskal lurra, ain zuzen, beronen osotasun aundian, eder aukerakoa eban ortarako. Eta eredutasun bikaiña eskuratu euskun.

Euskaldunok iru guda lotsagarri izan ditugu ia eun urte barruan, Azkenengoa (1936) sortu baiño pizkat lentxoago, Enbeita'k idazten eban: Asaba zarren lorratzai jarraituki, Sabin aundiak irakatsiriko Jel-bidez ziar, ba-guaz geu be, aurrera ta aurrera, gurendarik gurenda». Era askotarikoak ziran gurenda oneik, berein arlotan irabazitakoak. Azken istillu aurretxoan, izan be, Erkal-egunetan, ba-genduan bizi-gurea, ots, geure gauzak aurrera eroan naia, Lendik etorri: n aziak lora ugaria ekarri ta laborez gaiñezka geunkan. Aberria, ez geto itz utsez bakarrik, bere doai, balio, gaitasun eta eskualdi azkar guztiekaz, bene-benetan maite ebanik ezin ukatu.

Eta onen doairik baliotsuena lez jo oi eban bere izkuntza, euskera; erriaren izkera, izan be, beronen gogo, arnasa ta muiña dozu. Guk geure lur gaiñean euskaldun gizona daukagu, euskeraz mintzo dana, soin eta ezpirituz loratua. Gizon orrek, au da, eus-

kaldunak euskaldunari, bere biozkada, gogai, pentsamentu, eritxi poz eta kezkek, euskeraz adierazo oi dautsaz. Euskera da, beraz, euskaldunontzat guk dugon doirik bikaiñena.

Au ba-ekian Enbeita'k. Eta auxe goratu euskun bertso gartsuetan. Erdel zaleak, naiz etxeko naiz kanpoko, sarri ikusi oi zituan euskera zapaldu ta il-azo nairik. Baiña erabagia eukan, beste m'illaka ta millakak lez, berau zaindu ta al giñoan beroni eutsi ta laguntzea, 1916'garrenean zan; eusko gaztedia ekusan garai artan asmo ori artu ta aurrera eroan gura. Zortziko beroetan, onela goritu ta sustatzen d' tu gazteok, erabagi orri gogor eutsi bear yakola aitzen emonik:

«Aupa! euzkotar orok itxartu!  
Didar ein, gora jagita.  
Nor da jauntxoboi, gure ele maite  
Oni eiteko arrika?  
Alperrik dabiltz euzkera ilteko  
Ordez erdera jarrita.  
Ori laketu baño... lenau il,  
Daugoku erabagita».

Euskereari eusten erakutsi erorian kemenagaitik, Bizkai'ko eusko gaztedia, leial ta zintzoa, goratzen dau. Onela diño:

«Euzko gastedi gurgarri ori,  
Jagiko zara osuan;  
Geu be zeuekaz bat-ingo gara  
Uri, txaide naiz basuan,  
D'idar eiteko, *Gora Euzkera!*  
Geure amaren besuan  
Ikasi gendun ele kutun au  
Bego yagokon lekuan».

Bertatik irudikizun dizditsu batek dau aren burua arrotzen. Aberria dakus billosik, jantzi bage, il agiñean; arnas-indartzen dauan gogo barik, gorputza zer ete? Bertsolariak kanta:

«Beingo batian usteltzen dan lez  
Gogo bagako gorputza,  
Euzkadi bardin ilgo litzake,  
Euskera ilgo ba'litza.

Atzerritarrok bakiye ondo  
Nun dagon gaitz orren giltza;  
Baña eztabe au jaritxiko,  
Alper-alperrik dabilta».

Zer egin bear ete euskaldunak, bere izkuntza zaintzeko? Euskeraz itz-egin, obeto ikasi, nun-nai euskal usaiñaren gozotasuna edatu ta zabalazi. Alkarregazko artu-emon eta gaiñerako zer guztiak, euskeraz burutu. Or daukagu giltza, ortxe etsaiak uxatzeko izkillurik onena. Kantari darrai Enbeita'k, zeregifiok aitatuz:

«Jayoten diran ume gustiai  
Ezari euzkel-izenak;  
Dakigun orok itz-egin euskeraz,  
Ikasi eztakijenak,  
Artu-emonak, idazki ta abar  
Euskeraz erabil danak.  
Orra etsayok uxatuteko  
Diran izkiluik onenak».

Nok galazo guri euskeraz egiten? Gaiñera, bakotzak ez al dau berea yagon bear? Muxikarrak onela:

«Jainkuak diño: «Zeuria zaindu,  
Itxi bestenai bakian».  
Beraz, erdera erabil beye  
berai yagokon tokian.  
Baña... guk ugatz gozue edanaz  
Amaren laztan artian  
Ikasi gendun euzkera be bai,  
Euzko-Aberri maitian».

Arkaitz artetik, orri artean zear, jauzika doan uraren antzera, ezta atertzen au adierazoz; pentsa-indar batek dauko, katez lez lotua, lilluraturik; bakotxari berea emon bear yakola... Euskaldunok geure-geurea dogu euskera, gogo ta arnasa, goi-erdi ta suster.

«Euskereari egin dayogun  
biar dan lako arrera,  
dalako geure zorun guztijen  
etorkixuna berbera,

geure gogua, geure arnasa,  
goi-erdi eta susterra;  
ganera Jauna'k egiña da-ta,  
maite biogu euzkera».

Arrokeria nunbait gauza txarren jatorri; nagikeria, barriz, ustelaren lengusu. Ez gñitezan bizi sen tarte ortan. Ikastolak ugarituz joiazan 1917'an eta Enbeita'k, ikastolok gero ta zabalago ta umetxoz beteago ikusi nairik, ez dau nai olako nagikeri dongarik. Nagia beti iguingarri; Jainkoak ez dau ezelan be alper dana onetsiko. Euskeraren alde, beraz, lanari ekin bear: umetxoai euskeraz egin bear yake, baita erakutsi be; eta ikastolara bialdu. Kepa'k onela:

«Etxian naiz kalia,  
nai-nun ta edonoz,  
Euzkeraren alde  
lan ein biogu gogoz.  
Euzkel-ikastoleak  
umientzat or dagoz;  
bertara bialtzeko  
gu biartuta gagoz».

«Orain zabaldu diran  
ikastetxietara  
zeure seme euzkeldunak  
Euzkeraz ikastera  
bialdu gura ezta  
geratzen ba'zara...  
belarrimotzak baño  
askoz txarrago zara».

Muxikarra etzan naste-zale; aren itzak eta berbak eta agitadak anaikor eta maitasunez gañezkakok ziran beti. Euskaldunok bat-eginda ikusi nai ginduzan: batasunak indarra bait dagi. Pago barkarra errez aizeak erasten, ez ostera moltzoan dagoana. Gu be bardin, moltzo trinkoan, kezka, lei, gurari ta lan-bear bardinek akulatu, biztu ta gogo berotuak opa ginduzan. Onan kantatzen eban 1916'an:

«Maitasunak dau batasuna,  
Batasunak dau indarra;  
Iñozko geyen daukogu, barriz,  
Indar orixen biarra.  
Batu gaizan, ba, guraso danok  
Euzkotar onak ba gara,  
Gure sendijak ikasi dayan  
Geuk gura dogun erara».

Gizonok, baiña, aldakor izan: eguzkia nora, zapia ara. Geure txepelkeria, beraz, astindu ta barnean ereari berea emonik, asmo ta xede on bati aurrera eragin nai izatean, geure gañi dogun goi-indarrari be dei egitea, egoki yaku duarik bage. Kepa zolia zan ortan. Euskera zaindu, ikasi ta erakutsi arloan be yoranez ikusi eroian goi-laguntzaren beroa, azkortasuna. Onela dabet, Euskadi'ko ikastetxeetan euskeraz entzun nairik:

«Ezpata zorrotz ori arturik,  
Deun Mikel agurgarrija,  
Etor akiguz kentzeko emen  
Daukagun erdelkeriija;  
Berai yagokon tokian jarri  
Daigun euskera garbija.  
Bestela, zelan esango dogu  
Au dala Euzkeleriija?».

Onelaxe sendo ta gartsu abestu zituan ainbat bertsoetan gure izkuntzaren balio ta edertasunak; eta guk, eurok zaindu ta jagon bearra daukagu. Esanda itxi dogunez, Enbeita'k bere sorterrria, euskaldun guztiona nunbait, maitasun beroz, barruan eroianez, kantatu ta itxi euskun erriko plazetan eta euskal aldizkarietan.

Ez dakit, irakurle, konturatu zarean ala ez, Enbeita'ren bertsoak, egundo be pot egiteke, zein neurrian eta zein amaieran, garbi ta aratz, maixuki osotu ta biribilduak daukaguz. Gaur askok —errez-zaleak noski— bertsoen neurria ta amai bardina, olerkirkako traba ta oztopo dirala esan oi dabe; irudimenaren aparatotasuna lotuegi egiten dabela, entzuten eta idazten da sarri, Egia ete?

Enbeita'k ez eban uste orrela; ezta munduko poeta nauti asko ta askok be. Verlaine'k iñoiz bere *Art Poétique* liburuan, estrofa oskidetsuetan madarikatu eban azken-amaitze bardina, au da, rima, beronek dakazan beaztopa, soster eta atzeragarriakaitik; baiña gaztetan madarikatu eban orren bitartez bertsoerik b'kaiñenak rima barruan osoturik eskiñi euskuzan. Poeta onak, izan be, amaikidetasunaren biurriak beartu ditu euren poesilaretako eder-sorpen b'kaiñenak egiten. Labur, euren edertasunik garbi ta bizienak ortik sortuak dira.



Gai onek asieran ditun zailtasunak, ekiñaren ekiñez, errez azpiratu oi doguz, eta azkenerako, Verlaine'k eta beste askok lez, autortu daroagu: «Ez yatorku txarto indarketa ori. Gorbea'ra igoteko izerdia bear; baiña ara ezkeru, andik dakusguzan edertasun lilluragarriak itzez eta lumaz azaldu eziñak ditugu: adierazo nai, ta olako zerbaiten geratu oi gara, ezin esanik. Poeta garai guztiak izan dabez koska orreik; Lizardi'k, Orixe'k, Lauaxeta'k... Baiña gero...!

Enbeita'k kantatuz idatzi eban bere bertsorik geienak. Eta, bere aapaldiak lekuko, itz leengoetatik etorkozan neurria ta rima, doiñuaren dardar-gain leun baiña leunago. Idazten asi zanetik era orretan osotu euskuzan bere bertsoak, eder, oskidetsu, ezereen itz indarkeri bage. Ez dakigu clerkariaren barruan zer gertatzen dan; baiña zerbait ulertu eziña, adierazo eziña, gertatzen da buruan eta biotzean irakin bizian daroan zer-edo-zer, luma eskuratuz, papere-ratu nai dauskunean. Amai auzitan, itz bat bota ordukoxe, or dauka beste bat, «ni be bai» esanik, gertu ta prest ze'aira urteteko. Gogora gure bertsolariak.

### IMANOL ENBEITA (1884 - 1946)

Sarrera lez bego aurrenik L. Akesolo'k ZER aldizkarian argitaraturiko «Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea» artikuluan (118-garren zenbakian) diñoana: «Ona euskal-idazle bat, gitxi ezagutua nire ustez, gure idazleen artean zor jakon maillarik autortu ez jakona». Orrelaxe da, izan be, bere bizitza guztian euskal barrutian lan eta lan bizi izana dogun arren, ez dausagu arrezkeroko literatur liburuetan, ez aldizkari ta egunerokoetan, gora aundirik emon izan.

Kepa Enbeita, bertsolari ospetsuaren anaia, Muxika-Areatza'n jaio zan Usparitxa basetxean, 1884-10-24'an. Kepa, Imanol. Jagoba, iru anai ta bertsolari; ezta arritzekoa, enbeitarrak etxean bai euken bertsolari esko'ea, bertsolari eben aita bertsolari naitaez

semeak; eta Imanol'ek be, oraindik gazte zala bota ebazan bereak, Azkue'k eta Kirikiño'k argitaratzen eben «Ibaizabal»-en anaiak txandaka botatako *Bei Zarraren* bertsoak. Garai ontan sei bat olerki eio zituan Imanol'ek, eta gero, ez dakigu zergaitik Ameriketarako bidea artu eban, 1908'an. Amairu-amalau urte igaro ebazan Argentina'ko Ha'e'n; czagun, ad'sk'ide edo senidartekoren batek deituta joan zan ara, ta lenengotik idazkari lanari ekin eutson ofizina baten.

Alan be, ainbat euskaldun erbestera joanak lez, erri-miñez eukan biotza, ta angoari agur egiñik, Muxika'ra biurtu, eta 1921'an, Urkiola'n ezkondu zan Gernika'ko alaba Balentina Barrena'rekin. Urkiola'n zan Kepa be, ta bertso biozkorrak zuzendu eutsozan. Ezkontza zoriontsu ontatik iru seme-alaba jaio ziran: Joseba, Gotzone ta Itziar. Senar-emazte ta seme-alabak, barriz, Kepa'k opa izan eutsen lez, alkar mai'asunean bizi izan ziran, Jainkoa, urkolaguna ta Aberria biotzez maite izanik.

Euskalzale bizi agertzen jakun Imanol, baiña euskal errian etzan giro ona euskerari ekiteko. Entzun ostera be A. Akesolo'ri: «Imanol ezkonbarri zala, luzaro barik ez zan euskerarentzat giro ona jarri Bidasoaz onantzako Euskalerrian. Primo de Rivera militarren indarrez agintari jarri eta beingoan asi zan Gaztela'ko erdereaz osteango izkuntzai eutsen gorrotoa ta gatx-eritxia erakusten. Politika usaiñeko ainbat aldizkarik ixildu bearra izan eben. Egunkarietan galerazota gelditu zan euskeraz idaztea. Esate batarako, Kirikiñok *Euzkadi*-n idazten eban euskal-orria mutu gelditu zan iru urtez, 1925'ko azken aldera arte».

Langille errimeak, baiña, eragozpen artean be lana aurkitzen. Imanol'ek Zornotza'ko *Jaungoiko-Zale'n* aurkitu eban, irarkolan eta aldizkarian, iru urtez, 1927-28 ta 29'an, ementxe lan dagi. Artikuluak idazten ditu ta gazeta-lanak, ta aldizkari onetan datozan lanak, olerkizkoak batez be, *Garbi-nai*'ez izenpetuko deuskuz.

Militar agintariaren eskua bigundu zanean, zapalduen kemenak bizkortzen asi ziran, eta gogotsu lan egiten. Euzkaltzale Bazkuna-koak, adibidez, aldizkari bat sortu eben: *Euzkerea*; 1929'gko urtarilla-15'an kaleratu zan lenengo zenbakia. Bertan agertzen zan

Kepa Enbeita'ren «*Jantzi daigun euzkerea*». Imanol be emen agertuko jaku, baiña urrengo urtean, 1930'an, bere «*Sabin*» itz-lauzko lanarekin, Sabin eta beronen emazteaz zer asko dakaz gogora.

1933'an asi ta gerrararte, *Jaunkoiko-Zale* ta *Euzkerea* itxirik, *Euzkadi*-n euskal orria zuzentzen sartu jaku. Makiña bat lan egiña dogu lau bat urtean eguneroko onetan: gaur baiño gar naikoa getago agiri zan bertan. Entzun ostera be A. Lino'ri: «Emen, *Euzkadi* egunkarian emon eban Imanolek bere euskaltzaletasun sedoaren neurria, emen erakutsi eban bere lanerako gogoa eta kementa. Emen jarraituko dau 1933n asi ta 1936n militarrek sortu euskuen gudate zitaleko egunetara arte». Izen eta izen-ordeok erabilli zituan lanak izenpetzeko: «Imanol», «Enbeita'tar Imanol», «E'tar I.», «Garbi-nai», «Ibon», «Uribitarte'tar Ibon».

Utsik bage etorren, lenengo *Egunerokua* eta azkenengo orrialdean *Gaiak*, tarteka olerkiak be sarturik. Beraz, *Jaungoiko-Zale*'n eta *Euzkerea*'n izan ba'zan, *Euzka-Atal-an* egiña askoz txalogarriagoa dogu. Gazetaritzan gitxi izango dira euskal idazlen artean akaiña idatzi dauanik; 1933'tik 1937'ra *Euzkadi* egunkariko euskal orrian osotu eban lana, bete-betea izan zan.

«Egiazko euskaltzale zan. Gu:asoak etxean ereindako aziak, beti be —idatzi neban nik beñola—, erne ta arnari onak ekarten. Imanol Enbeita'k, zifiez ta miñez, maite zuen amaren altzo epelean ikasitako euskera, ta gogoz eutsi zion oni, naiz erbestean naiz bertarren artean, bere bizitza osoan. Gaztetan bere estudioak Bujedo'n egin zituan arren, etzan ain ikasia ere; baiña ikasi ta idatzi berea atera zion berezko antze-trebetasunari... Etzan erriz erri bertsolari gisan ibilli, bertsolari ona zan arren: etzuen abotsik. Idatzi, ordea, esan dugunez, asko idatzi zigun, bertsotan eta itz askatuan».

Noiz asi zan Imanol biotz-bartu pilpil ekazan bertsoak jaulkitzen? Aitatu dogu gizaldiaren asikeran *Ibaizabal* asterokoak daktarren *Bei Zarren* bertsoak, iru anaien artean txandaka eratuak; amabi estrofatik sei Imanol'enak dira. Geroago, *Jaungoiko-Zale*, *Euzkerea* ta *Euzkadi*-n idatziak ez dira gitxi. Ona bat, zeuk txastatu daizun. Zubigar, giputz olerkaria, 1930'an il zan; ati eskifitakoa da koplak adierazgari au, «Olerkarija be il!»-deritxona.

«Erijotzeak zintzo diardu  
ilkor-axija ereiten,  
bein ilteagaz aitzuta edo  
iñor geratu ezteiten.

Erijotzea jaun arteza da  
Zuzentzak berak egiña;  
lagi bat dauko gustijoentzat:  
danontzat neurri bardiña!

Eta orduba eltzen darian  
aurretik ezer esange,  
lagi bategaz epaituko dau  
bakalduñ jauna ba'da be!

Erijotzeak lorik ez dagi,  
egunez, ta ez gabean;  
etorri barriz, gau-lapurra lez,  
gitxijen uste danean!

Erijotzea bere lanean  
gogaituge ta zur dabil;  
gau eta egun zeregin baten  
aizkoreagaz il eta il!

Oinguan barriz jo erijotza!  
olerkarija, il dozu;  
orok begiko geban «Zubigar»  
danan kutun zan Garbizu!

Olerkarija, euzkotar zurra,  
kistar zintzo ta on-ona  
izan zan-eta, orain an goian,  
Jaunak bemotso zoruna!

Zentzun aundiko koplari da. Egiazko olerkariak inguruan dau gairik naiko. Baita Enbeita'k be, gauza xaloak naiko zituan neurtiz apaiñak urkulatzeko. Gaur, erria goratzen ba'dausku, biar lugiñaren naiz artzainaren bizi-modua.

Arana-Goiri'ren eskolakoa genduan, eta bere euskerea errikoia ta bizia zan beti, naste ta zirkulu bakoa. Eta Akesolo'k azkenik: «Arlo batetik eta bestetik, olerkari lez ta gazetari lez, etorriko al jako berari zor jakon omena emoteko ordua».

### ALEJANDRO BILBAO, «AITA MARURI» (1884 - 1966)

Neure «Milla Euskal O'erki eder» liburuan, onela egin neban nik koplari onen aurkezpena: «Olerkari bikaiña, bulkoz jagi ta biotzondo ezti. Igon-miñez dago beti uso zuri antzera, zeru-azpiz ega luzean egazka. Usain gozoz lurrundu ditu bertsoak joran, kili-kili ta txindar bizi diranak». (65? orrialdean).

Maruri'n, Mungi ondoko erritxuan jaio zan Aita Maruri, 1884'ko epaillaren 25'an. Gaztela'ko kaputxinoetan egin ebazan bere eleiz-ikasketak. Baiña, gero, 1907'an, Bizkaiko kaputxinoen probintzia Naparroa'koekin alkatu zanean, Aita au be probintzi barri ontara etorri zan, 1909'an Iruña'n apaiz sagaratua.

Ondoren ogetakaz urteetan, Ondarribi'ko komentuan bizi izan bertako arima arloetan arazotua. Prantzia'n be egon jakun iñoiz, mixiolari lez ara joanik. Geroago, Iruña'n eta Muskaria'n zenbait urtetan bizi izan'k, kaputxinoetatik urten egin eban. Nagusiakaz eukitako istilluak zirala bide, eta orduan, erderaz, liburuxka bat idatzi eban zenbait nagusiren jokabidea laidotu ta itxusiturik.

Bere gogo urduriari egokion bakea Lemoniz ondoko Armintza itxas-egalean idoro ebala esan gengike; ementxe, ba, beretarren etxean igaro zitun bere zartzaroko urteak. Bertoko arrantzaleen Alkarteko zalarik, diru-kontuak be berak eroanik. Ementxe ezagutu neban nik, Lemonitz'en sermolari nenbilen jai-eguerdi batean: Jose Antonio Oar-Arteta bertako parrokuak eta biok ikusten joan gintzakin. Geroztik, askotan etorri izan jatan ona, Larra'ra, bere barru kezkatia arindu nairik. Bere azken liburu barria, ots, «Txindor Egakak» (Donosti, 1964) alkarregaz osotua da.

Armintza'n bertan il zan 1966'ko uztailaren 22'an.

*Euskal lana.*—Bere izkuntza egoera e zanean ikusirik, eta erriak zer irakurri izan egian, olerkitxoak ariltzen asi zan, gure erria gauza laburren zala zala-ta. Baiona'ko «Gure Herria»-n (1924, IV, 556 orr.) dator beronen lenengo saria atera eban «Elur maluta» deritxon poesia, sei estrofa txikikoa. Urrengo urtean be aldizkari berbertan aundikiro aipatuak izan ziran beronen «Aur Jesusen zapatatxua» ta «Ostiral Deuna». Aren olerki danak 1924'tik 1930'ra bitartean egitiak dira, 40 urtetik gora zituala onduak. Azken urteetan, Armintza'n aurkitzen zala, 1960'an osotu euskuzan beste batzuk «Olerki»-n daukaguz.

Lau liburu dira arek euskeraz argitara emonak, bat itz askatuz eta iru bertotan. Ona:

1) *Biotza abeslari* (Zornoza, 1927), «Jaungoiko-Zale'ren irakolan. 144 orrialdeko liburutxo bi, bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz.

2) *Lili-txingar* (Tolosa, 1928). Bizkaieraz eta gipuzkeraz au be, liburuxka bi, 142 orrialde.

3) *Txomin arlote* (Tolosa, 1929). Itz lauz. Bizkaieraz eta gipuzkeraz, liburutxo bi. Umetsentzako irakur-liburua. Euskaldunen asele zar bat dau oñarri.

4) *Txindor egadak* (Donosti, 1964). 143 orrialde. Iru sai' daukazuz bertan: 1) *Jainkotiak*, amar olerkitxo; 2) *Loretxoak*, amar oncik be, eta 3) *Neskaldia*, ogeta bederatzi lan guztira.

Il aurreko urtean, 1965'an, bigarrenaz argitaldu euskuzan «Biotza Abeslari» ta «Li'i-txingar». «Maruri'tar Erramun» erabilli oi eban geienez lanak izenpetzean. Sariak be etzitun gitxi jaso, eta bat aipagarria 1926'an Naparroa'ko Adiskideak eratutako Elertizko leiaketan.

*Olerki batzuk.*—Beioa emen aurrenik «Elur-maluta», Baiona'n saritu eutsoena.

«Elur-maluta  
Jose Deun lore,  
izen polita  
ezarri dizuna.

Orra oiua  
mutikoena,  
dakustenean  
elur-maluta.

Mutikoena  
ura bai poza,  
elur-maluta  
jauska ikusita.

Ta pii ituna  
txoritxoena,  
dakustenean  
elur txuria.

Eskolarik ez,  
txorik eskura;  
betor ugari  
elur-maluta.

Ludi onetan  
au da legia:  
batzuen poza,  
besteen ituna.

Mauritarraren geienak olakoxeak ditugu, labor, arin filosofiz beteak.

«Ostiral Deuna» deritxonak, barriz, zortzi aapaldi daukaz; baiña beioa emen bere arnasa ta txukuntasuna ditu-ta.

«Suzko sugeak, zaurituta, osasun billa  
burnizko sugeari begiratzera  
joranez etortzen ziradenak bezela,  
nator ni, Jauna, Kalbario mendira.

Barren guzia obenez zauritu derala  
natorkizu, Jauna, zure gurutz ofera;  
ta zu obenen zorra ordaintzegatik zaude,  
lapur biren erdian gurutzean josia.

Gañetik eta barrendik zeatz zauritua,  
Jaungoiko izanarren, gizon-itxura galdua.  
Nun da, Jauna, zure begietako diztia,  
eguzkia baño ederrago ba'zera?

Buruan arantza-koroia dukazu, Jauna,  
zure margo ederrak, beltz-ori itzuliak;  
begiak sakon eta illun, sudurra zorroztua,  
esku-oñak iltze gogorrez josiak.

Bularra aunditua, Biotza zulatua,  
lau aldetik Jauna dana da errukia.  
Baña bertan obendari itxutuen aldetik  
agertzen dana, guztia da amorrua.

Zu orrela ikusita, Jauna, eguzkia  
dago illundua, lurra dabil dardaka.  
Eriotza otsairik gogorrena, bigunduta,  
espetxetuta dauzkanak dabil azkeka.

Ta nerekin zer izango da, Jauna, ni ba naiz  
zure nekaldi eriotzaren borrarua?  
Zure eriotzaren errukiaren errukiz  
nai det ikusi nere biotza urtua.

Ta uste osoan, obenen garbai aundiaz  
nitzaz oroi dizut, Jauna, lapur onakin:  
«Gaur bertan izango zera an goian nerekin».  
Berak lez en'zun d'zadan poz aundiakin».

Gisa onetakoak dira beste guztiak be, guri goriak.

## JUAN ABANDO URREXOLA (1885 - 1945)

Bilbo'k sortu izan dauz gizaseme argi ta erneak. Politikan naiz  
letretan. Eta abertzale erpiñekoak, euren lurra, oitura, lege ta iz-  
kuntza gogotsu maite izan dabenak. Orreñ artekoa dozu Abando  
jauna be.

Bizkaiko uriburuan ludiratu zan, 1885'ko otsaillaren 8'an.  
Ementxe emon eban gañera, sendikoak lendik ekarren lan-bizi-  
moduari lotuta, bere bizitza osoa. Joera ta ekandu oneko agertu  
izan zan beti etxean eta kanpoan bere lan-artu-emonetan. Ementxe  
il zan, azkenik, 1945'ko maiatzaren 5'an.

Nik onela idatzi neban beiñola: «Arima eder bat zuen, eta  
barru jator ori ustutzen alegindu zar bere euskal idatzietan. Naikoa  
idatzi zuen, «Euzkadi»-n batez ere, 1930'tik 1936'ra bitartean.  
Eder zitzaizkion olerki arin laburrak, biotzez eta jakituriz oretuak.  
Onelako mordoak dauzka bolara artan Bilbao'ko eguneroko apai-  
ñean argitaratuta. Itz-lauz ere orobat egiña duzu. Merezi luke,  
beraz, aren lanakin bilduma eder bat osatu ta argitara ematea».  
(*Euskal Literatura*, IV, 76 orr.).

Bere gurasoak, aita Arrieta'koa ta ama Zamudio'koa, euskal-  
dunak ziran. Lenengo ikasketak Bilbo'n eta Zamudio'n egin zi-  
tuan; geroago merkantil maisutza ikasi eban, eta ikasi oneik amaitu  
ondoren, bere aitak Pasaiko (Gipuzkoa) burdin-ola batera bialdu  
eban burdiñea urtzen ikasi egian. An moldekaritza bakarrik ez  
euskun ikasi, baita bertsoz zaletu be. Atsegin jakozan an ingu-  
ruetako bertsolariak (Txirrita eta besteak); batzar-leku ta sagar-  
dotegetan orrelan jarduten ebenak. Orduan agertua numbait lendik  
etnemin eukan euskal bertso ta koplatarako grifia bizia.

Ospe audikoa zan Bilbo'n. Primo Riberak, 1928'an, diktadura  
jarri aurretik, Bilbo'ko Udaletxeko zifnegotzi abertzalea izan zan,  
baita geroago be 1931-1936 bitartean. Olerki-mordoa idatzi eban  
garai onetan. Lauaxeta olerkari bikaiñaren adiskide mifia izan  
zan, onek bizkortuta erderaz ta euskeraz, ainbat idatzirik. Erde-  
razkoak «Egaz» izen-ordez emon oi ebazan eta euskerazkoak «Erle-  
txue»-z. Bilbo'ko «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n eta kirol-gaiak «Ex-  
celsior»-en datoz.

Kirol-zale amorratua zan, izan be, Abando. Berak eratu be egin ebazan garai atan entzute zabala lortu eben txori abeslarien konkurtsoak, Egazti txiki orreïn abesti-zale, kanturik ezagutzen zituan zein txori zan edozein zugatz-adar puntan kantari egoana. Arima gozo, samur ta eztiaren ezaugarri dozu, dudarik bage, goizero naiz arrats-beran txori txirularien jardenez barrua dardaratu oi dauanarena.

Eder zituan era guztietako kirolak, goitiq asi ta beeraiñoak, ziba, dantzari, turrungilla ta tronpo ta abar. Orrek biztu ta indarazteko erakundeak sortzen alegindu jakun; Bilbo'ko Kirol Klub Barria, berak ibillian jarria da.

Ederrez jantzia dago izadia. Edozein, baiña, ez da gai eder ori jasoteko. Ederraren susmoa bai ba-dogu; ez dakigu alan be bera urgatzen, Gurutzeko Jon deunak edo J. R. Jimenez'ek legez. Ez dozu zailla, itz-lauz jardunik be, lirikazko koplaxoren batzuk, noiztik noizera, alai-sakon ta eder kantatzea.

Erletxue'k onan egin ebanik ezin ukatu. Ona 1931'ko azaroan «Euzkadi»-n argitara emoniko «Erri eiztari'ai» deritxon lanaren amaieran damoskun zortziko txikia:

Ai, erbi kazeru!  
Oi dok umoria!  
Mendiko erbija baño,  
sukaldekua dok obia.  
Nere emazte maitiak  
sarritan esaten daustena:  
A, zelako lo-aldia...  
gaur galdu dozuna!

Emen bada irudimena ara ta ona doana! Euskaldun jatorraren bertsorako buru-indarra, izan be, artega ta urduri tximeleta lez da-bilkiguna dozu. Or bertsolariak emendik ara kontuan jausi bage zapart egiten. Or dogu erbitan dabillen eiztaria; pozik doakigu txara ta oiana zear. Iñoizka erasten dau zerbait, baiña beste askotan uts, ez dau ezer eizatzen. Eta olerkariari sukaldea jatorko buru-muñera, ta emazteak sarri zentzun aundiz begietara emon oi dautsona. Bai, zerbait ekarriko ebalakoan, goizetik ibilliagaitik loa galdu besterik ez dau egin.

Poesiak, onak izateko ta antolojietan illezkortu, beitez laburak. Gerkar eta latindarren lan pitin ariñak, egalari dabiltz gaur bere; luzeak, ostera, iñok ez ditu irakurten. Abando'k ba-ekian olakoak osotzen. Ona modu ortako bat, «Otz gaiztua» diñotsona.

«Zuaz itsas aldera,  
otz gaizto, begi baltza!  
Lorai itxi eiezu  
jantzi daïen baratza!

Lotan dagoz zelatan  
eder diran liliak;  
txori barik dakustaz  
zugatz ganeko orriak.

Urrezko goiz argia  
ikusi gura dogu;  
mendi eta latziñak  
bediz udabarriztu!

Eguzkia bai dabil,  
baiña odeiak nagosi.  
Otz, laga egistak  
dakustan oztin ori!

Geure gogo minduak  
udabarri zain dagoz.  
Olako ordu baltzakaz,  
otz ori, nora zatoz?

Zuaz itxas aldera,  
otz gaizto, begi baltza!  
Lorai itxi eiezu  
jantzi daïen baratza!

Olerki mota ugari dagoz, diñostazu; ez, nik ez dautzut ukatuko. Bakotxak dau gaiñera bere irudimen indarra, bere ao-xuria Gerkar Anakreonte'k eta latindarren artean ia danak laburrak daukaz Orati'k, ez ostera Obidi'k. Eta lenengo bi orreïnak errez-errez eta edonok irakurten ditu, eta irugarrenarenak ba leiteke ainbestek irakurriak ez izatea.

Erletxue'k eiotako au oso txairoa dozu. Gozo-samurra maminez eta liraiña jantzi dautson solñekoz. Itxas aldean batez be bizi da aizea, begi baltz dana. Olerkariak barriz lilitegi ponpox eskertsua dauka bere egoitza ondoan. Aizea, itxas bazterreko arri urdin ta zugazño arteak itxi ta, bekaitzez urturik, lili artean sartu jako.

Negua dok ire aro, egik orduan kurrinka... Baiña ba-dator udabarria; lorak asi d'ra ernemintzen, bego urrin maitasun otza, bai bego urrin ire begi baltza! Zelatan dagoz lorak noiz itxartuko, zugatz gaiñeko orri jaio-barriak be txoriz noiz beteko! Bai, lora, txori ta gizaki, urrezko goiz argia nai dogu ikusi... Laster udabarriztuko dira mendiak eta latziñak.

Gora begira naiagok. Eguzkia, aizta negu, ibilli dabil goiak zear; baiña oraindik odeiak eta lainoak, ezin etsiz, eguzkia esaltzen. Eta i be bai, otz gaizto! Itxi egidak oztifia ikusten. Ez, ez adi gaiztoa izan!

Burruka onek samifietan ipifii dau olerkaria. Landa, zelai, mendi ta muiñoak udabarri zain dagozan legez, olerkariaren gogo minduak be udabarriaren gozotasuna opa dau. Otz gaiztoa, alan be, ordu baltz orreitan olerkariari gogait-eragitera...

Ez, otz gaizto, begi baltz! Laga eistak baketan. Edo-ta erakar nagik samurtasunez, ito-itoka mendira igokeran lez. Baiña obe, oa itxas aldera. Nire gela azpiko kurloiak, arrats-berako lainoak moltzo egiten, txio-txioka, garraxika doaz errecondoko kañabera artera. Oa i be itxas ertzera, intziri egik ango aitz-artean...

Erletxue'k ba-daukaz luzeago batzuk be. Nire «Milla euskal olerki eder»-n dator bat. Luze samarra, «Kanpion Maitiari» deritxona, ta 43 bertso lerro daukazana. Irunan irunan lez doaz estrofak, sendo ta errime egifiak. Onela diño asieran ta amaieran:

«Naparroa'ko urretxindorrek legetxe  
—maitasun mifnez gauan izarrai kantari—  
guraan bardin egon zara abeslari!».

Diñoenez, erri sendo zindoak izaten dira sentipenak adierazten samur eta gozoenak. Orreitako bat dogu Erletxue.

### ZEFERIN XEMEIN LANBARRI (1885 - 1965)

Bilbo'n ja'io, bizi ta il zan. Euskaldun barria, ez ekian euskera errez eta ederto idazteko moduan ikasiz. Berak diñoan lez, leizebiderantza «bilin-boloka» joian izkuntzaz jabetu zan, abertzaletasunari eskerrak. «Abertzaletasunak erasota, euzkotarra Euzkerea maitatzen asi ziran». Eta maitale orreïn arteko bat genduan Xemein.

Literatura arloan ez eban lan gitxi osotu, «Euzkadi», «Aberri», «Euzkerea», «Bizka'tarra», «Euzko Deya», «Euzko-Gogoa» ta ola-koetan aspertu barik idatziaz. Izen ordezeko oneik erabilten zituan: «Jadarka», «Amandarro», «Jemein'dar Keperin», «El Bachiller de Belanbia»...

Euskera aldeko bazkunik geienetan sartuta egoan. Bilbotar euskaltzale sutsu batzuei esker, euskal zelaiko ainbat aurrerakuntzari berarizko indar-arnasa ezarri eutsen. «Euskaltzale Bazkuna» sortu zanean, an zan Xemein be eragille bizi lez.

Euskeraz eta erderaz erabili euskun bere luma zorrotza. Ona beronen lanetatik batzuk:

1) *Olerkari bijak* (Bilbo, 1915). Antzerkia, «Euzkeltzale Bazkuna»-k eraturiko batzaldi baten saritua. Bere emazte, gero aita-tuko dogun Errazti'tar Karmele'k lagunduta osotu eban.

2) *Las bellezas del Aralar* (Bilbo, 1933). Maite eban Aralar, mendi garaia, arkaitz, ipuin, elezar, baseliza ta abarrekin. Deun Mikel daukagu bertan, euzkotarron zaindari. «Euzkerea» aldizkarian datoz mendi eder oni buruzko lanak.

3) *Biografía de Arana Goiri'tar Sabin e Historia gráfica del Nacionalismo* (Bilbo, 1935).

4) *Inquietudes euskadianas* (Baiona, 1945).

5) *La visión pensativa y atormentada de Arana Goiri* (Baiona, 1945).

6) *Indice de las obras completas de Arana Goiri'tar Sabin* (Pabe, 1945).

Euskal idazlari punterengoa ez ba dogu be, txalotua izan genduan bere idazkera. Ona Orixe'k idatzi eutsona: «Zu ederkari zera euskeraz, amaika alperri ikasbide ona emanez. Eta euskaldunberri izana. Olakoen artean —koiperi gabe— ez dakit ifiortxo ote dan zuk bezain ongi euskera ikasi dunik. Gogoan dut oraino, Kirikiño-saria irabaztear egon ziñala. Ez naiz oroi zer urtetan». (*Euzko-Gogoa*, 1951).

*Olerki-zale*.—Xemein'ek ez dot uste olerkirik ondu ebanik. Eder-zale zan, orraitifio, eta euskal olerkiak maite zituanik be ezin

daikegu uka. Emen ikasbide ederra ori sendotzeko. J. Zaitegi ederzale amorratua genduan, eta bere aldizkari «Euzko-Gogoa», an Guatemala'n, ateraten asi zanean, lenengo zenbakian onako lanak emon euskuzan bere barruko lera biziari jarraituz: «Aitzil'en Gizardia», «Lizardi'tar Xabier», «Barrensoero», «Zubiaurre Anaia», «Loramendi», «Euzko-Langilliei»; eta bigarrenean: «Euskal-Olerki Bikañenak», eta onein artean: Lizardi'ren «Arrats Gorri», Urkiaga'tar Estepan (Lauaxeta'ren) «Maitale Kutuna», Orixe'ren Yainkoagan bat»...

Gero, 5-6'garren zenbakian, Jemein'dar Keperin'en au dator: «Ederto eritxi dautsat zuk argitaldutako «Euskal-Olerki Bikañenak» atalari. Nik 300 olerki baño geyago batuta daukadaz, baño ez idaztjetan argitaldubak ixan d'ranak, idaztjetan barik izparringjetan eta aldizkarijetan, pillatu barik, agertu ziranak. Eurekin iru idazti egin dodaz (argitaldu bakuak, jakiña). Batz orreri «Euzkel-Pizkundia'ren olerkiririk onenak» deritxot eta idazpuru berorrekin lau olerki bida'tzen dautzudaz, zure aldizkigijan argitaltzeko, atsegin ba'yatzuz eta biarra ba'dozu».

Emen bialdu eutsozan laurak, onetxek ziran: Sabin Arana-Goiri'ren «Gabona», Eleizalde'tar Koldobika'ren «Izkillu-Deya», Arriandiaga'tar Imanol, M. B. S.'ren *Mois'en abestia* eta Zaitegi'tar Jokin'en «Tori nere edontzia». Au gaineratzen eutson: «Geyagorik gura ba-dozu, bidalduko dautzudaz, idaztjetan eztagozanak, eta gitxi ezagunak diranak».

Bilbotar euskal idazle onen bertso-grinaz konturatu zaitez, ederto datorkizu zenbaki onetan bertan, Pau'tik idazten dauana. Euskerearen pizkunde aro aurretik, euskera ta euskal gauzak zelan aurkitzen ziran azaldu ondoren, bertsolari ta olerkarietaz onela diño: «Olerkari edo bertsolarijak ordurarte gauza barregarrietaz bakarrik abestuten eben. Ordut'k aurrerantz an olerkarijak gauza sakonagoetaz abestuten asi ziran. Orregaitik, Enbeita lako olerkarijak ezan antziñeko aldijetan ixan. Arek gai txikerrak eta txaxarrak erabiltzen ebezan: basotxia, sagardotegija, itrikerija ta ixeka, Onak ma'itasuna, abertzaletasuna, euzkerea, euzko-gogoa ta onelako gayak erabillijaz, polito egiten eban, edonok ulertu-etaz, baño euren antziñekuak baño askoz az garbijago».

Ondoren bertsolariak eta olerkariak aupatzen ditu, gure izkuntzak olerki arazorako daukan erreztasuna be adierazoten emonaz. «Euzkalduna —darrai—, antzin-antziñetik eta aldi guztijetan elerki-zalia ixan da, berez olerka ija, Euzkerea clertirako oso gai ta egokija dalako. Orregaitik, Arzak eta Bilintx bezelako olerkariak asko sortu ziran Euzko-Errijan. Baña arek ez eben euren Aberrija ezautzen euren elia be ez eben euzkel-eraz erabiltzen; igarri barik, erdeltzaltu samar egozan, eta euren olerkijak egiteko, askotan erderaz oldoztuten eben».

Arek ez eukien gaurkoak beste kultura, eta euren sorpenak be makal erkiñagoak izan bear, bai gogoetaz eta bai gai erabilliz. «Goguan eta Gayetan —darri-makalak ixaten z'ran geyenetan naita batzubetan gotargi edo ispirazuñuaren sua ta indarra ixan. Baño geyenetan etziran sakonak, aulak baño. Azkengo irurogei urte onetan guzti ori aldatu zan eta ordutik euzkel-olerkari sakonak ernetan asi ziran, abertzaletasunak bultzautu».

Berbera izan da orren testigu. «Eta geuk —idazten dau— ezautu doguz Arana-Goiri, Eleizalde, Bustintza, Enbeita anayak, Arriandiaga Aba, Zabala-Arana Aba, Arrese-Beitia, Ormaitea, Monzon, Lizardi, Urkiaga ta beste asko, euzkal olerki polita-ederrak egin ebezanak, euzkera garbiz ta sakon-sakoniro. Ete ziran olakuak antzin-aldijetan? Eta euzkel-idazliak, euzkel-lauz idatzi ebeñian be bardin. Eleizalde'k esan eban antziñeko idaztijak, naiz-ta baten batzuk asko goralduta ixan arren, geyenetan gari gitxi ta lasto asko daukela...».

Eta azken urteetako euskal pizkundiaz era onetan amaitzen dau: «1936'garren urtian Euzkerea bere bidian ebellan, iñoiz baño artezago. Inparringijak iñoiz baño Euzkera geyago erabilten eben. Euzkal-antzerri edo teatruak aurrerakada aundija egin eban, eta Euzkel-Ikastolak zetan esan be. Baña, euskerearen arerijuak gure aberrijan sartu ziran eta dana birrindu eben. Orain, euzko-ildegijetan be, Euzkerea gebenduta dago. Zelan askatu ta gaizkatu? Bide bat baño eztago: abertzaletasuna». (*Euzko-Gogoa*, 5-6 zenbakia, 6'garren orr.).

**ZIRILO URIBE ETA BESAOITAORMAETXEA**  
(1887 - 1973)

Durango'ko seme, emen bait zan jaio 1887-7-9'an. Santa Ana eleizan bateatua, Anizeto Iturriaga'k. Ezkondua, bost seme-alaba izan zituan. Bizi ia bizitza osoan Berriz'en, Oka'ko ur-jauziaren arduradun bizi izan zan.

Bere ikasia geiegirik ez eban arren, gizaseme landua zan asko irakurten ebalako. Euskal bertso paperak eta liburuak irusten eban. Berrizko Udaletxeak erriko jaietarako ateraten zituan Egitarauak eta berak idazten eban sarrri. Bein, alako jaietan, bertsolari txapelketa zala-ta, maiko egin bear izan eban; arrezkerokoa izan zan gure alkar ezaguera. Orixegaitik aibat olerki pitxi argitara neutsozan «Karmel» eta «Olerti» aldizkarietan. Bere seme-alabak daukiez, gaifera, pillo ederrak argitara emoteko asmotan.

Ezta kaskarrena «Basertiko Jauparia» deritxon au, «Olerti»-n, 1959'an, lenengo urtean datorrena:

Basserriko Jaupari biotz onekua,  
Zure arduran dago gute erri txukuna.

Gure gogo gidari zintzo zu zaitugu,  
Arazo ori beteten leial diarduzu.

Baserri onetako arimen artzaiña  
Zeure ardiak zaintzen zara zu bikaiña.

Kristo'ren bedartzetan damotsezu jana,  
Izan dagien beti goitar osasuna.

Kontuz aldetzen dozuz txerren bedartzatik,  
Eta galzori diran leza baltzetatik.

Zernaiko oituradun pertsona txatxuak  
Alper utsak dirala uste jaupariak;

Baiña euren egia zindo betetzeko,  
Elizan nai kanpo ba da bearra naiko,

Sarritan bizi dira eurenez aizturik,  
Mendeko artaldea ondo euki nairik.

Baltzak oi dira batzuk abere-aldrean,  
Orrela baita sarri gogo-artaldean.

Eta gogo muker orreik damotse ardura,  
Loitik orreik babestu, arein irrirts-gura.

Leiatsu dautse deitzen orrei be ingurura,  
Beste gogo zuriak dagozan bilkura.

Esku mendean daukon gogozko baratza,  
Arek nai eukitea zero txiki antza:

Kendu lora arteko lizundun arantza,  
Eta atzera ziara txarkeri-lorratza.

Bere zeregiña betez, olerkara doan gizonak bere dau gorapena.

**JOSEBA ALTUNA ALDASORO**  
(1888 - 1971)

Euskal idazle nekegaitz eta abertzale benerakoan belaunaldikoa. Euskaldun barria, baiña ekiñaren ekiñaz ederto menderatu eban gure izkuntza, ta, bere itzulpen eta osterantzeko lan ugariatatik dakugunez, euskerari guna ateratzeraifio eldu zan.

Bilbo'n jaio zan, 1888'ko abenduaren 12'an. Berton baita bizi be bizi izan bere bizitza guztian, 1971'ko uztaillaren 27'an azken arnasa emonik. Bizkaiko Aldundian euskera irakasle izan jakun urte pilloan, eta orrek aukera emonda, beste buruko min barik, euskerari oso-osoan loturik lan egin eban.

*Euskal lana.*—Euskera ikasten ebillela asi zan idazten, 1913' rantza. «Azparren», «Amilgain» eta «Altuna'tar Joseba» erabilli zituan lanak izenpetzeko. Bakotxak bete bear dau alik eta zeatzen dagokion egin-bearra, eta bilbotar onek, bere garaiko giroari eta ogibideari jarraituz, euskerearen alde jokatu bear eban gogotsu. Eta Altuna orretan alegindu zan, gizonkiro alegindu be; euskera ikasi, argitu, irakatsi, auxe izan zan gizaseme jator onien arazoa.



Ona aren lanik urtenenak: 1) *Aflujos de euzkera* (Bilbo, 1915); lan ederra, gero be asko an argitaratua; 2) *Ezopo'ren Ipuñak* (*Euzko-Deya*, 1921-22); pilloa argitaratu euskun; 3) *Oskar Wilde'ren Ipuñak* (Bilbo, 1927), aleg-txorta bikaiña; 4) *Afanasiev'en Ipuñak* (Bilbo, 1929), *Euzkerea* aldizkarian datoz; 5) *Grimm anayak. Ipuñak* (Bilbo, 1929), euskera garbi errezez; 6) *Itxaro-ixarra* (Bilbo, 1931), Manu Sota'k erderaz egiña Altuna'k euskeraz jarrita; 8) Nigarrez igaro zan atsua (Bilbo, 1933), M. Sota'ren antzerkia, Altuna'k itzuita; 9) Buruzagijak (Bilbo, 1936), M. Sota'ren atal biko antzerkia, Altuna'k euskeraz. Bardin «Urretxindorra» be (Bilbo, 1934).

*Olerkari.*—Gogoko zitun eder-gaiak. Euskerara itzultzeko ipuin dotoreak aukeratu ez-ezik, poesiak be eundu euskuzan. Bilboko euskaltzaleak «Ereserkijak» denitxon, goratarre, himno ta olakoz aberastutako liburutxo argitara emoteko asmoz jarri ziranean, J. Altuna'ri eskatu eutsoen laguntza, ta onek a'nbat lan mamintsu osotu eutsezan. Amaika-amabi lan datoz, Altuna'renak, I buru orretan. Ona izen-buruak: «Gaizka daigun», «Gu euzkotarrak gozak», «Mendijen ganetik», «Jantzara, mutillak!», «Nik maite dot bijotzez», «Geure aberri-basuak», «Mendi-ganian», «Ene maitetxu laztana», «Aupa, mutillak», «Amaren pozkarri», «Pijoka ta alaitsu», eta abar. Aberkoiak dira geien-geienak. Ona iru:

«Gu euzkotarrak gozak, utz-utzez euzkotarrak; odolez garbi eta gogoz sendo-zinduak.	Guk Euzkadi yuagu Aberri bakarra; bera goraldutia dok geure biarkuna».
----------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------

Lauko au be azkar polita dogu, abestuteko egiña:

«Mendijen ganetik agiri dira  
gosez geugana bein etorrira, geu gaxuok!,  
bela arrotz zitalak, geuri begira;  
zati-birringo gabez euzkotarrok».

Maitasun abestien artean dator estrofa biko au:

zeu zara neure bizitza, «Ene maitetxu laztana, ene bijotzaren jabia: zeu zara neure atsegin betia,	Neskati polit-lirafiña, euzko-basoko usaua: gogoz dopaltzut neure maitasuna artuizu ene bijotza».
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Koplari gozo onek ba-ekian, bai, maitasuna, erria, euzkera kantatzen. Ba ekian ederra adierazten.

## GOIENETXEA'TAR ANDRESIO

Leza illuna dogu gizona, misterio ta ezkutuz bete. Ori bera artistak be. Olerkari naiz margolari, barruan daroana adierazo egiten dau artisteak; izate barruan borborka daukana azalduz nor dan erakusten dausku. Olerkariak, esate baterako, bere barne-sarrastada ta biotz-ikara itzez adierazten dau, eta ordurarte ez ba'genkian be aren barruan zer egoan, baiña gero bai: biotz-ikara baten adierazpen artistikua da, zan be, gizona artista egin daroana.

Eta onakoak, bide-ertzeko klabelin usaintsua lez, edozein erritan dagoz-nak dira, teknikaren bidez berezko senari indar apur bat ezarri ezkeru beintzat. Gaur orri oneitara dakargun koplaria edu onetako izan genduan. Nor, baiña? Goienetxea ta Sanz'tar Andresio.

Ia urte bete dala eskuratu eustan Bermeo'n, Eupeme Deunaren elizan txauburu dan Olazar'tar Martin, euskaltzale z'ntzoak, poesi-liburu arras bitxi bat, «Euzkerazko Olerkiak» - «Itxasoko Izar Argiak» titulua dakarena. Egillea? Azpian dator, Goyenetxea eta Sanz'tar Andresio. Nor dogu berau?

«ZER»-en beronetaz zerbait idatzi nairik, joandako irailaren lenengoetan eskutitz bat egin neutsan Martin'i, ango eliz-liburuak aztertu egizala eskatuz. Andik laster erantzun eustan. «Emen ibilli naz —iñoan kartan— gure Goienetxea'tar Andres'o nor dan jakingurean, baiña dana alperrik. Len baiño be atzerago geratu naz. Lamene'tarrak ez dala euren artekoa diño eta parroki bietako liburuak aztertu ondoren ez dogu iñor aurkitu izen-abizen orreik daukazanik, Sanz Goienetxea batzuk Andra Mari'n aurkitu izan arren».

Lenengotan uste genduan, emen Bermeo'n ikastetxea dauken Lamenetarren batena izango zala, Olazar'ek bertoko Udaletzeko liburutegia aurkitu eban eskuz idatzitako poesi-liburu ori. Onela darrai kartan: «Eskuzko liburu ori Bermeo'ko Liburutegian egoan, Udal-Batzaren Liburutegian. Ango arduradun dan Mallabia-Barre-

na'tar Biktor'eri be eskatu dauts ditz barriak, baiña ez diño besterik liburu ori Arrantzaleen Erakustetxetik ara etorra dala baiño. Eta len Arrantzaleen Erakustetxean zaintzaille izan zana ez dago olako gauzak gogoratzeko eran. Urte pare bat izango dira toki batetik bestera liburu aldatu zanetik, baiña Erakustetxean noiztik egoan jakiteko biderik ez dot ikusten. Eta gaurkoz ez besterik. Nik bilaketa jarraituko dot eta zerbait aurkitzekotan berea'la emongo dautzut barria».

Alan be, oraindik, nik uste dot, Bermeo'n ba-dirala Goienetxea olerkaria ezagutu ebenak. Liburuak ez dakar urterik, baiña bai beste zeaztasun batzuk, lorratzean asi ta zerbait argi emon legikeenak. Bizkai'ko Foru Aldundian buru izan zan Jabier Ibarra Berge, «fundador del museo «Ercilla» y que dio origen al museo del pescador» diño sarrerako itzetan. Gauza bi, beraz, bere garaian asiera emon; oraindik ez dira urte asko igaro arrezkero.

Naiko mardul da liburu. Bertso ta aurkibide LXX-XII orrialde daukaz. Danak eskuz idatzita. Letra nagusiak ez dira errez ulertzeoak, niretzat beñik-be'n. Asierako eskintza onela dator:

«Eztago itxasorik  
Kolare bakorik,  
Ezta bere itxorik  
Arrantzal artekorik».

Neure arrantzale anayari Gumer da Fernando deitxonari; baita bere neure lagun mariñel danari; eta, bere bai, neure enrolako arrantzetako «vapor» ikatz, izenez «Poeta del Mar» dekonari. Ezau-garriok ba-diñoskue zerbait gure olerkaria nor izan zan jakin aal izateko. Nik alan uste. Arrantzaleen Kofradian urte askotan langille egon zan Urkidi'tar Julen jaunak jakin leike zer-edo-zer.

Gai askori ikutu arren, itxasoa ta mariñelak ditu geien darabilzanak. Ona izenburu bitxi batzuk: «Izar argia», «Matxitxakotik Talara», «Mariñelan miñak», «Abantean», «Arrantzaleak», «Itxasoagaz», «Jokalari arrantzaleak», «Izaro'ko Atxa Nagusi!», «Atunzaleak», «Mariaren urramadie», «Trañeru estropada bat» (iru saio); ba-ditu bestelako gaiak be: «Usotxuak», «Argitasunak», «Esanak», «Eduerne!», «Negarrak», «Azken agurra», «Malpraile'ren Sermoya», «Ertzilla Torre», «Gurasoen arazuak», «Danetara nago» ta abar. 30 poesi guztira.

Irakur eizu urrengo au berak idatzirik itxi euskun legez. (Ez dauz bereizten s ta z). «Arrantzaleak» deritxona dozu. (tr kakovuna idazten dau ta tza bearrez txa).

«Krezal ganeko arantzalea zera?  
Nezkatoa etor'ko datzu goizean gedarez  
eta zeu ezpa'zagoz zur, oñan dandarrez  
goizean goiz, errukioz, etorko datzu atzera.

Ondiño zagoz zeure gorpu garbikera?  
Baña, ez. An doye itsasora. Txarrez  
olatu sendoari emon arpegi eta, negarrez  
gurasoak, argia bistuko dago iluntxera.

Baretuta dago itxasoa! Zonionian  
erregutu zeroari eñdotzan zendo;  
eta oraiñ datoz, pozik, lan da lanian.

An dator ñarru! Or dator Okendo!  
txalupek betez arrañez. Tozta ganian,  
zei erramoan irumadia, batera zendo!».

Ikusten doguz or zear au baiño amalauko kazkarragoak. Ba-ditu amalauko geiago be jakituriz eta ganoraz jantziak. Aren lan guzt'ai umore ona darie, euskaldun on bati legez. Erderaz asko irakurria emoten dau; euskeraz ez ainbeste, baiña berezko euskeraz ez dauz txarto azaltzen bere barru-zartako ta ikarak.

Mariñelen asti-uneetako karta-jokuak, janari urrua «makallu siku azala, ogi kozkorra, ardu pizker bat, mats-sikubak, iku sikuak), urrin joanaren negarrak, zeruko argia dan Edurne, itxasoak gora ta beera dagian urrumadea, Kaltzapintxo'ren bizkar egindako barreak, Malprailearen sermoia ta olakoak abesten dauskuz gozagiro ta olgura ederrean osotuak daukazuz. Baita onako esanak be:

«Itxasoko morrozko goigorra:  
Noz emongo detzu, itxasu orrek,  
Gaztetasuneri dekotzen zorra?».

Nik au idatzita gero, Olazar jaunak ZER-en aza'du eban olerkari onetzaz artikulua jakingarri bar (ZER, 120 garren zenbakian) emon dau.

## BASILIA BUSTINTZA OZERIN (1889 - 1972)

Mañari, aitz-arte zangarreko lurralde bikaiña, ezta txiroa izan euskal idazleetan, leenago eta orain. Emen jaio zan Basili, «Kiri-kiño» zanaren alarguna, 1889-9-26'an, Arrueta auzuneko Zumelaga etxean; andik egun bira bateatu eban Paulino J. Barrueta orduko txaunburuak. Aren gurasoak, Felix eta Martzelina.

Ogei urteko zala, 1909-9-25'an, bere osaba Bustintza'tar Ebais-ta'rekin ezkondu zan; ez eben seme-alabarik izan. Gaztetan, neskatilla legez, ona ta maratza zalarik, euskal idazle aundiaren emazte zala, askozaz be arduratsu, zoli, kristiñau ta euskaldunago agertu zan beti. Senarra il jakonean (1929-1-31), Errose bere aiztearekin egin zituan ogetalau urte ta gero beste emeretzi bakarrik. Aste Santuz eta abar Mañari'ra izlari joaten nintzanean, alkar-izketa gozo-atsegiña euki oi neban aregaz. Pozik erakusten eustazan bere euskal lanak.

Azken gerratean, erbestetik ibilli jakun bere aizta Errosa-gaz. Errian maite eben, baita berak be erritarrak. Aizta biak ziran euskal idazle; Errose'k ainbat ipuin ditu grazi aunditan egiñak; Basili'k atsegin ebazan olerkitxoak. Buruko odol-gogorduraz il zan Basili 1972-1-4'an.

Olerki-irakurle ta idazle zan. Ikustera joan oi naiakonean, etxeko zer guztiak erakusten eustazan, baita ixil-ixillik eskuz idatzita eukan poesi ingurraztia be. Bein erregu ta erregu, kendu neutson mordo bat, eta *Oleriti'n* datoz batzuk, *Aita Kurutzekori*, *Gorbea'ko Kurutzeari*... Ez ebazan aintzakotzat artzen asti-uneetan egiten zituan lanak. Baiña ba-dabe —zelan ez! — emakumezkoak ezarri oi dabean gatza ta samur-beratasuna aren lumatik urtendako olerkitxoak.

Ona bat, txasta dagizun, Gorbea'ko Kurutzeari opatu eutsonea, eta «Karmel» guzur-izenez *Oleriti'n* argitaratua (1962, III-IV, 23 orrialdean argitara emona).

«Urrun zakustan Gurutze deuna,  
orraíño oiñez ezin joanik,  
emen naukazu Zuri oiuka  
besoak zabal-zabalik.

Txoria ba'nintz, ortxe nengike  
neure abia gaiñe orretan,  
kantuz lertzeko ordu orotan.

Maite-miñezko didar zal orri  
goitik yatorko doia-eturri,  
niretzat beti oso pozgarri.

Soiñez ezinda, nire gogoa  
egaz doa Zugana,  
mendi orretan agertu nairik  
berak dautzun maitasuna.

Euskotar emakume zintzoak lez, arima jainkotiar baten jaube genduan Basili, eta beronen barruak emondako frutuak be olakoxeak izan bear. Jainkoa ta jainkozko gauzak zituan ak kantagai. Jainkoa eder uts, nun aurkituko abesgai obarik? Gure mendiak barriz gurutzez apainduta agertzen,

## ARROSPIDE TA BASABE'tar JON

«Muxika'ko seme ospetsu ta osalari bikaiña» idatzi neban nik «Milla Euskal Olerki eder» idaztitan euskal-seme zintzo onen bizitz-zeaztasunak jartean. Ikus 649 orrialdea. Aitak eta semeak, Jon izenekoak biak, ospe zabala lortu eben osalaritzan eta euskal arloetan.

Kepa Enbeita'k ainbat bider aitatzen ditu Arrospide biok. Aita euskaltzale ba zan, ez gitxiago semea: nik Dueso'n ezagutu neban au batez be, beti abertzale errime. Eta gero, bere ogibide barruan, beti saiatu zan fedea ta aberria goretsi ta zabal-azten. Aita, Kepa Enbeita'ren adiskide min, etzan egundo nekatu urretxindorrari erriz-erri euskal-azia ereiten laguntzen.

Euskal idazle lez ez eban antza askorik idatzi. Ezta olerki-saillean be. Baiña olerkari etzanik ezin daikegu esan. 1925'garren urtean euskal jaiak antolatu ziran Sara'n, urteetan parroku izandako euskal idazle Axular'en omenez. Anjo olerki-saruketan, ede-

rrenen artean ederren, Jon Arrospide muxikarrarena izan zan. Beronek irabazi eban Mayi Elisague Donibanekoak eskifitako makilla.

«Axular-Eguna» deritxo olerki oni, eta askotan argitaratua izan da. Zortzi aapaldi daukaz, pentsamentuz, neurritz ta amai-otsez ondo taxutuak. Irakur:

Euskaldunak, zatozte ba gaur Sara'ko zelai aldera;  
Artu txapelak eskuan eta jatsi ibelaunak lurrera,  
Eta pozaren pozez, pozarren, begiraturik ortzera,  
Dedar: «Axular, Axular, ator jai ontan gure artera».

Orra nun laño zuri eder bat agertutzen dan ortzean,  
Eta mendian zear or dator: Axular dakar gañean!  
Eta Axular'ek eskutik atso zartxu bat, eri antzean:  
Ama-semeak dirudiela eritegira bidean.

—Agur, Axular, erritar zintzo eta mintzaille onena;  
Agur, Axular; ala bear-ta erriko seme maitena,  
Agur, Axular, euskal idazle bikaiñeretan irtena;  
Axular, zure «Geroko Gero» betiko beti gaurrena.

Zeu eta zure «Geroko Gero» Euskeraren oin sendoa:  
Erosoaren erosoz zure mintzaeraren gozoa;  
Eztiak legez, gozoan gozoz, gozatutzen du gogoa.  
Bañian, Axular, lagun oi nor da? Beronek erran dijoa:

—«Ene semea, ni naz zure ta euskaldunaren Euskara  
Eta zuekin euskal-egunak ospatzen nator Sara'ra;  
Umeak oski berrikin bezin atsegintsu jai ontara;  
Ala ez nau'te sarturen iñoiz eriotzaren lezara.

Nire bularrak iturritxo bi, beti-beti txir-txir baten,  
Uda ta negu, gau t'egun, Euskaldunari ematen;  
Bañian neronen seme-alaba batzuk dakustaz joaten;  
Amaz aiztuta erdel-amaren ugatzetatik edaten.

Ulea zuri, arpeia tximur... Au da benatan itzala!  
Ugatzak ikol, sabela sakon... Au da belaunen makala!  
Ene gaxua! Neure burua oñiari adi dodala,  
Baña gogoa oso pozarren, Axular zala ta dalaa».

Orra gaur nire buruko baratz onetan egin dan lana;  
Lorarik lora lorategia aratu arren dan-dana;  
Ondo agiri dago nik txorta oberik ezin dodana.  
Eutsi ba berau biotz-biotzez, ene Axular laztana!

## OIZ MENDI

Oiz mendian buru-buruan,  
urian baño bestela,  
pozaren pozaz pozarren nintzan  
baso-txoria bezela,  
eta neuk zelan ez nekiala  
eskuan artu txapela.  
eta eskua jasorik gora  
abestu neban onela:

«Agur, Oiz mendi! Agur Oiz mendi!  
Agur Oiz, mendi maitea,  
zureganako eguzkia ta  
zureganako aizea,  
osasuna ta osagarria  
dira bata ta bestea.  
Agur Oiz mendi! Agur Oiz mendi!  
Jaunan eskerrez betea.

Eta emendik begiraturik  
batera eta bestera,  
zurt-eragin daust agertu danak  
nire begien aurrera.  
O neurri bako anditasuna  
edertasunaz batera!  
nor egon leiten bertontxe zeuen  
adi goizetik gabera!

Al daben danak betoz uritik  
Oiz'era noizik beñean,  
ikusiteko gure mendiak  
zugazti baten antzean,

eta etxeak uso zuriak  
baizen argiak an bean  
eta itxasoa, zelai urdina,  
agiri dana urriflean.

Eta zer ba Oiz'tik ikusten  
erritan bere askoak?  
Emendixik bai dirudiela  
bata bestean auzoak,  
eta eleizak etxe artean  
txitetxoekin olloak,  
eta etxetxu zuri-zuriak  
solotxueta usoak.

Agur Oiz mendi, maitagarrien  
maitagarritzko mendia!  
Agur Oiz mendi zoragarrien  
zoragarritzko tokia!  
Agur Oiz mendi, betiko betin,  
beti euzkera garbia!  
Agur Oiz, agur urrengo arte,  
geure Jaunaren saria!

### JOSE MARI ERRAZTI SARATXO (1890 - 1954)

Kezkaz ekarren Orixe —eta nor ez?— gure izkuntzaren iraupenak. «Euskera ezilkorra da» ta olakoak esan eta idazten doguz; baiña egia izango ete? Geroak itza. Len indartsu ziran erri askoren ala ta agintea illak dirala be, euren izkuntzak bizi dira oraindik. Baiña, beste errialde asko ez alizate ez ele, betiko lez illak geratu dira. Eta gure erria ta izkera? Gaurko erri ta izkuntza zirimolean ez ete jakuz itoko. Zergaitik esan gengike gure euskera orainarte il ez dalako, geroago be ez dala ilgo? Ona Aita Gotzon Urrutia nabarniztarraren errazoiketa. «Oñarte ixan dauzan arerijuak —diño— iñoz ixango dauzanak baño indartsubaguak eta gogorruguak ziralako. Areik erail ez ebenian, oinguak eta gerokuak ezingo dabe erail».

Aita mibisutarrak ez ekian, au idatzi ebanean, zelako arerioak —prentsa, irrati, telebista ta abar— daukaguzan gaur eta ondoren etorriko diranak. Zek orduan, gaur eta gero, gairi jausi lekikegun kinka estuan, onez aterako gure izkuntza? Orixe, esan dot, kezkatu ekarrela euskerearen zoriak. Eta luzaro zer orren inguruz pentsaketan egon ondoren, odei artetik eguzki-izpi nabar lez, azken oiuek urten eutson: «Abertzaletasunak bakar-bakarrik salbatuko dausku euskera».

Bai, aberria egiazki maite dauanak, orretzek gaizkatuko dau gure euskerea. Gaur asko dira euskera ikasten diarduenak; baiña asko dira asi ta, zaila dalakoan, ikasteari muzin dagioenak be. Aberria maite dauanak, baiña, eragozpen eta zailtasun danak azpiratu oi dabez, eta euskereaz ederto jabetzera eldu. Olako asko ezagutzen doguz, len eta gaur. Nire ikasleen artean ba-dira, kanpotarrak izanik be, bertokoak baizen egoki ikasi ta euskeraz itzigiten dabenak.

Bilbo'n berton askotxo dira abertzaletasunak euskaltzale biurtu ditunak. Euskal irakasle onak ez dira palta izan; or Azkue, Kiriñño, Mikel Arrutza, Xabier Peña eta abar, euren bizitza osoan ortan arduratu diranak; or baita ainbat eta ainbat ikastola, euskaltegi ta abar. Abertzale zintzoak toki orreitara doaz gogotsu euskeraz ikasten, erleak ezti-gai billa loretara doazanez.

Enda orretakoa zan Errazti. Gizaseme adoretzu, artez, errimea. Arana-Goiri'ren jarraitzaille ziña. Umetatik ez ekian euskeraz, baiña abertzaletasuna eroian barruan ondo erantsia eta, lan eta lan, laster jabetu zan asaben izkuntzarekin. Eta ez jakun izan edoze-lango euskaldun be, jakintsu ta sakona baiño.

*Euskal lana.*—Sarri ta nainun agertzen emon euskun jakitate ta sakontasun orren aurtormena. Diñoadanaren sinisgarriztat bioa emen beñola nik idatzi neban zatiño au: «Gitxi iritxi oi dutena ere lortu zuen. Zer ote? Seme-alabai euskeraz irakatsi ta auek egiazko euskaldun egitea. Zaila danik ez diñot; bai naimena bear da besteai ere ori berori ar-erazi ta izate barneraiño zirriztatzeko. Ortan jarduna duzu Errazti, diru ta borondate biziz. Laudio'n, esate baterako, urte gutxi dirala bere fabrika ondoan eleizatxo bat eregi zuen, Euskalerriko deun eta deungai guztien irudiekkin apainduta-koa. Baita alboan, bere lepoz au ere, eusko ikastola bat eraiki zigun,

ango umetxoak ikasi bear duten guztia euskeraz ikasteko aukera izan zezaten» (*Euskal Literatura*, IV, 98 orr.).

Ikasle ta irakasle izan zan Errazti. Euskeraz ikasteko liburuak argitara zituan, bereak eta iñorenak. Laguntzeko-ta, «Euzkeltzale-Bazkuna» sortu eben berak eta bere koiñetu Zeferin Xemein'ek, eta ondoren «Método gradual para aprender el Euskera» etorri zan, euskal gramatika, iru liburutan, «Pizkundia» etxeak sarri argitalduta. Ogeiren bat urtetan Errazti'ren gramatika auxe izan zan Bilbo ta inguruetako euskal eskoletan geien erabilli ta irakatsia.

Abesti-zale zan. Eta berak eratu, orraztu ta argitaratu ebazan «Euzkel Abestijak» (Bilbo, 1915 ta 1931) izena daroen iru ingurraztiak, baita «Ereserkijak» deritxena, 144 orrialdeko kanta-liburuxoa be.

Liburuak nai zituan umetxoentzat, zer irakurri euko egien batez be. Ortarako «Enbor» argitaldaria sortu eban, eta olan argitara emona da Azpeitia'tar Ju'ene euskal idazle argiaren «Umien Adizkidia», ainbat kuadernu aterarik sa'1 onetan. Aita Arriandiaga'ren «Umiak autortuten eta Jaunartuten» liburuxka ta «Goizparraik eta Beldubaik egiña» deritxona be, bere pentzutan argitaratu z' tuan.

Bilbo'n jaió genduan Errazti, 1890'ko epaillaren 20'an. Gerratean Frantzi aldetik ibiili zan arren, Bilbo'n bertan il zan 1964'ko maiatzaren 19'an. Lan asko itxi zituan argitara barik; iru oneik merezi dabe aitatzea: 1) *Iztegi*, amaitu barik oindiño; 2) *Kistar Ikastija*, osoro amaituta; 3) *Aditza*, beti esku artean erabilli eban lana. Ez, Errazti etzan «izenak aundi, izanak txiki» orreitakoa. Bizkai-Buru-Batzarrekoa genduan.

*Olerkari*.—Bizitza ta lana alkarregaz neurri gozoan eb'ltzan Errazti'gan. Bere egun-sentitik izan jakun olantxe, ibai beera doan ur bizkorraren pareko: askan zear, ertzak ezotuz, marmarka ezitan dabillena. Iñoz esana dot nik, gizona, itxas-azala baizen geldieziña dala. Ain dozu urduría! Gaur txinpart jario, biar negar-anpuluz.

Gogoratu dogunez, eres-zale zan Errazti. Euskal abestiak eder zituan, etxean naiz mendian eztarri leunez abesten ebezanak. «Euzkeltzale-Bazkuna»-k iru-lau ingurrazti polit argitara ebazan, an zan Errazti aurrelari. Eta erri-kantuz dotoretutako liburu-

txo orreik bete ta biribiltzeko letra barriak bear zituan, eta letra orretatik asko asmatu ta onduak izan ziran. Irakur olako batzuk; «Argizagi ederra» deritxon laburderazko erri-kantak izki geiago bear eban eta Errazti'k iru aapaldi oneik gaiñeratu eutsozan:

«Ortze ixillan argi dagian illazki ederroi:  
geure zori au lakorik noz ete dok ikusi?  
Len azke izanok oin yoguk arrotza nagusi...  
Bide latz au argitu itxaroz, gentza geznerioi.

Ala-arantzak biotz gaxuok zulatzen yoskuak.  
Zegaitik, ba, barre-irri dagik geure zori baltzaz?  
Ala ortze-goitik dakust, egubantz barria?  
Itxaro gozo au laster, oi! bete egik geuretzat.

Illun-arteaz lagirik argia malkuak legortzen.  
Eure bidez ua, illazki, bestetzuk argitzen.  
Zorun-euzkia odoltsu baso-ostez jagi dok:  
Bere izpiak euzko-semioak yuz azkatuten».

Irudimenak bai dantza lerdena, aberritik ortzira ta ortzitik aberrira. Edozein erri dau, izakeran naiz olerkeran, bere sen etá jokabide berezia. Eta ortelaxe dozu euskal bertso errikoiazen dan'za joria, bere-berea, bere muiña ta jantzia. Ez ibilli, ba, gure izaera arrotz-miesaz bitxitu nairik.

Beste bat tatiu orretan oretua. Maitea dau kantagai. Heine, Campoamor ta olakoen antzera osoua. Ikus:

«Ortzian izar ederra  
gabaz agertzen da:  
Zure irudia niretzat  
ederragaa da.

Oi maitia! Oi lastana!  
Nire poza ta atsegiña:  
Zu barik nire bizitza  
mingoitz, illuna da».

Bizkaieraz dago sortzez. Eta bigarren estrofa au, tabernetan be eurrez abesten da. «Itxaro-izarra» deritxo. Arin, txukuna.

Napar abesti «Bonbolentena» be sarri entzuten dogu, or-emen.

Baiña zazpi bertso-lerro besterik ez daukaz. Eta Errazti'k, luzatuz eta gozotuz, beste zazpiz ornidu eban, Onela:

«Ozti zabalán  
izar artian  
argi yagik illazkiak,

beren izpiak  
illuntzen dozak  
begitxu oien aldian.

Lo!

**ARRUTZA'tar MIKEL**  
(1890 - 1966)

Gizaseme apal baizan langille genduan Arrutza ta Egia'tar Mikel Bilbo'n jaió zan 1890-3-3'an, eta euskal lanari errime ekin ondoren, bertón il 1966'an. Aita Mungiarra ta ama Gatika'koa zituan. Bost untedun zala il jakón aita, Algorta'ko osabakaz egiñik bere ume ta gatzetako urteak.

«La Polar» seguru-etxean eta Komertziko Bankuan langille zala, Azkue jaunaren adiskide egin oindiño mutiko izanik; laster, Foru Aldundiak Bilbo'n eukan irakastegiko katedra irabazi eban, norgeiagoka; 21 urte eukazan Arrutzak. Emen daukagu berau Azkue ta Kirikiño'ren ondoren euskeraz erakusten; gero etorriko ziran Altuna'tar Joseba, Gandariasbeitia eta Tomas Agirre, «Barreroso». Ribera kalean irakatsi eban gero, eta azkenez Bilbo'ko Ateneuan. Labur, euskal arloa izan zan aren bizitz osoko zeregíña.

1918'an, Nikolas Deunaren eleizan ezkondu zan Klotilde Sopelana Iragorri, bilbo'arragaz. Sei seme-alaba izan ebezan, iru mutil —Xabier, Mikel ta Iñaki— eta iru alaba —Begoña, Itziar eta Garbiñe—, oraindik bizi diranak. Gizon arteza izan zan, eta zeredo-zer zuzen ez joiala iruditzen ba'jakón, prest geunkan beti ola-koari idazkiren bat egiteko, Zirikalari ederra zan, eta zirikatzen ebazan batez be, bere eritxiz euskal lanerako balio ebenak. Berak egian lez, besteak euskal arloan langille iriñi nai; paper mordo aundiak itxi euskuzan Arrutzak ondoren, donak euskeraz idatzita.

Gazte asi zan idazten, 1911'an. Arrezkero guztian rratua gertatu jakun. Kirikiño'ren eskolakoa zan. Aldi azaldu zitun bere lanak: «Hermes», «Aberri», «El Bi kadi», «La Gaceta del Norte», «Jesus'en Bioizaren D. Gogoá», «Egan», «Karmel», «Zeruko Argia», «Olerti»... Gertaldiko «Eguna» egunkarian be lankide izan genduan, diñosku E. Erkiaga'k. «Garbi Zale Zarra», «Arrugain» eta «Urratza» erabilli euskuzan lanak izenperatzean.

Bereak dira liburuok: 1) *Método Massé-Dixon, euskeraz jarria* (Bilbo, 1923); 2) *Método práctico para aprender el vascuence* (Bermeo, 1925), 146 orrialde; 3) *Euskal-ikasbide erreza* (Bilbo); 4) *Euskeraz ikasteko bide erreza* (Bilbo, 1934); 5) *Etxe-kalte* (Bilbo, 1934); 6) *Jo!* (Bilbo, 1966); 7) *Irrati-saioak*. Azken urteetan Xabier Peña'k eta biak, Bilbo'ko Erri-Irratirako gertatuak.

Eta olerkirik? Baita. «Euzko-Gogoá», «Gernika», «Egan», «Karmel», «Olerti», «Zer»-en eta abarren datoz aren bertsoak. Ona bi, «Gernika»-n eta «Zer»-en datozanak, *Errekatxo gaizoa* eta *Lastana neurea* deritxenak.

**ERREKATXO GAIZOA!**

Nora zoaz orren arin,  
errekatxo gaizoa?  
Nora zoaz, ur kaskarin,  
trokartetik sakostarte,  
zarraparra zoroan?

Goiko sorgu maitegarri  
ostaldean utzirik,  
zein da zure poz-egarri,  
zelairantza etorteko,  
turruruaka menditik?

Gera zaitetz, urriñean  
dantzut itxas orroa,  
aren sabel illunean  
galdu zeinke, bein-betiko,  
zure izate osoa.

Aolkua entzun arren,  
errekatxo an doa,  
aldatz, muna, zelai barren;  
alai, azkar, poz ta barrez,  
eriotzan ondoan.  
Azkenean, galdu jakun  
itxas zabal kolkooan!

Baiña zazpi bertso-lerro besterik ez daukaz. Eta Errazti'k, luzatuz eta gozotuz, beste zazpiz ornidu eban. Onela:

«Ozti zabalán  
izar artian  
argi yagik illazkiak,

berén izpiak  
illuntzen dozak  
begitxu oien aldian.

Lo!

### ARRUTZA'tar MIKEL (1890 - 1966)

Gizaseme apal baizan langille genduan Arrutza ta Egi'a'tar Mikel Bilbo'n jaio zan 1890-3-3'an, eta euskal lanari errime ekin ondoren, bertón il 1966'an. Aita Mungiarra ta ama Gatika'koa zituan. Bost untedun zala il jakón aita, Algorta'ko osabakaz egiñik bere ume ta gaztetako urteak.

«La Polar» seguru-etxean eta Komertziko Bankuan langille zala, Azkue jaunaren adiskide egin oindiño mutiko izanik; laster, Foru Aldundiak Bilbo'n eukan irakastegiko katedra irabazi eban, norgeiagoka; 21 urte eukazan Arrutzak. Emen daukagu berau Azkue ta Kirikiño'ren ondoren euskeraz erakusten; gero etorriko ziran Altuna'tar Joseba, Gandariasbeitia eta Tomas Agirre, «Barrensoro». Ribera kalean irakatsi eban gero, eta azkenez Bilbo'ko Ateneuan. Labur, euskal arloa izan zan aren bizitz osoko zeregiña.

1918'an, Nikolas Deunaren eleizan ezkondu zan Klotilde Sopelana Iragorri, bilbo'arragaz. Sei seme-alaba izan ebezan, iru mutil —Xabier, Mikel ta Iñaki— eta iru alaba —Begoña, Itziar eta Garbiñe—, oraindik bizi diranak. Gizon arteza izan zan, eta zeredo-zer zuzen ez joiala iruditzen ba'jakón, prest geunkan beti ola-koari idazkiren bat egiteko. Zirikalari ederra zan, eta zirikatzen ebazan batez be, bere eritxiz euskal lanerako balio ebenak. Berak egian lez, besteak euskal arloan langille itxiñi nai; paper mordo aundiak itxi euskuzan Arrutzak ondoren, danak euskeraz idatzita.

Gazte asi zan idazten, 1911'an. Arrezkero guztian idazle amorratua gertatu jakun. Kirikiño'ren eskolakoa zan. Aldizkari oneitan azaldu zitun bere lanak: «Hermes», «Aberri», «El Bidasoa», «Euzkadí», «La Gaceta del Norte», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Karmel», «Zeruko Argia», «Olerti»... Gerra aldiko «Eguna» egunkarian be lankide izan genduan, diñosku E. Erkiaga'k. «Garbi Zale Zarra», «Arrugain» eta «Urratza» erabili euskuzan lanak izenperatzean.

Bereak dira liburuok: 1) *Método Massé-Dixon, euskeraz jarria* (Bilbo, 1923); 2) *Método práctico para aprender el vascuence* (Bermeo, 1925), 146 orrialde; 3) *Euskal-ikasbide erreza* (Bilbo); 4) *Euskeraz ikasteko bide erreza* (Bilbo, 1934); 5) *Etxe-kalte* (Bilbo, 1934); 6) *Jo!* (Bilbo, 1966); 7) *Irrati-saioak*. Azken urteetan Xabier Peña'k eta biak, Bilbo'ko Erri-Irratirako gertatuak.

Eta olerkirik? Baita. «Euzko-Gogoa», «Gernika», «Egan», «Karmel», «Olerti», «Zer»-en eta abarren datoz aren bertsoak. Ona bi, «Gernika»-n eta «Zer»-en datozanak, *Errekatxo gaizoa* e'a *Laztana neurea* deritxenak.

### ERREKATXO GAIZOA!

Nora zoaz orren arin,  
errekatxo gaizoa?  
Nora zoaz, ur kaskarin,  
trokartetik sakostarte,  
zarraparra zoroan?

Goiko sorgu maitegarri  
ostaldean utzirik,  
zein da zure poz-egarri,  
zelairantza etorteko,  
tturruaka menditik?

Gera zaitetz, urriñean  
dantzut itxas orroa,  
aren sabel illunean  
galdu zeinke, bein-betiko,  
zure izate osoa.

Aolkua entzun arren,  
errekatxo an doa,  
aldatz, muna, zelai barren;  
alai, azkar, poz ta barrez,  
eriotzan ondoan.  
Azkenean, galdu jakun  
itxas zabal kolkoan!



Gaztedia, onan dabil,  
errakatxo antzean,  
atsegiña txastaun naiez,  
graiña txarrak bultz egiñaz,  
ondamendi betean.

### NERE SORTETXEA

Ene sortetxe maitagarria, / mendizka baten zagozana!  
Egunoroko gomutak doaz / nere gogotik zeuregana.  
Ames gozotan ikusten ditut / zeure lurralde pozgarriak;  
baso zugatzez beteak eta / zelaietako belardiak.

Baratzetako lora politik, / ortuetako barazkiak,  
ibarretako landa zabalak, / arkaitz azpian iturriak.  
Soloetako garitza ederrak, / troka ganeko sagastiak,  
errekaldeko makal-zugatzik, / Lurlan ertzeko mahastiak.

Satoritsuak bere lanakin / egin daroan lur-konkorra  
beresi aldean, kea darion / ikazkintzaren su-txondorra.  
Epertargien argi zurizkak, / saguzarraren egazkerak,  
gabontz motzaren begi zabalak, / mozoloaren ibilkerak.

Arranoaren goi-egazkadak, / zeru-zolaren kresailluak,  
oianetako zugatz tantaiak, / errekaztuen ispilluak.  
Usain gozodun belar-ondoa, / irametaen gain-tontorra,  
atadi aurreko zabalunea, / etxe barruko zokondoa.

Eskaratzeko bastertxo baten / aiton-amandreen zizailluak;  
albo batera, egur-pilloak, / erdi-inguruan sukatuak.  
Ormatik bera lapiko-padel, / euren lekuan urontziak,  
andik-emetik jarleku ugari / etxeko tresna bereziak.

Goiko bizitzan etzangu argiak, / g'zategi ta lantegia;  
orma ondoan erloiu zarra / aititen aitak eresia.  
Gaillur aldean lastategia, / aldamenean ganbarea,  
sagar umoak, arto ta gari / ondo zaintzeko aterpea.

Meza entzuten doazan lagunak, / jolas-zelaiko gaztedia,  
briskan dabiltzan emakumeak, / bolatokiko gizadia.  
Urtez beteko abade jauna / eleiz barruan otoiitzean,  
arkupetako frontoi txikian / mutiko batzuk ekiñean.

Irudimenez entzuten ditut / erdi-bildotsen bekerekak,  
zaldi-beorren irrinzi zolak, / idi ta beien orroekak.  
Oillar arroen kukurrukuak, / oillo zintzoen kokoratzak,  
paita nagien paiparatzak, / txita makalen pio-pioiak.

Garitza arteko galeperraren / pospolinketa luzangeak,  
etxe gaiñeko usategiko / urrumakada maitateak;  
elai ariñen txirrio latzak, / larratxorien abesteiak,  
suge zarraren txistu sarkorrak, / bela baltzaren garrasiak.

Erlauntzetako zubburrunketak, / txirtxil kaxkarren kirkirkadak,  
zugatz-orrien pir-pir samurrak, / basa piztien alarauak.  
Burdardatzen kurrinka luze, / su basterreko txinparketak,  
aize boladen durunduekin / zugatz-adarren txistuketak.

Errekaztuen txurru biguna, / atxuriaren koskakadak,  
egurgillaren aizkora soñu, / abere arranen dunbakadak.  
Kaskabarraren kristel-kriskadak, / trumoitza berraren burrunbadak,  
euri-jasaren zarata bizi, / txarritagiko kurrinkadak.

Orrez gaiñera nabaitzen ditut, / menditarteko poz-narea,  
baserritxoan alaitasuna, / bizitza garbi ta bakea...  
Orreik guztiok ikus ta entzutez / nere amesaen iruditan,  
biotza eztiz gaiñezka daukat, / gogoa pozez irrikitan.

Orko zoruna billatzen nabil / mundutik zear eten barik,  
eztot aurkitzen inun bakerik, / eztot aurkitzen zorionik.  
Ene sortetxe maite-laztana, / nere gomuten oñiarnia!  
Zeure altzoan emon nai neukez / azken orduak ta bizia.

Aapaldi onetan, ikusten dozunez, bada irudimenik. Onakoxea  
zan Gabriel y Galán espaiñarra. Eta nok ez dau a joten olerkari  
aunditza?

## GABIREL MANTEROLA

(1890 - 1977)

Gizona ez da jatez bakarrik bizi, ezta itzez bakarrik be. Ba-d'ra beste jardun batzuk o'ndiño gizonari barne-bizia irauazoteko erabilii oi ditugunak. Nor bik —adiskideak ba'dira batez be— noizik beinka alkarri egifiko ikustaldiak ez ete dira bizi emoilie, bizkortzaille bikain? Orrela egiten geuntson guk alkarri, Gabirel-ek eta nik, a Zeanuri'n eta ni emen Larra-n bizi izanik; gaur ni joaten nintzakon ara eta biar bera etortzen jatan ona, autu gozotan alkarri bizia ezarten. Literaturaz izan oi zan geienbat gure alkarriketa. Oso jakintsua zan Manterola. Eta nik esango neuskizu, niretzat beifnik-bein, etzala norbere jakituria merke saltzen dabenen artekoa.

Nik, nere V-garren «Euskal Literatura»-n, aren fitxa egiterakoan, onan idatzi neban: «Langille zail, nekegaitz eta euskaltzale trebe. Apaiz ona, ta apaizgoari dagozkion eginkizunai gaztetatik lotua, Kristoren itza ta Jaungoikoaren ereifua, lumaz ta mingaifnez —autortegian atan be— zabaldu ta arimetan bizi-azten alegifnak alegin egifnikoa. Gaur bertan, 86 urte bizkar gain daramazkin arren, ortan ari izana. Euskaltzale eredugarria, euskeraren onerako batzar guztietara jo oi zuen beti, bere agiriz ta solasez batzarkideak poztu, azkar-azi ta indarra eman naiean».

Zeanuri'n, lurrez, giroz ta gizasomez eder dan euskal erri txukunean jaio zan Manterola, 1890-3-17-an. Umetan bere errian azi ta ikasia dogu, guraso Jainko-zale ta langilleen magalpe arduratsuan. Gero, eliz-deiak bultz-eraginda, Galdako'n bere osabeagaz ikasi zituan latin iru urteak. 1905'tik 1913'ra, iru urte Filosopi ta bost Teologi ikasten egin zituan, 1914'an eliz-gizon egifnik, Prudentzio Melo Gasteiz'ko gotzain jaunaren esku ezartez abade egin zan.

Abadetza artu besterik ez, Eibar'ko apaiz-laguntzaille ta moja kapellau izantatu eben. Ementxe bizi izan zan, arima-arloan buru-belarri sartua, eta euskal idazlaritzan lanik asko egifnez, 1936'ra arte, orduko gerra mingotsa sortu artefio. Garai aretan Ingalaterra'ra jo eban, Eusko Jauriaritzak bialduta, ume-talde batekin, Bizkaiko eta inguruetakoa umetxo areik zaindu egizan. An egon zan ondoren, leenengo umetxoan ardura izanik eta gero arima-zaintzan,

izlari ta autorle, 1948'ra arte. Urte onetan biurtu zan Euskalerrira ingles izkuntzaz eta ainbat liburuz jabetua.

Arrezkero Zeanuri'n bizi izan zan, elizan abadeai lagunduz eta etxean einbat euskal lan osotuz. Zeanuri'n bertan il zan 1977-7-6'an. Urrengo egunean ospatu ziran elizkizunak Andra Mari elizan, arratsaldeko 7,30'etan. Juan Mari Uriarte gotzain ordeak euki zituan mezea eta itzaldia, ainbat el'z-gizonek lagunduta. Erri osoak beteten eban elizea. An ziran Euskalerriko idazle punterengoak, Euskaltzaindia buru zala. Euskaltzain urgazle zan.

Umetatik dakargu bakotzak geure deia, edo-ta ontara naiz artarako trebetasun aparta. Eta ori izaten da; naizta beste lan eta ogibideko arazo batzuetan buru-belarri ondo sartua izan, guri berrizko poza ta atsegiña dakarskuna, bizitzako ordu larri ta latzetan sarri. Geure «zorakeritxoa» deritxogu orri. Eta alan da, izan be.

Manterola, bere eliz-ardurazko lana amaia emon ondoren, beti ta bizkor idatz-arlorra joian. Bizitz osoan erabilii euskun luma eskuan. Ikasle zala asi zan idazten, euskeraz batez be. Eibar'en egoala eta Zornotza'n «Jaungoiko-Zale» apaiz bazkuna sortu barri, bere «Jaungoiko-Zale» aldizkariak, emen ekin eutson ifioiz be aspertu barik, idazteari eta gero asteroko biurtu z nean «Ekin»'en. Zerbaki bakotzean bi ta iru artikulua ageritzen dira gai askotaz idatzitako lanak, G. Manterola'renak nunbait. Izen-orde asko erabilii zituan lanetan: «Gama», «Mitarga», «Urigoitia», «Gabirel», «G.»... Gerra aurretik eta ostean eguneroko ta aldizkari oneitan beintzat idatzi ebazan lanak: «Euzkadi», «Zeruko Argia», «Yakinza», «Argia», «Karmel», «Oleria», «Agur»...

Ugaria zan esan dogunez, Manterola'ren luma. Liburu lez ez eban, prosaz beintzat, askorik argitaratu. Baiña, euskal idazle lez, or-emen sakabanaturik itxi euskuzan lanak ez dira gitxi. Itzulpen asko burutu ebazan, bai euskerara eta bai erderara, inglesetik eta prantsesetik. Mateo Muxika'ren gotzain-idazkiak eta Morcillo'ren banaka batzuk berak euskeraratuak dira, bizkaieraz ain zuzen.

Oleria sentitzen baiño len, ura bizi izaten ikasi dezagun, geronek bizi izan ez degunik, ezin esan dezakegu txukunki. Ertilaritrebek baiño lenago gizon onak nai ditugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoa ederrez ez badu janzten, azaletiko ikusgarriak nola egingo ote ziztada edo zirrara».

Ez kendu, mesedez, pixurik itzoi, Errazoiz zamatuak ba't dituzu. Gure Manterola olerkariari egoki ta ondo yatorkozanak. Arima eder baten jabe zalako, eder utsitu eban bere barrua, bertsozko sorpen ugari, bikain, sakonean. 1921'an 113 orrialdeko liburu bat, «Goi-izpiak» eritxona eskiñi euskun, eta sarreran onela ifioan: «Giza-biotzak yoranez beragandu gura dituan Egia ta Zorunak, ludi onetako gauzetan susterrik eztauke; eguzkiaren izpi beroen antzera goitiko igaliak dira; norberagandu gura dituanak, ba, nai ta nai ez adimen-biotzak goirantz yaso bear. Auxe dala-ta, gai onetzaz, urte bi oneitan egin dituan itz-neurtu geyenak, aizkidetasunak bultzatuta, egilleak idaztitxo onetan esitu dituanen, GOI-IZPIAK izentzat ezartea otu yako».

Gure inguruko gauza guztiak be «eder sortu ziran —diño Lauaxeta'k— Jainkoaren laztanez, aren begiak unkitzen duena zoragarria dalako. Zeruko ats samurrak zaintzen ditu ezilkor izaki guztiak, ustelkorrak diran arren... Ludiako gauzak ederrak izaki, oek kopiatzeko arimak ere ederrak izan bear du. Loi dan ispilluak nola erakutsiko digu edertasunaren antza? Gure arima ispillua baiño ez degu geuregan antzeztuteko gauza orok egiña. Beraz, garbi bego».

Dudamuda bage esan daikegu, ba, Manterola'ren lumatik urtendako guztia ederra dala, naiz prosaz naiz itzneurtuz biribildua. Goian aitaturiko liburua agertu zanean, kritikalarri batek onan agertu eban bere eritxia: «Jaungoikoa ta euskera benetan maite dituezenentzat guztiz egoki ta atsegingarriak dira *Goi-izpiak*. Izkera garbi ta launezko lorez apaundurik ekeintzen zaizkigun neurtitz auek entzumena atsegindu, biotza berotu, ta burua goi-argiz beterik uzten dute» (J. B. Deya, 1923, 350 orr.).

Nik ez diñot Lizardi, Lauaxeta ta Orixe'ren maillako, goimaillako olerkari danik gure Gabirel, baiña ez daust ifiork ukatuko olerkari arin, sakon eta atsegiña danik. Eliz-gizona izan zan, Jainko-zale sutsua, arimak eta erria, benetan maite ebazana; kutsu ori dariola osotuak izan bear, nai ta ez, aren koplak. Ona lan au idatzi nairik nenbillela esku artera jatan «Ber-piztu da» deritxon olerki au, 1957'ko jorrallean «Zeruko Argia»'n datorrena; irakur egizu; bederatzi aapaldi ditu, eta emen dozuz sei:

Poztu gizona! Poztu barrindik! Zetan dok ire nausitasuna?  
eldu da egun alaya, Nor dok gaurgandik menpeko?  
Kristo'k biztuaz lortu daualako Kristo'k biztuaz ondatu au bein,  
eriotzaren amaya. ondatu bein ta betiko!

Oben estuntzak urratuteko Gaurtik aurrera, gizaldi orok  
il zan lotsariz Gurutzean, alaitasunez beterik,  
bere bizia geugandu daigun esan leikio eriotzari:  
illen artetik biztu zan. «Ez yaukuk ire bildurrik!».

«Non dok, eriotz, ire eztena? Bake ta poza, zorion, aintza,  
Non yagok ire garaitza? Kristo'k berpiztez dakarsku;  
Non dozak ire arrokeriak? «aragiaren biztuerea»  
Non yagok ire ayotza? biotzez autortzen dogu».

Mueta askotariko gaiak dantzatzen ditu, sakon eta bizkor. Izkuntza aldetik ez dau utsik, ez joskeran, ez neurkeran bertsoz diarduanen. Nekearen nekea bear da gero, itz-neurtu barruan gogapen trinkoak eta biotz-zirrara biziak mugatu ta eder jarteko. Gaur, neke orri muzin egiñik, bertso zurira jo oi dau askok. Zein bide jatorrego?

**PEDRO ORMAETXEA ALDANA**  
**LONTZI ABA, KARMELDARRA**  
(1891 - 1949)

Gizaseme sutsua, Jainkoaren eta Euskalerrriaren aldeko lanean ifioiz be aspertu etzana. Ekaitz arteko aize zakarrak or-zear eroandako orbela iduri, bere sorlekutik atera ta erbestetua, an Pazifiku itxas-aldeetan, Txile'n be, ainbat lan egin ebana.

Zornotza'ko auzune apaña dozu Boroa, gizaseme prestu ta argien jatorria leenago ta gaur-egunez ospetsu dana; ementxe Zugatza basetxean jaio zan Lontzi ABA 1891-12-4'an. Goi-dei samurrari erantzunik, gaztetxo zala jantzi eban karmeldar abitua Larrea'ko komentuan, 1911'an eskiñi eutsozan Jaunari bere botoak, eta ondoren Markiña, Iruña, Gasteiz eta Begoña'n burutu zituan eliz-ikasketak, 1920'an gotzaiñaren esku-ezartez mezako egiñik.

Esku-azartez sagaratzuz gero, prailleak lanari ekin bear dautso. Eta Aita Lontzi gazteak Burgo de Osma'ko karmeldar komentuan egin eban lan gogotsua, eliz-izlari trebe. Gero, 1931'tik 1937'ra batez be, Larrea'ko eta Markiña'ko komentuetan jardun eban Kristoren Itza ereiten, Gogojardun eta Mixiño ugari bazterretan emonik. Bizkaiko erririk geienetan ibilli jakun olintxe.

Larra onetan, naiko luzaro bizimodu zaitza ta latza eroan eban; orduan izan be gaberdian jagi bear izaten zan Larra'ko komentuan, gaberdiko eliz-otoitzak, Liturgi-orduak, ordu betekoak egiteko. Orrez gafiñera, komentuko diru-zaintza berak eroan eban urteetan, eta ardura aundiz eroan be.

Izatez bizia zalarik be, lagun ona zan. Ni iru urtez berarekin bizi izan nintzan ementxe Larra'ko komentu ontan; atsegin jakon inguruetan mendi ta bazterrak arakatzea, eta eñoiz astirik izan ezkeru, Bizkargi, San Pedro, Lemoatx, Aramotz naiz Muniketa'ra ibiltaldi begiko bat egiteko, laguntasuna eskatu oi euskun. Ibiliz, Kirikiño'k eta beste euskaltzale askok egin izan dabenez, baserriak ikertzean poza artzen ebalá esatea, zozokeria dala dirudi: gure baserritarrai euren lanak aurrera eroateko kemena emon ezezk, euren arteko autu ta alkar-izketa jakintsuetatik ainbat itz jator, esaera bitxi, kantu, olerkitxo ta abar, jasoteko oitura be ba-eban arek.

Orduan eta gaur be, gure euskaldun baserritarren ezpanetan daukagu gure euskera bizia, jator, bedeinkatua. Ez beiz iñok esan, gaur arrokeriak eraginda; esan oi diran lango tentelkeriak, arein kontra. Gure erri ta gure izkuntza maite dituna baserrira doa benetako euskera, garbi, errez ta oparua ikasten. Iturri ortako ura edanik asko ikasi eban Aita Lontzi'k; eta ondorenez, ikastetxe nagusi orretan eskolatua, idatzi egin eban aspertu barik, idatzi itz-lauz eta bertsoz, garai aretan Zornotza'n argitaratzen ziran «Jaungoiko-Zale»-n eta «Karmen'go Argia»-n.

1935-37 bitartean alkarregaz bizi izan gintzazan ementxe, Larra'ko komentuan. Ni Elgeta'ko frentera joan nintzen guda sortu zanean; berak emen jarraitu eban, baiña euskal odolaren jarioak guztiz mindu ta naigabetzen ebanik ezin ukatu. Komentura nentorrenetan orixe zan gure autua, guda-oiñetako gorabarak. 1937'gko

jorailaren 26'an Hitler'en egazkiñak Gernika austu ebenean, ni Elgeta'tik —Ermu, Markiña, Munit-bar'tik zeat— aurreko gauan oiñez etorrita Larra'n nengoan, eta bazkal ostean, or iru t'erdiak inguruan bon-bots errimeak entzun genduzanean, Bizkargi'ra laguntzeko eskatu eustan, eta nik ezin ezetzik esan; ara igon genduan biok, eta bertatik aurrez aurre ikusi genduan egazkin iltzailleen gorabera ta zalaparta guztia, Urríñeko zan etsaiaren eraso ankerra. Gernika ga'xoal!

Onmaetxea familia, egiatzko abertzalea izanik, aurrean erabillia izan zan frankotarrak sartu z'anean: anaietatik bat fusilatua izan zan, beste batzuk illak eta expetxeratuak. Aita Lontzi, ekaitz illunaren biutria ureratzen ikusiz, Frantz'a'ra eldatu zan beste karmeldar batzukaz batera, andik gero Txile'ra jorik. Ango komentuetan, amar urtetan beñik-bein, gogotsu agertu zan lanerako.

Alan be ez eban osasunik eta ezin lan askori oratu arima-zaintzan; gaxoeridun ebilkigun aspalditik. Ori gorabera, aal ebana egiñez, legegordetzeari ekin eutson aspertu barik; azkenez, gexotasunak abailduta, gogo-laguntzaz kemendurik eta bere anaiak (karmeldar anaiak) bira zituala, Jaungoikoari emon eutsan bere arima, Viña del Mar'eko komentuan, 1949-gko urtarrillaren 15'an.

Gaztetan asi jakun idazten. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale», «Ekin» eta «Karmen'go Argia»-n datoz Lontzi Abaren lanak. Argi ta garbi idazten dau, joskera ederrean. Atsegin zituen esaldi luze samarrak, bai itzaldietan eta bai argitaratzen ebazan lanetan. Naikoa idatzi eban. «Karmen'go Argia»-n, esaterako, illero emoten euskun zertxobait, prosaz eta bertsoz. Aldizkari au sortu ta asi zanean, lenengo zenbakian eta gero be bardin, izpar arloan ekin eutson gogotsu. Izparlari —gaur gazetari esan bera ei dogu— zeatza zan, eta zeregin ori be lepoan dauanak eg'n bear dauanez, bere egitekoa bete ebalá uste dogu. Ak itxita, alb'ste pilloak daukaguz or-emen euskal elerti edestirako jakingarri jakuzanak.

Naiz-ta berez A. Lontzi esaldi luze zalea izan, pentsamentu laburrak, motzak, ipuin antzera askotan, eskiñi oi eutsozan irakurleari. Neurtitz asko ditu zornotzar idazle onek, erreztasun izugarria eukan-eta bertsoak opiltzeko. Idazti eder bat osotzeko lain poesi aurkitu daikegu gorago aitatu ditugun iru aldizkarietan.

Orrez gain, Txile'n egoala, ipu'n liburu bi argitaratu euskuzan bertsoz. Ona: 1) *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* (Santiago de Chile, 1947'g. Mikel Deunaren egunean). 100 orrialde. Eun olerkitxo dira guztira, polito eratuak. Eta 2) *Lontzi Aba'ren bigarren Ipuintxuak* (Santiago de Chile, 1948). 100 orrailde. Eun poesi labur.

Ikuspegi zabala dau geienez poetak. Baita Aita Lontzik be. Praille zanez, erlejiño gaiak erabiltea eskatzen eutson aria geienik adierazoagaitik, ba-ebazan beste alderantzizko ikuspegi ta puntuak be atsegin jakozanak, aitatu doguzan umetxoentzako ipuñiak adibidez. Ia beti, baiña, Jainkoa, eliza, maitasuna ta olakoak ziran.

Ona au «Maitasun-erroa» deritxona, «Karmen'go Argia»-ren 4'gn. zenbakian, 1931gneko jorraillean datorren bost estrofakoa. Irakurri:

«Agindu zeustan zeruak, Jauna, enau ekarten Zugana,  
ta gaiztokiko su-gar bildurraz eztot lagatzen obena;  
baña maitasun zintzo sutsuaz gartu zeustandik barrera,  
Zu zara nire biotzarentzat maite ta kutun on-ona.

Zure Biotzaz nire biotza maitasun gar bat egiñik  
begiak itxi edegi baten ipunteko oso osorik,  
ez al da naiko Gurutz orretan ikustea Zu eskeirik,  
esku ta oñak iru untze lodiz nire onarren josirik?

Zure gorputza ikusi dauna odolez oso bustita,  
burua zear beatzeraño errekatxo bat eginda,  
maitasunaren maitasunez biotz guztia erreta,  
Zure aurrean apaltasunez ez da agertuko etzunda?

Nire biotzak eztau maitetu egundo Zure izenik,  
bide onetik dabilzanentzat daukozulako zorunik:  
nire biotzak bere maitetzat artu zenduzan unetik,  
sari-zigorren ardura barik maitatu zaitu gogotik.

Bide nasaitik doazanentzat ezpa'zeunko be zigorrik,  
gaur letxe bardin egingo neuke alde gaiztoko bidetik,  
ta agindu zeusten sari joria emon ez arren poz-pozik  
ludia zear nabillan arte Zu maitetuko zaitut nik».

Neurkerak, guztiz ezbardinak txandaka egin oi ebazan; geien alan be zortziko nagusia zan aren lumak landua. Egoki etorren,

antza danez, bere izakeraz eta idaz-jarioz, olerki onetatik ikusi daikegunez. Izlari bezela, bete ta oparotsu zalako, Kikeron deitzen geuntson.

Eredu lez irakur «Gaiztoen Zorionak» eritxon artikulutik artutako zatitxo au. «Goxe'ik gabe-raño —idazten dausku— lanean sendo diarduen idi ala beyak, ganeko egun baten aragitegian ilteko, kortan beste zeregin barik gizetzen dagoan lagunari begi txarrakaz begiratu ta ugazaburi ekin bearrik ezpa'dauko, atsekabe, neke, oñaze, txirotasun eta beste zoritxarpean ludian bizi diranak ba, aberastasun-ondasunen erdian, mundua zear, arrokeriz kukurruluka ta makalak ostikoperatzen dabilzan arima gaizto, zantar, lapur ta lotsagaldukoari iñartsiz begiratu ta Jaungoikoari ekin bearrean, gaiztoari errukitasunaz begiratu ta jaungoikoari biotzik eskartsu ta zintzoena agertu bear dautse».

Ez esan gero, irakurle, euskeraz ezin leitekela idatzi esaldi luzerik. Eta ondo apaindutakorik.

### BERNARDO GARRO, «OTXOLUA» (1891 - 1960)

Itzultzaile ederra dogu Garro. Mundaka'n munduratu zan 1891-VIII-22'an eta berton eta Bilbo-n bizirik, 1960-IX-14'an il zan. Il aurreko urteetan sarri alkar ikusten genduan Gorbeia'ko mendibazterretan, oso menditar eta aize-zale zan-eta. Mendiaren, itxasoaren eta euskal izkuntzaren edertasunak ziran geienbat gure autugaiak, iñoiz amaitzen etziranak, Barruan daroaguna, aoz esaten. Musika-zale zan txistua ta gitarra joten ekiana.

Umetako griñak nekez oiltzen. Nik idatzi neban beñola: «Gure txikiak, kale ertzean edo-ta itxas-egian moltzoka jarrita atso zaar maiztuak zebiltzaten berriketa ta mormoxak entzutea eder zuan nunbait, itz-gaizto, irain eta aifien-biraoak sarri egozten omen zituzten abots-biurkera ta soin-dardarizu ta paristaz. Garro gaztea aieri belarriak itsatsita egoten omen zan, kukuka bezela; orduntxe jaso zizkigun ark zeinbat ipui, esaera, esaldi, supita, itz-zuur, aien ezpanetarik bera konturatu gabe irtenak ez gutxi. Benetako auzi ta

korapilloak erabili zituen, ortaz, itzulpenak egiterakoan; kalean ikasi zuen aditza bere aldietan etzan, ziur asko, eskolan erderaz ikasten bat zerorrena be'ntzat. Euskeraz ta erderaz kalean entzun eta ikasia irabiotu oi zuen bere kautan eskolan aditzen zuenakin berdinduz. Orrela egin zuen, alegia, bere elebitza. Bietan ederki mintzatzan zan, baita idatzi ere» (*Euskal Literatura*, IV, 107 orr.).

Euskal garra ekarren barne. Gazte zala gipuzkoar gazte batzukaz artu-emona izan eban; baita euskal nobela batzuk irakurteko erea be. Añilbarro'ren *Esku-Liburua* gogoko izan jakon, berak diñoskunez. Izparringi, asteroko, bertso-paper eta olakoak, barriz, aspertu barik iruntsi oi ebazan. Era orretan, euskeraren zirkuntzulo guztiakin jabetu zan gaztetatik.

Emeretzi urtedun zer-edo-zerk eraginda Argentina'ra joan zan. Zetara? Lanera? Dakiguna, zera da: zazpi urteren buruan Mundaka'ra biurtu zala barriro, «euskaldun internazionala» eginda, ain zuzen, Euskal'errri osoko euskaldunakin itz egiteko gai zala etorri jakun etxera. Bere idaztietan be orrela agertzen jaku.

Euskaltzaiña zan. Ikas-grüñak aurrera gatoaz sarri, ta Garo be sortzetiko min ezin eutsi orri jarraituz, ikasi ta ikasi ibili jakun. Eta idazteko lera? Noiz sortu jakon? Ortarako une berezi bat bear, akulu eragillea. Niretzat euki nebazan irakasleak izan ziran bide, ni idazle izateko. Otxolua'ri —ez'zen au atsegin jakon berari—, berak diñoskunez, Kirikiño'k emon eutson aukera, 1924'an. Batzaldi bat eratu eban onek, itz ekerretik eskuira na'z eskuitik ezkerredera bardin irakurten diranen sariketa. Ibilia atzera egitea nunbait. Kirikiño onako gauzai guzt'z emona zan, idazleak sortu ta bizkortzeko berebiziko gaiak zirala-ta.

Garro'k pilloa bialdu eban batzarrera, onakoekin osoturik. Ona bi: «An atzo arro zana, senarran esanaz orra otzana»; «Aita, itxi aita»; orrelaxe eun esaldiraiño, neurkerá guztikoak. Baiña esaldi bi besterik bialdu ez ebazan andereiño batek irabazi eban leiaketa-saria, esaldi bata izan be konkurtsora azaldu ziraretatik luzena izan zan, eta saria luzeenarentzat iragarrita egoan. Garro'k aipamena izan eban.

Gerokoan, bere bizitzaldi guztian kontixu, Mundaka inguruko albistak eta barriak bialdu oi zituan astero Bilbo'ko «Euzkadi»

egunerokora ta «Euzkerea» aldizkarira: agerkari biotan azalduko ditu bere lanik geienak. Erriko izparrak beti etozan ipuin, jazoriko edo edesti-txatalen batekin amai lez txukun jantzita. Bertsoz be ainbat olerki ta alegitxo ditu biotan. Batzuk bere kabuz egiñak, eta beste batzuk ingelesetik-eta itzul'ak.

Ona Garro'ren lanik beñenak:

«Euzkerea»-n: 1) *Voronoffkék be ezin duana* (192?); (2) *Bijar Doniane-ra* (1929); 3) *Ortuzar'tar Errobusten jauparija* (1929); *Nai dogune* (1930).

Gero itzulpen eder bat emon euskun, goralpen aundiak artua eta oraintsu be bigarrenez argitara emona: *Bertolda'ren maltzureri zurrak eta Bertoldin'en txaldan'eri barregarriak* (Bilbao, 1932), Verdes Atxirika'tar Emeteri'ren irarko'an. 183 orrialde, azken iztegi luze bategaz. G. Cessare Della Croce italiarrak idatz ta euskeraz, Itzulpen au, zatika, «Euzkadi»-n agertu zan lenengo.

«Euzkadi»-n: 1) *Pisti patariak* (1934); 2) *Kurutze eg'nda dagon lekuan* (1935); 3) *Abere dontsuak* (1936); 4) *Euskalerriko aberepiztiak*; 5) *Abere Ipuñak, kontu-kontari esanak*; 6) Lapurditar J. Barbier'en «Ixtorio-Mixterio», ipuin saila; 7) *Euskerazko Toki-izenak* (Euskera, 1956); 8) *Lau Ebanjelioak*, I. Goma'ren «Eban-gelios concordados» euskeraz, oindiño ergitaldu barik.

Idazle ontzat jo eben bere garaiakoak. Eta orrela da, izan be. «Ona-idazten dau Lizardi'k, ezin polikiago ari dan idazle bat... Otxolua'ren idazki mamia, Mundaka'ko berriez ta zenbait goxoki geiagog ornitua... Bizkaiera giartsu egokia oi derabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditu idazle bikaiñenetakoak irudi za't» (*Itz-lauz*, 1934, 88 orr.). Eta Orixek: «Lagun eta irakasle dut Otxolua... Euskal'errri guztiko idazleen artean txukunenetarikoa».

Olerkari legez be egin euskuzan bere saiokak. Ba-daukaz poesi bitxi ariñak, berak bere jitez egiñak eta itzul'ak, ingelesetik eta portugaleratik. Eta kanta letrak ugari; txistua, gitarrea eta pianua jotan zitan Garro'k, eta kantatzeko bear ebezanai letrak berak jarten eutsezan. Onakoak edo:

«Kabeliña, kabeliña,  
kabeliña biotzkoa;  
nire maitetxuagana,  
nire maiteagana oa».

Noiz'k bein izan oi ebezan gitarrea artu, Iparragirre lez ibilli ta bertso barriak saldu ta kantatzeko tentaldiak. Baiña «ez gagoz Iparragirre'rena egiteko» esaten eban.

Nik onako lau sartu nituan neure «Milla Euskal Olerki Eder» liburuan, au da: «Neure ondotxutik nora?», «Lander maitemindua», «Itxaro, txoritxo» ta «Jai-li-li». Irakur egizu eurotatik bigarrena, ots, «Lander maitemindua»:

«Bidaztiak udan gerizea,  
ur baretan untziak aizea...  
Batez bere landerrak billatzen  
al dauan lez abaroa:  
mundu onetan gogait eginiñik,  
jasan bai dot asko saminiñik,  
ene biotz gaizoak zugana  
bultzez, maitea, naroa.  
Izan zakidaz abaro,  
geriza ta aize naro  
ene bizitza lander samin onetan.  
Itxi egidazu uste izaten  
izango gareala, egun baten,  
zu nire erregin,  
ni zure senarra ta jopu benetan.  
Oi, nire atsegin?».

Esan dogunez, zazpi bat urte erre ebazan Argentina'n, gazte zalarik. An ezagutuko zituan «gautxoak»; «Baneban nik izan» deritxon poesian beintzat alako baten erostak abesten ditu. Ona poema orren zatitio bat:

«Baneban nik izan,  
baneban;  
zaldi bat  
txidar-oriskea,  
zaala ta mizkea;

«Petiso» edo dana-dala neritxon,  
ifioiz ezin geldirik egon,  
bizkorra zalako,  
ta lasterra, oi ez lako;  
«musuz-atze»-ren aldia emonda be  
lasterketa guztiyetan bera zan yabe.  
A zan zaldiyaren yayua,  
neure zaldi-txiko «bayua»!

## BIXENTE ETXEZARRAGA (1891 - 1968)

Gizona, argi autortu daigun, misterio aundi bat da; gure mendi ta arkaitz artean ugari samar dagozan leza ao-zabal illunen antzekoa. Beronetzaz zerbait dakigun arren azaletik, barruz —ezpiritu, pentsamentu ta sentimentuz— oso gitxi besterik ez dakigu. Geienik maltzur, azpi-jale, guzurti, apetaz betea agertu oi jaku. Eta azala barruaren ispillu dala bape gorritasunik bage esaten dogu. Zerbait ba-dago, beraz.

Misterio au bertso gintzan aundiagotu egiten da. Errazoe ta sentipenaz batera irudimenak be lan dagi koplak sortzerakoan. Koplak-sortzea, barriz, beste edozein joko lez, asmamenarren joko mañatsua da; setati baten burualdia. Gizonak ortxe josita lez itxi daroa bere misterio edo ezkutuaren zatit bat. Irakur edozein olerki eta ikusi.

Olerkari artean, jakifia, batzuk argi ta misterio aundiagoz inguraturik agertzen jakuz, gure Lauaxeta, esate baterako, edo Erkiaga, Aurre-Apraiz... Oso misterioz jantziak nunbait. Beste batzuk errez, lau ta toles-bakoago ditugu; are n lanak, o'lerki lanak, ez jakuz ain errez ulertzeko; bigarren oneinak, bai, ostera, irakurri-ala ulertzen doguz.

Zeintzuk eta d'ra obeak? Garai bakotzeko gustoak asko esan nai dau. Gaur, adibidez, illun-zale dira artistak, naiz pinturan, na'z poesian, naiz dantzan. Ikusleak naiz irakurleak lan egin bear ei dau illunetan dagoana argitara ateratzeko. Or untzea. Artisteak berak bakarrik ez dautso lanari ekin gura, besteak be sai'a daitezala nekelanean.

Ortik, ba, batzuk goregi ta beste batzuk lauago ikusi oi ditugu, olerkarien artean naiz beste edozein artetan diarduenak. Baiña beti misterioz gaitzeka. Etxezarraga, «Zidorra» euskal literaturan, lau onein artekoa genduan.

Aran lilluragarri ontan ja'oa dogu «Zidorra», Zeanuri'n, Al-toste auzuneko Ellauri basetxean, arratsaldeko lauretan ain zuzen, lengo gizaldiaren azkenetan, 1891'ko urtarrilaren 25'an. Urrengo egunean bateatu eben. Bere gurasoak: aita, Eujenio Etxezarraga Beaskoetxea, lurgifia, Zeanuri'koa, eta ama, Benita Artifiano Orue, Zeberio'koa.

Zeanuri'n bertan egin zituan bere lenengo ikasteak eta gero Balmaseda'n. Miren Biotzaren Semeen ikastetxean urte mordo-txoan. Buruz argia zan Etxezarraga, gizon lez zintzoa ta edozein laguntzeko beti gertu egoana.

Ezkondurik be Zeanuri'n bizi izan zan, baiña emaztea il jakon. Eta gerra-aldian eta gerraondoan batez be or ibilli zan ara ta ona, penaz eta oiñazez beterik. 1943'ko epaillaren 26'an barriro ezkondu zan Iruña'n, Laurentzi Deunaren elizan. Osasunez beti izan zan meko ta aul samarra, eta Ameriketako giroa ohea izango jakolakoan, Argentina'ra joan zan, an Rawson'en bizi izanik bere arreba lobarekin luzaro. Ez eban seme-alabarik euki. 1969'ko epaillaren 25'an il zan, antxe bertan.

Naiko ikasia izan jakun «Zidorra». Beti ta nun-nai dozuz onuragarri umetako ikasiak ta onek lez komentuetan artutako sima-

siak. Bizitza zear laster erakutsi oi doguz gaztetan egindako ikasketen frutua. Au edozein arlotan. Egin-egifian be gaztetatik dakargun garra baliotsu izan oi jaku bizitzaldi guztirako.

Euskal arloari begiratu ezkerro, ez eban askok lez ez ikasle zala ez geroago bertanbera itxi basetzeko suete epelean edoski eban asabengandiko izkera ezta. Autuan euskera eban eguneroko mintzabidea. Orrez gaitz, idazteari be aspertu barik ekin eutson, ainbat euskal orri ta aldizkaritan bere lanak agerterazorik. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en eta «Karmen'go Argia»-n, Bilbo'ko «Euzkerea»-n eta «Euzkadi»-n eta «Arratia'ko Deya»-n idatzi eban batez be.

Prosazko lan artean ba-daukaz olerki edo poesi labur arifnak, beti zentzunez osotuak. Ainbat gairi ikutua egin eutson, illai, santuái, Karmengo Amari. Emen gai bi bakarrik ikusiko doguz: «Gorbeia» eta «Oldargi».

Bere jaiotzetetik aurrez aurre dauko Gorbeia, mendi galanta, atxez eta bedartza jor'z betea. Klase askotako abereak bertan, baiña ardiak batez be; an agiri jakoz artzaiñen txabolak, or-emen banaturik, zuri ta eder. Txaboletan bizi jakoz artzaiñak ia beti, baiña astero lez etxera be osteratxu bat egitea atsegin jake. Etxean bertarrak poztu ta beretarrez pozturik, barriro doa gorantza, bere ardiakana, eta artzain-lagunengana. Ipiña-burutik, Lanbreape'tik edo-ta Zanburu'tik gora igoten ikusten dau olerkariak artzain zolia. «Gorbeya'ko artzaña» deritxon olerkiak 13 estrofa daukaz, eta laugarrenak eta onela diñoe:

«Bere bularrak eztau  
arnas-soñurik;  
ezta belauetan be  
dardakadarik.

Ardiak entzun dabe,  
eztauke gorrik;  
tximista legez datoz  
giñerra artetik.

Goiz bulartsu egin dau  
uju! gogorra;  
ostian, baña, zoli  
txistu zorrotza.

Zarratu ein daunarren  
laño itsuak...  
danak artesirantza  
bere txistuak».

Errape-ugaritsuak dira artzain onen ardiak eta esne-zama arindu naian, txistua entzun orduko alkartzen dira artesi inguruan; an



daukaz zoli biribilduta; artzaiña antxe kantin luze-zabalez. Olerkariak onan:

«Artzaiña ankartian  
esne-ontzia,  
pozik emon ardiak  
daukon esnia.

Ardiak eratzita  
barriz larrara,  
artzaiña esneagaz  
etzantegira».

Eta ondoren, esnari legarra emongo dautsa. Lekanda ostean sartu da eguzkia; laster zabalduko dau itzalak bere mainduira. Artzaiña aparta egiten dau, baita lotara orduko, gaztaiak egin be. Gero, lau ordutan, atsedena-aldi.

«Oldargi» deritzonak sei ditu, seiren artean 25 estrofa eginik. Sei zatiok margo-lauki edo kuadru antzera osotuak dituzu, irudimen urduriz eioak. Izen-buruak diñoana, bat-bateko argi-uneak. Poesi iraunkorra, beti ere laburra ta ariña izan oi da; baita «Zidorra»-n oneik be, piztu-itzali dagoan izarraren antzeko begi-klisak. Bigarren zatikoak, iru aapaldi ditunak, onela diño:

«Illunabar gelsuan  
seaskatxuan,  
aurtxua lotan daua  
gotzon antzean:

«Lolo, kontuntxo —diño—  
lolo, ixillik,  
mamu ankerren batek  
eruan barik...».

Amona lo jarten dau  
aur-abestiak;  
ta ames dagi: «Daroast  
aurra gotzonak».

Bostgarren laukia itxastarrena dozu. Arrantzaleak itxasotik dabiltz, baiña illuntzean ba-datoz porturantz. Or, kaian ontzi lotuten diardue pozik, erria nasan pillotu da, alaitasun aundiz kantari. Or, besteen artean neskaxa bat, orain negar, gero barre. Aspaldi dago orrelaxe. Bere senargaia dator, urrean, arrantzaleen artean. Olerkariak kanta:

«Neskaxa batek negar,  
barre dagilla;  
erotua lez diño:  
«Ba-dator errira!».

Errian sartzen dira,  
ene zoria!  
Zoratuta danak...  
Au bai alai!».

Auxe da «Zidorra» olerkigintzan, inguruko ederraz konturatu, berau jaso ta besteai iragarten dakiana.

## LUIS GONZALEZ ETXABARRI (1893 - 1971)

Artistak beti dira gizuren; gudaldian eraso ta burruka ekin gordin-latzak irabazten dabezanak baizen errime ta garaille. Eguzko artistak —olerkari, musikari ta antzekoak ditut gogoan—, aurrelari joan eta azi ta ezi egin bear dau erria; edo obeto esanik, goretsi ta arnasa emon. Zugatz igaliz betea, emon bei ortik oparo. Adimen-indarrez eta bioz-garrez d'zditsu diran lanak, jakina. Olerkari izan jakun Gonzalez Etxabarrri, «Aizkibel'dar Bingen» olerkaria.

Ubidea, Araba'ri dautsola, Bizkaiko erri polita. Ementxe jaio zan Aizkibel, 1893-10-8'an. Dendaria zan bere aita eta semeak ikasteko era ohea euki ta liburuakaz zaletu zedin, Gazteiz'era aldatzeko asmoa artu eban sendiak. Koldobika'k an ikasi eban batxillera, Bilbo'n osaturik ondoren Jakintza ta Ederti eskolak. Abertzale sutsu gaztetatik. Bilbo'n ba-zan 1924'tik 1937'rarte abertzale gazte guztien biltokia, «Euzko-Gaztedija»; 1914'an, esaterako, Eli Gallastegi zan alkarte onen buru ta Luis G. Etxabarrri, idazkari.

Idazle lez, «Euzkadi» egunkarian idazten eban aspertu barik; baita geroago «Aberri»-n eta «Kendu»-n be, Manu Egileor, Arrien, E. Gallastegi, Uribe-Etxebarria ta beste batzuekin. Euskeraz eta erderaz inarduan. Illunean argi egin nairik beti. 1921'tik 1924'ra zuzendu eban «Aberri». Urte onetan, Primo de Rivera'ren nausitza aldi, atzerrira iges egin bear izan euskuen abertzale askok: M. Egileor'ek Lapurdi'ra jo eban, E. Gallastegi'k Mexiko'ra, Robles Arangiz eta Luis G. Etxabarrri'k Argentina'ra.

Andik be lan ederra egin eban Etxabarrri'k. Beronen idatziak daurkiguz, eta ugari, Bilbo'ko «Euzkadi»-n eta «Aberri»-n, eta Buenos Aires'ko «La Nación», «Nación Vasca», «La Baskonia», «Euskalduna» ta «Mundial» aldizkarietan; baita E. Gallastegi'k Mexiko'n ateraten eban «Vida Vasca»-n be. Ogetabost bat urtean, barri emolle izan zan «La Nación» egunerokoan, Buenos Aires'en il zan 1971-8-7'an.

Bakotzak dogu geure deia, ari edo oni ekiñez, ari edo oni guna aterateko. Idazletza eder jakon ubideatarrari, gaztetxotik ortan asi zan eta il arteraño guztian ortan jarduna dogu. Etxabarrri

jaiotzez zan euskaldun. «Euzkeltzale-Bazkuna»-koa; 1918'an, al-karte oni eskiñi eutsen bere poesi-liburu «Urretxindorra».

Aren erriko euskalkia erdi bizkaitar erdi arabar dozu. Izparrin-gietan idatziz euskera landua eban. Aditz sintetikoa darabil, «dil» (ilten da) ta o'akoak Lauaxeta'k baiño leenago sartuz. Lan jatorrak eta itzulpenak argitara ebazan. Ez da, beraz, arritzakoa 1918'an Euskaltzaindia sortu zanean berau be Oñati'n aurkitzea. Euskal Foru Aldundiak an lau gizon aukeratu zituan ortarako araudia antolatu egien, R. M. Azkue, Artur Kanpion, Eleizalde'tar Koldobika ta Juli Urkixo; urrango batzar batean onartua izan zan egin-dako araudia, baita euskaltzain osoak eta urgazleak izendatu be: Luis G. Etxabarri be, Bizkaikoen artean, antxe egoan urgazle lez. Etzan edozein moduko gizonen aulkian jarri, lagunkide bait ebazan: Bizkai'tik, Seber Altube, Federiko Belaustegigotia, Ebaristo Bustintza, Jose Maria Errazti, Jon Gurutz Ibargutxi, Gabriel Manterola, Nazario Oleaga, Urriolabeitia'tar Amantzi ta Paulo Zamarripa.

Ogibide lez eban lumaren zeregiña, eta gogaitu barik idatzi eban. Esan dogunez, ikasteak amaitu zituaneko asi zan idazten. Maite eban bere erria ta ak erabilli euskuzan gairik geienak, ezpai bage aberkoiak. Bere izenez be izenpetzen ebazan arren, lanik geienak sasi-izenez, «Aizkibel»-dar Bingen» izen-ordez etozan aren lanak. Bakotzak daki zergaitik joten dauan bide ortatik. Erbes-tean egoala, frantsesetik eta inglesetik itzulitako lanak ez ebazan gitxi emon Buenos Aires'ko «Nación» egunkarian.

Liburu lez argitara zituan lanak: 1) *Ipuin aberkoyak* (Bilbo, 1917), 102 orrialde; 2) *Urretxindorra* (Bilbo, 1918), 145 orrialde; olerki lirainak, oberkoiak geienak, eleiz ta zeru usaiña daroenak ez gitxi; 3) *Cuentos patrióticos* (Bilbo, 1920), 187 orrialde; 4) *Arana-Goiri, bardo de la Patria* (Buenos Aires, 1925), 36 orrialde, itzaldia; 5) *Cantos de Euzkadi* (Buenos Aires, 1925), 84 orrialde; 6) *La destrucción del País Vasco* (Buenos Aires, 1937). Beste lan asko daukaz kazetari lez idatziak; olerkari lez ez zituan gaizki biribiltzen bere koplak. «Hermes», «Patria Vasca», Euzko Deya», «Idearium», «Euskal Esnalea», «Vida Vasca», «Euzko Enda», «Egan» eta olakoetan datoz Aizkibel'en neurtitzak.

«Lan guztiotan —Ander M. Iruxo'k idazten dauanez— aberria-kiko biotz-zarrazta dozu nagusi. Onetan leial jokatu eban beti, naizta anai arteko burrukak ta ondorengo Laterri nagusi arteko gudak, erri-urruntasunak eta bere emazte ta alabagandik bananduta bizi bearraz ematen zion naigabeak —ez zuten ifio'z ere alkar ikusi, aiek bada etziran Arjentina'ra joan, ezta bera Euskalerrira itzuli ere—, edozein politika okerdurako gai egoki egin zutelako, ezker-aldera bultzatu zuten. Joan zan, baiña, gerrea, ta orduan ulertu zuen euskaldun jator batentzat betiko baloak, geureak dirala. Eta poliki poliki lengo bidera biurtu zitzaigun».

Lege-gizon bizkor eta idazle trebez gaiñera, ba-eban euskal li-buru egarri ta grña bizia be: txiñurri gisa ainbat euskal idazki pillotu ebazan bere bizitzaldian, eta il zanean, Buenos Aires'ko «Laurak-bat»-eko idaztitegirako geratu ziran guztiak. An dagoz gaur be agertoki aratzean.

Adierazota geratu danez, eder-senaren giltzari emonaz ez dira gitxi ango ta emengo egunkari ta aldizkarietan agertzen diran Aizkibel'en olerkiak. Orrez gaiñ, Bilbo'n egoalarik. «Urretxindorra» eritxon bertso-liburu txairoa eskiñi euskun (Bilbo, 1918), Grijelmo-Alargun-Semien irarkolean, Arbolantxa 1'an, argitaldua, «Euzkeltzale-Bazkuna»-ri opetsia. 50 oler-lan guztiz. Jainkoa, Aberria ta izadia ditu gai nagusi. Batzuk ba-ditu arnas aundikoak: «Sabin'en abintza», «Josu gurutzaldunari», «Sabin'en didarra», «Padura» ta «Ugartia», adibidez; eta beste batzuk arin eskertsuak: «Txorijaren abestija», «Maitiena», «Basetxia», «Jayokundia» eta «Sukaldian».

Joan gizaldiko ta oraingoaren asierako euskal olerkariak, erromantikuen garaian askok lez, gure gizaseme gurenak —jakitumak, itxastarrak, politikuak eta abar— kantuz goratzeko oitura eukien. Orrela dagi Aizkibel'ek be «Sabin'en abintza» deritxonean. Irakur aren leenengo estrofa biak:

«Negar samin dagixu, ene Ezkai maitia,  
zeure aurpegi illunak darakus alegia,  
ta zute bijotz onoi birrinduta dago;  
zer-eta negar ori, neu-aberri gaxua,  
eta zegaitik illun dozu zure gogua,  
ta intziriz eta alaka, zer dala-ta zago?»

Sorkaldetik euzkija agiri oi danian  
euzko lurra urreztetan beren argi-izpi pian,  
asten zara, amatxuboi, bijotzez nekausten;  
ta euzkijak barriro bere mosu gorrija  
eskutetan daunian, ama tamalgarrija,  
zure nekauste ori ezta, ez, amaitzen».

Beste au, «Azkatasuna» deritxona, arin-arifia dozu:

«Zugatz-abar artian txio-txioka eta ijuti dabillan urretxindorra, pozik bai dago ta pozik egon daike azke dalako.	Arkaitz-oyarrez ziar amatxu billa dabillan oreintxuba, beti ijutika, pozik bai dago ta pozik egon daike azke dalako.
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Ire errijon bertan,  
miñez alaka  
eta intziriz aguan  
euzko gaxua;  
pozik ez ago  
ta ezin egon, azke  
ez azalako».

Eta goi-arnasazkoen artean, Josu gurutzean josi ta illari egifia.

«Illundu da euzkija, itxasua asalatu,  
ikara ein dau lurra, oztija begikatu,  
ta tximistargi-ostez, orru-dagi ostotsak;  
txadon-euna eten da, berbixi dira il asko,  
ta ludija oñazez lotu da bixi-bako.  
Dana amaituta dago! Il da Goiko-Jauna!  
Garbai, garbai gagixan! Gurutzaren aurrian  
ta autortu dagitsagun, oben ein dogunarren,  
apal belaunbikotu gadixan min-miñez;  
ta autortu dagotsigun, oben ein dogunarren,  
bere espan deunetatik ifioz entzutiarren:  
«Gaur bertan donokijan nerekin agoke».

Itz-otsak izan daitekez erne-azten dituen ideien antzeko, naiz  
ezti, naiz zakar.

## JOSE ARREGI GARAIGORDOBIL (1893 - 1975)

Euskaltzale bikain, arat-onat urduri ibillitakoa, Barakaldo os-  
teko meatzerri gaur «La Arboleda» deritxonean jaio zan 1893-3-  
22'an. Beronen aita jatorriz Bernagoitikoa zan eta ama Amaitermin  
(Abadiño)'koa. Euskal lur erdeldunean sortua zalarik be, guraso  
euskaldunen semea. Irun'en bizi izan jatzun gaztetatik; baita gero  
be Mercedes Kruz-Lopez Larrañaga'rekin ezkondata.

Bilbo'n ikasi eban ingeniero karrera. Ori zan bere ogibidea.  
Azken urteotan Madrid'en egoan, baiña udazkeneruntz, Galizia'ko  
ibai odoetan opor-egun batzuk emon ondoren, eder jakon Ondarri-  
bi'ko egotalditxoa, osasungarri bait jakozan an ondartza ta  
itxas-bazterrak, eta egal orreitatik agiri diran Jaizkibel magala,  
Aia arkaitzak eta Bidasoa, Endaia, Irun eta Pausu inguruka da-  
bezalarik.

Madrid'en il zan 1975-11-12'an.

Etxetik ekian etukera landu nairik, Kirikiño'gaz ibilli zan ikus-  
ten. Laster jo eban euskerazko lantxoak idaztera. 1923'an, Do-  
nostian eratu zan sariketa baten saria jaso eban «Gatz pizkat on  
da» lanarekin. Aurrerago, Bilbo'ko «Hermes»-en azaldu ebazan  
lenengo lanak, Heine'ren itzulpenak. Gero, Donostia'ko «Euskal  
Esnalea»-n datoz berak ederto adabatutako «Izkirimiriak». Bilboko  
«Euzkada»-n naikoa idatzi eban; baiña Irun'go «El Bidasoa» izan  
zan beretzat aldizkariarik ederrena bere pentsamentuak eta bioz-  
kadak itzuli egizan; ementxe lan egin euskun geienik, eta ementxe  
egin eban ospetsu bere izenorde «Txingudi»: angoak deritxoe  
Bidasoa ur-potzuari.

Jakingarri dogu liburu lez emon euskun olerkizko au:

«Heine'ren Olerkiak» (Bilbao, 1927), 191 orrialde. Lendik  
«Hermes»-en argitaraturik eukazanakaz eta beste mordo bategaz,  
liburu arin txukuna —mamin eta azal— eskifia euskun. Doixtar  
olerkari fifia dan Heinrich Heine'en «Buch der Lieder» maite  
kanta liburitik sail bat besterik ez dozu. Zati bi daukaz idaztiak:  
I. *Bitarte*, 51 olerkitxo, ta II. *Itzulia*, 31 neurtitz.

Euskal itzulpenak ondo eratuak daukaguz. Ona bat:

Ai, amesetan negoalarik  
negar ugari egin dot;  
il zintzazala, enetxu ori,  
ames-egin neban atzo.  
Itxartu nintzan une ber-bertan  
ta nere masailetatik  
malko beroak, garbi-garratzak  
jausi zirean, ugari.

Ai, amesetan negoalarik  
negar ugari egin dot;  
aiztu zinaia nigaz, urduriz  
ames-egin neban atzo.  
Itxartu nintzan une ber-bertan  
ta nere malko lodiak  
tantaka iausten ikusi neuzan  
lurra bustitzen ebela.

Ai, amesetan negoalarik  
negar ugari egin dot;  
maite nozula gogoz oraindik  
ames-egin neban atzo.  
Itxartu nintzan une ber-bertan  
ta nere malko uiolea  
geitu-zabaltzen laster asi zan  
gero eta andiagoa.

Taiu orretan gaineraoak be.

### ERRAZTI'TAR KARMELE (..... - 1954)

Jatorrizko lera naiz dei bardiñak bizkor azo arren, norbait euki ezik lera orrek eskatzen dautson bide orretaz aurrera eragiteko, itota lez auspean geratu oi jakuz askotan gure sortzetiko zale-tasunak. Ederra da, beraz, onakoetan alkar sustatzea. Eta alkar sustatuz, alkar-lanean saiatzea.

Ba-ditugu, baiña ez geiegi, leen eta orain orrela jokatu da-benak. Eta senar-emazteak b' dira orreik, askozaz be obeto. Ke-perin Xemein eta Karmele Errazti, Joseba Mirena Errazti Sara-to'ren arreba, senar-emazteak z' ran, biibotarrak eta euskera soloan lan txalogarria osotu ebenak. Abertzaletasun garra, jakiña, ekarren barnean. Ez eben seme-alabarik izan.

Aspertu barik lan egin eban Karmele'k bere bizitza osoan aberriaren eta euskerearen alde: aberriaren alde, berak irasi eban Bilbo'n «Emakume Abertzale Batza», gero batzoki guztietan ainbat emakume batu ta lan bikaiña, gudatean batez be, egiñik; eta euskerearen alde, umetatik erdeldun izanagaitik, euskera ikasi ta lenengo «Euzkerea»-n, «Euzko-Deya»-n eta «Euzko-Gogoa»-n gero, artikulu jakintsuak argitaldu ebazana. Emengo gerra-aldian Frantzira aldatu ta an Pabe-n bizi izan ziran andra-gizonak; antxe il zan 1954'an Karmele.

Keperin, bere senarrak, esan dogunez, «Euzko-Gogoa» aldizkarira bialdu eban bein artukulu bat, «Euzkel-Pinkundiaren olerkirik onenak» eritxona. Karmele'k, itxura danez, ez eban gogoz irakurri, emakumezkoenik bertan artzen ez ebalako. Eta berak be aldizkari orretara bialdu eban lan guri bat, «Emakume Oleskarijak» eritxona. Arira datorrena bai da, ementxe jarten dautzut oso-oririk.

Oleritja, Euzkadi'n, euzko-abendea baxen zarra da. Gure asabeak, ludiya ludi danetik ona, abestu ixan dabe: Urtzi'ri abesti gurgarriak, gau-illaren gabetan ildakuai eresi-abestijak; mutillak neskaitillai maitasun-abestijak; etxejaun eta etxekanderai olentzaro ta Agate Deuna'ren abestijak; gurasoak umiai gabon-abestijak; amatxubak umetxubai seaska-abestijak. Gure Errijaren ogasunik ederrenak abestijak ziran eta sendi-barru, belauunik belau, gordetzen ziran.

Amabigarren eungiarano abestirik gitxi dezaugu. Amalau eta amaboskarrenian euzkel-abestija naiko aurreratuba eguan, eta amasei eta ama amazapigarrenetan euzko-abestijak ugarijak ziran. Amazortzigarrenian oleskari ospetsubak ixan ziran Euzkadi'n eta emeretzijan Euzkel-Pizkundia jayo ta ederrez jantzi zan.

Ezautzen dogun abestirik antziñeku-na «Leloa'ren kantua»  
ei da.

«Leloa il Lelo  
Leloa Zara  
il Leloa».

Bizkaitarren kantu zarra berau.

1322'garen urtekoak dira Beotibar'ko kantuak»:

«Milla urte igarota  
ura bere bidean:  
gipuzkoatarrak sartu d'ra  
Gaztelu'ko etxean,  
nafarrekin batu dira  
Beotibar'en pelean.

Beotibar,  
ai, Beotibar!  
ilda daukak  
Martín de Aibar».

Aldi berean Amandaro'ren eta Malato Zugatza'n abestijak en-  
tzuten ziran:

«Odoldurik eldu ginan  
mallatu arbola onetara,  
eta urren dabezanak bere  
alan ikusi gaitubela».

1430'garren urtian emakume oleskari zintzuak ixan ziran Euz-  
kadi'n: Lastur'tar Milia eta Ortiz de Oro eta Bidaurre'tar Santxa,  
Euren bitartian eztabaida gogorak ixan ebezan:

Lastur'tar Milia'k:

«Zer ete da andra erdiaen zauria?  
Sagar errea eta ardao gorria;  
alabaya kontrario Milia:  
azpian lur otza ta gañean arria».

Ortiz de Oro eta Bidaurre'tar Santxa'ren crantzuna:

«Ez dauko Peru Gartzia'k bearrik  
ain gatx andia apukaduagaitik,  
zeruetako mandatua izanik  
andradi ok, ala kuupli, jazorik».

Eta olan jarraitu ziran eundaka bertsoz.

Beste emakume oleskari bat be ixan zan: Otxoa eta Ozacta'tar  
Santxa. Beronek 1448'garren urtian idatzi eban. Bañez de Artazu-  
biaga'tar Martín bere senarra ildakuaren gomutaz olerki asko egin  
ebazana. Ona emen euretariako bat:

«Oñetako lur au jabilt ikara,  
lau aragiok berean berela.  
Martín Bañez Ibarreta'n il dala.  
Artuko dot esku batean gezia,  
bestean zuzi iraxegia,  
erreko dot Aramaio guztia».

Urte berean Bizkaia'n Butron eta Ganboa buruzagijan arteko  
gudaketeak amaitzeko, Ruiz de Ganboa'tar Martín eta Butron'dar  
Jone ezkondu ziran eta ezteguba gomutaratzeko euzkel-abestijak  
egin ziran, eta emaztegayak berak abestu ebazan:

«Berba orren berba grazia,  
berba orri nai ez dakiola bali;  
darloak egiñarren bere aldia,  
Olaso da ene egoteko aulkia».

Amabosgarren eta amaseigarren eungijetan be erritar oleska-  
rijak ixan ziran, onelako bertsuak idazten ebezanak:

«Munsiur Xanfarron,  
jaun andia,  
Irun'go kalean  
datza illa».

Baña gixonak eta emakumiak etz'ran bertsolari errimiak, ikusi  
dozuben lez. Oraingo aldian arek baño oleskari zindo ta zentzunes-  
kuagoak bai dira benetan. Eta Euzkel-Pizkundian emakume oles-  
kari onak ixan dira, antziñekuak baño obiak. Ona emen bi,

esaterako: «Utarsus» (Untzeta'tar Sorne) eta «Onintze» (Astibia'tar Panzeske). Biok Euzko-Emakume Abertzale-Batza»-kuak».

Eta eredutzat olerki bi damoskuz, bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz. Bizkaierazkoa «Itxartu, euzko-alabea!». Sorne Untzeta'rena dozu, oraindik Algorta'n bizi dan eskola-irakasle ta euskal olerkari erne danak ondua; eta gipuzkerazkoa, «Euzko-Gaztedija», gaur be Errenderi bere sortarran bizi dan «Onintze»-k egina. «Errenderi» Aita kaputxino olerkari sutsuaren ataba dozu berau, larogetaz urtekin zematua nik joandako udazkenean egin neutson ikustaldian, oraindik aski gordin, mistikari emona, aurkitu nebana ain zuzen. Arrezkero il izan da Onintza olerkaria Errenderin.

Gaur-egun, ostera, emakumeen artetik be zskotxo dira olerki-gintzari lotuak. Ikus Itxaro Borda'k orintsu argitara emondako «Emakumeak olerkari» liburua.

### URKIDI'TAR ALBONTSA (1894-1965)

Lurrak, ondo girotu ezkeru, frutu onak ekarten. Onakoa dozu Albontsa euskal olerkariaren senda beintzat. Oler-lanerako gartsu etorren gaztetatik, baiña garai aretako goraberak bide zirala, bere jaioterriari agur egini; Argentina'ko Salta'n, irakasle, emon bear izan eban bizitza ia osoa. Eta, or ba, murriztuta geratu jakozan gaztetako apetarik bizienak.

Sestao'n jaio zan 1894-1-15'an, Gurasoak: aita, Fernando Urkidi Urionabarrenetxea (Markiñaldekoa itxura danez) eta ama, Frantziska.

Atsegin jakon ume-umetatik lekaide-bizita ta Oñati'n asi ta osotu ebazan eleizkarrerako ikasketak; bertan asi eban nobizidu urtea be, 1913-10-13'an, profesatxikia 1914-11-1'an eta nagusia 1915-1-13'an Oñati'n bertan egini. Leen mezarako ordenazifioa, Gasteiz'en artu eban 1920-5-29'an.

Gerra aurretik, bere irakasle lana Oñati'ko seminarioan eta Salta'ko Laterandar Ikastetxean bete eban, Gerrak Oñati'n arri-

patu eban eta, iges egin bearra izan ebanez, bere azkeneko 25 urtetik gora irakasle moduan igaro zituan Salta'n, Argentina'ko Belgrado kaleko ikastetxean. An ziran, urte mordoan, adiskide biak, Bedita Larrakoetxea ta Aita Urkidi, asti-uneetan euskal arloari be ekinik.

Antxe (Salta'n) il zan Aita Urkidi, 1965-12-1'an, Aita Imanol Murua'k, 1989-11-1'an, Oñati'tik bialdutako zeaztasunak.

*Olerkari.*—Arnas aundiko olerkaria genduan Urkidi, olan agerizen jaku beintzat «Euskaltzaleak» bazkunak eratzen zituan poesiariketetan. Sariketok Errenderi'n asi ziran 1930'an. J. Aitzol'ek gero, itzaurre jakingarriz, Iburuxka baten argitaratu oi ebazan olerki sarituak eta beste garrantzitsu batzukaz batera, Bost olako ezagutzen doguz.

Laugarren alean dator (65'gn. orrialdean) Aita Urkidi'ren «Amaren-semeak». Onek, antza, poema bi bialdu ebazan Urretxu'ko olerti-gudura, «Amaren-semeak» eta «Erdotzatik Ziortzara». Ohorezko aipamena eta eun laurleko saritzat jaso zituan Urkidi'k.

Poema au dala-ta Aitzol'ek liburuxkaren itzaurrean: «Erdotzatik Ziortzara» ez'n argitar tu izan degu, orretarako beste 130 orrialde bearke genduzan-ta, Luzetxoa eta agian, illuntxoa. Badiu poema onek edertasun ugari, zatika. Aukeran motzagoa eta argigoa izan balitz, poema bikaiña sortuko zuan Urkidu yaunak. Gata, berez, kementsua, yakingarria eta noizik bein irudi bizi eta sotiltasunez apaindutakoa da».

«Amaren Semeak» 21 zati daukaz, Ona ama zeure aogozagarri

Mendia gure «aita» ta itxasoa gure «ama»  
Olatu ta arkaitz gogorren seme indartsuak gara,  
Kantauri itxas-orrua eusko-irrintzien garra!  
Gogo Yaun-Go'ko Yauna ta bizia anaitasuna  
Azpi-oiak azkatasuna  
Euzkia burestuna  
Añiemendi erraldoiaren bulatra gure indarra!

Nun dira «abenda» ori margozteko margoak?  
Nun «Andera» orren ederra yasoteko besoak? ...  
...Izarren erraletako lira gelgarritsuak...

Itxaso erraietako lira gelgarritsuak...  
Guztiok baiño ederrago «lora» egin Goikoak...  
Itxartu ta abestu, seme, zeure Amaren ederrak!

Yainkoak «baso-seaskan» lo dagitso Amari  
Azkatasun-egoetan lotan dauko ameslari...  
Ta arrano-ego luzeak itxar erain-erain berari?  
Belarrira ta burura be zoliago difioste besteak:  
Goikoak baso-seaskan lotan aukan Euzkadi  
Azkatasun-egoetan lo zetzan ameslari...  
Ta arrano gosakil orreik loa kendu Amari?...  
Irrintzi dagi basoak, itxasoak irrintzi;  
«Birrindu erromatarrok, lotsa-zulora yaurti,  
Egoak zeatz ebagi,  
Estuntza barik bizi!».

Ta ekalantxe yazo egin zan; yopu-ezin euzkoak,  
Alperrik etozan ona zabal-zabal egoak...  
Ludia katigu zala azke-yai basotarrak!  
Ta arrotarun suteietan gorituriko estuntzak  
Birin egin euzkotarrak:  
Anibal... baino lenago Europa'ko aiton zarrak!

Sifnismen-izarren argiz... lauburuko bidean  
Goi-gorantz yoiazan gero Urtzi-maitasunean.  
Zifnopatik etzan izan euzkoen legorrean;  
Borrerurik be etzalako sortu Aman sabelean;  
Goikoak ixur zituzan amaren magalean  
Lauburu ta Askatasuna laztan gozo batean!

Gogoak... lizunkeriz ta maurotarrak indarrez  
Orreik be gure Aman eder yori argi girifnez  
iraduz ibilli ziran guda gorri sugarrez! ...  
Ta arein biurri orreikdiaurrezan bakotzez  
Kantauri ta Añamendi'k bularretako barrez  
Txaloka yardun oi eben azke-egarri ta gosez.

Lauburu-kerizpearen azkatasun-esian  
Zoruntsu z'ran euzkoak sifnizmen-goi argian  
Euron buru, euron yaube, itxaso ta mendian...

Olatuen txaloakaz... tantaien irrintzian  
Goikoak ezarririko maite-lorategian...  
Abenda oro-zelaian  
Obarik ez ludian!

Itxaso-errai-semeak... bulartsu ta ausarti  
Gaurko itxas-antzarren buru sarri egon ziran sarri  
Egige itxas-zelajian itxas-lapurren esi  
Ekatzan irrintzi-bide Kantauriko nagusi! ...  
Ta arraintzan Ludi burura yoiazan ameslari...  
Baita urrezko seaskan be... mun eitera euzkiari!

Itxasoz itxas antzarrak  
Legorrez... menditarrak:  
Ta Orrega'ko arroan euzkotarren indarrak  
Betiko ebai zituezan erefiotza adarrak.  
Frankuen arrotasunak... morroztu basotarrak;  
Mendi-zeur, mendi-zer... Karloman'en negarrak  
Bustirik busti eutzuzan euzkotortzez izarrak!  
Orreaga... Orreaga... Itxartu euzkotarrak.

Lotan da barriro Ama, lo naroz ameslari:  
«Urtziren biotz-ontzitik yainkokiro dixuri  
Azirik gure-gurena Gernika alabatxori  
Urneaz yoiari azia, goraka yori-yori...  
Aundirik lora-mendi da... semeok eder-mendi!  
Ta Amaren euzko-semeak... laztanka Aretxari!

## MANU SOTA ABURTO (1897 - 1979)

Bilboko andikien artekoa. Sir Ramon Sota'ren semea. Gudu  
aurrean Bizkaia'n eta gero Biarritz'en euskeraren onerako ainbat  
lan egina. Gerra aurretik, 1932'an, Tolosa'n, Lopez-Mendizabal'en  
irarkolan ateraten asi-barri zan «Antzerti» illerokoak, bere leenen-  
go zenbakian, Cocteau deitzen dautso Manu Sota-ri. «Onela deitu

genezaloke —diño— Sota Aburto idazleari. Antzerkirako doai berezia du, ta euskeraz idazten dan ezkeró, ez dezala aztu gure Antzertitxoá». Euskaldun barria, garai aretan gure izkuntza ikasiz, euskerazko lan motzak, laburrak, olerkiak eta, «Euzkadi»-n argitaratzen euskuzana.

Bizkaiko itxas-egalean, Ondarreta'n jaio zan 1879-VII-29'an. Ikasketak egitean eta gero, gai guztietatik elertia, literatura eban begikoen, arimea suspertuta beteten eutsona. Laster asi zan idazten or-emengo aldizkarietan, erderaz batez be. Abettzale zintzoa bait zan, euskal gaiak urratu ta arnas-aunditu euskuzan ele bietan, Tolosa'ko «Pyrenaica», «Euzkadi», «Euzkerea» ta olakoetan idatzirik.

Primo de Rivera'ren agintaldian ixillik egon bearra izan ba eban be, inguruko iraultz-endarren erasoá zala-ta, jausi zanean, inundiko antzerki ta teatru zaletasuna sortu zan Euskalerra osoan. Antzerkia, izan be, aditazle bizia da, jolas antzera, entzule-ikusleen biotzondoa ikutu ta samur-erazteko; «zentzun guztien bidez sartzen da antzerki-gaia giza soñean, gogoraño elduaz» esan euskun norbaitek. Egokia, egia esan, erri-maitasuna zabal-azteko. Eta ortan arduratuko jaku Manu Sota, ainbat antzerki-lan oreturik.

Guda aurreko urteetan M. Sota izan zan teatru-lanen zuzendari ta bultzatzaile, Bizkai aldean batez be, antzetzalde errime sutsuak sortu-azorik. Gudaldian 1937'an, Biarritz'era aldatu zan, eta antxe itxas-gaiñeko bere egoitza atseginiñean bizi izan zan oraintsu arte. Ez geldi gero, euskereari ta euskal gauzai oso-osorik emona baiño. Ni, 1953'en, olerki billa mugaz andik ibilli nintzanean, oso maitekor artu ninduan bere jauregian, bere euskal liburuak arazteko bereziki, erreztasun osoa emonaz.

Lapurdi ta inguruetan ospatzen ziran euskal jai guztietan parte artzen ebana genduan: baita Lourdes'ko beilari guztiakaz artu-emo estua urteetan izan be. Gero esango dogunez, euskal idazleen lanak aztertu ta aztertu, lan ikaragarria burutu eban egundo be aspertu barik, geroago azalduko zan «Diccionario de Autoridades de la Lengua Vasca», bederatzi tomoko iztegi arnas aundikoa.

Manu Sota ao-eder genduan esaten eta luma gozo idazten. Garai aretako gerrak, ostera, erdit'k itoa itxi eban bilbotar gaztearen

idazle atsa; baiña barruan daroaguna gaiñetik astindu eziña dan ezkeró, M. Sota'k be, naiz eta ixil samar, bere idazarloari muzin egin bage, ikerketari ekiñik, lan oso baliotsua burutu euskun.

Azken urteotan Bilbo'ra itzulirik, bertan il zan 1979-XII-16'an. Euskaltzaindikoa.

*Idazle.*—Idazle oso ugaria ez, baiña bai naiko oparoa izan jakun M. Sota. Antzerki-lanak dauz geienbat eskiñi euskuzunak. Ona emen sail bat, neure «Euskal Literatura»-an (V-garren alea) datorrenez; M. Sota-k erderaz idatzi ta, euskeratuak, gure errietan askotan emondako lanak dituzu.

1. *Negarrez igaro zan atsoa* (La vieja que pasó llorando). Lauaxeta'k euskeraz jarria diño «Antzerti»-k, 1932'ko jorraillaren 17'an Durango'n Kirikiño'ren omenez egiñiko geratzarre egunean bertoka neska-mutillak emo eban. Baita Zarautz'en be orrillaren 7'an, Algorta'n garagarrillean eta abar.

2. *Iru gudari*. 1933'an, Bermeo'ko «Antzorki Barri»-ri lan auxe anteztuz emon jakon asiera, geroz be erriz erri bala-bala ibillia.

3. *Libe*. Arana-Goiri'k gure Aberria jasotearren, gai askori ikutu egin eutson, izkuntza, edesti, erriketa, legedi, antzerki... «Libe» erti-gaia be Bizkaiko kondairazati bati begira asmatua dau; Arana'k erdi-amaitua itxi eban lana M. Sota'k osatu eban, gero ainbat lekutan antzestu izana. Onela *Antzerti*'k, 1934'ko epaillaren 3'an Bilbon lenengoz «Oldargi» taldeak aurkeztu ebanean: Bost ekitalditan zatitua dago «Libe», zein baño zein ikusgarriagoak. Antzekizuna atseginiñago izatearren, tarteka-marteka eresi abestuak entzun erazten dizkigute. Irugarren ekitaldian berriz dantzaldi polita, ezteidantza albokarien soñuaz joa. Anitz antzezleri bear dituan antzerkia degu «Libe»; taldeka. Antzez-lagun nagusiaz gañera, erri-gizonak, aldun, gudari, sal-erosle, itxastari, ander, muti... Orrenbesterañoko giza-taldeai igitu ta erakutsi araztea ez da erreze».

4. *Buruzagiak* (Los Caudillos). P. Pearse irlandatar martiriak ingeleraz osotu eban (The Singer) antzerkia, izen, toki, notin eta gaiñerakoai euskal tankera erantsiz Sota'k erdera itzuli ta J. Altuna'k euskeraz jarria. Atal batekoa.



5. *Gosemin eta Azken ordua* (La última hora). 1934'an argitara emonak; atal bakarreko antzerki bi dozuz. Erderaz dagozan arren gaurko euskaldunen kezka buruz taiutuak. Sota'ren lanik eldu sikonenak, kritikariaren ustez.

6. *Urretxindorra*. 1935'ko agorraren 14'an, Portugalete'ko antzokian emona.

7. *Itxaro-itxarra*. Antzerki au Bergara'n antzeztu eben «Oldargi» taldekoak, 1930'en Eusko-Ikaskuntzak eraturiko euskal jaletan; gero, Durango'n Kirikiño'ren omenez eginiikoetan bardin, eta Lekeitio'n 1931'gerren urtearen azkenerantz.

8. *Siaska onduan eta Estropadiak* be bereak ditu, «Oldagi» taldeak Berengeren egunetan antzeztuak.

9. *Oztin* (1932). Altuna'k euskeraz.

10. *Iztegia*. *Diccionario de Retana de Autoridades de la Lengua vasca* deritxona. Lau ale «La Gran Enciclopedia Vasca»-k emonak, eta beste bost beintzat irarkolako gertu. Iker-lan izugarria, azken berrogei urteotako lanaren frutua, gizaseme langille ixil batek eta ekin osotu dauskuna. Azken argitalpenetan P. Lafitte ta L. Akesolo'ren laguntza izan dau.

*Olerkari*.—Itzez eta lumaz adierazo ebanez, eder-zale fiña zan. Or daukaguz lekuko lez aren teatru-saioak, irudiz ta gaiez eta metaforaz ondo apainduak, eta biotz-zauskada sotillez bero-bero.

Nik, urteak dirala, an eta emengo olerkiakaz «Milla Euskal Olerki Eder» liburua leiartu nenanean, Sota eta Aburto'tar Imanol'en poesi-lan bat be batu ta sartu neban bildume orretan; 716' garren orrialdean datorrena, «Tis-tas eta din-dan». Geroztik Enbeita'tar Kepa, Muxika'ko Urretxindorraren bertsoak eta Lauaxeta'ren olerkiak batzean, konturatu izan naz beste sei bat be argitaratu ebazala «Euzkadi» egunerokoan, Euskeraz ikasten ebillela idatzi ta Lauaxeta'k, ikuturen ba zuk eginda, argitaratzen eutsozan.

Sagar-ale bat sarti naikoa izaten da dalako sagar-ondoak zela-koak emongo dabezan jakiteko. Eutsi zuri be, irakurle, batxo au eta zeuk ikusi zelako olerkaria genduan Manu Sota. «Tis-tas eta din-dan» deritxona bera dozu.

Gau ixillean,  
oldarrak arrapatzen gabeukatza dua,  
armarmasare bat legez.  
Tis-tas tis-tas,  
Aldiaren biotza betikoz, andeatuten dago.  
Gabegaz itzaltsu zan ogokian,  
din-dan bat entzuten zan tis-tas aren esneurkiñagaz;  
seaska ankatxuak ziran,  
izaki barri bat eruan aziten.

Orain, ogokia bardin dago, eta bardin gabaukiak;  
baña seaska-ankatxuak mututu dira;  
din-dan, din-dan, abots itunagaz,  
bere abestia, bein, amaitu eban.  
Beian ixiltasuna eguan,  
baña goian —tis-tas, tis-tas— gabeukatza jarraitu eban,  
oldarrak jositen betitasunaren soñazkian.

Tis-tas, tis-tas, beti jarraitu dabe  
ziztadak gabean.  
Seaskeak, uts ta mutura,  
atsedenakin nekatuta, ortzeri diñotso:  
«Barriz ibili gura dot;  
gogo bat barriz gura dot, bizitz-ziar eruan dagidantzat».  
Eta arratsalde batean.  
seaska kulunkatuten asi zan.  
bere ankatxuakin egiten, oso alai, din-danakadak.  
Baña axian dagon tis-tasa,  
itun aztaltxukin orma baltza ganian dabil,  
bizitz barriari oldarrak ostuten dagualako.

Itz ez-ezagun batzuk: oldar (momentu), gubeuokatz (erloju), er-  
marmasare (amareun-sere), andeatu (agortu), ogoki (gela), esneur-  
kin (konpasa), ezaltxu (ointxo).

NIKOLAS BARRENETXEA URIBASTERRA  
(1898 - 1988)

Igorre'n jaio zan «Yurre'tar Julen», aita kaputxinoa, 1898-12-5'an. Altxatu'n, gero be eriotzara arte, ainbat urtetan bizi izan dan komentuan ikasi ebazan latin inguruko ikasgaiak, Zangotza'n arturik kaputxino jantzia. Ondarribi'n Jakintza ta Iruña'n Teologia egin ondoren, uri onetan artu eban apaiztasuna 1923-3-31'an.

Itzaldiak egiten ditu euskeraz, eta idatzi; Donostiko «Euskal-Esnalea»-n agertzen da bere lenengo olerkia, «Gogo garbia», 1911'an. «Zeruko Argia»-n, idazleen buru dala, idazten dau.

Iru bat urtetan Euskalerrian lan egiñik, euskal arloan batez be, 1927'an, mixiolari izan naita, Txina'rako bidean jarri zan, beste iru kaputxino lagun zituelarik. Lenengotik, 27 urtetan, iñoiz be Txina'tik urten barik, Kansu'n lan egin eban; ogetazazpi urte orreitatik amazortzi Mao-Tse-tung'en mendean. Agintari gorri onek, azkenez, bota egin eban lurralde aretatik beste euskaldun mixiolari askorekin. Aita Yurre ta Soloeta'k, biak arratiarrak, biak azkenerrarte iraun eban mixiño-lurrean, baiña 1953'an Mao'ren gudariak joan jakezan eta indarrez bota ebezan andik.

Aita Barrenetxea'k berak diñoskunez, bultzai ta kamioetan luzaro ibilli ta gero, urrengo urteko urtarrillaren erdirantza Txina'ko muga igaro ta «zurezko zubi txiki-txiki batetik», Hong-Kong'era sartu ziran. Aita Yurre'k Manila'n artu eban illa bi geroago Euskalerrirako ontzia, ta arrezkero eusko lurrean ibilli jakun lenengo Ondarribi'ko komentuan eta 1957'ko udagoienetik Altxatzu'koan, beti langille. Bertan emon eban azken arnasa.

Etzetik ekian euskera landu ta osotu egin eban ikasle zala be. Eta laster asi zan idazten; Ondarribi'n eta Iruña'n egoala, «Euskal-Esnalea»-ra bialdu oi ebazan euskal lanak, eta gero, mixiolari joan aurretik, Idazleburu izentatu ebenetik nunbait, «Irugarrengo Prantzizkotarra»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi euskun sarti samar.

Txina'n mixiolari ebillelarik, ostera, gizaseme langille amorratu lez, ba eban astia «Zeruko Argia», Zornotza'ko «Jaungoiko-Zal», Bilbo'ko «Euzkadi», Gasteiz'ko «Gure Mixiolaria», naiz beste al-

dizkari ta eguneroko batzuetara ainbat lan bialtzeko. Gerora be ez dau gitzi idatzi «Karmel» eta «Oleri'n ez-ek, Bilbo'ko «Agur» Baiona'ko «Herria», «Alderdi» ta Donostia'ko «Egan»-en. «Motxogan» eta «Itarka» sarti erabili ditu idazlanak izenpetzean.

Bereak ditu urrengo liburuok be: 1) *Loramendi; Bedoña'tar Joakin Abagai Kaputxinoa* (1807-1933). *Oleri ta idatzi guztiak* (Zarauz, 1960); 2) *Loramendi eta aren garaia* (1962); 3) *II-garren Batikano Batzarra* (1965); 4) *II-garren Batikano Batzarra* (1967); liburuok Eleiz-batza nagusiari buruz euskeraz egindako lanetatik ederrenak dira.

«Zeruko Argia»-tik dakigunez, mixiolari joan baiño leen bertsozko lanak be, kopla politak, arildu zituan. Ona an datorren eta nire «Milla euskal Olerki eder» (648 orr.) liburuan daukazun «Jesus Aurtxoa» deritxon 23 aapaldioaren lenengo bederatziaik:

«Seaska batean dago Jainkoa,  
Zerutik etorri zaigun Aurtxoa.

Aur politagorik ez dut ikusi;  
Izarrak bezela ditzira dagi.

Urrezko illeak, ezpain gorriak,  
Zeruak iduriz, urdin begiak.

Musuak dirudi lorategia;  
Bi masail ederrak, arrosa bana.

Seaska ondoan dago Maria,  
Errurik gabeko lili zuria,

Eresi samurrak otuz ari da,  
Lotan jarri dedin Seme laztana.

Aingeriuk dira zerutik jatsi,  
Zillarrezko egoz Aurra estali.

Goizean arrosak zabaltzen dira;  
Aurrak ideki du ao polita.

Ta gozo dario mintzo ezea,  
Egun-sentiaritza bezala».

Gaiñerako 14 estrofa Amagazko alkar-izketa gozoa, aingeruen egazka ta kanta pozkorrak, iru erregeen etortea ta abar abesten dabez.

## BUSTINTZA'tar ERROSE

(1899 - 1953)

Euskal literaturan erabili euskuzan izen-ordeak: «Mañariko» eta «Mañari'ko Errose». Izurtza'ko seme Bitaño euskal idazleak onela margoztuten dau emakume idazle au: «Euskeraz asko ta ondo idatzi daben idazle bat dogu. Batez be idatzi ebazan elezar antzerako kontuak dira aipagarrienak. Bere buruz asmetan ebazan kontu politak, asmakizun aundia eukelako. Erriko jendeak agoz-ago erabilten dabezan sorgin-kontuen antzerakoak egiteko euki eban ekarri aparta».

Emakume argi au Mañari'n jaioa zan Zumelaga etxean, 1899-9-3'an. Aizta bi, Basili ta Errose, ta biak Bustintza'tar Ebaista'ren lobak. Gerratean erbesteratu bearra izan eban, eta Prantzian egotaldi polita egin ostean, Mañari'ratu zan barriro be ta ementxe bizi izan zan beti. Etzan ezkondu. Azkenik, emenxe il zan leuzemi edo odol-zurbil gaixoz, 1953-8-20'an.

Euskeraz txairo erabilen lumea. Eta bego emen be nik, beinola, *Milla Euskal Olerki Eder* (756 orr.) liburuan esana: «Idazle biotz-samur ta ezta, mitxeleta egon-ezin antzera, mendi, baserri ta arkaitz-zulo zear ipuin tximel billa, iñoiz nekatu etzana». Irudimen zoli azkarra dau; ingurukoen agotik jasotako esaera, elezar eta ipuñez lan ederrak osotu euskuzana.

Naiko ugari idatzi eban «Euzkadi» egunerokoan, «Euzko-Enda»-n (1939-40), «Gernika»-n (1951), «Jesus'en Biotzaren Deia»-n (1952), «Karmel»-en (1956), eta abar; 1930'tik 1936 bitartean, ia astero bialtzen zituan «Euzkadi»-ra Mañariko izparrak. Olerkitxo ariñak be itxi ebazan Bilboko «Jesus'en Biotzaren Deya»-en eta «Anaitasuna»-n. Nk 1954'an iru aukeratu nebazan *Milla Euskal Olerki Eder* libururako; oneik; «Abesti zarra», «Josu'ren Bizitzari» ta «Seaska abestia». Ona lenengoa ta irugarrena:

## ABESTI ZARRA

Eskumendi'ko artzaiñak  
maite nindula iñustan.  
Aren berba leun-goza  
aizeak eroan eustan.

Artzain maitea il zala  
aste bi igaro dira;  
Gure amesen lora guriak  
guztiak igartu dira.

Lañoak berantza datoz...  
izarrak ostendu dira.  
Iretargian mosu zabalak  
argirik eztau ein gura.

Itxasuan ur gazia,  
beaztuncan mingotza...  
Nire bioztxo gaxo-gaxoan  
arantzearen arantza.

Tamalez naz, tamalez;  
ez daukat alaitasunik.  
Ene maitean eriotzea  
gomutan daukat bizirik.

Gabean nago negarrez;  
egunez barriz, tamalez:  
Aldi guztia igarotzen dot  
atsekabe ta samañez.

Len pozik etorten nintzan  
irak ebaten mendira;  
Orain, ostera, negarrez nago  
ardi zuriai begira.

Eskumendi'ko artzaiñak  
maite nindula iñustan.  
Aren berba leun-goza  
aizeak eroan eustan.

## SEASKA ABESTIA

Udabarriko goiz ederretan  
larrosoduak loratzen,  
ama-biotza maitetasuna  
abots gozuaz abesten.

Egun argia igazi da-ta,  
gau lañotsua ba-dator...  
Zoragarriko lotxo gozua,  
geure umiagana ator.

Ene kutuna, lotxo egizu  
ames gozoez altzuan;  
zure sointxua siaskan dago,  
gogua batriz zeruan.

aingeruak kulunkatu.  
gure txikian siaskatxua  
ipar-aiziak igitu;  
Zugatzeko orri guriak

Odei-landako zelaitxuetan  
gotzon-taldia jolasten,  
umetxuaren omenez dabiltz  
danak batera dantzatzen.

Andoni Deunan besoetako  
umetxo zoragarriak,  
ene laztanai ekarri dautsoz  
jostallu miragarriak.

Andrakila ta pitxi politak,  
tanbolin eta txistua,  
eta ganera burdi eder bat  
loraz apaindutakua.

Larrosa eder zuri gorriak,  
krabelin lirain txukuna,  
eta zitore-txorta ederra,  
biotz garbien kutuna.

Bai ipuñiak eta bai o'erkiak, ez izan zalanizarik, zentzun aundiz osotuak dituzu, euskal odoleko txiletar Mistral Nobel saria lortu ebanaren pareko. Arek be *Ternura* izeneko poesi-liburua, adimen eta biotz, samur, gozo ta sakon, arildua dauka. Andima'k onela: «Trebea duzute Mañariko Errose ipuñiak idazten, gure artean garaienetakoa nik uste oraingo ontan. Ba dizu irudimena, ta ba dizu batez ere biotzondo».

Izurtzar euskal idazle nekegaitzak barriro be: «Gai ta bide errez egokiz, antze ta elerti balio ziurrezko idazlanak lortu zituen. Nun ote dugu orren ezkutua? Egizale izan zitzaigun bere izakeraren ariora, ta jaio ta il zan bere txoko laztaneko baserriarren kontaeretan argi-erazi ta mugitu zan». Mañari, izan be, tokiz eta jentez, orri dagokiona dozu, aukerakoa inñolaz be. Untzillaitz, Mugarra, Urkulu, Eskubaratz, Saibigain, sorgin-lamifia ta maitagarritz beterik, egokiak dira, berezkoak nunbait, elezar-gaiak eskintzeko, leize baltz, saguxar eta baserri-jente misterioisuz gainezka.

A zelako liburu bikaina osotu geinkean Mañariko'ren ipuñiak eta osterantzeko lanak osorik emonaz! Eta laster egitakora, da, itxura idanez, Errose'ren ipuin bildurra ni.

### KOSKORROTZA'TAR GABIN (1899 - 1973)

Izpazter eta Lekeitio tartean Gardata euzunea, ta Gardata gainean Zatika auzunea ta baserria, eleizaz Lekeitio ta erriz Izpazter. Leku lilluragarri, itxasoa ta Lekeitio uri leifargia begipe ditula.

Loratuakaz atsegindu ta  
izar artian jolastu,  
beko arantzen samintasanak  
emen ez dira txastatu.

Udabarriko goiz ederretan.  
lartosonduak loratzen,  
ama-biotza maitetasuna  
abots gozuaz abesten.

Ementxe jaio zan Koskorrotza 1899-2-19'an. Bere gurasoak: Pedro ta Antonia, seme bat gaur be bertan bizi da ezkontuta, baserriko lan eta zeregiñetatik bizi be; solo ta landa edatuak, ainbat igali-mota (sagar, madari, okeran, intxaur, piku, urretx ta abar) eta aretx, arte, gurbiz eta txaparrez eder inguruak.

Liburu zoragarri dogu izadia; Gabin'ek ba-ekian liburu orren ostos artean irakurten. Eskola aundikoa etzan arren, arduraz ta zurtasunez eroan oi zituan etxeko gauzak, eta errikoak; beraz guda aurreko auteskudeetan erriko, Izpazter'ek Udaleko ziñegotzi aukeratu eban erriak. Gerra ondoren, baiña, txarto erabilli eban orrek: epaiturik, eriotz-zigorra leporatu eutsoen, eta uste barik igestu zan lakiotik, Dueso'n egon zan, eta Larrinaga'n, eta eriotz-zigorrez anindurik, iru urte bete ebazan Puerto de Santa Maria'ko kartzelan.

Etxera biurtu ta ementxe bizi izan zan, etxeko baserri-lanari loturik; abertzale zintzo leiala beti, 1973-8-1'an itxi eban erbeste au.

Euskaltzale gartsua, ganoraz ekian bere pentsamentuak lumaz azaltzen be. Gerrara orduko «Euzkadi» egunerokoan agertzen ziran bere erriko albistak eta o'erkiak, labur eta dotore arilduak. Espetxean etzan lo egon: nik ba-ditut orduan ak egiñak, geroago osotu eban mordokoen artean. Atsegin ebazan bertso motzak, eta obeto errepikaz jantziak ba'ziran. *Iparra* erabilten euskun bertsoak siñatzean.

Santoña'n alkar ezagutu genduan, eta arrezkero adiskide min lez jarraitu, noizik bein alkar ikusiz. Bein, olerkitxoak «Olerti»-rako bialduz, idazten eustan: «Aita Onaindia. Neure bijotzeko jaun agurgarrija: Emen juatzuz neuk zelanbait batu ta atondutako izneurtuok, zeure idazti balijoko balitzakixuz. Lenguan esaten neutzun lez, lengo illaren amaikan Leketton itxaroten neutzun, baiña etziñan agertu ta kitu. Lengo egunian artu nituan zeure gorantzijak Don Josen bitartez, eta eskerrik asko. Geyago barik, agurtuten naz eta agindu beti Jel-pian zeure aberkide Koskorrotza'tar Gabin».

Eskutzit onegaz batera zortzi olerki bialtzen eustazan. Ona euretatik bat; zazpi aapaldikoa, «Ene balkoi zar!» deritxona.

Geure etxiak balkoi eder bat  
sortalderuntza begira.  
Eta bertotik bista aundija  
itxasora nai mendira.  
Lekeitio ta inguruak be  
eroso ikusten dira.  
Ain ikuskizun ederren jaube  
balkoi guztijak eztira.

Ene balkoi zar bijotzekua,  
zeuri begira naukazu.  
Iru-lau bertso abestutia  
laketu biar deustazu.  
Gurao zarrak esatebenez  
bedeinkatua zara zu,  
Lekeiti'ko Ama Birjiña  
altzuan eukingo dozu.

Zeure altzotik Lekeitorea adi  
jarriten gareanian,  
bertan elexa aurrez aur dogu  
geure begijen aurrian.  
Bere barruan gordeten daula  
elorri zuri ganian,  
Lekeitiarren Ama andija  
iruditxu apaifian.

Aintzat artzia gura ba'dogu  
geure urren datozenak;  
geuk bere aintzat artu daiguzan  
aurretikoen esanak.  
Eta maitatu euren oitura  
baztertuta dagozanak,  
aintzat artzia merezi daigun  
zeruetan dogun Amak.

Euzko Errijak sarri ixan dau  
ezbiar ta gudatia,  
Euren artian bigunena ez  
aintxiñako Prantzestia.  
Ordu latzetan sartu ai jakun  
bildurra eta kezkoa,  
eta maitien doguna galdu  
ez dakigun arduria.

Antigua'ko Ama maitia  
betiko galdu ez eian,  
Lekeitiarrak arriskupetik  
onean jaso eiezan.  
Balkoi ontatik euren urija  
zaindu ta jagon egizan,  
ta Ama kutunan ardurapian  
baketan bixi eitezan.

Aldi atako Lekeitiarrak  
bai maitasunaz jokatu!  
Atzerritarren erpietatik,  
Amatxu, dnok gaizkatu.  
Orainguok be, nai ba'dozue,  
esker oneko agertu.  
Antigua'ko Amaren oroiz  
balkoi onegaz ez aztu.

## SORNE UNTZUETA

(1900 - .....)

Euskal literaturan ez dira gitxi euskeraz idatzi daben emakumezkoak. Danak bat-banatzera ezkereto, mordotxoa egingo leukie. Bizenta Mogel'egandik asi ta gaur idazten dabenetaraifio, Jone Azurtza'ganaiño abididez, izen-erreskada polita eioko geunke. Azken urteotan, izan be, aomen andikoak ditugu: Tene, Julene Azeitia, Onintze, Maite, ta abar; guztiokin sail ederra osotzen da. Onein artekoa dozu Sorne Untzueta be.

Lauaxeta bizkaitar olerkari gurenak sarri goratu eban euzko-emakumea, bertsoz eta prosaz. Eder ikusten zituan euskal alabak, naiz sukaldeko arazoetan langille, naiz gizarteko gora-beretan, politikan, ofiziñan... Eurok bai dira geroaren itxarokizun: aundikiro abestuak daukaguz bere poemetan, eusko alaben soin-edertasuna ta biotza.

Emakumearen biotza, izan be, arrokeri ta andiputzak —edo-ta lizunkeriak— usteldu barik dirauanean, ederra dogu, zoragarria; literatura testigu, ze'an ikusten zituan gauzak, esate baterako, Gabriela Mistral'ek! Biotz leun, adeitsu, saniurra darakusgur daradaraz «Ternura» bere poesia-liburuan.

Sorne Untzueta be euskal idazle ta olerkari dozu. Prosaz eta bertsoz idatzi dausku. Abando-Bilbao'n jaioa 1900-11-27'en. Berton osotu zituan bere ikasketak, Maistra karrera egitiñik. Gero, Errigoiti'n, Plentia'n, Lemona'n eta Berango'n erakatsi eban. 1930'an Lemoa'tik idazten dau «Euzkerea» aldizkarian.

Errepublika garaian batez be, 1931'tik aurrera, erririk erri ibilli yakun izlari errime, eusko emakumeak erriketa ta politikan daukazan betebearrak euskeraz eta erderaz adierazo ta zabaldurik. Gerratean Prantzi'ra anka egin euskun, Paris'ko «Euzko Deya»-n olerki batzuk argitara emonik. Gaur Euskalerrian bizi da.

Euskal idazle dogunez, Bilbao'ko euzko gaztediak zuzentzen eban «Euzkerea»-n, «Euzko Deya»-n esta Guatemala'ko «Euzko-Gogoa»-n azaldu d'itu batez be, bere idazlanak. «Utarsus» izenordea, edo laburtua, erabilli dau sarri.

Eder izan dau bere arloko gaiak erabiltea. Ikastolan ikusi ditun gaitzak eta erreztasunak, umetxoak euskeraz ta erderaz ikastea, esaterako. Zentzun andiz b'ribildua dau «Ikastoletan bi elez» deritxan lana. Ba-daki ondo be umetxoen biotzak zelán zabalitzen diran, eta adimen-orriak; zelako burruka sortzen dan, laiño artean lez, bi izkuntzen artean; burruka ortan zelán jokatu bear dauan irakasleak, eta umetxoak.

Biran daukaguzan gauzak eder opaka dagoz. Gu, alan be, ez gara sarri ortaz konturatzen. Eder-jasotzailleak bere biziko pozak izan oi ditu: olerkariak geien bat orrelakoak izaten dira, inguruko ederraz konturatu ta barruz be ederra, euren senez ta jakitez, sortu ta b'ribiltzen dabenak. Zeregin duiña, gurena z'urrik asko.

Ortan alegindua da Sorne. Ba-daki inguruko ederra jasoten; da-daki baita, barnera begira, ederra, erleak ezta lez, adimen eta biotz-errotan eio ta moldatzen. Olan ondua dau olerki mordoia. Dirala ogei ta lau bat urte, neure «Milla euskal olerki eder» liburua eratu nebanean, Utarsus'en bi be «—Gomutakiak» eta Gogo ituna— bertan sartu nituan.

«Gomutakiak» zortzi ahapaldiko poesi leuna dozu, Gaztetako gomutak yatorkoz, gozo ta samur, gogora. Ibai ondoan dagoan bide zabaleraíño dator, gaur be, antxiña lez, itxasotiko kresal usaiña. Orrek lo egoan gomuta bat berbizten dautsa; begi urdin batzuk ixetu. Olerkariak:

«Zugat ostian zagoz, ene maitia?»  
ditauntsot une baten. Ez, begi urdiñak  
dagoz nigandik urrun, izarten antzez,  
neuretzako betiko lortu eziñak».

Ibai geldiak basea dauko barruan, goian ur gardena; azalean, «antzezura lez», ortzeko margoaz margoztuta dago. Gaiñetik beintzat eder! Olerkariaren arima be, itxaso antzekoa yako; gentza ta bakea ipiñi gura leuke barrenean. Baiña ez yako etrez. Giza-maitsonak, aitzu eziñak izanda be, benetan dira basazkoak. Itxaso barrua noski! Baiña azalean, itxasoan lez, ez ete da ur gardenik? Bai, ba-da basazkoa baiño gorago dan zerbait. Maitasun bi, goragoak, aitatzen dauskuz emakume olerkariak: Jainko maitasuna ta Aberri maitasuna. Ona:

«Eurak baño gorago, Aberrientzat  
maitetasuna, auxe da, ur gardena.  
Baña gorago ondiño, dan bikañena  
Jaungoikoarentzako maitasuna».

Sarri izan oi dau gogoa itun; jente artean dagonean, mitxetletak argi inguru lez, dabilkio tamala, ta bakarrik dagonean, kendu eziñak yakoz mitxe'le'a balizak. Negu bio'zean galdu yakon maitearen irudiak dira; alan be, ez dau nai guzur-atseginiñik gurago dau bakarrik, bere gelan, egotea; ez, ez doa ludi onetako alai billa. «Gomuta itunen tamala da neuretzat gozo, maite», diño.

Egiñetatik da gizona ezagun. Idazlea idatzietatik, ez izan du darik. Sorne Untzuetan be, bere idazlanak darakuskue noraiñoko idazle dan. Ona 1930'ko urtarrillean, Lemoña'tik «Euzkerea»-ra bialdutako lantxo baten zati au. Bertan diñoskuna guztiontzat dator ondo, geurea zaintzen ikasi dagigun.

«Eztozube entzun, ene irakurliak —diño—, lengo egunian geure errijan jazo dana? Emengo langille batzuk, biarra lagata olatik urten, eta euren etxeetara eldu baño lenago, ardantegira sartu ziran, alkarregaz ardao pizkat edateko asmuz. An geure elez berrikeran iñardubela, oi dan lez atzerritar bat sartu zan, eta jakíña, ez eutson ondo eritxi euzkeraz egitiari; ez, ba, abo gustijentzako egiñikua eziñia bera be ez da-ta, ta eutakana jaunda esan eutsen, bere aurrian ez erabilteko basatijen izkerarik.

Geuriak be mutuak etziran ta, adoretzu ta gixa-lagiz aldeztu eben erabilten euzkera ederra. Lenengo urten zan atzerritarra makaldutera yoyala ikusita, beste euretaz batzuk lagundu yakozan; alperrik, baña, euzkeldunen alde urten ebenak geyago izan ziran-eta. Azkenerako sortu zan sortu biar zana: burrukia, gudía! An ixan ziran galopadak, arrapaladak...! Zer ixan zan ango apatxotza «Agerre»-tik aurrera...!!

«Auxe da jazo zana. Zer deritxazube? Tamalgarria ta lotsagarrija dala diñue batzuk; nik baña besterik diñot, burrukaldi ori, euzkeldun orontzat dala onuratsu-onuratsuba. Zer ba...! Gura daben gustija esaten itxi? Ez olakorik, aldeztutia azke dagon arte beintzat! Onelako eztabaidatxubak egunoro biar litzakez, zaurijan

ukutuagaz, zauriduna bizkortu egiten da-ta. Dakusgunez, ba, geure-geuria dogun euzkel-ele ederra aldeztuteko, nok zirikatu biar dogu, ta egunoro zirikatu ezkeru, euzkaldun odola bixi-bixi eginda, bere-beriak diran gauzak aldeztuten asiko litzake».

Onlaxe, argi ta zentzunez, idazten dausku beti Untzueta, euskal idazle jatorrak. Zergaitik daukagu gaur ixillik? Geurea aldeztu bearrean dagoz, ba! Urteak eratxi, bear da? Euskal idazleak erioztzaraño kanta bear dau.

### BIZENTE AMETZAGA ARESTI (1901 - 1969)

Algorta'n, Getxo udal-barruan munduratu zan B. Ametzaga 1901-7-4'an. Ikasle errime, Eskubide gaiak urratu zituan sakon-sakon, 1918'an Valladolid'en karrera ortako titulua lorturik. Garai aretan arduratu zan baita umetatik ez ekian euskera ikasten, idatzi ta mintzatzeko ikasi be. 1931'an Getxo'ko Udaletxeko zinegotzi da; bertako diru-arazoak-eta zintzo eroaten alegandu zan. Orduan ezagutu neban nik egiazko euskaltzale bezela be.

1936'an, gerra aroan, Eusko-Gobernu barruan Len-Irakaskintzako buru izan zan, azkenez 500 bat umekin erbestera jo bear izanik. Donibane Garazi'n egon zan zati batean, ondoren beste ume-talde batekin Ingalaterra'ra aldatuz. Urteak joan urteak etorri Arjentina'ra jo euskun.

Algortarra etzan geldi egotekoa, ta barne-grüñak bultz eragiten. Laster, ba, ekin eutson euskal lanari; 1953 an, esaterako, «Instituto Americano de Estudios vascos» sortu zanean, alkarte ontan agertzen da Ametzaga. 1947-1955 bitartean Montebideo'ko Ikasgu nagusian Euskal Kultura erakusten eban, baita bertako Goi-Kulturaren Ikastetxean euskera be. 1957'an Venezuela'ra joan zan, Karakas'en lan egitiñik euskal soloan batez be beste amabi bat urtean.

Euskaltzaindiko urgazle zan 1957'tik. Karakas'en il zan 1969-2-4'an.

Euskaldun barri zalarik be, euskal idazle bikain dogu, itzultzaille bareziki. Gizona daukazan irris eta aokotik ezagutu oi dogu. Ametzaga'tar Bingen'i, idazterakoan, ipuñiak, elezarrak, saioak eta olerkiak eder jakozan. «Euskera aldezko esakunak» da aren lenengo lan argitaratua (*Euskal Esnalea*, 1925). Gero datoz gerokoak, eta oparotsu.

Euskeraz ta erderaz idatzi eban. Ona euskerazko batzuk: 1) *Itz oroigarriak*; 2) *Hamlet, W. Shakespeare'ren tragedia*; 3) *Adis-kidetasuna*, Kikeron'en «De Amicitia», euskeraz; 4) *Platero ta biok*, J. R. Jimenez'ena; 5) *Plini gaztearen idazkiak*; 6) *Reading Baitegiko leloa*; 7) *Prometeu burdinetan*; 8) *Ikasbideari buruzko Itzaldia*, Descartes'ena; 9) *Jamaika'ren idazkia*; 10) *Lur-miña*; 11) *Simon Bolibar'en eskutitza*, eta abar.

Olerkari lez etzan azkenengoa. Eder jakon Bingen'i bere pentsamentu garbi sakonak itz-neurtu litaiñetan dizditsu elotea. Algorta'n bizi zalarik euskerazko poesi gozotik asko eukazan aginda. 1933'rantza, J. Aitzol'ek erutzen zituan poesi-leiaketan agertzen da olerkari bezela. Ondoren, ostera, or-emengo aloizkarietan argitaratu euskuzan kopla ederto biribilduak. Urretxua'ko olerkijaietarako «Otoia» deritxona, adibidez, pentsamentuz eta egituraz ederra dozuna; «Lur-miña» deritxona be txukun-txukun eg'ña dozu, Goethe'ren antzera antolatua berak diñoskunez. Jaioterritik urrin egaztu bearra latz jakon eta doixtar poeta gurenari bezala, atzerri-leiatillatik aberria erakusten eutson biotzak intziri gozoz.

Eta onela abesten dausku seigarren aapaldian:

«Ezaguna al duzu itsaso gaiñean  
kokatu uritxoa, arkaitz gorrietan?  
An nire begiak lenik zabal nitun,  
an gaztezaroa bizi ta amestu nun,  
andik aita zarrak dei eiten didate.  
Araxe, araxe.  
Lur-loa dagidan eramán nazate».

Au idaztean, bere Algorta, bere Getxo erabilen —bai orixe! — gogotan. Lur-miñak ez parkatzen.

Nor zein dan errez igarten idazkeratik. Ametzagak, euskaldun barria zalarik be, goi-maillako ikusi nai eban euskera, bere izkun-

tza. Ortarako, barriz, biderik egokiena, ak uste eban, eta orrelaxe dogu, gure artean ezagunak ez diran arrotz-idazleen gogoetak eta lanak, sakonenak be, euskeraz emotea. Orretan saiatu ziran ainbat eta ainbat izkuntza eurena aberastu, txukundu ta joritzeko. Ortan alegindu jakun Ametzaga prosaz eta olerkiz.

Irakur egizu. Duinki bai dala egiña urrengo poesi au, *Itsaso-aurrean* deritxona. Neurritz ez dau akatsik, ezta amai-oskidaz be. Amabi aapaldi ditu iru zatitan. Emen daukazuz bigarren eta iru ganan zatiak oso-osorik.

## II

«Orro urrun batek eten dauz amesak,  
pozak doaz iges, isil dira abesak.  
Goibel-Ekaitza da. Begira itsasoa  
asarre ebakitzen gorroto-mintzoa.

Begira Lur Ama ezereztu guraz  
ondar, arri ta kai astindu ta yoaz;  
begira, zoroa! , zeruratu nairik  
bere uin arroak puztu ta anditurik.

Anker! , onda-miñak yota ba dabilla  
nun autsi, zer galdu ta nor ito billa;  
ilgaiz uin goseak asetu ezifnez;  
gaisoen negarraz urak geitu naiez.

Bidutzi oi! , zeuri gorroto izateko  
itoen amai nik biotz eskatuko;  
ta alargun gazte ezin-etsiaren itsaz  
zu ta zure izena gaiztetsiko dodaz.

## III

Odeiak urratuz, eguzki izpitxuak  
argituten ditu ur-mendo bitxuak.  
Andiagotzen da, zelako ikuskizun!  
bere ederrak dakar gogora arritasun.

Arritasuna, gar, nai eta bildurra,  
gorroto, maitasun, ezespén ta gurra,  
guztioak ba-dauz oin asmatzen gogoak,  
bai ta aditzen bere euraen mintzoak.

Mintzo onek egoki diranean batzen  
Andia'ren kanta dabe ereskidatzen.  
Eurak alkartuten, ai ba'neki, Imanol! ,  
dagokizun kanta zeuri egiteko».

Olerki-senez ezik, ez dira gisa ontako bertsoak koplatzen.

## MANU ZIARSOLO

(1902 - 1987)

Azken urteotan bizi izan dan lez, ixil-ixillik joan jaku Aitaren etxera gure Manu Ziarsolo, «Abeletxe». Begoña'n ospatu ziran illetak bere arimearen alde joandako irailaren 20'an.

*Gizona.*—Era asko daukaguz gizona ezagutzeko: arpegiz arpegi, berba egiñez, alkarregaz bizi izanaz, ar-emonak eukiaz, eta abar. Nik ezagutu izan dot Manu kartaz, artu-emonez eta irulau bider San Mames kaleko bere bizi-pisuan alkarrizketak izanaz.

Baiña, idazle zan Manu, euskal idazle, ta ortaz ezagutu neban nik modu berezian: euskaldun zintzoari dagokionez, umore aundi-koa zan Abeletxe. Olan jaku agertzen bere «Gazi-gazak» (Donosti, 1976) deritxon liburuaren puntu ta zeartasun guztietan. Gizasemea ezagutzeko bide egokia jaku, ba, idazleak paper-orrietan erein dauan arnasa beroa.

V'garen «Euskal Literatura» liburuan, onela idatzi neban nik: «Bilbotarra dogu Manu; gizaseme langillea, umoretsua ta antzerkiari emona... Itxas-ertzeko aizeari kresal-sunda darion legez, umore onaren piperra be berezko dogu. Ipuin eta esaera bizi-bizien gatza barriz egundo be ez jako palta euskaldun erneari. Doai oneikaz jantzia dozu «Abeletxe», ezizen onez baita ezaguna gure literaturan».



*Euskal idazle.*—Bizitza guztian lan-arloari ekin dogu Abeletxe, euskal barrutian batez be. Umetatik ekian euskeraz, baiña ekian ori aberatsago egiten alegindu zan: solo bat be, sasiz bete ez daiten, landu egin bear izaten da. Orrelaxe Manu, berezkoari lagundurik euskaltzale ta idazle errime gertatu jakun. «Kirikiño'k» zirikatuta, gazte zala asi zan «Euzkadi»-n idazten.

Eta or-emen idatzi ta idatzi, entzute zabalekoa genduan Abeletxe gerra aurretik. Orduan euskal landan lan egien talde txalagarria gogoratur, ona zer diñoskun A. M. Labaien jaunak «Euzko Gogo»-n: «Langille oiei eskerrak lurra gertutzen joan zan euskera utseko egunkari bat sortu al izateko. Eta egunkari ori mirariz edo Bilbo'n 1937 guda artean. «Eguna» izenez bost illabetean, Bilbo erori arte argitara atera zan. Bizia eman zioten gizonek gure omen beroa merezi dute». Egunkari orren zuzendaritza Ziarsolo'ren eskuetan egoan, Augustin Zubikarai zuzendariorde, ta Ander Artzeluz (Luzear) eta Artetxe'tar Luki aolkulari zitula.

Bego emen txirristadan lez esanik, pozik artu eta irakurri oi genduan guk guda-zelarian eta oiñean «Eguna». Nik neuk eta nigaz egozan gudari gazteak gauordu luzeak emoten genduzan berau irakurten Sagasta, Elgeta, Ubera ta Basalگو'n lenengo ta Bizkargi, Meñaka, Gamitz eta Fika'n gero, euskal eguneroko orren orrialdeak irunsi bearrean. Orduko paperetatik, izan be, auxe zan egi utsa iñoskuna.

Prosaz ta bertsoz asko idatzi eban Ziarsolo'k. Mañaritarak bultz eraginda geien baten, eguneroko ta aldizkari oneitan beintzat, aren lanak irakurri daitezuz: «Euzkadi», «Ekin», «Euzko», «Erri», «Jagi-Jagi», «Gudari», «Bizkaitarra», «Tierra Vasca», «Euzko-Deya», «Anaitasuna», «Euzko Gogo», «Karmel», «Olerti», «Zeruko Argia» ta abar.

*Antzerki-lanean.*—Euskalduna ez jaku bertso, esakun zorrotz eta izkirimiri-zale bakarrik; are geiago esan geinke teatru-zale. Teatruak, barriz, bere mamiña bear dau, ta jantzia, biak atsegin-garri. Gai xee ta artiñak, bizi-bizi erabilliak izan ezkeru, beti jakuz eder, gozo; aomen aundiko giz-egintzak be, gaztediari batik bat atsegin jakoz eta ernai egon oi da arein goraberek ikusi ta entzuten.

Guda aurretik bazan Bilbo'n, baita ondoren be. «Txinpartak» eritxon gazte taldea, dantzaz ta teatruz oso trebe zana. Talde onen-

tzako antzerki-lanak Manu'k gertatuak ziran geienak. Bereak ditu: «Jai arratsalde baten», «Artzaiñaren ametsa», «Goiz-otoia», «Afal ordua», «Bermio'ko portuan», «Atsoa gaztetu bear dogu», «Gabon gabonetan», «Jai aureskua», «Sorgiñak Etxaburu'n», «Eztegu t'erdi», «Katalin errota'ko», «Agur Donibane», «Saku jantzia», «Bertsolari sariketa», «Eguberri aizeak», «Paris'era gogo txarrez», «Gogozar Berbizkunde goizean», eta abar.

Oneitatik batzuk saritu eutsoezan: 1956'an «J. Urkixo Mintegiak» eraturako antzerki batzaldian leen-saria eroan eban «Eguberri aizeak» lanarekin, eta beste bik, Bertsolari sariketa» ta Gogozar Berbizkunde goizean'ek deduzko aipamena merezi izan eben.

Kirikiño ta Abeletxe etziren bitxi-billa joan euren lanak azurtean. Baiña biak, Mañari'tarra ta bilbotarra, jenteak eder ditu ta oso irakurriak dira.

*Olerkari.*—Ez eutson begitadarik egiten eusko-olerkari. Eta ba ekian noizik-bein bere arimea neurtitz ederrez adierazoten be. Besteak beste, «Karmel» eta «Olerti»-n emon ebazan poesi sentikor batzuk.

«Olerti» (1959) sortu zanean lenengotik asi jakun idazten. Eta irugarren liburuxkan agertzen da bere «Odoltantua!», Aste santuko ipuiña, bertsotan. Poema luze bat dozu, lau sail daukazena, 48 aapaldigaz. Noemi hebratar andra gaztea zan, ama izan naiez eta lau urte ezkondata eroanarren, seiñik ez eukana. Olerkariak:

«Emazteak seiña nai, senarrak naiago,  
Iraín Zorrotzak aitzen asita bai dago;  
Gizonak maiz kalteak bere kolkorako  
Jainkoan naiarekin pozik eztalako».

Orra, seme bat izan dau Noemi'k. Zelako poz bete! Baiña urte bi joan dira, ta mutikoak itz bat be ez dau esan. Zoriona naigabe biurtu, zorionaren argia illundu. Noemi intzirika, ezta guzur negarra! Zer egin? Igarle bat Kristo— dabil Palestina'n mirarigille. «Erruki zadi, Jesus, ene amodio!». Eta ara doa ama gaztea amar eguneko bidean. Egunak eguzkitsu, gabak izar-zelai, bidea neke-tsu, baiña urrundik Jerusalem da nabari. «Auxe da —diño amak— Kristo gure anai!».

«Kristo anai dogu, izanik Ja'inkua.  
Amak arrazoiá dau, anai begikua.  
Gaur osteguna da ta biar barikua,  
Nai neuke arki balei bere «Medikua».

Bariku goizean goiz, Noemi semearekin laster jagi da; Jerusa-  
len'go arriak oin-azpitan ditu. Kaleetan jentea artega. Ango iskan-  
billa! Zer jazo ete da! Oiuak: «Gora Barrabas eta Ori il daiela!».  
Eta errurik bako Kristo Kalbariora daroe. Eriotzara epaitua izan  
da. Baiña Noemi, itxaropenez betea, bideratu jako, eta begirada  
gozoz ta ama-samurtasunez, umetxo mutua erakutsiz Kristori di-  
ñotsa: «Ona neure semea». Eta Kristok gozo-gozo begiratu dauksa:

«Jesus'ek igarri dau andrearen naia;  
Eskua luzaturik beragana doia;  
Orduan soldadoak asarretu baia  
Ugalexko zigorraz jo-erazo beia».

Lurrera jausi da Kristo. Begiak lurrean ta Kristogan burua, nun  
ete dabil Noemi'ren gogoa? Gauza dizditsu bat ikusi dau lurrean,  
«gorri-gorria bera, pitxi antzekua». Ezta mundukoa, zerukoá baiño.  
Ona emen sendakaia, Kristok ixuri dauan «Odol-tantua!».

«Odol-tantua bean ikusi dauneko,  
Noemi'ren biotza irakiten dago;  
Kifiuka semeari adierazo dautso  
Tantoaren aurrean belaunbikatzeko;  
Ondoren eskutxoak lurrean jartzeko  
Ta mingaintxuarekin odola batzeko».

Eta semeak odol-tantoa miazkatu ebaneko berbaz asi zan ain-  
geruen antzean, Noemi'ren poz betea!

Modu onetan osoturik daukaguz Abeletxe'ren beste poesi-lanak  
be: euskera gozoan, ondo neurturik eta rima osotan.

## ARTETXE'TAR EULOGI (1904 - .....)

Or-emen askotxo doguz Bizkaian bazter-ikuspegi ederrez ba-  
teak. Zoaz Zugaztieta'tik gora Urretxu'ra eta andik Albiz, Men-  
data gainez-gain Arratzu'ra. An jaioa da Artetxe 1904-3-77'an,  
Larrosaeta baserrian. Bertan, emengo ume eskolan egin zituan bere  
ikasketak. Nabarniz'en ezkodu zan Florentina Albizu'gaz 1929'ko  
urtarrillaren 3'an; alaba bat dauka, Bilboko Joseba Bilbao oler-  
kari gaztetxoaren ama.

Artetxe'k gaztetan baserriko lanari ekin eutson, eta gerokoan  
Bilboko «Cervecera del Norte»-n urteetan; gaur Gernika'n bizi  
da, urtez astun baiña zarsariz dotore.

Egiazko euskaltzale, gaztetan asi zan olerkiak idazten, baiña  
«noizik bein eta beretzat bakarrik —diñost kartan—, eta gero  
adiñekotan geitxoago; alan be, aitatzeko olerkari ez naz iñoiz  
izan: euskeraz idazten neban beti geure euskera maite nebalako».

«Karmel»-en eta «Olerti»-n ainbat kopla txairo- argitaratu  
neutsozan nik. Irakur eizuz azken orduko biok, «Akelar-Zuri» eta  
«Belen'go seaska ondotxuan».

## AKELAR-ZURI

Ikus orra, zerutik jeisten  
edur matazak  
aiz-eragifien txorabioan  
odeizko lorak,  
jira-bira itxumustuan  
sorgin jolasak.

Au edurte... eztegu-oial  
zuri-zuria,  
ezkontzarako leun-leun  
goitik jatsia,  
Ikuskizun ikusia, baiña beti  
ikusgarria.

Aidezko jantzan «Maitagarri»  
zuriz jantziak,  
Negu jaunaren ezkontzetako  
emaztegaiak.

Edur-lumak ziarretara  
darabilen jantza,  
«Akelar-Zuri» Negu-edurren  
eztai-ezkontza.

## BELEN'GO SEASKA ONDOTXOAN

Gizaldien gizaldietan  
bein jazoten olangorik,  
zerutik jatsi okollutxora  
Jaungoiko bat!, Ume egiñik.

Zatoze umeak jolastutzera  
Ume Jaunaren ondoan.  
Otzez dagona berotu daigun,  
alkarturik inguruan.

Au dogu barri ona,  
Jaungoikoa Ume egiñik!  
Au dogu barri ona,  
gurtu daigun auzpazturik.

Au dogu barri ona,  
Jaungoikoa Ume egiñik!  
Au daogu barria ona,  
gurtu daigun auzpazturik.

Galduak giñan errukarriok  
barriz gaitu askaturik,  
Nor auzpaztu ez Bere aurrean,  
esker-enez txoraturik?

Ez dau inortxok ikusi oñiz  
au baizen ume ederrik,  
ezta itxiko pozaren pozez  
mosuka danau jan barik.

Au dogu barri ona,  
Jaungoikoa zigon egiñik!  
Au dogu barri ona...  
Gurtu daigun auzpazturik.

Au dogu barri ona...,  
«Hosaina' ta «Hosana»!  
Au dogu barri ona...  
«Hosana» ta «Hosana»!

## URKIAGA'TAR ESTEPAN

— LAUAXETA —

(1905 - 1937)

Erri atsegingarria dozu Laukiniz; Gatika ta Urdulitz bitartean datza, Butroi gaztelu errimea eskumatik eta Unbe-Mendi gaiña ezkerretik ditula.

Ementxe jaio zan, jakingunez, gure olerkaria, artista bipilla, Erriko Taberna deritxon etxean, eleizeari aurrez-aurre, frontoi er-tzean.

1905'ko dagonillaren 3'an munduratu zan.

Beronen aita, Jose Maria Urk'aga, Aulesti'ko semea zan, eta ama, Bizenta Basaratz, bertoko alabea.

Mutikoak lau bat urte zituala, Mungia'ra aldatu zan Urkiaga sendia. Baiña jaio Laukiniz'en jaio zan.

Zerbait koskondu ta Mungia'n bertan lenengo ikasketak osotu zituanean, eleiz gizon izan gura ta Durango'n, Loiola'n eta Oña'n egin euskuzan ikasaro nagusiak.

1928'an, Jesusen Iagundia itxi ta Bilbao'ra etorri zan, «Euzkadi»-n lan egitan asirik. Onen euskal atala, ospe aundikoa, lenengo Kirikino'k zuzendu eban, 1913'tik 1928'ra; gero Orixe, eta 1931'tik aurrera Lauaxeta'k geien bat.

Errepublika denporan batez be oso langille agertu yakun laukiz-tarra; artikulua idatzi ta liburuak atara ez-ezik, ainbat itzaldi be emon zituan Euskalerriko areto ta plazetan.

Gerra sortu zanean, beraz Euzko Gobernuak kentsejeru eukan, eta guda oiñetara sarri joan bear izaten eban ordezkari lez. Elgeta aldean, dunbots artean sarri, alkar adoretu genduan.

Gernika suntsitu ebenean, ondorengo egun baten ain zuzen, an zan Lauaxeta, ango ausiabar, triskantzta ta Zugatz santua kaze-tari arrotz batzui erakutsi nairik.

Ortan ebillela inguratu zituan etsaiak; ez-ustean oratu ta Gazteiz'era eroan eben atxillo. An, karmeldarren komentu espetxe bihurtuan bi illabete egin ondoren, 1937'ko bagillaren 25'an, goizeko 5,30'etan, fusilatu eben.

Españiar pota ernai Gartzia Lorca'ren adiskide zan, eta adiskide biak azken ordu bardiñak itzali ebazan.

## Omenaldiak

Luzaro erdi-azturik euki ostean, 1972'an, Larrea'n urtera opatu oi dogun Oleri-Egunez omenaldi eder bat egin yakon, Euskal-erri osoko idazle ta olerkari punterengoak eskeiñita.

Arrezkero be egin yakoz beste batzuk, oraintsu Mungia'n opatu yakona, esate baterako.

Baiña danetatik ederrena, nire ustez, aurten Laukiz'ko erriak, erriak, bertako gazte bizkorak buru dirala, eskeiñi dautsoena izan da.

Iraillaren 25, goizeko amaikak, danbadaka erriko eleiz-kanpaiak; zuri, gorri, igande soiñekoz plazan dagoan gazte ta zar la-guntalde ugaria eleiz-barrura doa.

Eta or jentez beterik oraintsu esku gozoz bariztutako eleiza.

Iruk zuzentzen dogu meza: erriko txauburu gazteak, Solozabal jaunak eta nik.

Txauburuak dagi itzaldia, ederto, Lauaxeta'ren kristautasuna goratuz.

Koruan, neska mutil talde alaiak bizi-bizi abestu dau euskal meza, gazte urduri baten ardurpen.

Ezin amaituzko Jaunartzea.

Ondoren, erriko frontoi polito apainduan, bertakoz ta kanpotarrez beterik dagoala, bertsolariak —Lizaso, Lazkao-Txiki Intxaurraga, J. Enbeita, Lopategi ta Amoritzak-ekin lehen-ekitaldia osotzen dabe.

Bero-bero txalotzen ditu jentekak.

Poesi-batzaldian irabazle izan diran olerkariak sariak banatzen yakez ondoren.

Jarrain bertsolariak barrero be; oneik eta beste bein-beiñeko izlari batzuk gizonkiro jaso dabe bizka'tar o'erkari bikaiñaren irudia.

Laukiz erria bera be olerkari dala dirudi, olerki ta poesi-zale bai beintzat: adi-adi egon yakun bertako seme arg'ari egifilko jaialdi guztian.

### Lauaxeta, olerkari

Lauaxeta, Loiola'n egoala asi zan idazten: eta bertsoz asi be.

1925'garren urteko lotazillean agertzen da, Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, bere lenengo oler Amalau aapaldiko lana dozu, Begoña'ko Andra Maria'ri eskeiñia.

Onela firmatzen dau: «Basaraz,

Amabi silabakoak dira, 6/6, erdi'an a dabela; ama'erako rimak ez so kezka larririk emoten. Daukan iñak eta soiñekoak, alan be, egi en nortasuna, olerkari bezela noski, ta garbi darakusku.

Gerora naikoa idatzi euskun bere bizitzaldi laburrerako. Aitatu doguz bere liburu biak, poesi jatorrez ornidutakoak. Orrez gaiñera, ba-ditu beste batzuk: «Euzkadi» egunerokoan «Izkiñuak» tituluz umerxoentzako atara zituan alegi ariñak, eta Gazteiz'ko espetxean egoala egifilko sei-zazpi poema sentikor.

Lauaxeta'ren neuritz-lanik geienakaz idatzi polita argitara neban oraintsu. Larrea'n eskeiñi geuntson omenaldian, guztion abots eta gurariz, erabagi zan lez, lauk'ztarraren olerki-lanakin liburu bat osotu bear zan, eta orrela egin gerduan urrengo urteko Olerri-Egunerako.

Euskal olerkariak eta abar pozarren artu eben liburu au; or-tara, Lauaxeta'ren poesi-lan lilluragarria ezagun-erazirik.

Gure kantariak be ordutik asiak doguz aren poemak or-emen anbestu ta zabaltzen.

### Azken olerki bat

Nik oraiñarte aurkitu ta ikusi ez dod'zan olerkiren batzuk izungo dira, dudarik bage.

«Euzkadi» egunerokoan ba-dira batu bakoak.

Giltzape egoalarik biribldu zituanetatik ia danak, Leopoldo Zugatza'k Durango'n ataraten dauan «Gaiak», laugarren alean, agertuko dira.

Aldizkari ortan nik idatzitako lanaren ostean be, ots, arrezkero, agertu dira beste batzuk, Lauaxeta'k onduak.

Ona bat oindiñokarren iñoiz argirik ikusi bagea.

Aurtengo bagillaren 15'an Muniategi'tar Sabin'ek, Errera-Donosti'tik, au idazten eustan:

«Irratitik\* entzun neb'nez badakit esku artean Lauaxeta gure olerkari gorengoa dogunari buruz zerbaiten asmoa artu dozula.

Olerkiak? Ala olerki ta id:zlanez osotutako bildumaren bat? Dama dala, emen bialtzen dautzut bere guda aurreko olerkai eder bat berak niri Bilbo'n aurkitu gintzazan egun baten irakurteko itxi eustana... Gero, gudaren sarean jausi edo sartu gintzazan eta, olerki au geur arte, nik dakidanez, argitaldu barik dago».

Ortaz ba, lendik ezagutzen ez genduana da; guda aurretik, azken orduan ederki egiña. Zuk, «Zer»-za'e orriak irakurri ta miazkatu dagizu, emen dozu bera. Orati'k egin zituan askoren gisa ondua da.

### MARIA DEIA

Nire mai garbi au maspar-pean yagok txiro baña eder, neurriz gauz danetan. Arrats baten gentza edariak yaukok: aize-mihia yabilk matsorri-puntetan.

Ator neure maira egunaren billa zorion lorak, ba, etxeuek aronik! Gaur gurea yoguk laketen gurpilla ta iru Ederkunak yatozak alairik.

Jaleak on begik edanak ez gaitzik, ta eure barrenan eztiz begok poza. Urrezko txo! baten, doai xamurrenik, aizkidetasunak bekar mintzo boxa.

Borgoña'ko matsik ez donak gurean, baña Laukaritz'ko mast'en nigarra Orati'k ledakek bertso ozenenean. Odol egin zuan Eguzki'ren garra!

Emaitzon umoan goitz-intza yatorrak eta euron urak ez yaukak bardinik. Erle-madari ta txakala-sagarrak, zelai berdeetako usañez baterik.

Maian jarri adi, baña eure lagun malko edo itunik ez egik ekarri. Oraingoa sollik atzemon yagigun ardo au bai-yakuk ezpanen pozkarri.

Edontzi mee bana eskuan jasota edango yuaguk arrats onen isla. Eta oianeko otz bustia artuta etorriko yakuk goietako itzala.

Iñok jaurri gebik uri urduria edo uin latzetan yabilkan batela. Guretzat, lats baten altzaots ezta, eta lora-pean yagokan kupela!

Bizitzaren guna txastatzen yakanak ezyok bear jakitunen itzik. Jakintza onena ardo meak yaukak! bere kolkoman, ba, ez yabilk zadorrik.

Geroa ezetsi, une edr ta argiak sarri balio yok betiraunak aña! Gaur ezer ez dozak biarko liliak: ontzat ar egin, ba, neure mai apaña!

Lauaxeta'ren luma-puntak egilleak barne —biotz ta adimen— eukana ustu oi eban.

Lan onek biozkada ta adimen-igaliak bai gurenak, sakonak!

Apostoluen artean Tomas Didimo'k ez eban sifistua nai izan, bere eskua Kristo'ren saietsean ezarri arte.

Gura idazle ta olerkarien artean iñok Lauaxeta'ren balioz ez bairik ba'dau, txasta begi bein eta barrero poema onen ostoi darin gurin gozoa.

### IÑAKI BERAKOETXEA ARANBARRI (1906 - 1983)

Aita Eustasio, Ordenan esaten geuntsonez, Bilbo'n jaio zan 1908-2-5'an. Larrea'ko karmel'ar aztetxean sartu zan 1923-VII-5' an eta urrengo urtean abuztuaren 6'an profesa egin. Gasteiz'en Filosofia ta Begoña'n Teo'ogia ikasi zituen; eta 1931'ko bagillean

mezako egiñik, Larrea'ra etorri zan gazteen irakasle. Montecarlo'n organu-jotzaille lez aldikada bat egin ondoren, barriro Larrea'ra. Soldautza osotze dau Bilbo'n eta 1934'an Naparruko Bi lafranka'ra doa irakasle; 1942'an Txile'ra bialtzen dau nagusak, an Valparaiso, San Fernando, Chuchunco, Santiago'n, orain nagusi ta gero menpeko, eta beti organu-jotzaille errime, 35 urte langille potrokatu emonik, Euskalerrira itzuli zan; Altzo'ko karmeldar komentuan jarri eban bere azken egoitza, eta, Larrea'n organista lez zati batean egonik, Altzo'ra biurtu ta emen emon eban azken ataria 1983-2-7'an.

Gizaseme baliotsua, organu-joten, nagusi bezela ta eleiz-lanetan. Euskaltzale aundi, Txile'n egoala asko lagundu eutsen Aita Mokoroa'ri euskal esacera jator billaketan. Erbestetik ib'li arren, maite zituan Euskalerrira ta euskal gauzak; ba-eban euskal garra ta edersena. Baita olerkigintzarako be. Nire «Milla euskal Olerki eder» liburuan (699 orr.) dator lenengoa edo, 1929'an Donostiko «Euskal-Esnalea»-n argitara emona, «Tolesgabetasuna».

Gerora, «Olerti»-n eta «Karmel»-en emon dauz beste, errez ta gozo, osotuak. Barrukoak itzuli ebazan, Don bant Gurutz'en «El Pastorcito» adibidez, eta kanpokoak. Kutun zituan txiletar olerkariak, euskal abizenekoak batez be, eta euskerara biurtzen saiatu zan arein bertso-lanak, «Aots garbi —diño—, bigun, sendo ta egokia. Doñu emea maite du, ta or ematen ditu bere iku-aldi xe ta zeatzak, zuurki ta liraintasunez». Ona iru olako Juli Barrenetxea'k egiñak eta Aita Eustasio'k euskeratuak.

## UZTA

Arrantzaleak ba doaz  
ba doaz uzta-billa.  
Zorionekoak zuek,  
itxas-lur oldartsuak.

Izartegi lasaiaren  
zaipeko lurraldeak.  
Ur autsiaren loreak  
nork ote zitun landa?

Lurgintza gabeko landak,  
Ur ta gatz-alorraz,  
Nork erein zitun arraiak?  
Nork eraiki koralak?

Arrantzaleak ba doaz  
eta kantari doaz.  
Beren kantuak ez ote  
lore-landatzailleak?

## ZABUAK

Arratsean umez gal-gal zabuak.  
Urrun-urbiltzen du goia kulunkak.

Zabu-adar alai ta zain-ikera.  
Dilidan umeak igali eran.

Zeru-muga urdina jo dute sokak.  
Goi zabaletatik datozte aurrak.

Aizea tenke dago, muiñoak geldi,  
zuaitzak gelbera, ura barerik.

Aurrak damaiote beren ume-endar  
ta inguru guztia dator bizira.

Aize, muiño, zuaitz, ur bere artan,  
zabuari esker jar dira dantzan.

Eragin gaberik ziruditenak  
nere baitan dira malabar-jostak.

Eta ni patxaran, amor emanaz,  
arrats-zabu ontan naiz seaskatzen.

## ERTZ-AGOA TXIRULAKIN

Itxu-itzalak jotzen du ta  
argi dario txirulak.

Begi-illargiren zuria,  
soñu zuridun txirula.

Dizdiz dagi ertz-agoak  
argi-kanturi eskerrak.

Badu gauak illargia  
ta itxuak bere txirula.

Erreaz miña uxatzen da  
ta itxuak txirula kantari.

Lelo zuriak abestuz,  
illunpe-miña uxatzen du.

Aren kantua gauean  
argi ziztor txuria da.

Goitatik doan illargi  
txirula-otsa dirudi.

Eresi negargarria,  
txistu-mokoan piztua.

Ertz-agoa txirulakin,  
ta illargi-izpia an kantari.

(Zeruetako illunean  
pizten da illargi zuria).

Biotzean eder-zauskada dagiskue, irakurriz soilki, egilleak lez  
itzuetzailleak.

## ENBEITA'TAR BALENDIN (1906 - 1985)

Txoriak berez dau kantatzen, bertsolariak be bardin, pentsa ta kanta. Bere era zoragarria dau, ez kanpotiko kulturari zor dautsona, asmau-ala barrutik urtena baiño. Geure espiritu zaararren agerpena dala diño Oteiza'k.

Nik sarri idatzi dodanez Euskalerriko bertsolari kultu ta zolienaren semea da Balendin, 1906-IV-20'an, Muxika'ko Usparitza-Jaugeri baserrian jaioa. Balentin Berriotxo, gaur Bizkaiko santua, beato egin eben egunean, ain zuzen. Eskola berezi barik, baiña bertso-jitez aberats, amabi ustekin Areatza'n asi zan bertsoan, bere aitaren ondoan, au be (Juan Anton o Enbeita) bertsolari bait zan.

«Nik ogeta iru arte nebazala —diñosku berak—, Bizkai'ko bertsolari sariketa bat antolatu eben Mungia'. Neuri emon eusten lenengo saria. Bertsoarako gogo geiago ta biziago bat sortu jatan orduan. Urrengo urtean Getxo'n egin zan beste sariketa bta, eta emen ere lenengo saria emon eusten. Aurrerantzean plaza askotan ibilli nintzan nere aitagaz, batez be Bizkaian».

Ogetasei urtegaz Bidaso'z beste aldetik ibilli zan Basarri'rekin, bira baten Donibane Garazi, Atarratze, Kanbo ta Donibane Lobitzun'en iru bat egun bertzoka emonez, Kanbo'ko trinketean Mattin zanren aitagaz be indarrak eurturik. 1933'an Elizondo'n saioa, eta ondoren Bilbo'ko Arriaga Kafean. «Ementxe egin genduan —diño berak— garai artako bertso-saioarik ederrena».

Gero guda-matxiñada ta ixildu bearra. Orduko ezkondata egoan, 1935-11-30'an, «Ormaetxe» baserriko Klara Ealo'gaz; 29 urte zituan berak eta 27 emazteak. Gernika erre ta bigarren egunean itxi bear izan eben Ormaetxe baserria, Bilbo aldera joaz. Bilbon egoala Bizkargiko frentera bialdu eben. «Nire lana —diño—, parteak eroan eta ekartea zan, eta frentean zauritzen ziranak eroatea». Laredo'n jausi zan arerioen esku, eta ondoren or ibilli jakun, lau urtez be'ntzat, espetxez espetxe, El Dueso (ni be bertan nintzan), Gasteiz'ko Karmelo, Santofña barriro, Puerto de Santa Maria ta abar. 1941'ko epailaren 13'an espetxea etxirik, etxeratu zan. Etxekoen arrera beroa!

Eta oster a be lanera, etxaldea edertzen eta bertsoan. Zati batean etzan azartzen agirian egiten, baiña 1958'garren urtean, kantatzeko erreztasuna bera be pizkat galdua dauan arren, Bizkaiko txapelketan barriro agertzen jaku. Bizkaiko txapelketa nagusi bi ditu irabaziak; lenengo 1958'an, eta bigarren, 1959'an, Arenallean, kopa ta txapela emon geuntsozan; 1960'an Mugartegi'k ir bazi eban; 1961'an, Azpillaga'k, eta 1962'an Lopategi'k. Gerora txapelketa urriak ospatu dira Bizkaian.

Bertsotan jardun ezezik bertso-eskola bat, «Garriko», sortu be egin eban. Enbeita'k. Ango «Zubipunta» tabernan batzen ziran Areotza inguruko bertsolariak bertso-legeak, puntuak, irudiak, esan ederrak, motak eta gaiñerako neurtitz ezkutua ikasi ta aztertzen. Bertsolari onak urten eben eskola ontatik: Jon Lopategi, Jon Enbeita, Abel, Deunoro, Ireneo, Iturri, J. M. Sardui, Basabe Lumokoa ta besteak Pedro Mari Aldana'k jarten eutsezan bertsoarako gaiak.

Bertso-mordo galantak daukaz angota emengo aldizkarietan argitara emonak, ots: «Euzkadi», «Jaungoiko-Zale», Jesus'en Biotzaren Deya», «Zeruko Argia», «Arantzazu», «Karmengo Amaren Egutegia», «Anaitasuna», «Arantzazu'ko Egutegia», «Goiz-Argi», «Karmel», «Euskera», «Olerti», «Txistulari», «Principe de Viana», ta abar. Ertz askori ikutu dautson arren, gairik erabilienak oneik dira: baserri bizitza, senar-emazteen maitasuna ta goraberak, neska-mutillak, erria, euskera, fedea, askatasuna...

Liburu bi daukaz argitartuta: «Nere Apurr», 1974'an «Auspoa»-k argitara emona, 264 orrialdékoa, ta «Bizitzaren joanean», Elkar'ek argitaratua; itz lauz eta bertsis 194 orrialde.

Ona, eredu lez, 1960'an, «Olerti»n agertu zan au:

### KUKUA ETA TXINDORRAREB AUTUA TXEPETXAK ERABAGI

*Kuk.:* Udabarria eltzen daneko  
kukuka nago basuan,  
guztiak pozez artuten nabe  
elduten nazen lekuan.

Neure arrautza ipinten yuat  
txindorren jauregitxuan;  
ni baño obeto bizi dan iñor  
ez dok egongo munduan.

*Txin.:* Txikia beti aundi-gurian,  
ez da arritzeko gauzia  
aundiai barriz guztatzen jako  
txikia zapaldutia,  
kukuai baita bere umiak  
iñon etxian aztia;  
jakin nai neunke nok emon dautsan  
ortako eskubidia.

*Kuk.:* Eskubidea norberak artu,  
arpei gogorra izan oso,  
ударик уда lanari iges  
beti ibilli eroso;  
beste txoriari geure bearra  
dabela siñistu-erazo,  
ori egiten ez badok, ez dok  
bururik egingo jaso.

*Txin.:* Ori dok, ori, onua edo  
konseju emon daustana;  
ondo dakigu alperrarentzat  
lanbide onik ez dana.  
Baiña guztiak eingo bagendu  
zuk nigaz eiten dozuna,  
jakingo geunke nok jango leuken  
eguneko ogi biguna.

*Kuk.:* Eguneroko ogi biguna  
beti iaukoat gaur arte,  
toki danetan aurkitzen iuat  
jana r'edana nai beste;  
geieda zelan bizi ete dan  
enok arduratzen bat be;  
norbera ondo egon ezkeru  
oba da bizi aparte.

*Txin.:* Kuku gaxoa, ondo bizi az,  
olan autortuten dozu,  
gerokoaren itxaropenik  
guk legez ete daukazu?  
Jaunak agintzen daben bidian  
batera ez gagoz ni ta zu;  
azken orduan erruki zaitut  
olan jarraitzen badozu.

*Txep.:* Kukua emen ikusten dogu  
munduko atsegifetan,  
txindorra barriz gerokoaren  
zorion ames gozotan.  
Zorion biak bear gendukez,  
orduan pozik benetan;  
baiña nok daki eperdi bataz  
zillo bi ondo tapetan?

## BINGEN BATIZ (1907 - .....)

Eleiz-gizona da Batiz, karmeldar. Eta eleiz-gizonak, nire ustez, olerkari izan bear dau. Erritik jagia, lurretik, izaditik danok daroagu izatean politikazko olerkia, eta beronek bizkor-azo bear gaitu guztiak.

Eleiz-gizona, erriko seme danez, eta erlejiño arazoari emona, giza-batasunean ari da. Edo ekin bearra dauka. Zelan? Olerkari izango da, poesia ta ederra jaso ta gizartean ereiñez, azirik bikainena zabalduko dau, goi-azia jakiña, eder betikoa; eleiz-gizonak Jainko-itzaren soloa landu bear dau gauza guztien gaiñean.

Apaizak edo prailleak erriaren aurrean lan dagi, agiriko gizona da. Eta agiriko langilleak, eleiz gizonak batez be, gozotasun ederrez kutsatu ta asetua agertu bear dau, maitasuna, bakea, otzantasuna, poza dariola. Erriko eredu ta biotz-erakarle; egiazko poetak orrela izan jatzuz aldioro. Udabarran, egun-argitzez bat, txori talde kantari: zuretzat ikasbide eleiz-gizon olerkari.



Aita bidezain ebalarik, Gerrikaitz'en jaio zan. gure Batiz, 1907'ko abenduaren 23'an. Gero, bere une-egunik geienak Mar-kiña'n egiñik. Ibiltari aspergaitza, ez da gitxi dantzatu munduan zear; gaur, alan be, geldi samar daukagu Donostia'n Amara'ko karmeldar komentuan, urte mordoz abailduta.

Gaztetxo zala karmeldar izateko gogoaz oarturik, Naparroa'ko Billafranka'ra zuzendu eben nagusiak, antxe osotuz lenengo ikas-ketak, eleiz karrerak eskatzen dabezanak a'n zuzen. 1923'ko urria- ren 12'an artu eban karmeldar jantz'a, urrengo urtean, 13'an, pro- fesa txikia egiñik. Ikasketak erdi-amaitu ta Kolonbia'ra joan on- doren, an Leiva errian mezakotu zan 1931'ko garagarillaren 19'an. Medellin'en be egotaldi bat egin eta emen gexoturik, Euskalerrira biurtu zan, Larra'n eta Begoña'n bizi izanaz.

Gero, 1936'ko burruka, isti'lu ta zabarradak. Guda oiñean ibilli zan gudarien kapellau; eta azken'ez, giltzapean, Begoña, Nan- klares, Dueñas eta Karmona'n, guzt'z iru urte. Karmona'tik urten ebanean, Euskalerritik kanbo bizi izateko zigorra emon eutsoen eta Santander'ko Soto-Iruiz'en igaro zituan lau urte. Emendik Peru'ra aldatu ta Trujillo'n eta Lima'n b'zi izan bost urtez. Gero barriro Kolonbia'ra ta Panama'ra, ta ostera Kolonbia'ra ta orrelaxe, tarteka Euskalerrian be egotaldiak egiñikan.

Praille ta olerkari dogu Aita Batiz. Noiz asi jakun idazten? Ikasle zala nunbait, Donosti'ko «Argia»-k urtero bere Egutegia atera oi eban, ta 1936'ko zenbaki edo urtean, Barbin'ek izenpe- tuta, Aita Batiz'en ipuin bi datoz: «Ixaka artzaintxo» ta «Poto- lo», guztiz polito moldatuak. Gero, bere mixiolari lanak albora itxi barik, beti jarraitu izan dautso idazteari ta olerkigintzari, lanak izenpetzeko «Batiz'tar Niko'a», «Barbin», «Xalokin» eta abar era- billirik.

Euskera gozo ta oparoz adierazten ditu Batiz'ek bere barne- sentipenak. Era askotakoak adierazo be, geienak eleiz-gzon danez goi-jariozkoak dirala be. Ortik gaiñera ez dabil txarto, koplari- k bikain sutsuenak bait dira goitar kutsuzkoak. Beeko loa goitiko euriak ikuzten. Ipuin arloan ez dau gitxi idatzi, sariak be pitean pitean eskuratuz.

1938'an, Nanklares'ko apaiz-espetxean egoala, olerki bi ondu ebazan guztiz sentokorrak: «Txori lotuak mendia ames» eta «Be- goña'ko Andra Mariari otoya». Ona euroatik estrofa bana:

*Bata:* «Lengo txorien doñu ordez,  
Capronni beltzak arrano lez,  
Euskal-Erria su ta garrez  
triska, birrindu, suntsi naye».

*Bestea:* «Zergaitik, Ama, bakean ordez  
daukagu guda gogorra?  
Zergaitik lengo pozen lekuan  
eruan bear zigorra?».

Olantxe samur ta sakon darrai, lan bietan, olerkariak. Bigarre- na edu onetan amaitzen dausku:

«Bizkai Zaindari ta Ama zaitugu;  
zaindu, ba, Bizkai maitia...!  
Euskal-Erriko Erregin zara...  
«Azkatu» Euskal-Erria...!».

1957'an Tumako-Kolonbia'ko El Charco deritxon erritxoan miixolari egoala «Ezin dut, Jauna» izenekoa argitaratu eban EUZKO-GOGOA-n. Ezin zituan, antza, baltz areik bide onera ekarri, ta Jaunari diñotsa:

«Ezin dut, ez, Jauna, ezin dut eraman  
sorbalda gaiñean gurutz ain aztuna:  
bidea baidut latz, gogor eta illuna,  
eta nik indarrik gutxi dut neregan».

Atzerriz atzerri Kristoren Itza zabal'zen mixiolari ebillen arren, amak ezarri eutson euskal garra izate barru ondo josirik eroian beti, Maite eban euskera. Panama'n egoala, 1967'an, onela eio euskun amalauko au:

Kantari izan nai nuke, olerkari,  
zuaitz abarrik abar, txoriak lez,  
abesten jardutzeko goiz ta arratsez  
zeru lurren Egille Jainkoari.

Bañan ez-jakiña naiz t'ezin ari  
gure ele zarrak ditun itz ederrez  
ta beste izkerakin nik deus nai ez;  
damaiodan, ba, oro Euskerari.

Gure aiton maiteen mintzo zarra,  
ludiko izkuntzetan goxoena,  
Jaïnkoa goratzeko zu bakarra!

Zu Euskal-Erriko altxor bikaina;  
euskal semeentzat zu ederrena;  
zu gure oitura ta enda-zaina!

Karmeldarren arteko oitura da, bat-edo-baten jaiotz-eguna ospatzean, bazkaritan-eta, bertsoak abestea. Olako ainbat daukaz Aita Batiz'ek, batez be Markiña'n egoalarik egiñak. Lon Arteaga, Luis Baraiazarra, Lino Akesolo'ri, Panama'n egoala Aita Telesforo Larrazabal'j ta Colon'go katedralean Markos Zuluaga gotzaiñari eskiñiak. Ba-daki, beraz, balioko gizasemeak goresten.

Biotz aundiko koplari danik ezin dau iñok ukatu. Nik sarri idatzia dot Aberria maite izaten erbestez ibillita ikasten dala ondoen, eta gure Batiz'en lanak abertzaletasunez gantzuturik dagoz. Bere bertsoarik asko ta asko beintzat kanturako burutuak dira, neurritz eta errimaz egoki biribilduta. Markiña'n bizi zala, ango eleizan kantetako «Gurutz Bide» barri bat bear zala-ta, 1973'an barri bat egin eban bertsoan, zortzikoz, bioztuna, amalau ego-talditan.

Lanak jazteko irudi polit liraiñiak artzen ez dogu exkasa. Irakur «Artzaia ta bildotsa» deritxona. Ameriketara osotua da, an mixiolari ziarduela. Ez da gitxitan jazoten au mixiño-lurrean.

«Txabolatetan artzaia negarrez...  
Ardi bat zaio galdu aitz-artean.  
Arkumetxoa beeka aldamenean,  
amatxori deika oiua samíñez.

Artzaiarentzat poz, atsedetik ez,  
bildotsaren oiua aditzean.  
Maitero artu du, bai, magalean,  
bere ontzitik esnea emanez.

Eta olaxe azi zun bildotsa,  
egin arteño ardi ederrena;  
ordun, bai, poztu zitzaion biotza!

Ardi ura baño ederragorik  
etzun artaldean. Bera lenena.  
Artzaiarentzat etzan onagorik».

Olerkariak zuzena daroa bere kautan; urkoari on egiñez doa bizitza zear. Bai, egiaz esan euskun J. R. Jimenez espaiñar poeta bipillak, erriaren onerako lan dagiana, giza-seme zuzena dala, olerkari bat.

## ON KLAUDIO GALLASTEGI (1806 - 1982)

Betiko lez da, gizaldiak zear, errian izan diran giza-seme aundiak gogora ekarri ta gorespentak egiñik aintzatzea. On Klaudio, geure egunotako aundia, ezta aaztua izango; artuko dau merezi daunari zer jakona. Egun batzuk dirala, San Anton eleizan, bera 40 urtean txauburu izan zan eleizan, bertako ta kanpoko ainbat eleitzar agintariakaz batean bertan zirala, apaiz jakintsu ta arimazaleari omenaldi maitekorra egin jakon.

Gertaera ori ospatzean, Goi-Zubi kultur Alkartea ta San Anton orfeoak esku arturik, Juan Mari Uriarte gotzain ordeak, beste zazpi apaizek lagunduta, Eukaristia ospatu eban, itzaldian On Klaudioan doai bi batez be nabarmenduaz: egi-zaletasuna eta urkoenganako maitetasun beroa. Meza ostean, agintariak eta erria elizpean, omenezko aureskua egindakoan, Jose Mari Gorordo Bilboko alkateak, Jose Berlaf'ek osoturiko irudia agertazo eban bilbotar guztien izenean. Bere itzak: «On Klaudiok bizi izaten jakin eban eriotzararte; bere burua eskintzen eta lan egiten». Eredu bikain bilbotar guztientzat.

Ogetamar urte gitxienez dira nik On Klaudio abadea ezagutu nebala. Abertzaleen mezaren baten, ziur asko. Geroztik, Bilbora joan oi nintzanetan, beti ezta be, astia neukanean, ikustaldi labur

bat egiten neutson. Atxuri'ra orduko, atsegin jatan San Anton'go sakristian apaiz maitekor ari eskuak estutzea. Txeraz eta umore galantez artu oi ninduan beti. Euskal-lana zen gure irakasle zanak eta gaur be danak, antxe eukan bere liburuxkak antolatzeke tok'a. Atsegiña zan aren izketaldia, sekula amaitu eziña.

Geroago «Karmel»-erako eta «Olerti»-rako lantxoak bialtzen asi jatan, polito idatzita. Karmeldar aldizkari bi oneitan, eta «Zer»-en datoz On Klaudio'ren euskal lanak prosazkoak eta poesizkoak. Parrokiak asko lotzen ebelarik be, artzen ebazan asti-uneak bere barruari, lumaz ekiñik, nasai-aldi bat emoteko.

Berebillaren antzean edo, eder jaku izan be barrua noizik-bein asazkaldi batez gozatzea. Ar-emon larria eskatzen jaku. Aitaren odola dakar semeak, eta ezin ukorik egin odolari, nobere burua-rentzat kaltegarri litzaketa. Zoaz aurrerago ta ikus egizu: eleiz-gizon zara ta «erlejiño ta artearen artean» ez ete dogu berezko kate-ari bat? Begira barrura, begira atera ta ikus. Barruz, eder-sortzaille ez ete zaitugu? Eta kanpo-aldetik, nainora so, ederrez blei-blei daukazu guztia. Begira, artista ez ete zarean... Ba al dakizu barru-kemenez ederra sortzen? Eta, bardin, inguruan dozun Jainkoak begituz ixuria jasoten? Bear bada ba-dakizu; orduan artista zara, ez izan ezpairik.

Eder-zale genduan On Klaudio. Zeregiñez gaiñezka aurkitzen zan parrokian eta gizartean... Ata ta ona, eder-billa beti, arima zaintzen, meza emoten, autortzen, irakasten; arimen on billa, grazia ereiten, itzez eta egitez onaren billa, eder billa. «Gorago!» ifioan aspertu barik, an eta emen ezkutu billa, espirtu atzetik, Jainkoaren billa, edertasunaren aurkiraiño eldu nairik.

Eta On Klaudio'k, ondoren, olerkiak eioten zitun, estrofa gartsuetan bere anima ona jarioka itxirik. Arimearen dardara dozu olerkia, adimenak eta biotzak opildua, barruko eragin samur gozoa, goizeko eguzkiak intz leuna ikutuz sentidu oi dauan poz-fürñir ezkutua baizen xarmanta. Eta kanpokoak? Mundu atsegin zoragarri batez esiturik bizi arren, zenbat dira gizartean —miñetan diñot— mundu ortaz tautik ez dakienak. Lotsagarria egiaz. Eta Gurutzeko Juan deuna, Karmeldarra, zoratua ibilli oi zan aran eta ibarrak zear, Jainkoaren arnasa, lorratza ta bizitasuna antxe ikusi ta aurkitzen ebazalako. Mendia, itxas-egala, etxe bat, pertsona bat...

Eta oneik ez dautzu ezer esaten? Zoaz eskolara ta ikasi... Zer gero? Zeure kautan eta ingurumari dirdaika daukazun «ederra».

Ikasi egizu, bai, ederra sortzen, ederra jasoten. Irakur ondorengo estrofa ta aapaldiok. Adi ta ikus zein zorrotz eta begiko adierazo daroan izadiko edertasuna. Artagan aldera joan da, Begofia'tik gora, goiz-berandu; maiatza aukeratu dau ibiltaldi bat egiteko: lore illa, zuri ta urdin agertzen dira inguruak, lilluragarri. Aurrez aurre dau ikuspegi zabal bikaiña, Bolueta, Basauri, Galdakao ezkerretik; eskumara biurtuz, Bilbo, Deustu, Barakaldo, ur eta urrin; mendiak berdetuz, Pagasari ta urriñagokoak, aundi ta txiki, konta-ezin alean.

Goratzago doa. Larra edatua ta ardiak bertan, tanta zuriak iduri. Or umetxo bat be, amagandiñ aldendua, bildots txiki battegaz olgetan. Zuri-zuria da bildotsa, eta triskalari dabil aurtxoaren biran maitekor. Barrua oso zerbeldu jako olerkariari eta luma arturik, onela dau kanatzen:

«Lore il, argi-argi aurtengo lore il,  
zelaiak urdin zuri begi atsegiñak;  
bost urtedun umea, erruge garbia  
zelai erdian dago, begiak urdiñak.

Bere inguru bildotsa zuri-zuri polit  
triskalari ariña, da, pozez beterik;  
umetxoarengana doa geldi-geldi:  
errugea dalako ez dauka bildurrik».

Umetxoak musukatu dau bildotsa, ta onek, bere aldetik, umetxo igurtzi miintxoaz, maite-txera zelan-bait erakutsiaz. Olerkariak bertatik:

«Beriala bi orreik biur dira lagun,  
izketan asi dira, or zelan ikusi».

Ziur, oar alkarri dautsoen maite-miña. Jardun txanbeliñean darrai olerkariak:

«Umeak dirautsola: «Zein polita zaren!»  
Bildotsak erantzuten, esanagaz 'be, be'...  
Umeak ondorengo: 'Amarik ba-dozu?'

—'Nik ba-dot ama ona, asko ni nau maite'.

Uste dau umetxoak bildots zuri-zurik  
dakiala izketan, diñolako 'be, be'...

—'Or dator nire ama, zurigaz:  
emongo dautsut ataltxo bat zuri bere».

Asitakorik jarraituz poetak beste bertso batzuk ariltzen dauskuz, Umea ta bildotsa zela bat-berean, «erruge diranak lagun bereala» egifik. Esakun zorrotza, adifekoentzat:

«Ori da bide zuen nagusientzako,  
biotz zintzoko izan, bakez biziteko».

Lurra obetu ta gaizkatu guraz gabiltz, esanez beintzat gogotsu. Miiñagaz ori diñogu danok etxean eta kalean. Izan gaitzan, bai, errubako ta zintzo. Or bide bakarra erria loturik dauken kateak eteteko.

Ots: jakin dagigun bizi izaten; iñoren onerako geure burua eskintzen, eta lan eginez geure erria edertzen.

### MATEO ARGINTXONA TA ONAINDIA (1908 - 1986)

Aita pasiotarra. Mendata'ko semea. Amairu neba-arreba izan ziran, euretatik lau lekaide —iru pasiotar eta prantsizkotar bat—, ta arrebetatik lekaime bi. Ikasketak amaitu ta meza emon ondoren, Gabiria'n izan zan irakasle eta Irun'en nagusi. Ameriketara aldaturik, Bogota'n emon zituan urte batzuk, eta gero Puerto Rico'n bera izan zan pasiotarren etxea sortu ebana.

Euskalerriraturik, Deustu'n bizi izan zan ogetamar azkeneko urteetan. Zer egiten? Izlari zan ta ez suster bagea, eta Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n mixiñoak emoten ibilli jakun su ta ke, ainbeste urtetan, euskaldun errietan batez be.

Eleiz-gizon zanez, maite zituan biotzez Jainkoa ta euskaldun erria, beronen lege-zarragaz, euskaltzale ta abertzale zintzo izanik. Ikasbide ederra emon euskun danoi orretan. Langille jator be izan zan; ez eban oporraldi aundirik artu bere bizitzan, Deustu'ko ume-ikastolan maisu zalako, oporrak artzeko eskubidea eukonarren.

Umetatik ekian euskera obetuta, bizkaiera gozoa erabilli oi eban, joskera txukunean. Euskal erriari euskeraz, alik eta garbi atseginen, izan zan aren elburu. 1986'ko jorraitaren 19'an il zan Deustu'ko pasiotar komentuan.

Eta olerkari? Baita. Azken urteotan «Zer» aldizkarian agertzen ziran aren poesi sentikor ulert-errezak, zentzunez beteak. Ona oneitatik bat.

### EZ DAGO AMA LAKORIK

Amaren maitasuna! Egizko da, auxe;  
beste guztiak dira, ez besterik: aize.

Gauza bat da esana, bestea egia.  
Emon egidazu au ta gorde berbia.

Ama umea zaintzen arduratsu dago.  
Umea dago jolas, lupetza berago.

Umetxua jausten da lupetza artera.  
Lupetzez estaldurik agertzen da bera.

Amak itxiko ete, bera bertan bera?  
Atara bai, poz-pozik bere magalera.

Asiko da musuka, Nori? Lupetzari?  
Ez! Lupetzez zikin daun seme laztanari.

Iguin artuko dautso lupetz zikiñari  
ta milla musu emon ume politari.

Ta lasai dago ama egin ez baleu,  
Ori ikusteagaz gauz arriturik geu.

Ama guztiak dira onen antzekoak.  
Danak merezi dabez guztion txaloak.

Urteakaz umea mutilla egin da.  
Zelan ez dakigula etor yako gatxa.

Zoritzarrez, izan be, gatxa da zitala:  
bizirik dagoala usteltzen asi da.

Minbizia gaixoa ta ez barrukoa,  
usteltzen ari dana dauka kanpokoa.

Asmau guztiok geinke dala iguingarria;  
bera zaintzen dabenak dabiltz beti larri.

Baña iguifnik ez dau bere amarentzat;  
ez da lana gogorra zaintzea beretzat.

Egunero birritan garbitzen zauria,  
eta beti poz-poz'ik. A bai dau semia!

Gaixozaiñak, arrituz, beituz dauz amari,  
alkarri difñotsela: «Au bai arrigarri!».

Eta egunero au, bape iguin barik,  
Ama samiñez, baña ez erakutsirik.

Eskuak palta yakuz txaloak joteko,  
ta ama, bear dan beste, danok gorestekeo.

Oldozkunez ez txarto, ta neurritz ta amaierako ots-kid'ez, ed rto.

### JOSE ANTONIO GOIRIA (1908 - .....)

Gaur zortzi Martiartu torretxea ikusten izan giñan. Sakon-une gordean eta muñoz esitua dago. Leioa'z beste-kaldean. Toki atse-giña, askok billatua. Aspald'koa lauko eder au; ba-ditu amar bat metro gora, zabal ta luze urriago. Garai bateko espaiñar agindua-ren araueran, go'tik moztua dirudi. Uts barrutik. Bitxia dozu kanpotik be, leio, argi-zulo, irrikistu ta gezi-medar bakanez. Egora ate bat dauka, leen itxi ta gaur zabalik, baita gaintxoan maillaz igonda beste sarrera itsu bat be.

Andik-emendik begira, ikusle bakotxak bere eritxia ariltzen. Ak onela: «Leio ori, zergaitik amaiera barik?». Eta nik erantzun: «Zergaitik gaur olerki batzuk be amaitu bage? Migel Anjel italiar artista aundiak ba-daukaz olan oroigailu batzuk; bertanbera lez itxiak, amaitu barik. Zergaitik ete? Porrot egin ebalako? Umotakunik eza? Eukan asmoa gainditu ezifia? Ez dakigu.

Ezagutzen doguz olerkiak be amaitu bakoak. Luis Arostegi'k, esaterako oraintsu euskaldun karmeldar probintzial izentatuak, poesi-liburu bat dauko «Amaitu bako poemak» deritxona, Ipar-Amerika'tik ebillela egiñakaz osotua. Bai, poeta batek be, artista dalarik ain zuzen, laga oi ditu bere lan batzuk gaillurreko mon-txor-ikurra ipiñi barik.

Eleiz-gizonak abade naiz praille, uste dabe or kalean astitsu bizi dirala euren itxitu ixillean. Ezta egia, erdizka baiño. Edozein dala bere lanean diardu, eta bertatik uste gabeko deia: meza, autortza, eleizakoak eroan, kontsulta bat, ikustaldi bat, uneoro ainbat olako; esku arteko lanari agur esan bearra. Eta olerkari batek, doi-doi amaitzeko eukan poema, buru emon bagarik geratzen jatzu.

*Gizona.*—Gaur auzira dakargun Goiria, euskal idazle jatorra be, antzeko bizieran zenga egifia dala esan bear. Orain egotaldi luze samarra daroa Eibar'en, baiña urte askotan atala ta dantzan ibillia dogu Ego-Amerika zear, egiazko asti ta giro eroso bage olerkigintzarako; erbestean arima-zain, Aberri-miñak joa... Alan be, goi-irriak barnea iraultzen eutsonean, luma artu ta bertso-gintzan barruko miña ta kezka umotu oi eban. Eta, esana, astirik ezagaitik edo oler-giro urriz amaira barik itxi bearra izan dau olerkia. Goiria'ren poesi-lanak ainbat agerkaritan daukazuz, eta argitara emon barik daukazank ez dira gitxi.

Kortederra'n jaio zan Goiria, 1908'ko urtillaren 25'an, Galda-kano'ko Gumuzio auzunean. Berau Goiria-Munioz-guren sendian dogu 9 seme-alabetatik zaarrena. Zortzi urteko zanetik Larra'ko karmeldar Ikastetxean leundu eban bere arima, 12 urtegaz karmeldar izateko asmoa erakutsirik. 1924'ko garillaren 7'an artu eban karmeldar jantzia, urrengo urtean garillaren 8'an profesia egifnik.

Ondoren Markiña'n urte bete, edesti, elerti, izkuntzak eta abar kultur saillean, karmeldar istori, m'atika ta goi-latiña buruzko

gaiakaz naste ikasten. Gero, Gasteiz'en iru urte Filosofia ta oni dagokiozan gaiez jabetzen, eta Begoña'n urte bi Teologia ikasten. Gero Kolonbia'ra joan bearra izan eban bere ikas-lagunakaz batera. Errepublikako aizeak ziran nagusi.

Kolonbia'n jarraitu zituan bere ikasketak. 1931'an artu eban Diakonutza Aita Santuaren ordezkari zan Giobe Paulo kardinalaren esku-ezartez. Mezakotu, barriz, Medellin'en, 1933'ko urtarrillaren 29'an, karmeldar mojen eleizan. Tiberio Salazar izan zan apaiz egin eban gotzaiña.

Ikas-urteak amaitu ebazanean Frontino'ra bialdu eb n nagusiak. Eta an Uramita deritxon erritxoan parroko izan zan urte bitan. Andik Bogota'ra San Kristobal parrokira, eta ondoren Santa Teresatxo deritxonera. Bogota'n iru urte egin ondorean, Medellin'era ostera be, beste iru urte emen emonik; Praga'ko Ume Jesus'en Anaidia ta Teresatxo deunarena ta Katekesis euki ebezan bere arduran. Egotaldi bi Palm'ra'n eta gero Sonson'en Karmen'go Anaid'a zuzendu eban, azkenez Frontino'n nagusi ta txauburu izanik.

Euskalerrira biurturik, emengo karmeldar komentuetan be etenbako lana egin dau: Larra'n urte bi, Begoña'n zazpi ta ogeta-amaika ta erdi daroaz Eibar'en. Gaztedia zuzendu eban Begoña'n, «Gaztedi» deritxon dantza-taldea sortuaz: neska-mutil jatorrez osoturiko gazte-talde au Euzkadi osoan dantzari ibillitakoa dozu. Eibar'en Karmen'go Amaren Kofradia ta Teresatxo deunaren gazte-taldea zuzendu izan ditu.

*Euskal idazle.*—Arazo ta zeregin askotan sartua bizi izan darraren, idaztea izan dala esan dagikegu bere goidei berezi-berezia. Markiña'n ikasle zala asi zan irakasle euki eban Aita Urbano Manzidor, Lemoa'ko seme abertzale zintzoak saka eraginda, Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-n idazten. Ondoren Gasteiz'en eta Begoña'n egoalarik, Bilbo'ko «Euzkadi» egunerokoan eta Larra onetan asibarri zan «Karmen'go Argia»-n. Ona Begoña'n egoalako bere autorra: «Txikitatik nekarren euskeraganako grifia, eta Begoña'n ixillean ateraten genduan «Gautxori» aldizkaria neuk zuzendu neban azkenezko urtean».

Erbeste zear urteak erreta be, umetatik ekarren grifia ez jakon moteldu, geitu baiño. Kolonbia'tik lan asko bialdu zitun «Karmen'go Argia»-ra, bai bertso eta bai o'erkiz. Eta au be, berak

autortua dogu: «Nire lan-erarik berezienak iru izan dira: danetarik itzaldiak, Anaidiak eta euskera. Sei idazti argitaldu dodaz eta beste sei daukadaz argitaldu barik, baiña eginda. Iru urtetan itz egin neban 'Arrate' irratian. Dana euskeraz, astero ordu erdi».

Orrezaz ostean, aspertu barik idatzi dau Euskalerriko ta kanpoko euskal aldizkarietan: «Jaungoiko-Zale», «Ekin», «Argia», «Euzkadi», «Goiz-Argi», «Anaitasuna», «Agur», «Zer» eta abar. Daukazan liburuak, mardul-mardulak dira, «Goi-Bidez» deritxonak edibidez, 428 orrialde daukaz.

*Olerkari.*—Danok daroagu emen barruan zer dan ez dakigun «zer» ixil bat. Orrek dardar dagianean, or poema baten asiera. Arrotz ba'zabiltz, edo erri-miñezko naigabez, barne-zirkin ori errezago da nabari. Adi orduan, olerkari; or dozu zerbaiten erne-naia, illunetik argiaren billa daukazun zerbait. Ar luma atz-artean, eta ernai. Poesi zauskada dozu erdi-min.

Aita Goiria sari aurkitu izan zan orrela. Barne-miñez, eta barne-min ori, gaur eta biar, kopla labur politez adierazo izan dausku. Berak bakarrik daki zelako biotz-taupadak izan ebazan Kolonbia'n lenengo ta gero Euskalerrian. Dana dala, biotz-taupada ta zirrara orreik azalduz, ainbat ingurrazti ornidu dauskuz Kortederratar koplariak. Ona emen dasta daizun, «Nire azken kantua» deitua.

Beti izan dot neugaz Jaunaren eskua,  
pozik bizi nendin gizonen artian;  
bere antzeko egin nindun.  
ixaki gogo eta soindun.

Beti izan dot neugaz Jaunaren eskua,  
beti neugaz bere kerizpe gozua;  
txiki ta gazte nintzala,  
beti ikusi dot bere itzala.

Aberri ederra ta sendi maitia,  
izan dira egiz nire jatorria;  
Jauna nigaz beti maitaro,  
agertu izan da aldioro.

Gaztetxo nintzala egin eustan deia,  
beingo baten itxi neban nik ludia;  
apaizgo-bidea nun artu,  
karmeldar Anaidian sartu.

Aberritik urrun jun nintzan gazterik,  
biotza oso-osoa samindurk;  
Jainkoaren naia ikusita,  
beingoiz ni jun dana itxita.

Urte asko egin nitun atzerrian  
Jaungoiko-artzain lez arimen atzian;  
gogotsu mixifio-lanian,  
naizta izan biotza Aberrian.

Pozik nintzan gero Euskalerriratu,  
neure maiteekin barriro alkartu.  
Katekin lotuta Aberria  
aurkitu nun dana jausita.

Betiko etsaiak gogorki artuta,  
semerik askok aztuta, salduta;  
egoera bai baltz-illuna,  
etorkizuna oso ituna.

Jaungoikoagandik guztiz aldunduta,  
anaiak artean oso bananduta;  
Aberri-mifia dot barnean,  
samin-negarra biotzean.

Bizia bai latza! Benetan mergatza!  
Oifiazez eta itun zauritua natza.  
Eldu jat zartzaro garaia  
euskaldun onen amaia.

Sor-azo ninduzun, Jaungoiko aundia:  
pozik dot onartzen Zuk erabagia.  
Ar naizu zure ederrean,  
beti-betiko atsedenean.

## AITA FRANTZISKO ATUTXA (1908 - 1973)

Dima, gizaseme askoren sorleku jator, entzute aundikoena ziurki. Ementxe dau bere jaiotetxea, Emaldi auzunean, karmeldar eta olerkari errime izan jakun Aita Frantzisko Atutxa'k, ementxe jaioa dogu-ta 1908'ko garagarrillaren 23'an.

Larrea'ko karmeldar Ikastetxean egin zituan, lau urtetan beintzat, bere ikasketak, latin eta onen inguruko gramatika, matematika, kondaira, lutelesti ta abar ikasiz. Berton osotu eban gero asi-barrien urtean, 1926'an bere burua ziñez Jainkoari eskiñirik. Markifia'n ikasi zituan ele-ederra, asketika ta mistika; Gasteiz'en, barriz, Filosofia ta ingurukoak iru urtez. 1931'an, Teologi lenengo urtea amaitu ebanean, Erkal zalapartak zirala-ta, beste askoren artean, Ameriketara joan bear izan eban, Txile'n amaturik bere elizkarrera. 1933'an apaizgoa artu eban. Arrezkero, Txile'n ibilli jakun arima-zain; 1965'tik, ostera, Peru'n.

Txile'n, Txukunko'ko Ikastetxean luzaro egon zan maisu. Aurrean zituan arazoak artez beteten zekian, eta dala Txile'n, da'a Peru'n Kristoren Berri Ona zabaltzen etzan egundo aspertu. Askok ikasia ta irakurria zanez, gozo-bizia zan aren izketa; itzak eta esanak alkar egoki lotzen zituan ezker, aren jarduna beti zan adigarri; ez eban nai itz utsik, ez orbelik: zarata bakoak, mamin soil ziran aren izkirimiriak be.

Urri ebillen osasunaz, beti makal samar. Txit sentikorra zan, urduri ta bizia. Begiak su ta salda eukazan geienik, eta oifiak bizkor erbiaren pareko. Otzak geiago egin oi eutsan, eta Euskalerrira etorten zanetan, gorriak ikusi bear izaten zituan. 1972'an, beste batzutan lez, Probintziko Batzar nagusira etorri jakun, eta ondoren, Larrea'n igaro ebazan pare bat illabete, baiña otzaren otzaz gelatik urteke. Peru'ra biurtu ta Lima'n il zan 1973'ko garagarrillaren 27'an.

Lekaide ona, neke-mifien arragoan garbitua. Zeru-bizitzan barruzabalekoa, zuzena maite ebana; beti egizale, arteza, Jainkoagan sustra'ak sakon egindakoa.

Euski erritik asago ibillita be, maite eban jaio zan lur-txatala, euskal lur-txokoa; eta euskalduna bere lur gainean, onek ditun doai ta edertasun guztiek. Ez eban noiz urruñatu ez utsean euki bere amak erakutsi eutson izkuntza. Naiko idatzi eban or-emen, «Emañdiko», «Atutxa», «Orlo» ta «Eltzegor» izengoitiak beñik-bein erabillirik bere lanak izenpetzean.

Setaz eta barne-doiz olerkari genduan A. Atutxa, zoriak ortarako lagundu ez ba'utsan be. Markiña'n e-le-eder (literatura) ikasle zala, 1927'ranta, zirriborratu ebazan bera lenengo lanak, prosaz eta bertsoz agertzen dira Donostia'ko «Euska-Esnalea»-n, gerora be lau urtez beintzat ortan jardunik. Gero, baiña, Txile'n eta bazterretan, beste arlo batzuei oratu bearra izanik, ez eban astirik ez gogo aundirik izan neurtitz gaietarako, naiz-ta, berak diñoskunez, euskal arnasa jatorrak ortara sarrri bultz-eragin.

Arildu euskuzan gutun, artikulu ta poesiak arnas bardiñez usain-gozotuak dagoz. Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-n eta Zornotza'ko «Karmen'go Argia»-n idatzi eban geien bat; aldizkari bi oneitan daukaguz aren lanetatik: «Izaki onak», «Txorizua», «Euskera», «Leyotik», «Agur», «Basetxea», «Batua», «Urkiola'ra», «Kaskailuak», «Udabarria», «Larramendi'ko sorgiñak», eta abar.

Nik, neure *Milla euskal Olerki eder* poe-i-sorta osotzerakoan, olerki batzuk eskatu neutsozan, eta aitatu oneitaz kanpo, ez eban aitatzerik be gure izan; «beste nire olerki edo zereko zer guztiak erre kara bota zeinkez», ziraustan apaltasunez.

Baiña ez, geroztik be erabilli euskun bere luma zorratza, «Mugarra Begiraria» biribiltzeko batez be. Txile'ko uri nagusian ateratzen zan «Euzkadi»-n idazle izan zan, 1945'ranta «Urlo» ize-nordez lanak firmaturik.

Aren lanik ederrena berau dogu, euskal poema bipilla, Karakas'eko «Gudari» argital-etxeak 1969'an atera eutsona. 94 orrialde daukaz. 2.005 bertso guztira, Euskeraz eta erderaz.

Erbestean aberri-miñez bizitakoak egiña dozu poema zu, eta ba-dau bere garrantzia, dudarik bage. Muiñari ikutu nai izan ez-kero, sarrera lez «Argitasunak» dakaz amabost orrialdetan; ondoren, «Azalekotzat», amar aapaldiko poema, ta azkenean beste bederatziko bat, lan o-o-ren ertz eta zertzeladak berez-tuz. Bion

tartean, barriz, olerki oneik: «Ateria» (5 aapaldi), «Erbestean» (20 aapaldi), «Ireltxuaren deia» (24 aapaldi), «Gernika'rena» (36 aapaldi), «Aretxarena» (43 aapald), «Mugarra begiraria» (41 aapaldi), «Txabola ta yatorria» (43 aapaldi), «Urrunetik urrunera» (24 aapaldi), «Gauberanduan» (28 aapaldi), «Aindiako otsa» (14 aapaldi), «Eguantza» (21 aapaldi). Amaieran iztegi labur bat damosku.

Mañari gaineko aitz-tontor ospetsua da Mugarra. Ego-aldera begitu ezker, Oiz, Bizkargi, Kantauri itxasoa; sortaldera, Eskubaratz, Untzillaitz, Aillutz eta Anboto; sarkaldera, Kafiabete, Aramotz, Lemoatz. Olerkaria Oba-koa dozu, Mugarrak bere arnasa epelez seaska kulunkatu eutsona.

Aita Atutxa beñiola, erbestez gogaitua, bere lurraren ez-tia goxartu nairik alderrai ebillela, Mugarra oñiera eldu zan, arkaitz-mokor onen barruko kutsu ta indarrez obeto betetzearren, bere magalpe samurrean lo be egiñik.

Olerkariak, gau-etzangua gertau bitartean, onela abesten dau:

«Gogoeta goibelez  
barrua ernari  
ta babes egiteko  
aitzulo illetari,  
nondik emon burua  
gaubeko loari?  
Negarra litzakean  
niretzat apari,

Zeru errukiorrak  
ordu an antola,  
lorrez nenbillan oni  
kentzeko aizola,  
orko atxarte baten  
zegoan potxola  
ta bertan abia lez  
gordeta txabola.

Ortxe aurkitu neban  
gogozko babesa  
atsedenaz amaitu  
negian igesa  
niretzat izanarren  
atxarte oieza.  
Or egin bear neban  
itxarrik amesa.

Zoragarrizko abi  
baita be gauiro,  
maiteagorik ezin  
leikena ediro;  
goietan illargia  
igitzen geldiro  
ta bean arranotsa  
nentzuan aldiro».

Gaztetxo zala arkaitz arte areitan sarrri ibilli zan. Eta poema au burutzean, Pazifiku itxaso urriñaren ur-egaletan bizi izanagaitik



be, askotan nabaitu oi eban barruan gaztetako gomutaen azkurea. «Gorapean zegon —diñosku berak— zerbait ernemiñetan. Eta bein egar'n goiztar batez lanean asiezkero eneban bakerik izan amaitu arteño. Benetako erditzea dirudin olakoen estura ta miñekin. Aiena luzea sortu zan berez, oraña ta aspaldiko lena bidur meiaz loturik. Atsekabeak eroan ninduan lenaren gau-beranduraño, gero sostoan egubarria erakusteko, lurreko atsegiñak zuzenbideko nekeetatik jaioten baitira. Arlo au doan bidean lendik ibillia naiz eta or danik geiena txastaua neukan edo gogoetan neketsuan sarri ausnartua. Beraz ez da ain arrigarri ortik zerbait azaltzea» (8-10 orr.).

J. M. Leizaola'k onan: «Ona, iya eunen bat orrialdetan, erbesteratu abertzale baten abesti bioztiya. Bizkayeraz egifia, gipuzkoar guztiz ondo ulertu dezaketan eran idatziya, Jator, jator, jator; orra olerki ontan oartzen degun arnas eta odola. Arnas eta odola garbiak ez al dira osasunaren ezaguera ber-bera? Arnas eta odola garbiak ez al dira Mugarra'ren sendotasuna gure erriari emango diyenak?...

«Aberriya barren-barrenen darama erbesteratutako abertzale onek. Ta badaiki erbesteratzearekin urteak igaroaz, azkenean, aita- seme atzerrituak abizenetan euskaldun jatorriya aitortzen ba dute, aberriaren izaera galduta izaten dutela... Gai ori zabalduaz, ez det uste iñoiz gutun ontan datorren «Erbestean» olerkiaren aldekorik egin danik. Sabin'en «Mendiko negarra»-ren alako bat da. Etzait ere gogoratzen Gernika'ren erreketeta zitara abesteko emengo «Gernika'rena» bezelakorik».

Zorrotza da olerkari au, ta itz bakoitzari bere esan-nai zeatza ezarten dautsa.

## INAZIO OMAETXEBARRIA MARTITEGI

(1909 - .....)

Gernika'n jaiotako 1909-7-29'an. Lenengo eskolak Gernika'n artu zituan, eta nagusiak Gernika'n, Arantzaru'n, München eta Gladbach'en. Frantziskotarren ordena barruan kargu garrantzitsuak izan ditu, Probintzeko Aolkulari ta Granada, Santiago, Marruekos eta Valencia'ko probintzietan komentu-ikerle.

Bere arazoetan etenbarik ibilli bearra izanarren, euskera landu izan dau, ainbat liburu idatzirik, erderaz eta euskerari buruz; erderaz, baiña euskeratzaz: Aita Frantzisko Beraskola, Aita Paskual Bitoria ta Zubiri'tar Teresalina, esate baterako. Eta «Euskera» liburu ederra; goralpenetan urria dan K. Mitxelenak onela: «A. Omaetxebarria'ren jardunei eztiat alde txar bat baizik arkitzen, eta nolako alde txarra! Gienon gaitza agortasuna, elkortasunakizan oi da; egillearena, berriz, ugaritasuna eta etorria. Eta iñoiz edo bein irrinbeste iritzi berriaren argiak lillura editzake irakurlearen begiak».

Euskeraz ta erderaz, aldizkari askotan dogu lankide. «Arantzazu»-n ari izan da, «Aritzondo» izen-ordepean. Euskal liburu bartzuk be baditu, «Lagunarteko Meza», «Abestu Errosaioa» eta abar.

Olerki-arloko Maitagarriai be intzentsua erreten saiatu da iñoiz. Nik iru eukeratu neutsozan neure «Milla euskal Olerki eder»-erako: «Abendua», «Badator Jesus!» eta «Arantzazu!». Irakur lenengoa:

Katigu bizi gera  
pakatu menpean,  
grifia gaiztoen kontra  
burruka asarlean,  
Orregatik guk otoitz  
Abendu donean:  
«Betor Askatzallea,  
Jainko lurrean!».

Zorion-gose gabiltz,  
atsegin-egarri,  
ezin inun asetu  
biotz errukarri.  
Orregatik guk otoitz  
Jesus maite orri:  
«Ator, ase gaitzazu,  
zorion iturri».

Goixo datza mundua,  
ezin da zuzendu;  
Jainkoaz bestek ezin  
aren gaitza kendu.  
Orregatik Eleizak  
otoitz egiten du:  
«Betor Salbatzallea,  
gure Sendamendu!».

Deadarka ari zaigu  
San Juan igarlea,  
gerta dezaiogula  
Jaunari bidea.  
Orregatik, kristau on,  
det eten gabea:  
«Gugana bedi laister  
Jesus Erregea!».

### MARTIN ARRIZUBIETA (1909 - 1988)

Gure —gizona bai!— Mundaka'n jaio zan, itxas-ertzeko uri polit aundiki-zalean. Urteak dirala, en 1909-9-8'an. Ni Martin baiño sei illabete zaarrago nozue, eta au diñotzuet, ordutik ona euri ugari jausi dala, ta munduak bere ibillian ainbat eta ainbat gauza ta jazoera ikusi ta bizi izan ditula.

Ikasle ta argi agertu izan da nun-nai ta beti. Bere jaioterrian osotu zituan bere leen-ikasteak. Garai aretan berezko gaitasunai jantzi apaiña jarteko —eta goi-deari erantzunik— apaiz-karrera artu eban, Durango'n, Komillas'en eta Lovaina'n ikasirik. Doktor titulua dauka Filosofian, eta Lizenziatura Sozial eta Politika Zientzian.

Ikasketak amaitu-barri egoan emengo guda zitala sortu zanean. Zurrumbillo orren naspillean larri, beste asko lez, Frantzia'ra jo eban. An be, baiña, ez ebazan izan estutasun bako egunak. Gosez

eta aterpe barik sarri, iruالتzaille lez agertu bait zan doitzartakin batez be. Bost urte erre zituan Polonia'ko baitegi zelaietan. Ezin barruak ekarrena ixillik euki ta, jakiña, txibita gaiñetik azkar erabilia; Italia ta Frantzia zear, itzez ta egitez asalde-zale; urduri be urduri...

Azkenez, ixilka. Euskalerriratu zan. Emen lanpostu bat nai, arima-zaintzan jarduteko. Etzan auzi erreza, edu orretako el'z-gizonak txarto ikusiak ziralako. Gurrpide, Bilbo'ko gotzain zanaren denporan, Kordoba'ra joateko baimena lortu eban. An, Santa Marina parrokiari, ogetabost bat urte egin zituan, eliz-arazotan, bertako txauburu zala.

Gero bere errian, Mundaka'n bizi izan da, Jakintza-gaiari ta euskereari lotua. Nik olantxe aurkitu neban igaz. Bere bizileku osoa, ez medarra geto, arasa, mai, jarleku ta abar, liburuz gaiñezka, Gai guztietako liburuz, ain zuzen; baiña Filosofi-gaiak ditu eder eta atsegin Arrizubieta'k, beste gai guztien artean. Amesetan ditu, eta orretan d ardu, euskerazko Filosofi-lan zabalak, oraindik, gauza aundirik beintzat, saratu barik daukaguzanak.

Erderaz eta euskeraz idatzi dau. Erderaz: «*Los cristianos ante el capitalismo en vía muerta*» y «*Eicmann o la sombra de Cain*».

Euskeraz, «Egan»-en eta «Zeruko Argia»-n batez be, «Agur» eta «Izaro» izen-ordez.

*Olerkari*.—Poetak, geienez, gizaseme zaintsu, eragin, artegatsu ta kezkartiak izan oi dira. Gorputzez eta arimaz. Kezka dala be olerkia, irakurri dogu ifioizka.

Lurrak edo bizilekuak be ezarten ei dau olako biztasuna, olerki-giroa. Martin'ek gazte zala erakutsi eban ori; ikasle zalarik, Komillas'en, Lovaina'n erakutsi euskun eder-zaletasuna, oler-sena. Urretxua'ko Olerki jaietarako beintzat, 1938'an, lantxo bat bialdu eban, ikasle zala egiña. 1933'ko «Eusko Olerkiak» liburuan datorren «Biotzizketa».

Olerki-lanak norbaiten eskabidez diranean, idazleak berak sortu bear dau goi-argi indarra. Au ez jaku ain erreza, sarritan bada naiz alperkeriz naiz gogorik ezagaitik, alboraz laga oi dogu eskabi-dearen naia. Orduan alako ta onako eragozpenak sortzen jakuz;

orduan edo errez urtetan dogu garaille edo-ta goi-argiak iges egiten dausku oso-osoa, txori egaziaria iduri.

Arrizubieta'k be izango zituan onako goraberak olerkagintzan. Bai Europa'n zear baitua ta igeska, eta bai, gero, Kordoba'ko ari-mazaintzan izanak ditu buru-auste ta lanak; alan be, beti jardun izan da olerkitxoren bat eioten. Egia ete? Gitxi baiño argitara emon ez daua nairen, mordo bat dauka argitaratu naian. Gabon aldian bertsoz agur izan dauz bere adiskideak. Nik ba-dodaz emen urteetan Kordoba'tik artutakoak, bertso jori, gartsu, mamintsuak agurka andik bialduak.

Zeuk be, irakurle, jakin daizun zelako olerkaria genduan mundakar jakintsua, emen dozu an gerra aurreko urteetan, ikasle zala, ondutako «Biotz«izketa». Zortzi estrofa daukaz,

«Gau ixil baten Sabin abotsa nabaitu neban biotzan.  
Maite dardaraz urduri neukan biotz txoria kolkoan.

Zugatz ostoak aize zakarrak astindu ditun bezela,  
Sabin abotsak astindu eustan ene barrunbe epela.

Abots leunari erantzun naiez «nun ete zagoz» niñotsan.  
*Sabin*: «Otzez geixorik zure begira egon nago ibai ertzean».

Lanbroe bide legarraz zear ibai ertzeran ninoian.  
Ta ibai-alderantz ninoialarik, itz onek txir-txir gogoan.

*Sabin*: «Ibai ertzean otzez geixorik zure begira natzazu».  
*Gogoak*: «Baña illun ontan biotz begiak ikus zaikie t'ezautu?».

*Sabin*: «Aurrera, gogo, ire begira maitale antzo natzaik ni.  
Eztok ikusten ibai leiarrak argi printzeok edaki?»

Neure gorputzak gai illun ontan sortu dau izpi zuria,  
eusko biotzen su aberkoia izpitxu onen semia».

Auzpez gurturik Sabin itzala isla be isla yatazan  
iru margozko izpi gartsuak ene begien leiarran».

Gerra zitala zala zio, ainbat euskal poeta, artista galdu jakuzan, illak eta or zear sakabanatuak. Itxaropen izar ziranak eusko zerruan, betiko itzaliak edo ondatuak. Tamal aundiz, olako bat dogu Arrizubieta, alanbear latzak gure artetik uxatuta; lan-baratz egoiki jaurtia, berezko lantokian lanik ezin osotua.

Emen izan balitz eta barruko deiarri ateak zabaldu, makifia bat lan bikain burutuko euskun, ziur asko, bere bizitza ederrean. Jakintsu ta artista, baiña ego barik laga eben gaztetan.

Kordoba'n il zan, 1988-9-1'an.

## AITA SANTI ONAINDIA (1909 - .....)

Ni Amoroto'n jaio nintzan Atxur'arte baserrian, 1909-3-24'an.  
Nire aita, Mikel Onaindia Barrutia, Markifiakoa zan, eta ama, Jazinta Baseta Albizuri, Anboto azpiko Axpe erritxokoa.

Leenengo ikasketak erriko eskolan egin ondoren, 1921-XII-4'an aitak Larrea'ra eroan nindun ikasteko. Emeneleiz-karrerak eskatzen ditun gaiak ikasi, karmeldar abitua atru ta profesu burututakoan, Markina'n goi-latifia, izkuntzik, Asketika, Mistika ea gafiñerakoak ikasiz, Gasteiz'en jardun neban Filosofian iru urtez eta Begofia'n Teologian lau urtez, bertan mezakotu be egifilik, 1934'an.

Eleiz-karrera amaitu nebamean gaur be nagoan Larrako komeñtura bialdu nindun Aita Nagusiak. Emen aurkitzen nintzala sortu zan gerra; eusko gudarien kapellau ibilli nintzan Elgeta'n, Sollube'n eta Artxanda'n... Gero, espetxean iru urtez. Aske, Santander'ko Rigada'n, Gasteiz'en eta Logroño'n urte modoskan; Rigada'n eta Larrea'n nagusi sei urtetan; iru urte Eibar' en eta barriro Larrea'ra nagusi; arrezkero guztia emen daroat. Karmeldar bizi-moduari ta euskal idazteari ekinda.

Komentu barruko bizitzeari ta sermagintzari ta autortzeari errietako abadeak dei egienean uko egiteke, idaztea izan da nire egitekorik beñena. Larrea'ko ikaste-xean ikasle nintzaneko asi nintzan idazten, orduan neukazan irakasleak lagunduta. Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-k, 1927'ko garagarrilleko zenbakian dakar nire lan bat, «Euskal idazleen uts eta okerrak» titulupean, eta urrengo urtean beste bat, aldizkari orrek urtero eratu oi zituan norgeiagokan sarituak biak. Garai atako da, naiz-ta argitaratu barik, nire leenengo olerkia be. Nobiziaduan (1927-28) asi nintzan baita Teresatxo deunaren «Gogo baten Kondaira» euskeraz jarten.

Filosofi ikasle gintzazala, euskal griña gaztean artean; «Euskal-Esnalea»-k itzulpen sariketa iragarri eban; Cervantes'en «Novelas Ejemplares» ziran itzultzekoak, eta lau itzuli genduzan guk, eta nik «Nekatx ijitoa» ta saria lortu. Barruko aldizkarian nik prosaz eta bertsoz idazten neban; an daukazuz «Renacer» deritxonean, iru oneik beintzat: «Neure ereskin ekaiak», «Nekosta ta Itxaropena» ta «Karmel'go Artizarra». Orduantxe asi nintzan «Karmengo Argia» (1931) sortu bartia zanean asi nintzan idazten. 1931'tik asko idatzi neban aldizkari orietan. Gero aldikada baten, mutu. Ez, baiña, osorik; baiturik nengoala be, izkuntzak ikasiz gaiñ, lan jatorrak bertsoz eta itz-lauz eta itzulpenak osotu nitun.

Rigada'n nagusi aurkitzen nintzala sortu neban (1950-51) «Karmengo Eugetegia», jarraian «Karmel» egin zana eta gaur be a nas aundiko dabillena; urte askotan zuzendu neban berau. 1959'an sortu neban «Oleriti», poesi rebista, iru-illerakoa, gaur be bizi dana; ementxe idatzi eben orduan bizi-bizi ta gaur ixil-samar dagozan euskal olerkari ia guztiak. Aldizkariatz batera «Oleriti-Eguna» ipiñi neban Larrea'n, ogetaz urteetan aundikiro ospatua.

Apaltasuna egitan ibiltea dan ezkero, argitaratu ditudan liburu jator eta itzuliok be, ez dira ezerez. Ona sail au: «Milla euskal Olerki eder» (1954); R. Tagore'ren «Iru Poema» (1965); «Eguneroko Meza» (1966); «Onbidea», Santa Teresa'ren «Camino de Perfecci» euskeraz (1963); «Gure Bertsolariak» (1964); «Jolas-keta» (1965); «Enbeita Oleskaria» (1866); «Bergili'ren idazlanak osorik» (1966); «Abarrak eta abar» (1966); «Larrea eta Karmeldarrak» (1968); «Kolonbiar olerki-txorta» (1968); «Goiznabar», olerkiak (1970); «Gure Urretxindorra» (1971); «Euskal Literatura», VI tomu (1972-1977); «Eskutitzak» (1974); Euskerazko Eun maite-olerki onenak» (1975); «Euskal Elertia» (1978); «Lamiñak» (1978); «Egoitzak» Santa Teresa'ren «Moradas» (1981); «Arana Goiri'tar Sabin olerkari» (1982); «Euskaldunak eta osasuna» (1984); «Nere Baserria», euskal poema (1985); «25 Antzerki labur» (1985); «Jainko Antzerkia» Divina Comedia (1985); «Odisea» (1985); Lauaxeta'ren «Olerki guztiak» (1985); Goethe'ren Der «Faust» (1986); Pio Baroxa'ren «Ipuiñak» (1987); «Gernika» (1987); «Olerki guztien Bilduma» (1988); Santa Teresa'ren «B'zitzea» (1989). Gaiñera, Horazio'ren «Odak» eta «Epodoak» euskerazturik daukadaz.

Olerkigintzan gogotsu samar ekin dautsot neure bizitza zear; ez baiña ortan jarrita, aldizkariak eta abar bearturik baiño. Aitzol, «Yakintza»ren zuzendari zalarik, berak eskatuta bialtzen neutsozan, konkurtsuetara sarri jo dot... Baiña geien bat «Karmel»-ek eta «Oleriti»-k ortaratuta jardun izan dot poesi arazoan. Eta aurren, Zornotza'ko erriak maiatzaren 11, 12 ta 13'an omenaldia eskiñi eustala, eta bertoko Udalak nire bertsoz osoturiko «Olerki guztien Bilduma» liburua atera, neuk uste baiño olerki-lan geiago osotu nebala. 310'tik gora dira guztira, ikusi zan dut.

1929'an asi nintzan aldi karietan idazten, Tolosa'ko «Pyrenai-ca»-n dator nire lenengoa, eta «Karmel»-en, 198-4, «Zaindu gai-zuz» deritxona, azkenengoa. Urteak zear izan ditut sari batzuk, liburuak argitaratzeko ederki etorri jatazanak. Batez be «Nere Baserria» poema saritua izan zan.

Argitara eustien liburuari Juan Mari Lekuona'k egin eutson sarrera, goralpen geiegiz bear bada, baiña egiari berea eskiñiz itzaurre jakintsua. Lan luzea, 16 orrialdekoa; Jose Alberto Gurtubai'ren aurkezpenaren jarraian egiña. Azkenez, akademi-egintzan

egiñiko itzaldian onako batzuk irakurri euskuzan eta berez-berez begar-iruntzez busti ziran gure begi-niniak.

Itzaurean eta itzaldian gauza jakingatriak diñoskuz J. M. Lekuona'k. Nire leenengo liburu «Milla euskal Olerki eder» aitatzten dau, «funtsezko idaz-gutxik eskain dezake berearen idazki aberastanunik, liburu mailan» idatzirik; euskal olerkigintzaren muina eskaini digu, eta berau (itzulpenez) kanpoko hainbat maisuren ekarriz aberastu». «Olerki mugimentu baten euskarri eta eragile izan dugu Aita Santi —jarraian esanez—; «Olerti» aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailtan bere bizkar hartzen duelarik euskal olerkiak plazaratzeko zeregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, b'ztaile eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osagarri eta aberasgarri diren poemak sortzera edota itzultzera, eta. belau-naldi berri beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez». Egi utsa, askok ez dakiana.

Ondoren Lekuona'k nahi azterten ditu gaiok: eder-gogalpenak, liburuan datozan poemak berarizko ikuspegi jatorra, nire «Goiz-nabar» liburuiko metrika eta abar, iruditeriaz, gudarien inguruko poemak eta, azkenez, «Nere baserria» poema nagusia. J. M. Lekuona'k nai leuke ondorioz neuk burutzea neure poesien antologi-lana. «Orduan ikusiko litzateke olerkari ikasi eta sonatu honen ekarriarik aipagarriena. Orduan garbiago agertuko litzateke geuk hemen nolerebait irudikatu duguna: estetika bat, estilo bat, testigantza liriko ba».

Gero, mitzaldian, olerki bi irakurri zituan izlariak, «Loreil» eta «Ur-egalean», biak ondo txalotuak; bigarrena, gaitzera, begiak negar-anpuluz bete zituna. Bego emen bigarren au.

#### UR-EGALEAN

Ibar-muiñotxoan zut gaztaiña makurra;  
garitzea beerago, urrezko kulunkaz...  
Lizar itzaltsu baten orpoa, balantzaz,  
beerago zerbaít, urak darabil kizkurra.

Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean etzana,  
gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?  
Bedar-ogean datza dirdai eguzkitan,  
esku biak bular gaitz, bits-jariz ezpana.

Illik dago gaixoa. Iru zauri laru  
daukaz saiets aldera, odolez beteak.  
Orain ez dau indartzen bizi-arnaseak  
eta argitsua eban zintzozko begitu.

Zuzmur gozoz zoazan lizar-orpoko ibai,  
jagon eizu gazte au, osorik, eukana  
Aberriaren alde opetsi dauana!  
Uraen gardena! Jo zuk illeta-dindai!

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi  
ta gaztearen soñia bertan dot eratu,  
lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.  
Jausi ba'nendi, esku on bat n'ntzat bedi!

Antzeko poemak, guda oiñean be, ez nitun gitxi arildu.

#### TERESIO ELORRIETA (1910 - 1985)

Gauza guztietarako, nik uste, giroa bear da, bai ereiteko, bai maitatzeko eta bai ilteko. Zerbaiten gertakuntza da giroa: lurra ereiteko, biotza maite izateko, ta gogoa —lurraz aspertzean— ilteko.

Zer adierazo nai dot onegaz? Eder-lanak, olerkiak osotzeko be giroa bear dala. Besteak beste ta gaurko egoerari ezer kendu barik, gera aurreko denporak nai girotuak zira la olergintzarako be; gizkunde egunak genduzan, arnasa aundiz jokatu gurezko egunak. Eta zenbaitek, albokoa ikusiz olerkigillen ta goi-zaletua, berak luma atz-arteatuz oler-laneri ekiten eutson. Labur: alkar sustatu egin oi genduan.

Onakoxea dozu Aita Teresio karmeldarra be, oraintsu il aurretil liburu interesgarri bat —«Mendatako Profeta»— eskiñi dauskuna, eta gaztetan, gerra aurretik, «Karmengo Argia»-n olerkiak be idazten ebazana.

Gai oni astiñaldi barririk emoteko asti bage, irakur eizu nik aitaturiko liburuari ipiñiriko itzaurre zati bat.

«Idazti a mataza egin dauana —diñot—, ez dozu edozein. Ba dau sasi ixetuaren garra gogo barruan. Ogei bat urtegez Peru'ra joanda, an bizi izan zan Aita Teresio, Jaunaren maastian lanari lotuta, bere bizitzaldiko egun eta urte luze ederrenetan. Euskalerrira itzulita, emen be etzan geldirik egon. Izatez langille danak, nun-nai aurkitu, izango dau zeri eskua ezarri.

Ikuspegi ori baiña albora itxirik, Aita Elorrieta karmeldarrak ba dau, liburu oni dagokionez, sail bikain txalogarria. Liburu l at mamindu dauku, esku artean daukazun idazti au berak osotua dozu milla gauza bitxi jakingarriz jantzia.

Au ezdautzu edonok egiten, jaiot-lurretik ez ur bizi izanak batez be. Berezko sua bear da ortarako, izateak berak itsasten daukun arnasa ta sua. Ori izan eban Aita karmeldarrak. Amaren altzotik ekian euskeraz, gero Larrea'n eta Markiña'n irakasle onak eraginda, sakon ikasi ta Pazifik-itxas ertzean be ondo zaindu ta landua.

Emengo gerra aurrexoan, andik, Peru'tik bialtzen zituan euskerazko lanak, itz-lauz ta poesiz, emen Larrea'n argitaratzen zan «Karmen'go Argia» aldizkarira. Eta, jakiña, gaztetan gozo edosk'a ta ondoren maitez landua, dala izkuntza naiz dala lur-txera, ez dira errezko lur-antzipera jausten.

Euskaldun seme-alabak errez aurkitu oi doguz, erbestean urtemordotxo bat eginda, barriro Euskalerriratzean, lau berba euskeraz esan ezinik dabilzanak. Zergaitik ori? Euren erantzuna: «Aztu egin jat; ez dot euki nogaz itz-eginik». Kako-mako ta maratilla merkeak; lur-gaiñeko orbel illak, nagiaresan esan suster bakoak. Oba mingaiña geldi euki, olakoak bota baiño.

Mendata'n jaio zan Pedro Elorrieta Zenikaonaindia —Aita Teresio karmeldar Ordenan—, Manuel eta Segunda'gandik, 1910' ko urtarrillaren 8'an. Larrako karmeldar Ikastetxean latin eta onen

inguruko gaiak ikasi ondoren, emen berton artu eban 1925'ko garagarillaren 9'an karmeldar jantzia, urrengo urtean garagarillaren 10'an profesa eginik. Markiña'n edertiak eta asketika eta Gasteiz'en Filosofia ta Letrak ikasi ostean, Errepublika zal-ta, bere ikaskide guztiakaz Ameriketara joan bearra izan eban, Lenengo Txile'ko Txillan'en eta gero Peru'n auren eleiz-ikasketak amaiturik. Emen apaiztu zan Teresio, Lima'n meza bartia emonik 1933' ko urtillaren 22'an.

Mixiolari sutsu, aspertu barik eta ardura aundiz lanari ekin eutson Peru'ko karmeldar komentuetan. Nagusiak lenengotan San Pedro de Lloc'era bialdu eban, eta an daukagu 1936'an bere ikaskide Balentin Abasolo Igorre-koagaz, Gero Chocope, Trujillo ta Arequipa'n lan egin eban, ia beti lekaretxe oneitako nagusi.

Berrogei bat urte erbestean eginik, Euskalerrian daukagu barriro be, Altxo'ko nagusi lenengo ta 1975'tik Santander'ko Hoz de Anero'n karmeldar Eremuan kargu bardiñagaz; bere nagusitzako iru urteak amaituta gero be bertan bakartade oretan bizi izan zan zati batean, baiña biotzetik txarto ebillela-ta, Kalahorra'n aldatu zan, osasun billa. Sei bat urte antxiñako euskal erri-txun-eskuetan itxi eban bere arnasa, egunean bertan aren arimearen txur aretan igaro ondoren, 1985'ko abenduaren 4'an Jainkoaren alde illeta gogotsuak ospatuz.

Goian bego Aita Teresio, karmeldar lekade on, langille ta euskaldun sutsua.

Autortu dogunez, Aita Teresio'k euskeraz berba egiten eban andik ebiltzan euskaldunakaz eta noiztik noizera ona etorten zanean, emengoakaz. Eta idatzi, prosaz ta itz-neurtuz, emengo aldizkarietan, Orrez gaiñ, baita burutu be aspalditik barruan erremiñ ebilkion asmoa: «Mendatako Profeta». Bere sendikoa zan profeta au, ezta beraz arritzekoa.

Taiuz eta zentzunez osotuta dago liburua. Nobela lez irakurten dana dozu, gertakizun, jazoera ta zeatzasun txanbeliñez jantzia. Eulalio Intxausti Gomeztegi dozu beronen ardatz interesgarri. Au egun baten Kortezubi'tik gabaz etxerantz etorrela, ezezagun bategaz aurkitu zan ibidean, Mendataraiño lagundu eutsona; bidazti arek ainbat eta ainbat gauza eraigarri eutsozan, gero gerra aurretik, gerra bitartean eta gerra ostean naikoa zeatz bete ziranak. Bideko

esanok. —Intxausti'k ez ekian nok esan eutsozanik— izan ziran Eulalio medatarraren iragarkiak, berak eta beste batzuk inguruetan zabalduak.

Iragarkiok polito bete ziran. Aita Teresio'k, barriz, bizi-bizi jarten ditu gerra denporeko milla jazokun —eriotza zigortze, gose, zalaparta— arrigarritz aberasturik. Atsegiñez irakurten dan liburua, garai aretako gauzen jakin-miñez irakurtera ezkeru.

Gaiñerakoan olerkari dogu Aita Teresio. Ez euskun, egia autortzeko, askorik idatzi neurtitzez, baiña gerora astirik izan ez ba'eban be, gaztetan orretan jarduna genduan. Emen dozu, irakuele, nik neure poesi-bilduma «Milla Euskal Olerki Eder» liburuan batu nebana (572 orr.). «Aurraren eriotza» deritxo.

Arrats illuna. Geldiro jausten  
edurra, oparo,  
Nor bait itun ta bekoki motzez  
auzotik igaro.

Txorikuma illa abian legez  
otz eta bakarrik,  
Altzoan dauka amak seme illa.  
Bai dala negarrik!

Arkaitz orpoko etxe zarrean  
jazokun larria!  
Alargunaren seme bakarra,  
ai!, otzak dariola!

Leiotik argi epel-motela  
sartu da gelara...  
Oin be, amaren begi tartian,  
bai dakust negarra.

Izadi dana ixillik dago,  
ez dantzut an pozik...  
Aman altzoan aur gizajoa  
otzez dakust illik! ...

Aurran gotzonak gela-leioa  
zarrast dau zabaldu;  
Gotzontxu biak, laifio artetik,  
donokira sartu.

Ezpanak ditu erdi zabalik,  
laru ta tximurrik;  
Soin ta arpegia, ezko antzera;  
begiak, leiturik.

Amak, maitero, bular ganean  
gorputza estutu,  
Mosuz, negar ta zotifnez illa  
nai ba'leu lez biztu.

Zortzi aapaldiok olerkari gazte asi-barrri batenak dozuz. Baiña ez dagoz txarto. Lantxo bat, bi edo irutik errez sasi-bertsoak saltzen dauskuzuna. Onek, mamiñari begituz, ba-dau aragia ta azurra, ba-dau mamin dotorea: ama alarguna, seme bakarra, illik, besoetan dauala. Mam'n unkigarria! Eta azala? Egitura atsegiña dauko:

5/5 - 6. 5/5, - 6. 5/5 -16, eta 5/5, - 6. Euskal metrikaz, euskal poesiari egokion neukeraz jakina zan egillea. Eta olerki-neurkera ez jakon, iñolaz be, zoztoz, ez eragozpen bere oldozkun eta pensamentuak, eta biotzaren zauskadak bete-betea adierazteko.

Pazifiko aldeko arima-zaintzak ez eutson itxi astirik itzak euskeraz neurtzen jarduteko; bestelan, beta izan ba'leu ta ortarako bear dan giroa, Aita Teresio, Mendata'ko beste batzuk lez, poeta izango zan, eta ez txikia.

### AITA LINO AKESOLO (1911 - .....)

Aita Lino ta ikaskide izan gintzazan eleiz-karrera guztian.

Lino Dima'koa eta ni Amorotoakoa. Ni, 1921'an, abenduaren 4'an, Santa Barbara egunean, Larraratu nintzan. Lino aste bete aurrerago edo.

Ondoren, Larrea'ko karmeldar ikastetxean, Gregorio anaia maisu genduala ikas-asimasiakaz jabetutakoan, karmeldar jantzia artu aurretik, ikasi ta ikasi lau urte bota genduzan.

Eta, ez uste izan au artobero usaiña danik, ainbat ikas-gairi eldu bearra izanik be, guk ez genduan iñoiz be nota badaezpedakorik atera. Ez giñan, beraz, ikasle motelak.

Orrez gaiñ maisu onak eroien gure ikas-ardurea. Oneitatik batzuk erdeldunak ziran, geienak baiña euskaldunak. Eta, egia esan, oneik, eurak be barruan eroien euskal garra, gaztetxoai, guri ikasleoi, biztu-naia erakutsi oi eben.

Primo de Rivera'ren garaia zan, abertsaletasuna osotik galazota egoana. Alan be, al zana egiten zan.

Guk maisu onak izan genduzan euskal arloan: Ermenejildo, Erroman zuzendaria, Plazido dimostarra, Anjelo Uribarren, Gotzon azkoitiarra, eta besteak.

Ixilka ba'zan be, domeka ta eguenetan, euskerazko dotriñea ikasten gendun, ipuin laburrak idatzi, itzulpenak egin.

Gure utsak eta akatsak aztertu ta zuzen jarteko an genduzan irakasleak; laguntasun onek, barriz, gaztetxoaren barrua pozez ipinten. Aita Lino'ri ta niri beintzat olantxe jaso jakun.

Aita Anjelo'k, bein, gure lan asi-barriak Donostia'ko «Euskal-Esnaleak» eraturiko sariketa batera bialdu zituan, eta guk sariak irabazi. A bai gure poza! Ona zelan sortzen diran idazleak. Gu biontzako, auxe izan zan benetako errazoi, barruan genkarren deia, arnas apartekoa itxartu ta mutiko giñala euskal idazletza bidean jarteko.

Lan saritu orre'in nekea arintzeko. Aita Anjelo'k, beti asmotsu, ibillaldi bat eskiñi euskun bioi; Durango'tik Legutiano'ra autobusez eta andik Aramaio'ra oiñez, bere etxera eroan ginduzan. Emen bazkaldu ta, Santa Ageda ta Arrasate ikusirik, Maltzaga'tik Zornoza'ra trenez. Beti gogoan dakargun ibillaldia.

Lenengo kimuok 1924-25'an agerturik, euskera errotik ikasi ta idazten jarraitu genduan biok.

1928'aren azkenerantza Gasteiz'en gagoz Filosofia ikasten, iru urteko zeregiña, eta «Euskal Esnaleak»en sariketak aaztu barik, bertan azaltzen zan barruko aldizkarian idazten.

1930'an, itzulpen sariketa Donostia'tik: Cervantes'en «Novelas Ejemplares»etik bakotxak nai ebana aukeratu zeikean itzultzeko.

Aita Lino'k eta nik bi euskeratu genduzan, Aita Lino'k «Agurè kezkatia» eta nik «Neskatx Ijitoa»; biok sari irabazle, 100 pezeta bakotxak.

Eleiz-karrera amaituta gero bata bestegandik naikoa urruñ bizi ta lan egin beatra izan dogu, baiña ikasle giñala, Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n, euskal auzian batez be, alkarregaz lan egiñak gara.

Nik apurka apurka, Larrea'n asita, Teresatxo Deunaren Bizitza, berak idatzitako «Arima baten Kondaira» euskeraz ipiñi neban, eta Aita Lino'k, nik itzuli-ala, utsak jorratu ta eskuz idatzi eustan. Gerraldian galdu jakun lan au.

Aita Linok geien bat bere kasa eratu izan dau euskal lana, beste egiteko askori erantzun bearra izanagaitik, egundo be euskal

grñari muzin egiteke eta euskereari buruz lan aundi ta onuragarria buruturik.

Alan be, nik sarri adierazo dot, Linok akulari bat bear dauala auzo-lana burutzeko. Guk biok, ni akulari nazala, naikoa lan aurrera eroan dogu, ikasle giñala ta gero.

Begoña'n ikasle giñala, esate baterako, gai gogor bati adarrak ateraten asi giñan: Teresa Deunaren lanak euskeraztu.

«Onbidea»tik asi gañan, orduko «Donekuntza Bidea» (Camino de Perfección); 1933'ko azillean dator lenengo zatia, Larrea'n argitaratzen zan «Karmengo Argia»-n. Nik egin neban lenengo atala eta gero, ni lanpetuegi nenbillelako, Aita Lino'ren eskuetan itxi neban orren ardurea; zortzi atal agertu ziran gerra aurretxoan. Geroago, asitako lan au osotzeko garaia eldua zala-ta, 1963'an atera zan liburu egiñik; eta orren ostean etorri dira «Egoitzak», «Bizitza» ta abar.

Gu bion itzulpenari buruz onela On Manuel Lekuona'k: «Biok, zein baño zein, saiatu dira beren egiteko saillean. Batek kapitulu bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez, Bizkaiera jator-jatorrean. Euskeratze-n erreza ez dalarik, naiko erreze egiña».

Patxi Abrisketa bilbotarra, urteetan Bogota'n bizi ta ango artista ta jakitunakaz artu-emon zabala daukonak, ango olerkarien «Parnaso Colombino» euskeraz ez eban emon nai ba?

Eta 1968'an nigana jo eban lana nik egiteko eskatuz. Bakarrik osotzeko lan aundiegia zala-ta, orduko, euskal poeten artean lau aukeratu nebazan laguntza emon egisten; eta eurotatik bat Aita Lino izan zan. A. Gomez Jaime'ren «Illusentia» (soneto), K. Hispano'ren «Urrezko azaoak», Jorge Isaaks'en «Kolonbia» (soneto), Leon Greiff'en «Sergio Stepandy'ren leloa» euskeraz jarri eustazana.

Ez neban lenengotan Aita Lino olerkarien artean sartzeko asmorik; baiña lengo batean, eskuratu eusten «Euskerazaintza» aldizkarian, bere VII garren zenbakian, atzeko azalbarruan, Luis Arostegi'ren lantxo bat dator, «Aita Lino olerkari» deritxona. Asmatzen ni orduan, eta gaur onela diñot: bai Kolonbiar Parnasoko lanak itzultzean, bai Salmuetan eta batez be espetxean aurkitzen



zala egiñiko «Salve Mater»-en eta Karmona'n osoturiko sonata-gaitik, Aita Lino o'erkari dala autortzean ez dogula errakuntza aundirik egten. «Egan»-en latoz beronek euskeraztutako Unamuno' ren koplá batzuk be.

Arostegi'k dakarrenez, Karmona'n egoala biribildu eban koplá laburra dogu eredu. Abade ta praille askotxo giñan, eta onako batek, erri-miñak jota itxura danez, Toselli'ren serenata bat abesten eban, frantsez letraz. Usoa, erri zapaldua ta olakoak dakaz gogora dalako serenateak. Urrintasuna, naigabea, guda galdua, etxekoen zoria, atxillo dagozanak... Eta begiak, gogoak sorterrirantz egazten. Erri sentieraz ondua dago olerkia. Ona:

Ortzean zear zabilzen usoak,  
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!  
Neure errirraño nintzake egalari  
erbestuaren maitasun-agurraren geznari!

Etsaiak erasota  
ara non dan lur jota,  
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,  
gaur ene gogoa,  
espetxeko ordu baltzetan,  
maitezko egoetan  
zugananañño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,  
neure zorigaitzaren azkarri:  
zeu, aberri!

Ez al da au olerkia? Ez ete dozu emen oler-txinparik? Ba dala ala ez olerkari Aita Lino? Baietz dirudi!

(Dima, 1989-VII-1)

## AZPEITIAK GOTZON

(1912 - .....)

Bermeo, itxas-ertz txairoa, gaur guztiz dotoretua; Erzilla'ren seaska ez-ezik, beste gizaseme ospetsu ta mariñel adoretu askoren sorterrí be ba doguna. Ementxe jaio (1912-VIII-2) ta bizi da gaur be Azpeitiar Gotzon, gizon jator eta euskal idazlea. Gazteluko ugarteán jaio zan, Eufeme Deunaren kalean. Gaur be, Eufeme Deunaren elizan, erriaren otoizlari ari da, 1980'garren urtetik oraiñarte.

Leen urtetako bermeotar gazte geienak lez, mutillak diñot, ikasketak bertan, laterri-eskoletan egin ondoren, arrain-olan asi zan lanean, eta amaitu urte bete baiño leen, itxasora joan zan, kresal-kulunka gaiñera; ortik aurrera, txo, mariñel, patroí, itxasoan egin izan dau lan 1976'garren urterarte.

1944'an ezkondu zan Iberrangelu'ko alaba Katalina Bengoa'rekin, lau seme-alaba (seme bi ta alaba bi) eukirik.

Eta euskal idazle? Ez dakit nik idazteko egokia dan ala ez itxas-gaiña. Dakidana da, alan be, itxas-aldeko naikotxo d'ra'la B'zkaia'n idazkortza erabilli dabenak; or Etxeita, or Gorgonio Errenteria, Aita Berriatua, gure Gotzon eta besteak.

Itxas-urak astintzen ebillela asi jatan Gotzon *Karmel*-erako ta *Oleri*-rako bertsozko lanak bialtzen; eta nik argitara emon oi neutsozan beti. Gizaseme leial eta langille baten biotz-zauskadak ziran, erakusgarriak beti be. Bertso orreitan erdi ikusten neban nik, arpegiz ezagutu ez arren, zelako gizona zan Bermeo'ko itxas-olerkaria. Sarri esan eta idazten dogu geure idatzietan laga oi dogula adoretzen gaitun arima-zati bat.

Mariñel itxasgaiñ zerua goi ta ur-zabaldia azpian eta ingurumari, Eta mariñela, eguneko lanak amaitu ta afari-izkia egin ondoren, argi motelaren kiñupean euskal poesiak ariltzen. Bai zeregin polita!

Onela autortzen daust: «Euskal zaletasuna betidanik enki dot, baiña idazten 1958'an asi nintzan». Eta oso apalik, gaiñeraten: «Ez dot ifnoiz saririk lortu». Askorentzat bai eredu bikain! Lau lerro ergel zirriborrotu orduko txalo billa dabilentzat, jakiña.

«Ez dot saririk lortu». Gaur, jakin begi mundu guztiak, ez jako saria emoten, nor-geiagoketetan diñot, idazle edo-ta olerkaririk bikaiñenari, adiskide malmutz geien daukazanari baiño. Neu be ibillia nozu edu onetako garda larrietan, eta batek, ergel utsa ez-pada beintzat, beti ikasten dau zerbait. Izurri au, gaiñera, ezta gurea bakarrik: munduko literaturan sarri salatzen dan gaixoa dozu.

Saririk ez, baiña Azpeitia kantari. Ona «Arrantzaleak» izena-  
rekín «Zer» aldizkariak argitara eutson zortzi estrofako poema au.

Gure erriko arranzaliak  
Kanarias uretara,  
itxas-ontziak ainbat jun ziran  
aurten be irabaztera;  
bertara elduz ontzi aurrenak  
asi arraintzak eitera,  
arraintza orreik eta pozak be  
jun jakeen gitxitzera,  
geruaguen juen ziranak  
buelta artuaz etxera.

Gure kai portun geratu ziran  
emeretzi bokart-zale,  
eta oneik be, asieran asi,  
arraintza on ekartzaille;  
Kanarias'tik etor aurrenak  
oneik be on irabazle,  
baiña emen be ango antzera  
gerorantz bokart-eskazle,  
urrengo urtea izan bedi  
arraintza onen emoilte.

Mota guztiko arrantzaliak  
itxasun dabe bizitza,  
orrexegaitik gogo biziaz  
ara ta ona gabiltza;  
sarri askotan ibilkeria  
izaten dabee latza,  
beste askotan latz ori kenduz  
dabe sendion alaitza,  
euren bizitza orrela da-ta  
itxasoari damotsa.

Bokart-zaliak udabarria  
ez dabe ontzat artuko,  
Kanarias'en, eta emen be,  
ondo porta ez dalako;  
bietan pozik asikeran da  
geroz itun geratzeko,  
esan daikee bokart-zaliak  
«udabarri itunpeko»,  
ona izango dalakuan da,  
txarra izan jakelako.

Kostera txarra, gastuek sendo,  
alaitasuna urruti,  
gaurko bizitzaz etxe pobretan  
egon daikee kezkatu;  
kezkarik gabe gaur bizitzeko  
ondo bear irabazi.  
Ludi onetan gaur edo biar  
txarra ta ona etorki:  
gure bizitza olan dogu-ta,  
itxaropena ein bizi.

Urte ontako bokart-kostera  
txarra bokart-zalientzat,  
eta batez be guztiz txarra zan  
gizona galdu dunentzat;  
arrantzaliak euren kondairan  
zer-konta dauke askontzat,  
ainbat urtetan gizon galtzeak  
jakin gabe daudentzat,  
zenbat naigabe ta samintasan  
dauan arraintzalientzat.

Berriotarren lebatz-kalatan... Gure arbaso izandakuak  
arrasteruek jokutzen, arrain-kalak ein billatu,  
ori dala-ta amu-arrainak orrexegaitik etsairik gabe  
gitxi doguz arrapatzen; eiten ebien jokatu;  
ez al dakie ontzitar orreik urteak geroz arrasteruek  
kaltez daudenak landutzen? lebatz-kalatan aurkeztu,  
Andiak beti txiki guztiak sasoi artatik orainartian  
etrez ditua zapaltzen, burrukalaria saiatu.

Esaera dozu: «Txakurrak illargiati ausi,  
ak barriz kasurik ez inausi».

### AURRE-APRAIZ (1912 - .....)

Euskal erriak ba-dabez, euren seme argiak, gai askotan izan be. Guri olerkaritzan jardunak jakuz berarizko interesgarriak. Oneik doguz, pago arteko tantai aundi batzuen antzera, gure erria jantzi ta ospe-aintzaz beteten dauskuenak.

Onelakoak goratzea, euren lanean jarraitu dagien batez be, duda barik dogu zeregin bikaiña.

Nik gaur Ajangiz'eko seme Aurre-Apraiz-tar Balendin, olerkari bikaiña, goratu nai neuke, egin dauskun eta aurrerantzean be, egingo dauskun euskal arloko lana, poesi ta olerki-lana berariz aitaturik.

Olerkari ta idazle dozu Aurre-Apraiz-tar Balendin, eta Gernika'tik ur-samar daukagun Ajangiz erritxoan jaió zan 1912-11-3'an, elizaldearen bekaldean, Medietá-Agerre etxaguntzan. Bizi be emen-txe bizi da, joan-etorrien batzuk or zear egíña dogunarren.

Ez eban egin izan bigarren maillako ikasketarik; baiña, etxean eta eskolan izan eban aziera onari jarraituz, eta buru argikoa izan-nik, irakurteko beti izan dauan zaletasunez eta jente ikasiakaz izan dituan adiskidetasunezko artu-emonai esker, ikasienekaz be, eze-tariko ingera barik, ibilli al izateko bestean landua dogu.

Ikastetxeetan luzaro ikasten ibillia ez dala be, asko ikasitako idazle ta olerkarien artean ba-dira, idazle oni euren olerki ta idazlanen eritxia eskatu dauksenak.

Guatemala'ko Ikastetxe Nagusiko buru edo dekanoa bein, F. Gartzia Lorka-ren olerkarez lilluraturik ei egoan; eta J. Zaitegi'k ari: «Auxe baiño be bikaiñoagoa daukagu guk, ba». Aurre-Appraiz-en poesi bat emon ei eutsan erderara itzulita; irakurri ebanean, leen baiño lilluratuago geratu ei zan.

Biozpera, bakar-zale dogu Ajangiztarra, benetako olerkariak diranez; baiña ba-daki alai ta pozik lagun-arteko bizitza adiskidea-kaz emoten be.

Gazte samur eta ameslari zala, gerratean esku artu eban; zauri-zauritua izan zan, batez be Artxandan, eta arik iru egunera atxilotua.

Bereak eta bost ikusi zituan gaixotegirik gaixotegi, atxillozelai ta baitegietan, lau illabetez jagi barik eta urtebetean errenka, makuluekin lenengo ta makilleaz gero.

Beronek esan oi dauanez, toki illun balen loi areitan ikusi ta jasan izan zituan oiñaze, atsekabe, ezbear eta mingostasunak bizitza guztirako goibeltasunezko zauria ezarri eutsen bere gogo minberan.

Guraso ta anai-arrebakin (neba-arreben artean amargarrena ta gazteena da berau) ondo ikasi izan eban euskeraz, amaren altzoan asita, etxean eta errian, aditza erabilten, joskera zuzen, esakera, itz eta euskeraren ezkutu guztiak...

Gero, eleder zaletasunak eta euskal erriaganako maitasun sutuak eragiñik, errian ikasiak eukazan akatsak-eta zuzentzeko, gramatikaz bir-ikasi eban ez gitxi, eta arrezkero, bere bizi guztian alegindu izan da gure euskera, aberri-izkuntza, sustraitik ikasten. Gipuzkeraz ondo daki, baita beste euskalkiak be naiko ondo. Euskera garbi-zalea dogu; baiña ez gero garbikeri-zalea. Mikel Zaratte'k bere *Bizkaiko Euskal Idazle'k* liburuan: «Baditu alako garbikeritxo batzuk; baiña olerkari gartsu ta etorritsu da, biotz-ondo andikoa» (253 orrialdean).

Gazte zalarik, guda aurretik asi zan idazten, Zornotza'ko *Jaungoiko-Zale'n*, esate baterako, gero, Guatemala'ko *Euzko-Gogoa'*, *Egan Aranzazu*, *Karmel*, *Oleri'n* eta abar, jarraiturik.

Ugari ta gai askori buruz idatzi dau: aberkoiak, erriketari buruzkoak, eritxi-emoteak, ipuñiak, gertakizunak, eztabaidak, gramatika-gaiak, poesiari buruzko eritxi-emoteak eta abar. Itzulpenak egin izan daukuz.

Idazteaz gaiñ, ba-ditu beste zaletasun batzuk: abeslari da, txistu-tua jotzen dau, eta pillarmonikea, astiunetan, berak diñoskunez, baserriko bakartadean gogo nasaitu ta girotzeko. Oso elizkoi, abadeari lagundu oi dau so elizkizunetan, bai kantuak zuzentzen eta bai irakurgaiak egiten.

## OLERKARI

Aurre-Appraiz jaiotzaz dogu olerkari. Berak idazten dau: «Txiki-txikitandik nabaitzen neban biotzeragin edo sentikizun olerkoa neure barrenean; eta Lauaxeta'ren *Arrats-beran* irakurri izan ebanean, «oneixek, neurtitz oneixek daukie niretzat orañarte irakurri izan ditudanak ez dabe gogo-zirkingarria» esan neban». Eta ler-egi eutsan barruan eban olermenak. Guda-oiñean eginda, «Euzkadi» egunerokoa argitaratu ebazan bere lenengo olerkiak.

Arrezkero, baitegian asita, samur ta bizi azaldu izan dau, olerkietan, bere izakera, bere nortasuna, bere barru-minberearen egoneziña. Lirakoa dogu, eta olerki-liburu bi edo iru atontzeko lain poesi baditu argitara emonen eta argitara emon bakoien artean.

Uritik urrun bizi ez dala be, oiñez ordu erdiko bidea dago Gernika'tik, baso-basoan bizi da: landa eze, zugazti eder, latsen eresi bigun eta berein eratako txori-txorrotzio gozoz inguratutako eskualde zoragarrian, urietako iskanbilletatik urrundua, gogo baktetsuaren poz-eztitan.

Au dala-ta, maite-maite dau izadia, bere olerkien etorri ta go-targi-emoille bait dau, Lizardi'k legez.

Eder izaten jako paper-txatal bat eta arkatz-kondo bat aldean erabiltea, lan-bitarteko gogoeta leun-b'ziak dakartsoezan uzta joriak ez galtzarren.

Askotan idazi izan ditu lanerako tresnen kritenean olerki txatalak, gero asti-aldietan osotu ta biri-bilduak.

Onela naiz arela, Aurre-Apraiz'ek bere asti-orduetan eta lanean ekinik, poesi ederrik idatzi dauku.

«Ederrik» diñot eta olan da; aren lumatik urtendako biotz-zauskadak ez ditugu auntzaren gaberdako eztulak, adimen biziz gaitu ta biotz beroz indartuak baiño.

Izan be, poesigintzan gure aalmen edo indar bik esku artzen dabe, asmamenak eta naimenak.

Buruz pentsalari dogu Aurre-Apraiz eta biotzez gartsua; naitazko gaitasun bi olerkari guren izateko.

Balendin'ek asko idatzi dau, bai olertiz eta bai prosaz.

Gertu daukaz pare bat bertso-liburu argitaratzeko. Ez dauko dirurik ortarako.

Urte batzuk dirala, ortarako diru-billa ain zuzen Venezuela'ra jo euskun, urtebete ta geiago bertan eginik; baiña zoriak ez eutson irribarri gozorik erakutsi, ta aberr-miñak joa —diruz urri?— etxera biurtu zan. Esan dogu: minbera da izatez, eta etxetik urrin minberago biurtu oi da euskalduna.

Etxera-nai ori argi be argi adiarazo euskun olerkariak, Venezuela'n egoala osotu ta 1970'garren urtean «Karmel» aldizkarian agertu eban neurtitz-sail gartsuan, «Ba-noa» tituluz bateatu eban. Emen dozu osorik.

Ba-noa.  
Au poza!  
Abeslari daukat biotza.

Agur, atzerri legorra,  
atsekabeen zelai ankerra.

Ba-noa.  
Au-poz!  
Zaparteri daukat biotza.

Ba-noa.  
Aberrira,  
Euskalerrira,  
Aiengiz'ko baso-artera,  
ETXERA!

Begira daukadaz etxeokak  
—neure kutun laztanak—  
adiskide, lagun eta auzoak.

Ba-noa.  
Au poza!  
Agur, betiko, atzerri itza.

Baitegitik urtetako neban  
baizen aundia da nire poza.  
Laster ibituko nire errimin,  
eta igesi biotzeko samin.

Neutarren artean  
—geure oillo-lurrean—  
izan gura dot, ba,  
poz eta atsekabe,  
goibel eta pozkida,  
Urtzi'ren oldea  
une guztietan  
ustetsu eginda.

Ba-noa.  
Sekula olako pozkidarik!  
Zain daukat, ba, zapuztu neban  
zoruna, maitasunez beterik.

### SABIN ENBEITA GOIRIA (1908 - 1990)

Kepa Enbeita zanaren semea. 1908'ko abuztuaren 26'an jaioa, Usparitxa'ko Jauregi baserrian; ementxe bizi da gaur be, solo ta zugatz-tantai ederrez inguratuta, izenek diñoanez, jauregi eder batean: leen al bait alegin erreta be, ezin izan zana gaur jadetsirik,

au da, Enbeitatarren Usparitxa etxea, gaur euren dabe. Boni, Gorozika'ko alabeaz eskonduta, ementxe bizi dira guraso-eme-alabak, lugintzari emonak.

Sabin be, aita lez, baserritar eder-zale dogu. Eta gaztetan, bere anai Balendin'egaz batera erriz erri bertsotan ibillia. Aitaren-gandik artu eban bertso gtiña; ba'ta bertsolari ibilli be 1936'arte, Bilbo'ko Campos Eliseos antzokian, Gernika'n, Zeanuri'n bere aita Urretxindorrarekin, Foru'n, Busturi'n, Bizkaiko erri askotan. Gero, agorraldia, naiz-ta etxean, sendiko ta adiskideen artean, igerri barik bertso-kantura jo askotan.

Ari naiz oni urtebetea jaustean eder jako bertsotan zorionak eskintzea. Onako asko daukaz paper orrietan gordeta. Irakur onako iru.

Zorionak Martitegi'tar Boni, bere emazteari:

Lau seme-alaba ta zortzi iloba  
daukazuz ludi onetan,  
suiñ eta erren beste lau dira  
alkarturik sendi onetan.  
Danok biotzez maite zaitue,  
au diñot bene-benetan:  
artu egizu neure biotza  
une zoragarrietan.

Urteetan atzerri zear ibillitako bere anai Imanol'i:

Zaukat beti biotzean  
basetxe baten jaio giñan da,  
gero aldendu giñan;  
zeure txokotik atzerirantza  
egazka joan ziñan.  
Baiña bijotzak alkar josirik,  
naiz-ta soñez urrunian.  
Maitasun otrek iraun daijela  
bizi garian artian.

Eta Sardui ta Enbeita'tar Elitxu'ri, bere Lenengo Jaunartze egunean:

Zubipunteko loba gazteena,  
besoetako kutina;  
guraso onen alabatxua,  
lora polit usaintsua:  
lenengo aldiz zeure barruan  
sartu da Jesus Aurtxoa;  
gura genduke zu izatia  
Jesus'en lagun zintzua.  
Bide ontatik lortuko dozu  
betiko Zorun osoa.

Orain dirala sei-zazpi urte  
agertu ziñan ludijan,  
gotzon zerutar egotxuduna  
polita bene-benetan;  
ordutik ona soin eta gogo  
zuririk egun danetan,  
maitasunezko irri-barria  
dozularik ezpañetan...  
Gura genduke beti Aingeru  
ikusit ludi onetan.

Barru beroa erakusteko, onako bertsoak bai dirala txingar!

## EUSEBIO ERKIAGA LASTRA (1912 - .....)

Ibilte latz dozu bizia, kurubilka eriotzara garoazana. Edergarri lez untzori-ditzira dau biran. Bizi ori edertuz ta oztopotuz literatura daukagu tarteko; erri-lana, nekea, nunbait, bear-izanetik er-neten danean. Idazleak, bear-izanak bultzara, barruan kiribiltzen jatzun bear-izana billatzen dau, idatzita daroana, ur-gaiñ doan orbelari ur-tiraiñak sakatzen dautson legez.

Rilke'ren aburuz, bear-izan orrek norbaiten biotzean sustraiak bota ba'ditu, idazle bat daukagu or, eta doakabe litzateke idaztea ifioz galazoko ba'leuskio; eriotzarako bidean legoke. Auxe dozu E. Erkiaga, euskal idazle bizkorra.

Lekeitio'n jaio zan Eusebio Erkiaga 1912-9-4'an. Gurasoak, euskaldun utsak. An bizi izan zan 24 urterarte. Gerratean, 1938 gn.urteko udabarrian balaz zauritua, Castellon aldean. Ezkondua da, lau seme-alaba ditu, ta Bilbon bizi da iragan 58 urtean. Bizkai Bankuko langille, gaur zar-sari'ua. Euskaltzain aulkiduna, 1965'tik.

Gauzak, eta bizitz-urratsak batez be, nundiik nora ibilliak izan diran, noberak jakin oi ditu ondoen. Auzi oni buruz, ona nik eskatuta, urteak dirala —1969-8-12'an— Erkiaga'k berak idatzi eustana:

«*Idatzi*. Iru nobela euskeraz, argitaratuak, irurak sarituak: «Arranegi» eta «Batetik bestera», bizkaieraz, ta «Araibar zalduna», giputz. Eta hainbat olerki aldizkarietan, heurotarik asko sarituak, 1930'gnetik oraiñarte. Baita itzaldi batzuek ere argitara eman izan ditu, antzertilan banakak eta izlauezko artikulua anitz. Argitaratzeke, nobela bat (gaur argitaratua) eta beste baten euskal-itzulpena; teatro-lan batzuek eta olerki asko.

«*Noiztik eta zergaitik olerkigintzan?* Amazortzi urte zituala asin zan euskeraz idazten, aldizkarietan. Abestia maite izan du betiere, ta gero, euskera ta musika ere bai. Horregatik, lehenbiziko lanak, geienbat, izneurtuz egin zituan. Gerogarrenean, A. Irigarai- ren eraginez, prosari emana ikusi izan dugu.

«*Olerkia zer ote den?* Iñola ere ez filosofi otza. Hortatik erauzia ta banatua izan da estetika. Olerkaria, aztia ta igazlea ta sorgina dala esan obi dute. Filosofu-ukitua ere, izango du noski, Elede- rrean, prosan batez ere, doñutuasuna ongarri balin bada, are geiago poemetan, Olerkia ez da itzaldia ta azalpen otza, beste zer bait baizik.

«*Euskal-olertiaren egoera, orain*. Sinismen, oitura, lirika, ep'ka ta gizarte-gaietazko olerkiak ditugu. Gizonaren olerkiak, ordea, ifioz baiño ugariago egiten dituzte gure idazle gazteak. Bertso asko ta neurgabeak erabili izan dituzte erruz arlo hontan lehen- xeago, lirikatik eta musikatik aldera. Orain, ordea, olerkari sazial

hoiek diskazale bilakatu dira, ta mus'ka-neurriak eta lirika-ukituak berriro kutsatu dituela esango nuke. Zera, asmoak aldatu gabe, eta latzetaz igesi, estetikarantz eta mus'karantz m kurtuago ari dirala.

«Gizarte kantu berri hoietan, aberkoiak ere sartu behar, eta sail biotan, poeta azkarrak ditugu, zorionez. Ta poesia elederra danez, izkera jator, argi ta bereziagoa duten aldetik, bai euskerari berari dagokionez, gure oiñordekoen ongarri ta ikasgarri».

Auxe dozu Erkiaga'k idatzia urte batzuk dirala, ta gaur-egun be, nik uste —ez bait de eritx'z arin aldatzekoa—, orretan dagoala. Orduko olerkari mordotxo ixillik dago orain, baiña beste asko lenari eskifita dagoz.

Erkiaga'k berak, poesi-liburu berezirik emon ez dauskun arren, naiko poesi argitaratu dau or-emengo aldizkarietan. Nik sarri idatzi dot bera dogula Bizkaian euskal olerkaririk onena, eta onen ondoren Balentin Aurre-Appraiz, besteai ezer kendu bar'k, Euska- leriak pozik artuko leuke E. Erkiaga'ren olerki bilduma mardul bat.

Beronek diñoskunez, lirikaz ta musikaz za'etua, beti makurtu izan da Musa ma'tagarrien aurrean, euroi intzentsu biguna errerik. Amazortzi urte ebazanetik gaurgiño orrelaxe.

Nik 1954'an, olerki bilduma «Milla Euskal Olerki Eder» oso- tzean, Erkiaga'ren 10 poesi aukeratu nitun, ordurako landuta euka- zan onenakin, nik uste. Arrezkero 34 urteotan asko koplatua dogu, beti obetuz joanik. Oneik dira an datozan amarrak: «Errota-zuri», «Txintak», «Amesak», «Azkue-ren heriotzan», «Andre Mar'», «Amaren giro», «Maitale bi», «Arbasoen herri», «Alaba galdua», «Zarama-zaleak».

Aldizkari askotan idatzi ditu bere lanak, baiña batez be «Euz- ko-Gogo», «Gernika», «Olerti», «Egan», «Karmel»... Ona orrei- tatik iru, «Urrunetara», «Pethi gose» eta «Arbasoen herri».

Urrunera doa olerkaria, o'abak eskifia deutson oial-ontzian. Zertan ete? Urruneko ugarteetan «milla altxor dagoz utzita», baso illun, arzulo ta kutxa baltzetan. Danak batuko ditu ta, ixil-ixilka, bere oial zurizko ontzian sartutik, ekarriko ditu «altxor zaharrak lillura-ametsez josita». Azken estrofa onela:

Bedar-kolorez  
ontzi barria  
osabeak deust ezkeiñi,  
tantai goretan  
oial txuriak  
deutsadaz gaur nik ipiñi.

Bigarreanean gose da olerkaria, Jaungoiko gose. Leen intziriz eguna. Orobat poeta, igesi egiten idurimenak edoien artera, zorabio betean. Onela dau abesten:

Eguna aldaparen gailurreratzean  
lanari nagoko, zut, iende artean;  
Iguzkik galdurra orduan harroen,  
ta ni, sogiteke, arazoan barnen.

Zerumin bizi bat, Jaungoiko gosea,  
gizonak barnean dadukan lezea;  
alperrik bihaltu laketa atsegin,  
behiamin horren hasetzea, ezin.

Ortziko zelhaia izarren iostean  
orduan ez iraun sinis gogorrean;  
eskuak bildurik, belhaunak lurrean,  
idortu begiak esker-negarrean.

Begiok idortuz esker-nigarretan  
zeruko zituak niretzat aletan;  
egunez ni sorgor bizitz zidorretan,  
ta Zu, laun, gauean bihotz-lapurretan...

Eta irugarren «Arbasoen herri», Erkiaga'k bikainki abestua:

Itsaso, arkaitz, ondar, zetu azkengabe,  
mendi, ugalde, baso, uri ta basetxe,  
egunero nituan ene begiz aurre;  
Arbasoen herria nigan kain ta barne.

Ta batez ere, ene! zorion handia,  
Arbasoen mintzoa nuan edaria,  
euskeraz asetua ene belarria,  
euskeraren doiñuaz inguru gutzia.

Geroz... bildur lañioa dut nik bihotzean;  
urten zimu-antza ote dut onegan?  
Edota inguruko izaki oietan  
aldakuntza larria al dut bat-batean?

Uts bat sumatzen dau olerkariak. Zeren utsa? A, bai! Aldiak egin dau lan doillorra: «Euskalduneri ostu mintzo berezia».

Auxe dozu Erkiaga olerkaria, sakon, goi-zale, zentzun zabaleko.

## ANASTASIO ARRINDA ALBISU

(1912 - .....)

Lekeitio'n jaio zan Anes. Gurasoak: aita, Eustakio, lekeitiarra, itxas-gizona, barkuko kapitana, 50 aldiz Terranoba'ra bakallautan joana, aurretik be urte askotan ibillia. Ama, Inixi, lazkaotarra, errementari baten alaba. Biak Barakaldo'n alkartu ziran, ama umezurtz gelditu ondoren an bizi bait zan osaba batekin. Eta gurasoak Barakaldo'n bizi arren, ama bete amagiarrebarengana joan zan aurra izatera, 1912-VI-17.

Aita Santander'ko itxas ontz etan asi zanean, ama Lazkau'ra aldatu zan, bere jaioterrira. Barakaldo'n osotu zitun len ikasketak, eta garo Lazkau'n; egoitza bietan dana erderaz. Lazkau'n urte bete erriko eskolan para ta gero, Beasain'go La Salle eskolara joan zan.

Eleiz-deiari erantzunik, Lazkau'tik Saturrarán'go seminariora aldatu zan, gazteleraz eta latin ikastera. Emen lau urte, ta ondoren Gasteiz'era. Onan idazten daust Anes'ek: «Saturrarendik Gazteizera gerra aurreko zazpi urteak betetzera. Emen bi gizon aurkitu nitun oso bereziak: Manuel Lekuina eta Jose Migel Barandiaran. An geundela Errepublikan sartu zan eta abertzaletasun-giroa piztu zearo. Giro aretan euskeraz ikasten asi giñan taldeka. Kardaberaz akademia sortuta zegoen ordurako seminarioan ikasleen artean eta an sartu giñan sail bat. Don Manuel genduken zuzendari eta kurtso bakoitzekoak biltzen giñan astero. Bakoitzak lantxo bat egin eta danen aurrean irakurri akatsak billatzeko... Orrela aritu izan giñan sei urtez gure arteko gerra sortu zan arte. Nekien euskera seminarioko fruitua zan, Manuel Lekuonaren ardurapean ikasia».

Garai atan ba-zan, eta polito, irakasle ta ikasleen arteko eragiala; an zan Jose Migel, enoloji ta ikerketa lanai emona. «Aren aotik —idazten daust Anes'ek— ikasi genduzen Euskalerrri zaarreko berriak... Seireun mutil gazte geunden seminarioan, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoakoak, eta oien artean ikerketa batzuek egiten ere lagundu gihun gure maixua». Gerora, ainbat lan ditu lekei-tiarrak gai orri buruz osotuak.

Amaituz joiazan seminarioko urteak; amaika urte eginda, bat falta jakon ikastaro guztiak amaitzeko, bat falta apaiz izateko. Baiña gerra sortu zan orduan, ikasle gazteak oporretan egozala. Lazkano Naparru'tik gertu dago. Astea betetean etorrita egozan naparrak: erreketete, palanjista eta soldadu. Tirorik botatzeko. «Gerra zer zanik —difo Anes'ek— ez genekigun oraindik. Alde egin gendun mendira; baiña sarean arrapatu giduzen. Iru aste baiño leen Iruña'ko Caja de Reclutas'en ikusten det neure burua: amalau illabetez izango naiz soldadu».

Soldadu zala apaiztu eben gerratean. Bat-batean soldadu izatetik kapellau izatera aldatu, beste ogeitabi illabetez. Iru arte ta amabost egun, ez gero arifiaik.

Asiera dauanak amaiera be bai, ta azkenez Gasteiz'en batu ebezan barranti ta andik ertietara arima zeregihietara. Anes Errioxa'ra, Elvillar izeneko errira; eun eta berrogei famila ba zituan, eta bera apaiz bakarra. Bertan lan egin eban 1939'ko urritik 1940'ko abuztuaren azken arte. Gero, 1940'tik 1950'ra Zumarraga'ko eleizan apaiz-laguntzaille. Azken urte onetan Deba'ko eleiz-buru izentatu eben, eta arrezkero emen dago; 1982'an jubilatatu eben, baiña oindiño eleiz atako laguntzaille baten lanak egiten ditu.

Langille izan da beti, naiz eleizako goraberetan naiz ikas-saillean. 1958'tik 1960ra ikas-aldi bi egin zituan Erroma'ko «Universitas Lateranensis» deritxon Ikastola nagusian. Ango agiriak ditu, bata «Peritus de Re Pastoralis» ta bestea Teolojiako Doktoradutza; 1966'an, tesis aurkeztu eban izenburu onekin: «Elementos para una Religión Prehistórica de los Vascos».

Iturri urtsuak ur-jario bikaiña ekarten. Ere berean Arrinda be, urteak zear lan aundia burutu dausku, euskal baretzean ain zuzen; euskeraz eta arderaz aspertu barik ari izana dogu. Dozena bat li-

buru argitaratuak dauz, eta or-emengo aldizkarietan emon ditun artikuluaik konta-eziñak.

Ona idatzi ta atera dabezan liburuen zerrenda ez-osoak: 1) *Buscando mi camino* (1943, Zarautz); 2) *Catequesis infantil* (1965, Zarautz); 3) *Religión prehistórica de los vascos* (1965, Zarautz); 4) *Oto to Pototo* (1969, Zarautz); 5) *Juantxo txiki* (1969, Zarautz); 6) *Euskalerrri zaa-ra* (1969, Barzelona); 7) *Semeno de Lazkano: anai arteko gorroto* (1970, Zarautz); 8) *Umeen Eguna: Deba* (1972, Zarautz); 9) *Euskalerrri Zaarreko Jainko Txikiak* (1973, Gasteiz); 10) *Euskalerrri eta Eriotza* (1977, Kardaberaz); 11) *Euskalerrri eta Arrantzaz* (1977, Donosti); 12) *Magia y Religión primitiva de los Vascos* (1985, Bilba); 13) *Poemak* (1987, Zarautz); 14) *Amairu kontakizun* (1987, Zarautz); 15) *Oto ta Pototo —bigarrez—* (1988, Zarautz).

Artikuluaik, ostera, 1934'an asi ta gaur arte, zenbatu ezin beste idatzi dauskuz. Lantzoak emon zituan Donostiko «El Día» egunkariak 1934-36, prosaz eta ber-soz, «Leizadi» izen-ordez. 1940-50 bitartean dozena bat lez lan erderaz Gasteiz'ko «Surge» aldizkarian, «Gumersindo de Lazkano» izenez. 1965-75 eun bat artikulua «Zeruko Argia»-n «Anes Lazkano» izenez, eta bardin ipuin batzuk eta abar Donostiko «El Diario Vasco»-n.

Orrez gaiñ «Kardaberaz», «Karmel», «Olerti», «Deba», «Lazkao», «Zer», «Saski-Naski» ta «Ondarra»-n idazkide izan da eten barik. Ba-ditu oindiño ipuin batzuk eta zine-gioiak argitaratu bage. «Zer» aldizkariak, 100 zenbakian 1986 irailla, bertan agertu diran idazleen zerrenda dakar. Ales-ek lan egindako aleen zenbakiak oneik dira: 53, 59, 60, 62, 63, 64, 66, 69, 71, 76, 84, 94, 95, 98; 99, 100.

Olerkar gisan, ba-ditu tarttiko eiotako bertso-lanak. Azken urteotan argitara emona dau (Zarautz, 1987) leendiñ eginda eukazanaz bilduma bat, *Poemak*. Ona liburu ortatik aukeratuta txikitxo biok:



## BIOTZ-BIURRI

«Bat, bi, iru, lau  
xagutxarrak jakko al au...».  
xagutxarra, xagu.xarra  
illunpean azti txarra,  
agapean lo ta lo...  
Argiak ninian jo,  
akullua ostiko,  
argia madariko,  
biotzean gorroto,  
aker-beltzaren seme  
illunpean murgilko.  
Illunaren senide  
Kristok  
argi zinduzen  
jentil-baratzetik

leize-illunpeetik  
at,  
aztikerietik  
at...  
Illunpera biurtu,  
biotza biurritu...!  
Marx  
jainko-txiki  
guretzat!  
beste jainkorik  
ez da  
emen!  
Aker-beltzak  
Amen!  
Amen!

## BIOTZ-BIURTZE

Biur:  
ur  
zikiñak atera.  
Ertz  
batetik bestera.  
Okerretik  
onera,  
estuetik  
zabalera,  
loietik  
garbira,  
menpekotik  
libertadera,  
bekoizkeritik  
zabalgunera,

norberekoikeritik  
maitasunera.  
Leizeetik  
mendi-erpiñera,  
ito-bearretik  
arnaslasai batera...  
Beko osifietik  
goiko tontorrera,  
burukatik  
pakera,  
barrutik  
atera...  
Neuretik  
zeurera...

## SABIN MUNIATEGI

(1912 - .....)

Olerkarien artean Bizkaia'k ba-ditu bereak, onak, erdimerdi-koak eta kaxkarrak.

On orreïn artekoa da Muniategi.

Antxiña asi zan idazten, an gerra aurretxoan eta gerora be eten barik jarraitu dautso olerkigintzari.

Len eta orain ainbat sari artu dauz, or-emengo poesibatzaletan.

Prosaz askorik emon ez dauskun arren, olerkiz oso ugaria agertu izan da. Beraz, ezaguna da oso, idazle, olerkari bezel', Euskalerrri guztian.

Gauegiz-Arteaga'ko semea dogu, 1912'garreneko Lotzaillaren 11'an munduratu zan Agirreta auzeneko Portu-Pantxikone izenez ezagutzen dan bizitza biko basetxean.

Olerki-lan baten edertasuna, zein irakurriz zein entzunez, jaso, epaitu ta ederkera-arloari eder-begiakaz so-eginiik, ebatzia emotelko, ez da naiko niri atsegin jatana beste barik, lan orretaz ezeren dudamuda bage, ederra dala baiezteza.

Askoren eritxia aintzat artzekoa dalarik be, eskolea bear dau olakoak, eta ez edozelangoa, olerki lan bat, dala dalakoa, aztertu ta epaia emoterakoan.

Latz-ikara ta naieza senti-erazo oi dau, gitxitan, ariñegi ta suster bage arrotu eritxi bada-epadakoak.

Bakotxak dau bere idaztankera, pentsamentuak eta biotz-dararak adierazteko era berezia, olerkariak batez be.

Adimenak asmatu dauan, ernemin daukan gogaiari, naimenak, biotzak ezarri bear dautso dardara, ta teknikak jantzia.

Ona irudikizun bat.

Ba'leiteke guztiz egoki ez etortea, baiña adierazo nai dodana naiko argi jarten dau, zur asko.

Or arragoa meatzez beterik —burua ideiaz—, ta or sua, meatza dizdiratzeko; suak dagi aldakuntza. Meatza, arragoa ta sua bear ditugu olerki lanean be, lan bikaiña izango ba'da beintzat.

Au da, gure izpirituaren aalmen eta indarrak lan egin bear dabe, danak alkarregaz era batean. Adimenak lortu gaia, naimenaren eragin jorria ta izkuntzaren jantzi fiabarra.

Olerkari da Muniategi; gaztetatik asi zan barru emonkorra, sorburu dantzari lez, kanpora jalgi-azten.

Esan genduan, Filipinas'tik ibilli zala; arako ta onako osteran, konta ezin ala jente, izadi ta edertasun ikusiaz, borborka asi jakola eder-untzia.

Or beronen aurreneko poesi-liburuxka: «Goiz-aize» (1936), Lauaxeta'ren itzurreaz argitara emona.

«Gaur arte izan doguzan olerkariakandik —diño Lauaxeta'k— zerbaitek berestu darua Muniategi. Bere begiak daukaz. Gitxigan aurkitu daikegu gazte onengan aurkitzen dogun ederti-miña. Gauza guztietan idoro darua edertasunaren zantzua, Euzko-Elertiak asko itxaron daike mutil onengandik».

Eta arrezkero? Itxarokizun orren fruturik izan ete dogu? Bai orixe! Artiar eder-zalea ez jaku iñoiz aspertu olerkigintzan. Naiz-eta ari ta oni ezpan-kiñu maltzurra loratu-azo, Muniategi ez da poesi bat edo bi idatziaz olerkari dirala uste daben orreïn artekoa; onek lanari lotua, ekin eta ekin jardun izan dau bizitza guztian, eta onakoak txapela erastea merezi dausku.

1970'ean azaldu euskun beste neurtitz-sail mardul bat: «Bidean gora», 98 poesi dira guztitara, txukun osotuak eta txukun irarriak.

Nik onela itzurrean: «Olerkaria, urtez urte, esperintziz eta biotz-zirraraz azi, ugaritu ta edertu egin zaigula ezeren lotsa gabe aitortu bear. Izadi-aro berri bakoitzak bere lillura berezia du, urtetik urtera izan ere. Jaiotza berriak, lenak ez zuen zerbaít baitu. Giza-adimenak, giza-biotzak, Eder'ari begira beti, bere udaberri ta udazkena kditu. Zein obe? Epailari zoliaren sardaiak ere ez du emen errazki ebatzi al izango».

Au be esaten neban ondorentxoan:

«Olerkarietan ere bakoitzak du bere arima, bere gogoa. Ta idazterakoan, norik ezta or bere-bere duen zerbaít, intz tantoa belar ertzean bezela, ñirñir uts lagatzen? Orla dagi Muniategi'k ere. Asko idatzi du Euskalerriko izparringi ta aldizkaririk geienetan, eta or utzi garraxiz, intziri leunez, maite-miñez, negarka, ondo-naiez bere anima osoa. Ederki diño sarrerako poematxoan: «Biotzez, / arimaz, / biribildu / ta jantzi nai nituke / ene bizi-tzako / egunok: / neure lurraren / aldazko maítasun / ta sugarez; / benetako goitura / maítetsu / ta gogorik zindoenez...».

Mundua, ta guk Euskalerrri au, barriztu nairik, lanean ikusten ditu asko.

Beronek be arlo orretan jardun gura dau.

Lan, bai, zuzentasunaren alde.

«Bidean gora» dau titulua bere poema saillak. Eta biotzkaraz ta luma atz-artean, mundura urten gurarik, bideratu da kantari. «Bideratu nadin» asten dan poemán, onela:

Atera nadin gogoz, zintzotasunez,  
azkatasunaren bide nekegarritz...  
gizarte, aberri, zuzentasun alde,  
iñoizko bidegiterik alkartuenez.

Argi ta garbi, maitezko izkilluakin  
jo ta ke, bideratu nadin bai, pozez;  
bideratu nadin gogoz gau ta egun,  
ele bizi baten langaillu sendoakin.

Naasia da mundua, ta olerkariak bide egin nai dau gizartearen trinkotasun ortatik zear.

Ixlla maite dau, ta alan be, Itun Zarreko igarle iduri, kantuz doa intziri artean, bere itzen gozotasuna, bere esanen garratza giza-biotzetan barrendu opa dau-ta.

Ortarako be lagunak bear. Eta bein neskatx batekin topo egin eban bizitz-bidean, aldatz-gora joiala noski.

Beretzat ete?

«Eta, bta-batean —diño— / zure eskuakin jabetuz / neuretu  
nintzan / arako / goizbide eregi / zenean... / zeru berriak oartzuz /  
züré begi artean. / Bai biozkada goitarrak / biok biotara, / egan! /  
Olañe / Eskuz-esku / eta, / bizitzan gora... / oinkada bakoi-  
tzean / geureagotuz / barneam ditugun / zeruko illargi / ta izar! /  
Dana / amets-itxaropen erditzez, / bada, bai, bizimin, / gogozko  
alkarte / ta nai batean... / arantza ta lorez, / dana betiraunka, /  
biok biotara».

Biok biotara, sendi eder bat osotuz, Jainkoa goratuz, erria  
abestuz, doa Muniategi'ren bizitzaldia, bikain, onurakor, artista.

Izadia abesten du, udabarri ta udagoien, zugatzak, mendiak,  
arkaitzak, aizea, itxasoa... Gazteen ibillaldiak abesten ditu, ames-  
lilluraz sustartuak, ikusterik baikorrenez loraz lora dabiltzanak.  
Arratsalde erdirantza dantzari ikusten dauz plaza betean, eta ar-  
tiarrak kantatzen:

Arratsaldeko seiretan  
enparantza erdian,  
eskuak zabal,  
soifua lerdin, beatz puntan  
aize baiño  
ariñago zebiltzan!

«Ama» kanta-gai izan da literatura guztietan; poetak, esker  
onez, aspertu bage abestu izan dabe bizia emon eutsoen emakume  
leun, samur, maitekorra.

Irakur Muniategi'k ondutako amalauko au, «Ama bati» deri-  
txonaren lenengo aapaldia:

Bere esku laztan, esku biozkor, esku txukunez...  
len neska garbi, eder izana, maitekor eta lirain,  
gaur, ama lerdin, etxeko andre maratz ta bikain,  
bizi-alegin bulartsuetan sendiaren maitehasunez.

Auxe dogu-aundika Muniategi'ren poesia, berak bere barrene-  
tik ateratakoak asko eta itzulpenak —Alberti, Fernández, Matxa-  
do, Altolagirre, Gartzia Lorka, Ibarbourou, ta abar— ez gitxiago.

## ZUBIRI'tar IÑAKI

Zer ete da olerkari izatea? Bertsoak osotzea soil-soil? Ori  
baiño geiago, nire eritxiz. Gure atimearen indar bik jotatzen dabe  
olerkigintzan: adimenak eta naimenak. Eta indar biok guztiz  
emonkorrak dira, alkar artu, eio ta sustaturik, poesi-lan bikaiñak  
eskintzen dauskuezanak; batak gauzak ezagutu daroaz eta besteak  
maite izan, eta bion alkar ezagutze ta maitatze, biok —buruak eta  
biotzak— barru daben alkar-experientzi sendo ta gatsuz, sekulako  
poesigintzan daragoioe.

Adin-biotzez orniduak gara guztiok. Baiña guztiok ez gara  
poeta, ez gara olerkari. Zergaitik? Zer daroagun barru ez dakigu-  
lako; eder-teknikaren zentzunik ikasi ez dogulako. Gure arimak  
sorturiko semeak zertaz eta zelán soñekotu ez dakigulako. Hölder-  
lin doixtar olerkari biziak «olerkitsu bizi dala gizona», iñoan.  
Egia ete? Bai ta ez. Alde aundia, troka batetik besterakoa, dago  
gizaseme batetik bestera. Guñ lurralde eder bat daukagu, mendi,  
ibar, itxaso... Baiña gizonon artean, onen bizikeratik areneta dife-  
rentzi izugarria dakust. Zuk be bai noski. Bizia askoz ederragoa  
litzateke lore artean bizirik, arantz artean baiño.

Sarri, tamalez, barru ta kanpo zer daroagun eta daukagun kon-  
turatu barik urrats dagigu bidean zear. Batzuk bizitz erdirantza  
itxartu oi dira: Dante, uste danez, bere bizitz-erdirantza asi zan  
*Jainkozko Antzerkia* dazten. Beste batzuk geroago. Ori gertatu  
jako emen aitatu nai dodan olerkariari be, au da, Zubiri'tar Iñaki'ri.  
Naiz-ta gaur Bilbo'ko «Euskeralzaleak» alkar-tearen buru izan, bere  
urteak ditula, ez da euskal idazle lez ezaguna. Txarto diñot, idatzi  
izan dauz artikuluak eta ba-ditu liburuak be argitara emonda,  
«Oroitzak» eta beste bat, polito biribilduak. Ezin esan, beraz, ain  
ezaguna ez dogunarren, euskal idazle ez dogunik.

Eta olerki-barrutian, ezer egin ete dausku? Baita. Aurten, ots,  
1982'nko jorrraillaren 24'an, Eibar'en «Euskerazaintza»-ren batza-  
rran ginala, «Bidari» izengditiz izenpeturik, «Bidetik Amesetan»  
deritxon olerki-liburuaz atsegindu ginduzan. Gitxien uste dan  
bide-kurutzan erbiak zapart. 96 orrialde ditu liburuxka orrek,  
41 olerkiz astun. Gai-mordoa darabil, atsegiñak oso. Rimaz eta  
neurritz, obeto ezin. Pentsamentu dotoreak eta jantzia be txairoa.  
Barru diñotzut: atsegiñak!

Maikoak edo lanak ikusi ta aztertu dabezanak, txandaka egin izan dabe geienbat: igaz irabazi ebanak eta aurtan irabazi dabenak egin bearko dabe epai-maiko datorren urtean. Luis Arostegi ta Balendin Aurre-Appraiz izan dira aurtan, ni idazkari izanik, Ospakiro esaniko alkar meza nagusiaren ondoren, sariak emotea egin genduan. Iru izan ziran saritu bearrak: «Neskato itsua». Irika saillean, «Baso o'artzuna» poematan eta «Eztigintza» betso-saillean. Edegi ziran idazki-azalak, eta Zubiri'tar Iñaki genduan «Neskato itsua»-ren egillea, Beloki'tar Agustin «Baso o'artzuna»-rena eta Eusebio Erkiaga «Eztigintza»-rena. Jarraian, maikoak banazean emondako eritxi berez ak irakurri ziran. Eta olerki sarituak.

Besteak beste, Zubiri goratzen dogun ezkerero, azter daigun pizkat onen olerki-lana aurtengo sariketan lenengo saria jaso ebana. 15 estrofa daukaz, 9 lauuko eta 6 iruko. Bederatzi ta amar silaba-koak dira bertso-geienak, naiz-ta lege ziurrik euki ez: ez jakon oni jaramonik egin. Rimaz laukoetan bigarrenak eta laugarrenak daroe azken oskidea; irukoak, ostera, lenengoak eta irugarrenak. «Olerkoia, baina ez ain ondo idaz'ia, 4 puntu», diño lenengo epai-lleak, eta bigarrenak: «Klaxiko! Lauaxeta ta Lizardi gogoratzen: «iturri gardena», «Laizeari itandu»... Onela gai ta azalaren bitartean: «Iñontzeko alaba antzekoa», «suzmur orlegizko jorana»...

Neskato bat iruditzen dau olerkariak. Bakarrik dago neskatoa, arratsaldeko argi geldian. Ikuspegi zoragarria dau aurrez-aurre, baiña ez dau ezer ikusten; itsua da gaixoa, bere begiak ez dauke indarrik ezer ikusteko; zabalik daukaz, baiña ez dabe zabaldiko ederra ikusten; agor dagoz, idor, ildako artizarra iduri. Utsari begira neskatoa. Olerkaria urreratu jako, eta aren zoriaz biotz-mindurik, onela kantatzen dautso:

«Baserriko bitxi kutuna  
jaiotzetik laztan itsua,  
aizeari itaundu egiozu  
ikusten ez dozun mundua».

Egia, neskatoak sari itaundu dautso aizeari zelakoa dan mundua, koloreak, zugatzak, bere gurasoak, neba ta aitzak. Zerba't jaso dau ortik, baiña oso gitxi; geiago nai leuke. Bere baserri albo abesten dautso txindor batek goiz eta arratsalde. Eta ari zuzentzen dautso samur itaun gozoa:

«Illunabar oro dantzudan  
Errotazuri'ko txindorra,  
esaidazu zelangoa dan...».

Bere egoitzatik ur-ur itxasoa dauko. Entzuten dau aren orroa ekaitz bakarretan; beste batzutan ez dau ezer entzuten. Zer jazoten ete? Olerkariak diñotsa polito ta samur:

«Adats zuriko leioa da  
aserre-bitsetan orruka;  
bestetan, ostera, bildotsa  
ondar bigunari musuka».

Gorago, muiño ostean, iturri bat dago. Umetatik ara daroen ezkerero, ba-daki arako bidea, eta sari zuzendu oi da bertara. Eder dau aren erasi-otsa entzutea, alboko arbel gaiñean jarrita:

«Leiar-eresitan dantzudan  
zabaldiko iturri gardena,  
esaidazu zelangoa dan...».

Eta iturriak (olerkariak) erantzun dautso, misterioz jantzitako itzez:

«Iñontzeko alaba antzekoa,  
iñar ateko apar galdua,  
iraduz jabeturik doan  
mendiko negar ezkutua».

Irudimen jostariak mamindu dauan lore apaiña. Illun-litsez oretua bear dala olerkia esan daroenak, ba-dituzu. Baiña niretzat obe, barru ta azal, argi ta bizi, samur sakonak diranak. Atsegiña damosku argiak, eta illunak nekea ekarten. Bizi gaitzean olerkiz, eta olako osotuko.

## SOLOZABAL'DAR PAULIN (1912 - .....)

Barru erne oi doguzan gogoetak itz-lauz ta bertsoz adierazten ditugu urko lagunari be a'tzen emot'ko. Paulin'ek bertsoz eta eleiz-mintzoz adierazo izan ditu bere gogor kizunak. Abots zoli ederrez arkolau eban Jaunak eta eder jako bertso-kantua.

Bizkaiko Etxebarrían munduratu zan Solozabal, berak diraus-tanez, 1912-5-4'an. Lenengo ikastaroak, ondo milindriak, erri are-tan bertan egin zituan, Zamora'ko maisu baten menpean. 1925'an abaderatzerako ikasteak egiten, Durango'ko Jesuitetan asi zan. Emengo urte biren ondoren, beste bi Gaztelu-Eleizabeitia'n osotu zituan. Gero, guda sortu artean beste zazpi urte Gasteiz'ko Semi-narioan erretorika, filosofi ta Teo'logi gaiak ikasten. 1936'an, ordu samiflean, mendira eroan eben gure erriaten etsaiak. Arazo min-garri onen artean, azkenengo eleizkariara urtea Domekar lekaid'en etxean eginda, Bergara'ko San Pedro eleizan abadetu zan.

Abadetzako lenengo iru urteak Baldegobia'ko Basabe'n egin zituan, 1939'tik 1942'ra arte. Ondorengo urteetan Solozabal Mun-gia'n bizi izan da emengo parroko apaiz laguntzalle ogeta amabi urtez eta azkenengo amasei urteak Laukarizko parroki txikunaren otse'n edo zerbitzari.

Eleiz-laguntzaville lez beti gurari zabal-errimeko izan jakon Pau-lin, euskera arloan ez da urriago izan. Olerkia landu dau batez be. Zazpi bat poesi-liburuxka bereak ditu, urtez urte argitara emonak. *Uskeriak* eta *Urre-bitsa* izan ziran lenengoak eta gero gairerakoak. Ia danak nik egindako itzaurtea daroe. Itzurre orreitan nifio netik emen be zerbait gogoratzea egoki izango jaku.

Irugarren liburuxkan, 1969'an, ots, «Gizonetan», onela idaz-ten neban: «Gaur esanari garrantzi geiago ezarten dautsagu, zelan esaten danari baiño. Ederra beti antz-irudi ta metafora bitartez adierazten dogu, an antz-irudiok jantzi dotore eske daukaguz. Pin-tura lauki bat ezta edozein kolorez osotzen; ezta masika-zati bat be, edozelako doñuz, edo tullu-irudi bat, eskultura irudi bat edo-zein arrimukuluz. Beraz, itz ederra azaltzeko be itz egoki ta do-toreak erabili bear dira, olerki-lanean diardugunean batez be. Izkuntza poetikua deritxona» (5 orr.).

Bizkor samar aitatu, laugarrenak *Gira'ian* dakar izenburu. Nik onela itzaurrean: «Oraingoak, bere zer apartekoa izango dau, mail-lez beintzat: «zatikakoa izango da; itz lauz ta neurtuz. Au da, liburua, erdia itz askatuán izanik be, olerkariarena dan ezkeru, olerkitsuá izan bear. Bakotxak daukana dau emoten: udabarririk bere joritasuna, txoririk bere kanta; ibaiak bere gardentasuna. Pau-

lin'ek be bere barrua damosku kazkaz ta ezin-egonez gairiezka. Muin dardarati ori kukutu ba'leu, ez litzakigu poeta izango; gau-zak eder ikusiko ezpalitu, ezingo leuke olerkari izanik duinkiro eroan. Baiña orixe dagi, lumaz azaltzen dauskuzan zer guztietan. Eta ori al da olerkari izatea? Bai, orixe dozu, ezpai barik, bene-tako ilerkari izatea; barnea edegi ta gauzak eder burutan jarri; ez da besterik. Geure argi-aldiak doguz gizasemeok, eta orduan, geuk zergaitik ezdakigula, barnea irakiten ipinten jaku; pertsona bat jaku sarri, gauza bat, jazoera bat, zio lez, eta zer orrek arro-tzen dausku izatearen sakon guztia olatu biurri batek itxas-ondoa astindu ta irauli oi dauanez. Arimearen indar biak —adimenak eta naimenak— orduan, alkar besarkaturik, lan ixilla dagie barreneko beroaldi gozoan. Ezta edozelakoa txinpart arteko beroaldi onen ekarria, bigun txanbeliña baiño; labur: olerkia. Egiazko poesian, ain zuzen, iru gauza bar ditugu aintzat artu: jatortasuna, ederta-suna ta zorroatasuna. Iru doaiok beitez benetako olerkariaren jantzi dotre».

Urteen ibiltez beste olerki liburu bat. *Deika*. Nik zenbaiteri les sarrera itzak onela: «Eskatuari dagokionez, itzaurrea egin bear dausat poesi-liburu-barri oni. Kalamu aspiko olerkari onek, ba-dau oparotasun sotilla, onegaz bostgarren alea bai dau argitara emoni-koetatik. Ez da gitxi, ta onezkeru poeta eldu zurrian datorkigula esan bear. Kopla gitxitxo onduta be, beragandu leike batek poeta izen gurena, Donibane Gurutz lekuko españar literaturan; baiña banakak dira orreik: olerkariak lan egin bear dau ta erakutsi bere ortarako gaitasuna. Orrela egin dau Solozabal'ek, eta txalogarri danik ezingo dau ifnok ezpaian jarri.

Osterantzean euskerea jator darabil, azal fiabarra, neurri ta amai naikoa landuak, bertsolari zaarren oiñutik zerbait aldendua. Eta olantxe, zernai abestu nai leuke, lenengotik azkeneraiño. «Egia naz deika» deritxonean azaltzen dausku garbiro zer abestu nai dauan:

«Landara, pizti, gizon,  
zuen azkatasuna  
aipatu nai neuke.  
Guzurrezko etsaia,  
ez nagizu zapaldu  
egia esateke».

Irudimen zolia dau geienetan, ondoren ederrak be iñoiz edo beste jalgi ta erein-azoz:

«Eguzkia gura dot  
bere indar guztiagaz  
gure zaldientzat;  
bederrak il egingo  
dira argi ori bage  
gure erriarentzat».

Baserri-zale agertzen da, ta lugiña goratzen dau:

«Goizero noa pozez  
basetxeko lurrera  
gogoa azkatzera;  
gorputza arin doakit,  
astuntasuna itxita,  
egazti antzera».

Izadian lez, gizartean be lorak eta arrantzak erne oi dira:

«Ezkutuzko indarrak...  
lur beraren sabelak  
sortu dauz etsaiak;  
arantzak eta lorak  
alkaren ondoan  
gorroto diranak».

Onak deritxoz aurrerakuntzak, baiña gizonarentzat etekintsu diranean:

«Aurrerapidea ez da  
bakarrik bizitz zoria,  
aurrerapideak ona  
egin bear dau ugari».

Azkatasuna kantatzen dau. Gizonaren osasuna dala diño, zu-zen-bidetik jo ezker. Gzonak, alan be, azkatasuna dala-ta, berekeriak egin oi ditu:

«Azkatu, diño, azkatu,  
eta itzez, baita egitez,  
besteak zapaltzen ditu  
berekeriak egiñez».

Auxe dozu Paulin'en poesia.

## ANDONI AMUTXATEGI

(1913 - .....)

Miin txarrak diñoenez, Elantxobe erri bitxia ei da, urez, lurrez eta gizonez.

«Bitxi» berbeak alan be iru esan-nai beintzat badaukaz: 1) metalezko domiña bat, paparrean eder-gaillutzat erooten dana; 2) nabarmena, oi-ezlakoa, besteak ez lakoa, bere legezkoa, eta 3) dotorea, poxpoliña, sona...

Iru esan-nai oneitarik zein ete jatorko ondoen gure itxasaldeko erritxoari? Irurak batera ez ete?

Erriak oiñetan beti txipli-txaplaka daukon Kantauri zabala bitxia da, ederra, naiz asarrekor dala, naiz bare-bare dagoala; erriak oiñarritzat daukon lur-zati aldapatsua, bitxia dogu, noiz laban egingo ei dago eguraldi euritsuetan batez be, baiña or Ogoño begirale bikain.

Gizonez bitxia dogu, leen eta orain; ez itxastar legez, euskal idazle legez so egiñik, ainbat ditugu bertokoak: Gorgonio Renteria, Imanol Arriandiaga, Jose Intxusagarri, Andoni Amutxategi, Andima Ibiñagabeitia, Aita Berriatua...— euskal arloan trebe izan doguzanak.

Andoni Elantxobe'n jaio zan 1913-ko garillaren 24'an. Abade izan nairik, ortarako ikastaroak, lenengo lau urteak, Arratia'ko Artea'n (Gaztelu-Elexabeitia'n) egin zituan; beste zortzirak Gasteiz'en, lenengo biak Seminario Zarrean eta beste seirak Barrian.

Apaitzegi Barria zabaldukeran, olerki luzetxo bat ozen esan edo deklamatu eban Andoni'k ainbat gotzain, abade ta erritarren

aurean; olerkia Jakakortajarena'k egiña zan, baiña berak ederto otsegiña.

Gudaketak nun aurkitu eban? Elantxobe'n bertan. Bere ikas-kideak abade ziran, lau izan ezik. Gudaritza zala-ta atzeratu ziran bostok Frantzia'ko Akize edo Dax'en egin ziran abade.

Euskadi'ko Jaurlaritzaren baimenaz eta erbesteraturik egoan Gasteiz'ko Gotzain Mujika Urrestarazu'tar Mateo agurgarriaren eskabide eta eskubidez eldu ziran aia, eta andik illabetera, atzera bihurtu ziran Bizkaia, Eusko-Guda'osteko kapillautasuna eusko gudariek in betetera.

Pazko-Berbizkunde osteko eguenean eldu zan Andoni Bergara aurrean dagon «Basalgo» deritxon mendira. Ni an nengoan orduko; antxe ezagutu genduan alkar, «Kirikiño» batalloian alkarregaz eta Santoña'ko espetxean be alkarregaz egonik.

Nun egin dau arima-zaintza? Lenengo Araba'ko Antofiana'n sei urte, ango ingurutako abade-buru; gero Bilbo'n ogei urte, azken amazortzi urteotan Sukarrieta'n daukugu, ango eliz-arazoe-tan buru-belarri sarturik eta aske-unetan or-emengo aldizkarietan euskerazko lantxoak idatzirik.

Txistua jotzen dau. Musikarako griña biziz bizi da, euskal musikarako batez be. Berezkoak edo-ta bizi lekuak, Sukarrieta'k, eraginda, eder-zalea dogu osoan.

Asko ezta la be, Andoni'k beti ekin dautso euskeraz idazteari, amaren magalean eta ikastaroetan ikasi eban izkera arin, zorrotz, txairoan.

Seminarista zala asi zan idaten. Beronek diñostanez, bere urteko ikaskideen artean «Mens Nostra» eritxen aldizkaritxo bat ateraten eben; eta «bertantxe idazten neban zertxobait euskera utsean», diño.

Gerotik aldizkari oneitan argitaratu ditu bere lanak: «Txistulari», «Karmel» (itz lauz ta poesiz), «Agur» eta «Zer»-en, era biera, ots, prosaz eta bertsoz.

Euskal idazleok oitua dogunez, izen-goitiz firmatu ditu bere lanak; au da, «Lertibe» erabilli dau idazlanak izenpetzean.

Bere gaiak, interesgarriak dira geienbat: jazorikuak, artu-emo-nak, gizarteari buruzkoak; sakonak izan arren, arin ta argi azalduta.

Itz lauz artikulu politak biribilduagaitik, atsegiñago jakoz Andoni'ri olerki-lan laburretan jaukal esitzen dauskuzan pentsa-mentu samurrak. Gateiz'en ikasle zanetik dakar zaletasun ori, berezkoa esan bearko, aizeak berezkoa, dauanez orriak dardaratzea.

Ba-dira olerkiak idaztea errezago dala diñoenak. Ez adierazo ariñegi olako baiespenak. Bietarako, bai prosarako eta bai poesia-rako, goi-kemena bear. Karta bat idazteko, baiña, ez dozu bearko olerki bat ontzeko beste argi, kemen eta indar. Suminjaso edo aro-aldia da olerkia, arimearena noski.

Sumin-aldi au, barriz, era askotara sortzen, poeta naiz eder-senaren jabe danaren kautan. Irakurte batek, ikuste batek, alkar-izketa batek ekarri oi dauku ori, gogoaren indar, sumin, eroaldi ori. Ona lengoan neuri jazoa. Zaar ta gazte, bost joan giñan Gor-bea'ra, Murua'tik, Kanteretatik, Azero'tik Aldamin-azpira. Bi pe-rretxiku billa joan ziran mendian gora; beste irurok autuan, bape estutu bari. Pagadi ederrak, eta unetik unera enbor zaar batzuk, azken balztean, lerrera eratsita; nire lagun olerkaria ta ni olako baten aurrean miretsirik gelditu giñan, poesi-sumiñak jota lez; irugarrenak, ostera, zoratuta gengoazala esan euskun. Eta ariñari emon eutsan.

gorago, pagadi gainean, or sekulado gorosti gerri-lodi lerd-e-nak; osto baltz ugarik jantziak, eguzkiten dizdiz. Urreratu, ta zer dakusgu? Orriak batzuk arantzak dabez eta beste batzuk ez; mi-rakulu ori barrendu naitik, luzaro egon gintzazan bertan. Zerbait gorago, beste gorosti erdi-igarra; osto legorrez jantzia, txorta ba-tzuk eze ta berde ditula. Zelan ori? Ingurua azal bari agiri dau, baiña atzekaldean dau onako muskil berde bat, enbor igarrari deusola gora doana. Eta guk: «Or gaurko Euskalerrriaren irudia: gerria igartuz; baiña bizi-naia mokor gainez.

Bazkal-ondoan Atxuri'tantza jatsi gara bostok. Atxex aitz ibil-taldi arriskutsua. Pagadiak, oraingo lerd baltzak, ardi ta zaldiak... Eta lenpernak... Eta txoriak, bela, erroi ta eskillaso artean, be-rein kolorezko pitifak; bat ni lilluraz jarri ninduena, leizar zubil sendo lodi baten orri artean, txio-txio leun berezitan kantari.

Mendi-tontor bakarretako kanari ziur asko, bee-aldeetan ez bait da olako txio ezirik entzuten.

Pago-mukur zaarra, goresti gerri-igar berdetu naia, ta txori bakanaren txio-txio leuna, ez al dira iru poesi-gai sekulako? Guztiok, baiña, ez dogu sentitzen inguruko gauzen edertasuna. Eta, naiz izadiko ederra, naiz barne norberak sorturikoaren muiñaz goratzen danari «zoro» deitzen dautsagu. Bai, indarra, zoro-aldia bear ederraren ezta xurgatzeko.

Lertibe'k izan ditu olako zoroaldiak. Or lekuko bere bertso, kopia ta olerki beroak. Aitzol il ebenean, jazoera izugarri batek joa aurkitu zan goi-argitua, eta luma arturik, «Aitzol jaunaren omenez» deritxona, lau apaldi luzekoa, osotu euskun, letra ta eresi, andik egun batzuetara Bilbo'ko «Euzkadí» egundarian agertu zana. Irakur bere leengo estrofea:

«Irakurri izan dot izparringietan  
ta abertzale diranen arpegietan,  
erail dabela,  
ez kentzearren eukan sakela,  
erail dabela  
lapur ba izan balitz bezela  
«Aitzol» trebia,  
maite ebalako jaiotz-erria,  
maite ebalako jaiotz-erria».

Olantxe daukaz dozenaka landuak, ikusi, entzun eta esan dautsoezan gaiakaz. Guda ostean or ibilli zan alderrai; ama etxean semearen zain. Onela adierazten semearen erri-mifia ta amaren nekea, «Ertimifiaz» deritxonean.

«Erbestean ni negarrez,  
amatxo neukan d'darrez:  
«Luzaroan zagoz  
erritik aparte;  
seme maite, etorri zaite  
ama bizi dan arte».

U-te batzuk igarota erbestean,  
udabarri goiz batean  
agertu nintzan etxean.  
«Ai, seme laztana!  
elduko zifiana,  
ziur ekian amatxok  
etorriko zifiana».

## BENJAMIN MANTEROLA URIARTE (1914 - 1936)

Ordenan Joseba Imanol eritxona Zeanuri'ko Ipiñaburu'n jaio zan 1914-6-5'an; beronen gurasoak, Paulo eta Luisa. Lenengo ikasketak bertan osoturik, Larrea'ko karmeldar ikastetxean egin zituan eleiz-karreraren asierakoak. 1930-7-10'an abitua artu ta urrengo urtean 1931-7-11'an egin eban profesu. Markiña'n egin oi ziran estudioak amaitu ondoren, Iruña'n asi eban 1933'an lenengo Filosofi urtea, nota oneik aterarik: Filosofian 9, Natur Edestian 10, Kormografian 10, izkuna za frantzesean 7, eta abar. Urrango urte biak, Filosofi urteak, Gasteiz'en egin ebazan, lenengo urtean, 1934'an, Filosofian 9, matematiketan 8, Sikologia Experimentalean 9, eta 1935'an, Filosofian 10, Fisika'n 9 eta Kimikan 8 aterarik.

Errepublika garaia zan, Egun urduriak, eta orduan nagusi zan Aita Ezekiel Bilbao zornotzarrak, al ebenak eta nai ebenak, ikasketak orreitz gain batxiler be egiteko aolkatuz, Benjamin anaiak, beste bigaz, batxiller-kursoko iru urte ta errebalida egin ebazan, 1934'tik 1935'kora.

Orduan, ikasle izanarren, ez bait egoan soldadutza luzapenik, Gasteiz'en bertan, beste batzukaz batera oizko zerbitzua egiten egoalarik, alborengo edo biriketako mifiaz il zan bertako Militar Gaixotegian, 1936'ko apirillaren 31'an.

Gure ordenan lendik be naikoa bizi ebillen euskal zaletasuna, geitu egin zan era nabarian, 1931-4-14'an, Errepublika nagusitu zanean. Gure ikasleak gogotsu ikasi ta idatzi oi eben euskeraz. Jakintza ikasleak Gasteiz'en, orduko modetari jarraituz, barruko aldizkari bat, «Renacer» eritxona ateratan genduan.

Monterola'ri atsegín jakon olerkia. Askó irakurri eban orduko, eta olerkigintzan asi zan. Euskeraz eta erderaz etorren aldizkaria. Eta besteenen artean, ementxe daukaguz zeanuristarraren poesi batzuk. Ona:



## LIZARDI OLERKARIARI (Amalaukoa)

Ene elez olertzaille buruzagi;  
abertzale sutsu beroena,  
euzko amets zoro-edalaria,  
datorkit oroimenera, Lizardi.

Nire neurtitz oroikedetsuak  
ez dituk jakintza-izpi, oargabe,  
Sagastibe. Andre Lurra ikasle,  
era induxan ixilki ero adiak.

Asaben izkuntzan «garoz yantzia»  
maite-adar biur adi-barrenkorrez,  
«era indun ezkontide autetsi».

Gotargia bañan, aro-udatez,  
sartz-adar guntsutik asekitu,  
yo dok Argi-Aberrira, aldegiñez.  
(1933-34)

## MAITE-DEIA

Zer da enegan ain ariz deitzeko?  
Ainbat dot eneganxe Maitalea,  
ate-urre ortan intziz estalia  
negute beltz-gabak igarortzeko?

Egunik-egun leio zabaltzeko  
dantzut Maitale gaxofoarena.  
Adiña izan be biotz-lo-zorroa  
otoikor Maitale orren deirako!

Egunak iges. Beñolako goizan  
so-dagit maite-ge'ako leiora,  
oar baña? zer dakust bat-batean! :

Maitalea... —«Sar adi barnera»  
lazkatu nadin aope-mintzoan,  
betor noiztabit nigan maite-aroa.  
(1936)

Ez diñot nik luzerik ez daukanik, baña labur-apaiñak eder jakozan batez. Nik iru artu nitun «Milla euskal Olerki eder» libururako; alan be, ikasle zala egiñak eta «Renacer»-en pilotxoa dau; ona geienak: «Lizardi olerkariari» (Amalaukoa), «Ene begiko» (amalaukoa), «Aberri-baratzeko yaupaleme», «Oleri-iturri», «Gotzon aize beltza», «Goiz-jarduna», «Uso zurien aterpe», «Illuntze gorri», «Biotzean zauri-muiñoa», ulleta eresia (40 aapaldi), «Seaskan lo», «Arrats bera», «Maite-deia», «Mosu gartsua», «Yosuneriia», eta bost-sei prosazkoak.

Ameslari da gizona. Baña euskal literatura nortua be. Ainbat genbiltzan lanean, euskal lanean, gerra aurreko urteetan; ameslariegi bear bada. Oso ikastun eta langille etozan gure gazteak, eta gerra ostean be —ez diñotzut guzurrik— ordukoak izan jakuz punterengoak euskal idazleen eta agintarien artean. Guk karmeldarrok gazte bi galdu genduzan, eriotz-zartakopean eta beste asko ostikopetuak eta sakabanatuak izan ziran, bide ertzetan zapalduta geratzen diran lore bikain usaintsuak iduri. Makinatu bat langille amestu betiko eratzia!

Irakur azkenik «Gotzon-aize beltz» eta zeuk esan egitan nabillen.

Gau-sabel aizaroz elurra ixilkiro,  
Ortzi goibeldutik dator. Uzkur oro.  
Su ta izar indargea urrun arkaitz alde;  
Argi motelera aitz, belardi, elurpe...

Otz gauaren jabe. Noizbait aize zuzmur;  
Gerora, orra elur-zati arkaitzez linbur.  
Oiuska minkorrak eio aldi berean  
Aizeak zugatz-adar ta arkaitz artean.

Baña... ixo! Goian odei tarte  
argi islatsu, lenen ezer gabe;  
Urrenago, ego; atzenez, arpegi:  
Gotzon-aize beltzaotzez urbil izaki.

Aize beltz orri zor, eumdaka izar biztu  
Arkaitzeko elurran, Sarrera sutu...  
Aurki ereserki-ots eresitsua;  
Itz aro dakarkit aizeak gozua.

Ona datorkidaz aize-egoz legunki;  
Oro dantzut, bai ele bai ereserki:  
«Aintza goitan Jaunari eten gabea;  
Naia ontzat etsiko lurtarroi, genza».  
(1935)

Bai, egia dozu beti: zugatz onak frutu onak ekarten.

### AUGUSTIN ZUBIKARAI (1914 - .....)

Ondarru, arrantzale ta gizaseme jakintsu askoren uria. Emen-  
txe munduratu zan Augustin Zubikarai be, 1914'ko azillaren 3'an.  
Gurasoak: Salbador Zubikarai eta Ana Bedialauneta; aita,  
egibidez, arotza. Bederatzi seme-alaba euki ebezan. Augustin iru-  
garrena. Lenengo ikasketak Ondarru'n egin zituan.

Amaika urtetik amabostera, Saturrarán'go Abadegai Ikaste-  
txean. Beste urte bete Gasteiz'en, baiña gaixorik egoalako, etxetik  
ikasita. 1933 urtean Zornotza'n «Jaungoiko-Zale» ta «Ekin»-en lan  
egiteko asmotan; baiña barrero gaixotu eta urte bi etxean.

1936'an, guda asi ondoren, Bilbo'n leenengo «Euzkadi» egen-  
kariko lan batzuk egiten eta gero 1937'ko urtarillaren batean,  
«Eguna» euskal egunkaria asi zanetk urte bereko bagillaren erdi-  
rarte, egunkari orretako zuzendari-orde izan zan.

Bilbo galdu ondoren, «Aralar» batailoan ibilli zan gudari, San-  
tander eta Asturias aldean. Gero, baituta, Kastro, Miranda ta  
Aranda de Duero'ko konzentrazio zelaietan eta Gudalajara'ko  
guda-tokitan, Langille taldean, 64 zenbakian. Andik Donosti ta  
Azpeiti'ko expetxeetan egun batzuk igaro ondoren, 1939'ko ur-  
tarillaren 4'an, Zaragoza'n bederatzi izparkarien orde besta bede-

ratzi euskal izparkari kanjeatu ziranean, Barzelona'ra joateko mu-  
gaz aldatua. Baiña an egun batzuk igaroteko baimenez egoala,  
Barzelona galdu zan eta Zubikarai eta lagunak lenengo Endaia'n,  
geroago Ziburu'n eta ondoren Landes'etako Labenne'n, baiña,  
Frantzitarrak gerran sartu ziranean, Lannemezan eta Tarbes'etako  
artsenaletan lanari ekin eutsen, alemaak emen sartu arte.

Gero, etxerako ustetan urten eta barrero Figeras'eko espetxean  
lenengo eta ondoren andik zigorpeko batalloe baten Gibraltar  
aurreko Las Inviernas'etara. 1941'an etxeratu ta arrain kontserba  
baten sartzeko aukera oartzuz, Mutriku'n asi zan lanean, lantegiko  
idazkaritzan, bertan 40 urte lanean egifik, zar-saritu arte.

1942'ko urrillean, Ea'ko alaba Maria Erkiaga Aldamiz'egaz  
ezkondu zan eta sei seme-alaba munduratu, Mutriku'ko lantegian  
lana ta Ondarru'ko janari-denda bateko arduradun biziak.

1933 inguruan asi zan idazten, lenengotan «Arteta», «Gurutx»,  
«Itxasertz», «Kutuntxu de Artibai», «Ibai-ondo» eta abar, eta  
geroago «Z'tar A», «Zubegi», «Ondarzubí» izen-ordetzat etabi-  
lliaz. «Ekin», «Euzkadi», «Euzko», «Gudari», «Argia» eta abarren  
idatzi eban gerra aurretik; gero, ostera, «Karmel», «Zeruko Ar-  
gia», «Egan», «Redención», «Olerti», «Deia», «Diario Vasco»,  
«Zer», «Euskerazaintza» eta abarretan 1950'tik 1965 bitartean  
Ondarroa'n ateraten zan «Boga-Boga» aldizkaritxoan lankide.  
1961'tik Euskaltzaindiko urgazle. Euskerazaintza sortu zanetik,  
bertoko lagun, 1981'tik Ondarroa'ko Kultur-Etxeko zuzendari.  
Bilbo'ko Erri Irratiko eta Arrate Irratiko laguntzaille. 1983'tik  
1987 bitartean, Gernika'ko Batzar Nagusietako aldun. 1982 urtean  
asita, urtero akertzen dan «Ondarroa» aldizkariko zuzendari.

Lan ugari dausku argitaratu. Ona batzuk: 1) «Motrico» (1969),  
erderaz; 2) *Erri jakintza* («Kardala», 1976, euskeraz eta erderaz),  
«Boda ta Zuxe», 1977, eskeraz da erderaz, «Gure inguruak», 1982,  
«Bizkako bidetan», 1984, «Teñeru estropadak», 1987, «Ondarru,  
kantu, otoi, orru», 1984; 3) *Antzerti* («Bizi garratza ta mendu  
zaharrak», 1970, «Aingira kumak», 1976, «Mendi ta itxaso», 1983,  
«Artea'ko itsua ta beste lau», 1987; 4) *Elabarri* («Bale denporak»,  
1978, «Anton Guzurretxe», 1979 (Txomi'n Agirre saria), «Laiñoak  
Mundakan», 1980 (Etxeita saria), «Ira usaiña», 1981, Etxeita  
2'garren saria, «Mon-daka», 1981 (Etxeita saria), «Bizitzako urra-

tsak», 1981, «Itxastarrak», 1985; «Garratz eta gordin», 1986; 5) *Kontakizunak* («Esan eta esango», 1979, Azke saria, «Makillen egunak», 1983, «Peru eta Mari gureak», 1985, «Lugo'ko ipuñiak», 1986, «Barre ta irri», 1988; 6) *Ikerlanak* («Ondarroa baserri giroan», 1985, «Berriatua», 1986; «Ipazter», 1987, «Amoroto eta Gizaburuaga», 1988, «Mendeja», 1988; 7) *Biografia* («Balentin Berrio-Otxoa deuna», 1988; 8) «*Euskeratuak* («Bizkaiko Batzar Nagusiak», 1986, «Euskalerriko Historiaren sarrera», 1987, «Gernikako Batzar Etxea», 1987.

Orrezaz gain, *Antzerki-lan* asko daukaz ondarrutar langille erri-me-errime onek. Ona: 1933-1936 bitartean egina: «Aberriagaz bizi» («Anta erti» aldizkarian agertua), «Illobearen indarra» ta «Itxas lapurrak» (bardin), eta «Itxas ertzeko itsu mutilla» (argitaratu barik). «Itxa-sora» (1943), Ekinza bakarrekoa, Biarritz'en saritua; «Seaska inguruan» (1960), «Gipuzkoa» izeneko bigarren saria, «Egan»-en argitaratua; «Jaunaren bideetan» (1961), Jesus'en Nekaldiko ikuskizunak, «Egan»-en argitaratua; «Kresaletan» (1964), Gregorio Solabarrieta'ren musiaz; «Iru alaba» (1963), Euskaltzaindiak eraturako «Toribio Alzaga saria», «Euskera»-n dator; «Mariñelak» (1965), Jose Mari Altuna'ren musikagaz; «Gizon on eta andre erre» (1967). «Toribio Alzaga» sarian, aipamena; «Bizi garratza» (1967), Donostia'ko «Gipuzkoa» sarietako aipamena, argitaratua; «Lurrunean» (1968), «Gipuzkoa» saria, «Egan»-en argitaratua; «Errekonduan» (1969), «Gipuzkoa» sari-keetan saritua; «Mendu zarrak» (1969); «Toribio Alzaga» saria, argitaratua; «Mendi eta itxaso» (1983), Markiña'ko Lore-jokoetan saritua, «Antzerki»-ik argitaratua; «Eskola maixua» (1984), Santurtzi'ko Udalaren saria; «Artea'ko Itsua» (1986), Bizkaiko Al- dundiaren 1986 ureko saria, argitaratua.

Baita beste oniek be: «Loiola'ko Eneko»; «Ni naz Kapitan piloto»; «Aingira kumak» («Egan»-en argitaratua); «O Opokoa H»; «Aritz aurrean»; «Kirritirika»; «Iruugarren adifnean» eta abar. Escudero'ren «Gernika» operako ekintza bitako letra. Antzerkirako gertuak: «Atxuri'ko milagrua», «kirikiño'ren ipuñe- tatik»; «Urruzuno'ren umorez», Urruzunoren ipuñetatik.

Ipuin asko ditu, ta saritua izan da, Donosti, Bilbo, Bermeo aldeetan, eta «Zer» aldizkariaren sariketetan; Delmas'en «Gazte- lugatxe», euskeratu dau; «Ondarroako abizenak», «Euskera»-n

datozanak; Egutegiak, Ondarru, 1966-67 ta 68; Azkue-n iztegia agertzen diran Ondarroa'n batutako itzak, eta arek batu barik laga zituana.

Idazle orren oparoari ez jako gaitz izango olerkietara jo eta estrofa (giar naiz mee) batzuk ariltzea. Zubikarai aurkeztu izan da noizik bein poesi-leiaketa batzutara, eta sariak eskuratu. Sango- tza'ko Lore Jokoetan, adibidez, 1967'an eta bigarren saria irabazi eban, bardin 1968'an be, eta lenengo saria beragandu eban «Na- parroa'ko bideetan» eritxon olerkiaz. Zornotza'n, Karmel'ko Ama- ren Koroatze egunean, bere «Koroiko Pitxiak» lana saritua izan zan; Laukiniz'en, urte bitan bigarren eta irugarren sariak etxeratu zituana.

«Olerti»-n emon dauz batez be bere poesi-lanak. Zelako oler- karia dan zuk be jakin daizun, irakur egizu 1984-garren urteko zembakian datorren au; «Artu titia» deritxo:

Zain nago  
ta eztakit etorriko dan,  
Itxas-aparrak  
baltz-baltz datoz aizean burrunbadetan.

Artu titia, maitexo,

Zain nago  
bildurrez, etorriko dan.  
Itxas andiak  
ots larria dakarre gose orrutan.

Artu titia, maitexo,  
laster datorke aitatxo.

Zain nago...  
negarra datorkit oparo.

Bare geiagoz  
ito egin zan, oraitsu, aitona gaixo.

Artu titia, maitexo,  
geiago artu, kutuntxo.

Artu, ten bigun...  
ten, ten kutun,  
zu be,  
zu be,  
egunen baten  
itxasoak iruntsi zaitzan.

Iradu dabil irudimena, biotza negar-min.  
Eta olerkia orixe izan.

### JAKOBA GERRIKAETXEBARRIA IGARTUA (1915 - 1939)

Ainbat euskal idazle morriztu zituan azken-gudateak. Orreïn artekoa dogu itxaropentsu etorren gazte au be. Gasteiz'en jakintza-ikasle zala zentzun aundiko olerkiak agertu ebazan Zornotza ontan ateraten zan «Karmengo Argia'n».

Ibarruri'n jaio zan Gerrickaetxebarría, 1915'ko apirillaren 5'an. Goi-deiaren bultzada-zirkifiái jarraituz, Larrea'ko Ikastetxean sartu zan, eleiz-karrerarako bear ziran latin eta gizatiar gaiak atarramentu ta probetxu aunditan egiñik. Ondoren Larrea'n bertan jantzi eban karmeldar abítua 1932'ko garagarrillaren 15'an.

Proba-urtea gogo ta erakutsi onez igarotakoan, profesia egin eban 1933'ko garagarrillaren 18'an, lekaideen iru botoen bitartez Jainkoari gogotsu itsatsiaz. Markiña'ko urtea amaiturik, Filosofia ikasteari emon eutsan lenengo urtea Iruña'n egiñik, bigarrena ta irugarrena egiteko Gasteiz'era aldaturik. Beti alai ta ikasle zoli.

Anai arteko gerratean ikasketak eten bear izan zituan, lenengo Ipar-aldean eta gero Ego-aldean matxinoakaz gudari egiñiaz. Ego-aldean aurkitzen zala, Kordoba'ko guda-oifean, gorrien lenengo eguneko erasoan, 1939'ko urtarrillaren 5'an il zan, burruka zelaian bertan, bat-batean lez, metraillak zaurituta. Aren gorpua bere erriko kanposantura ekarri eben, bertan lur emonik kristiñau legez.

Gudari zalarik, biotz ta buru aparteko kemena erakutsi eban beti; maitatua izan zan bere nagusi ta lagunen artean, alferrez-mai-

Ila lortzera be eldurik. Karmeldar nanun agertu oi zan eredutsu, bere eguneroko jokabide guztietan; eleiz-arazoetan be beti zan lenengo ta biotz zabaleko. Etzan iñoiz kikildu bere goi-deian.

Ikasle zintzo, jarraikor eta zetatsu zan. Euskera ta euskal arloa kutun zituna. Gurasoengandik ikasitako euskera ikasiz ta idatziz obetu egin eban, eta il zanean euskal Olerkari aundi bat galdu genduan. Bertsoetan idatzi eban batez be. Goiz-aize ego-ariñez dabilkio irudimena, baiña garai atan beste eusko-olerkari askori lez eta euskal literatura langille bizkor orreiz gabetua dogu.

Ak «Karmengo Argia»-n emon eta nik neure lenengo olerki bilduma mardulean jaso, lau datoz, ots, «Gora nai», «Maitasuna», «Atzerri-bidaztia» ta «illun barra». Lenegoa ta bigarrena sonetuak dituzu. Ona lenegoa ta irugarrena:

### GORA NAI

Bustin soin auskor oni zeure izate-izpia  
Ezarri zeuntson, Jauna, illezkor gogoa,  
Ta ats deunaz apainduki, gauzadi osoa  
Gizon mende utzi dozu, izaki jabia.

Bere bizi-bidean iñoizpait gaikia  
Elburutzat ba'dartu, lilluraz gaxoa  
Izaketan datzan zeure ederrez doa;  
Gau illunan galdurik, ez dakus argia!

Ta iñoiz ezin asetu... Arantza zorrotzak  
Daurkiz lili artean; ezti ordez, mingotzak  
Atsegin ontzian. Ez bere biotz gai!

Zeuk, Urtzi, egin zendun zeuret zat gizona;  
Zeutat, iñon ez daurki bere zoriona;  
Ezin ase izakiak, Zeugana beti nai!

## ATZERRI-BIDAZTIA

Errikaturik negar-ibarron gau illuneko bidazti... Bidezkunde au itzez itz dautzut edestuko nik saminki.	Baia baita be zeure jausitzan zio dan gorputz astuna, bustin zatia danez lurrera beti makurrik yatzuna.
Eztot ifiori galde bearrrik nundik ibilli ninazan; negar gorrizko tantoz dakustaz zure oinkadak bidean.	Zorun egarri bizia dozu unoro mifiez nabaitzen... Baia ludi au ba-doakitzu ta ezpaiauk zauz eztenzen!
Eskar-aulkitik jausi ezkeroz aronga zabiltz samifiez, zeure bizitza puskat bidean arantza artean galduez.	Uda-goizean eguzki-izpiak zaurituko ifiontz-tantoak bezela doaz ezer-ezera amets zugatzen ostoak...
Ifioiz aseko ez dozun garrak kiskaltzen dautzu barnea; ta zure naikun oro amiltzen ametsak legez, utsera!	Nundik zatozan, nora zoazan...? Etzara ludi ontako! Bidazti zara emen bakarrik; Aberria goian dago.
Bizi bidea lili larrosaz baratza yatzun iduri; biotza zorrotz ziztatzen daben arantzak daurkizuz soilki...!	Jainko arnasa baita gogoa, ifioiz etxatzu itzalko; bustin-zati bat gorputza baita, auts laster yatzu biurko.
Barnean ifioiz ilgo etzaizun zerbait ba dozu mifietan; lurrezko bitxutxa auskor batean, altxorra legez, gordetan.	Bitartean zu, bidazti guren, etsaien aurka guduan; betirauneko saria lortzen naigabez zagoz munduan.

Beti gorantza nai dau gogoak;

lurrera makur gorputza.

Bion arteko guda ondoren

nok lortu ete garaitza?

Gazte zala onako lanak osotu ebazana. Itxaropenaren izipi garden da euskal literaturan. Idazleak idazle izateko, eta olerkariak olerkari, klasikuak, gerkarrak eta latindarrak batez be, eredu lez ezagutu bear dauz; baita gero, bere jaioterriko, guk geure euskal erriko tradiziñoak eta izakera bereziak gogotan euki be. Gure sasi-olerkari askok, baiña, onetan uts egiten.

Baikor, garrantzitsu ta eder litzateke, gerra aurretikuko euskal poesi biziz liburu mardul bat prestatu ta argitara emotea. Zelako kontzientzi, euskal kultura ta oldarrez etozan garai atako olerkariak. Ezta artobero usaiña, autorkuntza au: gainditu barik dago orindik orduko garra ta adorea. Batak besteari itsasten eutson ederraren osotasuna.

Ogei bat urte ozt-oztan eukazan Gerrikaetxebarria'k lanok egiterakoan.

## ANGEL BIDAGUREN

(1916 - .....)

Lumo'ko elizaldean jaio zan Anjel 1916'garren azaroaren 25'an. Beronek diñoskunez, «beseguek gozoeñ diran egunetakoa ei zan. Ume argal eta jakana, eta orrexegaitik edo, aititeren billobarik kutunena».

Zortzi urtez asi zan Zabal-Barri zan Lumo'ko auzo ikastolan. Emen be erderaz egin bearra ta noizik bein erastun «madarikatua». Alan be, lau urte beintzat onurakorrak. «Elizan bakarrik ikasten gendun euskeraz. Geure denporan agertu zan dotriña barri bat, euskera txukunean, eta txiki-txikitatik ikasi gendun bera ondo irakurten».

Amabi urtegaz, gaur jekideen etxe dan Artea'ko Seminariora joan zan. Lau urte egin ebazan bertan, «lau urte eder, poz gozoz gogora dodazanak». Emientxe asi zan euskeragaz benetako artu-emonetan. Lekeifio'ko irakasle bat, On Jose Gartzia izan eban gidari, euskal joskera, aditza eta, baliotsuena, euskera maitatzen irakatsi autsona.

Andik Gasteiz'era. Beste iru urte ta beste irakasle bat, On Manuel Lekuona. Eta onek sorturik an egoan Kardaberaz izeneko akademi bat; orduko ikaskide moltzo batek, Anjel tarteko zala, lan polita egiten eban euskera arloan. Ba euken aldizkari bat be euren leenengo idazle-dendentxoak egiteko berebizikoa zana. Gero guda zitala iruntsi bear; leenengo gudari, ondoren, trapu zaar lez, ostikoperik ostikope, langille batalloietan, eta azkenean, «garaille».

Etixeratu zanean eta bizibide barri baterako gertu egoala, ez bear gogor bat jazo jakon: bere ezkon-anaia oneztarri batek jota il egin zan, beta alboan zala. Arreba alarguma, ume txikien ama, laguntza bearrean egoala-ta, konturatu orduko lurrari lotuta geratu zan. Inoiz sega bat eskuetan artu barik burkada azpigarria zelan burutuko basoan leenengo aldiz aurkitu zanean, gogorra iruditu jakon bizia.

Noizbaiten argitu ziran gauzak, eta trebe izanik, Banketxe baten asi zan lanean. Aukera onak izan zituan eta beti jarraitu eban zintzo; ogeita amabost urte geroago, zaar-sarituta, etxeratu eben betiko. Eta gaur sendian bizi da, 1948 garrenean ezkontzaz artu eban Ajangiz'ko Antzosolo baserriko Luzia Gardoki ta seme-alabakaz. Ainbat urte igarota be Anjel'ek alkarregaz daroazen egunak gogora ekarten, onela abestuz:

«Gogoan, ene maite, eguna  
gu alkar ezagutu giñana?  
Gernika'n —astelen erdi jai—  
gu bion begion argi dantza  
asi zaneke a egun otza,  
gogoratzen, ene emazte? Bai?».

Noiz euskal soloratu jakun Bidaguren gure arloan lan egiteko? Berak diñosku onela: «Iru seme-alaba ta zortzi biloba, arbolatxoren bat be inoz landatuta, liburu baten faltaz gelditzen naiz gizon oso izateko. Beitez bertso solteok ordezeko. Gaztetan mutu eta zartzaroan kantari esan eustan beñola Puxana adiskide miñak. Baita Santik berak be sarri esan oi deust orainarte nondik nora ibilli naizen. Gizona bere inguruak darabil eta ni be neure inguruak nerabillen euskeratik aparteko mundu txikian. Bizirik da oiartzuar aitagoiaren azia, lo, baiña bizirik egoan nire aragian eta oiartzuar aitagoiaren azia, lo, baiña bizirik egoan nire aragianeta

egun baten, berez-berez, loratu zan barriro. Euskal aldizkari bazuen barri jakin nebane an, eurak eskuratzeko alegindu nintzan eta, geienen arpi'dedun, irakurteari ekin neutson leenengo letratik azken punturañño».

Baita olerki-idazle zelan egin zan be autortzen dausku Anjel'ek. Erderazko egutegi bat aztertzen ebillela, bein orriarte baten, soneto bat agiti zan eta zoro-zoro euskeratzen asi zan eta uste baiño errezago iruditu jakon. Au diñost azkenik: «Aldizkarien bidez, ba-neukan nik Larrako olerki-egunen barri, eta bein, olerkarien moltzoa gizentzeko baiño ez ba zan be, neuk be zerbait egin bear nebala ta olerkitxo bat bialdu neban bertara. Aaztuta neukan nik neure saiotxo ori; baiña, ara, egun baten KARMEL'en argitaratua nun datorren. Ain idazle ospetsuek biribilditako aldizkarian ikusi nebanean nire olerkia, otzikara antzekoa nabari izan neban neure azalean eta, bene-benetan, ezerean lotsa barik autortzen dot artu neban poza andia ta gozoa izan zala. Gero, euskeratu neban M. Hernández'en poema bat eta Aita Santiri bialdu neutson argitaratugari ba eritxon eta OLERTI'n agertu zan. Politico euskeratua zala esan eustan».

Gauza nimiñoak bear bada, baiña eredugarri. Zenbat dagozan gure artean zerbait egingo leukienak; akulukada baten zain dagozanak nunbait. Arrezkero Bidaguren olerkari bikain dogu, euskera ederrean zer-esana dauana. ZER eta KARMEL-en idazten dau batez be.

Epe laburrean, iru bat sari be izan ditu. Leenengoa Larrea'n jaso eban. Emazteari eskiñitako lan txairo bat zala-ta. Ona poema aren amaiera:

«Orain, gure negu aro ontan  
ba zenki, ene!, zein eder jatan  
gu bion oroimen gozo au.  
Sutondoan, amatau ezifia,  
bion maite-mukur ondakiña.  
Biok ilartekoa ba dau».

Bigarren saria au izan zan: 1986'ko ekaiñean Bilbo'ko «Asociación Artística B'lbaina»k eraturako Udabarri Saria eskuratu eban. Zeramikazko aritz orri eder bat daudat etxean sariaren oroi-gari. Ona ara bialdutako sail batetik leenengo estrofa:

«Etorriko da udabarria  
ortzondo beteko larrosakin;  
baiña ni joana izanen  
ta ezingo ditut ikusi  
maiteen paparrak zabalik».

Irugarrena, Ondarribi'n. Ango udalak erutzen dauan «Satarka»  
saria jaso eban 1986'ko abenduan. Irakur olerki oen atal txiki bat:

«Arrantzale, itxas-illeziña,  
zure ametsen oge urdiña  
kulunka urrumari loan.  
Zuretzat egiña ez da lurra,  
aizea legorregi ta apurra.  
Zoaz olatuen lepoan  
t'erkarskuzu bestalde oiartzuna,  
misterio gazien lurruna.  
Amu-puntan biotza ezarri.  
Boga mariñela ta ekarri  
izar barri bat gure errira».

Biotza beti gora guraz dabilkio olerkari, baiña egoak laburregi.  
Ona, azkencz, *Aititerena* deritxon amalaukoa:

«Negua da, eta mara-mara da edurra.  
Arrats beera ontako atsedean arrear  
atsegin besaulkia —edontzi bat aurrean—  
garrrik gar doan arte sutondoko mukurra.

Milla oroitzeta eta amets zurian agurra  
datorkit miin biurrien kantu gorrian  
eta surik suko txinparten urte orian  
dabilkit ene argi ta illunen murmurra.

Labanka doakit biluzik eta alpetra  
ene joan zoroaren dardara emea  
kilikiliz betez nire sukaldeko otzila.

Neguko atsaldea, gogo aro ederra,  
maluta mozkorrek ertz zuriz ene bakea  
ta zein pozkarri dodan epel onen ixila.

## AITA LON ARTEAGA

(1917 - 1980)

Mañari, Durango ta Urkiola tartean, erri txikia dozu, baiña  
gizaseme aunditan aundi; bertako aitz-mokorrek, baltzak eta na-  
barrak, ba-dabe ospe ta entzuterik mundu zabalean. Baita euskal  
literaturan Kirikiño'k eta beste askok be.

Ementxe jaio zen Aita Arteaga, 1917-5-16'an. Umetan erriko  
eskolan osotu zituan leen-ikasketak, Jainko-zaleak eta elizkoiak  
bait ziran bere gurasoak, ondo azi ta ezia izan zan aurtzaroan;  
gero, aurretik be ainbat karmeldar mixiolari ta Jainkoaren ots-  
egille zirala or-emen Mañari'ko semeak, eta Lon'ek be, gaztetxo  
zala, orrean aztarnaz ibilteko gogoa erakutsi eban.

Guraso ta anai-arreba maiteai lez Mañari bere jaioterri sotillari  
be agur esanik, Latra'ra, karmeldarren ikastetxera jo eban amesez  
gaiñezka. Emen asi eban eliz karrera; ementxe artu eban karmel-  
dar jantzia 1932'an, Karmen bezperan, urrengo urtean uztaillaren  
18'an profesia egiñik. Ondoren Markina'n urte bete, Iruña'n lenen-  
go Filosofi urtea ta Gasteiz'en bigarrena; 1936'go maiatzean ikas-  
le mordo bat India'ra, bertan doa Lon Arteaga be. An India'n,  
Alwaye'ko ikastetxean egiten ditu irugarren Filosofi urtea ta lau  
Teologi urteak, 1936'tik 1941'ra.

Eliz-karrera osotu ondoren, 1941-1-1'an artu eban Alwaye'ko  
Seminar:ioan bertan Filosofia erakusteko agiria. Sei urte egin zi-  
tuan lanbide ontan; 1948'an, ba, udan, osasunez ez ebillela-ta ain  
ondo, bere artiratu zan, eta gero eragozpen asko jarri eutsoezan  
barriro Indi'ra biurtzeko. Urte orretako udazkenean Zornotza'ko  
karmeldar Ikastetxeko irakasle izendatu eben, latin, ingles eta abar  
erakutsirik. Gero Gasteiz'en, Altzo'n eta Eibar'en egon zan, eta  
azkenez ementxe Larrea'n bizi izan zan, ni nagusi ta bera men-  
peko, ni «Milla euskal olerki eder» liburuari azken orrazketak egi-  
ten nengoala. Euskaltzalea zan oso, eta olerkari; niri be, beraz,  
lan gotor ori osotzen lagundu eustan zerbait, kopiak ateraten  
batez be.

Probintziko Batzar nagusiak; 1954'an, ni Eibar'erako ta Aita  
Lontzo Peru'rako izentatu ginduzan. Ni Eibar'en iru urte beterik,  
Larra'ra ekarri ninduen barriro; eta emen jarraitzen dot gaur be;

Aita Lontzo'k amar urte erre zituan Peru'n, Txokope'ko Gurutzeko Jon Deunaren Ikastetxeko zuzendari ta irakasle zala: lan ikaragarria egin eban Ikastetxe onetan, barruko ardurez gaitiera erlijinoa, Inglesa ta Logika-Etika erakutsirik.

1964'an Zornotza'ko karmeldar Ikastetxean daukagu irakasle lenengo ta gero iru urtean bertako nagusi. Ondoren Markina'ra do, eta ementxe, euskal arloan urte-mordoa egini, 1980-1-23'an il zan, goizeko iruretan. Urrengo egunean egin ziran aren illetak: Probintziko nagusiak, Felix Malaxetxebarria'k, berrogei bat karmeldar mezakok lagunduta, abestu eban illen mezea. Gure anai langille zintzoak merezi eban ainiako meza ederra.

Argia zan Aita Lon Arteaga. Eta borondate aundikoa; olantxe agertu zan beti bai India'ko Alwaye Seminarioan, bai Peru'n eta bai. Probintziko komentuetan euki zituan karguetan. Zentzunez eta lojikaz jokutzen eban nun-nai ta beti; eta besteak be, bere ingurukoek be, jokabide ortatik ibiltea nai izaten eban.

India'n egoala ondo ikasi eban inglesa; baita literatura arloan be. Txokope'n batez be, gogoz artu eban ikasketa ori, ta Irakasle titulua atera eban, ainbat azterketa ez ain errezak garaiturik, Cambridge Ikasgu Nagusitik.

Baiña munduan zear, aize-egoz dabillen osto antzera, joan-etorri asko egia izan arren, Aita Lon beti agertu jakun euskaldun jator. Alderdi auxe zan berak maiteen ebana. Mañari'n jaiok zer geiago maite? Erri orren eta bertako atxeen indarra tinko josirik eroian nainora joiala, barru-barruko muiñean. Maite eban euskal erria, maite eban euskera. «Bai atzerrian, bai Euskalerrian, agirian eukan Lon'ek, bere euskal nortasuna».

Zelan erakusten ete da euskal nortasuna? Nik —eta Aita Lon'ek— an naiz eman bizi, beti euki ditut neugaz euskerazko liburuak, neure aita zanak erakutsi eustanez. Neure pozetan eta atsekaberan eder izan jat orreitatik zerbait irakurtea, Zergaitik? Jakin ez. Baiña olantxe da. Onela etxean ikasia ez da aaztuten; itz-egiteko ta idazteko erreztasun geiago lortu oi da. Aita Lon India'n bizi izan zan amar urtez; erbestean, irakasten bereak etziran izkuntzetan ain zuzen. Eta alan be ez jakon euskerea ondatu, bizi bizi eroian beragaz, mintzoz eta biotzez. India itxi ebanean, an Alwaye'ko seminarioko bere gelan agertzea dira, beste latin, er-

deraz, inglesez ta ango izkuntz-liburuen artean, euskerazko onetik be: Jautarkol, Txom n Agirre, Azkue, Eguzkitza, Olabide, Arrese-Beitia, Barrenoso ta abarren euskerazko idaztiak. Eta onain artean baita «Eusko Olerkiak» lau aleak be.

Amaiera lez, bego emen Aita Nagusiak aren illetetan sana: «Meza Aukaristi au izan daitela gure Lonentzat omenaldia, otoitza ta agurra. Berau izan dogu fededun kristau osoa, karmeldar praille mixiolaria, euskaldun zintzoa ta idazlari bikaiña».

Benetako olerkaria genduan Aita Lon. Al eban guztietan ondo oi euskun koplaren bat. Berberak gertatu eban txorta bat il aurretxoan, «Bizitza-tantaxkak» izena ipiñi eutsen beroni. 24 bat dira guztiz. Interesgarriagoak egiteko edo, noiz eta nun idatziak diran be, ba-diñosku.

Oneik dira: 1) *Josutxo loratan* (Markina, 1933); 2) *Utsalkeria* (Iruña, 1934); 3) *Izontzitxo* (Iruña, 1934); 4) *Zeruko Amari* (Gasteiz, 1935); 5) *Maitasun barria* (Alwaye, India, 1939); 6) *Biotz-lilia* (Alwaye, India, 1945); 7) *Nire arreba ta illobak argazkian* (Alwaye, India, 1947-7-2); 8) *Aurtzako basetxeari* (Mañaria, 1948); 9) *Negutxo'ren lilia* (Zornotza, 1949); 10) *Amari, bere egunean* (Altzo, 1952); 11) *Egia ete da?* (Larrea, 1953); 12) *Aita Santi Onaindiari'ri* (Larrea, 1954-3-25); 13) *Belen eta Sagarikuitxa* (Arequipa, 1955-1-6); 14) *Eun mutiko* (Chocope, 1958); 15) *Urkiola* (Markina, 1973); 16) *Jaunaren lekuko* (Markina, 1973); 17) *Zure erraetan* (Markina, 1975-2-14); 18) *Gabon* (1977); 19) *Felix Ansola* (Markina, 1978); 20) *Te lucis ante terminum* (itzulpena); 21) *Christe, qui, splendor et diez* (itzulpena); 22) *Jesus, Redemptor saeculi* (itzulpena); 23) *Il-oge ondoan* (Thomas Hood'ena), eta 24) *Meza Deuna erriarentzat* (12 zatitan).

Gizonak ba-dau beste indar askoren artean indar berezi bat, arte-indarra, ekiñaren ekiñez indarragotu geinke; baita barriak sortu be. Egiatzko kreatzaille izan daiteke gizona. Edozenbat gauza daukaguz geure barruan eta inguruan. Begi-luze ta zorrotz izanik, landakoak eta geure barne zelaikoak jaso geinkez.

Gogora daigun I. Strawinsky'k diñoskun au: «Abere batek lurra azterkatu oi dau, zer-edo-zeren billa; bardin dagi artista batek be, atsegin baten billa dabil. Aztertu barik ez da aurkitzen.



Maitatzeko ez da indarrrik egiten; baiña maitatzeak ezagugera dau eskatzen, eta ezagutzeko nekatu, aztertu egin bear».

Esan onek badau bere mamia, Aita Lon, esan dot, India'n ibilli zan mixiolari. Emen beronen olerki bat bakarrik aztertzeko, amabi urte ondoren etxeratu zanean, eder be eder begipe jarri jakon bere sorterrria, bere auzunea, bere gurasoen etxea. Barru guztia dardaratu jakon, olerki sentikor, bikain, ederto landua osoturik. «Aurtzako basetxeari» deritxona dozu. 18 estrofa daukaz, 6/6 egiña.

Amabi urte urrun egiñik etxeratzeak edozeini diñotsa zerbait, baiña edozeiñek ez daki barne-sentipenak bertsoz adierazten. Aita Lon'ek, onela kantatzen leenengo aapaldian:

Amaika semeren kabi zar beroa,  
asaben asabak maitasun-izerdiz,  
eusko odil, atx eta aretxez jaso!  
Gorria teillatuz, zuria bekokiz.

Urrin ibilli da, Jaunaren mastian langille. Beretzat dau, ba, leenengo agurra. Agur bero samurra! Aul dator gorputzez, baiña bera ikustean, eguztiak jorik lilia, lez, marduldu egiten da bera be. Aurtzaroko basetxe!, edertzat eban urrin egonik; baiña —begion lillura! — amesez baiño milla bider zara ederrago!

Zeugan txastau neban aurtzaro sorgiña,  
barrez ta josalez, borborka euskeraz...  
—Oi, irudi-txori au giltzatu eziña! —  
Leenera doakit biotz-ego ikaraz.

Bertatik datorkio irudi illun bat barruko poza lausotzera: bera urrin zala, triskaniza gogorra izan zan emen. Egalari baltzak igaro ziran emendik. Bildurgarri ta arro, txistuz eta otruz, sua ta etio ereiñik amorruez; gaillur ta zelai odolez gorritzuta zifian. Olerkariak saminki:

Gaztedirik gabe Aberri gaixoa...  
eta aretxik gabe mendi kiskalduak...  
ta odolik gabe Euskera gozoa...  
umezurtz iduri...! Betiko galduak!

Sartu da basetxe barrenera, txapela eskuan. Jauretxe bat dirudi, eliza bat. Lotsa ta begirunea, beraz! Biotz-ezpanetan euskeraz otoitz.

Guraso urtetsuak oraindiño bertan,  
lantsu ta otoitsu; bular makurtuak  
lurrerantz begira biotzak goietan.  
Bizitz-illuntzean ar begiz Goikuak!

Anai-arrebak agurtzen dira maitekor. Eta zalapartaz jator-kozan illobak. Sukalde maiteko laratza be bai agurtzen dau. Onek diñotsa: «Agertu az noizbait, agertu az, mutil?». Etxeko ta inguru poz-bitsetan dagoz guztiak... Amazazpigarren estrofak onela diño:

Aurtzaro-basetxe, euskaldun basetxe!  
Zelan zara ederra! Zein zaran gozoa!  
Aberri-gaztelu, Aberri-jauretze,  
zein zaran sendoa! Zein benetakoa!

Onakoxe olerkaria dogu Lon Arteaga, Mañari'ko seme leiala, urrin-bearrez ara-ona ibillita be, bere erria ta bere izkuntza benetan maite izan eta zaindu zituna.

### JAIME KEREXETA (1918 - .....)

Gaur orozgaiñ ez da etrez epai arteza, barne-lera bagea, olerkari batez emotea; kidejakunean goregi jarten dogu eta begiko ez jakunean, azpiko trokaraiño isuri. Ez dakigu neurrizko izaten, bako-txari berea emonez. Ezdakigu egiatzko kritikalarri izaten, landak lorrintzen aldia xautzen baiño.

Zenbaitek goratu izan dabe Keraxeta'ren olerkia, Andima'k, Mitxelena'k, Aurre-Apraiz'ek, nik... Ajangiz'ko olerkari sutuak onela: «Lauaxeta naigabetuari zoritxar gorrienak esku samurreta-rik ankerkiro bere lirea urratu eutsen ezkeru, gure artean ez dogu izan au, elorriotar au, beziñ olerkari jatorrik. Onen olerki bakoi-

tza irakurri-ala egaz egiten dau gogoak ludiz bestaldeko zelai ezaun-geetara ta kaden arrotz batek laztantzen dau leunkiro biotza».

Bizi-tokiak asko esan gura dau, nik uste, olerkigintzarako. Elo-rrio, berebiziko lekua, Anboto, Udaltz, Intxorta ta abar, babesle ditula, olerkitsu da benetan, gizo-adimenari ta biotzari dardar eragiten dautsona. Solo, landa ta mendixkaz eder, baserriak or-emen zuri-gorri; zugazti ta auzunak biotz btegarri; aundikien egoitza bikaiñez aberats uria. Toki aparta poesirako.

Ementxe jaio zan J. Kerexeta, 1918'ko garillaren 31'an, Iñaki Deunaren Egunean. Goi-zantzoak dei egiñik, Arratiko Gaztelu-Elexabeitia'ko Apaizgaitegi Txikian asi zan ikasten eleiz-karrera egiteko. Gerra amaitu zanean, 1939'an, Komillas'era jo eban ikas-teak jarraitzeko. Burgos'en «Schola Cantorum» zuzendu eban. Se-villa'n be organu-jotzaille izanik.

Pontevedra probintz'ko Tuy'ra aldatu ta an katedralean lan egiñik, organista ta Semnarioko musika erakusle izan zan 1945'-garrenean; bertan amaitu eban eleiz-karrerea eta bertan katedra-leko organistatza egin euskun 1947'tik 1952'era. Era berean, eta urte oneitan. Tuy'ko eleiz-barrutiko idazkari ta artxibu jagole izan zan.

Andik Euskalerrira etorri ta Urkiola'n daukagu organu-jotzaille 1952-1956 bitartean. Ondoren Elorrio'ko San Agustin eleizan ari-ma-zain 1956-1960. Eta 1960'tik 1961'ra Iurreta'ko eleizan la-guntzaille, eta arrezkero Elorrio'ko parrokiari dago arima-zaintza.

Euskal arloari emona bizi da oso-osoan, Euskaltzaiña. Asko be asko idatzi dau euskeraz. Goikoak alan be ozt-oztan artzen dabe aintzat, min gaiztoak diñoenez bizkaieraz eta atxe barik idazten daualako; au pekatu larria bai dozu, ta olako pekaririk ez da aintzagarri goitarrentzat.

Aldizkari oneitan datoz bere lanak: «Euzko-Gogoa», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Egan», «Anaitasuna», «Oleriti», «Agur», BAP, Buenos Aires'ko «Boletín... de Estudios Vascos»...

Aspertu barik idatzi dau euskeraz eta erderaz. Ona euskeraz-koak: «Orbelak» (1958), «Bitargi» (1960), «Jesukristo gure Jau-naren Barri ona» (1960-61), «Apostoluen Egiñak» (1961), «Didaje eta Apostoluen Siniskitza» (1965), «Apostoluen Egiñak eta Idaz-

kiak» (1965), «Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak» (1966), «Argi-bide txikia» (1965), «Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona», gipuz-keraz (1965), «Jesukristo'ren Barri Ona» (1966), «Itun Berria», gipuzkeraz (1967), «Salmutegia» (1967), «Salmudia», gipuzkeraz (1968), «Um:en Biblia», gipuzkeraz (1969), «Gure Salbaziño Egin-tza» (1972), «Alkartasun Barria» (1972), «Jesukristo'ren Barri Ona», euskeraz ta erderaz (1972), «Ebanjelio Alkartuak» (1973), «Kristau-Ikasbidea» (1974), «Eliz-guraso Apostolikuak» (1975), «Euskal-Biblia», bizkaieraz (1976), «Iparagirre'ren Bizitza ta la-nak», itzulpena (1976), eta abar.

Erderaz: «Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco», zazpi ale (1970) eta «Casas solares de Elorrio» (1987), eta abar.

*Olerkari.*—Nik sarri esana: Euskal idazleetan gitxi dira bein-goren baten poesi-lanak osotu ez dituenak. Kerexeta'k lan txiki batzuk ez-eze, iru liburu be, olerki bikaiñez beteak, argitaratu da-bezana dogu. Barrua nasaitzeko lez egin oi dira sarri lan pitifioik.

Kerexeta'ren olerkietan olako zerbait dagola, diño. Egia eta da? Beronen bertso-lanak oso dituzu laburrak, esanguraz beteak asko. «Olerkari uts dogu Kerexeta —diño Aurre-Appraiz'ek—. Olerkari... Irakurri baiño ez bait dago «Ego-aize». Gure basoetako olerkiaren kaden gozatsu guztia bildu bait dau, samurkiro ta labur, olerkitxu dotore ontan». Begoz emen lau estrofa sail ortik eratsiak.

Udagoiez. Ego-aizea

dogu aizeetan jabe:

giro epelez, berantz datoz

orbelak ardura gabe.

Urrez iratzak Ego-aizez;

ez da faltauko naparra;

ogiaren eske aausika

egun-erdian txakurra.

Argiaren begian doaz

gure mutillak txistuka;

idien adoregarritzat

burdi utsaren kirrinka.

Egoiak dauan euri-miñaz

laiñoa dator gabeen:

agur dagiskun arratsean

illun-aldean euria.

K. Mitxelena'k be goraldu eban bein, «Egan» aldizkarian, Ke-terexeta'ren olerkia. «Itxura apain baiño apaiñagoan dator —di-ño—. Era ikasian eta jakintsura, erri-poesiaren bideetara jo du itxuraz Kerexeta-k eta zentzuen bitartez a'zematzen duena da no-lazpait ere biotzeko izkutuen argibide eta ezaugarri. Elkaren on-

doan datoz irudi biziak, esaldi laburretan, ur-egiko lizar naiz makal lerdenen andanak bezala». Ona «Gabeko bederatzietan» deritxona, olako zerbait txastatu daizun.

Nire etxeko leioan,  
gabeko isilletan,  
aize bigun artean,  
biotza amesetan!

Ezer ez da entzuten!  
bildotsen be erlatza  
da bakarrik gabeko  
eresi-lorratza.

Ozkarbian izarrak,  
mendi-goian zugatzak.

Illargi betearen  
zidarrez ditziz  
aitz-gaiñak zuriz dagoz,  
oro jantzi zuriz.

Laiño meea menditik  
goi-gorantz igo da:  
mozoloa torretik  
mendirantz joan da.

Ez dot bear lagunik  
gogartzeko bakarrik.

Bakardiak artu nau  
altzoan isilka,  
eta isillak gorde nau  
ostuka-ostuka.

Lan txiki arriñak ditu atsegin Kerexeta'k, eta onexek dira ain zuzen be; zerbait ba'diñoskue, pozetan irakurten doguzanak. Biztu daiala zerbait gure biotz muñean, eta gure olerkariarenak gozotasun berezia izten dauskue.

Zortziko txikian (7/6) dagoz geien-geienak. Errez abestuteko moduan «Poesi jatorra, gaurkoa, barrukoia, Bere-berea, lirika-saillekoa; bizitasunez, irudiz eta biotz-zirra leunez gantzutua; arin, zuri ta argi diñosku esan nai dauskuna» idatzi neban orain urte batzuk dirala.

## INAKI GOIKOETXEA URIARTE

(1920 - .....)

Bere gurasoak Eleuterio, iñoiz erriko alkate izana, ta Gillermo dira. Arratia'ko aranean, Zeanuri'n jaio zan Aita Iñaki Goikoetxea, 1920-3-24'an, Txikitán erderaz ikastera erriko eskolara joan zan, eta amar urte ebazala, Durango'ko Josulagunen Ikastetxera eroan eben ikasketak atera. Erdeta gitxi jakiñik, «naikoa negar egin

neban —diñosku berak—; ainbeste mutikoren artean nire burua bakarrik aurkituta». Durango'n urte bi egin ondoren, Nafarroako Sangotza'n Josulagunak an eregi eben Ikastetxean bizi izan zan, 16 urte ebazala gudua sortu zan arte.

Amazortzi urtekin Jesus'en Lagundian izena emon eban Loiola'ko Santutegian. Emen «humanidadeak» ikastea ezagutu eban Homero, olerkari gorena, «nire betiko maisurik maitagarriena», diño berak. Oña'n, 1945-47, filosofia ikasten eban bitartean egin ebazan bere lenengo euskal bertsoak. 1947'garren urtean, Venezuelara bidean, bertso asko ondu zituan, itxasoko egun baketsuak onartuz. 1950'garrenean, barriz Oña'ra Teologia ikastera. Euskal arloan, garai atan ezagutu eban J. B. Elizanburu, beretzat euskal olerkariak kutunena; gero, Orixe'ren «Euskaldunak» izan zan ikasle arein euskal arloko «eskola liburu bakarra».

Meza barria 1953'an emonda, urte bete Valenzia'ko Gandia'n, urte bi Valladolid'en, 6 Durango'n, eta beste urte bete Donostia'ko kaian eleiz-lanetan ebazan. Andik, 1963'an, Loiola'ra etorri zan eta ementxe dago gaur be, inguruko errietan abade lanetan jardunik.

Euskereari ekin izan dautso beti; ikastolak, diktadura aldian, ixilpean bizi ziranean, eskola liburu batzuk argitaratu ebazan euskal umeentzat: «Giza Soñña», «Euskalerriko Geografia». «Ikasteko», eta abar, idatzi atsegiñak eta dotore egiñak. Gaur «Zer» aldizkarian idazten dau batez be, ipuiñak, artikulua eta olerkiak. «Garate Dohatsua» ta «Loiolako Iñigo Deuna» dira Goikoetxea'ren azken idaztiak.

Ona zelako olerkaria dan jakin daizun, 12 estrofako «Artzain Zarra» deritxonaren iru aapaldi:

Uri usteletik urrun,  
eguzki-trumoen kagun,  
gaillurretako Basajaun,  
an bizi naz ni bake ederrean;  
mundu zorotik aparte,  
aizearen legez libre,  
neure buruaren jabe,  
Mendietako Errege.

Gosaldu ondoren arin,  
eguzki naiz euri bardin,  
larrara noa ardiekin,  
Aldapa gora txistuka noa;  
txakurra dator ausika,  
ardiak samur beeka,  
oiartzunak errepika,  
Au, bai zeruko musika!

Artalde zabala daukat:  
arditan irureunen bat,  
ta axuriak beste ainbat,  
Txori guztiak lagunak dodaz,  
ez daukat areriorik,  
ezta iñorekin zorrik,  
ezta kontzientzi kezkarik...  
Ba da zorion obarik?

Onelaxe, bipilki, beste bederatzia ere.

### FEDERIKO KARLOS KRUTWIG (1921 - .....)

Getxo'n jaioa 1921-2-15'an. Leen-ikasketak bere errian osatu ondoren Bilbon ikasi eban salerosketa gaia. Sorbona'n eta Bon'en, barriz sortaldeko izkuntzak. Gerra zibil ostean Azkue jaunaren lagun, eta euskera ikasi ebalako, euskaltzain egin ebalarik, gaur euskaltzain osoa da.

Euskeraz eta erderaz idazten dau. Erderaz «Vasconia» (1962), «La cuestión vasca» (1966) eta abar. «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Gernika»-n, «Branka»-n eta abar idatzi dausku. Baita Mao-Tse-Tung-en «Praktikaz», «Liburuxka gorria», eta «Liberalkeriari aitzi» euskeraldu be.

Olerkari bezela, naiz-ta gitxi, «Gernika»-n datoz bere batzuk: Goethe'ren «Haltzen Errege *Erkönig*, 15'garren zenbakian; Herderlin'en *Schicksalslied*, eta «Zer naiz?», 16'garren zenbakian, eta

«Deo Ignoto», 17'garren zenbakian, beste lau itz-lauzko artikulukin. «Milla euskal Olerki eder» daukazu *Bijotza* eta izango ditu beste batzuk. Nik ez dot onen beste itz-neurturik ezagutzen, alan eta guzti be euskal anto'ojietan eta egunkarietan poeta lez agertzen jaku, irureun poesirik gora ondu dabezanak baiño mailla batzuk gorago. Irakur bi oneik:

### ZER NAIZ?

Zeru izartsuari so ein ondoren  
Goizeko izarra nik dakhustanean,  
Jaiotzen zait galde haur bihotzean:  
Zer zara zu, ene gogoa, hemen?

Zergaitik jaio ta zergatik bizi  
Bilhatzen dut eta ezin atzeman.  
Ai nenki nork erran ahal derautan,  
Nork diezaketan haur n'ri iharditsi.

Gogo ori, zergatik egin zara?  
Haur nehoiz bururatu eztuzua?  
Nora-nai joan, gora naiz behera,

Bethi ikhusiko dugu begi itsuez  
Gezurra bai-ta gure Asturua  
Kosmos bai-takhusagu estalduez.

### DEO IGNOTO

Zu zara gizonentzat ez jakina,  
Bilhatzen ba-tzaitute leklkoretan.  
Bainan bide har bethi da ezina,  
Zuk Dena bai-tuzu gure barnetan.

Barnean daukatenak zure mina  
Ba dagoz Zu zaren Eg'atan  
Zugandiko txinparta munduetan  
Gutzat bai-ta Zuk emandako zina.

Zu zara Dena, oro bai-taukazu.

Eztuzu ezer ere egiten neron,

Maye'zar ere ezpai liteke egon,

Izateak Zugandaramizkizu;

Zu zara gure Zoti-ta Siratsak,

Gu gara Zure janzkiaren litsak.

## BERRIOTXOA ANAIA

(1922 - 1983)

Lengoan, bagillaren 2'an, gabeko amarrak bost gitxiago, deia urrutizkiñez: «Izpar txar bat zuretzat: Berriotxo Anaia il zaigu. Biar illetak, arratsaldeko bostak eta erdietan; etorri nai dezu itzaldia egitera?». Eta nik bat-batez: «Bai orixe!».

Barrua mindu eustan adiskidearen eriotza jakiteak. Aspalditik genduan alkar ezagun eta maite. Txera biozkorra egiten geuntson batak besteari. Ni baiño ohea zan bera; ama il jakonean be. Izurtzarrak eroan ninduan meza emon eta itzaldia egitera; Oleri-egunez sarri eldu oi zan Larrara, eta igaz San Juan inguruan Gogortetxe onetan igaro zituan egun batzuk, ia aste osoa; eta San Juanez Ofrendo'ko baselizara igon zan meza entzutera; eta azkenez, ango jenteari onela esan eutson: «Datorren urterarte». Atsegin eban Larra aldea ta askotan margoztu zituan emen inguruko bazterrak.

Irun'en il zan B. Berriotxo Anaia eta illetak be antxe ospatu ziran. Bagillaren 4'ko DEIA'k onela iñoan: «Bere Anaidiko lagunak, zenbait senide, ikasle askotxo eta euskaltzale mordoxka bat inguruan zituela, atzo arratsaldeko 5,30'etan ospatu ziren Irun-go'go La Salle-enean Nikolas Altzola Geredaga, Anai Berriotxoaren zenaren hileta-elizkizunak. Anai Berriotxoaren herenegun hil zen Irungo lasailletarren komentuan, 59 urte zituelan».

Illeta-elizkizun ederra benetan. Eta beste batzuk be, irudimeari askatasuna emonik, ikasi dagien gauzak zelan barritasunez jantzi, emen doa an egin zanare pitin bat: Gorpua il aretorik elizara kantuz eroanda gero, danok altara nagusian eta jarlekuetan zanaren aurrez-

aurre gengozala, Berriotxoaren anai nor zan iragarri zan lenengo; gero, aren bateoa gogoratuz, zapi zuri bat jarri zan ataute gainean; ondoren, aren loba batek Pazko-zuzia biztu eban; gero besteok etorri ziran, Bibliá ataute gainean ipiñi, irakasle zintzo ta kristau izan zalako, Anaidiko araudi edo erregela, bizitza osoan zintzo bete ebalako, eta azkenean areitz-adar bat, euskal erria maitatuz beratu ta bertoko gauzak goraltzen bizitzea igaro ebalako.

Mezea euskeraz izan zan oso-osorik, altarakoak eta erriak itzal aundiz abestua. Altaran erdiko Bilbo'ko Gotzaintegiko Bikario nagusi dan Karmelo Etxenagusia izan zan Aita Onaindia, Lino Akesolo, Aita Julian betarrandarra ta Aita Iguñiz kaputxiñoa albo bietan ebazala. Euskaltzaleen artean batez be, lagun asko zituan or-emen gure Anai onak, eta emengo lau probintzietatik eta mugaz bestaldetik be bai, laguntalde ederra alkatu giñan adiskide leialari azken agurra egiten eta geuk alkarri, izten euskun utsunea zala-ta, atsekabe ta dolumiñean laguntzen.

Durango'tik bertan dagoan Izurtza erritxoan jaio zan Berriotxoaren anaia 1922'ko abenduaren 30'an. Jit eta jasez bear bada, kutun eban berariz bere lurra, sendia, Izurtza eta bertoko gauzak jaso ta zabaltzen etzan gitxi saiatu. Eta beti be bakotzak bereari ekitea oso txalogarri dauanik ezin daikegu ukau.

Txikitatik etorren ikasle ta langille. Baita ertillari be. Lenengo ikasi-masiak jaioterrian bertan burutu ostean, Bilbo'n ikasi eban komertzio-karrera. Bere etxe inguruko edertasunak be laster arrotu eutsoen barruan eder-irrits bizia; eta ikasle gaztetxo zala, asi zan pinturaren ezkutuak ikasten be. Ederrak, bai izadikoak eta bai norberak sortuak, lilluratua ekarren eta bizitzaldi osoan marrazki-pintura ta euskal literatura ekin eutson; azken urteotan batez be, poesi bikaiñak ere borobilduz.

Lasailletar egiñik irakasletza izan zan aren arlotik beñena. La Salle-enean erakutsi egin eban, bardin San Martzial Ikastetxean. Urte mordoan emon eban orretan, beti zoli, zintzo, apal, maitekor: orixegaitik, jakiña, ikasleak maite-maite eben. Zintzotasunez, izan be, errez irabazten ebazan inguruko biotzak. Ona zan, Jainko-zalea zan, eta tasun biok eder ditugu noski gazteen azkuntza ta eziketarako; beingoan jausten dira —baita gaur be—, euliak ezti-txarroan legez, gazteen biotzak maisuaren sareetan. Zer diñodan

dakidala diñot au, azken garaian gazten irakasle luze samar izana naz-eta.

Bere bizitzako egunik geienak Irun'en egiña izan arren, Bilbo'n egotaldi batzuk, beti irakasten. Azkenean, iru bat urte dirala, biotzetik gaixo samar ebillelako, Irun'era bialdu eben nagusiak, ots, il jakun La Saille-enera, emengo euskal liburutegiaren arduradun. Eder eban arlo onetan ziarduela izan dau Jaunaren deia. Izatez eta ekifnez ona bait zan, Jaunak onezkero betiko argiaren argi dizditsuz sariztu dautsoz lur-gain onetan goiko leiaren onez artu ta eroan zituan neke guztien lan-ixuriak.

Asko idatzia dogu Izurtzar jakintsua. Lan txalogarra osotu eban euskal letretan, bai itz lauz eta bai itz neurtuz. Apala izan arren, bide ertzeko bioltxo lez nabarmendu jakun ainbat sailletan, baiña batez be euskereak ditun pitxiak jasoten: lan txikiak eder ebazan. Lau ta berezkoa zan bere idazkera, zabarra ez baiña geiegi landu bagea: mendi-egalean gorderik dagon iturriaren ur-aria duri. «Bere aldetik doa —diño K. Mitxelena'k—, gure literaturaren onean, ez ifioren gidari izateko asmotan, ez ifioren mutil».

Asko idatzi ebalá esan dot, eta orretan nago. Irun'en Emilio Navas'ek zuzentzen eban «El Bidasoa»-n argitara ebazan lenengo bere lanak, ugari idatzi be. Gero euskeraz ain zuzen, La Saille-enean ateratzen zan «Nora» aldizkariaren bultzatzaille errime izan zan. 1963'tik aurrera «Egan»-en idatzi eban; eta «Zeruko Argia»-n, eta «Karmel»-en eta «Olerti»-n; «Arantzazu»-n, «Herria»-n eta abarren, euskeraz. Eta erderaz, BAP-en, «Vida Vasca»-n, eta abar. Aren lanik ederrena aldizkarietan sakabanaturik dago. Eta beti, esan dogu, saio laburrak dira aren artikulak, kontakizunak, izkirimiriak, olerk'txoak, arte-izparrarak.

Orrez gaiñera, ba-ditu iru liburu be; bat erderaz, *Cien autores vascos* (Donostia, 1966) —eztau nire izen'k aitatzen, ak iru biber eskatu arren, oso lanpetua nenbilletako, ez bait neutson ezer bialdu—; eta bi euskeraz, *Atalak* (Zarautz, 1967) eta «Bigarren Atalak» (Zarautz, 1972). Liburu biok txit atsegingarriak dira euskal arrobian lan dagigunontza, gauza ain jakingarriak datoz arotan. Guztiz gozo esanda gaiñera, edozeifiek ulertu ta ausnartzeko moduan, jak'ña. Irakurterakoan, idazkortza eroian beti atz-artean

eta ortan aurkitzen eban bitxia, euskal literaturarean onerako bazean batez be, jaso egin oi eban eta artikulutxo bat osotu.

Bere lanak eta liburuak izenpetzean ainbat izen-orde erabilli euskuzan: «Bitaño», «Markue», N. de Gortazar», «Ozerin-Jauregi», «Dolometa», «Oxinondoko Txoria», «Bidaurreta», «Altzar-te», «N. A. G.», «H. V. B.», «Unai Anai» eta besteak.

Osotuz joian lanak saritu nairik edo, Euskaltzain urgazle izentatu eben 1957'garren urtean.

Ederraren galtzarrera jo eban bizitzaldi osoan, gaztetatik nunbait. Emen, pintura soloko lanai ikuturik egiteke, olerki edo poesi barrutian egiñak aitatuko ditugu. Ba ekian mundi bi daukaguzana ingurumari, kanpokoa eta barrukoa; bai begiratzen eutsen, txeratsu ta arretaz begiratu be. Kanpokoa jaso, izadiak upelka damoskuna, edertasunez gaiñezko bait daukagu; eta barruan be, arima almenak raasi ta irabiatuz, ederfrutuak agertazo. Orixe ba bai ertilararen, artista danaren lana. Eta Bitaño artista zanik ezin ukatu.

Artista ba era askorata agertu leiteke artista, eder-zale. Baiña olerkia, poesia lantzean edertoen. Pintura artea da, musika artea da; Zubiaurre anaiak, gara'tarrak, margolari artistak ziran; K. Arriaga artista zan, musikalaria. Arte batzuk ibillian egiten diranak dituzu, arte dinamikoak d'ra, baiña irauten ez dabenak; beste batzuk plastikoak, margo-arte, etxegintza, taillu edo irudigintza adibidez, eta one'k eginda gero be irauten dabe. Olerk'a, antzerkia, dantza ta musika, arte-lan dinamikoak dira.

Itzaren bidez adierazten dan arta dogu bikaiñena, gizasemeak bere barn-zirrada sotillenak orrelaxe azaltzen ditu-ta. Berriotxoa ana'ak be modu orretan erakutsi euskun bere barru apal, eder, esan-naiez betea. Ez dakigu noiz asi zan olerki-lanak egiten, baiña «Egan»-en eta «Olerti»-n be'ntzat eurrez agertzen dira aren olerkiak. Barri-xale agiri da gaiñera, mamifnez eta azalez. Etzan edozetrez naikotzen zana. Ez dogu, bear bada, goraldi aundikoa, onetan be apala jakun-eta. Baiña be-dabe aren neurtitzak, olerkari garaian lanak daben ezkutu kutsuzko arnasa-giro zpartekoa.

«Kantuz eta Itxaropenez» t'ulupean argitaratu zituen bere bertsorik geienak. Ona ba: 1967'ko «Olerti»-n datorrena: Ez cu-

kan arek dirurik / ezta eukiteko / itxaropenik bere, / alan da  
 guzti be / ez jakon aztu / aurreatzen / joaten; / urrengo egun-  
 sentiaren / argiagaz / beti sifisten eban / bezperako / illuntzie-  
 tan, / betikotasunezko / goi-maitasunaren / susmoa / aurkitzeko  
 / itxaropena / ekarten / eutsaleko. / Arrigarrizko / egoi-maita-  
 sunaren / susmoa / aurkitzeko / itxaropena / ekarten / eutsala-  
 ko. / Arrigarrizko / egunsenti / azken bakoan / sifisten / jakin  
 eban / arek, / eta azkeneraifio eruan eban / irribarre / atsegin /  
 bategaz / bere bizitzako / kurutze astuna».

Onakoxeak dira aren olerki arin mazalak.

### MAITENA BELAUSTEGIGOITIA (1923-.....)

Aita Laudiotarra izanik be, onen seme-alabak —zortziraifio—  
 Durango'n jaio ziran, eta Maitena, zortzigarrena, 1923'an. Iru  
 umetan il ziran; Alabetatik bat, Lurdes, moja sartu zan Nevers'ko  
 Karidadeko Aiztatera ta 1936'an il zan. Eta zazpigarrena, Itziar,  
 Durango'ko bombaketan il zan, 1937-3-31'an, Jesuiten eleizan, eta  
 irugarrena, Baledin, gudaldian Kirikiñio gudarostean aurkitzen zala,  
 agorrillean il zan ango bobaketa baten.

Maitena'ren gurasoak, aita, Federiko Beleustegigoitia Landa-  
 daluze ta ama Maria Ortueta ta Sagastagoia. Nundik «Maitena»  
 izana? Lurdez beronen aizta nagusiak amabi izateko ikastetxetik  
 14 urte ebazala, urten zan eta berak «Maitena» izena ipintea gura  
 izan eban, ikastetxean ezagaturiko Zuberotar batek lez.

Bere lenengo ikastaroak emengo gerra aurretik Durango'ko  
 mojakin eta gero karidadeko Kalmeldarrakin egin zituan.

1937'an, gerra zala-ta, Euzko-Jaurlaritzak jarritako ontziz San-  
 turtzi'tik Bordela'ra, eta andik, Landes, Kanbo, Angelu ta abar  
 asko ibilli ondoren, azkenez, Pabe'ko «Institution Bernadette»-n  
 ikasi eban luzaro samar. Doixtarrak Fratzia'z jabetu ziranean, aita  
 Mexiko'ra eta ama sendikoakaz Areneta'ra. Eta gero, gaur be bizi  
 diran Durango'ra.

Maitena'k izan dau astirik euskeraz ikasi ta irakurteko. Titu-  
 lauk atera ta erakutsi egin askotan. Xabier Peña'rekin ikasi eban  
 batez be. Derio'ko ikastaroeak egifiak ditu, eta Labairu'ko azter-  
 ketak; 1976'an, Deustu'ko Izkuntz-Eskolan Euskera IV Mailla ta  
 V'garrena, ta «gaitasuna» egin zituan. Euskera irakatsi dau «Ku-  
 rutziaga-Ikastolan».

Euskeraz idatzi dau gitxi-asko: «Zeruko Argia», «Goiz-Argi»,  
 «Agur», «Deia», «Zer»... Itz-lauz ez-ezik, bertsoz be bai. Ona  
 «Txapelari» denitxona, beifioia Otxandio'n saritutakoa:

Zara!  
 Lagun zintzo euskaldun zara!  
 Ezta inor gure errian  
 Zure bear ez danik,  
 Ez gazte ta ez agura,  
 Txapel zale ez danik (*bis*)  
 Mutikoen txapela  
 Ez da ustela!  
 Alkar astinduteko  
 Ta baloi ordezko!  
 Txori-kumentzako da  
 Kabia epela (*bis*).

Zara!  
 Gorri, zuri edo-eta baltza,  
 Txiki edo zabala,  
 Beti biribilla,  
 Jantziten dituanak  
 Amaitkatxo milla! (*bis*)  
 Euri ta eguzkirako  
 Zaitugu ala-alako;  
 Ganan jezarteko  
 Ta belaunderako,  
 Bear etzaranean  
 Sakelan sartzeko! (*bis*).

Zara!  
 Plazetara eroaten dana;  
 Jantzan bira-biraka  
 Jaueti egiten dana,  
 Ez da ez, gure gure jairik,  
 Zuk alaitu barik (*bis*)  
 Kaska-motza estaldu,  
 burua epeldu,  
 izkillu obarik ez  
 euliak ilteko;  
 Baita egoki guztiz  
 Txanponak biltzeko (*bis*).

Txapela!  
 Ire bizitza ez dok motela!  
 Agaitik euskaldunek  
 Artu eue eurentzat  
 Ta gura izatek joek  
 Izan txapeldunek (*bis*)  
 Bai aizala fña!  
 Barritan apaifia  
 Ta azken-egunetan  
 Deuskak guri irakasten  
 Bigunak izaten,  
 Gogor beti ekiten (*bis*).

GORA!

Eta aupa poz-pozik TXAPELA!

Gaur buruko guztien

Txapeldun daitela.

Auxe dogu eskatzen

Kendurik txapela (*bis*).

(«Zara neskatilla Euskalduna»-ren

*doiñuz abesteko*).

## BIKTORIANO GANDIAGA

(1928 - .....)

Euskalerriko bazter ezkutua, gizaldiak zear, euren frutua emon dab. Lur emokorrak alakoxe laborea ekarten. Baita Gernika'tik ur-samar, mendi-kate gainean txairo ta lirain daukagun Mendata'k be. Gaiñez, soloz ta basartez ingurutatako erri aizetse au or daukagu beti alai ta langille.

Ementxe jaió zín Gand'aga olerkar'a, Aita frantziskotarra, bere bizitza guztia Arantzazu'n daroana, 1928'ko urtillaren 8'an, Orbelaun baserrian. Ume-egunak bere errian igarorik, 1940'an Arantzazu'ra doa. Lekaide izan nai dau, Arantzazu, Foru, Zarautz ta Olite'n osotzen ditu bere eliz-ikasteak. Ondoren Kristoren zerbitzari leial izateko 1954'an Gotzaiñaren esku-ezarte ta orio-igurtziz sagaraturik, arrezkero guztian Arantzazu'n lan dagi, gazteen irakasle.

Arantzazu'ko bakartean —bakartadea ete da gaur?— bizi da mendatarra. Begiko jakoz ango mendiak eta trokak. Eder jako Urbia, ango ardi ta artzaiñakaz; Aizkorri eder jako bere arkaitz irauli zuri-urdiñakaz; eder goi ta bee, ango edur ta trumoi otsakaz. Atsegin jakoz gazteen burrikeriak eta Ama Birjiñaren elizeresi ta kantuak; atsegin jakoz inguruko artzaiñak eta baserritarak, zaar, gazte naiz umeak. Atsegin baita birako zaartxoan euskal esatera ta ipuiñak, sorgin eta lamiñem negar-erostak.

Noiz'k-bein, ezkutu aretatik urtenda, errietako apaizai lagundu dautse ar'ima zaintzen autortu ta Jainkoaren itza otsegiñez. Eta

andik atera dauan zeregiña ama'itu ostean, barrero doa bere bakar-tegira, urriñeko ibiltaldia burutu ondoren bere arkaitz-kabira biurtu oi dan arrano egalariaren pareko.

Eta betiko lanari josita, ortxe bizi da pozik, Jainkoaz eta Onek mende ipiñi dautsozan giza-sorkariakaz. Olerkari bait da, eta olerkiak, ots, mendi arteko ixiltasunak erakarri ta zorrazten. Nun gizona ondoen? Baru-deiak intziri dagitson lekuan.

Maite dau erria, euskal erria, bere sort-erria. Biotz-osiñean daroa, amak ezarria, erriareganako maite-sua. Bakar samar bizita be, mendi-zut malkartsu erdian, aspa'di dala sua ta argia ixuri oi dauz Arantzazu'tik, asti-uneetan bere erriaren aldeko olerki sotillak ondurik. Bai, itz-neurtu biziak, samurrak idazten ditu, erriareganako suak eraginda.

Onela diño berak:

«Kezkatzen bait nau  
herstutzeraino  
neure Herriaren  
zoriak.

Hautsiek ditu  
araunak eta  
arrakak ditu  
ontziak.»

Erriak ikutua dabil biotz-biotzean, eta mindua. Orrela ba'lebil euskaldun jentea osorik, ez giñake izango ain barregarri. Ez legoke, ez, gure askatasuna oren murriztua. Ezta gure euskera be, orren itxia ta marroiza!

Eta idatzi egiten dau Gandiaga'k bere erria itxartu daiten. Euskal lanak, olerkiak bialtzen ditu «Arantzazu», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Olerti» ta o'ako aldizkarietara. Sariak eskuratzen daukuz, Zarautz'en lenengoa, 1950'ko abustuaren 8'an, bere olerki *Beglon Lore* deritxonarekin. Orobat dagi, 1956'an, Arantzazu'ko konkurtsoan, *Elorriko Lorak* lanarekin; bardin, 1959'an be, bigarren saria lortzen dau Bedoña'n *Lelo Isamurrak* lanarekin. Ondoren bere poema «Elorri» argitaratzen dauku, beronegaz «Jose Antonio saria» jasorik, 1963'an. Urrengo urtean «Olerti» saria eskuratu eban.

Dagoneko lau olerki-luburu argitaratu daukuz Gandiaga'k: 1) *Elorri* (1962); 2) *Iru gizon bakarka* (1974); 3) *Uda batez Ma-*



drilen (1977), eta 4) *Denbora galdu alde* (1985). Liburu txikiak dira, Elorri'z kanpo, baiña poeta gailen bezela igartzen dabe askokok. Astitsu ta zorrotz onduak dira Gandiaga'ren lanak.

Edozek dar-dar ipinten dau olerkariaren barrua. Nun-nai daurki Gandiaga'k poesirako gai sotilla. Ona au: Urbia'ra igon da, ta beerunzkoan pagu azpian, orbelpean, uraren ots meeaz oartu da. Eta ederki asko biribiltzen ditu zortzi estrofa aurkitu dauan urzintz zarata gitxikoari eskeñiak. Ona leenengo biak:

«Menditik dator erreka, dolmenak ditun menditik; menditik behera, korrika; menditik haren uherka iturritik itsasora.	Menditik dator erreka: udan geldiro jeisten da, itzaletik itzalera, giro gozoz apalduta,
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------

Esana dot gorago: lan txikiak eder jakoz Gandiaga'ri. Baiña pentsamentuz beteak; orrela egin oi dau Parnaso'rako bidean goi-samar dabillen kop'ariak. Mendatarak ez dau itzik, ez abotsik, ez k'tarrarik. Ba'leuko be, ez daki jotzen, ez dau musikarik... Zer egingo ete? Naia bakarrik dauan arren, nai orrei lotuko...

«Hitz urri batzuk dauzkat bakarrik, ta abots kraskatu bat. Ta neure urrian, ez dut kitarrarik.	Ta kantatzekoan, abots kraskatu bat daukat ahoan. Ta, neure urrian, kantatzen ez dakit.
------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------

Ta, baneuka ere, jotzen ez bait dakit, alferriko nuke. Ta, neure urrian, ez dut musikarik.	Ta, ezer ez dakit, ta ezer ez daukat, neure herria baizik. Ta, neure urrian, ez dut neure,kausik.»
--------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Alan be abestu barik ezin etsi. Ta bere urrian, kantari diardu, naiz-ta bear bada, alperrik. Orrelaxe dogu Gandiaga, pozak, naiak, esperantzak eta etsipenak gainditua. Olerkariak kezka bat dau barruan, biotza zauritzen dautsona.

Arrasti baten, Arantzazu'tik Oñati'ra datorrela, motozerraren ots zurruna entzuten dau bide-azpian. Urrumaka diardu burdi

ñeak, kaamotzak baiño arima motzagoa dauanak; aritz-tantaiari eldu ta, erpaz ta aoz, rra-rra beera botatzen dau. Eta Euskalerria datorkio beingoan gogora olerkariari, eta idazten dausku:

«Telebista dugu motozerra, eguneroko prensa ta zinema ta radioa ere motozerra, eta, eta. Haritzak bezala euskaldunak, eta hariztiak bezala euskal herriak, motozerrak, rra, rra,	burnizko urruma urtuka dariola, Herri euskalduna ebaki darama. Baina motozerra ez da erru guztia bere gain duena.»
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Onakoxea dozu B. Gandiaga'ren olerki-lana txikia ta mamintua, irudikizun xarmantez josia. Gaurko poesiak ez ei dau bear musikarik, ez barne-igierarik, ritmurik: olakorik bakoa dala dirudi bere olerkia. Baiña azalekorik ainbeste ez ba'dau be, barnekoa bearke. Poesia ezta itza bakarrik, baita musika ta ritmu be; eta aunai ezpada gaur, beste zerbaitekin utsune ori bete bear. Bestela gaurko musika pop antzera, iskanbil utsa besterik ez jatzu izango gure euskal poesia.

## ALFONSO IRIGOIEN ETXEBARRIA

(1929 - .....)

Bilbotarra, bertan jaio bait zan 1929'ko azaroaren 14'an. Ikasketak askoren artean Filosofia eta Letrak ikasi zituan, eta Filo-fian Irakasle (Doktor) da Salamanka'tik. Bizitza osoa egin dau ondoren irakasten Deustu'n eta abar. Euskaltzaiña da, ifioiz bertoko idazkari be izanik, Euskal barrutian lan bikaiña burutu dau, itzez eta idatziz. Onen aldizkari «Euskera» beronen ardurapean ibilli da luzaro.

Idazle lez, erderaz eta euskeraz, naikoa idatzi dau «Anaitasuna», «Egan» eta «Euskera» errebistetan. Garai batean, bertsolari saioak gertatu ta zuzentzen lan txalogarria egin eban.

Olerkari zelaian be ezta jokolari txarra. Poesi liburu bi daukaz eta gai onetan sariak be jaso ditu. Azkenengo bertso liburu, «Orbel eta Orri» Euskaltzaindiaren «1980'garren urteko «Felipe Arrese Beitia» irabazi ebana dozu, urte orretan bertan Bilboko Auzkari Kutxak argitaratua.

Idazti ontan Alfonsok patua dau lema. «Munduan beti dago —diño— / zigorra, baina, merezi gabe: / harena da esklabo, / urrunera gurarik mila naigae». Eta ondoren, askatasun-zale, *ba-dator*, diñosku, «Ilun nabarra atean / gauaren beltzaz batean, / Gure gogoak izan al du / libertaterik bakean».

Berrogetabi sonetu dira guztira, artean beste txikiño batzuk ditularik 7/5 neurrian etena ta azkena, au da, amai bardiña ondo zainduz. Irudimena zifiez daldan darabil aapaldietan zear.

Ona bi, «Gau ta egun» eta «Bat hirutan banatzen baldin bada» deritxenak, zeuk be aogozatu dagizuzan.

## GAU TA EGUN

Logura naiz nekean ariturikan,  
logura naiz ekinik ekin da ekin,  
logura naiz, logura, lotara nadin  
berebiziko loa berriturikan.

Argitsu den egunak argi eta fin  
badakarte pausua gure burura,  
iratziririk butza, gure hazkura:  
hari ta mehe dena dugun geurekin.

Zeru beltzak ardura ilundu gura,  
hedaturikan loa, beti lorik lo,  
egunsentia, berriz, itsas aingura

iganikako date, gogoia salbo,  
Nekatzea berriro espero dugu,  
libertatez baitate, pinpirin txalo!

## BAT HIRUTAN BANATZEN BALDIN BADA

Euskal Herri gurea Trinitatea  
misterioz bezala: hiru pertsonak  
aurpegia desberdin, euskal gizonak.

Nafarroa gegoan gogoz betea.  
Zuberoa Lapurdik izena alfer.  
Frantziako legean ez dira ezer,  
Atlantiko aldean sendo katea.

*Pais Vasco*-Euskadi azalez eder,  
lehen hiru zirenak estatuto bat,  
badakarkigu kemen borrokarier.

Etsaiak baitu mito fetitxezko bat  
orain hirutan gaude zaspitarikan.  
Guk triangulo traketsa t'euskaldunok bat.

Ea onekin Irigoien be olerkari. Nor legoke prestatusunari ukoka?

## MARTZEL ANDRINUA (1930 - .....)

Markiña ibarrak beti be euskaltzale ta idazle jatorrak erne-azodauz gizaldietan zear. On bat dozunik ezin ukatu Aita Martzel pasiotarra be, Kristoren bertsolari ta eleiz-izlari errimea, Orduko beste gazte askok lez goi-de'ari zoli erantzunik, Gasteiz'en eta Urretxu'n osotu ebazan eleiz-karrerak eskatzen dabezan ikaskizunak.

Euskal arloan naiko lan burutua d. Ba-ditu antzerkiak: «Zoro etxeak», «Satanas Sotanas», «Au dok umorea», «Batek ba daki» ta besteak. Euskaltzain urgazle da. «Jesus'en Biotzaren Deya», «Txistulari», «Anaitasuna» eta beste aldizkari batzuetan idatzi izan dau.

Eleiz-bertsolari mamintsua. Bere olerki liburu: «Kezkaz» (1981), neure itzaurreez. Ausnar egizuz «Ikasi ondo sufritzen» deritxon ondo landutako poema onen mamiña:

Atzo, gaur eta biar, beti neke miña;  
Ume, gazte ta zarrak illeta bardina.  
Len, orain eta gero betiko dotriña;  
neke-miña geugandik aldendu ezina!

Nok ete dau errua, Jaungoikoak berak?  
Batzutan inok, eta bestetan norberak.  
Oket egin ezkeru munduko aukerak,  
ortik datoz miñezko milla gora-berak.

Asmo txarrez etorri, naizta berez sortu,  
eraz artu ezkeru onik asko lortu...  
Jaunaren «deia» dozu, ez biotzez gortu;  
olakoan, amaika oi dira bixkortu.

Dana da neke-miña... ez dago Jainkorik?  
Bai, biak ortxe dagoz alkarren ondorik.  
Obe dozu fedean iruntsi osorik:  
zelan leiteken izan nigaz olakorik.

Jaunak ez eban sortu gure neke-miña,  
Jesus'ek lez onartzen egin alegiña.  
Izan gura ba'dozu azketzaille fiña,  
bide bakarra dala eukizu jakiña.

Zigorak ta zauriak, iseka ta txistu...  
nor ta zenbat zarean zuk ortxe egizu.  
Alai ta sendo iraun, maitasunez biztu;  
«Tomas» askok zugar be baietz gaur sifinistu!

Zenbat ma tatzen dozun nai ba'dozu jakin,  
ainbat sufritzen dozu, neurria da bardin...  
Maitatzean sufridu, beti ez da atsegin...  
sufritzean maitatu, egizu aletin!

Bizi penitentzia, —ba-dago naikoa—  
gizona onduteko da sekulakoa!  
Baiña kontuz ibilli: ez mindu urkoa;  
on-egiaz bentzidu zeure kontrakoa!

Nai ba'dozu, aixkide, egin zoriona,  
jakin egizu ondo au zeugan dagona.  
Neke-miñen aur:ean zaindu gogo ona;  
jokatu bildur barik, ori da gizona!

Ikusiak ikusi, au ezin ukatu:  
ta bizitzan zear sarri gogoratu:  
Au dala «gau txarbatenpenazko ost:tu»...  
Ez emon leiken baiño geiago eskatu!

### FELIX ZUBIAGA LEGARRETA (1932 - .....)

Ona aipu zabalá artuz doakigun azken orduko olerkaria, or-  
emengo sariak eskuratua beintzat. Ortarako, umetatik ez eban giro  
txarra izan bere errian. Maiz esan oi dogu au, zera, ingurua lagun-  
garri jakula irudimen lanerako. Eta Errigoiti'ko semea dozu  
Zubiaga, 1932-2-22'an jaioa.

Gazte au ikasle errimeá izan jatzu. Pasiotarra, urte mordoan  
Euba'n daukaguna. Amaika urtetandik, au da, 1944'tik, Pasio-  
tarren Ikastetxeetan ikasi ebazan Humanidadeak, Filosofia ta Teo-  
logia; eta geroago, 1977'an, Letrak Deustu'ko Ikastetxe Negu-  
sian. Eskola ta ikastoletako maisutzan emon dauz bere urterik  
erdiak.

Idatz-zale goiztar, Deustu'ko «Redención» aldizkariko Euskal  
Atalean egin ebazan lenengo pausoak, gero ipuin, antzerki labor eta  
olerkigintzan ekinik. Iru eraotan saritua izan da. Fitxa au oso-  
tzeko eskatu neutsazan idatzitxoan, nik baiño obetoago, berak  
esango dausku zelako idazle bideetatik ibillia dan asieratik gaur  
arteraño.

«Olerkiak irakurtea beti gustatu izan jat —diraust kartan—,  
Baina olerki barriak egiterainoko nire zaletasuna azken amarka-  
da onetatik onakoa da. Bertso moduko nire leen-olerkaik umeen-  
tzat eginiko *Pinto* elebarri eta beste testo liburuetan aurkitzen  
dira. Nobelagintzan be sarri erabilli dot errekurtsu au. Ala *Rh-  
Odolestuak*, *Expedienteá* ta *andre*-titulotetan.

«Baina olerkiak egiteko zanak geroago emon eustan, azken a'dietan agertu izan diran baldarkeria asko erakurri eta gero. Nik ba dot ganora hoberik eta honeek baino herriari jakinazoteko mezu bikainagorik. Horrela argitaratu neban *Kuntzemendi* (1981) eta 1985 Arrese ta Beita Saria dan *Zure argien Kliskak* eta *Ura-  
ren obikuna* (1989). Beste dozenerdi bat titulu argitaratu arte ez dot etsiko, Jainkoa lagun».

Eta olerkiari buruzko oarkizun onekin amaitzen dausku. «Olerkigintzan —idazten dau— gehien gogoko jatazan ritmoak herrikoiaak dira, alan txikitan entzuniko koplak edo bertsolarigintzako hainbat. Alan da be, olerki bakoitzak bere ritmoa behar dauelakotan nago, dala araudi batera lotua edo bere araudiko. Musika, ritmoa bai, baina muina eta bihozkeria daukana. Poesia zer dan? Egilearen eskua izaki-gizakiengan idoro eta beragaz bateratsuko abes-aalegina da, besteak beste».

Esanaren eredu legez, irakur egizuz ondorengo lau lanok.

## ITZAL

Itzala dabil  
norbere jarrai.

Itzalak daraitso eguzkiari,  
itzalak darraisku noranahi hara,  
itzala diabilku salaketari,  
itzalak jan baleu itzala bera!

Itzala diabilku  
jarraiki gertu.

Itzala arrastan kerizpe makur,  
bera edo geu gara gaizkile lapur,  
ostetik diatorku edo aurrez-aur.

Itzala diabilku  
jarraiki gertu.

Kainen errua jasarriz etc?  
Orban baltz hori garbi daiteke?  
Itzela da itzala, baltz ezinbeste,  
Ilunpe-semea geuterane gaute.

Itzala dabil  
norbere jarrai,  
inguma norbera  
ingura nahiz.

## PASIONEA

Argi-semea eta  
argi bera hiltean,  
eguzkiak arpegia  
—lurrikaraz lurda—  
ezkutatu eban.

Bizitza gurutzatu,  
hila izan zenean,  
erori zan Erio  
t'ez dauka hagaritio  
nausitzeko indar.

Burruka izugarria  
hantxe gertatu zan.  
Bizitza ta Erio  
alkarren arerio,  
bat erasotean.

Bizitza nausitu zan  
tinko koraina,  
pekatuen ordaina,  
ilunpeko koraina,  
pekatuen ordaina,  
kitua izan bait-zan.

## URZULO

Zeuren zaren iturri bizia baztertuz  
gogozko egarria asetzeko ez diren  
urzulo ahortu liluraz joatzuz  
eskutik joaken ames ur bilatzen.

Zeuren zaren betiko poesia itxita,  
poesia ustezko t'ez uste daren  
jainkosa jausien bularren irrikaz  
ederti galduen erauskin usmatzen.

Bihotza berbera ur bizi zuola  
dozuna lagata, deslaidu joatzuz  
etsipen gazitan norbera t'hurkoa  
itoazoz gogaituaren gogaituz.

Oi zure deiari baleutse jaramon!  
«Zatoze edatera gaur nite uretik  
ta diruz behartsu eta ezan zarenok  
asetu zaiteze gogara dohanik».

### URTEGI AHOR

Urtegi danak ahortu ondoren      Deabruari deitzea  
igarle aizun,                              alper erregu:  
herria eremuz zehar daroe          eremu aborrak zelan leikie  
hamaika maisuk.                        uraz erantzun?

Herriak, egarri bai da,              Sinbolu barik, diabolua  
ur bila dihardu                        daukela lagun,  
etsipenaren errogatiba                ezingo zara, herri ari, osatu  
madarikatuz.                              horreen milagruz.

Ur bizitzra zaitez itzuli,  
herri penatu,  
—Urtzi-ren urak urtegi,  
ez dira amaitu—  
igarle honeen jokua  
galgarri jatzu.

Danok ez gaitu, egia, eritxi bat-bardiñak dardaratzen, baiña  
niretzat auxe da egiazko poesia: pentsamentuz labur ta zorrotz,  
jantziz dotore ta biotzondo zutua. Olerkiok bada olako zerbait.

### GABRIEL ARESTI SEGUOLA (1933-1975)

Bilbon jaio zan 1933-10-14'an, eta bertan il zan 1975-  
Merkantil maisua; 1953'tik. Naikoa idatzi eban, olerkari ta antzer-  
kigille lez. Guatemala'ko «Euzko-Gogoa»-n datoz bere lenengo

poesiak, gero «Egan», «Euskera», «Oleriti», «Zeruko Argia»-n  
eta olakoetan jarraituz. Gaia: Literatura ta teatrua batez be.

Poesi barrutian, bide zaarrak eta barriztaten joiazan, ots, Li-  
zardi, Orrixe. Lauaxeta eta onein taldekoena saiets itxi ta etenik,  
orduan modan egoan eta and k laster urbegi ta puztilla lez ezereztu  
zan poesi sozialari emon eutsan. Gaur ia iñok be aitatzen ez dau-  
na, ain zuzen. Aurreko aroa agortua ei zan eta barriaren asi naia;  
baiña artetan urte asko igaziak diran arren, euskal literatur poe-  
tikan aurreko areik dirala diñogu eredu illezkor.

Aren lanen artean poesi arlokoak bakarrik aitatzeko, begoz  
emen oneik:

- *Maldanbebera* (1959).
- *Harri eta Herri* (1964)
- *Euskal Herria* (1967).
- *Harrizko Herri hau* (1970).
- *Azken Harria* (1971).

Gerra aurreko ta osteko gaur ere gure olerkarietan onenentzat  
joten dabezanak zapuzturik, Mirande ta Krutwig artu ei zituan  
jarraigarri. Krutwig'ek 5 bat oler-lan daukaz, Mirande'k geitxoago.  
Europear poesi ugari irakurri ei eban Aresti'k; irurok be, askoren  
eritxiz, ez eutsen mesede aundirik egin gure izkuntzari. Alan be,  
euren saillean, ez dira arbuigarri.

Naizta laprastean begoz emen aitaturik aren antzerki-lan bere-  
zienak be:

- *Mugaldeko herrian eginikako tobera.*
- *Etxe aberatseko seme galdua...*
- *Justizia txistulari.*
- *Mundu munduan.*
- *Eta abar.*

Lenengotik asi zan bere lanak sariketara bialtzen. Eta as-  
kotan sarituak izan ziran aren oler-lanak. 1959'an lenengoz, Bedo-  
ña'n Loramendi'ri egin geintson omenaldia, bere *Malda bebera*  
lanaz. Orobat Lizardi saria jasoaz. Aren teatru lanik geienak  
«Egan»-en datoz.

Aresti aurrenik olerkigintza zaharrez asi zan. Olantxe dago «Maldan behera» adibidez. Ikus: ariztian dago poeta, eta bere lenengo estrofetan lez, anbakea ta giroaren ederra adierazten ditu, bertso ondo neurtu (6/7) eta errimaz ondo oskidetuz. Ona 5 aapaldi:

Orain hemen nago, eremu latz honetan.  
Nire gurariak galdurik, lur hauetan  
arbola agar-gabeen parean naiz orain.  
Landare zekenak baitaduzka eremuak,  
erratzak arean, haitzetan kalamuak,  
nire arima dago mirari baten zain.

Eztago zeruan egun hodei batere,  
Denpora sikuak garantzen ditu bere  
ordu miragarriak sekula batean.  
Zerura begira egoten naiz luzaro,  
izarren esnetik edaten dut oparo,  
baina egarri bizia daukat bihotzean.

Azken eremuon natzalako artinik,  
hezur-lekuetan eztaukat zer-eginik  
ta iruten dut astiro itogin sikua,  
nundik egunotan doakidan bihotza,  
entzun eztelako urlasterraren hotsa,  
apur bat busti dezan lurreko kolkua.

Eztut gaur ezer jan, eztut horren beharrik;  
eta gau osoan egondu naiz itzarrik,  
kandeletan ikusiz eulien bagalak.  
Baraueetan eztut oinazerik aurkitu,  
bakarrik egoteko asmotxo makalak  
eta lo-gelak benedikatu ditu.

Eremuak ere dauzkalako mareak,  
behera eta gora egiten du hareak,  
ta nire gorputzak ezin egon zutik.  
Arroken ostean agertu den etsaia  
ene begian da baratzeke galaia,  
itsuki baitiotsak: Ken hadi hemendik!

Onelaxe darrai poema eder —ezkutu samar— onek. Eremu oiantso artan irakurriak zitun orduko F. Nietzsche, F. S. Eliot eta antzekoak, baiña ildo ortatik jarraitu ba'leu, askoz euskal poeta gailenagoa genduan Aresti. Gero joan jakun, Arana'ren eskola ta garbikeriari muzin eginik, euskera kultoa barik erritarra erabilten. Diñoenez, onek ondatu eban Aresti. Urtez urte obeagotuz joian euskera itxi ta, iraitzeko barrikeriari itsats'iz, pentsakeraz eta literatur maillaz jatsi jakun. Erlejiñoari dagok'onez be, batzuk, Aresti'k ez eukzan ideiak —arekin ontaz sarri jarduna naz— bilbotarri ezarten saiatzen dirala dirudit.

1963'an poesi-konkrtsoa Tolosa'n Orixe'ren goratarrez, Aresti'k jaso eban lenengo saria *Harri eta Herri* olerkiagaz. Jose Maria Iparragirre saria zan. Ona poema luze orren zati bat:

Ezer eznaiz, eznaiz ezer, ezpada  
naizena.  
Ni naiz naizena, bai, naizena, ez  
eznaizena.  
Ni naz nirez,  
nire borondotez, naizenaren borondotez eta birtutez.  
nire pentsamentuen eta sentimentuen indarrez.  
Bidean nago (hai lege gogorra,  
hain ordenamentu eskapu gabekoa),  
bukaera batera. Hara noa eta  
eznaiz bildurtzen, ez eznaiz  
bildurtzen, ez, eznaiz  
bildurtzen, ez.  
Dena doa eztenaren bidean,  
eta egun batean ezer ezta izanen, ezpada  
ezer eztena. Ez, Bai. Ni naiz naizena,  
eznaiz ezer ezpada  
naizena, ez, izanen eznaizena.  
Eta hau da, bai eta ez, orain eta beti eta lehen,  
nik diodana,  
eznaizena eta  
isiltzen dudana.  
Nire pentsamentuen graziaz eta birtutez.  
Bai. Naizena. Diodana.

Bai, esaten asiz gero, poetak ere lelokeri politak asmau oi ditue. Zer esanari su emotearren askotan, ez egia dalako, ez barruan ori sifinisten dabelako. Aizeak bereak egiten ditu ostu igerraz.

**MIKEL ZABATE LEJARRAGA**  
(1933 - 1979)

Lezama'n jaioa, 1933-3-6'an. Gaztetatik umore oneko ta liburu zale, Bilbo'n osotu zituen aparejadore ikasketak, baita garraziz eskintza eukan munduaren barne zisku ta ezkutuneakaz konturatu be. Etzan ori bere deia. Ta munduari agur egiñik, 21 urtedun, Derio'n sartu zan eleiz-gizon izateko. Abadetza, meza barria, gurasoen eta bere poza... Ondoren, urte batzuetan, Gerena erritxoan daukagu arima-zaintzan. Gero, Derio'n, Deustu'ko Izkuntz-eskolan... Nainun eta no'znai urduri ta langille,, erakusten eta idazten.

Idazle oparoa, euskeraz eta erderaz. «Karmel» eta «Anaitasuna»-n idazten dau geienik, filosofi ikasten ziarduala asita. Liburu mordoa agiñik; ona batzuk: 1) *Gure Meza Deuna*, 1960'gn. argitaratua izan arren, Filosofia ikasten ebillela, Pio Parsch'ek idatzia euskerara biurtu eban; ona etorri jatan bein, argitara emon eurretik, nik gain-begiratu bat emotea nai ebala-ta; 2) *Gure Sabazio Egintza* (Bilbo, 1967); 3) *Meza Liburu txikia* (Bilbo, 1968); 4) *Bizkaiko euskal Idazleak* (Bilbo, 1970); 5) *Haurgintza minetan* (Zarautz, 1972); 6) *Euskal Deklinabidea* (Bilbo, 1975); 7) *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (Bilbo, 1975); 8) *Euskal Literatur I* (Bilbo, 1977) eta *II* (Bilbo, 1978); 9) *Higidura berdez* (Donosti, 1977); 10) *Euskal Ortografia* (Bilbo, 1978); 11) *Bizipenen bultzadaz* (1978), olerki txorta, eta besteak.

Orduan M. Zarate be olerkari? Eta ez edozelakoa. Euskal senak ikutua zan, idazkeran errikoia, baserritar esaeraz bere idazlanak dotoretzea atsegin jakona ar. Baiña gure asaba zaaren pentsamentuak bertso-moldez tajutuak sarri artzea be. Euskeratiko esanaiña, jakin-gunez asetu orriak, oster, egokiak doguz poesirako. Zarate'k ba-ekian ori, ta bide ortak dabilkigu serri, bere

oler-ekarriak edertotxo jantzirik. Ona ezaugarritzat emalauko au, aren neurtitzetan zelai zear atzemandako aza-pinpurin koloretzu lez jatzuna. «Iratzarri nahi nuke» deritxo.

Uda bihotzeko eguzki bero,  
zemento grisezko bloke zapalkor,  
gas pozoitsuaren ke laino mozkor,  
sorgin haizearen hauts dantza ero,

motor durrunda... ta zu, egunero  
infernu gris hortan, egunero hor  
arima grisdun lur pusketan lehor,  
zure jaunen robot, baloi, numero...

Iratzarri nahi nuke barnean  
lotan daramazun gizon poeta:  
gizon aintzidarri eta profeta,

izangokoaren ezerezean  
zuregan dagoen gizon euskaldun,  
iratzarri zeu ta zeure zeutasun.

Olerkarietzi geienez kezka darioe barne-muin. Kezkaz bizi zan Zarate. Ba eban ziniko zital bat ozka barruan: euskereari buruzko batasun kezka. Bera lanean asita laster, Arantzazu'ko Bartzar ostean, banandu egin ziran naikoa euskal idazleak; leen alkarrekin polito genbiltzanok, ezkerak eta eskumak lez, banandu gintzazan; danok giñean batu-zaleak, baiña oneik joiazan bide on-tatik eta areik aretatik, oneik «zuriak» eta areik «gorriak», geroago politikan be egin dogun legez; ots, areik «atxe-zaleak» eta oneik «ez-zaleak». Bakotxa bere bidetik, jakiña. Oneik arei egozten errua, eta areik onei. Eta leen polito joian batasunaren apur-tze onek kezkarazten eban gure zamudiotarra. Zaarra ta barria buztartu bear ziran, aren eritxiz. *Bizkaiko euskal Idazleak* liburu argitaratzean, onela autortu eban:

«Ola zaar eta ola barri,  
gure batasunaren oiñarri».

Norbaitek iragarri eban kezka orrek eratsi ete eban illobira. Dana dala kezka onen zigorpean bizi izan zan eriotzararte. Aren

irakaskide ta lagun Derio'n urteetan izandeko Ander Manterola'k au diñosku: «Udako Euskal Ikastaroan parte oso garrantzitsua izan dau Mikel'ek, Ni bultzagille izan naz. Eta bera langille. Lehenengo urtetik eta geiago irakasle izan da. B'ion artean eratu ditugu ainbeste programa. Baita metodologia bera ere. Euskeraren erazoan, naiz eta dan-danean bat etorri ez, sakonean bai. B'ok oso kezkatuta egon gara euskeraren etorkizunari begira. Euskerak bizi egin behar dau, ta batu eg'in behar da, baiña ez biziaren kontra. Etenik ez izate ori izan da bion oiñarri bardia».

Au be esatea egoki dala deritxat, neuk eta ez gitxik experientxiz somatua: mee, sentikor, eten-erreza dala. Ez neuskio iñori bildurrik sortu nai, alan be bai au adierazo: euskal idazle ta olerkari geitxo doguz zentzun gitxitxoz galduak. Zure galpena be, Zarate, edo orretakoa deritxat. Egia, baiña, egia dago, eta ezkuatuaren aurrean guk burua makurtzea bester'k ez dogu. Eta samintasun aundiz, Lizardi'k beñaola, bere amama zanaren illeta-egunean lez, esan bearko:

«Agur, adiskide,  
Egun aundirarte».

## OLERKI-LIBURU BI

Elebarri, nobela ta saioren artean, poesi-liburu oi itxi dauskuz: 1) *Hgidura berdez* (Donosti, 1977), eta *Bizipenen bultzadaz* (Bilbao, 1978). Lenengoak 107 orrialde daukaz eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratu eutsan, 1976 urtean «Ciudad de Irun» deituriko Literatura Sariaren rabazle izan zailako. Bigarrenak 69 orrialde ditu ta Durango'ko Leopoldo Zugaza'k, Bizkaiko Aurrezki Kutxa'ren Kultur ekintzaren laguntzaz, argitaratua da.

Iru zati ditu lenengo liburuak: «Gelan», Baserrian eta «Hirian».

Olerkaria batetik bat bere lantolan dago, gelan; itz lauz naita idatzi dau, ez osteria itz neurtzu, eta osotu nai leukez olerkiak be. Ba-dau ortarako goi-arnasa, ba-dau gaitasunik, eta bertsoak idazten asi da, olermiñak eraginda, aberria ta euskera jazo teko, edertzeko, olerki-lan arin eztiak eioteen asi da.

Elestian, ain zuzen be, mituak eta jakintsuen errazoiketak baiña lenago izan ziran poetak, olerkariak, bertsolariak. Homero'ren Iliadenak eta Odisenak ezi ta moldatu eben batez be greziarren arimea, bizitza ta oiturazko jokabidea. Antigona'ren aoan jarri oi da esaera au: «Ederra litzakit iltea, onan eg'n ezker».

Zarate'k onela pintatzen dau bere gela: «Numenaren inguma, / isilaren atsegin, / silaren atsegin, / mahai, l.buru, luma... / eta anitz zeregin».

Olantxe diardu abeska, euskera batuari, bakartadeari, ezor-duen erdimiñari, barne eragiñaren etorriari, rima bako ritmoari, urkulketari, bere bizitzari, larriari, barru daroan kezkar, eskarriari, uda-sasiarsi, piñu geigiz inguratutako baserriari. itzaren bila dabilen poetari, Lauaxeta'ri, Lizardi'ri Aresti'ri, uhain barri etsipenduari, Euskal Literaturaren arrakeriari...

Sorpen bitxiz apaintzen dau zatiño arin bizkorra.

Baserria aldatzen da gero, gorputzez, irudimenez. Eta zaserria ta inguruak kantatzen ditu 14 olerki txikitari. Onela dakus iskasbillik bageko baserria: «Ez dago / lehenik / gabeko / orainik, / eta nik / baserraren / baso usai / dut orainaren / muin sustraia».

Eta emen be, baserrian, gauzon muiña, gura dau kantagai: goizeko kantu badin ezbardindua, urdiñaren pozetan txorien kantak, pinpilinpauxak, amonaren leloaren durundua, il dan jaun morroia, lañioak, astoa, balizko olaren oiartzuna, amama illak itxitako leku utsa, bideko bedarra, ortzadadarraren kolorea, Derio'ko kanposantua, garnjako oilloak.

«Bizipenen bultzadaz» liburuak be iru zati ditu: 1) *Astzeka-bezko bizipenak*; 2) *Atseginezko bizipenak*, eta 3) *Ametsezko bizipenak*.

Gai arrunt eta ez-arruntak darabiltz lezamatat olerkariak, arin ta errez. Ez ditu gaizki ariltzen ideia ta oldozkunak; ezin da'kegu esan, alan be, funts-erri aberats sakona dauanik.

Mikel etzan ari ortakoa; bere idatzi guztietatik agiri danez, sorgin-pitxi antzera, lora-zale geiago dogu gun-zale baiña.



## JON GOTZON ETXEBARRIA

(1934 - .....)

Santurtzi'n jaio zan Jon Gotzon 1934-2-7'an. Euskaltzale nekegaitza. Ez ekian euskerea, beste izkuntza ainbat legez, jo ta ke ekiñik ikasi egin eban polito. Gaur euskeraz irakasten diardu Gernika'n.

Lenengotan eleiz-karrera egina dozu; gero, ogibide ori bereztat etzala egokia-ta, euskal arloan idazteari ta irakasteari emona dabil. Euskaltzaindikoa da. Asko idatzi dau, bere izenez eta «Dirauket» izan-ordez idazlanak izenpetuz. Aldizkariotan beintzat badituzu bere lanak: «Zeruko Argia», «Karmel», «Olerti», «Jesus'en Biotzaren Deia», «Agur», «Zer» eta abar.

Lan jatorrak, orijinalak eta itzulpenak ditu. Jatorren artean ona batzuk:

- *Gurutz bidea* (1966).
- *Maitale galdua* (1966).
- *Lo ta amets* (1967).
- *Basoko Loreak* (1967).
- *Euskal Iztegi laburra* (1966).
- *Batikano II-garren Batzarraren agiriak* (1966-67).  
Eta gaiflerakoak.

Dakizan izkuntzetatik, gerkera ta latiña, garantsitsuak dira eta euroatik batez be zenbait itzulpen egin dauskuz. Ona batzuk:

- *Charles Perrault'en ipuiñak* (1965).
- *Martial'en Ziri-bertsoak* (1965).
- *Phedro'ren Alegiak* (1965-66).
- *Bakar-autuak*, Lope de Vega'ren «Soliloquios divinos» (1966).
- *Fatima'ko Ama Birjiña ta umeak* (1966).
- *Liturji-goratarreak* (1966).
- *Esopo'ren Alegiak* (1967).
- *Catalunya'ko Olerkariak* (1967).
- *Bidaztien aterpea* (1968).

Bilbo'n San Anton eleizako Dotriña alkarteak lagunduta, argitaratu ebazan lan guztiok. Eta laguntasunak adorea sartzen dauku, beraz santurtzarrak euskeraz jabetu zanetik gero, eskuan idazkortza ta egunero euskal lerroren bat.

Artutako bidean lanari ekiteko goralpenik bear ez dauan arren, izan ditu olako txaloak bere argitalpenak dirala-ta. Ona bat, zintzotasunaren ziñaldari dalako, *Basoko Loreak* argitaratzean, Izurtza'ko seme Nikolas Altzola'k «Egan»-en egin eutsona:

«Liburu egokia da —dazten dau— *Basoko Loreak* olerki-liburtxo au. Adikortasun-goza eta baketsu baten eztitasuna ikusi leikeala dirudi, olerkietan. Bizitza, Itxaropena, Izadia ta Gizartea... olerkariaren begiekaz ikusten dauz, edertasunagaz maitemñ utsa dagoan beaetako olerkariaren ikusmen zintzoagaz. Kirmentasun onek dakartso J. A. Etxebarria'ri egiazko mailla bat, eta bide onetatik jarraitzeak cruango dau literatura gaietan berez berez errezak ez diran jomuga aundietara».

Euzko-mutillak, mendigoizale; Eusko-apaizak, fede-ereille;  
euzko-neskatxak, dantzari; euzko-prailleak, ikastun  
euzko-gizonak, langille zintzo; zorrotz ta sakon. Euskaltzaleak,  
euzko-andrak, etxe-euslari. euzko-abendaren lagun.

Euzko-itsaso, lur, mendi, basoak.  
lengo, oraingo ta geroko  
euskaldun danak, biotz-erdian  
josi zaituet betiko.

Orain, bere emazte ta seme-alabakaz bizi ta irakasle dalarik, «Excerpta» deritxo aldizkari txiki bat ateraten dau bere kasa, nireztat (illero bialtzen bai daust), oso interesantea, gerkar eta latindarren autore ta lanez beterik. Oraintxe esku artera jausi jatan 35'garren zenbakia, aurtengo (1989) apirileko zenbakian gai oneik datoz:

- Orixe'k idatzitako «*Greko-euskerazko gramatika-konparaketa*».
- Hesiodo-ren *Teogonia*.
- *San Juan Krisostomo eta paganoen-obiturak eta pentsakera*.

- *Plinio Gaztea* (Eskutitzak).
- *Seneka* (*De brevitae vitae*).
- *Definitiones, etymologiae, explicatones a Sancti Augustini scriptis depromptae*.
- *Definitiones etymologiae, explicatones e Sancti Jeronomi Epistolis depromptae*.
- *Grezia'ko Mitologia*.
- *Klitemnestra eta Homero'ren «Iliada» eta «Odisea» zatiak*.

Ez, Jon Gotzon'i ezin geinkeo ukatu egiazko langille ta euskaltzale danik. Itz utsak ez, egifienak bear dira.

### JON LOPATEGI LAUZIRIKA (1934 - .....)

Muxika'n jaio zan 1934-3-17'an. Lenengo ikasteak bere errian osotu ondoren, Tolosa'ko Sakramentinetan Filosofia ta onen inguruko gaiak egin zituan.

Bertsolari errimea dogu, Biakaiko txapeldun 1962'an eta 1964'an izanik.

Larrea'ko «Karmel» eta «Olerti»-n naikao idatzi dau, geienez bertsoetan.

Urteetan diardu Ikastoletako neska-mutillai bertsozintza erakusten.

Ona lau koplak oneik zelako neurtzilari dogun jakin daizun. «Areatza'ko Kanpaia» dau kantagai:

Goizian goizik, egun sentiak  
ibarra margotutian,  
txirulia ta kukurrukuak  
alkari erantzutian,  
Ariatza'ko kanpaia zoli  
entzun oi da jardunean,  
oiartzen ona atera nairik  
ariatzarren barnian.

Egun erdiko eguzkopian  
nekazaria urduri,  
izerdi truke arnari billa  
soloaren merkatari;  
Ariatza'ko kanpai doinuak  
zer dakar barrien barri?  
Gorputzarentzat atsedena ta  
gogoari eragingarri.

Illunabarra... Betidaniko  
gau t'egunaren auzia;  
jabetu nairik dator illuna,  
bizi guraz doa argia.  
Ariatza'ko langille danak  
Ariatza'rantz bidia...  
Kanpaiak dager guztientzako  
Jaungoikoaren neurria.

Asarraldian jardun oi dozu  
gogorkiro trugolari,  
zamatutako burdi zar antzo  
damotsazu negarrari;  
alai aldiari ariatzarrek  
zeu zaitugu bertsolari...  
Zaitetz, Jaunaren aurrian, gure  
biozkaden abeslari.

Sotil eta urdurj dabilkizu beti bertsolariaren irudimena.

### DEUNORO SARDUI ENBEITA (1934 - .....)

Euskal-miñak joa, Edozein arlotan ain zuzen, beti gertu da-  
goana, gure gauzen onerako lanean jarduteko. Naiz ta zer askori  
ekin bearra izan beretarrek, aurrera bultz-eragiteko, euskal ardura  
izan da bere ardurarik beifiena.

Muxika'n jaio zan 1934-1-1'an Areatza auzune ez motelean.  
Emen inguruan osotuak d'itu bere lenengo ikasketak, eta gero urte

bi beintzat Seminarioan Gizarte gaiak ikasten, eta zillegi bekit onezkeru, iñor iraintzeko asmo berik, lenago euren len-ikasteak Seminarioan naiz praille ikastetxeetan burutu ebezanak, leen eta orain, erriak eta erri-arazoak zuzentzen diarduenak dirala. Gaur eguneko ikasleak begie orobat.

Sarri agertzen dira Deunoro'ren lanak, prosaz eta bertsoz, «Karmel», «Olerti», Zornotza'ko «Zirimiri», «Zeruko Argia», «Anaitasuna», «Brisas Guerniquesas» eta alakoetan. Bizkai-Ban-kuko euskal boletinean be ba-daukazuz beronen idatziak. Nik ba-daukat, brak itxita, bere bizitzaz osoturiko elebarri txukun bat bere.

Ogetamar urte dirala, 1959'an sortu neban *Olerti*, eta lenengo zenbakian datoz E. Erkiaga, Dirauket, L. Arteaga, Laspiur, Gurbindo, Aurratiz, L. Muxika, G. Manterola, G. Aresti eta besteen poesiak; baiña atari-atarian lenengo datorrena Sardui-Enbeita'tar Deunoro'ren «Baratz bikaiña» dozu. Ona berau:

Sortzez Garbia! Abesten zaitu  
Izadi osoak...  
Sortzez Garbia! oiartzeun gure  
biotz-aoak...  
Oiartzun gure negat-malkoak...

Kimu ernebarri batentzatsotilla da benetan.

### BARATZ BIKAIÑA

Lore itxusirik ez dau eusko-baratzak,  
Danak dira ederrak, guztiak aratzak.  
Ai, ni ba'nintz erlea! Krabelin jororik  
Nun billatu? Ez bai da, iñun be, obarik.

Zorapenezko ikusmen! Txoriak txioka,  
Ipar emea jostari lorakaz zibuka,  
Egun-izarrak bigun, musu ta laztanka:  
Ainbat edertasunek sor eta lor nauka!

Noian, bada, ikus-min, oin-sor loraz lota.  
Kanta ozena danak dakarste gogora...  
Bat yat, baiña, txit eder. Lotaren bikaiña!  
Pipil zuri bai zara, beste iñor ez aiña!

Adi naukazu, aurrez, begi biak zuri:  
Ederraren goi-maillan nai zaitut ikusi.  
Ez naz bekaitz-zimikoz, ezta be negarti.  
Oroen gaitzez betor, zorunez, OLERTI!

### SABIN BERASALUZE

(1935 - .....)

Forua'n jaio zan 1935-1-1'an. Bere errian osotu ebazan len-ikasketak. Gero, Arantzazu'n, lekaide izateko asmoz; baiña ez eban ortik jarraitu, ondoren Bilbo'n ikasiz ekonomiazko Zientziak.

Euskal idazle. «Euzko-Gogoa», «Arantzazu», «Egan» eta «Jakin»en beintzat idatzi dau. Umientzako liburu txuak eta be, ba-daukaz, Karlos Bernal Araluze'ren aur-ipuiñak adibidez euske-raztua.

Ipuin onei buruz, zeazki «Pipo, kanejutxo artoa» dala-ta, L. Mitxelena'k «Egan»-en idatzi eban: «Leen baiño obeto eza-gutzen ditut orain aur-liburuak, atxeko-akdirala-ta, eta ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, auek bezalakoak. Ain dira garbi —eta alaz ere ez gexak—, bizi eta garbiak, bai ipuiak eta bai edergarriak. Sabin Berasaluze'k ederki eman ditu euskeraz, alako Bizkai-usai arin eta goxo bat duen gipuzkeraz» (*Egan*, 1956).

1954'an, gerora askorik ondu ez dauanarren, abuztuaren 10'an Zarautz'en eratu zan poesi-leiaketan beronek eskuratu eban lenengo saria, «Sortez Garbia!» eritxon lanarekin. 20 urte bate barik egoan olerkaria. Emen daukazu bera:

## SORTZEZ GARBIA!

Lore itxusirik ez dau eusko-baratzak,  
Danak ditu ederrak, guztizak aratzak.  
Ai, ni ba'nintz erlea! Krabelin joririk  
Nun billatu? Ez bai da, iñun be, obarik.

Zorapenezko ikusmen! Txoriak txinka,  
Ipar emea jostari lorakaz zibuka,  
Egun-izarrak bigun, mosu ta laztanka;  
Ainbat edertasunek sor eta lor nauka!

Noian, bada, ikus-min, oi-sor, loraz lora.  
Kanta ozena danak dakarste gogora...  
Bat yat, baiña, txit eder. Loraren bikaiña!  
Pipil zuri bat zara, beste iñor ez aiña!

Adi neukazu, aurrez, begi biak zuri:  
Ederraren goi-maillzan nai zaitut ikusi.  
Ez naz bekaitz-zimikoz, ezta be negarti.  
Oroen gainez betor, zorunez, OLERTI!

Leku nebarian jarri neban nik lan bitxi au, aldizkari barria  
sortzean, eta begitantzen jatanez merezi ez ebanik ezin lei esan.  
Eta aren ondorengoak ari ortakoak doguz.

## GOTZON GARITAONANDIA (1936 - 1970)

Abad argi ta langillea, euskal kezka oso eragiña. Urdulitz'en  
jaio zan 1936-7-20'an. Eleiz-gizon izan nairik, Derio'ko Ikaste-  
txe nagusian osotu eban eleiz-karrera guztia. Solube ertzeko Ma-  
ñu erritxoan egin eban arimazaintza; biotz-zabaleko ta zerbitzari  
leial, erriak benetan maite izan eban. Mungi-aldean eta Bermeo'n  
gazte talde autatua bere esanera, naiz mendirako, naiz euskal la-  
nerako eta naiz eleiz-arazoetarako beti gertu ta prest. Konturatu  
barik etorri jakon gaixo ganorabakoak eroan eban Aitaren al-  
tzora 1970-10-15'an.

Euskaltzale jatorra genduan. Ikasle zala, euskera sakondu ta  
idazten asi zan 1957'an; «Karmel», «Olerti» ta «Zeruko Argia»-n  
daukazuz aren euskal lanak. 1967'an «Balentin Uriona» argita-  
ratzen dau, bizkaitar txirringulariaren bizitza, Arenasa'tar Josu'k  
eta Enbeita'tar Abel'ek lagunduta idatzia., 136 orrialdeko liburua,  
Bilboko Graficas Bilbao'n argitara emona.

Itzulpenak egin euskuzan, «Errien Aurrerakuntza» edo Paul  
VI'garren Aita Santuaren «Populorum Progressio», eta italiar  
idazle ospetu Papini'ren liburuxka bat, «Karmel»-en zatika argi-  
taratua.

Olerkigintzan be jarduna;; «Karmel»-en eta «Olerti»-n ba-  
datoz batzuk. Ona Bermeo'ko arrantzale «Sukarri» taldeari, Da-  
kar'erako joan-etorrian abesteko, atera eutson zazpi aapaldiko au:

Kai aldeko egal baten  
abesti au entzun neban.

Gazte bat zan, bermeotarra...

Guzi Altsuan sorkarietan  
goten alatza.

Izaki oro, zetua oso  
zeru aratza...

Zeru oro Zuregan datza.

Begi samiñok zuzendutzean  
ortzi garbira,  
Orban gabea, ikusten zaitut  
neri begira,  
ikusten zaitut ernai adira...

Iguzki antzo darizu ugari  
usai ta jurrun...  
Ezin biotzak bizia jasan  
Zugandik urrun...  
Bizia jasan ezin nik ifiun.

Soiñean dezun apaingarria  
zeru urdiña...  
Ezpain samurren irri lorea,  
itzal ezifia...  
Irri lorea, maitasun-miña...

Begi erlantzez dargizu, Ama,  
biotz illuna...  
Esku zuriok dixurte nunai  
Garbitasuna.  
Dixurte nunai maitetasuna...

Jaungoiko-esku miragarrien  
edertasuna.  
Erbestetuon arantz-biotzen  
leguntasuna...  
Arantz-biotzen biguintasuna.

Aurpegi orren iruditason  
eder gardenal  
Irauli dakust Jainko-grazia  
ta zoramena...  
Jainko-garazi, indar, almena...

## LUIS AROSTEGI

(1939 - .....)

Olerkia extasis bat ei da, Leun edo zakar dana, oizko bizi-eratik gorago garoazana, goragoko izate batera jasoten oi dauana. Edertasunak dagi ori, ta olerkia ederraren zantzu b'zia dozu, ez jako moz u bear bere goi-endar berezi-berezia, gar bero ta goraldi aintzatsua. Olerki, poesi bat idatzi, irakurri naiz entzutean, arimea indarka, gora naiez dagoala begitanduten jaku; neurtitz bat, estrofa bat naiz bertso giar bat aztertzen edo-ta ausnartzen gagozanean, zer-bait jazoten jaku itzez adierazo ezin daikeguna.

Beste gauza batzuetan be ikus gengike au. Mendira joanik, adibidez, or pagadi itsua igarotean, gorosti erdi-igar bat begien aurrean; orri barik, adar geienak ustel, ezpalez beterik sustraiak agirian. Illik ez ete? Baiña ez, ez dago ilda: ezker-aldera or k'mu joria gorantz naian, Oraindik bizi da gorostia. Bir-loratua geratzen jat laguna. Zer jaso jako? Gaiñez egin dau tsu arimeak. Ezin dau itzik atera. Aren zor-aldia, luzaroko zor-aldia... Ezin dot aurrera eroan...

*Gizasemea.*—Mungia ta Plentzi bitartean dagon Gatika erritxoan jaio zan Luis Arostegi Ganboa, karmeldarra, 1939'ko urtarrillaren 21'an. Ikas-zaletasunak joa gazte-gaztetatik, eta eleiz-deia somatuz barruan; Zornotzan lenengo ta gero Nafarruako Billa-frankan osotu zituan bere leen-ikasketak. Gero, Larrean egin eban bere karmeldar profesia 1956'an. Jarraian, giza-ikas urte bat Markiña'n eginik, Filosofia ta onen inguruko asi-masiak Gasteiz'en burutu zituan, iru urtez.

Buruz argia ta zentzunez errotsu etorrelako, nagusiak Erroma'ra bialdu eben 1960'an. Emen ikasten dau Teologia bost urtetan, 1964'an meza barria abestu ta ondoren Teologian Lizentziatu titulua jadetxirik. 1965'an, Larrea'n egotaldi laburra egin ondoren, Panama'ra doa, emen Erlijioen Edestia ta Teologia erakutsirik Ikasgu Katolikuan, opor-aldietan batez be, Ipar-amerikan, ingelera ikasten, egotaldi politikak eginaz.

Kultura sakonagoa jadesi gurarik, 1967'an Milan'era doa Filosofia ikasten, eta Jesus'en Biotzaren Unibertsitatean artu eban Irakasle (Doktor) titulua Filosofian. Otraz gaiñera izkuntzak

ere ikasi zituan, lenengo (esan dogu) inglesa Ipar-Amerikan, eta gero Austrian aleman eta Montekarlon frantsesa. 1973'tik aurrera Iruña'n dau karmeldar gazteai irakasten, aldi berean ango Teologi Ikasgu nagusian Erlejiño Filosofia be emonik.

Azken urteotan emen Zornotza'ko «Karmelo» Ikastetxean, beti gogotsu, irakatsi izan dautse bertoko gazteai, eukereari dagokion lekua eskiñiaz. 1975-1981 bitartean bertoko nagusitza egin eban, eta sei urtetan, 1981-1987 Probintzi Kontseilluko lan-kide. 1987'ko karmeldar Batzar nagusian euskal Probintziko nagusi aukeratua izan zan.

Idazle ugaria, euskeraz eta erderaz. Ainbat lan daukaz euskeraz «Karmel»-en eta «Olerki»-n. Erderaz, Madrid'eko «Revista de Espiritualidad» deritxonean idazten dau geien batean.

*Olerkari.*—Ikasi ta irakatsi ezta, egi-egiaz, modurik egokiena olerkigintzari ekiteko. Orretan ari danak nai ta naiez bere izatearen barrenengo zokoan gorde ta bakar-giroaren leuna izan bear dau. Kanpotiko ixil-laguntza barik nekez arrotuko dau sustraizko neurtitz-lan bat, benetako poesi-kopla danik. Txori illaren egaz nimiñoa bai, ez ostera poesirik.

Arostegi ezta egazkada txikiz naikotzekoa. Garaia goak opa ditu, eta orretan alegindu oi jaku. An eta emen ikasketa gogor artean bizi arren, Markiña'n esaterako, ikasle zala, izenez eta idatziz maite eban Virgilio ta aren olerkiak ikasi ta aztertzen ebazan. Geroztik, barriz, zintzo saiatu izan da, al izanik beintzat, euskal olerkigintzan. Panama'tik zala, Ipar-Amerika, Kolonbia ta Guatemala'tik ebillela polito ekin eutson bere barne-deiko lanari. Naizta geroago argitara emon, orduko sorpenak ditu «Poema amaitu bakoak» deitutako olerki liburuxkan datozanak. Pitxi eder bezela, aldean erabilli zituan eurok.

Urteak igarota gero, Milan'en aurkitzen zala, bidiez bota eustan olerki mordo bat nik argitaratu negiozan. Erderaz egozan, eta nik sartu nai ez erdel argitalpenetan. Au idatzi neutson; nai ba'eban neuk itzuliko nebazala euskerara, ta argitaratu. Euskeraz Jarri neutsozan, bada, eta «Poemas inacabados - oPema amaitu bakoak» liburua argitaldu. 39 olerki daukaz. Kolonbia'n, ango zelaiak dakaz gogora; Guatemalan Solala, Mexiko'n Guadalupe, Dallas'en ango zingira 1965'an, Dilley Texas'en...

Bultzian dabil au ikusten dau tren-barru ariñetik:

Begiak eta eskuak, jasorik,  
agurka ezkututzen diranean,  
tximistargi-abeak gelditzen dira  
izpar-izuak eroan eta itxiaz,  
eta bide bakarra erakutsiaz.

Txirrinka ta bideak  
geratzen dira piper.

Ez dirudi zuzen min-aztea,  
eroan eziña baita begi-agurra,  
Baiña agur eñi bear maitatzeko,  
begirada ixillez jarraitu bear  
tximistargi-abeen igarotzea.

Bedar jaikien arteko bidoiak  
itzuli bageko joana iragarten.

Tximistargi-abeak bakar-bakarrik  
joan eta etorriekin  
eta bularrak egapetzen dauanakin  
begietatik botzerañioko  
itxaro-errenkada dabe marratzen.

Onakoxea dozu geienbat Luis Arostegi-ren olerkia. Jario zabal sakonekoa, bai ordukoak eta bai arrezkero asti-uneetan ondu ditunak be: J. Zaitegi'k esan ebanez, egiazko poesia.

Liburutxu orren itzaurrean, au autortu euskun: «Bein baiño geiagotan amaitu nai izan ditut olerki oneik. Bizitz-une dira, oso-oso geureak nai geunkezanak; izate-ondoan, baiña, kimu edo edo erdi adierazo bakarrik egiten jakuzanak. Eurretan onena amaitu bako ori dala deritxat orain; iges doan ori, samatik oratu ezkerro, ilgo litzatekena. Zeru barri bat eta lur barri batez oi daragiskuna. Eta, beti be, olerkiak eztira bizitza, bizitz osoa, ezta beraren ardurazkoena be. Doguzan gauzetatik beñena, ain zuzen, noberak be ozta-oztan daki».

Garai onetan asko idatzi dausku, «Karmel»-en eta «Olerti»-n bereziki. Azkenengo «Olerti»-n oneik emon euskuzan: «Aldiaren nekea», «Askatasun unea», «Urtarrilla», jatorrak; eta itzuliak,

J. H. Newman eta Thomas Merton'en. Eritxi emoteak be eder jakoz, Lauaxeta, Sabin Muniategi ta besteak aztertuaz. Hölderlin alemanasen. Aspaldi dabil olerki osoak euskeraz ipiñi nairik.

Txasta egizu, sagar gozo iduri, beste au be, «Askatasun unea»:

Kanta, euri, leun ganean,  
kanta zuk, aize,  
eta pagoai irribarre eragin,  
ardiak ira atean mantzo,  
jan edo begitu dagiela.  
Kanta askatasun une au  
une bat baiño ez da ta...

Kaldebako lagun onak,  
adiskidetsu zagoze inguruan.  
Ez daustazue berbarik egiten,  
zuzmur ta doiñua bakarrik  
ixiltasun narean.

Onakoxea da, aundi ta sakon, Arostegi'ren euskal olerkia. Erbestekoen lanak euskarara biurtzea berebiziko eztena jaku nobere sorpenak be gurentasunez jazteko.

Urtarrilla deritxonaren azken estrofa: «Urteak egingo dau gero / bere betiko bira, / eta guk negu biotzean / barrero asmauko dogu / urte-birak lortzen ez dauan / itxaropen izeribakoa».

## BEGOÑA SARDUI ENBEITA (1939 - 1981)

*Bizitza*.—1939'ko azaroaren 24'an jaio zan Areatza-Muxika'n, goizeko 9'tan Itziar'ekin bikia zala. Urrengo egunean ugutzatu eben San Bizente parrokan. Bere gurasoak Rufino ta Bingene, Zubipuntakoak. Iru urte gurasoakaz egiñik, zazpigaz Jaunartzea egin arte Bilbo'n bizi zan izeko-osabakaz, an bizi zala, ikasten, Erronda'ko mojen ikasketxera ibiillaz.

Eskolan ibilli zan Areatza'n Petra Etxeandia andreagaz; eskolatik urtenaz Astepe'ko «Textil»-ean asi zan lanean, fabrika au itxi zan arte. Gero Eibar'era neskame, eta Elgoibar'era, emen be Bar Gorbea'n neskametza egifik.

Umetan ba-zituaan Begoña'k grifa ta zaletasun bereziak: pelota-zale zan, txirringulari trebe eta aurrekulari ez exkasa. Santikurutz jaietan bein Jenara Itxupekoak eta biok pelotan partidua jokatu ta irabazi egin eban. Onelaxe beste askotan be.

Beste aldetik, Begoña'k, amabost-amasei urte ebazala, zaletasun itzela eukan bizikletara; Areatza orduan bizikleta utsa zan eta sprinetan apostuak egiten ziran, eta ifioiz Begoña jausiz, talinea izterretik sartu eta iru aste inguruan, eta ama konturatu barik, gorriak ikusi ebazan, ibilli ezifik eta egoen sartu barik.

Umezain egoalarik, a ta bestea, dantzan eta aurrekugifien ikusiaz ikusi eban berak be, bere lengusifia Beda Ajuria'rekin batera: nesken aurrekuak egiten eban, baiña mutillen moduan. Gero, moja egon zanean be, ilgo zan aurreko urtean be, Santikurutz jaietan, ekin eutson aurrekuari.

Itziar aren bikiaik ainbat kontu daukaz, gaztetakoak batez be. Eskola denporan, eskolako lanak egitea, bat ere ez eban gogoko. «Bera olgetan —diño Itziar'ek— eta ni eskolakoak egiten. Urren-go-egunean; arin, niri kopieta; eta bein, dibidendoa kopiatu eustan baiña dibisorra egitea aaztu ta... zelakoa artu eban. Petra andrea ona zan joten, eta jakiten eban Begoña'k artu bear ebazala; ez eutson ardura aundirik».

Ona beste biurrikeri bat anai-arreben artean sarri jazoten dana. «Beste baten —idazten daust Itziar'ek—, Karmele egoan ezkontzeko eta etorri zan egun batzuk pasatzera. Karmel'ek, ogeratu orduko, oge azpia, eta osteak, dana bergiratzan eban, eta bein ogean gengozala etorri zan, begiratu eban dana eta bakar-gelara joan zan. Begoña orduan, ogepean sartu zan, eta Karmele, etorri zanean, oge gainean jesarrita kaltzerdiak kentzeko asi zan; bata kentzeko, anka lurretik jaso ebanean, Begoña'k, ogepetik, bestetik ebatu eutson eta Karmele'ren txilioak eta arrapaladak eskilarak beera, ez eukien azken'k. Ama ta danak, gora, zer gertatzen ete zan... eta nun ikusten dodan Begoña ogepetik urtetan».

Benetan alaia zala, goi-deiak eragifik, moja joatea erabagi eban, eta joan orduko, Santikurutz jaietan, aurreku bat eskifik eutson auzoko lagun bati, agur moduan eta beretzat; axe izan zan aren azkenengo aurrekuak. Ba-eukan senargaia, baiña bera emen itxita Zumarraga'ko Mertzede-komentura joan zan 1961'ko Martiaren 21'an. Urte bi ta erdi egin ebazan an azi ta ezi; andik ondoren Santoña'ra, Militar Patronato'ra, militar semeen egoitzera. «La Roja» deitzen eutsen an. Zergaitik? Beña'ri amak karta guztiak euskeraz idazten eutsozan eta euskeraz etozanez nagusiak ezin ulertu.

Zelako istilluak! Erderaz idazteko esanaz idatzi eutson amari, eta amak erantzun: «Ez ekiala berak erderarik eta erderaz idatziko eutsozala ordurarteko moduan karta guztiak». Au ikus'rik, baiña emon eutson kartak euskeraz artzeko.

Santoña'tik Egea de los Caballeros'era; emen urte bi egon ondoren, Plazentzia'n iru bat illabete iagrotakoan, 1969'an Eibar'era, Zaarren egoitzera, emen emonik azkenengo amabi urteak. 1981'ko azatoaren 7'an il zan Astepe'n, Zornotza'n, amalau urtekin lan egin eban lantegiaren ondoan, auto-ixtripuz; berarekin baita il zan Sorkunde bere moja laguna, Dima'ko Indusikoa.

Itziar, Begoña'ren bikia, 1965'an Oar-Arteta'r Anasegaz ezkondu ta bere jaiotetxean bizi da. Lau seme-alaba izan ditu, Josu Xaber, Jon Ander, Igor ta Maider. Senarra ta seme bi (Josu Xaber eta Igor) il jakozan, oneik be ezbearrean.

*Olerkari.*—Lasterka doan urak gai asko daroaz zirimol, era berean giza-odolak be; besteak beste, bertsotarako trebetasuna zerbait beintzat odolean datorrela ezin daukegu uka. Enbeitarrak, gitxi-asko, danak ditugu bertsolari.

Moja joanda gero, Santoña'tik zoriondu nai izan eban bere aizta bikia. Amar zortziko nagusiko dira, «Santander»-tik titulupean «Zeruko Argia»-k argitaldu ebana. Bigarren estrofan bien bateo eguna dakar gogora, au esanik:

Miren Itziar eta Begoña  
zituezan aukertu,  
izen onekin eleizaldian  
ginduezan bateatu.

Gero ikastolara, baiña ikasteko «pixkat alperrak» diño. Lorei-  
llaren 22 aurkeratu eben lenengoz Jaunartzeko. Osox dotore  
jantzi ziran. Olerkariak onela:

Bilbo aldian egon leiteken  
jostun onenak egiña,  
gure aitamak dotore jazten  
egin eben alegiña.

Ondoren, urteak irauliz, lekaike Zumarraga'ra; ango urteak  
eta Santoña'koak, alai ta langille igaroak. Gazte da, baiña giza-  
urteak bizkor doaz, eta Begoiak onan gogorazten bere bikiari:

Eguzki argia illunduteko  
eguna da etorriko  
illargi eta izar ederrak  
ez dira, Itziar, betiko.

1960'tik 1972'ra unez une diardz bertotan. Familiko eta eza-  
gumai batez be zorionak emoten; ez da nekatzen orretan. Eibar'ko  
Zaarren jaian arildu eban au:

Gorputz ta arima bat egiñikan  
hemen gara gaur aurkitzen,  
gure Zaar danok merezi daben  
jai eder oneek ospatzen.  
Mundu ontako egunak laister  
danontzat dira pasatzen;  
onen ondoren, zer dago, Jauna?  
sarritan dogu galdetzen.

Nola gazte izan, ala zartzaro,  
nola bizitza ala hil;  
esaera zar onen barruan  
gizon izakera dabil.  
Azken urte ontan, maitasunean,  
jokatu dezagun abil,  
azken saritzat zeru ederra  
guretzako izan dedin.

Era ontakoak ditu ainbat kopla eder, zarnai gairiz josiak, beti  
pozkor, beti bizi; jai bat, moja bat goratuz, urtebetze bat gai  
duala. Areatza goratzen dau, Zumarraga, Santoña, Eibar goratzen  
dau. Eta orretan ekiola, guk nai baiño leen, Jaunak eroan euskun  
berera.

## FERMIN IRAOLAGOITIA MENDIBE

(1940 - .....)

Askok gaur, tamalez, aintzat artu nai ezta be, Euskalerriko  
apaiztegi ta prailletegiak, beste ikasguak ez lakoxe ona egin eutsoen  
gure izkuntzari; or doguz lekuko, orain Euzko Jaurlaritzan, Foru-  
Aldundietan eta abar, zer-edo-zeren kargudun diranak —asi kon-  
tetan! — ia geien-geienak olako eleiz-ikastetxeetan azi, ezi te es  
kolatuak dira. Lorategi orreitatik'erne ta urtenak dira gaur-egun  
zenbait diran euskal idazle ta olerkariak.

Gero, oneitatik be, bizitzearen eskabidez, gaztetako ernemin  
beretzkoari kasu larregi egin ezta be, or daukagu gauzea. Aita  
Fermin, pasiotarra, orreitako bat dozu. Olerkari, ain zuzen. 1964'-  
garren urterantza... Urretxua'n, Pasiotar okasle gazteak «Laiake-  
tan» eritxon barne-aldizaria ateraten eben, lan sakon biziz ma-  
mindua ta azalez ederto apaindua. Itz-lauz eta bertsoz saiatzen  
ziran gazte areik.

Etxebarria'koa dogu Aita Fermin, an bai zan jaiio 1940-4-18'an.  
Aspaldiko urteetan Euba'n bizi da, eta azken urteotan «Lauaxeta»  
ikastolako oizko zuzendari. Bere bizia olerkitsu izanik be, olerki-  
gintzarako gaur eztau astirik. Gaztetan bai, ostera. Garai atan on-  
dutako neurtitzez iru bat ingurrazti daukaz argitaratzeko. Emen  
damotzudan au «Laiaketan» 13'garren zenbakitik artua dozu.

GAXORIK!!

—Neure lengusuari,  
Adiskide opari,  
Praille-karrera amaitzean  
Gaxoak jota ikustean—.



Gaztetasun-giñezka,  
Ta ezer ez bakarrik,  
Gaxoak jota nauka...  
Ez dago arkamenik  
Gaztea izanagaitik.

Arerio baltzak ots  
Begien aurrean...  
Ikusten aut, eriotz,  
Itai-zorrotz,  
Ba-ator niregan.

Gutziz auldata,  
Indargabetuta;  
Prest naukak  
Maitasun-egotan  
Egiteko egan.

Eriotz-sega!  
Ator nai dokanean.  
Ogei ta lau urte,  
Ez yoat besterikan.  
Ator, ator, nai dokanean  
Obe ainbat eta lenago izan.

Garaipan bille nabilk.  
Ator, irè billa nabilk.  
Zartzaroan ez daukak  
Nigan zer mozturi.  
Biziten ikasi  
Aurretik,  
Ezer erakutsi  
Aurretik,  
Dagidan ikusi  
Aurretik...

Baiben esks asi orduko,  
Abadegintza iritxi orduko,  
Biotz-bùrrukan garaipena  
Ikusi orduko,  
Nekaldiaren aberastasuna  
Jaso orduko.

Bizitaixilla,  
Bizitza gaztea,  
Nekez betea...

Emen aut...  
Irunsi gurarik,  
Larros-bizitza  
Zabaldu aurretik,  
Maite-egoak  
Urten aurretik.

Emen aut...  
Artu nauk erpe artean...  
Iltzer zotifietan...

Ez yoat bildurrik. Ez noiak igeska.  
Maitasun-garraz Jaunagan oldarka.  
Eriotz baltz, azur-uts!  
Emen aut noz joko alboan,  
Makatz zorrotaz eskuan.

Baenki zer dakarkadan!  
Negarrak legortu,  
Zorionez asetu...

Geriza lezigaroko az,  
Lurruna lez ezereztu;  
Tximistaren bizkortasunaz  
Beste mundura bialdu.

Gogoa poztu yatak barrendik;  
Zain nengoan aspalditik...

Zure besoetan, Jauna,  
Artizu nire gogoa.

## LUIS BARAIAZARRA

(1940 - .....)

Beti jaku pozgarri literatura barrutian idazle barri baten agerpena, olerkari bada askoz geiago. Eta oraingo au, Luis Baraiazarra, karmeldarra, aurtien, edo oraingoz, Eusko Jaurlaritzaren «Lizardi» saria eskuratu dauana dozu. Beraz, naiz-ta leendik be eza-gun-izan, izar dizditsu bat daukagu aurrerantzean gure literatur ortzian. Dakusgun labur berau nor dan eta zer burutu dauan euskal idazle legez.

Mungia ta Sollube azpiko erritxoak ez dira urri ta exkasak euskal idazlez. Ortze Sollube apiko Meñaka'n jaioa dogu Luis Baraiazarra, 1940'ko epaillaren 17'an. Bere-erriko eskoldan osotu zituan, beste edozeinek lez, leen-ikasketak, gazte argi zolia etorren, eta andik azkar ebillen praille batek, orren sotil Luis ikusirik, karmeldar Ordenarako deia iragarri eutson samur-samur, eta gaztetxoa dei orri erantzunaz ez da egundo damutu izan, beste ainbat damatu izan diran antzera.

Zornotza'n eliz-ikasteak asi, sarbarri urtea Larra'n egin eta Gasteiz eta Begoña'n karrera amaturik, 1966'ko epaillaren 12'an apaiztu zan Begoña'n. Arrezkero guztian, Larrea'n egin ebazan ille batzuk kenduta, Markiña'n dago Karmen-elizako arazoetan laguntzen eta Mertzedeiko Ikastetxean irakasle.

Bere ikasketak zabalago ta sakonagotu nairik, maisukuntza osotu eban Irun'en, 1971'tik 1972'ra, Eliz-titulua Irun'ga Lasailletarren Ikastetxean eta Estaduarena Valladolid'en aterarik. Orain-tsu, 1977-78 - 1981-82, Euskal Filologia osatu izan dau. Denporarekin burrukan ibilli bearra dagokio, umetxoei irakasten sei ordu egunero, Deustu'n Filologia ikasten iru ordu ta erdi eta joan-etorrian beste denpora mordo bat emonez, baiña naimen sendoak ezina be garaitu egin oi dausku. Orrelaxe Aita Luis'ek be.

Orrez gain itzaldiak egiten ditu, etxean eta kanpoan; igaz esate baterako, emen Larrea'n berak aldarrikatu eban Karmen'go Amaren bederatzurrrena. Artikuluak idazten ditu «Zeruko Argia»-n, «Karmel»-en eta «Olerti»-n. «Karmel»-en ia zenbaki guztietan idatzen dau, azken urteotan «Arbasoen Lorratzean» izenpean ainbat lan eskini dauskuz «euskal ohiturez eta lehenaren

oihartzuna jaso eta adierazi nahairik». Leenago eziketa gaiak erabilli zituen, bizibidez irakasle dalarik, orretan esperientzi pizkat ba-ebala-ta, «Olerti»-n olerki politak daukaz, eta «Zeruko Argia»-ra ainbat lan bialdu ebazan, geienetan Markiñaldeko albisteak. Bilbo Erri Irratiak be izan dau Aita Luis'en laguntza, Markiñaldeko barri-emoille urte batzuetan izan bait zan.

Itzulpenak egin dauskuz, «Kili-kili» komikako arloan. Biata itzuli eban eta argitaratu, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babesean, «Salbabide eta Laguntza», erderaz «Salvamento y Socorrismo» deritxona. Testu bezela, O.H.O.-ean erabilteko Euskal-Erriaren Kondairarik ez egoala ikusiaz, berak osotu eban, naizta izerditan, lan polita eta «Gero»-k argitaratu eutson iburu bitan, «kimu» saillean. Laburpen bat da berau, baiña orduan egoan utsunea betetera etorren.

Tesiña egitekotan diardu orain: «Bartolome Madariaga'ren euskera ta orain Markiñaldean egiten danaren konparaketa» izan-go da gaia. Ez da, ba, geldi egoteko gure mañakarra, Euskal Filologian Deustu'ko Unibertsidadetik lizentziadun danez gero; euskal literaturari lotuagi ta kezkatuago bizi jaku.

Olerkari dogu Aita Luis, odolez, izaeraz, etorri. Senditik datorkio itxura denez doe ori, beronen areba bat be «Karmel»-en ainbat bertso-lan emona dogu-ta.

Urteak dirala asi zan umeentzat poematxoak biribiltzen Gabonetan eta ospakizun berezietan jende aurrean kantatzeko. Benetako poesiak idazten alan be Filologia ikasten ebillela asi jakun. Berak onela: «Hor literatura-gaiak ere aztertzen direnez gero, ia ustegabeen hasi nintzen poesigintzan eta ipuigintzan, baina poesigintza batez ere. Mikel Zarate zenak bultzatu ninduen. Hura, literatura-antologiaren bat moldatu nahirik edo zebilen eta harako zerbait eskatu niri eta esku-hutsik agertu beharraren zatzadak eta lotsak eragin ninduten menturatzeraz».

Ordutik asi zan egiaz Musak maitatzen, palagu ta aozurikeri goxoak egifik asi be; 1980'an «Lauaxeta» sarian esku artzera bizkortu zan, Laukiz'en, eta bigarren geratu jakun; ondoren, Iparagirre'ren mende-urrenean, lenengo saria jaso eban; 1982'an, Ondarru'ko Lore Jokuetan, bigarren saria, eta igazko Markiña'ko Lore Jokuetan irabazle; urte onetan bialdu ebazan lanak toki

geiagoetara be, baiña ez eban saririk eskuratu. Berak onan autoren dausku: «Igazku urtea ez zen ona izan: Euskaltzaindiak bi urtetarik behin antolatu ohi duen «Arrase-Beitia» poesi-sariketara eta «Donostia Hiria» ipuin-sariketara aurkeztu arren, ez nuen ezer eskuratu».

Baiña aurten «Bakardadeko Bertso Ezpalak» deritxan lanaren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren «Lizardi» saria irabazi dausku. Zorionak, olerkari ta anai gisa!

Egitura edo azaleko itxura aldetik, erriari begira egiñak dira, ez gooregi ez beeregi, erdiko senez baiño. Neurriari eta errimari, eta barneko igiera edo ritmuari leku zabala emon dautse Aita Baraiazarra'k; danak dagoz ondo neurtuak eta azkenoskidetuak. Eta modu oneri batzuk klasikua deritxe. Nik itandu neutsonen, «zergaitik egin dozu olan?», berak erantzun eustan: «Olerkiak olerki izateko neurria, igiera ta amai errimatua bear ditulako». Pentsamentuak eta sentimentuak, ederto; baiña iru doe areik jatten ei dabez dotore giar, oneik. Ba-dakizue, beraz, olerkari askezaleok, erre-zaleok.

Lizardi'ren jarraile izanik be, erri literatuaren bideetatik joanai dau meñakar olerkari fiñak. Saria eskuratu dautson txorta onetatik geienak bide orretatik, kantari doala, egiñak doguz; batzuk bertsolarien antzera. «Laratz ondoko koplak» izenekoa, adibidez. Erri-poesia, izan be, ez dogu inoiz albora itxi bar; guk be, ez dakit zergaitik erdi-saiets lagata daukagun arren, munduko literatura zabaleko olerkaririk onenak, azkenean erri-literaturara jo izan dabe euren oldozkun eta biotz-zirrarak adierazteko. Erri bakotxak, gaiñera, modu berezia dau bere arima azaltzeko. Eta modu orretatik iges egiñaz lañoetatik dabillanak utsal-bidez jokatzen dauala esan beariko.

Nik esanakaitik or zagoz zur, irakurle, zelako olerkari dogun jakin-naian. Nolakoa dan argi dirauskuen bost-aapaldiok emen dituzu; irakur eta zeuk esan. «Gelan» deritxonetik artuak dira.

«Gela barnean nago ametsen  
neure gelatxo txiki txokoan,  
horma sendodun kabi batxian  
gatzelu honen amets-kokoan  
buru-laneko saio hertsian.

Leiho-meharrak kanpoko mugan  
laukiek mutu horman zintzilik,  
ate itxia bake-jagole  
ene lagunak beti ixilik,  
irudimena musika-jole.

Toki barnekoi, kabitxo maite,  
eguneroko testigu kutun,  
bakar-laneko bazter eratsu  
batzutan alai bestetan itun,  
beti niretzat lagun txeratsu.

Bakardadeko lanegi goxo,  
hortxe naukazu poza xurgatzen;  
hor egiten dut lana, hor amets;  
malkoak ere hortxe txukatzen...

Zure berotan badut nik babes,  
gelatxo txiki, horma zaharduna,  
zure itzalpean aurrera doa  
eguneroko ene jarduna.

Onakoetan sarri agertu oi jatuz izparkeri maltzurak, eta Ba-raizarra'ri be, zera itandu eutsoen saria jaso ebanen, ea bere burua euskal olerkeri ospetsuetariko gaillurrean ikusten eban. Eta erantzuna: bera karmeldar dala, apaitasunaz jantzia, egi-bidetik dabillena. Bera da dana, sari batgaitik arrotzen ez dana. Berak aurrera jarraituko dau euskera lantzen, euskeraz idazten, euskeraz erakusten... Gure izkuntza, izan be, guztion lan-premiñan aurkitzen baita.

#### LOKATZETIK BIRSORTUKO DA

(«Lizardi» saria lortu eban olerkia)

Euria, tximista, trumoi,  
betoskoz jantzirik da goia;  
zeru-zola burrunbadaka,  
tximista-geziz grakadaka.  
Bestetako oihal urdina  
herio-mehatxuz gordina,  
milaka zatitan urratuz  
goiak behean hots amorratuz.

Oporraldiko jai-giroan  
bero ohi den aro eroan  
festa orduko uda-udan  
hau tristura! Zer gertatu dan!  
ABUZTUAK HOGETASEI  
fetxa honi ez jakin nola dei!  
Lan eskergaitzaren herentzi  
uholde ankerrak irentsi.

Dena ezinaren ezina  
ondamendiaren samina  
urek dena trumilka bilduz  
lur-zintzurretatik amilduz  
guztia hautsiz atzaparka  
hor zehar utsiz lokatz-marka...  
horra tristurazko trixkantza!  
Badu honek gerraren antza.

Baina urek ez dute hesirik  
ez eta itxitura hertsirik,  
indar hezigaitzez oldartsu  
abiada zoroan itsu;  
bebarruko zokondoetan  
lur-orpo sakon ondoetan  
baren indarra erakutsiz  
bide ertzean negarra utziz.

Noragabe uren ahoan  
lokatzeko zurrunbiloan  
bizirik jaso dute ama.  
Hura zan, baina, hura drama! :  
hiru seme eraman ditu,  
urak brastadaka txikitu;  
berez bizigarri den ura  
eraile zakar bihurtu da.

Atzo bare ziren zeharo;  
orain, berriz, zoramen aro.  
Urak kalera irten dira...  
zorigaitzeko kalegira!  
errotik dena erazirik  
bere erraietan egosirik  
zalaparta horrokarian  
sartu da basa-ihauterian.

Aurrera basa-ihauterian  
bazterrak utziz miserian.  
Ama bat dago han begira  
goibel, zulo beltzen erdira  
zulo hartan ehortzi baita  
berak gehien zuena maita.  
«Ez dut hitzik; hortxe da dena»  
-lurra seinalatuz—, Hau pena!!

Lurra seinalatuz- Hau pena!!  
hamaika bihotzen aubena.  
Ondamendi biharamona;  
haurrak dardar, triste amona,  
ondakin-zakar multzo itsusi  
ezin da besterik ikusi;  
horra hor trixkantzaren lorratz,  
etorkizuneko ordu garratz!!

Hau etorkizunaren garratz  
eta ikuskisunaren narratz!  
Euskal bihotza da mingostu  
umorezko sena izoztu.  
Hoberena lurak irentsi,  
baina zuk, Euskadi, ez etxi!  
gaurko lana biharko lore  
herri batuaren ohore.

Herri batuaren ohore  
lanari darion birlore,  
lokatzetatik erneko da  
Euskal Herri, azpitik gora  
itxaropenaren hegotan  
izerdi-jario berotan;  
oraingo ondamendi larria  
geroko poztasun-irria.

## JOSEBA IMANOL ETXEITA (1842 - 1916)

Euskal literaturan ez dautso Etxeita'ri zoriak irri gozorik era-  
kutsi; bizkaitar idazle galanta izan arren, ez dautsogu ospe geie-  
girik emon. Ona oker bi parka eziña. Nik neure *Euskal Literatura*  
osotzean ez neban bertan sartu, ez dakit zergaitik. Nire ondorengo  
Aufiamendi'k ez dau aitatzen: lenengoaren utsa bigarrenak be  
onartu ete? Eta oraingo onetan, Etxeita olerkari polita dalarik be,  
konturatu barik iges egin eustan lenengotan.

Baifia bego emen, samurkiro, bere gomuta.

Mundaka'n jaiotako Etxeita 1842'ko abenduaren 13'an eta il  
be bertan il zan 1915'ko epaillaren lenengoan. Nautika ikasketak  
egin zituan, Eta gero, luzaro, Ameriketara eta Manila'n bizi izan  
zan, eta azkenez, utte gozoetan, Mundaka'n bere itxas-ertzeko jau-  
retxe apaifian.

Gizaseme atsegina zan, bere idaztietatik agiri danez. Ur naiz  
lur, bere garaiko euskal literatura giroari jarraituz, ainbat gauza  
idatzi ebazan euskara errez jatorrean. Baserri giroa ei darioe aren  
idatziak. Eta zer zan orduan euskal erria? Habana, Filipinas eta  
ibilli izan zan lekuetako oiturari ta gauzai buruz idatziko ete eus-  
kun? Eta klerikalasunik? Upelka, antza danez. Nik, alan be, garai  
a naiago gaurkoa baiño, une askotik begira.

Orduko egunkari ta aldizkarietan idatzi eban: «Euskadi»,  
«Gaungoiko-Zale», «La Gaceta del Norte», «Euskal Esnalea» ta  
«Euskalerrriaren Alde»-n batez be. Iru liburu argitaratu euskuzan:  
1) *Au, ori eta bestea* (Durango, 1913). Olerki sorta; 2) *Jaioterri*  
*Maitia* (Durango, 1910), eta 3) *Jose txo* (Durango, 1909), bigarre-  
nez be «Sutondoan» liburu sortak, 1982'an argitaratu emona.

Erdel joskerakadak ditularik be, errez-atseginez irakurten dogu  
Etxeita. Biotz aundia erakusten dausku.

Olerkari logez, nik beti txalotu izan dot. Eta bere sei (*Bizi bei*  
*euskera, Maitetasunak, Maitetasun galduak, Itxasua, Menditarra*  
*ta Eskekua*) emon nebazan MEDE'n, Ona *Bizi bei euskera*:

Euskeraz entzun nebán jaio nintzanean,  
Anboto mendiaren beko barrenean;  
Euskeraz dantautz beti nik orain artean,  
eta daukat sartuta neure biotzean.

Beti dot guztiz laztan euskera geuria;  
nun idoro leiteke berbeta obia?  
niretzat izaten da eztizko berbia;  
esaten dodanean; Amatxu maitia!

Euskaldunen artean berbeta gozua;  
asabak itxitako kutun-kutuntxua;  
baita biotzetako pozgarria osua;  
esaten dogunean. Neure laztantxua!

Euskera ilgo dala uste dodanean,  
zer da jazoten dana nire biotzean?  
Ikara ta minbera, arnasa artzan,  
Guztiz makalduten naz ni osasunean.

Amatxuk esan eustan, ilgo zan aurrian:  
Agur, alaba laztana, laster naz lurpian!  
Euskeraz otoi egin nire lur ganian;  
euskeraz nai dot entzun, ilda nagonian.

Ama! —erantzun neutsan— zure lur ganean  
belauniko jarrita otoi egitean,  
euskeraz diardukot, goiz ta arratsaldean,  
biok zagozelako nire biotzean.

Euskeraz nai dot ekin pozez ta bakian,  
neure nailbagietan, zein zorionian.  
Biotza sendatzeko miñez dagonian,  
iraun bedi betiko gure erri maitian.

Sendatu beite, bada, euskeraz laztana,  
amatxuren altzoan ikasi nebana.  
Pozgarrizko berbeta maitatzen dodana,  
biotz minberatua sendatzen daustana.

Ekin, bada, euskeraz, euskotar maitiak,  
jarraitu dagiguzan asaben bidia.  
Erbestian eztagoz ekandu obiak,  
bake ta pozgarrizko zerutar legiak.

## ANTONIO BILBAO MONASTERIO (1937 - ...)

Morga'n jaio zan 1937-3-22'an, Ganbe auzunean.

Umetatik ondo ekian euskera, landu eta obetu egiten saiatu  
jatzu urteetan zear. Idazle zurrian, trebetasun aundiz diardua,  
diardunean. Oraintsu, 1975'an, eskifit euskun liburu txiki poet  
bat: «Pentsakizuna»; 114 irrialde eta 571 pentsakizun ditu li-  
buruxka orrek.

Euskaltzaindiko urgazle dozu. Eta «Arantzazu», «Euskera»,  
«Zeruko Argia», «Egan» eta ohako aldizkarietan lankide izan da.

1959'an, Loramendi'ren omenezko jaiak Bedoña'n; ango poesi  
sariketan, beronek bialdutako «Izar ta Odei» olerkiak dedu-aipa-  
mena izan eban.

1962'an eta urrenengoan, «Lizardi-Saria» berak eroan eban  
«Iribarre ta lore» olerkiaz. Eta 1964'an, Ondarrua'n Txomin  
Agirre'ren omenez ospatu zan Lore-Jokoetakoa berak jaso eban.

Ona «Iribarre ta lore» deritxon lanetik zatitxo bat, «Eus-  
kera», 347'gn. orrialdean datorrena.

Arimaren arnas bat lez  
urteten deust txistuak aotik.

Txistu egingo dot, zeren besterik eztakit:  
eztakit ezer be. Maitasuna  
zer dan,  
zer dan  
alegrantzia, errealidadea, egia batez be;  
eztaukaala zer eginik esan euste  
eta ezin dot sinistu:

Txistu onen doinua galduko da,  
edo galtzan doa edo badoa,  
Iñoren biotza ikutuko dauanentz eztakit.  
Ta iñoren biotzean oihar ez egiteko  
alperrik dagit txistu.

Baina bardin da.  
 Ezta!  
 Batzuetan, oraintxe,  
 erantzi nai neukez gauzak  
 ikusteko zer daben barruan.  
 Batzuetan, oraintxe, erantzi nai neuke  
 neure soinekoa, edo burua.

## AGUSTIN ENBEITA

— KEPA-TXIKI —

Ona beste Enbeita sandiko olerkari bat, gaztetan lan dotoreak opildu euskuzuna: Agustín Enbeita Areatza-Zabale baserrikoa, Balendin bertsolari bikainaren semea.

Leen ikasteak bere jaiotz-errian osotu ondoren Foru'n eta Arantzazu'n amaitu ebazan Filosofi ta Teologiari buruzkoak.

Garai artan Aloña'ko aitz-arte panpoxean azaltzen zan «Jakín» aldizkariaren asi zan idazten, nainoiz bere barne garra eriola bere sorpenetan, bertsoz eta itz-lauz.

Maita eban Larrea —orduan eta gaur— eta inoiz eroan mingun ara ango ikasle gaztea itzaldiaren bat emoten. Orduan edo, asi jakun nire «Olerti» aldizkarian bere olerkiak azaltzen. Or daukaguz beintzat, 1963'garrenearen azkenerentzat ak ondutako oler-lan zentzuundunak. Ona bat «Bost maitasun kopia» deritxona.

I  
 Ezkongai ziranean  
 maitasunaren izena  
 eurakin egoan,  
 egun aretan biak  
 ziran zorionean.  
 Pitxi eder polita  
 eukan neskatzak  
 bular gainean  
 dotore jarrita.  
 Larrosa bat zan

txarmangarria;  
 erantzarik eukanik  
 etzan konturatzen  
 mutillagan pentsatzen.

Gaur arri-gaztelu bi  
 orra lorra jota.  
 Pitxi txarmangarria,  
 larrosa gorria,  
 orri guztiak hurrera eroria  
 Olaxe da bizitza:  
 desengaitu garratza.

## II

Goizaldeko  
 argi erdi illunak  
 zeru barea urratzean  
 nora doa aín arin  
 zelaiak zear  
 nere maitea?  
 Artzain neska antzera  
 mendi jantzia daroa,  
 esku batean pegarra  
 bestean loretxo bat,  
 zirimiritan diz-diz  
 oso polito moñoa.  
 Eguzkiak argi osoa  
 zabaltzean,  
 ispillu eder bat dirudi  
 bere aurpegiak,  
 ezpainak lirio usainá,  
 ezbia gorputz osoa.

Artzain neskatoa,  
 nere baratzean dituzu  
 nai aína lartosa;  
 orde z emaidazu  
 ur garbi preskoa,  
 baiña biotzekoa.

## III

Arin arin,  
 txukun txukun,  
 aingenuen pareko,  
 neskato bat ikusten dut  
 goizean goizean  
 iturrira bidean.  
 Baiña gaur triste doa,  
 goibel neskatoa.  
 Ez doa ur billa,  
 ez lorak biltzen,  
 ez mitxeleten atzean:

kilikilien bat  
 nunbait biotzea.

Iturriaren indora  
 aingeru bat ager zen zan  
 neskatoakin itz egitera.  
 Uxo bikotxak balira lez  
 egiten eben itz eta ames.  
 Aingeruak etzirudin zerukoa  
 eta neskatoa... lurrekoa.

Baiña gaur triste doa,  
 goibel neskatoa;  
 aspalditxoan ez da entzuten  
 aingeruaren barbaroa.  
 Gazteak alkarren atzean  
 kilikiliak biotzean  
 gaur alai, biar triste  
 ba-da munduan amaika naste.

## IV

Gabaren erdiko  
 izar begirari  
 eta marmalari...  
 Zuen aspaldiko ipuiak,  
 argi-ipui ixillak,  
 ai! ez dira misterio  
 nere biotzarentzat.  
 Zuen izketa eta koplak  
 maitearen aurpegian  
 ikasi ditut danak.  
 Gauero naukazue begira  
 zuen argi dardaraz  
 nere begiak ase arte.  
 Maiteagan pentsatzearren  
 zaituet begiratzen,  
 eta Zuei begira  
 bera daustazue gogoratzen.  
 Orregaitik gau ixillean  
 sarni zaituet begiratzen.

V

Adiskide maite,  
negarrez zagoz!  
Egizu, bai, negar  
ixil illunean.

Adoratzen dogun  
maitea iltzean,  
ai! pena siku!  
biotz erdia  
ilten yaku.

Adiskide apal bat

bestarik ez nozu,  
baiña itxi egidazu  
negarrean laguntzen.

Negarrean laguntzen  
eta illobi gainean  
otoi egiten,  
eta  
malko bat,  
lazten bigun bat,  
larrosa bat jartzten.

Itxi egidazu negar egiten.

JABIER AMURIZA ZARRAONAINDIA

(1941 - .....)

Birritan Euskalerriko bertsolari txapeldun izana, Etxano eleizateko Torreburu basetxean jaio zan 1941-5-3'an. Gaztetxotan eleizteia entzun edo-ta entzun-erasorik, eleiz-ikasketak burutu zituan Derio'ko Seminarioan. Eres-zalea izanik, gaur eleizetan abesten diran ainbat doiñu ta letra, beronek asmautakoak dira. Etxano'n emon eban meza barria, ospetsuki, gero Gizaburuaga, Amoroto eta abar, arima-zaintza egini. Gorabera batzuk zirala-ta Zamora'n apaiz-kartzelan egon ziranen artekoa.

Geroztik bertsolaritzara emona dogu. Abots zoli ederra dau, eta bertsoarako erreztasun eragin oparokoa. Bertsolari jardunez gertaturiko jazokun asko daukaz gogoangarri; ona bat gaur liburu bat irakurri, aurrera datorkidana. Ormaiztegi'n ziarduan bein bertsoan, eta amaitzera joiala, or trena zarata utsean; gogoan eukan agurra itxi ta beste au abestu eban:

«Hau da sustoa hartu dudana,  
agurra bota behar-ta,  
pentsatzea ere nola liteken  
hainbesteko zalaparta!

Bizkai aldean kontatuko dut:  
Hura milagro aparta!  
Nola bizirik gelditu ginen  
trena gainetik pasata».

Olerkari dogu sortzez eta ikas'z, beti eder-gai artean murgildua. Ingurumari ditugun ederrak jaso ta azaltzen dakiana. Izadiko eder-liburuz zorutzen dana; barne-muñiarj dardar eragifrik, ondar-ondarrean ain zuzen, poesi jatorra sortzen alegintzen dana.

Itz-neurturik asko daukaz or-emenka ereinik. «Olerti» sortu nebanetik asi zan laguntzen. Lenngo zombakien dakar (1959) gogo-samiña erakusten dauan «Zerbait» poematxoa.

Itun-itunik nago.  
Barre baiño gurago  
dot negar eitea.  
Zerbait dodalakoan  
nago aspaldi ontan.  
Galdu dot bakea.

Indarrrik ez soñean:  
natzan lo gerizpean.  
Ez dot adorerik  
ezetarako; guztiz  
asperturik yat bizitz  
au. Zerbait ba-dot nik.

Miñez daukot biotza,  
kemenik barik, otza;  
ez dau ezer maite.  
Onduko al naz albait  
ariñen! Baiña... zerbait  
ba-dot nik. Zer ete?

Norbere burua ezagutzea, bai eder!, jausirik aurkitzean atan be. Andik iru urtera beste au bialdu eustan, beste askoren urrenez-urren:

NIREAK

Oso nireak zarielako  
maite zaituet biotzez.  
Guztiz zuena naz-eta, maite  
zaituet odol txit gaztez.

Unte bi dira Anoeta'ko nor-geiagoko ospatu zala. An nintzan ni ere. Bertan kendu eutsoen lendik buru-egin ekarren txapela. Ekaitz edo truzua urreratzean, beti izan oi zantzu berezia. An be ba-zan olako zerbait: danak ez etozan bat, eta zazpi oalak egiten ebiltzen ortarako: igerten zan. Beraz, punturen baten uts-egin ebala-ta, erauzi eutsoen garai-txapela.

Euskaltzaindiko urgazle da. Asko idatzi dau, «Anaitasuna», «Zeruko Argia», «Argia» eta abar; gaur «Egin»-en irakurri zein-kez bere lanak.

Ba-ditu liburuak be. Ona sail bat:

- *Bai mundu barria* (1971); itzulpena dozu, Aldous Huxley'ren «Brave new world». Eta beste bat.
  - *Euskal aurizkiak* (1974).
  - *Menditik mundura*, bertso liburua (1977).
  - *Oinak* (1981).
  - *Hiztegi errimatua* (1982).
  - *Zu ere bertsolari* (1982).
  - *Herri eta irri* (1983).
  - *Hil ala bizi*, elebarria (1983).
  - *Orokenderrieta*, elebarria (1984).
- Eta abar.

Azken urteotan, eskola ta ikastoletan, neska-mutikoai bertsolaritza irakasten ibilli jaku. Urduri ta artega, nun-nai ta beti, euskerearen onez.

#### ABEL MUNIATEGI (1942 - .....)

Ereño'n munduratu zan 1942-9-30'an. Bertako eskolan osotu ebazan lenengo ikasketak. Deustu'n ikasi eban gero Eskugoa. Gaztetan asi jakun euskeraz idazten, ets «Aranzazu»-n, «Goiz-Argia»-n eta «Karmel»-en agertzen dira bere euskal lanak.

Eusko ekonomi ta kulturari buruzko itzaldia sari emon ditu errietan; baita bertso-saioetan bertsolariak zuzen-azo ta sutu be ez

gitxitan. Olerkari zelaian be egin daukuz berez artaziak. G. Aresti il ondoren, aren omenez liburuxka bat, gaurko euskal poeten sorpenakaz ornidua, argitaratu zanean, idazti txukun orretan dator Abel Muniategi'ren urtengo lan sentikor au be, «Hil da...» deritxona.

Hil da Gabriel Aresti,  
borrokari ta amesti.  
Beste mundura ihes egin du  
bere mailu eta guzti.

Egun sentian zotinak  
zurrumbiloan sorginak.  
Goizean goizik mailu hotsa du  
Aresti gure harginak.

Eskuan mailu berria  
landu nahiaz Harria,  
Kantauriako itsas ertzean  
gure asabek jarria.

Hargintzan ofizioa  
harrizko afizioa,  
Harri landutan egin nahirik  
Euskaldun Palazioa.

Trumoi eta hodei beltzak,  
Nun dira jolas eta dantzak?  
Zizel ta mailu landu beharra  
Harri zaharraren ertzak.

Gaur lehertu da lanean,  
Herriaren barrenean,  
Euskal Herria borobiltzeko  
enpeinu ta afanean.

Hil da Gabriel Aresti,  
borrokari ta amesti,  
bere lurrean bizi ezinik,  
mingots, garratz eta ezti.

Bai borrokari bai amesti, il bearra. Au orain, geroa. Ildo arruntez oiñez egin nai ezta, Fichte'k iñoan izatea beronen irrirtsa zala, eta Heidegger'ek izatea ta beronen al-izateak bat etozala. Erio aurrean, alan be, ixillik bego gizona.

#### JUAN RAMON MADARIAGA

Begonia'n jaioa; igaz oraindik; ni ere epai-maiko nintzala, Bizkaiko Foru Aldundiaren olerki-dariketean, 1988'an, len-saria eskuratu ebana, «Imentzioaren pergamuak» lanez eta aurtan, (1989), olerkiok liburuxka baten argitaratu dituna.



Egilleak itzaurrean onan: «Liburuak dauzkan ideiak eta uste-gabeak beraz, mork bere gisa aurkitu eta moldatu behar dituzke. Ni ohizko gaietaz mintzo naiz: bizi-az, amodioaz, heriotzeaz eta bereziki naturaz, hauek baitira idazlearen odola eta eidola». Gaurko poetak ixil-esan, erdi-adierazo, eta gozotasuna sartu egin bear ei dau, gaiñerakoa irakurleak burutu dagian, irakur-ala gaiaren barneaiño sartu ta olerkiak dauan muñietik ezti-eztiro akats egiñik.

62 orrialde ditu liburuak, eta 45 olerki, geienak liburtxoak, neke barik irakurri ta miatzkatzen diranak. Ona olako bat:

### NI BEZAIN GALDURIK

Elurtzan nago galdurik  
antsiagarra dizdizari eta  
ortzia garbirik.

Belatze bat zara-zara  
ene aurretik hegaldaka;  
gibelerat so egin dit  
eta abarreketan trabukatu da.

Orain elurretan datza,  
tristezi-az mintzatuz,  
zuritasun honen zioa ezagutzeke,  
ni bezain galdurik.

Gaur, iraillaren 14'an «Eguna» irakurri dot; Ana Santa Kruz'-ek, 25'garren orrialdean, olerki liburu onetaz diardu. Zelan ari ete da olerkaria bere lantxoak ariltzean? Eta J. R. Madariaga'k: «Olerkiak idazteak badu egoera animikoarekiarekin zer-ikusirik, baina nire kasuan, orain olerki triste bat idazten dut, orain olerki alai bat. Illunabarrak, neguko arratsalde beltzak ez du beti tristezia adierazten, izarrez betetako gau argiak ez du beti maitasuna bururatzen».

Gaztea dogu bilbotar olerkari au. Euskal filogia amaitu barri dau. Eta orain burutan darabilen elburu nagusia, besteak beste,

euskera sakontzea; literatura ikasi eta erakutsi. «Zoriontsu bizi-tzeko gogoia dut —diño—; ikasteko gogoia, autore klasikoak irakurri eta gizakiaren sentikendu zaharrak paperean idazteko irrikaz bizi naiz».

Euskera ona ete olerkigintzarako? Ar gogotan. «Euskara —diño— hizkuntza goxoa da, sentimenduak adierazteko erdara baino egokiagoa. Euskarazko hitz bakoitza musikalitatez beteta dago. Erdarazko olerki bat irakurtzerakoan orohar ulertu behar duzu, oroharreko esanahia jaso behar duzu. Euskaraz, aldiz, hitz bakoitzak gauza asko esaten du hitz batetan esanda, hitz bakoitza musikalitatez jantzia dago. Euskal idazle zaharrak irakurtzen ari naiz eta uste dut euskara kultoaren oinarrietako bat euskara zahar-rean dagoela. Erdi galduak, ahantzi xamarrek dauden hitz eta erroak berreskuratu eta nere olerki paperetan sartu nahi ditut. «Imentzioaren pergamuak'en ikusten da hori».

Dakusgunez, benetako poeta daukagu emen, itxaropenez betea.

### JON ENBEITA (1950 - .....)

Urte asko ez dirala argitara eban poema liburuari B. Gandiaga'k egin eutson aurkezpena. Asita bereala, onan idazten dau: «Jon Enbeitak landu dituen poemekin aurkitu naiz gaur. Gustora ditut irakurri. Eta ez naiz batere latsa antologia gisan eratu duen bildumatxo hau zuri aurkezten. Ez da haize handiko. Ez da haize berri edo ez ezaguneko. Herriko eta Uriko haize epel eta maitagarriaren bilada gozo da. Leiho ertzetan, balkoietan zintzilik bi-pergorri xortak ipintzen dituen araje hartatik datorkigu: Muxikatik. Poemak hementxe dituzu jaiotze urte eta guzti».

Nor dogu, ba, Jon Enbeita? Aita (Balendin Enbeita) eta aitona (Kepa Enbeita Muxika'ko Urretxindorra) bertsolarien seme billoba; B. Enbeita'ren semerik gazteena, bertsolari ta olerkari batera. Muzika-Areatza'n jaioa, Zabale-Ormaetxe baserrian, 1950-3-22'an.

Mutikotik etorren argia, eta len-ikasketak bere erriko eskolak egin ondoren, Foru'n eta Arantzazu'n bete zituan besteak, komentu biotan irakasle zuur-onak izanik. Ogei urteko zala, komentuko bizitza laga ta sei bat urtez, gitzarra besapean (orduan moda zanez), abeslari ibilli jakun. Gero ezkondu ta Gernika'n bizi da amaztearekin eta Zihara ta Oihane alaba birekin, Bizkaiko Aurrezki Kutxan lan egiten dauala.

*Olerkari.*—Etxeko giroari esker, Enbeitarrak danak izan dira bertsolari. Iru urtegaz bere aitak idatzitako «Jesus'en Bizitza» izeneko antzerki baten artzain jantzita kantatu eban. Zortzi urtegaz, ostera, aitak Ariatza'n sorturiko «Garriko» bertsolari eskolan bertsoak idatzi ta abesten zituan. Bederatzi urtegaz plazaratu ta bertsoak oiukatzen ebillen, «Ordutik eta amabi urtera arte, diñosku berak-plazarik plaza ibilli nintzan, aitaren gidaritzapean eta, gehienetan, Ireneo Ajuria (ni baino hiru urte zaharragoa) lagun nuela. Hamaika urtegaz Bilbon Bizkaiko bertsolari gazteen txapeldun egin ninduten. Kontrariorik ere ez zen, egia esan. Hamairu urtegaz Arantzazuko Seminaria joan nintzaizuen».

Amasei bat urtegaz asi zan olerkiak ontzen, eta luzeak ain zuzen be, arnasa aundikoak. Baiña amazpi urteko Foru'n ikasle zala ikastetxe au erre egin zan. Eta «neure guztia, liburu, kuaderno, jantzi..., dena erre zitzaidan. Euren artean neure bertso eta lehenengo olerkiak... Gero, eta nobiziadua azken aldera, metrika barruan... Ondoren, hemeretzi-hogei urtetan olerki askeak egin nituen. Bide berrien bila abiatu nintzan».

1975'an, Mallabi'n, Bizkaiko bertsolari gazteen txapeldun izendatu eban. Ordutik aurrera beste sari batzuk, «Orixe» saria ta abar izan ditu. Eta guztiok dakigu 1986'an «Euskalerriko Bertsolari Txapelketa Nagusia», Donostia'ko Anoeta'n martxoak 23'an, azken Finalean, goiz eta arratsalde (ni be an nintzan), Jon Enbeitak egi euskun paper bikaina, ia-ia txapeldun geratzen jakunekoa.

Jon'ek gaztetan, beronen sasoiko bizkaitar bertsolari Amuritz, Lopategi, Sarduita besteak lez, gizatiar ikasketak sakon egiñak ditu eta onek maikoa na nai dau, geroko jardunerako, naiz bertso-gintzari naiz beste edozein gairi oratu. Len-ikasketa sakonak egi-egiaz izan oi dira lagungarri.

Poesigintzari buruz, berak autortzen dau, len olerkaik luzeagoak egiten zitula, asti geiago ebalako; gero barriz, «dena ardura, ariñeketa», laburrak, flash gisara egiñak. Gandiaga'k egindako itaun bati erantzunez, onela diño Jon'ek: «Lehen olerki laburrik ez nuen egiten. Lehenegoak, ideien aldetik, kreazinoko lan geiago dute, ideia geiago dago olerki bakoitzean, etorriari itxoite eta erantzute geiago. Oraingoetan, ostera, kaptazinoa momentukoa dela, esan nahi dizut. Bat-baterako burutazino bat dela. Oraingoek ordenazinoko lan geiago dute, bistarako egoitea-lan geiago, sarritan erraza eta laburra ez den lana, egia esan».

Olerki-liburu bat dauka Jon'ek, «Inguruaren arduraz» deitua eta «Hordago» argitaletxeak argitara emona, 92 orrialdekoa. Poema motzez eta luzez ornidua.

Ona liburu ortako bi, «Baratz erdian» eta «Erle bizkorrak».

## BARATZ ERDIAN

Baratz erdian  
lore artean  
begira gosez begira  
usain goxotan  
murgildutako  
lore mardulen argira  
Lore burutan  
irriz ebilen  
eguzkiaren ditzira.

Nere begiak  
aske ebiltzan  
baratz osoan saltari  
begi atzean  
nere arima  
lõreetan ameslari  
zori jorana  
usain haretan  
ase nahiean urduri.

ihitz tantotan olgetan  
Zan ez-zan-ezko  
haize biguna  
kilikilika loretan  
Egun sentiko  
brintzen ditzira  
ihitz tantotan olgetan  
Ihitz tantotan  
olgetan eta  
loretxoekaz berbetan.

Eta beste au, Anoeta'n abestua. Iru bertso eskatzen ziran sei puntu edo geiagokoak gai ontaz: «Ijitu kastako aurtxo bat aurkitu dabe kalean, otzez dardarka ta gosez. Bertsolaria, umetxoa besotan artu ta kantari:

Ene hartxo maitea  
ez duzu atsegin.  
Kale ertzean hotzik  
txakurren berdín,  
zure ama zer gauzak  
ote du eragin?  
Bere haurra honela  
baztertua zedin,  
duzu mila samin,  
zaite nigana jin,  
egiten dizut zin;  
saiatuko naiz fin  
mundua zuretzako  
ederra dedin, (bis).

Zuretzat izan nai dut  
aita eta galai,  
zuri kantuz dagoen  
goiz-txori alai;  
maitez laztan itzazu  
lore eta zelai;  
haziko zaitut, haurtxo,  
sendo eta ernai;  
ni nauzu zure kai,  
nauzu irrien zai,  
nai nuke izan gai,  
esan eidazu bai,  
ta geiago malkorik  
ez duř entzun nai (bis).

Haur txiki bat honela  
baztertu beharra,  
ama, zintzo batentzat  
ez al da larra?  
Baina bukatu zaizu  
zure ezbeharra,  
eta jaso egizu  
ta zabal bularra,  
bizi nahien garra,  
eta zure indarra;  
ta gero izarra,  
bihotzeko haurra;  
nik irri egingo dut  
zure negarra (bis).

Onez gaitiera, Jonak baditu iru diska be, bat, txikia, bere abestiz ornidua, eta beste biak, bere aitarekin batera.

## AITA LUKI, BERTSOLARI

(1908 - .....)

Karmen'go Amak Bizkaia'n jai asko daukaz, eta santutegiak. Jaiak Santurtzi'n, Barakaldo'n, Balmaseda'n eta abar ospatzen dira aundikiro, aurten egin diran lez. Santutegiak, barriz, praille ta monjenak, Markiña'n, Zaldibar'en, Durango'n, Zornotza'n, Gexto'n, Orduña'n, Begonia' eta abar.

Emen, Larrea'n, beste urteetan baiño gar geiagoz ospatu dogula esan bear. Bederatzi-urrena egin zan leenengo, illaren zazpian asita. Goizero, sei t'erdietan, plaza erdian urtenda, Larraraño, kilometro bat lez, Errosario santua kantatu ta errezatuz etorten giñan Karmen'go elizara. Emen alkar-mesa zazpi-zazpiretan. Julen Urkiza ondarrutar gazteak itzaldia, Andra Maria'ren bizitza ta birtuteak azaldu ta goretsiz. Gure elizeak ezin leitekean geiago artu.

Karmen'go Amaren egunean, osera, goiz-goizetik asi zan jentea etorri ta etorri, andik eta emendik, etenbako erreskadan, txiñurri-kate luze-luzea bai litzan. Mezak ugari goizeko sei t'erdietan asita. Eliz-aurreko zelai zabalean izan zan 12'tako alkar meza. Ez bero ez otz, giro ederra platanupe atseginean; gitxitan ikusi dan beste jente, gazte ta zaar, andrazko ta gizonezko; gizonezkoak batez be, astelena ta lan-eguna zanagaitik Larraratuak.

Karmen'go Amaren eguna zan. Baiña niri be omena egiten jatan: 50 urte ziran nik leenengo meza emon nebanetik. Egun au, beraz, jaitu egin bear zan, Jainkoari ta Karmen'go Amari eskerrak emonez eta aurrerantzerako be doai ta mesede barriak eskatuz Alkar mezan, ba, neuk egin neban erdiko, beste seik lagun-durik. Mezatan errikantak. Berau astean, Azpillaga bertsolari sakon-leunak, beste urteetan letxe, bere ekitaldia egin eban, baija erriotoitzetan eta azken agurrean. Meza-zuzendari, irakurle ta enparauak ondo. Itzaldia, Julen Urkiza'k. Gure Jaun-artze txit luzea. Neure azken-agurra ta kantak.

Ondoren, au be beste urteetan lez, jaiari berea emoteko, Zorrotxa'ko dantzari talde ospetsu «Udabarri»-k bere jarduna, ordu bete t'erdian. Umetxo, mutiko ta negusiak oso egoki dantzatu

zituan konta-ezin-ala artazi, errez eta gaitz, ango ta emengo. Jentea pozarren, ikusi ta txalotu. Eguzkia berotzen asi zan arren, barne-pozak edozer arinduten. Ordu bi t'erdiak joanak ziran jentea bazkaltzeaz gogoratu zanean.

*Lakaideen bazkaria.*—Suur-luze baizen jakin-miñak izan oi gara-ta, ez dozu arrigarri egun orretan karmeldar prailleak zer modutako bazkaria egin eben jakin nai izatea. Ilera luze bitan zutunik, «Zein gozo ta eder dan / anaiak alkartu, / eta danok batera / Jainkoa goratu» abestu gendun leenengo.

Gero maikoari ekin geuntson. Jan-gale giñan; meza, itzaldi, kantu, autortegi, Jaun-emote ta gaitetiko lan guztien ondoren, eta berandu, etzan arritzekoa. Danetariko zizka-mizka ta jan-zeeak, edari goxoakaz batera, laster amaitu jakuzan; olako egunetan oitura dogunez, makaillaoa gero, aragi pizkat, eta mai-azkenak, frutea, ijitubeso, akeita-txola... Txokorrik ez eban inok erre. Or gure bazkaria.

Orren ostean, baiña, egiten ditugu geureak, bertsoz ta kantuz, soin ta arima, jaiari dagokion poza aitzen emonik. Bertsoz asi ta kantuz amaitu, ba-zan umore onik. Jaiak jai, esan oi dau euskaldunak. Eta guretzat, karmeldarrok dogun jairik eder ospetsuena izan. Betoz, beraz, bertsoak be.

Meza barriko ezteguak zirala ta Aita Luki'k ateratako aapaldi biziak Aita Julen Urkiza ondarrutarrak abestu euskuzan abots zoli gozatsuz. Eta argitaratzea merezi daben ezker, emen doaz, irakurle, zure atsegingarri.

«Jai aundi baten, emen,  
pozez alkaturik.  
Berrogeta amar urte  
mezadun dalarik  
gaur Aita Santiago  
zorunez beterik:  
eskertu da Jaunagaz  
biotz-biotzetik.

Iru abade doguz,  
Santi mutikotan,  
Amoroto'n jardunak  
parroki lanetan:  
Dionisio jauna  
ogetako urtetan,  
On Nazario lagun  
ta gero Iturraran.

Amoroto'n askotan  
karmeldar prailleak  
urte-zear jaietan  
egiten semoiak  
Anai leial batzuk be,  
eskale zoliak,  
ixuri oi ebezan  
euren izerdiak.

Karmeldar azi onak  
frutu emon eben:  
Santi be umetxo zala  
Karmel'ez zaletzen.  
Larra'ko ikastetxera  
etorri zan ikasten,  
karmeldar su goritan  
aldioro indartzen.

Larra'ko bost urteak  
ezin Santi'k aitzu:  
irakasleak ainbat  
bear gogoratu.  
Batek erdi-erditik  
biotza zatitu...  
Guretzat santu zana  
eben fusilatu.

Mezadun egin arte  
beste urte batzuk  
ikasten euki eben  
karmeldar konbentuk:  
Markiña'k ta Gasteiz'ek  
Begoña'gaz iruk,  
Begoña'n «egin» zana  
ospatzen dogu guk.

Jauparien ekintzak  
aundiak benetan:  
mezea esan eta  
autortza lanetan,  
txakur-mutu izan barik  
egia aldarrikan,  
ikasbidea emon  
ona egiñetan.

Azi ta azitokiak  
zelakoak diran  
frutuak antzekoak  
agertuko bertan.  
Ainbeste eliz-gizon  
Amoroto'n zelan  
txikia izanda be  
aurki letekezan.

Amazortzi millatik  
gora mezetatik  
itzaldi ta azalpenak  
ez dauke neurrik.  
Kantabria ta Araba,  
Errioxa aldetik,  
Gipuzkoa'n, Bizkaia'n...  
zenbat tokitatik!

Jauparien lan ona  
gudan be bear zan,  
ta Santi prest ebillen  
euskal gudaketan;  
lanaren sari legez  
iru urte kartzeletan:  
jaupari lez jarraituz  
zintzo ta benetan.

Jaupari batek badau  
 beste arazo bat,  
 Arazo ori ongarririk  
 betiko deritxat:  
 «Idaztiak idatzi  
 egiren bidetzat.»  
 Egillea ilda be,  
 or gerokoentzat.

Abade bearrari  
 erantzunik zintzo.  
 eliz-gizonen batzuk  
 egin dabe asko:  
 Lauen bat izan doguz  
 Bizkaia'n puntako;  
 onein artean dago  
 Aita Santiago.

Eliz-ospakizunak  
 norbere izkuntzan  
 egitea egoki,  
 bidezko, argitan,  
 euskaldunok euskeraz  
 egin daikeguzan,  
 euskerazko idaztiak  
 bearrezko ziran.

Berrogeta amar urte  
 mezadun zarala.  
 Gora Karmen'go Ama  
 Jainkoa leen dala!  
 Mesede danakaitik  
 eurai esker-ala:  
 gerokoakaz geio  
 poztu daizuzala».

Autor daidan, aurrera barik, Aita Luki karmeldarra, Bizkaia'n beinzat ondo ezagutua, antxiñatik dogula bertso-saioak egia. Ba ditu arnasa ta jasa bertsoak biribiltzeko.

### BASILIO PUJANA

(1913 - .....)

Zeanuri'ko Zulaibar auzoan jaio zan Basilio Pujana 1913'ko zezeillaren 27'an. Beronen aita-amak Emeterio ta Maria Dolores; bera izan zan bederatzi neba-arrebatatik seigarrena. «Gure etxea eta bere lurrak —diño Basili'k— parrokiarenak ziran eta, iru urte neukazala, etxea erre egin jakun, anai zarrenak amalau urte eukazala». Zelan sortzen ete joko oni edo ari bertso-tako garra? Pujana'k onela: «Gure ama bertso-kantaria izan zan. Kantatzen euskuzan «Azken Juizioko eguneko» bertsoak, ta bai gerra Europeakoak bere. Urkiola'tik ekarrutakoak, Txirrita'ri erositakoak. Baita Balentin Berriotxoarenak bere».

Gero plazan jai baten Zitorra ta Ipiñaburu'ko Patxi Beobide izan ziran bera be bizkortu ebenak. Morroi joan amazazpi urtegaz «Eleiterio Goikoetxea'ren etxera, eta orduan sartu jatan bertso kantatzeko aria. Bizente Etxazarraga, Zitorra, Eleuterio Goikoetxea'ren lagun andia zan, eta gaitera olerkari ta bertsolari umoretsua. Sarri ibiltzen zan Eleuterio zirikatzen, eta bein baten neuk erantzun neutsan».

«Bertso» deitzen jakon Uriarte dimostarraren anai bat. Uriarte bera bertsolari ona zan. Bein, Zeanuri'ko Andra Mari jaietan, Enbeita Kepa'k eta Uriarte'k saio entzungarria egin eben. Onen ondoren, Basilio'k be zer esana euki eban kantari. Ortik aurrera Artetxe ta Pujana bertsolari «errikoi» egin ziran. 1932'an Artea'ko batzokiaren asiera, Sabino'ren anai Luis Arana'k-eta parte arturik, eta andik laster Zeanurikoaren inauguratzea; bezperako gau-jaietan, Lauaxeta ta Polixene Trabudua iz'ari zirala, kantatu genduan guk, eta urrengo egunean, Kepa Enbeita'k egin eban bertsoetan, eta bai bere seme Sabin'ek be.

Gerra ostean, iru urte edo, igaro ebazan Zaragoza aldetik. Eta etxera biurtzerakoan, nagabez lotu zan erria pena aunditan ikusiz. Euskaltzainda asi zan laster bertsolari txapelketak antolatzen; esku artu eban Arratia'koan eta txapeldun urten. Urte aretan bertan, Gernika'n beste ainbeste. Eta jarraian, Bilbo'ko Arenalean, Bizkaiko txapelketea, «bikaiña benetan». An ziran B. Enbeita, Azpillaga, Ormaetxe, Alberdi, Sardui ta Pujana. B. Enbeita txapelirabazle.

Geroztik, leku askotan egin bear izan dau bertsoetan, bakarrik eta lagunakaz. «Zeruko Argia»-n eta Iruña'ko «Principe de Viana»-n datoz beronen bertso-lanak. Kopla liburu bat dauko, Aita Zabala'k «Ausoa» b'lduman atgitara emona, *Egi zatxuek aietartzen* deritxona, 174 orrialde. Liburu ortan datorren «Pentsakizunak» 15 estrofako lan giarret'k artu ditut bost aapaldi oneik.

Guk euskaldunok ondo dakigu  
 idatzirikan dagola  
 egi zuzena extala ilgo  
 egundo eta iñola.  
 Alguztiduna dagoalako  
 goiburu bere jagola.  
 Alperri etzan egien alde  
 ixuri gendun odola,  
 gure egia argitan dago  
 eta zutunik arbola.

Euskalerrria bizirik dago  
 indartsu, arnas, irrintzi,  
 Pirineoak erdi dirala  
 emen gara sei probintzi,  
 Mundua mundu dan bitartean  
 nai-ta nartua erantzi,  
 alde batetik Espaa da  
 eta bestetik an Frantzi,  
 otso bi oneik aon dauke  
 baiña ezin dabe iruntsi.

*Urrin izarrak, urrin eguzki,  
 arago zeru urdiña,  
 eta guztiak baiño arago  
 azkenik eztun urriña.  
 Agiri dana eta eztana  
 Alguztidunak egiña,  
 zer buruauste gizonarentzat  
 ori ausnartu eziña,  
 aitatu bere ezin egiña  
 bere zerbait ezipagifia.*

*Oarra.*—Basilio'k sarri aitatu oi dau Jose Mari Artetxe Beobi-  
 de, biak alkarregaz or-emen bertsoan ibilliak. «Ainbat kantaldi  
 —diño Pujana'k— egin gendun gazte denporan. Amaika barre ta  
 adar-jote... Nere bertso-burrukarik andienak beragaz egin nituen». Gero,  
 gaizt zatar batek jota, abotsa galdu jakon. 1983-1-14'an il  
 zan, 69 urtekin. Illeta-mezan Basilio'k abestu eutson azken agurra.

Frantzi ta España dira otsoak,  
 Euskalerrria bildotsa,  
 ta otso orreik bildots oneri  
 nai dautsie eriotza.  
 Kendu nai deutse bere kultura,  
 nortasuna ta izkuntza;  
 otso bi oneik alkar tiraka  
 zatitu dautse gorputza,  
 baiña gorputza zatitu arren  
 osorik dauka biotza.

Urietako sakonetatik  
 igon ezkerro mendira,  
 sentitzen gara urten dogula  
 illunetatik argira.  
 Zeinbat obeto gizon guztiak  
 konturatuko balira,  
 bada bertatik begiratuaz  
 izar ta eguzkira,  
 Jaungoikoaren argitasunak  
 argiago ikusten dira.

## JOSE MARI AZPIRI, OLESKARI

(1929 - .....)

### IRU MAILLA

Oindiño bear lez mugatu barik dagoan arren, guztiok ikusten dogu zerbait bardin ez dana olerkari, oleskari ta bertsolarien artean.

Iru mailla ditugu emen, nik uste; Olerkariak, egiazko olerkariak, goi-goiez dagi egaz; guna ta jantzia oso dotoreak darabiltz alakoak; Bertsolariak beeragotik dagi egaz, errikoiago da, taberna ta plazetan botaten ditu bere bat-bateko bertsoak, poetak baiño txalo beroagoak arturik. Baiña or, bien bitartean, badira beste batzuk ez poeta ez bertsolari agertzen jakuzanak. Oneik niretzat oleskariak dira, poeta millara eltzen ez diranak —edo eldu nai ez dabenak— baiña bertsolariak baiño txukun eta apaiñago euren bertso-lanak burutzen dabezanek; or ditugu olakoan artean, K. Enbeita, Basarri, Azpiri, Z. Andonegi, ta abar.

Ondarru'n jaioa dogu Azpiri, 1929-1-17'an.

Umetxoen eskolan ebillen oindiño gure anai arteko istillu zoritxarrekoa sortu zanean; bertatik artu eben iraultzalleak erria ta sei illabete osoan ementxe egon ziran frankotarrak, eta aldi ori eskola aundi barik emon eban, orain egurretan eta urrengoan ikasten.

Irakasleak barriz umeai eskola baiño politika, instruziñoa ta olakoak naiago eben erakutsi.

Amairu urte ta erdi eukazala itxasoan asi zen.

«Aldi artan jan-bearra gogorra zan —idazten daust—, eta neure adifeko mutikoen antzera, Kantauri itxasora urten-bearra izan neban.

Iru urtean ibilli nintzan itxasoan. 1945'ko azaroan itxasora joateari itxi neutson eta legorrean asi nintzan saregile».

Iru urtean egin eutson orretan eta soldauzkara joan-aurretik bere zeregiña ondo ikasi ebaleko, arrastero bikoteko saregille maixu ipiñi eben.

Kadiz'en egin eban gudaritza, baita bertan bizitzaldi guztira-ko lez gaixotu.

Gudaritza amaitu ondoren, etxeratuta gero be ezin ondo ja-rrri. Kuntzurrunetik ebakuntza egin eutsoen, baiña alan be etzan ondo aurkitzen, eta b'zitzari begira asten zanean gauzak illun ikus-ten, etorkizun barik aurkitzen zala uste eban.

Ez ekian zer euli leikean. «Asi nintzan sendagilleekin —idaz-ten daust—; batañ au zala ta besteak bestea zala, depresio go-gor batek artu ninduen eta beerakada audia euki neban. Dana dala, oraindik ementxe nabil, Jainkoari eskerrak.

Egia esan, neure gastetako amesak deuseztuta gelditu jataz. Ainbat gauza egiteko ustea ta... bapezean, egoak moztutako txo-riño baten antzera geratu.

Baikor eta gogotsu gara euskaldunak. Eta obe orrela.

Azpiri'tarrak be 1958'an anai arteko baltzu bat sortu eben. Itxas-ontzi bi egin ebezan eta ementxe jarraitzen dau Jose Mari'k, anaiekin batera, milla eratako laak eginik bizimodua aurrera ate-raten.

Bide onak izanda be irrati, eskola, telebista ta abar, ez dau-kagu etxe-barruko berotasuna, guraso ta seme-alaben arteko au-tua lakorik gure izkuntza ederra sakon, egoki ta errez ikasteko.

Auxe gogoratzen dauku Azpiri'k. «Etxe euzkalzale baten sor-tu nintzan —difiost berak—. Naiz eta neure denporako aldia guz-tiz txarra izan euzkerarentzat, gure etxean euzkera zan nagusi egin-kizun guztietan. Neure amak eta gurekin bizi zan izeko zar ba-tek, eundaka bertso abesten euskuezan.

Ixil-ixillik, auzokoak ez entzuteko. Eurengandik ikasi neba-zan Enbeita, Arrese-Beitia, Bilintx eta ainbat bertsolariaren aapal-di ederrak.

Lagun artean asi nintzan bertso zaletasuna zabaltzen. Ardan-degi eta sagardandegietan, maitasunezko bertsoak abesten gen-duzan; mend'ra joaten gifanean, bertso aberkoiak izaten ziran abesten genduzanak. Gure lagun-taldean karlista etxeko bost mu-

til egozan; bertso kantuari esker, guztiak euzkal nortasuna ezagu-tu eben eta benetako abertzale egin ziran».

Baiña etsaiak be, putreak arkaitz gainean lez, zain egozan eta kontuz ibilli bear. Alde onetatik asko sufridutakoa dogu Jose Mari.

Azpiri'k barruan eroian bertso giroa, lurra ondo gertaunik. Amazortzi bat urte eukiko ebazan, eta bere lenengo bertso ida-tziak neskatillei buruz egindakoak izan ziran: ardandegian abes-ten ebezanen antzekoak, berak be papeteratu gura.

Eta itz lauz be idatzi daukun arren, geienbat bertsoz jardua dogu.

Berak autortzen dau ederto: «Bertso egitea izan da neure zale-tasuna. Baiña artikulua be egin izan dodaz.

Bertsoak bein edo birritan Basari'ri b'aldu ta, «La Voz de España» zparringian agertu zituan. «Goiz-Argi» aldizkarian be Txomin Agirre'ri bere eungarren urteurrenean egindakoak agertu ziran.

Aldi batean Ondarru'n ateraten zan «Boga Boga» illerokoan be bai.

Joan zan urteko «Ondarroa 82»-en, Ondarru'ko bertso zale-tasunari buruz idazkai polit bat egin neban. Aurtengo «Onda-rrroa 83»-en, lan bi egin dodaz. Ondarru'ko Lore Jokoetara be ainbat olerki bialdu nebazan.

Ikaşketarik ez neban egin, baiña irakasle onak euki dodaz etxean. Iztegi aldetik, Umandi, Lopez-Mendizabal, Aita Plazido Mujika, e.t.a. Aldizkari aldetik, Euzkalerrian atara ziran guztiak lenengoan erabilli izan neban.

Gari garbi ta egizaleekin geratu nintzan eta besteak betiko utzi. Neure patrikarako txanponak euzkal giroko gauzak erosten xautu dodaz».

San Agustin'ek bere «Autorkuntzetan» baizen lau ta zintzo agertzen jaku Azpiri bera bizitz-gorabera, zaletasun eta euskal lanetan. Nik, ostera, neure aldetik, au gainetu ta ezarri bear dau-tsot guzti oni: igaz Larrea'ko Olerri Egunean saritua izan jakula.

Iru sail daukaz au dala-ta ospatzen dan sariketak: lirika, poema eta bertso-sailla, eta bertso-sailla, eta irugarren era onetan Azpiri'k jaso euskun leenengo saria. Amabi lan bialdu ebazan, oso sakon eta zentzunez eiotakoak.

Amar aapaldi ditu «Aiton batekin» deritxonak. Mendian izan da oleskaria, aize ta bake billa joanda. Itzuliaz datorrela, baserri baten aurretik igorotean, aiton bat aurkitzen dau atarian; bien arteko alkar izketa dozu poema au. Bigarren estrofan ona nola ikusten dauan aitona ataurrean:

«Urritx makilla esku artean  
Okotz azpian jarrita,  
Itzalpe artan bakarrik zegon  
Aulki baten exerita.  
Bere begiak gora begira  
Zeruetan ipiñita.  
Gure Jaunari otoitz egiten  
ondo zeukan ikasita.  
Arriturikan gelditu nintzan  
Aiton ura ikusita».

Eta biak bietara mendiko ta baserriko bake ta zoriona abesten dabe; kalean ez da olakorik ezagutzen. Kalean, bada, «Begi-rapena zer dan azturik / burrukan geure artean. / Sendi bateko semeak eta / ezin bildu mai batean».

Gairik sakon eta gatxenak be, errez eta lau jarten dauskuz bere bertso bir-billetan. Ezagun dau asko irakurria dana. Gero, jakiña, udabarrri goizeko birigarroa baizen kantari. Ezta bear bada olerkari-maillako, ezta bertsolari maillako be; baiña bien artekoa. Oleskaria, Euskalerriari dei, oles dagiona.

### LORENTZO ZUGAZAGA (1943 - .....)

Lautada sotillak ditu Mungi-aldeak. Zoaz egunez Sollube'ra, naij gabaz Arrieta edo Bizkargi'ra, eta begira sartaldera; lillura zirakortan geldituko zara. Or Mungia ta koroj lez ditun erritxo liraiñak: Gatika, Maruri, Laukariz, Gamiz, Fika... Solo, landa, mendiño ta etxez, edertasun betean.

Alderdi ezin-obe onetan jaioa dozu Zugazaga, Gamiz'en 1943'-ko urtillaren 10'an. Barne-deiari erantzunik, Derio'ko Apaiztegiari burutu eban eleiz-karrera, Gotzaiñaren esku-etzartez, 1968-10-15'an abade sagaraturik.

Geroztik, luzaro samar, Derio'ko Apaizgaitegiari irakasle izan da gai askotan. Urte batzuk Gernika'ko Andra Mari eleizan igaro zitun, eleiz aretako apaiz-buru. Gero, zati batean, Erroma'n daukagu bere ikasketak sakonagotu nairik.

Gaur, Sondika'ko parroko izanaz gaiñera, Deustu'ko Unibersitatean eskolak emoten ditu, Teologiako Fakultadean.

Euskal arloan, elizen arteko Biblia euskeratzen diardu. «Dionisio Amundarain —diñost berak— Koordinatzaile dogula, talde bat gabiltz lanean, Itun Zaharra euskeratzen, Itun Barria bigarrenez ere argitaratua izan ondoren».

Oraintsu gaiñera, Bizkaiko eleiz-barrutirako, Katekesi arlorako gotzain ordezkari izentatu dabe Gotzaiñak. Beraz badau lanik.

Olerkari gisan, naikoa lan egiña dogu, sariak eskuratu ditu, eta abar. «Olerti»-n eta «Karmel»-en datoz Gamiz'tar jakintsu ta landille onen sorpenak.

Nolako poeta dogun? Irakur eta ausnar urrengo biok:

### JAUNAREKIN

Jauna,  
Zuk nire fedea  
aproban jar dezazunean,  
inolako bide bage  
behelaino hertsienean  
ibilaraz diezadazunean,  
dardara ta ikaraz  
oinkada eman dezadanean,  
egizu niregan lan,  
nire begirada sakon,  
bare eta argituan

Zeu zauzkadana  
edo Zeuk naukazuna  
iragar dezadan,  
itsasgorako olatu bizien,  
olatu amorratuen  
behe-egitura sendoan,  
ixileko bakean,  
ni naizen guztia  
Zeuregan dagoela,  
Zeure geznari argi  
nakizun luidian.



Jauna,  
Zuk nire itxaropena  
zalantza labanetan  
jar dezazunean,  
arnasa kutsatu  
eta urrituz  
joan dakidala  
utz dezazunean,  
oinarriak arrakalatu  
ta euskarri dudan lurra  
leize-zulo luze ta beltz  
bihur dakidanean,  
naizena ta dudana,  
ikara ta dardara,

Jauna,  
gorroto zipristinak  
zulatu ta jo nazanean,  
jausteak gerta diezazkidanean,  
nire asmoak gezurta  
diezazkidanean,  
haserre eta gogorkeria  
niregan nabaitzean,  
gizonentzat erruki izatea  
makalkeria gaiso delakoa  
susma dezadanean,  
mendeku-olatu  
irabio apartsuek  
xurga nazatenean,  
nire neutasuna  
besteen eurentasuna  
baztertu nahiz itoz  
eguzkiratu nahietan,

### IZERTZAN

Izerdi ene,  
higiduraren berezko seme,  
eguzkiaren ahaide,  
anpuluaren anaia orde,  
soro arteko gazbide.

bilinbolaka urduriz,  
noraez gorritan,  
zeri oratu bage,  
ixileko ekaitzak  
narabilen guztitan,  
jakin bezate guztiek  
nire begiradaren errainutan  
ez duela ezerk ez inork  
erakar-indar naikorikan  
Zugandik sustraigetu nazan,  
Zeu bait zaitut arnas nire baitan  
nire ibilbidea Zeuregan,  
eguneroko izate-egiaztatzea  
Zeuregan.

bizi-lorak albo-soroetan  
dirdai enarritsuz  
ager daitezenean  
izkutuiko herio-segaz moztu  
eta sutokari deuseztatzailez  
estali ta ihar nahi ditzadanean,  
hurbil zakizkit, Jauna,  
damu bageko erruki-begiak  
barren itzabu niregan,  
muga ta bazter bageko  
itsas bare ta emankor,  
sabel zabal bailirean,  
nire begi neureak  
maitasun ereile  
izan daitezana,  
zorion sortzaile  
aurpegi guztietan!

Izerdi,  
langile denen urrezko jantzi,  
soinaren printz dizdizari,  
jardun bizien agiri geldi,  
errainu-ibai dantzari.

Izerdi alai,  
lur-sorreratik denon eskingai,  
nekeen tanta kantari,  
lurraren sunda, egurats usai,  
bekokiaren emari.

Gelben izerdige,  
gelditasunez berorik gabe  
zurrun zaudeten zutabe,  
hatsa hedatuz hilak zarete,  
umeldutako koroe.

IZERTZAN,  
eman lanari buruak sutan,  
urrezko leiar argitan,  
eurite geldiz dirdai galdatan,  
guztiok berdin izerztan,  
burestun garai, usai hegotan,  
lur ta gizonon garaitzan.

### MARIA JESUS BARAIAZARRA TXERTUDI (1946 - .....)

Sollube azpian, Meñaka-Barrena'n munduratu zan Josune, Luis Baraiazarraren arreba; etxeko eragíñez edo, umetatik zaletu zan bertsolaritzara eta «hortik abiatu zan olerkigintzara oraíndik gazte-gazte zalarik», diñost aren nebak. Gaur, alan be, ezkondata Barakaldo'n bizi jakularik, musakaz erdi-asarratua daukagu, aspaldi ez bait dausku poesi-lanik eskintzen. Baiña euskaltzale ta abertzale zintzo jarraitzen dau.

Meñaka'n jaio zan 1946'ko apirilaren 13'an. Bere gurasoak: Isidro Baraiazarra ta Benigna Txertudi. Famili ugaria, ots, zazpi mutil eta iru neska, amar neba-arreba guztiz, amargarrena bera izanik. Bekizu au be: lenago, «Karmel» eta «Olerti» aldizkarietan olerkiz idaztean «Maria Jesus» erabili arren, aspaldiko urteetan ez dau onartzen, edo eta beintzat «ez jako gogoko», Josune baino. «Olan erabiltzen dau gauza guztietarako eta guk geuk ere bai berari deitzeko».

Oñarrizko ikasketak Meñaka'ko ta Meñaka-Barrena'ko eskolan burutu zituan. Geroago, Barakaldo'n egin eban Ogibide Eziketako leenengoa, FPI deritxona. Umezaintza ta Mekanigrafia ta

Takigrafia kurtsoak gutun bidez burutu zituan. Bilbo'ko Gurutze Gorrian Erizain Laguntzaille titulua eskuratu eban. Orain orixe dau ogibide. Erizain Laguntzaille ta Barakaldo'ko Gurutzetan X izpien gaslean lan egiten dau.

1979'ko apirilaren 15'an ezkondu zan Muxika'ko seme dan Jon Jauregi'rekin. «Eunate» izeneko lau urteko alabatxo bat dabe. Iritar lez Gernika'ko erroldan dagoz izena emonik eta an bizi dira astegunetan, asteburu ta jairik geienak Meñaka'n daben etxe barri txairoan egiñaz.

Gaztetxo zala asi zan idazten Josune. Bertso-zaletasunak bultz-eraginda, itxura danez, «Karmel»-en eta «Olerti»-n idazten eban, esan dodanez. Eta orduko jorrazaille, bai Madrid'ekoen eta bai Donostikoen eritxiz, etzan beti agindutako bidetik ebillena; iru-lau bider etorri jatazan, ba, txapel-okerrak aren kontuak eskatzen. Arik niri ta nik arei guzur-pilloa sakatuz, etorri ziran bidetik atzera bialdu bear izaten nebazan.

Nik, alan be, naikoa argitaldu neutsozan. Ona eurotatik bat, saltoka aukeratua, «Gosia» deritxona ta polito asko egiña.

## GOSIA

Ainbat erakoa da  
gizonen gosia...  
Euretan zein ete da  
danen nagosia?  
Janik eztauna beintzat  
da gosez josia;  
bake gosia dauko,  
nai dau justizia...  
Gose danak zer naiko  
ezpabe jakia?

Zuzentasunik ezak  
an ditu batzian  
gose guzti-guztiak  
alkarren atzian.  
Bake-gosia euki  
arren biotzian,  
janari gosea da  
gerrea etxian;  
ori kentzeko gabiltz  
burruka utsian.

Asi Euskalerrian  
ta be-alderarte,  
ainbat gosedun erri  
ba-dira bitarte,  
euren izerdiz ondo  
betez samararte...  
Urietan ba-dira  
ainbat presidente  
arrokeriz beterik  
biazera arte.

Au zuzendu artean  
gu beti goserik;  
ezta zuzentasunik,  
ez dago bakerik  
batzuk direan arte  
bizioa beterik...  
Amaika gosiaz ta  
ezer ez besterik,  
gure munduan dago  
naikoa nasterik.

Onela aren pentsamentu ta bulkoak 1970'garrenaren azkene-rantza.

## JESUS ANTONIO ETXEZARRAGA (1953 - .....)

Bilbon Gordoniz kalean jaio ta babeatu izan arren, 1953-1-3'an, Zeanuri'ko Altzusta auzuneko da Etxezarraga jatorriz. Deustu'n eta osotu dauskuz bere ikasketak.

Barne-griñari erantzunik, olerki-irakurle da, eta kopla idazle. 1977'ko urtillaren 21'an sar keta bat ipiñi eben Laukiz'ko gazteak, bertako seme Esteban Urkiaga, «Lauaxeta» zanaren omenez. Zeanuristar gaze onek jaso eban olerki-batzaldi artako lenengo saria.

## DOMU SANTUZ

Zuek  
fusilen suzko kerio tantaz  
gure joanean eroriak,  
zuek  
gure gau gorri ongarriri  
egiten duzuen odol hariok,  
zuek  
gure ezinbestezko bideetako

harrilosa ta kantugai,  
 zuek  
 gugan bizi zaretenok  
 gu ausartu ez ginen pausuok,  
 zuek  
 gure aitzin-gibeelko harrikadok  
 gure ukabilen hatzamar hautsiok,  
 zuek  
 fusilen suzko herio tantaz  
 gure aitzin-gibeleko harrikadok  
 zuek, gureok.

## TOLONO

Toloño,  
 gure Toloño,  
 Europa beheko  
 mendifio.  
 Euzkadi gureko.  
 kopeta  
 ta killa.  
 Lepo atze  
 zabala,  
 Errioxa, Trebifio  
 ta Araba,  
 eremuko errexala,  
 gure Toloño.  
 Arabako beleen  
 haizea  
 gure Alostorra,  
 Ebrupe sugoiaren  
 gerizpea.  
 Orratz galdua,  
 dorretxe  
 mila aldiz errea.  
 Zerupeko gailur  
 bakarra,

ihesbide gudukatuen  
 negarra,  
 gaztelu zahar  
 gogorra,  
 gari harri  
 gorra.  
 Gorbei saiheitsak  
 eta Gipuzkoak  
 bildutako sua:  
 berbea,  
 testigu bakar  
 mutua,  
 euskera labratua.  
 Zazpi errosario  
 lau misterio,  
 bi berio  
 ta txakur pinto  
 mozkortua,  
 gure bihotz  
 ihartua.  
 Toloño, ai oi!  
 gure Toloño!

## MANU ERZILLA

Anboto'k, Bizkaiko mendi zangarra danak, ba-dau bere lillu-  
 ra bizia andik naiz emendik begiratu. Atsegin aundiko erritxoak,  
 Arrazola, Axpe ta Martzana, daukaz bere oifetan jaingo-aizun  
 gurtzaille iduri. Lenago erri oneitatik bakotzak eukan bere udala;  
 gaur, pozik ez dagozala be, ez daukie udal-etxerik: Apata'ra joan  
 bear euren erri-gauzak atontzeko. Emengoxe zan nire ama, Jazinta  
 Baseta.

Emengoxe da baita Manu Erzilla, urte batzuk Zonnotza'ko  
 Udaletxean egin ondoren, Bilbo'ra aldatu zana.

Euskaltzale dogu, eta euskal idazle ez-erik, olerkari arnas-one-  
 ko. Amabi urte dirala argitara emon euskuin poesi-liburu bat,  
 «Titzik ainitz idatzi dut» deritxona (Bilbo, 1977), 116 orrialdekoa.

Ona liburu artatik artutako lantxo bi:

## HAIZEA

Haizea  
 gaua  
 iluna ta bakardadea

gau ilunpeko haizeak  
 bakardadea dakarkio  
 ene bihotzari.

haizea  
 gaua  
 iluna  
 bakardadea eta euria

gau euritsuko bakardadeak  
 hizozten du ene bihotza.

bakardadea  
 haizea  
 euria  
 gaua eta ni ororen erdian.

## GIZONA

Gizona jarri zen  
paper zuriaren aintzinean  
eta ezin izan zuen  
ezer sortu  
amabigarren iturria agortu bai zuen,  
maindiareak destolestatu zituen  
eta amets egitea  
nahi izan zuen

zoritxarrez  
egun hartan  
ametsak ere antzu ziran  
gogoia hain txirola eta urrian zeukan.

## KARLOS SANTISTEBAN

(1960 - .....)

Ona gaurko euskal idazle itxaropentsu bat. Karrantza'n, Enkartzaldean, jaio zan 1960'ko otsailaren 29'an. Antxe bertan burutu zituan bere lehenengo ikastak geroago goi-maillako batxilergoa egiteko Bilbora joanez ain zuzen be Migel Unamuno'ren institutuan osotzeko.

Euskera gure izkuntzaz maita mindurik, aspaldi dala diardu gogo beroz euskal barrutiko lanetan. Euskaltza'ndiaren «D» eta «B» tituluen jabe egin zan; euskal Filologia ikasketak burutu zitun; Euskal Idazleen Elkarteko partaide da; udaka euskal Unibertsitateko ikastaro ezberdinetan esku artu izan dau.

Lanbidezko jarduerak ugari egin ditu; 1977-78-79 urteetan, esaterako, euskera irakasten arotua dogu Bilboko zenbait euskaltegitan. 1980 urtean, urte betez, Eusko Kontseiluak kontratatua, Karrantza'ko eskoletako maisu-maistrei euskera irakasteko; 1981'an, Araba'ko ikastolen Alkarteak kontratatuturik, Gipuzkoa'ko Urrestilla errian maisu-maistra talde bat i urtebetko euskera-ikastaro trinko batean irakasteko; 1983'an, Arrigorriaga'ko Udalezearan lan egiten dau itzultzaile bez; 1984-az geroztik Bizkaiko

Foru Aldundian lan egiten dau itzultzaile. Lanean jardun dauan urte oneitan aibat ariotan ibilli da, milaka itzulpen eginez. Bere lanaz aparte be amaika itzulpen egin dau, jarraian datozen itzulpenetatik ikusi daikeguenez.

Literatur itzulpenok be jakingarri dira: 1) Rosa Fria'ren *Ilargiko Patinatzailea* (Haranburu, 1985); 2) Euripides-en «Bakanteak», teatru-lana (Kriselu, 1986); 3) Voltaire-ren «Mikromega» (Kriselu, 1987); 4) Flaubert-en «Bihotz apala» (Kriselu, 1987); 5) PU Sung-Ling-en «Itasoko mamuak» (Kriselu, 1987); 6) J. M. Gisbert-en «Esmirna'ko Magoa» (Anaya, 1987); 7) Angela C. Ionescu-ren «Ez omen da inor egon bertan» (Anaya, 1987); 8) «Munduko Legendak (Sua, 1988); 9) «Stop Txango bat egitera doa» (Mondadori, 1988); 10) Stop Eritetxea bisitatzen (Eric Hill) (Mondadori, 1988); 11) A. M. Pacheco-ren «Bi Jakintsuak» (Mondadori, 1989); 12) A. M. Pacheco'ren «Txirrita eta Inurria» (Mondadori, 1989); 13) A. M. Pacheco'ren «Kometa» (Mondadori, 1989).

Onez gainera jatorrizko lanak asko ditu ornidu. Urrengo al-dizkari ta egunkarietan azaldu ditu lanok: «Anaitasuna», «Argia», «Jakin», «Olerti», «Zehatz», «Ohi Euzkadi», «Aizu», «Ttu-Ttua», «Literatur Gazeta», «Habe», «Punto y Hora», «Egin», «Deia».

Eta azkenen bereak ditu liburu oneik: 1) *Egun batez*, nobela (Haranburu, 1983); 2) *Hitzak*, poesia (Haranburu, 1983); 3) *Izan bainintzen soldadu*, ipuinak (Haranburu, 1983); 4) *Amodioz eta gorrotoz*, poesia (Haranburu, 1986); 5) *Uda baten amadio zoroa*, ipuinak (Haranburu, 1986); 6) *Terrorista*, nobela (Haranburu, 1966); 7) *Mikel Zabalza edo Izuaren tunela*, nobela (Kriselu, 1987); 8) *Bizi aparra*, poesia (Kriselu, 1987).

Ba daukaz beste lan batzuk argitara emon bakoak: «Etimologiak Azkue'ren iztegian» eta «Txori izenak Azkue'ren iztegian», esate baterako.

Lanon artean, atsedean billa ameneko Maitagarriekin izan dau artu-emon; au da, zenbait olerki-lan jostagarri be atildu dauskuz. Or iru poesi-liburu, *Hitzak*, *Amodios eta gorrotoz* eta *Bizi aparra*. Irakur bi oneik, bata *Amodioaren bularretan* («Amodioz eta Gorrotoz» liburutik artua) eta bestea *Paranoi* («Bizi aparra» deritxonetik jasoa).

## PARANOIA

«Haur ilhortu baten ezurtxoak  
neska-lehen-odolez nahasiz,  
egiten du sorgin den atsoak  
maithagailu bat, on dena guziz».

*Jon Mirande*

Kaleko izkinetan  
orotan,  
agian edifizio barnetan  
pareta arteko solasaldietan  
eta gaupean babes izanik  
iluntasun beltza goizartzen duten  
farolen argizprietan,  
apika kotxe arinetan  
nesken gonalabur motzetan  
irri infantiletan  
begiradañoñuetan  
eta  
zergatik ez?  
ordu berandukorretan  
beharbada  
tik-takdun erlojuetan  
beraun etengabekeria erotuan  
kariketako kantari  
tapust-tapastarren  
gitarra xiliabatueta  
ipuineta xirulari sorgintzaileengan  
maitagarri onutsengan  
akaso  
neure amonaren esanetan  
ene maitalearen besoetan  
haren hitzetan  
promesetan  
amodioan  
txinurrimeta New Yorktueta  
eta  
ziur

neu neugan  
datza  
pertsegitzen nauen eldarnioa.

Txillida euskal artista da, artista errimeka. Eta lengoan, aste bi dirala, artista onek Gernika'n ipiñi dauan oroigailua ikusten eroan ninduan adiskide batek. Arriz eta zementoz osaturiko monumentu oiren aurrean lagunak niri: «Ez dot tautik be ulertzen». Eta gaur-eguneko barne-arnasaz jantzitako erti orren zeresan naia, pizkat beintzat adierazo nairik nekatu nintzan; alan be, ez eustan askorik artu. Poema au irakurriaz, beste ainbeste ez ete jasoko?

Poesia, lirikua bera, adibidez, bereizi oi dute leengo literatur idatziak. Au zeñetan jarriko? Nik sozial-saillan sartuko. Olerkaria gizartean ez al da bizi; gizaseme ta emakume artean, norbera buru dala, gizarteko bat, bizi, lan, lo, alikatu, ibilli, garrazi gizartean dagiala. Dei bat, intziri bat dozu olerkia, eta leenera biurtu guraz ei gabiltz, barne daroagun kezka bat bota naiez bizi gara. Picasso'k, bere margo-lauki bitxien bitartez barruan eroian kezka bat, buruauste bat kendu nai ei eban beragandik.

Irakur ostera be poesi biok eta itzegin.

## JOSEBA MIRENA BILBAO (1964 - 1981)

Ez bizi, irakurle, gizona ezagutzen dozulakoan. Ez da olan. Leza sakona dozu gizona, berru ta kanpo; leza ao-baltza, itxura laster aldatzen dakiana. Armiña, nire jaiot-etxetik ur-samar dagoan koba zuloa da. Lekeitio'ra joateko andik igaro bear izaten genduan umetan; bildurra sartzen euskun, ezkutuz beterik iduritzen genduala. Umetxoan idurimeria!

Misterioz betea da umetxo jaiot-barria. Zer izango ete jaku biar edo etzi? Argia, motela, osasuntsua ala gexotia? Ez dakigu. Ba leiteke artista bat, olerkari bat, musikua bat naiz arotz bat izatea... Nok jakin zer, ostera? Geroak argi-erazoko dauku.

Umetxo bat jaio zan Bilbo'n. 1964'ko iraillaren 22'an; beronen gurasoak: Ebaristo Bilbao ta Miren Artetxe; anai-arrebak: Miren eta Gotzon; aitita Eulojio Artetxe, Gernika'ko euskal olerkaria. Etzan umetxo au luzaro b'zi izan, Bilbo'n bertan il zan, ba, 1981'ko azaroaren 23'an, amazapi urte egin-berri zituala. Kimu samurra, Jaunak, aingeru taldea ugaritzeko, ebagitakoa.

Ames legez jakuz gaztetako urteak. Zer emongo, zer izango ur teetan zear Joseba? Il zanean, ain zan gazte? Gexo txar batek eten eutsan bizitz-aria. Agur egin eutsan munduari, agur bere guraso ta anai-arrebai. Ixil-ixillik joan zan, aingeru egalari.

Gorako bidea artu ebanean, emen becan, zotinka geratu ziran gurasoak, anai-arrebak eta ikas-lagunak, galpen baliotsu batek biotz-zaurituta. Onako une ta momentuak ezin izaten doguz aztu. Leun-samurra izan zan Joseba'ren eriotza, azken-agurra egitea. Azaroaren 23'an il zan eta aren amak, Miren Artetxe, Abenduaren 8'an au idazten eustan: «Sarritan egon naz idazteko Josebatxu'ren egoeraz zu jakitun ipiñi naita; baiña ez dot egin orain arte. Josebatxu —zuretzat Joseba Bilbao Artetxe— poesitxure batzuk bialdu eutsuzana. zeruan dago zemendiaren 23,ren goizeko-zortzi-retatik; zeruan dagoala diñot bere bizitzan naikoa pozik bizi izan zalako, kurutzean Jesus'egaz ondo batuta egon zalako, bere gexoa zala-ta.

«Artrosia —txoko-miña— gero ta aziago joiana eukan, eta olan bere gorpuztuxoa egunetik egunera makalago egiñaz. Aspaldiko urteetan iñoren laguntza bear izan dau bere zeregin guztiak egiteko; len eskutxuekin idatzi naiz jan egiten eban; aspaldian seillotxuak albanean ipintea ba gaitz egiten jakon. Alan eta guzti ere bere burutuxoa oso argi euki eban azken gabean izan ezik: zeozter esan gura eban, baiña ez geuntson ulertzen.

Argia amatatzen doa  
gaisorik dago  
Eta ezin da ezer egin.  
Zer egin  
momentu estu onetan?

Izar bat amatau da pozetan;  
estutasunaren ondoren  
poza dator.  
Baña estatusuna zer ete da?  
Agur eta  
gero arte

«Egun batzuk ariñago, Hospitalean, berba pozgarri onek esan zituan: «Amatxu, maite nozu? Nik maite zaitut». Ostera bere au: «Jaungoikoak maite nau... Agur! Agur!» Bere arrebari ere deitu eutsan: «Miren!». «Josu», gero. «Aita», bere aurrean egoan jesuitari, «Aita Garate». Gero, argitu zanean, esan eustan: «Amatxu, amesetan legez naz, eriotzan nagoalata». Makaltxu egoan legez etxeratu egin genduan, bertan il egingo ete zan bil-durrez; oxijenu ta sueruaz, amaika-amabi egun bizi zan gure ondoan.

Lur-emote egunecan ainbeste ezagun gelditu jakuzan deitu bari-rik. Ni poztuko nintzan zu bere illetan ikusteaz beste sei apaiz, senide ta lagunon ondoan. Oso despedida pozgarria egin jakon, berak merezidu eban legez. Agur, Josebatxu, zerurarte! Bere utsuna neurri bakoa ez da iñioiz beteko. Geure etxeko poza izan da, bera etxeko kanariotxoa; naita jakin Jaunak beretzako gura izan dauala, bere gauza guztiak gogoratuz negar ta negar besterik ez dot egiten. Gogoratu zaitetz zeure otoitzetan, Miren Artetxe, ama».

*Olerkari.*—Ikasle ikastuna zan Joseba; euskal ikasle ain zu-zen. Umetan Bilbao'n Elkano kalean, R. M. Azkue Ikastolan ikasi eban; gero Gran Via'n jarraituz. Sei urteko zala, Gorkitz'en eman zituan sei urte, jaiotzetikoa eban gexotik zerbait obetuko zalakoan. Baita ohera egin be. Eri 1973-74 ikasteroa Lauro'n asi ta osotu eban, E. G. B.'ko 8'garren urtea amaitu arte. Amar urteko, ezin ibillirik gelditu zan oso-osoan. Ez eban alan be bere umore ona murriztu, ezta ikasteko gogoa be. Argia zan burut, eta gexoaldian irakurten eta idazten aldia erre oi euskun. Bakotxak doguz geure zaletasunak. Joseba'ri eder jakon olerria. Emen Zornotza'n ainbat urtetan ospatu izan dogu Olerri-Eguna 15 urtetik beerako neska-mutikoentzat; gure olerkari txikiaren lantxoak be agertzen ziran pitean bein, baita saritxoak irabazi bere. Gexo-

rik eta sari-irabazteak emondako pozaz, ekin eutsan bertso-lanak biribiltzen, eta egun baten, onako kuaderun txiki bat bialdu eus-tan olerkitxaz beteta; 26 dira guzira laburrak eta zentzunez oso-tuek. «Nire Olerkiak» dau titulua, Bilbao Artetxe'tar Joseba'k egina.

Ona olerkion tituluak: 1) *Gabonak*; 2) *Ollartxo*; 3) *Seaskan*; 4) *Bakartadea*; 5) *Itxas-argia*; 6) *Arrigorriaga*; 7) *Zer dan-goa*; 8) *Argi bat amataizen*; 9) *Askatasuna, eskubide bat*; 10) *Gure kaleetan odola*; 11) *Itxasoan ekaitza*; 12) *Aurrekua entzutean*; 13) *Gau illuna*; 14) *Izar argitsua, Jaungoikoaren aunditasuna agertzen*; 15) *Itauna airean*; 16) *Erri bat gera*; 17) *Dirua eta bere ondorenak*; 18) *Euskaldunen nortasuna*; 19) *Burgos'ko prozesua*; 20) *Egi mingoi'za*; 21) *Askatasunaren bidea galarazten*; 22) *Egiatzko zoriona*; 23) *Iñoren laguntza barik*; 24) *Suarez Bilbo'n*; 25) *Aberri Eguna-80*; 26) *Ereindako aziak fruiturik emomgo ete?*

Naiz eundaka itaun egin, naiz eundaka erantzun emon, olerkia, egiazko olerki jatorra beti dozu au: pentsamentu sakon bat, dotore adierazoa; biozkada samur bat, arin ta gozo azaldua. Oneriek labor ta txairo alkartuok dira Poesi-antoloji guztietan, dala Europa'n eta dala Asia'n, beti eder ta kilikagarri agertzen jakuzanak. Arimaren zauskada da olerkia, eta arimeak taupada txikititan agertu daroa bere barrua. Olerki luzerik ez jaku gaur atsegin; azkar bizi garean ezkeru, lan sakon ariñak asetzen gaitue.

Olaxe doguz Joseba'ren oler-lanak; gitxi besterik ez daukaz ogei lerrotik gorakoak. Orrez gainera, benetako olerkariak gaurko kezka urduri bearra dau, Joseba'k, irugartenez esan, gexorik egoala bakartadea abesten dausku, itxas-argia, Arrigorriaga, kaleko odola, dirua, Burgos'ko auzia, Suarez, askatasunaren istillua Aberri-Eguna... Zeaztasun eta zertzelada guztiokaz konturatzen jakun, ogean zetzala be.

Erlauntzatik arako ezta lez, zuk be pizkat txastatu daizun, ona emen, «Aberri Eguna-80» deritxonaren aapaldiok:

Gaur goizean jaikitzean  
kaleak utsik ikusi dodaz,  
eta pena bat sentidu dot  
biotzean.

Aberria  
tristetu da,  
ezin izan dogu  
ospatu jaialdia.

Euskalerrian  
dogun giroagaitik  
ezin izan dogu  
ondo ospatu Aberri Egunik.

Datorren urtean  
Aberri Eguna  
izango da,  
benetan!

Oian, zirkiñik egin ezinda. Gazte, amabost-amasei urte. Pazientzi aundiz Aberri Eguna nai dau aundikiro ospatu. Kaleko zarata, auzi ta izubarriakaz konturatzen da olerkari txikia.

Miñak ez dau ikaritzen. Bakotxak bera zeregiña dabe etxe-koak, ikasi, erakutsi, lan egin... eta ezin naita be momentu guztietan bere oe-buruan iñor euki. Pena emoten dautso onek. Ez dau alan be garrasirik ateraten: begiak goi, Jaunaren naia egitea jako atsegiñen: «or zear ibilli aal izango banintz —diño—, eta miñik ez baneu, orain baiño zorionsuago nintzateke; baiña bizitzari ezin dautsogu lepoa emon; ezin dogu aldatu, bizitza aldat-eko aalmena ba geunko, g'zonok ez genduan oraindik egiazko zoriona eukiko».

Eta ontan dozuz bilbotar olerkari gaztetxoaren lanak. Irar-kolakó letraz jeztea merezi eben, eta orixegaitik, damotzuet emen euren barri. Badira norbaitzuk danakaz liburu txiki bat osotu guraz dabilzanak.

## AURKIBIDEA

Berba bi	5
Edestizko eta barru-miñezko olerkia, Bizkaia'n	7
Diego Lorenzo Urkizu	37
Rafael Mikoleta	39
Juan Bautista Alzola	43
Atsegin Andia	49
Bizkaiko maite kanta	50
Agustin Basterretxea	51
Juan Antonio Mogel	55
Juan Antonio Aboititz	59
Juan Mateo Zabala	63
Aita Jose Antonio Uriarte	67
Eusebio Maria Azkue	70
Balentin Berriotxoa eta Arizti, Santua	73
Meltxor Andonegi Apaiza	77
Eustakio Madina eta Uribe	79
Felipe Arrese Beitia	80
Jose Maria Garate Gallastegi	85
Txomin Agirre	87
Migel Unamuno ta Jugo	91
R. M. Azkue	95
Arana-Goiri'tar Sabin	97
Bustintza'tar Ebaista, Klirikioño	100
Gorgonio M. Erreterria	104
On Zirilo Antzubiaga	108
Juan Bautista Eguzkitza Meabe	111
Aita Imanol Arriandiaga	114
Paul Zamarripa	117
Kepa Enbeita	122
Imanol Enbeita	128
Alejandro Bilbao, «Aita Maruri»	131
Juan Abando Urrexola	135

Zeferin Xemein Lanbarri	138
Zirilo Uribe eta Besaoitaormaetxea	142
Joseba Altuna Aldasoro	143
Goienetxea'tar Andresio	145
Basilía Bustintza Ozerin	148
Arrospide ta Basabe'tar Jon	149
Jose Mari Errazti Saratxo	152
Arrutza'tar Mikel	156
Gabirel Manterola	160
Pedro Ormaetxea Aldan, Lontzi Aba	163
Bernardo Garro, «Otxolua»	167
Bixente Etxezarraga	171
Luis Gonzalez Etxabarri	175
Jose Arregi Garaigordobil	179
Errazti'tar Karmele	180
Urkidi'tar Albontsa	184
Manu Sota Aburto	187
Nikolas Barrenetxea Uribasterra	192
Bustintza'tar Errose	194
Koskorrotza'tar Gabin	196
Sorne Untzuetza	199
Bizente Ametzaga Aresti	202
Manu Ziarsolo	205
Artetxe'tar Eulogi	209
Urkiaga'tar Estepan, «Lauaxeta»	210
Iñaki Berakoetxea Aranbarri	213
Enbeita'tar Balendin	218
Bingen Batiz	221
On Klaudio Gallastegi	225
Mateo Argintxona ta Onaindia	228
Jose Antonio Goiria	230
Aita Frantzisko Atutxa	235
Iñazio Omaetxebarria Martitegi	238
Martin Arrizubieta	240
Aita Santi Onaindia	243
Teresio Elorrieta	247
Aita Lino Akesolo	251
Azpeitiar Gotzon	255
Aurre-Apraiz	257



Sabin Enbeita Goiria	261
Eusebio Erkiaga Lastra	263
Anastasio Arrinda Albisu	267
Sabin Muniategi	271
Zubiri'tar Iñaki	275
Solozabal'dar Paulin	277
Andoni Amutxategi	281
Benjamin Manterola Uriarte	285
Augustin Zubikarai	288
Jakoba Gerrikaetxebarria Igartua	292
Angel Bidaguren	295
Aita Lon Anteaga	299
Jaime Kerexeta	303
Iñaki Goikoetxea Uriarte	306
Federiko Karlos Krutwig	308
Berriotxoa Anaia	310
Maitena Belaustegigoitia	314
Biktoriano Gandiaga	316
Alfonso Irigoien Etxebarria	319
Martzel Andrinua	321
Felix Zubiaga Legarreta	323
Gabriel Aresti Segurola	326
Mikel Zarate Lejarraga	330
Jon Gotzon Etxebarria	334
Jon Lopategi Lauzirika	336
Deunoro Sardui Enbeita	337
Sabin Berasaluze	339
Gotzon Garitaonandia	340
Luis Arostegi	342
Begoña Sardui Enbeita	345
Fermin Iraolagoitia Mendibe	349
Luis Baraiazarra	352
Joseba Imanol Etxeita	357
Antonio Bilbao Monasterio	359
Agustin Enbeita «Kepa-triki»	360
Jabier Amuriza Zarraonandia	362
Abel Muniategi	364
Juan Ramon Madariaga	365
Jon Enbeita	367

Aita Luki, Bertsolari	371
Basilio Pujana	374
Jose Mari Azpiri, Oleskari	377
Lorentzo Zugazaga	380
Maria Jesus Baraiazarra Txertudi	383
Jesus Antonio Etxezarraga	385
Manu Erzilla	387
Karlos Santisteban	388
Joseba Mirena Bilbao	391

